

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

XABIER LETEREN KANTAGINTZAREN AZTERKETA: GAIAK ETA AHOZKOTASUNA

Jon Martin-Etxebeste

DOKTOREGO TESIA

Zuzendaria

Jon Kortazar Uriarte

2021-2022 ikasturtea

ESKAINZA

Maddiri, Simeoni, Luari

Para mí, la belleza es siempre una consecuencia funcional de los demás factores y jamás debe ser anticipada en el primer término creador de la ecuación. El pensar antes en la belleza es un error.

(Oteiza, *Quousque tandem...!* 1994, 64)

Hori horrela izanik, zergatik burukatzen zen? Erdi desklasatu, erdi abenturazale, erdi ameslari horietakoa zelako agian. Ideia baten alde iharduteari on zeritzan eta haren ondorenak aplikatzen saiatzen zen. Baina, azken finean, errealitateak, bere kontradizio eta erlatibotasunekin, gainditu egiten zuen.

(Lete, *Pio Baroja bere ehunurteburuan*, 1972, 57)

Laburpena

Xabier Leteren kantagintzaren edukia eta moldea aztertzen ditu tesi honek. Poetaren autoretzako 40 kantako korpua hautatu da eta behin eta berriz jorratzen dituen gaiak identifikatu dira kualitatiboki eta kuantitatiboki: heriotza, maitasuna, natura eta nortasuna. Poetak gai haiekiko zuen ikuspuntua eta bere kantatan erabiltzen diren motiboen esanahia aztertu da. Bestalde, ahozkotasanak (eta, bereziki, bertsolaritzak) poetaren estiloan izan zuen garrantziari erreparatu zaio. Horretarako, Txirritaren formulazioekin erkatu dira bere kantak; eta bertsolaritzaren eragina handia dela ondorioztatu da.

Hitz gakoak: Ez Dok Amairu, literatura, kantagintza, tematologia, bertsolaritza.

Resumen

Esta tesis aborda la forma y el contenido de las canciones de Xabier Lete. Se ha seleccionado un corpus formado por canciones de su autoría y se han identificado los temas más recurrentes de forma cualitativa y cuantitativa: la muerte, el amor, la naturaleza y la identidad. La investigación señala el punto de vista que muestra el autor sobre estos temas y describe el significado de los motivos que utiliza. Por otra parte, se ha demostrado la importancia que tuvo la oralidad (y, sobre todo, el bertsolarismo) en su estilo mediante estudio que compara sus letras con las formulaciones del bertsolari Txirrita.

Palabras clave: Ez Dok Amairu, literatura, nueva canción, tematología, bertsolarismo.

Abstract

The present thesis focuses on the form and content of Xabier Lete's songs. A corpus of his songs has been selected and the most recurrent themes have been identified qualitatively and quantitatively: death, love, nature and identity. The research reveals the author's perspective on these themes and describes the meaning of the motifs he uses. In addition, the importance of orality (and, above all, bertsolaritza) in his style has been demonstrated through a study that compares his lyrics with the formulations of the versifier Txirrita.

Keywords: Ez Dok Amairu, literature, protest music, thematics, bertsolaritza.

AURKIBIDEA

0. Aitzinsolasa	11
Lanaren antolaketa	
Izenburuen formatuaz, ohar bat	13
Argazkiak eta irudiak	13
1. KAPITULUA: Kokapena	14
1.1 Aurrekari bibliografikoak	14
1.1.1 Hamargarren urteurrenean	14
1.1.2 Zendu berritan	17
1.1.3 Bizi zelarik	18
1.2 Helburuak	25
1.3 Justifikazioa	26
1.4 Irismena	26
1.5 Erreferentziak	28
Ohar bat	28
2. KAPITULUA: Xabier Lete eta bere (g)unea	33
2.1 Marko historikoa	34
Garai historikoaren eskema	34
Testuinguru kulturala	35
Euskal literaturaren laburpena	37
2.2 Biografia	40
2.2.1 Haurtzaroa, sendia eta Oiartzun	40
Oiartzun	43
Hezkuntza	44
2.2.2 Gaztaroa, Herrialde Katalanak	46
2.2.3 Lehen poemak, Pasaia	47
2.2.4. Leteren Ez Dok Amairu	49
2.2.5 Ez Dok Amairuren desagertzea	51
2.2.6 Lurdes Iriondo	51
Musika bizigai	51
Osasuna bizimin	52
Lana bizibide	54
2.2.7 Politika	55
2.2.8 Gaixotasuna	57
2.3 Xabier Leteren obra	61
2.3.1 Kantagintza	61
Diskoak	62
Oholtza gaineko artista	66
Musika	68
2.3.2 Antzerkia	70
Intxixu bat antzezten	71
2.3.3 Prosa	74
Telebistako kolaborazioa	76
Beste liburu batzuk	76

2.3.4 Poesia	77
Leterentzat idaztea zer den	78
Lehen aroa (1964-1978)	79
Bigarren aroa (1978-1990)	84
Hirugarren aroa (1991-2010)	85
2.3.5 Itzulpenak	88
2.3.6 Plagioa	98
2.3.7 Obren eta gertakarien kronologia	103
2.4 Kantagintza berria	105
2.4.1 Musikaren boterea	105
2.4.2 Nazioarteko eragina	106
Amerikako hegoak	107
La chanson française	109
El Setze Jutges	109
Voces Ceibes	111
2.5 Ez Dok Amairu	113
2.5.1 Partaideak	113
2.5.2 Ez Dok Amairuren sorrera	114
Izenaz	115
2.5.3 Lehen kontzertuak	116
Bi aproba eta estreinaldia	116
Kudeaketa	118
Estreinaldia	119
Lanketaren hasiera	120
Profesionalizazioa	121
2.5.4 Baga Biga Higa Sentikaria	122
Partaideak	123
Eskaleta	124
Harrera	125
2.5.5 Hausturak	126
Presio erlijiosoak	126
Interes artistikoak	127
Presio politikoak	128
Zazpiribai eta Ikimilikiliklik	129
Herri Gogoia diskoetxea	130
2.5.6 Borondatez isiltzea	131
2.6 Zentsura	133
2.7 Laburpena eta hausnarketa	138
2.8 Erreferentziak	142
3. KAPITULUA: Metodologia	150
3.1 Xabier Leteren abestien deskribapena eta azterketarako prozedura	150
3.2 Korpusa	152
3.3 Abestiak	154
3.4 Tematologia	157
3.4.1 Gaia	158
3.4.2 Motiboa	159
3.4.3 Nortasunaren gaia	160

3.4.4 Maitasuna eta heriotza	162
3.4.5 Natura	163
3.4.6 Tematizatzearen balioaz	165
3.5 Bertsolaritza	167
3.5.1 Errima, neurria eta doinua	167
3.5.2 ‘Txirritaren baratzea’	167
Grafikotasuna, enfasia eta pilaketa	168
Alderaketak	169
Irudiak	170
Oinak eta oinarriak	170
Joskera eta loturak	171
3.5.3 Komunikazio ekintza	172
3.5.4 Ahozkotasuna	178
Baliabide erretorikoak	179
Erdi-ahozkotasuna eta testu trantsizionalak	180
3.5.5 Formulak	181
3.6 Erreferentziak	183
4. KAPITULUA: Letek jorratu zituen gaiak	188
4.1 Datu kuantitatiboak	189
4.2 Maitasuna	192
4.2.1 Maitasunaren eraikuntza	192
4.2.2 Kontrakultura	194
4.2.3 Maitasun abestien sailkapena	197
Maite	200
Bihotz	201
4.2.4 Konpromiso soziala eta maitasuna	203
4.2.5 Senitarteko eta lagunekiko maitasuna	204
4.2.6 Maitasun erromantikoa	206
Pasioa	206
‘Amodio, amore’	212
Leialtasuna ardatz	215
‘Zuk badiozu’ edo gabezien eskaintza	217
4.2.7 Heriotza	219
Maitasuna galeraren beldurra da	222
4.2.8 Ondorioak	223
4.2.9 Erreferentziak	226
4.3 Heriotza	229
4.3.1 Heriotza, gau hotza	229
4.3.2 Jainkoa	230
Leteren kristautasuna	231
Letren kristautasuna	236
Sufrimenduaren zergatia	241
4.3.3 Gizakien arteko maitasuna	243
Xalbador	245
Aita	246
Lurdes	247

4.3.4 Heriotza	250
Hilko garelako, bizi	254
Hilko garelako, ez hil	255
Heriotza urrun dagoenean	257
Azken hatsa	258
4.3.5 Ondorioak	262
4.3.6 Erreferentziak	264
4.4 Natura	266
4.4.1 Sarrera	266
4.4.2 Lau elementuak	267
Lurra	267
Sua eta ura	269
Itsasoa eta haizea	271
Abereak eta piztiak	272
Gorputza	273
4.4.3 Landareria	274
Lizardi	275
Loreen purutasuna	277
Loreen sentsualitatea	280
Jardinak	282
Zuhaitzak	284
Mahatsa	285
4.4.4 Eguneko orduak	288
Egunsenti lainotsuak	290
Goiz lanpetuak	294
Arratsaldearen argiak eta itzalak	294
Gauaren begiak	296
Egunen gurpila	298
4.4.5 Ondorioak	300
4.4.6 Erreferentziak	303
4.5 Nortasunaren gatazka: lana, aberria eta nazioartea	305
4.5.1 Sarrera	305
4.5.2 Langileria	306
‘Giza aberea’	308
‘Eskeintza nire aita zenari’	313
‘Langile baten seme’	320
‘Teologia / Ideologia’	323
‘Otsoak eta Txanogorritxu’	326
‘Haur andaluz bati seaska kanta’	329
4.5.3 Aberria	333
Presioa	335
Balioak aberri	337
Euskara	338
‘Euskalerra nerea’	338
‘Haizea dator ifarraldetik’	339
‘Gauaren ordezkoko eguna’	342

‘Herri zahar hontan’	344
‘Ez dut amets handirik’	348
‘Alzateko jaun’	352
‘Nafarroa arragoa’	354
Bihozkadakin erantzun	359
4.5.4 Nazioarteko elkartasuna	362
Kuba	362
‘Cançó a Catalunya’	366
Txile	368
‘Izarren hautsa’	374
4.5.5 Ondorioak	380
4.5.6 Genero ikuspegitik, zenbait ohar	383
4.5.7 Erreferentziak	389
5. Leteren kantagintza eta bertsolaritza	392
5.1 Bertsolaritza	393
5.1.1 Bertsolaritzaren aroak	393
5.1.2 Leteren garaiko bertsolaritza	395
Antolaketa	396
5.1.3 Bertsolaritza eta Lete	396
Ondarea berreskuratzen	397
Lete bertsozalea	398
5.1.4 Bertso zaharrak musikatzea	399
5.2 Zer da bertsolaritza?	400
5.2.1 Errimak	401
5.2.2 Doinua	401
5.2.3 Neurria	401
Doinu berriak bertsogintzara ekartzea	406
5.3 Errimak eta neurriak, Leteren letretan	412
5.3.1 Errima	412
Errimen errepasoa, kantaz kanta	420
5.3.2 Neurriak	426
‘Habanera’	426
‘Seaska kanta’	427
5.4 Letren sailkapena	428
5.4.1 Metrikaren arabera	428
5.4.2 Ahozko estiloaren arabera	430
5.4.3 Ahozko kanten garapena, diskoz disko	435
5.5 Hiru adibide	437
5.5.1 ‘Langile baten seme’	437
5.5.2 ‘Gizon arruntaren koplak’	440
5.5.3 ‘Teologia, Ideologia’	442
5.5.4 Beste kantei buruzko zenbait ohar	445
5.6 Ahozkoaren indarra	447
5.6.1 Kanten aurreko azalpenak	447
5.6.2 Formulak	450
5.6.3 Berridazteaz	453
5.7 Txirritaren baratzetik Leterena	456

Grafikotasuna, enfasia eta pilaketa	456
Alderaketak	459
Irudiak	461
Oinak eta oinarriak	463
Josketa eta loturak	465
5.8 Bertsoak jartzeko ohituraz	469
5.8.1 ‘Henry Millerri eskutitza’	469
5.8.2 Kantaldietako aleak	470
5.8.3 Poemategitako bertsoak	476
5.9 Ondorioak	480
5.10 Erreferentziak	483
6. Azken hitzak	487
7. Erreferentzia bibliografikoak	496
Komunikazio pertsonalak	496
Leteren diskoak	497
Erreferentziak	498
Figurak eta taulak	522

0. Aitzinsolasa

imaginatu dezaket haur bat Landetxeko herri-baserri batean korrika. Baratzera begira. Udaberriak landareei egiten diena besteren belarrietan egitea desiratzen.

Oiartzunen jaio bazen ere, bestelako Oiartzun batean jaio zen Xabier Lete. Haur hark bertsoak entzun nahi zituenean plazara joan eta Basarri, Xalbador eta Uztapide entzuten zituen. Xabier, galtza motzetan egongo zen, liluratuta, bertsolariei begira eta lehenengo ilaratan izango ziren Lekuonatarak.

Ez ziren samurrak izan beretzat Oiartzungo eskolan eta La Sallen maisuei entzuten pasa beharreko orduak... asperdura urteak izan ziren haiek. Nork entzun dezake besterena norberak esateko hainbeste duenean? Beranduago, Tarragonara joan zen ikasketak egitera. Asko ikasi zuten bizitzaz, antzerkiaz eta literaturaz, baina ikasketak amaitu gabe itzuli zen bertatik, ideiaz kargatutako motxila batekin.

Sortzailearen patrikak bi zulo izaki, Pasaiako fabrikari borrokatu zuen altzairu artean. Giza-aheretuta sentitzen zen, ordea. Produkzioa eta sormena uztartzen saiatu zen. Bata egin bestea egin ahal izateko. Soldata liburu bihurtzen zuen hilabete amaieran, eta begietatik sartutako hizki bakoitza burutik, bihotzetik eta eskutik igaro ondoren paperera itzultzen zuen. Euskal Herriko poeta handienetako bat bihurtu zen ohartzera.

Behin, Julen Lekuonak bilera batera joan zedin proposatu zion. Sortzaile talde bat osatzen ari ziren antza, eta kantariak bazituzten arren poetak behar omen zituzten euskal kantagintzari hitzak jartzeko. Konpromiso politikoagatik ekin zion besteentzat letrak idazteari, eta laster topatu zuen bere lekua. Euskal kulturaren malefizioa puskatu nahi zuen talde hartan bizitza guztirako sorginduko zuen Lurdes ezagutu zuen.

Arzteren, Irigarayren eta Leteren letrek gorputz hartzen zuten Laboaren, Iriondoren, Lertxundiren... ahotan eta euskaldunok iruditeria eta hiztegi bateratu bat izaten hasi ginen. Modu konprometituan, zentsuraren eta zentzuaren kable estu hartan ekilibrioak eginaz, poesiak bere funtziorik behinena bete zuen garai hartan.

Segurako jaialdi batean Benito gaixotu eta Letek bere ordeko lekua bete zuen lehen aldiz. Artzek egunean bertan profetizatu zuen ahots zakar harekin sekulako arrakasta izango zuela oholza gaineko animalia hark. Hortik aurrerako pasarteak, Ez Dok Amairuren hurrengo urteak, ezagunak dira guztientzat.

Arrakastaren eztiak eta ozpinak taldea zatitu zuten gero; bitan hasieran, banakako taldetan ondoren. Lete eta Iriondo bikote bana-ezina ziren ordurako, musikan eta proiektuetan. Garai oparoak izan ziren; kanta bako bako gehiago himnoak idazteko urteak.

Bizitzako urterik korapilatsuenak etorri ziren 80. hamarkadan. Kulturak astindu bat behar zuen, eta hori postu politikoetatik egiteko eskaintza heldu zitzaion. Astindua berak jasoko zuen, ordea. Euskal Herri maitea ezin zaitut maite. Eta korapilatu zitzaion tristura hesteetan.

Oihartzun gutxiagoko urteak izan ziren hurrengoak. Bestaldean kokatu zuen gaixotasunak. Musikari eta letrei eskainitako urteak. Kanpoari baino barruari gehiago begiratzeko urteak. Elurrez bete zitzaion bizarra Bianditz abenduko egun seinalatuek janzten duten gisan. Ez zuen izutu negu hurbilak, bazekien-eta irauten duela orainak ere geroan. Horregatik iraun du eta iraungo bere ondareak gure herrian.

2018ko Oiartzungo urtekarirako idatzitako testua

Lanaren antolaketa

Lan hau bost atal nagusitan banatuta dago. Lehenengoan Xabier Leteri buruz idatzi denaren errebaso bat egiten da, hari buruzko artikulua eta liburua akademiko, eta dibulgatiboen bilketa. Ondorengo kapituluak, kantariaren biografia eta testuingurua aztertzen dira. Tartean bere obra deskribatzen da (poesia, kantagintza, antzerkia, itzulpenegintza, eta kazetaritza) eta beregan eragina izan zuten zenbait autoreren aipamenak egiten dira. Ez Dok Amairuk egindako ibilbidearen laburpen bat jaso da eta testuinguru historikoarekin txirikordatu.

Hirugarren kapituluak azterlanaren barrutia azalduko da eta kanta aztertzeko erabili den prozesua ere deskribatuko da. Lana burutzeko erabili diren metodologiak teorikoki arrazoiatuko dira. Laugarren kapituluak oiartuarren kantagintzan ohikoenak ziren gaiak zehaztuko dira eta haien azterketa osatuko da. Heriotza, Jainkoa, natura (landareria eta eguneko orduak), eta nortasunaren inguruko gatazkak behatuko dira zehazki, bere obran behin eta berriz agertzen diren elementuak batira. Kantarik kanta, non agertzen diren seinatu, elkarren ondoan jarri, eta esanahien korapiloak aztertuko dira. Gairen bat bereziki lantzen dutelako adierazgarriak diren zenbait kanta sakonki aztertuko dira kapitulu honetan.

Bosgarren kapituluak, bertsolaritzak Leteren obran eta Letek bertsolaritzan izan duen eraginaz jardungo da. Zenbait kantatan agerikoa da ahozko estiloan komunikatzeko erabakia. Ahozko estiloaren zantzuak Leteren kanta askotan topa daitezke eta haietako asko aipatuko dira zati honetan; eta, horretaz gain, lau kanta esanguratsu aukeratu dira haien azterketa egiteko. Beste zenbait kantetan, berriz, bertsolaritzatik hartutako neurriak eta errima sistemak dira nabarmentzen direnak. Horiek ere seinatu dira.

Lanaren amaieran tesi honen ondorio nagusien errebasoa egingo bada ere, bosgarren kapituluaren luzera kontuan izanik, atal bakoitzaren amaieran hari dagozkion ondorioak gehitzea erabaki da; irakurlearentzat azterketak irakurri berritan haiei buruzko gogoetak topatzea erosoagoa izango delakoan eta iritzia eta informazioa bereiztea errazagoa izango delakoan.

Izenburuen formatuaz, ohar bat

Batetik, azterketa akademikoetan komatxo arteko aipuak erabiltzea ohikoa denez; eta, bestetik, Leteren obraren azterketa den heinean, diskoak, liburuak, abestiak, poemen izenburuak, eta poema zatiak behin eta berriz aipatuko ditugunez; lizentzia txiki bat hartu dugu testua komatxoz bete ez zegokigun: normalean komatxo artean joan beharko luketen elementu batzuk (kanten, poemen eta artikuluen izenburuak) komatxo bakarrarekin izendatu dira Euskara Batuaren estilo irizpideak apur bat moldatuz. Erabakia irakurleari obraren hierarkizazio lana errazteko helburuarekin hartu da.

Aldizkarien eta liburuen izenburuak letra etzanez idatzi dira; abestiak, poemak, artikuluen izenburuak komatxo bakarrarekin; eta haien zatiak (letra) bi komatxorekin. Adibide moduan, honakoa: Letek *Zeruko Argian* idatzitako ‘Pete Seeger-en saioa Donostian’ artikuluan dionez “Pete Seegerrek ikaskintza artistikoa ezik politikoa ere egin izan ahal zuen, eta orduan erabaki zuen bera beti askatasunaren eta justiziaren alde egonen zela” (Perez-Gaztelu eta Saez de Eguilaz, 2020,128).

Argazkiak eta irudiak

Joxe Mari Iriondok elkarrizketa baten ostean Leteren hainbat argazki helarazi zizkigun. Aurkakorik adierazten ez den kasuetan hark baimendutako argazkiak dira tesia ilustratu dutenak. APAren gomendioei jarraituz, Figura izendapena jasoko dute.

1. KAPITULUA: Kokapena

1.1 Aurrekari bibliografikoak

Ez Dok Amairu maiz aztertu izan da aldez edo moldez. Kolektibo hau euskal kantagintza tradizionalaren eta modernoaren arteko zubia izan zen eta herri baten esperantzari hitz berriak asmatu zizkion (Aristi, 1985, 15). Ikerlanetan ere talde gisa aztertu da batez ere, eta ikuspuntu soziologiko eta historikotik heldu izan zaio gaiari. Ikerketa arloan, taldekideetan erreparatu izan denean, Mikel Laboaren figura gailendu da batez ere; Joxan Artzeri eta Benito Lertxundiri buruzko ikerlanak ere badaude. Leteren heriotzaren urteurrenak apur bat orekatu du protagonismoa eta haren lanari buruzko liburu kopurua ugaltu egin da.

1.1.1 Hamargarren urteurrenekoak

Azken urteetan Leteren lana aztertzen jardun du Alex Gurrutxagak eta 2020an aurkeztu zuen bere Doktorego tesia: *Xabier Leteren poetika: aldaeren azterketa eta bilakabidearen irakurketa bat*. Tesiak kritika genetikoa darabil Leteren poemek jasandako eraldaketak seinatzeko. Dударik gabe, tesi hau da autoreari buruz egin den ikerlanik sakonena. Tesi hartan oinarritutako liburua argitaratu zuen ikertzaileak urte berean: *Xabier Lete. Aberriaren poeta kantaria* (Alberdania). Leteren pentsamendu poetikoa deskodetzeko lanik egokiena da zarautzarraren hau. Leteren hiru sorkuntza faseetan zatitua dago liburua: 1965etik 1978rako faseak Letek ahozotasunarekin izan zuen lotura, Oiartzun eta poesia soziala ditu hizpide. Barnebiltzen dituen urte kopuruari eta kolektiboari keinu eginez, ‘Hamairu, eta gehiago’ izena jarri zion Gurrutxagak atal honi. Bigarren zatia, ‘Ihes beterik ez’ izeneko, 1979etik 1992ra bitartekoa da. Ziurrenik bitarte hau izan zen Leteren boladarik ilunena eta ezerosoena euskaldun askorentzat. *Urrats desbideratuak* liburua kaleratu zuen tarte honetan. Kantaria, giroaz nazkatuta, oholtzatik urrutiratu zen eta Gipuzkoako Foru Aldundian hasi zen lanean. Gaixotasunak lehen agerpena egin zuen fase honetan. Liburuaren azken zatia, 1991n hasi eta heriotzera artekoa da. Sortzeko grina itzuli zitzaion 90. hamarkadan, baina lan guztia gaixotasun kronikoak baldintzatuta egin behar izan zuen. ‘Jaso nazazu, maite’ izena du atal

honek. Gurrutzagak idazleari buruzko artikuluak argitaratzen darrai. Hala nola, *Jakin* eta *Riev* aldizkarietan.

Balea Urdina argitaletxeak *Urrats urratuak*. *Xabier Lete Gogoan* izeneko liburua kaleratu zuen. Oiartzuarraren lana ondo ezagutzen duten zenbait sortzaileri luzatu zien hari buruz saio bat idazteko gonbita. Anjel Lertxundik eta Juan Kruz Igerabidek Leteren alde espirituala aztertzen dute bertan. Lourdes Otaegik, berriz, poetarengan eragina izan zuten idazleak aipatzen ditu “Izatetik Izatera. Xabier Leteren genealogia literarioaz” lanean. Itxaro Bordak artistaren ibilbidea erreparatzen du ikuspuntu pertsonal batetik, Jon Gerediagak ‘Izarren hautsa’ poeman eta antzinako mitoak erkatzen ditu. Alex Gurrutzagak “Kaliyev eta Antigona. Ohar zenbait Xabier Leteren ikuspegi etikoaz” izeneko artikulua osatu zuen, Ainhoa Urienek naturak bere lanean duen garrantziari erreparatzen dio “Bianditz gailurraren bestaldean” izeneko lanean. Jon Martinek kantariak eguneko orduak zein esanahi zuten azaltzen du. Arantxa Urretabizkaiak Leteri egindako elkarrizketa bat transkribatzen du eta Inazio Mujikak bere (auto)biografiatik kanpo geratu ziren zenbait atal gehitzen ditu.

Ainhoa Urienek *Poesia zaurien ukendu*. *Xabier Leteren arrastoan* liburua argitaratu zuen Pamielan. Sufrimendua idazleen akuilu eta sendagai izan daitekeela defendatzen du Abadinoko filosofoak liburu honetan. Leteren *Egunsentiaren esku izoztuak* liburuak sortu zion lilura ulertzeko bidaia laburbiltzen du. Horretarako poetaren lagun izandakoei egindako elkarrizketak eta hedabideetako dokumentazio lana uztartzen ditu eta hausnarketa propioz blaitzen. Urienen lehenengo argitalpen hau izenburu bereko bere Gradu Amaierako Lanaren jarraipen literarioa da.

Lan mardula da 2020ko uztako hurrengo ere: *Zerbitzuko lanean*. *Lete kazetari*, *Lete prosagile* izenburupekoa. Elixabete Perezek eta Haizea Saez de Eguilazek osatutako bilduma jasotzen du liburuak eta Anjel Lertxundiren hitzaurrea (‘Prosa ere bikaina zuen’ izeneko). 1965 eta 2011 bitartean argitaratutako artikulua ugari daude liburuan (67 euskaraz eta 22 gaztelaniaz), egungo grafiara egokituak. *Zeruko Argia*, *Jakin*, *Euskaldunon Egunkaria*, *Hegats* eta *Erlea* aldizkarietarako; eta *Oarso*, *Oiartzun* eta *Hernani* urtekarietarako idatzitako lanek osatzen duten bilduma. Leteren dimentsio intelektuala ulertzeko ezinbesteko bilduma

da eta oiartzuarraren alderik ahaztuena berreskuratu duena. Oiartzungo Udalaren Mugarri saileko 26. alea da honakoa.

Elkar argitaletxeak *Xabier Lete Ni naiz. Antologia* kaleratu zuen bere 22 kanta eta zenbait testurekin. 2020ko udazken-neguan, poetaren heriotzaren 10. urteurrena bete zenean, hainbat liburu eta disko kaleratu ziren. Leteren omenezko emanaldiak ere ezin konta ahala egin ziren 2020an. ETBk Iban Gonzalezek zuzendutako *Ni naiz Lete* dokumentala emititu zuen abenduaren 6an. Lau urtaroen bidez harilkatu zituzten Bernardo Atxaga, Antton Valverde, Arantxa Lete eta Lourdes Otaegiren hitzak. Urriaren 9an, *Gezur eta Egia* gurea emanaldia izan zen Vitoria Eugenian, Gipuzkoako Diputazioaren ekimenez. Bertan parte hartu zuten bost pianojolek eta dozenaka poeta eta abeslarik. *Loreak eta zauriak* emanaldia ere oholtzaratu zuen sortzaile talde batek, Xabier San Sebastianen ekimenez. Joxean Goikoetxeak ondutako *Hesia urraturik* oratorio sinfoniko-korala ere aipagarria da. Leteren testu eta melodiak berreraiki eta omenaldi sentitua egiten baitu Hernaniko musikariak.

2020an Eugenio Ibarzabalek *Xabier Lete, de un tiempo, de un país* izeneko liburua kaleratu zuen Erein argitaletxean. 1978an Donostiako Herri Irratian egindako elkarrizketa bat du oinarrian eta garai hartako analisisia eta pentsamendua jasotzen ditu. Kantagintza utzi berritan, giro politikoarekin etsita zegoen garaiko gogoetak dira editoreak elkarrizketatik bildu eta transkribaturik plazaratu dituenak.

Lan akademikoen artean, Belen Oronozek 2011n defendatu zuen *Josanton Artze "Harzabal": inguruaren eragina poesiagintzan (1969-1979)* izeneko tesia. Poetaren biografiari eta haren garaiko soziopolitikari errepassoa egiten dio Oronozek eta usurbildarraren ekarpen kontrakulturala azpimarratzen du. Bere obraren kutsu experimentalaren azterketa ere egiten du tesiak.

2016an Sebastian Garcia Trujillok *Hamaika euskal literatu eta Jainkoa* liburua kaleratu zuen Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzuaren bitartez. Bertan, Leteren dimentsio espiritualak esploratzen zuen 90 orrialdetan. Autorearen testuak eta hari egindako elkarrizketan esandakoak teologiako oharrekin uztartzen ditu ikerlan interesgarri bat osatuz. Liburuak Domingo Agirre, Jean Etxepare, Nikolas Ormaetxea 'Oritxe', Jose Maria Agirre

‘Lizardi’, Jon Mirande, Jose Luis Alvarez Enparanza ‘Txillardegi’, Juan Mari Lekuona, Bitoriano Gandiaga, Gabriel Aresti eta Artze ere aztertzen ditu.

Leteren itzultzaile bokazioari buruzko ikerlanak ere kaleratu izan dira. Gotzon Egiak “Xabier Lete, itzultzaile” izeneko artikulua kaleratu zuen *Senez aldizkarian*. Bere esanetan, Leterenak itzulpen instrumentalak dira, “ikuspegi musikala gailentzen da haren itzulpenetan” (2011,43). Anjel Lertxundik Alberdaniarekin kaleratutako *Itzuliz usu begiak* liburuan (2019) ere badaude Leteren itzulpen estiloari buruzko oharrak. Biek ala biek Leteren malgutasuna eta muina bereganatzeko gaitasuna seinalatu zuten.

Gorka Aulestiak ere 1992 arteko Leteren poesia liburuen erreposoa egiten du *Escritores euskéricos contemporáneos* liburuko “*Poesía rupturista y existencialista*” atalean. Jon Mirande, Gabriel Aresti, Juan San Martin, Xabier Lete (146-164or.), Mikel Lasa eta Joxe Antton Artze dira aro hartako bere idazle hautatuak. Bernardo Atxagaren ostean, bera da Aulestiaren aukeraketako idazlerik gazteena. Leteren azken liburuaren analisiaren faltan, honela laburtzen du Aulestiak Leteren estiloa:

Comenzábamos este trabajo constatando la existencia de dos facetas en X. Lete: la del escritor cercano al realismo social iniciado por G. Aresti y la del poeta filósofo y religioso de sus últimos libros. En los dos primeros libros predominaba la denuncia acusadora, la rebeldía violenta, la ironía amarga, el tono destemplado, el humor áspero y agresivo, la búsqueda apasionada de nuevos valores. Una vez apagada esta fiebre delatadora, su poesía discurrirá por los meandros de la metafísica y el sentido religioso del ser humano. (Aulestia, 2010, 164)

1.1.2 Zendu berritan

Aurretik baziren figura espresuki aztertu zuten liburuak. Poeta zendu (2010) eta urtebetera argitaratutakoak haietako asko. Inazio Mujikak zenbait hedabidetan egin zitzaizkion elkarrizketak erabili zituen egilearen biografia osatzeko. *(Auto)biografia bat* liburuak egilearen mundu ikuskera agertzen du. Kronologikoki antolaturik dago, eta autorearen pasarteak ezagutzeko bidea irekitzen du. Zenbait kontzepturen gainean eginak zituen hausnarketak hitz lauz azalduak topa daitezke bertan. Autore berberak osatu zuen, 2012an, Leteri buruzko Bidegileak-eko liburua: *Xabier Lete. zuekin nago kantatzen*. Sail honek euskararen alde jardun zuten pertsonen biografiak argitaratzen ditu.

Euskal Idazleen Elkarteak argitaratzen duen *Hegats literatur aldizkariak* 47. alea eskaini zion 2011ean (*Xabier Lete: sortuz ta sortuz gure aukera*). Joxean Artzek, Joxe Anjel Irigarayk, Lourdes Otaegik, Joxerra Garziak, Antton Valverdek eta Xabier Mendigurenek artikulu bana kaleratu zuten bertan. Bertsolari aldizkariak *Xabier Lete gogoan* izeneko alea argitaratu zuen 2011eko udaberrian. 1999an Joxean Agirrerri eskainitako elkarrizketa bat berrargitaratu zuten bertan, Felix Zubiaren hitzak eta Beñat Gaztelumendik Antton Valverderi bertso jarrien inguruan egindako elkarrizketa ere erantsita.

Leteren poemagintza aztertzea helburu duten lanen artean Koldo Izagirreren *Elurra ikusi dut* antologia liburua aipatu behar da. Poetaren lanik distiratsuenak biltzen ditu liburu honek eta lanaren amaieran “Bederatzi puntuko bat Xabier Leteren oroiz” izeneko atala ere badakar, Izagirreren iritzia jasotzen duena.

Mari Jose Olaziregik *Modern Basque Literature* lana kaleratu zuen Renoko (AEB) unibertsitateko Center for Basque Studies-ekin. Liburuak gure literaturaren errebaso sakona egiten du, aroz aro. Letek ere badu bere txokoa bertan: *Modern Basque Literature, Twentieth and Twenty-First Centuries* deitutako hirugarren atalean poesiari buruzko errebaso sakona egiten du. Leteri buruz dio munduari zabalduzako ahots batetik ahots barrurako baterako pausoa luzatu zuela, eta bere nihilismoa eta ezkortasun sakona aipatzen ditu: “A type of cosmic melancholy afflicts him; he absurdity of existence and the nausea of senselessness torment his soul” (224 or.). Bere poesia erreflexibo, kontzeptual eta filosofikotzat jotzen du. Leteren estilo profetikoa eta dramatikoa erkatzen du Aresti eta Gandiagarenarekin eta Lasaren lanetik bereizten du bere bizitzeko egarria dela-eta.

1.1.3 Bizi zelarrik

Badira kanta zehatzei buruzko ikerlanak, adibidez, *Cien años de poesía. 53 poemas en catalán, gallego y vasco* liburuan Lourdes Otaegik 'Izarren hautsa' kantari buruz egindakoa (2007): “*Materia estelar*”. Urte batzuk lehenago, 2004an, *Egan aldizkarian* gaiari heldutakoa zen Otaegi.

Letek berak, bere poemei batasun bat emateko helburuz, argitaratu zuen 2006an Xabier Lete. *Abestitzak eta poema kantatuak* izeneko liburua¹. Bere poetikaren inguruko hausnarketa interesgarria topa daiteke bertan.

2006an Joxe Mari Iriondok (hemendik aurrera, J.M. Iriondo) Bidegileak saileko *Lourdes Iriondo (1937-2005)* liburua kaleratu zuen. Liburua baliagarri da Leteren testuingurua ezagutzeko.

2004an *Hemen* izeneko erlijio gogoetarako aldizkarian ‘Xabier Lete mintzo’ artikulua idatzi zuen Jose Mari Kortazar-ek. Leteren olerkietan kristautasunaren arrastoak seinalatzen ditu izkribu honek. Handik lau urtera argitalpen bat kaleratu zuen *Litterae vasconicae* aldizkarian; bertan, ‘Errukiaren argia. Erlijio gaia Xabier Leteren Otoitzen liburuan’ izeneko kapitulua zekarren. Autore hau da Letek kristautasunarekin izan zuen harremana ondoen dokumentatu zuena.

Amaia Iturbidek, 2000. urtean, Erein-ekin *B. Gandiaga, J.A. Artze eta X. Leteren poemagintza. Poesia tradizionalaren bidetik* izeneko liburua argitaratu zuen. Egiturari dagokionez, lehenik eta behin, hiru poeten poemagintza aztertzen du liburuak, banan-banan. Ondoren, zenbait gai hartu eta autoreen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak zerrendatu zituen. Iturbidek kronologikoki azertu zituen bere lehen lau liburuak eta Leteren eraginak garbi seinalatu zituen (Kafka, Aresti, Sartre, Camus, Kavafis, Nietzsche, Faulkner...) testuetan agertu ahala. Leteren garapen estilistikoa zeehazten du kritikariak eta bere pentsamenduaren norabidea zuzena dela frogatzeko Letek egindako iritzi artikuluetan oinarritzen da. Leteren estiloa hiru sustraitan erroturik dagoela dio: bertsolaritzan, surrealismoan eta ironia-sarkasmoan. Lehen liburutik otoitzean zebilera iruditzen zaio liburuaren autoreari (98 or. eta Gandiaga bezala heriotzak federa hurbildu zuela nabarmentzen du. Iturbidek uste du didaktikoak zirela hiru poetak, ulertuak izateko beharra sentitzen zutela eta poesia terapeutikoa zitzaizela. Hirurek bertsolaritzaren nolabaiteko eragina jaso zutela ere nabarmentzen du.

¹ Zenbaitetan, *APK* laburdura erabiliko da liburua izendatzeko.

Egan aldizkariaren 2000. urteko alean ere aipatzen da bere jarduna Mari Jose Olaziregik (123-124 or.): Ramon Saizarbitoriak hitzaldi batean Xabier Kintana, Ibon Sarasola, Arantza Urretabizkaia, Rikardo Arregi eta Lete aipatzen ditu “garaiko euskal literaturaren pobrezia eta beharrak gaurkotzeko” asmoz sortutako talde egituratu gisa.

Juan Kruz Igerabidek ‘*Dos estilos opuestos para una misma música*’ artikulua kaleratu zuen *Ínsula* aldizkariaren 623. alean. Mikel Lasaren eta Leteren estiloak konparatzen ditu. Haien estilo kontrajarriak nabarmentzen ditu artikulua. Lehena ahots berebaitaratua bada, bigarrena ahots ozeneko Grezia zaharreko *aedoa*. Bata bisturia bada, bestea mailua:

El viaje por el mundo simbólico de Mikel Lasa nos muestra claramente su actitud de recogimiento, su mirada penetrante, y la voz del silencio que se expresa como un murmullo, como un mar en eterno ritmo, inexorablemente dirigido hacia el abismo interior. Los abismos de Lete, en cambio, exactamente al revés, picos que dificultan su andar y que trata de salvar con denodado esfuerzo; la voz de Lete es la voz del trueno que trata de que las montañas, abismos al revés, se muevan y se quiten de en medio. (1998, 22)

Maribel Sanchez-ek ere argitaratu zuen Leteren poetika izeneko kapitulu bat *Gaurko poesia* liburuan (Zenbait autore, 1993). Poetaren lehen liburuen inguruko azterketa osatu zuen Labayru-rako, 1993an Autorearen biografiatxo bat egiten du kapitulu honek lehenbizi; eta, ondoren, bere poesia ikusteko modua deskribatzen duten aipuak biltzen ditu, poesiak bete beharko lituzkeen lan-pauta estetikoari buruzko iritzia jasotzen du eta bere eraginei buruz dihardu. Bere poemagintzan ohikoak diren gaien errepaso ere egiten du (Jainkoa, bortizkeria...); eta, azkenik, Letek idatzitako zenbait olerkiren antologia komentatua egiten du. Bere ustez, oiartzuarraren poemetan argi ikusten da poetak ezin duela jendartetik deskonesktaturik bizi. Bere grinak eta herriarenak bat dira.

1990. urtean kaleratu zuen Jon Kortazarrek *Euskal Literatura XX. mendean*. Bertan, Leteren lehen lanak Artzerenekin eta Irigarayrenekin multzokatu zituen bete zuten funtzioa zela eta; nazioarekiko konprometituak izateagatik, alegia. Kortazarrek Leteren ibilbidea harriduraz deskribatzen du. Bere ustez, lehen liburuan baliabide politiko soildu zuen testua eta poesia sozialari indarra emateko. Bigarren liburuan idazketa estetikoago bat duela nabarmentzen du eta tematikan ez ezik forman ere ekarpenak egiten dituela. Hirugarren lanean jauzi bat nabarmentzen du; *Urrats desbideratuak* liburuan (1981) joera esperimentalagoak bere egiten ditu batetik eta bestetik barne-biografia batetik idazten du misterioaren berri emanez. 1992an

kaleratu zuen *Bizitzaren ikurrak* liburua poemagintza simbolista eta tradizionalaren barruan kokatzen du (233-234 or.) eta Riba eta Espriúren eragina bistaratzen saiatzen da. Kortazarrek behin eta berriz aipatzen du Leteren izaera panteista.

Aurelia Arkotxak Leteren lehen poemen azterketa akademikoa egin zuen 1983an. *Xabier Lete: un poète basque sous le franquisme, une conception de la finalité du langage poétique* izeneko kaleratu zuen Iker-en. Euskal Kantagintza berriaren sorrera testuingurau zuen, lehenik, ikertzaileak; eta oiartzuarraren hitzek zuten funtzio soziala azpimarratu zuen. Hitzen hutsaltasunaren berri izan arren bere inguruneari entzungor egin ezin dion poeta bat identifikatu zuen Arkotxak eta zenbait poemaren interpretazio iraultzailea azpimarratu.

Jakin aldizkariaren bigarren aldiko 4. alean “Euskal kanta berria” izeneko ale interesgarria kaleratu zuten. Lete berak idazten du bertan (16-28 or.), Joxean Artze, G. Knörr, J. R. Beloki, Luis. Iriondo eta I. Zubizarretarekin batera. Letek kantarien konpromiso politikoa azpimarratzen du artikuluan, baina artisten independentzia ere aipatzen du, alderdi politikoen mende ez dagoen mezua ekoizten dutela matizaturaz. Izandako zailtasunak ere aipagai ditu kantariak, hala nola, zentsurak eta errepresioa, hura saihestearren kiribildutako hizkuntzak sortzen zituen gaizki-ulertuak, eta profesionalizazio ahaleginak.

Leteri buruz topatu daitekeen erreferentzia zaharrena 1966an Juan San Martinek bere poemei buruz egindako iruzkina da. *Jakin aldizkarian* argitaratutako “Lete ta Sarasola. Beste bi olerkari gazte gaurkotasunez beterik” artikuluan dionez poeta berriaren grina sozialaren eta samurtasunaren arteko orekak liluratu zuen bereziki:

Lete’k bere poeman, ezker ta eskubi salatzen ditu mundu ontako gaitzak. Golpera, anarkismo errebelatu batek eragintzen diola dirudi, baiña jarraituz, bere mintzaera aldatzen du moralistara ta gizonaregan espero du. (...)

Aregan ikusten da Aresti’ren influentzia. Baiña, bere poemari, asi goitik eta behera, batasunezko biribiltasun bat ematen jakin du. Ez dago alperrikako itzik, tarteka edozein poetak izaten dituan ezkutu illunak ere misterioz beterik izango ditu, baiña ez utsik. Orrez gaiñera, bere izkuntza, aberatsa ta bortitza da. Oiartzuko euskeraren giarra nabari zaio. Bai euskera ederra. Ene ustean, Gipuzkoan parerik gabea. Ta orrek laguntzen dio gauzak erreztasunez ta mamitsu adieraztera. Poemaren biribiltasun berbera arkitzen degu bere euskeran ere. Lete’k ez du ardurarik izkuntza nai duen eran menperatzeko.

Hona hemen Xabier Leteren inguruko artikulua eta liburuen zerrenda osatuagoa. Aurreko atalean aipamenik izan ez duten zenbait lan ere badira bertan, kronologikoki ordenatuta:

Taula 1

Lete ardatz duten ikerlanen laburpena

Urtea	Autorea / biltzailea	Argitaletxea	Izenburua
2021	Inazio Mujika	<i>Erein</i>	<i>Xabier Leteren elkarrizketak Herri Irratian (argitaragabea)</i>
2021	Joxean Goikoetxea	<i>Aztarna</i>	<i>Hesia urraturik (argitaragabea)</i>
2021	Patri Urkizu	<i>Patriurkizu.eus</i>	<i>Idazki, kantu eta psalmu. Xabier Leteren prosa eta poesiaz.</i>
2020	Zenbait autore	<i>Balea Zuria</i>	<i>Urrats urratuak liburua.</i>
2020	Ainhoa Urien	<i>Erein</i>	<i>Poesia zaurien ukendu liburua.</i>
2020	Elixabete Perez-Gaztelu eta Haizea Saez de Eguilaz	<i>Mugarri</i>	<i>Zerbitzuko lanean. Lete kazetari, Lete prosagile liburua.</i>
2020	Alex Gurrutxaga	<i>Alberdania</i>	<i>Aberriaren poeta kantaria liburua.</i>
2020	Alex Gurrutxaga	<i>EHU/UPV</i>	<i>Xabier Leteren poetika: aldaeren azterketa eta bilakabidearen irakurketa bat. Doktorego tesia</i>
2020	Juan Luis Zabala	<i>Elkar</i>	<i>Xabier Lete Ni naiz. Antologia liburua.</i>
2020	Eugenio Ibarzabal	<i>Erein</i>	<i>Xabier Lete, de un tiempo, de un país liburua.</i>
2020	Francis López de Landatxe	<i>Ttanttaka teatroa</i>	<i>Gezur eta Egia gurea emanaldia</i>
2020	Iban Gonzalez	<i>EITB. Baleuko</i>	<i>Ni naiz Lete dokumentala.</i>
2020	Joxean Goikoetxea	<i>Aztarna</i>	<i>Hesia urraturik emanaldia.</i>

2020	Xabier San Sebastian	<i>X. San Sebastian</i>	<i>Loreak eta zauriak emanaldia.</i>
2019	Anjel Lertxundi	<i>Alberdania</i>	<i>Itzuliz usu begiak</i> liburua.
2017	Koldo Izagirre	<i>Elkar</i>	<i>Elurra ikusi dut</i> liburua.
2016	Sebastian Garcia	<i>EHUko argitalpen zerbitzua</i>	<i>Hamaika euskal literato eta Jainkoa</i> liburua.
2012	Inazio Mujika	<i>Bidegileak</i>	<i>Xabier Lete. Zuekin nago kantatzen</i> liburua.
2011	Inazio Mujika	<i>Erein</i>	<i>Xabier Lete (auto)biografia bat</i> liburua.
2012	Lourdes Otaegi	<i>Center for Basque Studies</i>	<i>Basque Literary History</i> liburuko “Modern Basque Poetry” artikulua. Online .
2011	Gotzon Egia	<i>Senex aldizkaria 41</i>	“Xabier Lete, itzultzaile” artikulua.
2011	Marisa Rivas Bacaicoa	<i>Antzina</i>	Personajes: Xabier Lete
2011	Joxean Goikoetxea	<i>Hernaniko urtekaria, 18</i>	“Xabier Lete eta Hernani” artikulua.
2010	Joxe Anjel Irigaray	<i>Euskera aldizkaria</i>	“Xabier Lete oroitzen” artikulua. Online .
2010	Joxe Anjel Irigaray	<i>Egan aldizkaria</i>	“Eguntsentiaren esku izoztuak eta Xabier Leteren poetika. Zenbait iruzkin” artikulua.
2010	Gorka Aulestia	<i>Euskaltzaindia bilduma</i>	<i>Escritores euskéricos contemporáneos</i> liburua. Online .
2008	Jose Mari Kortazar	<i>Litterae vasconiae, 10</i>	“Errukiaren argia: Erlijio gaia Xabier Leteren Otoitzen liburuan” artikulua.
2007	Lourdes Otaegi	<i>Peter Lang</i>	“Xabier Lete: Materia Estelar” artikulua.
2004	Lourdes Otaegi	<i>Egan</i>	“Izarren hautsa” artikulua. Online .

2000	Amaia Iturbide	<i>Erein</i>	<i>B. Gandiaga, J. A. Artze eta X. Leteren poemagintza. Poesia tradizionalaren bidetik.</i>
1998	Juan Kruz Igerabide	<i>Insula 623</i>	<i>Dos estilos opuestos para una misma música</i> artikulua.
1993	Maribel Sanchez	<i>Labayru</i>	Leteren poetika (93-127 or)
1990	Jon Kortazar	<i>Prames</i>	<i>Euskal Literatura XX. mendean. liburua</i>
1986	Angel Zelaieta	<i>Jakin 40</i>	“Gabriel Aresti eta Xabier Lete, poeta sozialak?” artikulua .
1985	Pako Aristi	<i>Erein</i>	<i>Euskal kantagintza berria: 1961-1985</i> liburua.
1983	Arkotxa, Aurelia	<i>Iker 2</i>	Xabier Lete: un poète basque sous le franquisme, une conception de la finalité du langage poétique artikulua (155-173).
1977	Zenbait autore	<i>Jakin 4</i>	Euskal kanta berria. Online .
1966	San Martin, Juan	<i>Jakin 22</i>	“Beste bi olerkari gazte” artikulua.

1.2 Helburuak

“Pasio zahar” batetik abiatzen da ikerketa hau. Leteren katek “amaren bularra”k elikatzen gintuen garaitik habitatu dute gure etxea. Hain gertuko izanik, batzuetan ez da xamurra artista baten garrantzia dimentsionatzea. Tesi hau herrikide genuen poetaren lana hobeto ulertzeko helburuarekin hasi genuen eta baita jende gehienari oharkabean pasako zaizkion zenbait elementu seinatzeko erronkarekin ere. Hona hemen tesia egiteko emandako pausoen eta lortu nahi ziren helburuen zerrenda:

- Autorearen biografia eta testuinguru historikoa osatzea.
 - Leteri buruz idatzi diren artikulak eta liburuak sailkatzea.
 - Korpuseko testuen eta bizipenen arteko harremanak ezartzea.
 - Ez Dok Amairu kolektiboaren sorrera eta desegitea kontatzea.
 - Ez Dok Amairu nazioarteako mugimenduen baitak kokatzea.
 - Letek kolektiboan izan zuten funtzioa deskribatzea.
 - Lurdes Iriondo eta Leteren arteko harremanaren bilketan sakontzea.
- Xabier Leteren autoretzako obra kantatuaren korpusa zedarritzea.
 - Korpusaren analisi literarioa egitea.
 - Gehien errepikatzen diren gaiak identifikatzea.
 - Korpuseko kantetan gehien agertzen diren gaien azterketa egitea.
- Testuetan bertsolaritzaren eta ahozkotatasunaren markak topatzeko metodologia fintzea.
 - Korpusa bertsogintzako neurrien eta errimen arabera sailkatzea.
 - Korpusean ahozkotatasunaren arrastoak topatzea.
 - Letek bertsogintzan izan duen eragina bistaratzea.

1.3 Justifikazioa

Arrainari uraren inguruko gogoeta egitea nola kostako litzaiokeen, halaxe kosta dakiguke euskaldunoi gure ondarea ulertzea eta balioan jartzea. Leteren kantan hain zaizkigu gure eta gertuko ezen batzuetan haren sormena baloratzea ez baita erraza. Hainbeste aldiz hartu dira bere letrak aldarriztat ezen jatorrizko asmoa ez susmatzera iritsi garen. Leteren lana aztertzea euskal nortasunaren nolakotasuna aztertzea ere bada.

Tesi honek autorearen lanari balioa eman nahi lioke; esan nahia esanahira erantsi, eta ikertzailearen subjektibitatek autorearen lana berrinterpretatzeko gonbidapena luzatu.

Poeta urrun gelditzen zaien belaunaldiei hura ulertzeko gakoak eskaintzen dizkio tesi honek eta ilea urdintzen ari zaienei haienarekin bat etor daitekeen (edo ez) interpretazioa. Adina dena dela ere, Leteren testuez goatzeko beste aukera bat izan nahi luke tesiak; sehaskatik bere kantekin hazi zen ikertzaileak egindako omenaldi xumea da.

1.4 Irismena

Tesi honek sei urteko ibilbidea biltzen du. Ikertzaile eta dibulgatzaile gisa zailtzeko baliagarri izan da. Prozesu horretan hainbat kongresutan eta argitalpenetan parte hartzeko aukera izan du ikertzaileak eta horietako batzuk, eraldatu ondoren, tesi honen parte bihurtu dira.

Leteren heriotzaren hamargarren urteurrena tartean izaki, zenbait argitalpen egin ziren *Oiartzungo urtekarirako* eta *Berria egunkarirako*; baita Balea Zuria argitaletxerako ere. Bestalde, ikerlana egin ahala zenbait kongresutan izan gara: Gernika-Lumoko Museoan Ez Dok Amairuri buruzko hitzaldia prestatu genuen *Memorias de guerra proyectos de paz* kongresurako. Ikerlana, berriz, landareriari eta maitasunari buruzko poster bana eraman genuen 2019an eta 2021ean. Ahozkotasanari buruzko ernamuina Nafarroako unibertsitateak antolatutako *International Conference on Transitional Texts* kongresuan hasi zen loratzen.

Irismena ez ezik, mugak eta zailtasunak ere izan ditu ibilbideak. Abiatu eta denbora gutxira jakin zuen ikertzaileak Leteri buruzko beste tesi bat martxan zela ordurako. Gurrutxagarekin kontaktatu eta bere asmoak ezagutzeko. Gurrutxagak Leteren obra guztia aztertzeke asmoa zuela jakinarazi zuenez, autorearen liburuak baztertu eta kantuetan zentratzeke erabakia hartu zuen ikertzaileak. Gurrutxagak 2020an defendatu zuen tesia eta handik hilabete batzuetara argitaratu zuen hartan oinarritutako liburu dibulгатiboa. Bestalde, Leteren heriotzaren 10. urteurrena izan zen eta hainbat argitalpen izan dira tartean. Tesi honetan “lehen aldiz” argitaratuko ziren hainbat pasarte dagoeneko publiko dira tarte horretan. Bi faktore horiek, ordea, ura arazten ere lagundu dute aldi berean. *Off the record* jasotako zenbait informazio dagoeneko argitaratu dira eta, horrenbestez, tesi honek hainbat informazio eta iritzi zitzatzeko aukera izango du.

Koldo Mitxelena Liburutegian kontsultagai dago Xabier Lete eta Lurdes Iriondoren funtsa. Hainbat joan-etorri egin arren, oraindik ere, altxor franko dago bertan patxada gehiagoz aztertua izateko zain. Tesiaren korpusa mugatzeak tesiaren neurria doitzea ahalbidetu du. Ikerlan hau bukatuta, ordea, ikuspegi globalagoa osatzeko abagunea zabalduko da. Hurrengo urtetako erronka izango da horri ekitea.

Leteren kantagintzaren zati esanguratsuenaz aztertu du tesi honek. Etorkizunean aztertzeke geratu dira hark itzulitako kantak eta beste autoreentzat idatzitakoak; baita bere poema liburuak ere.

1.5 Erreferentziak

Ohar bat

Irakurlearen eta etorkizuneko ikertzaileen lana errazteko kapitulu bakoitzean Erreferentziak izeneko atal bana egitea hobetsi da. 7. kapituluan bateraturako dira laneko erreferentzia guztiak berriz.

Letek idatzitako artikulua gehienak Perez-Gaztelu eta Saez de Eguilaz-Perezen lanean bilduta daude; eta aipu gehienak liburu hartara lotzea erabaki da. Bi arrazoi daude horretarako, batetik gaian sakondu nahi duen etorkizuneko ikertzaileari denbora aurreztuko diolako euskarri bereko orrialdetan aurrera-atzera ibiltzeak; eta, bestetik, euskara batura ekarrita dagoenez testuak irakurterrezagoak direlako.

APA 7ko arauak diote elkarrizketen kasuan elkarrizketatua erreferentziatzea komeni dela, eta halaxe egin da. Hala ere, liburu batzuetan elkarrizketatzailearen izena jaso da parentesi artean. Azpimarratu nahi da sistema horrek zenbait editoren lana itzalean uzten duela. Esanguratsua da, esaterako, elkarrizketatan jasotako adierazpenen bitartez Inazio Mujikak osatutako *Xabier Lete. (Auto)biografia bat* liburuak tesi honetan duen presentzia; baina, zitazio sistema dela eta, merezi baino gutxiagotan bistaratuko da bere izena.

Autore baten kantagintza lantzen duen lana izanik, bere sorkuntzak behin eta berriz zititzen dira; bere 40 kanta, batez ere. Kanta horiek osatuko dute lehen eranskina eta aparte inprimatuko dira irakurleak behar duen aldiro kontsulta ditzan. Ez dira beti erreferentziatuko testuan.

Bestalde, APA7k abizen eta izen hasiera bera duen pertsonak ez bereiztea proposatzen duen arren, ikertzaileak uste du, zehazki tesi honetan, irakurlearentzat nahasgarri izan daitekeela izen zehatzik ez gehitzea. Horregatik, hizki bat gehitu du edo izen laburdurarik gabe zitzatu dira Amagoia / Alex Gurrutxaga edo Juan / Joxerra Garzia bezalako autoreen kasuan.

Argitalpen gutxi batzuetan (Gurrutxaga edo Leteren kasuan) urte berean argitaratutako lan bat baino gehiago daude. Kasu horietan, a, b, d hizkiak gehitu zaizkio datari bata bestearengandik bereizteko. Gerta daiteke, atalen baten a-rik gabeko b-ren bat agertzea. Zentzugabea dirudikeen izendapen horrek zentzua berreskuratuko du azkeneko erreferentziak (bateratuak) aurkezten direnean.

- Agirre, A. (2011). Xabier Lete gogoan. *Bertsolari aldizkaria*, 81. 35-76 or.
- Aristi, P. (2002). *Euskal kantagintza berria: 1961-1985*. Erein.
- Arkotxa, A. (1983). Xabier Lete: un poète basque sous le franquisme, une conception de la finalité du langage poétique, *Iker*, 2. 155-173 or. [Online](#).
- Artze, J. A.; Knörr, G.; Beloki, J. R.; Lete, X.; Iriondo, L.; eta Zubizarreta, I. (1977) Euskal Kanta Berria. *Jakin*, 4. 8-64 or. [Online](#).
- Aulestia, G. (2010). *Escritores euskéricos contemporáneos*. Euskaltzaindia bilduma. [Online](#).
- Claudín, V. (1981). *Canción de autor en España (apuntes para su historia)*. Júcar.
- Egia, G. (2011). Xabier Lete, itzultzaile *Senez aldizkaria*, 41. 43-82 or. https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/20110824/egia?set_language=eu
- Gartzia, S. (2016). *Hamaika euskal literato eta Jainkoa*. EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Goikoetxea, J. (2021). Hesia urraturik [Dokumentu argitaragabea].
- Goikoetxea, J. (2020). Hesia urraturik [Ikuskizuna]. Aztarna.
- Goikoetxea, J. (2011.) Xabier Lete eta Hernani. *Hernani urtekaria*, 18.106-113 or. [Online](#).
- Gonzalez, I. (2020). *Ni naiz Lete*. [Dokumentala]. Baleuko.
- Gurrutxaga, Alex.(2020a). *Xabier Leteren poetika: aldaeren azterketa eta bilakabidearen irakurketa bat*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Artxibo digitalak ikerketa irakaskuntza (ADDI) : https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/47863/TESIS_GURRUTXAGA_MUXI_KA_ALEXANDER.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Gurrutxaga, Alex (2020b). *Xabier Lete. Aberriaren poeta kantaria*. Alberdania.
- Ibarzabal, E. (2020). *Xabier Lete, de un tiempo, un país*. Erein.
- Igerabide, J. K. (1998). Dos estilos opuestos para una misma música: Mikel Lasa y Xabier Lete (1). *Ínsula*, 623. 21-22 or.
- Irigaray, J. A. (2010a). Xabier Lete oroitzen. *Euskera aldizkaria*, 55, 3. 1507-1512 or. [Online](#).
- Irigaray, J. A. (2010b). “Egunsentiaren esku izoztuak eta Xabier Leteren poetika. Zenbait iruzkin” *Egan*, 1-2. 89-107 or.
- Irigaray, J. A.; Otaegi, L.; Garzia, J.; Valverde, A. eta Mendiguren, X. (2011). Xabier Lete: sortuz ta sortuz gure aukera. *Hegats*, 47. 11-60 or. [Online](#).
- Iturbide, A. (2000). *B. Gandiaga, J. A. Artze eta X. Leteren poemagintza. Poesia tradizionalaren bidetik*. Erein.

- Izagirre, K. (2017). *Elurra ikusi dut*. Elkar.
- Kortazar, J. (2000). *Euskal Literatura XX. mendean*. Prames.
- Kortazar, J. M. (2004). Xabier Lete mintzo. *Hemen. Erljio gogoetarako aldizkaria*, (z.g.). 1-19 or. <https://vdocuments.es/xabier-lete-errukiaren-poeta.html>
- Kortazar, J. M. (2008). Errukiaren argia: Erljio gaia Xabier Leteren Otoitzen liburuan. *Litterae vasconiae*, 10. 167-198 or.
- Lertxundi, A. (2019). *Itzuliz usu begiak*. Alberdania.
- Lete, X. (1978). Xabier Leteren elkarrizketak Herri Irratian (Ed. Inazio Mujika).
- Lete, X. (2006). *Abestizak eta Poema Kantatuak*. Elkar.
- Lete, X. (2008a). *Egusentziaren esku izoztuak*. Alberdania.
- Lete, X. (2011). *(Auto)biografia bat* (Editore: Inazio Mujika). Alberdania.
- Lete, X. (2020). *Xabier Lete Ni naiz. Antologia*. Elkar.
- López de Landatxe, F. (2020/12/09). *Gezur eta egia gurea*. [Ikuskizuna] Ttanttaka.
- Mujika, I. (2012). *Xabier Lete Bergaretxe. Zuekin nago kantatzen 1944-2010 Bidegileak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Olaziregi, M. J. (2000). Begirada eta oroimena mundua erromantizatzeke. Ramon Saizarbitoriaren nobelagintza. *Egan aldizkaria*, 1-2. 121-147 or.
- Otaegi, L. (2012). Modern Basque Poetry In Olaziregi, M. J. (2012) *Basque Literary History*. Center for Basque Studies. 201-244 or. [Online](#).
- Otaegi, L. (2004). “Izarren hautsa (Xabier Lete, 1974)”. *Egan*, 2. 71-88 or. [Online](#).
- Otaegi, L. (2012). Modern Basque Poetry In Olaziregi, M. J. (2012) *Basque Literary History*. Center for Basque Studies. 521-535 or. [Online](#).
- Perez-Gaztelu, E. eta Saez de Eguilaz, H. (2020). *Zerbitzuko lanean. Lete kazetari, Lete prosagile*. Mugarri.
- Rivas, M. (2011 abendua). Personajes: Xabier Lete. *Revista Antzina*, 12. 60-65 or.
- San Martin, J. (1966). Lete ta Sarasola. Beste bi olerkari gazte gaurkotasunez beterik. *Jakin* 22, 63-74 or. [Online](#).
- Sanchez, M. (1993). Leteren poetika. In Aristondo, I. et al. (Ed.) *Gaurko poesia*. Labayru. 95-127 or.
- San Sebastian, X. (2020). *Loreak eta zauriak*. [Ikuskizuna] Alive Musika.
- Urien, A. (2020). *Poesia zurien ukendu. Xabier Leteren arrastoan*. Pamiela.

Urkizu, P. (2021) Idazki, kantu eta psalmu. Patriurkizu.eus.

<https://patriurkizu.eus/wp-content/uploads/2021/03/Idazki-kantu-eta-psalmu.pdf>

Zabala, J. L. (2020). *Xabier Lete Ni naiz. Antologia* Elkar.

Zelaieta, A. (1986). Gabriel Aresti eta Xabier Lete, poeta sozialak?. *Jakin*, 40. 129-136 or.

Zenbait autore (2020). *Urrats urratuak*. Balea Zuria.

2. KAPITULUA: Xabier Lete eta bere (g)unea

Kapitulu honen helburua Xabier Leteren biografiara hurbiltzea da. Horretarako, kantariaren haurtzaroko eta gaztaroko garai historiaren errepasso bat egingo da lehenik, gertakari esanguratsuenak bilduko dira bertan, bai nazioartean jazotako mugarriak aipatuz eta baita Euskal Herriko testuinguru kultureleakoak ere (alderdi literarioari erreparatuz, bereziki). Ondoren, Letere biografia osatuko da. Haurtzarotik hasi, idazle gisa emandako lehen pausoak azaldu, Lurdesekin izan zuen harremanera hurbildu, politikatik pasa eta gaixotasunak eraman zuen arte. Pertsona ezagutarazi ostean bere obraren deskribapena egingo da.

Ez Dok Amairu izango da kapitulu honen beste ardatza. Horretarako, Kantagintza berriak mundu mailan izan zuen oihartzuna azalduko da eta kolektiboaren sorrera, garapena eta desagerpena laburbilduko. Zentsurak sortzaile hauengan zein eragin izan zuen ere jasoko da.

2.1 Marko historikoa

Sarrera honek ez du historiaren ikuspegi oso bat kontatzeko helbururik. 60. eta 70. hamarkadako bizipenak eta argitalpenak bildu dira hurrengo lerrotan. Letek bizi izan zuen garai historikora hurbiltzea baliagarria izango da bere bizipenak eta sorkuntza ulertzeko, batez ere garai hura ezagutu ez zuten pertsonentzat. Hurrengo lerrotan Leteren gaztaroa ulertzeko zenbait zertzelada marraztuko dira pintzel lodiz. Laburpen honetan historiaren zenbait pasarte ponderatuta daude, ondoren aipatuak izango diren gaiekin duten loturaren arabera.

1936tik 1939ra Gerra Zibila izan zen Espainian. Ondoren, Diktadura ezarri zuen Francisco Francok. Oiarzungo herria gerra garaian bizi izan zuen bortizkeriak traumatizatu zegoen Lete jaio zenean (1944an) eta ohikoa zen gai politikoez hitz egiteko leihoak ixtea, badaezpada... Nazioartean, 1939tik 1945era Bigarren Mundu Gerra izan zen, beraz, gerraren presentzia eta indarkeriaren ondorioak begibistakoak izan ziren bere haurtzaroan.

Leteren gaztaroko giroa bestelakoa zen hala ere. 60. hamarkadan mundu mailan zabaldu ziren askapen unibertsalaren ideiak: 1959an Kubako Iraultza gauzatu zen eta Hego Ameriketara zabaldu ziren askapen oihartzunak. 1962an Argeliaren independentzia gertatu zen. Amerikako Estatu Batuetan, berriz, Vietnamgo gerraren aurkako mugimenduak indarra hartu zuen. 68ko maiatzeko Pariseko gertaerek ere sekulako sona izan zuten.

Garai historiaren eskema

- 1936-1939: Espainiako Gerra Zibila.
- 1939-1975: Francisco Francoren diktadura militarra.
- 1939-1945: II. Mundu Gerra.
- 1947: India eta Pakistanen independentzia. Deskolonizazioa.
- 1955-1975: Vietnamgo gerra.
- 1958-1959: ETAren sorrera
- 1960 Jose Antonio Agirre, Euskal Gobernuko lehen lehendakaria, hil zen erbestean.
- 1962: Argeliaren independentzia.

- 1962-1965: Vatikanoko II. kontzilioa.
- 1963: Gerra osteko lehen aberri eguna ospatu zen Itsasun.
- 1964: Aberri eguna ospatu zen Gernikan, lehenengoz Hegoaldean.
- 1965-1975: Vietnamgo gerraren aurkako protestak. Mugimendu hippiea.
- 1966-1969: Txinako iraultza kulturala
- 1968: ETAre lehen hildakoa (Jose Pardines).
- 1968: ETAkide baten lehen heriotza (Txabi Etxebarrieta)
- 1968: 68ko maiatza
- 1969: Oteizaren *Pietatea* apostoluen frisor aigo zen.
- 1969: 80 ikastolarik gora martxan ziren
- 1970: Burgosko prozesua
- 1973: Carrero Blanco hil zuen ETAk.
- 1975: Bi ETAkide eta FRAPOk hiru kide fusilatu zituzten.
- 1975: Franko hil zen.
- 1975-1982: Espainiako Trantsizioa
- 1977: Hauteskundeak izan ziren Espainian
- 1979: EAE Komunitate Autonomiko bihurtu zen.

Testuinguru kulturala

Ez Dok Amairuren sorrera eta eragina ulertzeko beharrezkoa da 60ko hamarkadako Euskal Herria ezagutzea: Kulturalki, 60. hamarkadan kulturaren ernamuinak agertzen hasi ziren Euskal Herrian. Ikastolak sortu ziren eta euskaltzaletasunaren aldeko mugimendua txoko guztietara hedatzen ari zela zirudien. Arteari zegokionez, Jorge Oteiza (1908-2003) *Quousque tandem...* liburua idazten ari zen. Gaur, Danok, Emen eta Orain taldeak artikulatu zituen eta Euskal Eskola sortu zuen. Antzerki taldeak pil-pilean ziren herri askotan, eta Argia dantza taldea euskal dantzen eraberritzen prozesuan sartu zen Juan Antonio Urbeltzen zuzendaritzapean. Nestor Basterretxea eta Fernando Larruquert-ek *Amalur* izeneko bertsu plazaratu zuten 1968an.

Estibalitz Ezkerrak *XX. mendeko euskal literatura* (2012, 18) liburuan jasotzen du Koldo Mitxelenak (1915-1987) Euskara Batua sortzearen prozesua gidatzen ziharduela eta 1965ean Durangoko Azoka antolatu zuela. Urte hartan bertan sortu zen Ez Dok Amairu ere.

Literaturaren alorrean, argitaletxe berriak agertu ziren: Lur (1968), Gordailu (1969), Etor (1970), Iker (1973) eta Elkar (1973) esaterako. Urte haietan kokatzen du Ezkerrak nobela sozialaren agerpena ere, Xabier Gereño (1924-2011), Txomin Peillen (1932) eta Xabier Amurizaren (1941) eskutik. Ana Urkizak Carmelo Ortiz de Elguea (1944) margolariari egindako elkarrizketan dio garai hartako errealitate artistikoa errepikagaitza izan zela:

Europako mugimendurik handiena izan zen. Gizartearen pentsamoldea aldatu nahi genuen. Artista bakoitzak bere lana egiten zuen, bere baitan sentitzen zuena (sakonagoa edo azalekoagoa izan), baina aldatu beharra zegoena gizartea zen. (...) alferkeria handia zegoen, edo esan dezagun ezezagutza zela. Guk arte eskolak eraikitzea nahi genuen, behe-behetik irakasten hasi, erakusketak egin... egiten genuenari zentzua eman, eta hartzaileari hel zedin lortu. (Urkiza, 2021, 49)

Musika panoramari zegokionez, berriz, bi antzindari indartsurekin akordatu beharra dago: Nemesio Etxaniz eta Mixel Labeguerie.

- Etxanizek (1899-1982) *Kanta-kantari* izeneko kantutegia argitaratu zuen 1951. urtean. Ordura arte, abesbatzetan kantatzeko doinuak, otxoteen musika eta herri kantu tradizionalak besterik ez ziren ezer argitaratu euskaraz. Euskal jatorrikoak ez ziren doinuak (tango, runba, pasodoble...) moldatzen eta euskaratzen lehena izan zen. Handik gutxira Azkoitiko Kontrapuntoak eta Bilboko Soroak bezalako dantza taldeak kantu zaharrak modu berritzailean eskaintzen hasi ziren.
- Labeguerie (1921-1980) kantagintzan ez ezik hainbat alorretan nabarmendu zen. Medikua, eta politikaria ere izan zen, *Euskal Kantagintza Berriaren aita* deitu izan zaio. Bi disko txiki eta zortzi abesti baino ez zituen grabatu, baina hori aski izan zen euskal kantagintzari bide berria irekitzeko. Konpromisoa eta lirikotasuna uztartu zituen kantuetan, gitarra soilaren laguntzaz. Pianista zen formazioz, baina Robles-Arangiztarrei entzun zien gitarraz defendatutako abesti bat eta hark ere estilo hura nahi zuela erabaki zuen (Madariaga, 2021). Eusko aberriari eta euskarari zien maitasuna argi erakusten zuten haren abestiek, eta eusko abertzaleen ahotan erruz zabaldu zen haren 'Gazteri berria' kanta. Labegueriek Brassens, eta orduko abeslari frantziar berritzaileen eragina jaso eta euskal kantagintzara ekarri zuen.

Jose Angel Irigarayk dio (2018an tesirako propio egindako elkarrizketan) Labegueriek frogatu ziela tradizioari begira egotea eta irekia egotea ez zeudela kontrajarriak; bertakoa eta unibertsa izan daitekeela artista. 60ko hamarkadaren hasieran, kantaldiz kantaldi zabaldu

ziren bere kantak eta baita 1961 eta 1963 artean grabatu zituen diskoen bidez ere. Askok ekartzen zuten disko hura kontrabandoan.

Bi diskook aro berri bat zabaldu zuten euskal kantagintzan, eta handik urte gutxitara Ez Dok Amairu taldeak hurrengo katebegia josiko zuen. Lete kantariaren esanetan (1977, 18), “Labeguerieren diskoek, batez ere lehenak, izugarrizko garrantzia izan zuten euskal kanta herrikoiairen estilo aldaketan: gitarra soilez lagunduriko kantak baitziren, ahots partikular bezain apal eta arruntez kantaturikoak, molde komertzialei zegozkien amaneramendu eta sofistikazio guztietatik urruti”. Robles-Arangiztarren jarduna ere antzindarien artean aipatu behar da. Zortzi anai-arreba zirenrobles-arangiztarrak. Lau anaiek talde bat osatzen zuten eta lau ahizpek beste bat. Arangiztarrek disko txiki bat kaleratu zuten gitarraz jotako euskal abestiekkin.

Gerora Ez Dok Amairuko partaide izango zirenek ere lehen urratsak eman zituzten urte haietan: 1964an bakarkako ibilbideari ekin zion Laboak. *Azken* (Goiztiri) izeneko diskoa grabatu zuen Baionan eta argitara ekarri. Lau kantu ziren lan horretan: ‘Amonatxo’, ‘Bereterretxen kanthoria’, ‘O Pello Pello’ eta ‘Aurtxo txikia’. Bi urte beranduago kaleratu zuen bigarrena, Ez Dok Amairuk bere bidea abiatua zuenean. Benito Lertxundik, berriz, Donostian *Artistas Noveles* sariketan bigarren saria irabazi zuen Elvis Presleyren kanta bat, ‘*Crying in the chapel*’ [Aldare aurrean negarrez] eta euskaraz abestuta.

Euskal literaturaren laburpena, 80. hamarkada arte

- 1932. *Biotz-begietan*. Xabier Lizardi.
- 1935. *Arrats beran*. Lauaxeta.
- 1953 (idatzia) 1970 (argitaratua). *Haur besoetakoa*. Jon Mirande.
- 1957, 1960: *Leturiaren egunkari ezkutua*. eta *Peru Leartzako*. Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardeg*i.
- 1962. *Elorri*. Bitoriano Gandiaga.
- 1963 *Quosque Tandem! Ensayo de interpretación estética del alma vasca*. Jorge Oteiza.
- 1964 *Harri eta Herri*. Gabriel Aresti.
- 1966. *Mindura gaur*. Juan Mari Lekuona.

- 1967. *Euskal harria*. Gabriel Aresti.
- 1968: *Elsa Scheelen*. Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*.
- **1968. *Egunetik egunera orduen gurpillean*. Xabier Lete.**
- 1969. *Egunero hasten delako*. Ramon Saizarbitoria.
- 1970. *Harrizko herri hau*. Gabriel Aresti.
- 1970. *Hunik arrats artean*. Anjel Lertxundi.
- 1971. *Poema bilduma*. Amaia Lasa eta Mikel Lasa.
- 1971. *Hitz berdeak*. Joxe Azurmendi.
- 1973. *Muga beroak*. Juan Mari Lekuona.
- 1973. *Eta sasi guztien gainetik*. Joxan Artze
- 1974. *Hiru gizon bakarka*. Bitoriano Gandiaga.
- **1974. *Bigarren poema liburua*. Xabier Lete.**
- 1975. *Panpina ustela aldizkaria* kaleratu zen.
- 1976. *100 metro*. Ramon Saizarbitoria.
- 1976. *Itsaso ahantzia*. Koldo Izagirre.
- 1977. *Uda batez Madrilen*. Bitoriano Gandiaga.
- 1978. *Etiopia*. Bernardo Atxaga.
- 1979. *Zergatik, panpox*. Arantxa Urretabizkaia.
- 1979. *Ilargiaren eskolan*. Juan Mari Lekuona.

1977tik aurrera Elixabete Ansak (2019, 20) Trantsizioaren kultura moduan definitzen duena indartu zen: Espainiar Estatuak saritutako produkzio kultural hegemonikoa, *status quo*-ren gaineko edozein kritika isilarazi zuena, nagusitu zen eta ekonomia neoliberalerantz zuzendu zen Estatuak, Margaret Thatcher, Edmund Khol, eta Ronald Reaganek mundu mailan ezarritako merkatu demokrazia bihurtzen hasi zen.

Iñaki Aldekoak *68ko belaunaldia* liburuan kontatzen du ETA bihurtu zela 60. hamarkadako nazionalismo eraberrituaren ikur. Jose Antonio Agirreren heriotzarekin EAJren aktiborik errespetatuena desagertu zen. Urte batzuk lehenago, 1952an, EKIN barne-buletin klandestino sortu zuten Julen Madariaga, Benito del Valle eta Txillardegik. 1962an egin zuten lehen biltzarra eta biltzar hura nazionalismo historikoaren eta nazionalismo berriaren arteko inflexio-gune bihurtu zela dio. ETAk hainbat biltzar izan zituen gerora. Aldekoak dio

bizi izan zituen krisialdi teoriko eta zatiketa guztien oinarrian oreka falta egon zela eta nazio arazoaren eta borroka sozialaren artean; zein borroka-frontetan jartzen zen lehentasuna zen auzia, fronte nazionalean edo sozialean (2015, 19-21).

2.2 Biografia

2.2.1 Haurtzaroa, sendia eta Oiartzun

Xabier Lete Bergaretxe Oiartzunen jaio zen 1944ko apirilaren 5ean. Edurne Bergaretxe zuen ama eta Fermin Lete aita.

Ama (Edurne Bergaretxe, 1918) Elgoibarren jaio zen eta Eibarren pasa zuen haurtzaroa. 13 urte zituenean familia Oiartzunera mudatu zen Arragua auzoan dagoen Arizabalo baserrira (Oiartzunen *Aitzola* deitura jasotzen du). Beraien baserria gerrako frontea izan zen. San Markoseko gotorlekutik tirokatzen zuten beraien etxe ingurua. Aita preso eraman zuten Iruñera (San Kristobalera) abertzale izate hutsagatik. Magisteritza ikasketak hasi zituen, baina gerra zela-eta utzi zituen. Amaren aldeko aitaita Benantzio eta anaia (Jexux) kartzelaratu egin zituzten San Kristobalgo kartzelan². Baserritik hartu eta aita-sumeak eraman zituzten gerra garaian. Amama Dolores Muguruza Bariola zuen.


Aita (Fermin Lete Olaizola, 1904) Errenteriakoa zuen. Gerra iritsi zenean 28 urte zituen eta boluntario joan zen gerrara; STVko Amaiur batailoian gudari izan zen. Bilbon atxilo hartu zuten eta hainbat kartzelatetik eta lan eremutatik pasa ondoren, epaitu eta lau urte eta erdiko kartzelaldia bete zuen Puerto de Santa Marian eta Sevillako kartzela batean Gerra Zibilak iraun zuen artean. Kartzelako kontuak present izaten ziren haien etxean, “lehioak itxita baina naturaltasunez” jarduten zuten haien inguruan Xabierren arreba Arantxak oroitzen duenez³ (2015, 11). Aitaren aldetik, Norberta Olaizola Esnaola (1875) zuen amona eta Marcial Lete Arrieta (1879) aitona.

² Ahozkotasunaz diharduen kapituluan txertatua dago gertaerari buruz idatzitako bertso sorta.

³ Haurtzaroari buruzko zati hau Inazio Mujikaren (2012) Bidegileak saileko biografian eta autore berak editatutako Xabier Leteren liburuan (auto)biografian (2011) oinarrituta dago; Arantxa Letek zuzendu eta aberastu zuen ondoren.

Figura 1

Xabier Leteren familiaren genealogia



Oiartzunen ezagutu zuen elkar gurasoek eta ezkondu ostean *Egianian* jarri ziren bizitzen, gaur egun Landetxe deitzen den zonaldean, eta han jaio eta bizi izan zen Xabier lauzpabost urte bete zituen arte. Elizalde auzoan (zentroan) kokatuta zegoen etxea, gaur egun Mendiburu 14 (Udalaren erabilera anitzeko etxea) eraikitzen ari diren lekuan.

Figura 2

Leteren lehen etxea



Oharra: Lete etxe honetan bizi izan zen lehen bost urtetan, zelaiz inguratutako paraje batean, elizatik eta plazatik oso gertu. Gaur egun etxea eraitsia dago. 2020ko argazkia, GoogleStreet-etik.

Ondoren, Donibane kaleak eta Kazkazuri kaleak bat egiten duten pasabideko kalean bizi izan ziren: Putxutxoerreka kalea deitzen zaionean. Bost ziren etxean: aita, ama, amona Norberta Olaizola (Ferminen ama), Arantxa arreba (1945) eta Xabier.

Figura 3

Leteren bigarren etxea



Oharra: Putxutxarreka kalean hazi zen Xabier Lete.

Gertuko familia zuen plazan. Zamatetan (gaur egun Amazkar taberna dagoen inguruan) bizi ziren Edurneren gurasoak: “aittitta eta amama”, izeba eta Juan Jose Bergaretxe osaba apaiza. Osaba honek liburutegi mardula zuen: *Garoa* eta *Kresala*, Baroja, Unamuno, Azorin eta Perez-Galdos, esaterako. Etxearen atzealdean amamaren etxe atzeko baratza eta oilategia zituzten eta arrautzak jasotzera, eta larrosak loratzen ikustera joaten zen (Aristi, 1985, 53). Xabierrek, haurra zela, bolada luzeak pasatzen zituen amamarenean.


Familia elizkoia eta langilea zen berea. Amak etxetik egiten zuen lan Donostiako denda baterako *cotton perlé* deritzen hari finezko galtzerdiak egiten zituen makinaz. Aitak

moldeatzaile lanak egiten zituen 13 urterekin Errenteria-Oreretako Markeze fundizioan hasi zen lanean eta Pasaiaiko Victorio Luzuriagan jarraitu zuen, jubilatuz arte (Lete, 2011).

Joan Mari eta Imanol Irigoienen familiarekin ahaidetuta daude Bergaretxetarrak. Gertuko zituzten. Altzan bizi arren Oiartzunera etortzen baitziren maiz. Aita medikua zuten eta haiek ere liburu mordoa zuten etxean.

Figura 4

Elizalde auzoko ohiko guneak



Oharra: Oiartzungo Elizalde auzoaren satellite irudia, GoogleMapsetik eratorria. Metro gutxitara bizi ziren sendiko gehienak.

Oiartzun

Garai hartan 5.000 biztanle inguru zituen Oiartzunek eta garai hartan eta giro abertzalea zen nagusi. 30eko hamarkadan herritarren %75a ordezkatzeko EAJk (Zenbait autore, 2009, 57). Oinazeak zipriztindutako herria zen hura, Frankismoaren hasiera modu gogorrean pairatu baitzuen. Izatez, Gipuzkoan fusilatu gehien dituen herria da, Hernanirekin batera. Jon Kortazar-Billelabeitiak bere tesian aipatzen duenez, bi herri horiek hobi komun bihurtzeko gune moduan hautatu zituzten Donostiatik gertu, baina aldi berean ezkutuan zeudelako (2018, 116). 1936ko gerraren ondorioz errepresioa bistakoa zen Oiartzunen *Udala informatzen*-en

aztertzen denez (Labandibar, 2019, 26-28): Urte hartan frankistak herrira sartu eta udalbatza desegin eta alkatea (Feliziano Beldarrain Agirre) eta zazpi zinegotzi (Jeronimo Ugaldebere Labandibar, Luziano Aristizabal Etxeberria, Esteban Goienetxe Arozena, Jose Ignazio Odriozola Oiartzabal, Segundo Berrondo Retegi, Manuel Irigoien Mitxelena eta Leontzio Aranburu Agirre) atxilotzeko agindua eman zuten eta azken biak eta Berrondoren seme, Joxe Mari (aita topatu ez zutelako), fusilatu egin zituzten. Bestalde, langileekn (*trabajadoreen*) *batailoiak* bertan kokatuta zeuden, *Comète* Sarea (pilotu aliatuak Erresuma Batura itzultzeko pasabidea) bertatik pasatzen zen. *Isiltzen ez den isiltasuna* liburuan dionez (Zenbait autore, 2009, 148) 190 lagun erahil zituzten Oiartzunen. Haietako asko kanposantuko hormaren aurka. 1977an Peña Ganchegi arkitektoari haiek omentzeko monumentua enkargatu zitzaion eta Manuel Lekuonaren hitzak irakur daitezke bertan: “Erriari zioten gorrotoz il zinduzten, erriaren gogoan bizi zerate”.

Arantxa Letek azpimarratzen duenez (2020an egindako kontsulta) Xabierrek Oiartzunetik harreman estua izan zuen haurtzaroan, eta baita gaztaroan ere. Gero, Lurdeseekin ezkondu zen eta Urnieta hartu zuen bizileku. Ez zuen familiarekin harremana sekula eten, eta ama gaixotu zitzairenean dezente sendotu zen berriz arrebarekiko zuen lotura. Berak dionez, “Oiartzun herriarekiko interesa eta maitasuna ez zen sekula apaldu, asko maite zuen jaioterria”

Hezkuntza

Gaztaroan bizitzea egokitu zitzaion aroan ahozketasuna bizi-bizirik zegoen herrian eta Lekuonatarren etxeak altxor horri buruz hausnarketa egiteko eta ordenatzeko aukera eman zion. Ikasketei dagokionez, eraginik nabarmenena etxetik pauso gutxitara topatu zuen, Lekuonatarren etxean. *Tiburtziren sukaldea* izan zen bere unibertsitatea (Lekuonatarren ama zen Tiburtzi). Letek berak honela gogoratzen ditu solasaldiok ‘Juan Mari Lekuona, maisu eta lagun’ izeneko kapitulu honetan:

Lekuonatarrekin jarraituz, esan behar dut nire heziketa, hizkuntzaren erritmoen ulerpena eta beste hainbat ekarri, ezin litezkeela ulertu gaztetako kontakizun, iruzkin argigarri, bertso eta kantu haiek gabe. Mundua oraindik ez zen batere handia, gerora hasi zen handia egiten, irakurtzen eta zerbait bidaiatzen hasi ginenean; gure unibertsoa ez zen zabala, baina, egunerokotasunaren esparru hertsietatik haratago, lurralde berriak eraikitze balio zuten ipuin eta kontakizunetan oinarritzen zen unibertso txiki haren hedapen mitikoa.

Lekuonatarren etxean kontaktzen ziren historien arabera, berdin izan zitezkeen mitikoak erromatarren garaietako Arditurriko meategiak, Berdabiyoren bertsetan aipatzen zen Trabuko doilorra, Oihanleku inguruetako paisaiak eta jendeak, edo Andonik eta Juan Marik Paris eta Erromatik euskarara itzulita ekarritako abestien gorabeherak. Kontakizunaren indarrez handitzen eta arretagarri bihurtzen ziren berez txikiak izan zitezkeen izaki, pertsona eta gune erreferentzial guztiak. Nik ez dakit izena duen orok baduen izanik, baina kontagarri den orok baduela entitatea, hain zuzen kontatua izanak ematen diona, hori ziur. (Lete, 2008b, 20-21)

Oiartzungo Eskolatan ikasi zuen, mojekin. Sor Maria Luisa maistrarekin, zortzi urtera arte. Ondoren, Donostiako Herrerako La Salle ikastetxean jardun zuen Batxilergoa egiten, gazi-gozo. Bere arreba, Arantxak, dio zenbait irakasle oso zorrotzak zituela (*Águila Roja* deitzen omen zioten haietako bati) eta zuzenkia jaurtitzeko sekulako gaitasuna omen zuen; beste zenbait irakaslek estimu handitan zuten Xabier. Irigarayk dio barkaezina iruditzen zaiola fraideek erabiltzen zuten biolentzia fisikoa, beldur espirituala, sexualitearen inguruko kontrol morbosoa eta euskaldun izatearen lotsa barneratuarazi zitetela (2021). Zarrauak (1991, 40) adierazi zuen eskolako oroitzapenak haren “bizitzako txarrenak” izan zirela eta bizitzaren fase hori ezabatu ahal baleza, egin egingo zukeela. Muguruzak egindako elkarrizketa batean deskribatu zituen orduko tratatu txarrak:

Te humillaban de diversas formas; detectaban tus debilidades y te sometían absolutamente a su autoridad. La situación era muy angustiada porque ante esa perpetración de abusos no tenías protección de ningún tipo. (...) Tras vivir esa experiencia surgió el primer brote de rebeldía en mí y el cuestionamiento de todo aquello. (Lete, 2010a)

Koldo Izagirrek ere ikastetxe berean ikasi zuen eta testigantza zehatzagoa egin zuen Hasier Etxeberriak elkarrizketatu zuenean (2002, 113):

Nik kartzelaldi handi bat, bederatzi urtekoa, pairatu nuen La Salleko fraideetan batxilerra egiten nuela. Sartu nintzen lehenbiziko egunean tortura ikusi nuen, eta bederatzi urtez tortura baino ez genuen hartu.

Behin haietako bat ikusi nuen herriko festetan, paisanoz, mekabuenka eta laostiaka, ez niolako berak nahi bezain arin zerbitzatzen txosna batean. Kargu hartu nion askoz arinagoak esateagatik berak zenbat jende zanpatu zuen, eta harrituarena joz “beste garai batzuk ziren” erantzunda hor konpon. Baina garai haietan, bederatzi urte genituenok torturaren kontra geunden! “Beste garai batzuk ziren”, baina orduan ere guk ez genuen torturarik nahi, eta solidarizatu egiten ginien torturatuarekin. Gogorra zen hura: makilazoak, muturrekoak, zigor sadikoak, igurtziak...

Gure heroirik handienetako bat izan zen, eta beti izango da, guztion aurrean bere osaba fraideari masaileko bat eman zion ikaslea. Espulstatu egin zuten... Hark eduki zuen kemen fisiko eta morala torturatzaileari zaplada bat emateko. Urte haiek izugarriak izan ziren, egizu kontu gure irakasleen ezizenak: El Ogro, El Pantera, El Águila... La Sallen ez genuen ikasi gezurra esaten eta beldurra pasatzen besterik.

Biolentzia fisiko hura, gero, biolentzia instituzionala bihurtu zen.

Batxilergoa 13 urterekin hasi zuen Errenteriako La Magdalena akademian. Ricardo Moreno izeneko literatur irakaslea izan zuen eta Leterengan eragin handia izan zuen hark. Irakurzaletasuna sustatu zion eta idaztera bideratu. Letek dionez, berriz: “irakasle onak izan nituenean Batxilergoan eta abar, izugarrizko pasioarekin jarraitzen nituen beraien esplikazioak, horretan ikasle ona izan nintzen, torpea baina gogoia jartzen zuena” (Lete, 2011, 29).

2.2.2 Gaztaroa, Herrialde Katalanak

Batxilergoa amaituta, Tarragonara (Herrialde Katalanak) joan zen Unibertsitate Laboralera ikasketa teknikoak egitera Espainiako Lan Ministeritzaren beka bat lortuta. Berak ordurako letretakoa zela eta literaturarekin lotutako ikasketak nahiago zituela argi zuen, baina ez zion bere buruari hautu hura egiteko zilegitasunik eman.

Figura 5

Lete, 1960an, Tarragonan



Industri Peritajea ikasten aritu zen hiru urtez, baina Mekanikako espezializazioan nota txarrak atera zituen. Tarragonako ikasketa haiek ez zituen bukatu. Horren ordeztan, literatura irakurtzen zuen eta zinemara joaten zen. Filosofiarako lehen hurbilketa bertako liburutegian egin zuen.

Bertako otxotean ere kantatu zuen. Tarragonako Irakasle eskolan ere hasi zen, baina aspertu egin zen eta hori ere ez zuen amaitu.

Figura 6

Lete Tarragonako unibertsitateako otxotean kantari



18 urterekin itzuli zen Euskal Herrira, eta Pasaia lantegi batean sartu zen, Bianchi-n, 1963an. Hango diruarekin liburuak erosten zituen: Albert Camus, Jean-Paul Sartre, François Mauriac, Teilhard de Chardin, Jacques Maritain, Lev Nikoláyevich Tolstoi, Henri-Marie Beyle Stendhal, André Gide, Pierre Ives Calvez, Charles Moeller... Tailerrean bertan lanean ari zela, lanak libre uzten zizkion tartetan poesia idazten hasi zen (Lete, 2011).

2.2.3 Lehen poemak, Pasaia

Gazte-gaztetatik izan zen irakurzalea eta segituan idazten hasi zen, poesia batez ere. Hala ere, Leteri idaztea asko kostatzen zitzaion, “izerditan” jarri ohi zela aitortzen du (Lete, 2001, 27). Luze idazteari beldurra ziola aipatzen du eta ez zela kapaz sentitzen ipuinak edo nobelak idazteko. Bestalde, bere burua nagitzat jotzen zuen eta aurretik dena idatzita dagoenaren sentipena ere bazuen. Alex Gurrutxagak tesian dio Xabier Leteren funtsean aurkitutako testuetan oinarritua, honakoa izan daitekeela gordetzen den euskarazko lehen poema argitaragabea:

Gaberdian nigatik
galdetzen baduzu,
zatoz bakardadera,
arkituko nauzu

ixillik (2020a, 62)

Figura 7

Lete, gitarra lagun, 1967an



Donostiara maiz samar joaten zen antzerkia ikustera eta zinera, bien oso zalea baitzen. Iñaki Beobide eta Ramon Saizarbitoria ezagutu zituen antzerki mundutik eta *Zeruko Argian* kolaboratzeko proposamena egin zioten 1965ean. Bidegileak saileko biografian jasotzen denez, bere orduko idazlanak “ezkonformista eta ihardukitzaile” gisan kalifikatzen dituzte orduko idazle beteranoen aldean: Inazio Eizmendi *Basarri*, Nemesio Etxaniz, Antonio Maria Labaien, Jose Artetxe...(Mujika, 2012, 8)

Bianchi-n lau urtez lan egin ostean, (1967) Iberdueron hasi zen. Ezkondu zen urtean (1968) beste lantoki batera pasatu zen eta han pasa zituen beste hiru bat urte estutasun ekonomikoek hala behartuta. 1971n, ordea, Iberdueroko bere lana utzi zuen eta sormen lanera bideratu ahal

izan zuen bere izerdia. Ez zen samurra izan, ordea, kultur sorkuntza bizibide bihurtzea. Kulturgileen profesionalizazioa kritikagai izan zen jendartean eta estutasun ekonomiko batzuk izan zituen Letek 80ko hamarkadaren aurretik.

2.2.4 Leteren Ez dok Amairu⁴

Letek orduak pasatzen zituen Lekuonatarren etxean. Ahozkotasunaren ondarea modu naturalean bereganatu zuen haiei esker. Irigarayk dio Juan Marik asko lagundu ziola eta baita Manuelek ere: “Ahozkotasunaren itsasoan sortutako norbait beti dago inpregnatua, nahi gabe errepikatzen ditu gauzak” (2018ko komunikazioa). Baina bereziki Julen Lekuona (Julian deitzen zioten garai hartan) izan zen bizitza aldatu ziona. Txikitatik ziren lagun minak.

Figura 8

Leteren lagunak



Oharra: lehen ilaran, Xabier Lete eta Julian Lekuona

⁴ Ez Dok Amairu taldeari buruzko artikulu sakonagoa dator ondoren. Honako honetan Leteren ikuspuntutik taldea zer izan zen soilik deskribatu nahi da.

Astean behin joaten zitzaion bisita Aizpuruxora kantatzera eta hitz egitera. Herrikidearen bitartez ezagutu zuen Joxean Artze 1965ean. Haiak azaldu zioten talde bat martxan jartzekotan zirela eta Donostiara bileratara joan zedin eskatu zioten. Letek bileraren aurretik ere bazekien nortzuk ziren Laboa, Lertxundi eta Iriondo, jendaurrean kantatzen entzunak zituen. Letek bere burua abertzaletzat zuelako, “konpromiso bezala”, hartu zuen taldeko partaidetza. Gerora ere bere jarduna berreskurapen lanarekin lotu zuen, eta frankismoaren urtetan herri kontzientziak eta euskal kulturaren sustapenak indartu beharra zuela sinetsita zegoen.

Ez Dok Amairu taldeko kideak aurrez aurre ezagutu zituen lehen bilera hartan. J. M. Iriondok zionez, (2018ko martxoaren 20an egindako elkarrizketa) Lete nahiko modu lotsatian jokatu zuen orduko hartan. Berak bere burua poetatzat zuen eta musikarientzat letrak egiten hasi zen.

Letek Pako Aristiri *Euskal Kantagintza Berria* liburuan kontatu zionez Joxean Artzek zeraman taldearen zuzendaritza artistikoa eta berak markatzen zuen bideari jarraitzen zion taldeak. Politikoki Joxe Anjel Irigarayk betetzen zuen funtzio hori eta taldea ideologikoki orduko ELAren bueltan kokatu zuela adierazi zuen: “abertzaletasuna, ideietan eta konportamendu pertsonaletan irekitasun bat, kutsu progre bat, bestean oso abertzalea, oso antiespainolista, gehiegi batzuetan” (1985, 38).

1966ko martxoaren 26an, Segurako jaialdian, Lertxundi gaixotu egin zen eta Lete gonbidatu zuten oholtza gainera. ‘Eta poeta’ eta ‘Lore gorrien balada’ abestiak kantatu zituen eta baita Xalbador eta Uztapideren bertso batzuk ere. Jabier Muguruzari elkarrizketa batean aitortu zionez (Lete, 2010a), funtsezkoa izan zen Lurdesen bultzada kantatzen has zedin. Jesus Mari Nuñez irakaslearekin gitarra jotzen ikasteko klaseetara joaten hasia zen Lete ordurako.

2.2.5 Ez Dok Amairuren desagertzea

Letek eta Iriondok asko sufritu zuten Ez Dok Amairu desegin zenean. Kolektiboko kideak bi proiektu ezberdinetara lerratu ziren. Zenbait (Laboa, Artzetarrak, Zabala, Zumeta) Ikimiliklik proiektuan hasi ziren; eta beste zenbait Zazpiribai taldean. Bigarrenera bildu ziren Iriondo eta Lete; baita Lertxundi, Irigaray, Valverde, Manex Pagola, Pantxoa eta Peio, Pantxika Erramuspe, Ugutz Robles-Arangiz, Iñaki Urtizberrea, Loli Ansaf eta abar. Proiektu honek hiruzpalau hilabete iraun zituen.

Bolada honetan elkarlana bereziki estua izan zen Antton Valverderekin eta Lurdes Iriondorekin; hirurek emanaldi asko egin zituzten elkarrekin. Valverde eta Julen Lekuonarekin bertso zaharrak berreskuratuz disko bat kaleratu zuen: *Bertso zaharrak* (Herri Gogoa, 1974) eta beste bat ondoren Valverderekin bakarrik: *Txirritaren bertsoak* (Herri Gogoa, 1976). Iriondok kantatu zitzaiz hainbat abestitz ere sortu zituen Letek.

2.2.6 Lurdes Iriondo

Iriondo⁵ (Donostia, 1937) Urnietako klase altuko familia bateko kide zen. Bederatzi alaba eta bi seme izan zituzten bere gurasoek. Zazpi urte zituenean joan ziren bizitzera gero bere bizigune izango zen Urnietara. Garai hartan herriak 1.600 biztanle zituen.

Musika bizigai

Soprano ahots gozoa eta sendoa zuen Iriondok. 1965eko udan Pello Errota bertsolariaren omenaldian kantatzen entzun zuen Letek estreinakoz. Gabriel Arestik *Euskal Herriaren nobia* izendapena jarri zion. Askok Joan Baez kantari amerikarrarekin parekatzen zuten. Mari Paz Urbietta donostiarraren gidaritzapean ikasi zuen kantatzen eta Donostiako Cecilio Espada irakaslearekin trebatu zen gitarjole gisa (J. M. Iriondo, 2006, 9). Santanderrekoa zen Espada. 50. hamarkadaren amaieran iritsi zen Donostiako Loiola auzora soldaduska egitera. Bandurria, gitarra eta laud klaseak ematen zituen eskola publikoetan (Miguel, 2017).

⁵ Iriondoz dihardugunean Lurdesez jardungo gara. Joxe Mari Iriondoz ari garenean J.M. laburdurak jarriko ditugu aurretik, nahasmenik ez sortzeko.

Hasieran bere kantak idazten zituen. Joseba Zugastik ere inoiz edo behin laguntzen omen zion Iriondori letrak euskaratzen eta musika konponketak egiten. Andoaingo ikastolaren aldeko kontzertu baterako deia jaso zuen 1964an eta dozena erdi kantarekin aurkeztu zuen bere burua. Arrakastatsua izan zen bere presentzia eta Tolosan eta Vilabonan kantatu zuen segidan. 1965eko maiatzean Gazteriaren egunean kantatzeko ere eskatu zioten Aizarnakoek eta han ere ahoa bete hartz utzi zituen bertaratutakoak. Amagoia Gurrutxagak (2020) *Berrian* jasotzen duenez, J. M. Iriondok (2006, 11) Loiolako *Herri Irratian* kanta batzuk grabatzea proposatu zion. Astelehen goiz batean grabatu zituen zekizkien sei kantatatik lau eta egunean bertan jarri zituen entzungai irratian, egunean hiruzpalau aldiz. Oro har, entzuleek harrera bikaina egin zieten kanta haiei nahiz eta zenbaitek gitarra klasikoarekin –*espainiarrarekin*, alegia– jotzea kritikatu. 1965. urtetik aurrera iritsi ezin ahala kontzertu eskaintza jasotzen zituen. 1967an 170 jaialditan parte hartu zuen; kontzertu gehiegi bihotzetik eri zegoen pertsona batentzat.

Ez da erraza gaur egungo ikuspuntutik Iriondok zuen arrakasta irudikatzea. Historiak beste izen batzuk goratu ditu eta berea lausoago geratu da. Xabier Lete eta Lurdes Iriondo funtsean badira Iriondori zeruak eta lurrak eskaintzen dizkieten Espainiako diskoetxe handienetako langileen gutunak. Esaterako, Belter diskoetxeak –bestek beste, Manolo Escobar, Víctor Manuel, El Fary, Antonio Machín, eta Parchís kudeatzen zituenak– elkarlanerako proposamenak luzatzen zion eta bere buletinetan aipatzen zuen haren proiektzioa. Luis Iriondo zen “Cornisa Cantábrica”ko arduradun. Iriondok diskoetxe horrekin grabatu zuen Bartzelonan:

En el III Festival de la Canción Vasca, cuyas cuatro sesiones finales se han celebrado en San Sebastián, Bilbao, Vitoria y Pamplona, Mari-Lourdes Iriondo ha causado verdadera sensación hasta el punto de que ha sido considerada como la artista máxima que ha dado la canción vasca contemporánea. “La novia de Euskalerría” la ha llamado Aresti. “La Joan Baez del País Vasco” en una crónica de “La Voz de España” el comentarista Luis Iriondo. (...)

Mari Lourdes Iriondo, primera figura del grupo “Ez dok amairu” que está llevando a cabo una importante revisión del moderno cancionero vasco, tiene importantes proyectos entre los cuales está el de ofrecer unos recitales en Madrid y Barcelona y posiblemente en varias repúblicas Sudamericanas. Su última canción lleva la letra de un poema de Mao-Tse-Tung. (Belter, 1967)

60. hamarkadan, kolektiboari lehentasuna eman beharrean, bakarkako bideari ekin izan balio historia oso bestelakoa zatekeen.

Iriondok 14 disko kaleratu zituen guztira, 1967tik 1982ra. Azken diskoak haur-kantak dira.

Osasuna bizimin

Lete ezagutu zuenean 31 urte zituen Iriondok; Leteri hasieratik gustatu zitzaion. Hasieran ez zirudien beraien artean ezer pasako zenik, baina azkenean maitemindu egin ziren. 1968an soldadutza egitera joan zen Lete Arakako base militarra (Gasteiz ingurura). Pare bat egun lehenago, harremana hasi zuten formalki. Iriondok txikitatik bihotzeko patologia bat zuen eta ez zuen inorekin lotzerik edo ezkontzerik aurreikusten. Bihotz handiegia zen Iriondorena eta Hazparnen ebakuntza egin zion Paristik etorritako kardiologo batek. Familia txiroan jaio izan balitz ez zukeen luze biziraungo J. M. Iriondok dionez (2021).

Lete eta Iriondo elkarrekin ateratzen hasi eta bi urte ingurura ezkondu ziren. 1968ko urriaren 11n izan zen ezkontza Tolosako Izaskungo Andre Mariaren elizan. Eztei-bidaia Zuberoara egin zuten, han izan ziren hamar egunez. Bolada hartan Iriondo haurdun zegoen, baina haurra hilda jaio zen. Amagoia Gurrutxagak argitaratu zuenez (2020) Medikuek, osasuna zela-eta, sekula berriro haurrik ez izateko aholkua luzatua zioten.

Figura 9

Julian Lekuona, Iriondo, Leteren osaba eta Lete bera



J. M. Iriondok *Bidegileak* biografian dio osasun arazoak izan ez balitu, ziurrenik bere ahizpa bezala moja lanetan jardungo zukeela Kongon (2006, 02).

Lana bizibide

Ez Dok Amairun funtsezko pertsona izan zen. Batetik, bere agerpenak frogatu zuelako bakarlari gitarradunak entzuteko irrikitan zegoela euskal publikoa; eta, bestetik, lan eskerga egin zuelako. Idazkari eta diruzain lanak egin zituen; eta lan hauek sortzaile bizimoduarekin sostengaezinak bihurtu zitzaizkionean, beste emakume batek, Nekane Oiarbidek hartu zuen erreleboa. Haren eskuetan geratu zen kolektiboaren kudeaketa.

Taldea banatu zenean Zazpiribai proiektuarekin egin zuen bat Iriondok eta 1975etik aurrera, bolada batez, Lete eta Valverderekin herriz herri ibili zen kantaldiak egiten. 1978ko maiatzean eman zuen bere azken jaialdi ofiziala, Galarreta pilotalekuan. Ordurako kontzertuetako giroa aldatuta zegoen zeharo. Handik gutxira, Madrilera joan zen hil ala biziko ebakuntza egitera. Mariasun Landak *Berriarako* egindako elkarrizketan (Amaigoia Gurrutxagak jaso, 2020d) dio kantagintza uzteko motibo nagusia osasun arazoak izan zirela. Letek berak ere, *Hermes* aldizkarian egindako elkarrizketan (2002) esan zuen ebakuntzen eta intubazioen eraginez ahotsa galdu zuela. J. M. Iriondok elkarrizketa berean aipatzen du karakter handiko emakumea zela eta behin erabaki bat hartutakoan nekez egiten zuela atzera. Bere ustez, ez zuen inoiz utzitakoaren nostalgiarik sentitu. Hitza har, izar eta itzal.

Iriondo antzerkizalea eta haurzalea zen oso, eta bere bi zaletasunak batu zituen kantagintzatik aldendu zenean. Antzezlanak idatzi zituen haurrentzat eta Urnietako haurrekin lanean jardun zuen plastikako kontuekin.

Gaixotasun senda-ezinak partekatzeak bizi estilo bat finkatzea eta erabateko konplizitatea lortzea ahalbidetu zion bikoteari. Iriondok Leteren lan karga eta bisitak dosifikatzen segi zuen sasoiak lagundu zion artean.

2005eko abenduaren 27an hil zen Lurdes (68 urterekin). Hil aurretik honakoa esan omen zion: “Nekatuta nago eta ni banoa, Xabier. Baina zuk segi aurrera. Zer esan eder asko daukazu eta segi idazten Xabier” (Iriondo, 2006, 23).

Leteren azken liburuan *Neguan izan zen* izeneko zatia berari eskainia dago. Ausentziaz dihardu, oroitzapenez, galera absolutuaren sentipenez, penaz, kulpaz; baina baita bikotearen zorionaren agertokiez ere: Nafarroan pasatako udak, Italiara egindako txangoak, Mediterraneora egindako bidaiak... (Lete, 2010a).

2.2.7 Politika

Etxe abertzale batean jaio zen Lete eta bizitza guztian zehar jarrera konprometitua izan zuen politikan eta herrigintzan. Sentitzen zuen konpromiso politikoagatik hartu zuen Ez Dok Amairu taldean sartzeko erabakia. Poesia soziala idatzi zuen eta bere letrak gogor erreprimitu zituzten zentsoreek. Bere abestiak irratian jartzea debekatu zuten denbora askoan. Frankismoko debekuei aktiboki aurka egin izanak bere abertzale izaera indartu zuen eta bere figurari sinbologia gehitu zion.

Trantsizioa deitu zaionaren ostean ideologikoki birkokatze orokor bat gertatu zen euskal gizartean. Bolada horretan Lete publikoki Gernikako Estatutuaren alde mintzatu zen eta indarkeriaren aurka posizionatu zen. 1980ko maiatzaren 27an ETAREN indarkeriaren aurkako “33en manifestua” izenpetu zuen. Joxe Migel Barandiaran, Julio Caro Baroja, Koldo Mitxelena, Juan Mari Lekuona, Nestor Basterretxea, Eduardo Txillida, Gabriel Celaya eta Juan San Martinek ere sinatu zuten manifestua, besteak beste. Hona testuaren laburpen bat:

Para no entrar una vez más en el juego de la ambigüedad, (...) el objeto primero de nuestra inquietud es la violencia de todo género que ha echado raíces entre nosotros, como la más penosa consecuencia de una guerra civil que destruyó las instituciones legítimas y se prolongó en 40 años de dictadura; (...) ha habido y hay una violencia dirigida desde fuera contra la comunidad vasca, así como una incompreensión que raya en ocasiones en la demencia.

Pero no tenemos el menor reparo en afirmar que la violencia que ante todo nos preocupa es la que nace y anida entre nosotros, (...) Aquellos que pretenden imponer sus propias y violentas maneras no se oponen, muy a pesar de sus afirmaciones, a ninguna violencia institucional, sino lisa y llanamente a lo que no son sino los deseos de su propio pueblo. Nadie tiene derecho a erigirse, al igual que los antiguos sindicatos verticales y el extinguido Movimiento, en representantes de un pueblo que ya tiene sus organizaciones políticas y sindicales, a las que sostiene con su afiliación, militancia y voto. (...) Muy al contrario de la consideración que parece merecer a sus promotores, esta violencia, relanzada al amparo de las facilidades que ofrece un frágil Estado de derecho, no tendría otra consecuencia final que la de servir de elemento provocador de enemigos que volverán gustosos a aplastarnos durante decenios. No podemos creer hoy en los amaneceres que cantan ya que es preciso decir, bien alto y claro, que cualquier paso regresivo en el actual camino hacia la libertad y la democracia generaría una indiscriminada represión contra nuestro pueblo. (Zenbait autore, 1980)

Garai hartan adiskide zuen Eugenio Ibarzabalek jardun zuen gutun hura kudeatzen eta hark dio erredakzioan sumatzen dela (2016, 165) Mitxelenaren, Barojaren eta Leteren eskua.

Denboraldi batez literatura sorkuntza alboratu zuen Letek politikan jarduteko. Imanol Muruaren eskutik sartu zen politikagintzan; fede handia zuten elkarrengan. Ibarzabalek iradokitzen du diru premiak bultzatu zezakeela horretara (2020, 28). 1983an Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura sailean aritu zen, zuzendari nagusi lehenik eta sailburu (1985) ondoren:

Le observo en la Diputación vistiendo una ropa que no había llevado hasta ese momento, haciendo un esfuerzo por olvidar de algún modo su aspecto bohemio anterior, cosa que, muy a su pesar, no consiguió jamás: para los funcionarios de la Diputación seguía siendo el poeta y cantante de siempre. (Ibarzabal, 2020, 28-29)

Kultur Diputatu zela Gabriel Celaya poetaren liburutegia erosi zion eta omenaldi bat ere prestatu zion.

Korrontearen aurka igerian egin ohi zuen Letek maiz. Klase politikoarekiko kritikiko izan ostean kargu politikoa izatera pasa zen, egoera politikoaren aldaketak ardurak hartzea eskatzen zuela sinetsita. Garaiaren beharrak modu ezberdinetan interpretatu zituzten, ordea, geroz eta markatuagoak ziren bandoek. Lete gurtzetik gurutziltzatzera pasa zen jende asko eta bolada horretan asko sufritu zuen. Igerabidek gordin deskribatzen du egoera hura:

En pocos años la situación había cambiado de forma radical en ciertos aspectos (sólo en ciertos, y él lo sabía bien); las referencias ideológicas y culturales (tan claras en tiempos del franquismo) se enmarañan y se confunden de manera cruel para un artista que ha luchado junto a su pueblo, y ve que su pueblo se divide de manera radical, sin remedio y sin diálogo; muchos de aquellos a los que removi6 las entrañas y le quisieron y le aplaudieron a rabiar, son ahora sus enemigos, y no sólo enemigos políticos, sino enemigos con un arma en la mano. (1998, 21)

1985ean gaixotasun larria antzeman zioten eta gaitzak zeregin publikoak alde batera uztera behartu zuen. 1987an utzi zuen guztiz lanbide hura. EAJren bifurkazioak ere zerikusia izan zuela uste du Ibarzabalek:

Al llegar yo al Gobierno Vasco, en plena escisión del Partido Nacionalista Vasco, se le ofrece ser consejero de Cultura en el nuevo Gobierno de Ardanza, pero Lete nunca llega a responder. Se mantiene ilocalizable a lo largo de varios días (...). Al final su puesto es ocupado por otra persona, Luis Mari Bandrés, un hombre optimista por naturaleza. Xabier Lete opta por Garaikoetxea, aunque dudo que llegara a afiliarse al nuevo partido. (2016, 455)

Joxerra Garziak⁶ *Euskaldunon Egunkarian* (1991/02/10) Leteri eta Artzeri batera egindako elkarrizketan, oiartzuarrak esan zuen bere ustez gizartea gaixo zegoela; horregatik, gozamen estetikoetan eta emozioetan bilatu nahi zuela elkartzeko bidea:

Kultura aldetik, historiaren aldetik, eta hori isladatu egiten da politikan. Zer egiten du politikak? Joera txarrak areagotu, adostasunak bilatu ordez, enfrentamenduak; xamurtasunaren ordez gorrotoa, errespetoaren ordez itxurakeria. Alferrik da gaitz hori politika bidez sendatzen saiatzea. (25 or.)

2.2.8 Gaixotasuna

Irigarayk eta Letek elkarrekin egin zuten soldadutza. Iruñean jaiotakoak gogoan du orduan ere osasun “delikatua” zeukala oiartzuarrak eta egonaldiak egin zituela erietxean. Han zegoela lagunak bisitan etortzen zitzaizkion tarteka.

Figura 10

Lete soldaduskan

⁶ Hemendik aurrera, Garziaz dihardugunean Joxerra izango da aipatutakoa. Bere anaiaz jarduteko Juan gehituko diogu. Sebastian ere espresuki zehaztuko dugu, edo S. Garzia gisa laburtuko.



1985ean larritu ziren Leteren osasun arazoak, politikagintzan hastearekin batera. Hainbat pertsonak bi datuen arteko lotura ezarri izan dute. Hala jasota dago bere biografian ere:

1985ean hasi nintzen gaizki sentitzen. Ezin nuen irentsi, bota egiten nuen. Minik ez nuen, baina hor, hestegorriaren parean, traba izugarria sentitzen nuen. (...) 1989. urtean hiru hilabetez egon nintzen ingresatuta, eta une batez hiltzorian. Heste lodia kendu zidaten, infekzioak izaten nituen. Baina halako batean etxera itzuli ninduten. Eta geroztik borroka latza izan zen: ebakuntzak, elikadura-defizit oso izugarria... berrogeita bost kilotan egon izan nintzen. Eta txarrena zen gaixotasunak ez zuela izen zehatzik, ez eta etiologia ezagunik ere. (...) Gaizki, oso gaizki bizi izan nintzen hamabiren bat urtez, orain lau urte Donostiako Arantzazu erietxeko sendagile batek elikaduraren konponbidea asmatu zidan arte. Era pixka bat konplikatu batean, farmaziako janariarekin elikatuz; baina pisu normalean, eta analitika txukun batzuekin... (Lete, 2011, 139)

Hesteetako trastorno kroniko bat zuen oiartzuarrak, gaitz oso arraro bat. Urienek *Poesia, zaurien ukendu* liburuan sentikortasun handiz lantzen du Leteri gaixotasunak zer eman eta zer kendu zion. Gaur egungo jendartean maiz gorputza oztopo gisa bizi dugula dio eta harengandik ihes egiten saiatzen garela:

Hala dio, Santiago Alba Ricok *Ser o no ser (un cuerpo)* liburuan: gure bizitzen erritmoak era deigarrian egin du gora, eta abiadura horretan bizi ahal izateko gorputza traba bilakatu da. Horregatik, etengabe gorputzetik ihesi egin nahi dugu, norberaren gorputzarekin bakarka eta bitartekaririk gabe gelditzea saihesten duten merkantzia eta teknologia berriak erabilia. (...) Gosea, asperdura eta gaixotasuna, edo modu orokorrago batean esanda, oinazea eta heriotzaren gertutatsuna dira gorputzetik ihes egitea eragozten digutenak, gorputzean egonarazten gaituztenak. (2020, 27)

Gaixotasun kronikoek pertsona bere buruarekin aurrez aurre jartzera bultzatzen duela dio Urienek (2020, 29). Letek zion (2010) bere gaixotasunak eta maite zuenarenak gainontzeko

arazo asko erlatibizatuarazi zizkiola: “beste aldean” dagoela gaixo dagoen hura. Heriotzaren gertukotasunak eta ukoz betetako biziraupenak bizitzak fedea indartu zien Iriondo eta Leteri.


1989an hil edo bizi egon zen eta hiru hilabete pasa zituen ospitaleratuta. Bitarte horretan Juan Mari Lekuona lagun eta apaizari deitu zion Iriondok oliodurak eman ziezazkion. Osatu zen arren, gaixo kronikoen bizitza egin behar izan zuten biek; batzuetan indartsu eta besteetan pattal.

Gurrutxagak kontatzen du (2020a, 66) 1992-1995 bitartean ospitaleratze ugari bizi izan zituela Letek, deshidratazio eta beherakoekin, eta elikadura arazoak zeuzkala. Gaitzak eragindako bigarren konplikazio larria 1996an izan zuen. Bi arteria iliako eta femoralen enbolia jasan zuen; premiazko bi *by-pass* egin zizkioten, eta ordutik aurrera elikadura arazo larriak jasan zituen,

‘200 urtez bertsoan’ bilduma amaitu zuenean ZIUn ospitaleratu behar izan zutela, 48 kg-ko pisuarekin. Gastrostomia bat egin zioten, eta horrekin gaixotasuna egonkortzea lortu zuten. Egonkortzea estabilitatea ekarri zion Leteri, baina, edonola ere, bizpahiru eguneko lau bat ospitaleratze izaten zituen urtean, prebentzio modura, elikadura, odola eta burdina emateko. (2020a, 66)

Figura 11

Lete, Nafarroan



Gaixotasunak bizitzen uzten ez bazion ere, bizitzea baimentzen zion. Letek garesti ordaintzen zuen egindako sormen ariketa bakoitza. Kontzertuetan bere eritasunak sortzen zizkion

eragozpenei buruz hitz egin zuen Urienekin Joxean Goikoetxeak. Hark kontatzen du “tripek gora bezala egiten ziotela, (...) eta abesteko postura egokiaren bila hasten zela”. “Horrela imajinatu dut Lete berrehun urtean zehar asmatutako bertsoak abesten, batez ere ahotsak dardara egiten dion momentuetan, listua tragatu eta ahal bezala larritasunari eusten” (Urien, 2020, 81).

Felix Zubia medikuak hartu zuen bere kasuaren ardura eta harreman hartatik kantariaren eta bertsolariaren arteko laguntasun handia sortu zuen. Zarautarrak ‘Xabier Leteren obra, gaixotasunaren ikuspegitik’ izeneko hitzaldia eskaini zuen Arantzazun eta Urienek liburuan jasota ditu zenbait pasarte:

Gaixotasunak zerbaiterako balio badu, noski badela askotan desesperatzeko, etsitzeko, depresioan sartzeko eta galtzeko; baina baita ere gaixotasunak biluztu egiten gaitu, gauza artifizialak kendu egiten dizkigu eta ispilu baten aurrean jartzen gaitu. Bizitza zertarako da? Zertarako nago hemen? Zer egiten dut nire bizitzarekin? Non nabil? (Zubia in Urien, 2020, 29)

Osasuna pattaltzen zitzaienean etxean gotortu ohi ziren, liburutegi zabalaren eta pianoaren arrimuan. Iriondoren eta Leteren zaintzaz arduratu zen Santiaga Sanchez *Santi* azken urtetan. Urienek elkarrizketa hunkigarria egin zion bere libururako. Kontatzen duenez, elizako koruan zebilen emakumea eta Iriondok lan hori proposatu zion. Leteren ospitalerako azken bidaia modu hunkigarrian dago kontatuta, bere ahotsa eta Santirena txandakatuz,

Lete gaizki sentitzen hasi zen 2010eko abenduko lehen egunetan. Santiri esan zion eraman zezala ospitalera. Dionez, sarritan egiten zuten bidaia hori. (...) Urnietatik ateratzen ari zirela, Santiri esan zion Lurdesen monolitoaren parean geratzeko. Autotik jaitsi eta tarte batez egon omen zen oroitarrari begira. Berrito abiatu eta ospitalera irtsi orduko errotondarea ailegatzean, berrito esan zion gera zedila, kotxetikirten eta mendiei begira egon nahi zuela apur batean, Bianditzi eta Aiako Harriari. (...) “muchas veces cogía el coche y se iba a Navarra a ver los colores de los árboles, sobre todo en la época de los almendros”. (...) Ospitaleko atera sartzear zela, Xabierrek buelta erdia eman eta autoan zegoen Santiren bgegirada bilatu zuen. Besoa jaso eta agur keinu bat egin zuen. Xabierrek sumatzen zuen iritsia zela bere heriotzaren ordua. (...) “Él sabía que se iba a morir, y claro, ahora me doy cuenta por qué cuando subió al coche después de mirar las montañas dijo: “como cuando Lulú”. (Urien, 2020,122-123)

2010eko abenduaren 4an, larunbatez, hil zen Lete, Bianditz gaina elurrez estalirik zela.

2.3 Xabier Leteren obra

2.3.1 Kantagintza

Kronologikoki, idazle lanetan lehenago hasi eta nabarmendu bazen ere Leteren obra zabalaren alderik ezagunena kantagintzari dagokio. Antzerkiari esker ikasi zuen agertokian kokatzen eta istorioak kontatzeko modua ere bertan landu zuen. Hala ere, Letek aitortu zuen Lartaun antzerki taldean pasako denborari baino gehiago zor ziola Lekuonatarren etxean poesiari eta beste zenbait gairi buruz hizketan egindako gaupasei (Lete, 2001, 27).

Lete poeta edo kantaria, zer ote zen gehiago, eztabaida beti izan da, baina azken batean bien erkaketak egin zuen indartsu. Leteren ustez hitzak ondo erabiliak daudenean berezko musikalitatea bereganatzen zuten (Goikoetxea, 2021, 10). Leterentzat kanta bat hiru edo lau minututan zerbait esanguratsua esateko eta emozio batzuk adierazteko ahalegina zen. Poetarentzat abesti baten zati garrantzitsuena hitzek osatzen zuten; eta abestia komunikatzeko tresna gisa ikusten zuen (Lete, 2001, 27). Hala izanik, bere letra propioak kantatzeak beste askok ez zeukaten sinesgarritasuna zemaion. Musika konposatzeko gustua ere bazuen. Bere konpositore dimentsioa gutxietsia dago, baina horrek beste ikerlan baterako emango luke.

Xabier Lete es otro gran músico y, sobre todo, el gran poeta de la canción vasca; uno de los hombres más completos. En él conjuga la valía de sus composiciones con la expresividad interpretativa que da la fuerza contenida, la ironía y el sarcasmo. (...) Canciones como Nafarroa, arragoa o Seaska kanta no se escriben todos los días; otras, como Kontrapas, son auténticos himnos que ha hecho suyos el pueblo vasco. (Ozono 1975-11 in Gurrutxaga, 2020a)

Gustu hori aipatzen du Artzek ere *Egunkariako* elkarrizketa batean: “badik halako dohai bat, doinu berriei molde eta kutsu klasikoak, usadiozkoa emateko. Ez zekiat zergatik uzten dizkion bere poemak beste bati musika ditzan. Berak egin behar likek hori” (Garzia, 1991, 25). Letek, elkarrizketa berean aipatu zuen ezberdin idazten zituela poemak eta kantuak, “teknikoki” gehienbat: “kantatu nahi duan testua egitura batean sartzen saiatuko haiz, gero errazago delako musikatzan. Baina poema bezala idatzi ditudan batzu ere musikatu izan dizkideatek, Laboak, Imanolek, Anttonek eta nik neuk ere bai. Horiekin oso pozik sentitu izan nauk beti” (Garzia, 1991).

Diskoak

Diskografia oparoa dauka Letek. Garai hartan ohi zen bezala, lau bat kantako disko laburrak kaleratu zituen lehenik; eta, beranduago, kanta haiek berak kalitate hobean grabatu eta disko luzetan kaleratu zituen. Honakoa da bere disko zerrenda:

- *Xabier Lete*. Herri Gogoa / Edigsa (EP⁷) (1968).
- *Xabier Lete*. Herri Gogoa / Edigsa (EP) (1969).
- *Lourdes Iriondo eta Xabier Lete*. Herri Gogoa (EP) (1969).
- *Xabier Lete*. Artezi (1974).
- *Bertso zaharrak* (A. Valverde eta J. Lekuonarekin). Herri Gogoa / Edigsa (1974).
- *Kantatzera noazu....* Artezi (1976).
- *Txirritaren bertsoak* (A. Valverderekin). Herri Gogoa / Edigsa (1976).
- *Xabier Lete eta Lourdes Iriondo*. Herri Gogoa / Edigsa ; 1968 eta 1969ko EPen bilduma) (1976) .
- *Lore bat, zauri bat*. Herri Gogoa (1978).
- *Eskeintza*. Elkar (1991).
- *Hurbil iragana*. Elkar (1992).
- *Berrehun urtez bertsoan*. Xenpelar, Bilintx, Elizanburu, Etxahun, Otaño, Txirrita, Basarri, Uztapide, Xalbador eta Lazkao Txiki-ren bertsoak, 7 KDtan. (2001)
- *R.M^a Rilkeren "Orduen Liburua"*. Pamiela. Littera&Musika (2004).
- *Neguan izan zen* (DVD) Pamiela (2009).
- *Xabier Lete Zuzenean. Erreterria 1999.IX.25. Azken Kontzertua*. A&M Kultur Promotora (2KDtan). (2010).

Bere izen-abizenak zeramatzan lehen disko laburra 1968an argitaratu zuen. Gontzal Agotek, euskal musikaren ataria den *Badok* webgunean, jasotzen du lehen EP hartan ahots sendo eta indartsuz mintzo zela Lete, eta umorea eta sentimendua uztartuz jarduten zuela gai sozialei buruz. Jacques Brel kantariaren tankera ere aipatzen du.. ‘Euskalerrri nerea’, ‘Eta poeta’, eta ‘Lore gorrien balada’ziren lehen laneko bere letrak eta disko horretan Federico Krutwigen

⁷ Extended play-ren akronimoa da EP. Single izateko luzeegi eta Long Play (LP) izateko laburregi ziren diskoen izendapena zen.

‘Bihotza’ poema ere musikatu zuen. Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen *Egan* literatur gehigarrian kaleratu zen poema hura lehen aldiz, 1949ko uztailan. Lehen disko hari buruzko artikulua argitaratu zuen Kepa Urrotzek *Zeruko Argian* 1968ko dagonilak (abuztuak) 25ean:


Uste dut kanta hauen letrak errealidade problematiku baten ingurua pixka bat eragiñak daudela. Alde batetik, intelektueltasunez kutsatutako ikuspegi berezia agertzen dute; bestetik, bihozkadaren indarra eta garra nabaitzen da beroietan. Sintesia zail horren linean daude osotuak eta erabiliak bere kantak. Ez dira, agian, lehengo entzutean belarritik errez sartzen diranetakoak, pentsatu beharreko adierazpenak baizik.

Gure herriko zenbait problema garrantzitsu ikuspen pertsonal batez erabiliak daude. Hori dala ta, Lete-ren letrak guztiz serioak dira, eta kantuen giroa emoziozkoa.

Doiñu aldetik berriz, letraren ganako funtziotasuna nabari da bere melodietan. Bortitzak dira, gogortasunean ederrak, apaingarri sobrakorik gabeak. Ala ta guztiz ere, zenbait kantetan antziñako euskaldun melodia batzuen ezartzearekin jokatu du Lete-k. Orrela, ‘Euskalerrri nerea’ eta ‘Lore gorrien balada’ kantetan. Eta esan genzake doiñu hauek dituala, hain zuzen, aberatsenak eta hunkigarrienak gauzak zahar eta era berean berriaren giroa beregan dutelako.

Figura 12

Xabier Leteren zenbait disko



1969an kaleratutako EPan kanta herrikoien bertsoak grabatu zituzten *Lourdes Iriondo-Xabier Lete* diskoan: ‘Aita nuen saltzaile’, ‘Peru gurea’, ‘Agota’, ‘Bost ogei urtetako’. urte berean kaleratua da *Xabier Lete* izeneko bigarren EPA. Bertan, ‘Maiteaz galdezka’, ‘Seaska kanta’, ‘Giza aberea’ eta ‘Urrilaren 28 egun’ ageri dira.

1974an argitaratu zuen bakarkako lehen lan luzea: *Xabier Lete* (Artezi). Disko horretan zeuden, ‘Ni naiz’, ‘Nafarroa arragoa’ eta ‘Seaska kanta’ abestiak. 1976an argitaratu zuen *Kantatzera noazu...* diskoa eta bi urte beranduago *Lore bat, zauri bat* izenekoa. Honakoa dio *Badok*-ek (d.g) hiru disko hauei buruz:

Bertsolaritzatik jasotako eraginez gain, Leteren musikagintzan oso presente egon dira kontu metafisiko, existentzial eta erlijiosoak. Joera hori areagotu egin zen hurrengo bi diskoetan: *Kantatzera noazu...* (Artezi, 1976) eta *Lore bat, zauri bat* (Herri Gogoa-Ots, 1978). Bi lan horietan Euskal Herriko egoerarekin lotutako afera politiko eta sozialek ez dute horrenbesteko garrantzirik; poetaren esana ezkorrago eta existentzialagoa bihurtu da. Disko horietan daude oiartzuarraren abesti ezagun asko: "Ez dut amets haundirik", Mikel Laboak ezagun egin zuen "Izarren hautsa", "Itsasoan urak haundi" (Julen Lekuonarena), "Teologia, ideologia", "Haizea dator ifarraldetik" eta Leteren abestirik kantatuena, "Xalbadorren heriotzean".

Etenaldi luze baten ondoren, 1991n, bere burua berrasmatuta, bide intimistagoa urratzeko asmoz abiatu zen. *Eskeintza* izeneko diskoa kaleratzeko Jabier Muguruza eta Karlos Jimenez integratu zituen bere bidean; gerora, baita Pascal Gaigne, Txema Garces eta Joxean Goikoetxea ere.

1992an argitaratu zuen *Hurbil Iragana*, iraganeko kanta berrituekin.

1999an Errenteria-Oreretan Kilometroen kariatara eskaini zuen kontzertua grabatu zuten, eta bere heriotzaren lehen urtemugarekin bat eginez disko formatuan argitaratu zen *Zuzenean. Errenteria 1999.IX.25. Azken kontzertua* izenburupean. Disko horren lehen zatian bere kanta kuttunen azken bertsoa jaso zen eta baita kanta berri batzuk ere. Bigarren zatian, George Brassens eta Jacques Brelen zenbait kantaren bertsoak biltzen dira. Joxean eta Karmelo Ezeiza izan zituen soinu teknikari kontzertu hartan, Ez Dok Amairuren orbitan ibilitakoak biak (Ezeiza Anaiak edo Enbor taldea izenpean taldekatuak). Ez Dok Amairu desegin zenean

soinu ekipo on bat erosi zuten eta soinuuztapen lanak txukun egiten hastea erabaki zuten (Ezeiza, 2019).

Bertsolaritzari eskainitako KD bilduma kaleratu zuen 2001ean, *Berrehun urtez bertsotan*.

Argitaratu zen azken grabazioa zuzenekoia izan zen. 2001eko abenduaren 22an osatu zuen Oiartzungo udaletxeko aretoan. Rainer Maria Rilke poetaren *Orduen liburua* liburua itzuli zuen eta poema haiekin *Gizakiaren jaikotasun erbesteratua* izeneko irakurketa musikatua eskaini zuen. Alboan izan zituen Begoña Bergaretxe, poemak alemanez errezitatzen, eta Karlos Jimenez, pianoan.

Letek baditu diskotan jaso gabeko zenbait kanta. Haietako asko aski ezagunak dira. Kantaldietan abestu zituen inoiz edo beste artistaren batek irakurri eta kantagai iruditu zitzaizkion. Gauza bategatik edo besteagatik ez zituen disko batean bildu; haietako batzuk beste kantarien grabaketan bitartez iritsi dira gugana:

- ‘Ihesa zilegi balitz’ Mikel Laboa
- ‘Berriro igo nauzu ene mendira’: Imanol Lartzabal
- ‘Haserre egon nahi nuke’: Benito Lertxundi
- ‘Mirestu beza munduak’: Antton Valverde
- ‘Iratze okre geldiak’: Imanol Larzabal
- ‘Liu-Pan mendian’: Lurdes Iriondo
- ‘Ez kanta beltza’ (‘Detroit 67’): Benito Lertxundi
- ‘Maitasunez hil’: Antton Valverde
- ‘Presoaren eskutitza’: Pantxoa eta Peio
- ‘Haurrak haunditzen doaz’: Jabier Muguruza eta Iñaki Salvador
- ‘Ixiltasuna’: Lurdes Iriondo
- ‘Mirestu beza munduak’: Antton Valverde⁸

⁸ Abestiak entzuteko klikatu estekatan: ‘Ihesa zilegi balitz’ ([entzun](#)), ‘Berriro igo nauzu ene mendira’ ([entzun](#)), ‘Haserre egon nahi nuke’ ([entzun](#)), ‘Mirestu beza munduak’ ([entzun](#)), ‘Iratze okre geldiak’ ([entzun](#)) ([entzun](#)), ‘Liu-Pan mendian’ ([entzun](#)), ‘Ez kanta beltza’ ([entzun](#)), ‘Maitasunez hil’ ([entzun](#)), ‘Presoaren eskutitza’ ([entzun](#)), ‘Haurrak haunditzen doaz’ ([entzun](#)), ‘Ixiltasuna’ ([entzun](#)), ‘Mirestu beza munduak’ ([entzun](#)).

Azkenik, badaude ez diskoetan ez liburuan (ez poema liburuetan) jasota gelditu ez ziren zenbait abesti, kantaldietan eskaini zituenak batzuk eta besteak funtseko paperen artean Gurrutxagak (2020a, 478) katalogatu zituenak:

- ‘Itsuak ezin ikusi’
- ‘Ez gera alferrik pasako’
- ‘Etzinduten zure begiek’
- ‘Pagopeko lorea’ (Arrastoa eta itzala)
- ‘Nere loaren ametsean’
- ‘Irripar batez bidean gora’
- ‘Maitaleak’
- ‘Suaren kea bezela’
- ‘Gauetz bakardadean’
- ‘Behin batez’
- ‘Uda’ (‘Tango: kaka piska bat, mesedez’)
- ‘Nun dira lengo kontuak’
- ‘Demokrazia badator eta’
- ‘Bizi nintzen. Hiltzen nintzen’
- ‘Egunsentiko enara ilunak’

Oholtza gaineko artista

Leteren debutean, Seguran kantatu ostean, Joxean Artzek bere arrakasta aurreikusi omen zuen: “Hi, Xabier, hain gaizki kantatzen duk, kriston exitoa izango duk. Hik ez duk teknikarik, hi haiz basapizti bat, Oiartzundik etorritako otso bat bezala haiz, eta hik hain gaizki kantatzen duk, hik kriston exitoa izango duk, ikusiko duk” (Lete, 2011, 41).

Leterentzat artista pertsona arrunta zen: ‘Kanta herrikoia problema bezela’ artikuluan, artistak bere izatea eta entzuleria aberasteko duen beharraz mintzo da:

Errealitatearen eta subjektuaren artean sintesi bat gertatzen ez bada,(...) ez du merezi ‘askatasuna’, ‘justizia’ eta horrelako hitz hutsak esateko bakarrik ahoa irekitzerik. (...) Badirudi kulturaren martxa guztia berek jotzen duten txilibituaren agindutara jarri behar dela. (...) Herriaren borondatea interpretatzen horretan jende bizkor asko dabil (...) baina kantariak ere herri gara. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 106-108 or.).

Letek sortzaileari esateko zerbait izatea eskatzen zion, baina baita “hori espresatzeko ahalmen poetikoa ere”: “Horrek axolatzen ez duena, baldartasunean edo ‘finalismo’ hutsean erortzen da” (119 or.). Sortzailearen eta lana jasoko duen entzuleriaren arteko harremanaz gogoeta egiten du Letek. Entzuleek euskal musikan aurrekari asko ez ezagutzeak zuzenki eragiten zuten sortzailearengan beraz. Hala ere, argi zuen artista ez zegoela herriaren momentuko gustu konkretuak betetzeko (122 or.). Ez Dok Amairu arrakastaz hiltzen hasi zen garaikoak dira artikuluko eta bistakoa da kantagintza instrumentalizatzen ari zela sumatzen zuela.

Kontzertuak emateari utzi zion, giroarekin ezeroso sentitzen hasi zenean, baina elkarrizketatan onartu zuen agertokirako erakarpina sentitzen zuela:

Ni urte batzutan hortik kanpora sentitu izan nauk sikikoki eta arrazionalki, neure buruari esan izan diot kantatzeko urteak eta tenoreak bukatu direla, orain nerea idaztea duk. Baina azkenean beti eszenariora bueltatu izan naiz, eta gainera emozio handi batekin. (Garzia, 1991)

Oholtza gaineko lana nekagarria zen eta arriskutsua ere bai. Ordaina, ordea, hutsaren hurrengoia izan ohi zen. Kantariak profesionalizatzeko beharra zuten eskariari kalitatez erantzungo bazioten, baina 1971eko artikuluan suma litekeenez gizarteak ez zuen begi onez ikusten musikari lanagatik ordaina jasotzea Letek hiru aukera planteatzen zituen: lehena, kultura salerosketa logikan sartzea; bigarren aukera, estatuak soldatapeko artistak sustatzea zen (estatu sozialistetan ohikoa); baina bi aukeratan obran eta artistarengan saldukeria eragiteko arriskua aurreikusten zuen. Hirugarren bidea euskal kulturaren produktuak zabalduz joatea zen artista bere lanetik bizi zedin (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 126).

Harekin oholtza konpartitu zutenek diote fokupean transformatu egiten zela. Pagoartek, euskal artea sustatzeko helburuarekin urte batzuetan lan andana egin zuen Oiartzungo elkarteak, besteak beste Rilkeren poemei buruzko ekitaldia antolatu zuen Leterekin. Okasio hartarako egindako argitalpenean adierazi zuen oholtza gainean jainko txiki bat bezala sentitzen zela:

Han transfiguratu bezala egiten zara, liturgia oso berezi bat ofiziatzen ari bazina bezala. (...) Gero, bukatu eta etxera joaten zarenean, erabat miserablea sentitzen zara, erabat arrunta eta normala, erabat txotxoloa eta tontoa. (Lete, 2001, 29)

Bere buruari histrionismoa aitortzen zion eta herriarekiko zerbitzu sentipena ere bai: “exhibizionismo eta banitate punta hori badut... Onerako eta txarrerako”. 2001ean, ordea, dagoeneko ez zuen jendaurrean jarduteko gogorik sentitzen. Gaixoaldiak makalduta zebilen eta halaxe aitortu zuen (Lete, 2001 29.) Iraolari egindako adierazpenetan.

Musika

Letek, bere letrak behin eta berriz berridatziko bazituen ere, ziurtasun handiagoa zeukan bere letrekiko bere kantatzeko gaitasunarekiko baino. Ez zuen bere ibilbidea kantari gisa hasi eta aurreikustekoa zen halako herrena sentitzea. Hala ere, hezkuntza musikal zabalago baten premiaz jardun zuenean kolektiboko kide gehienez aritu zen. *Zeruko Argian* kantagintzaren problematikaz idatzi zuen (1970 eta 1971 urtetan zehar argitaratu zituen ‘Kanta herrikoia problema bezela’ izeneko lau artikulu). Artikuluetan dio “gure kanta zaharrak benetako ‘sozial kantak’ deituak izan daitezkeela, deitura horren sentidurik zabalenean” (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 106). Forma horiek herrikoiak eta umilak izan arren kultuak izan zitezkeela uste zuen:

Kanta baten doinua sortzen edo asmatzen duen pertsonak, nahi eta nahiez zentzu eta intuizio musikala baditu (taxua, hitz zehatz batez esaten den bezala), formazioa ere eduki lezake, baina hori ez da oso gutxitan baizik gertatzen. Eta normala da. Kanta herrikoia, iraupen laburrekoa ia beti, sensibiltatea eta zer esana dauzkan edozeinentzat irekia dagoenez gero, ez da izaten, oso gutxitan baizik, musikaren teknika eta formazioa dauzkanak egina, intuizioz eta gustuaren bitartez jokatzeko duen batena baizik. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 114)

Letek artikulu hauetan haien aurreko musikagintzan izan zen hutsunea seinatu zuen eta ondoren zenbait sortzaileren lan kulturala baliotan jarri zuen. Oholtza gaineko ibilbide oparoa izan bazuen ere, Muguruzari aitortu zion (Lete, 2010a) kolektiboko kideek musika prestakuntzari zegokionez dezenteko gabeziak zituztela.

Entzuleriak, ordea, kantariak mitifikatu egin zituen (artisten heuren nahi baino lehenago). Horrekin batera musikaren industrian aukera berriak zabaltzen ari ziren eta haien aurrean kezka agertzen zuen, hedapena kalitate artistikoaren mesedetan erabili behar zela aldarrikatuz. 1971n argitaratu zuen bigarren artikulu hori eta ordurako musikari profesionalei

laguntza eskatzeko premia sentitzen zuen. Letek bidelagun izan zituen bera baino formazio musikal hobea jaso zuten musikariak, eta momentu batetik aurrera letrak musikatzeko ardura haiengan delegatu zuen. Kanta askoren melodia sorrarazteko eskatu zien Antton Valverde, eta Karlos Jimenezi; baita Pier Paul Berzaitzi ere. Bidelagun garrantzitsuak izan zituen Jabier Muguruza eta Joxean Goikoetxea soinu-joleak ere.

Bere lehen diskoan Ferran F. Orteuk jo zuen gitarra eta Enric Ponsak kontrabaxua. Hurrengoetan Lete bera arduratu zen lan horretaz eta Valverderen laguntza izan zuen bi konposatzen eta bai pianoan.

1991n argitaratutako *Eskeintza* diskotik aurrera bere diskoen instrumentazioa askoz konplexuagoa bihurtu zen. Jimenezek, Gaignek eta Muguruzak parte hartu zuten eta diskoa grabatzen izan ziren Andrzej Bak (biolontxelo), Javier Lekunberri, (oboea), Txema Garces (baxuak), Michel Longaron (perkusioa) eta Josetxo Goia-Arribere, (saxofoia, klarineta). *Hurbil iragana* diskoa grabatzeko taldea apur bat murriztu zuen (Lekunberri, Longaron, eta Goia-Arribere ez ziren izan). Imanol kantariarekin jotzen zuen Jimenezek Letek elkarrekin lan egitea proposatu zionean. Jimenezek ohoretzat hartu zuen eta 1990ean baiezkua eman zion. Handik aurrera harreman profesionala eta adiskidetasun sakona partekatu zuten. Letek askatasun osoa ematen zion pianistari –bere poemak musikatzekoan, esaterako– eta bere lana erabat errespetatzen zuen.

Gerora disko formatuan argitaratu zen 1999ko kontzertuan ziren Gaigne, Jimenez, Goikoetxea, Garces, eta Pello Ramirez biolontxelo jotzen. Leteren eta Joxean Goikoetxearen arteko harremana, berriz, 1995ean hasi zen; Fritz Lang alemaniarraren *Metropolis* filmarako idatzi eta interpretatutako soinu bandaren harira. Letek bere lana goratuz gutuna bidali zion 1997an. 2006an ere bat egin zuten, Leteren kanta harilkatuz *Adiskide bat bazen* izeneko *pot-pourria* antolatu baitzuten Hernanin eta Goikoetxea izan baitzen hura bandarentzat eta koruarentzat egokitu zituenenean. Bi artisten harremana 2008an estutu zen erabat. *Egunsentiaren esku izoztuak* liburuaren hamabi saioretan elkarren bidaide izan baitziren. Goikoetxearengan marka sakona utzi zuen harreman horrek eta pasioz jarraitu zuen *Xabier Lete gogoan* eta *Sortuko dira besteak* emanaldietan parte hartzen eta antolatzen.

Figura 14

Joxean Goikoetxea eta Xabier Lete



2.3.2 Antzerkia

60ko hamarkadan 60 antzerki talde inguru zebiltzan lanean. Ordura arte zentsurak kantagintzari baino oztopo gutxiago jarri zizkion antzerkigintzari *Censura y literatura. Memorias contestadas* liburuan Idoia Gereñuk (2020, 70) jasotzen duenez: zenbait obratako esaldiak ezabatu eta obraren batzuk debekatu baziren ere, Ramon Saizarbitoriaren iritziz euskarazko antzerki obrek gaztelaniazkoek baino arazo gutxiago izan zitzaizketen zentsura pasatzeko. Arlo honetako zentsoreak ez omen ziren oso zorrotzak. Antzerki zaharraren eta berriaren arteko talka gertatu zen 60ko hamarkadan; eta 1966tik aurrera, frankismoaren zentsura gogortu egin zen:

El aparato de censura se ocupó de desautorizar a los sacerdotes y padrinos que el teatro vasco tuviese a su alcance, generando absoluta imposibilidad de la representación de cualquier espectáculo, salvo con la obtención de la licencia de Madrid. Esto conllevó toda clase de supresiones y la aceptación de la última palabra del censor para decidir qué y cómo interpretar. Se inicia, de esta forma, una nueva fase donde se presenta la verdadera cara de la censura. (Gereñu, 2020, 73)

Zentsuraren ahalmen denetarikoen erakusgarri, Gereñuren kapituluak aipatzen du frankismoak antzokiak zinema bihurtzeko ahalegina egin zuela; modu horretan askoz kontrolagarriagoa zitzaiolako emisioa.


Intxixu bat antzezten

Antzerkizalea zen Lete. Txikia zela *komediantek* etortzen ziren Oiartzuna eta bakoitzak bere etxetik aulkia hartuta joaten ziren haiek ikustera bere arrebak gogoratzen duenez. “Haiek joaten zirenean Arrietako ur depositoaren aldameneko zelaian biltzen ziren gaztetxoak eta beraien komediatxoak” prestatzen zituzten (2015, 14).

1963an, Tarragonatik bueltan, antzerki talde bat sortzea erabaki zuten. Garaiko trabak gainditzeko Fomento Cultural izena jarri zioten elkarte horri. Elkartearen euskarazko antzerki taldeak Lartaun izena zuen. Urte batzuk beranduago, Intxixu antzerki taldea izena hartuko zuen. Oiartzun antzerkian tradizioa izan duen herria izan da.

Figura 15

Lete, Lartaun antzerki taldeko antzezpen batean



1967ko azaroan Living Theatre konpainiak *Antigona* antzezlana eskaini zuen Donostiako Victoria Eugenioan. Saioak zenbateraino txunditu zuen adierazi zuen *Zeruko Argi*ko artikulu batean eta antzerkiak berritzeko zuen premian indartu zen oiartzuarra.

Letek antzerki munduari esker pertsonalki ezagutu zuen Gabriel Aresti 1964an. Juan San Martinek antzerki taldeen eta antzezlanen idazleen biltzar bat antolatu zuen Eibarren eta tartean ziren Jazinto Carrasquedo, Pedro Sarriegi eta Aresti. Letek dagoeneko *Harri eta herri* liburua irakurrita zuen eta bere burua aurkeztu zuen. Ondoren, Leteren artikuluak irakurri zituen Arestik eta gutun bidezko harremana hasi zuten. Zenbait alditan talka egin bazuten ere, estimu handitan zuten elkar.

Arestiren *Justizia txistulari* lana egokitu zuen Letek (1965) Lartaun taldekoekin antzezteko eta Aresti bere emazte Meli Estebanekin etorri zen estreinaldia ikustera. Lan honen aurretik zenbait lan prestatu eta oholtzaratuak zituzten, Arantxa Letek *Ito edo ezkondu* izeneko gogoratzen du (2015, 15).

Bestalde, antzerki talderako *tocadiscos* bat ere erosi zuten denen artean dirua jarrita eta lokalik ez zutenez Letetarren etxean gorde zuten. Horri esker ohikoa zena baino musika entzunaldi gehiago egin ahal izan zituzten. Arantxak Mixel Labegerie-ren diskoak leihoak itxita entzun izana du gogoan (2015, 17).

Antzerkigintzaren munduan ere talka urteak ziren 60. hamarkadakoak. Antzerki tradizionala defendatzen zuten batzuek “nazionalismo elizkoiari jarraiki, gerraurreko teatro lanak eta haien kutsu kostunbrista zuten gogoko, eta teatro berriaz aburu ezkorra zuten” (Gereñu, 2018, 745). Eta haren indargarri Antonio Maria Labaienek *Zeruko Argian* argitaratutako artikulua aipatzen da:

‘Teatro berri’ deritzaien asko zaarrak dira, itxaropenik gabeko zardadez joak daudelako. (...) Teatroa (...) ez baldin ba da goibel, larri ta itzal ez omen du baliorik. Publiko-jendea ez da geienetan iritzi ortakoa, ta antzerki alai, irritsu ta pozgarriai arrera ona egiten die. Sasi-maixuek ordea gogaitze añako izu-ikara sortu naiean dabilta beti, eta ara doaz, beleak sarraskira bezela. (Labaien, 1964, 8)

Eta Gaztedi Berria mugimendukoek askatasuna aldarrikatzen zuten. Lete izan zen zenbaitetan haien ahotsa “eta teatro zaharra eskasa, arlotea eta gezurrezkoa” zela adierazi zuen *Zeruko Argian* egin zioten elkarrizketan:

Gure teatroetan gezurra besterik ez dute esan izandu aurreko antzesgilleak. Gizona sakon analizatzeko gauza etziran izandu, eta orregatik ekin zioten “costumbrismoa”ri. (Lete, 1965 in Gereñu 2018, 745)

Letek hilabete batzuk beranduago iritzi artikulu bat argitaratu zuen esandakoak leunduz eta Jacinto Carrasquedo Olarra (1895-1988), Antonio Maria Labaien (1898-1994) eta Pedro Sarriegiri (1906-1968) barkamena eskatuz; bide ezberdinak proposatu arren adiskidetasuna posible zelakoan.

Idoia Gereñuk kontatzen duenez, baterantz edo besterantz lerratu ziren. Euskal Izkera eta Iztunde Eskola (1953-1981) jardun ziren teatro zaharraren defentsan, eta Jarrai (1959-1968) antzerki taldea, teatro berriaren alde.

Leteren helburua euskal antzerki modernoaren oinarriak finkatzea zen eta bilaketa horretan Eugenio Arozena, Iñaki Arbelaitz eta Adolfo Leibar izan zituen lankide. Arozenak ematen zizkion antzezlanetarako ideiak eta horri forma literarioa ematen zion Letek. Hala idatzi zituen *Karlistadaren kronika* (1978), *Txirritaren asto lasterra* (1978). eta *Gabon Txirrita* (1982).

1973an, berriz, *Alzateko Jauna* antzezlana egokitu zuen Pio Barojaren obra hau euskaratuta. Bartolo Orkaizagirrek adierazi zuenez “Leteren nahia urnietarrek Alzateko jauna antzezteaz zen, baina zentsurak ez zion ahalbidetu” (Ibargutxi, 2016). Moldaketa oholtzaratzeko baimen eskaera bidali zuen Madrilera Intxixuk baina 1973ko abenduan ezezkoa jaso zuen eta ezin izan zuten antzeztu (Arozena, 2007, 15 in Gereñu, 2018, 758).

1977an *Antzerkia deusetik izatera* estreinatu zuen Oiartzungo Intxixu taldeak. Bost urte beranduago, 1982an, *Gabon Txirrita* antzezlana estreinatu zen Leteren zuzendaritzapean. Urnietako Buruntza taldeak 18 aldiz oholtzaratu zuen. Txirritaren ibilerak, familiarekin izandako harremana, langile moduan izandakoa eta emakumeekin zituen gorabeherak ditu ardatz eta modu umoretsuan heltzen dio gaiari.

2016an, Donostia Europako Kultur Hiriburu izan zen urtean, obra berreskuratu egin zen antzezlana. Agustin Perezek *Berrian* (2016/09/13) egindako kritikan aipatzen da testua

“sitsek janda” agertzen dela: “Espainiako etorkinen gaiaren tratamenduan eta emakumeenganako komentario lizun eta baimendu gabeko zirrien kontuan” kontrasteak falta zirela salatzen du Perezek. Iparraldeko antzerki tradizioaren kutsua ere azpimarratzen du, protagonista balizko auzitegi baten esku jartzen baita. Ayerbek (2016) testuari egindako iruzkinean dio antzezlanaren irudi lehen bistadizoan dirudien baino sakonagoa dela.

2.3.3 Prosa

Antzerkian egiten ari zen lanari esker ezagutu zuen Letek Iñaki Beobide. Donostiako Jarrai antzerki taldeko zuzendari zen Beobide eta haren bidez ezagutu zuen Ramon Saizarbitoria. Bi pertsona hauen bitartez hasi zen iritzi artikulua argitaratzen *Zeruko Argiako* ‘Gazte naiz’ izeneko autore taldean. Talde hau Saizarbitoriaren sorkuntza zen. Ostegunetan biltzen ziren Rikardo Arregi, Mikel Lasa, Beobide, Saizarbitoria, Lete eta beste zenbait. Mari Karmen Garmendia ere tartean zen eta baita Txillardegi ere nahiz eta ezizenez idazten zuen (Goienetxe bezala sinatzen zuen). Gazte ziren gazte eta euskal literatura tradizionalaren balioei hautsa kentzeko grinaz idatzi zuten, ausart. Horrek hedabide berean kolaboratzen zuten beste idazle batzuekin (Antonio Maria Labaien, Basarri, Nemesio Etxaniz...) talka eginarazi zien (Ibarzabal, 2020, 54).

Ibon Sarasola ere biltzen zenetako bat zen eta hark dio (1977, 20 or.) Leteren artikulua “izugarri onak eta gogorak” iruditzen zitzaizkiola. *Requiem* izeneko bat gogoratzen du eta bai omen zeuden zentsura pasa ez zuten beste zenbait. Beñat Sarasolak (*Bainaren belaunaldia*, 2015) dio aldi berean umoretsua eta gogorra zela bere idazteko estiloa.

1965eko maiatzaren 23an argitaratu zuen ‘Carrasquedo Olarra jauna eta beste batzuei’ izeneko lehen artikulua *Zeruko Argiaren* 117. zenbakian. 1976ko ekainaren 13an, 29. zenbakian, kaleratu zuen azkena Letek; guztira, a berrogei artikulua.

Jakin aldizkarian artikuluren bat plazaratu zuen noizean behin. Joan Manuel Serrati elkartasuna agertuz argitaratu zuen lehen artikulua laburra 1968an. 1974an Lizardiri buruzko artikulua mardul bat plazaratu zuen eta Kantagintza Berriari buruzko monografikorako analisi esanguratsua idatzi zuen 1977an.

1979an *Muga* aldizkarian kolaboratzen hasi zen Lete, gaztelaniaz. *Muga* EAJren bueltako aldizkaria zen. Xabier Arzallusen ekimenez sortu zen (Ibarzabal, 2016, 136), Federiko Zabalak zuzentzen zuen eta Eugenio Ibarzabalek koordinatu. Goi mailako kolaboratzaileak zituen argitalpenak: Mitxelena, Joxe Migel Barandiaran, Idoia Estornes... Letek Euskal literaturari buruzko kezka agertu zuen kolaborazio hauetan; literatura konprometituz nekatuta sumatzen zituen poetak eta gai pertsonal, intimo eta sakonetan hasi zirela zion. Horrela deskribatu zuen garaiko literatura:

“Hoy vemos que tanta presunta literatura de compromiso está quedando reducida a escombros, y que cierto pretendido distanciamiento hacia un entorno social y político y humano está surgiendo una literatura euskérica archisubjetiva y más bien aburrida por falta de “mundo referente, y por una mimética pretensión de abolir las lindes entre continente y contenido (pretensión habitual en cierta literatura de última hora), que está provocando entre nosotros comportamientos epigónicos muy similares a los producidos hacia otras corrientes literarias en tiempos pasados. Es decir, una pobreza referencial enorme por un lado, y, por otro, un conformismo autocomplaciente en una literatura que pretendiéndose más auténtica, más humana, más personal no es sino el exponentes de pequeñísimas elucubraciones que difícilmente trasciende un ámbito de empobrecida subjetividad”. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 401-402)

Kolaborazio hauen artean aipagarria da bidaia batzuk egin ahal izan zituela goi mailako pentsalariak elkarrizketatzeko. Lehena, 1980an Frantziara Raymond Aron elkarrizketatzera. Aron garai hartako *guru* liberala zen Ibarzabalek (2016, 192). Elkarrizketa hura *Muga aldizkariaren* 7. alean argitaratu zen, 1980an. Urtebete beranduago, 1981eko urrian, Groningeneko Unibertsitatean (Herbeheretan) hitzaldia eskaini zuen Ibarzabalek eta Letek kantaldia. Lete hizlari umoretsua izateaz gain entzuten bazekien pertsona zela dio Ibarzabalek (2020, 25) eta azpimarratzen du Letek besteengandik ikasteko jarrera zuela, horretarako denbora ateratzen jakin zuela. Juan Mari Lekuona, Koldo Mitxelena eta Julio Caro Baroja aipatzen ditu harekin harremana zuen garaian Leterengan eragin gehien zuten pertsona gisa. Ibarzabalek Koldo Mitxelenari buruzko liburu bat badu (Leteri eskainita dagoena, hain justu) eta bertan Mitxelenak irizten dio literatura alorrean Orixe eta Lizardiren, eta Txillardegi eta Arestiren ondoren, mintzatzea merezi zuen bakarra Lete zela, “poeta handi bat izateaz gain ezohiko pertsona dela, inteligentea eta zentzuzkoa” (Ibarzabal, 1977, 188-189).

Oiartzungo, Errenteria-Oreretako eta Hernaniko urtekarietarako ere egokitu zituen zenbait testu.

1992an *Euskaldunon Egunkariko* leihoa zabaldu zuen eta 1995era arte jarraikortasunez idatzi zuen bertan. Kolaborazio horiek jasota daude *Hitz lau* izeneko liburuan. Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria eta Koldo Izagirrerekin batera idazten zuen oiartzuarrak izen bereko tartean. Liburu gisa ere kaleratu zen 2003an. Hala ere, bere artikulu guztiak irakurri nahi dituenak –1994ko apirilaren 17ko “Aberri eguneko diskurtsoak”, adibidez– Leteren kazetari eta prosagile ibilbidearen erreposoa egiten duen liburura jo beharko du, Mugarri saileko liburura (Perez-Gaztelu eta Saez de Eguilaz-Perez, 2020). Han daude lan guztiok jasota eta lana balioan jartzen duen Lertxundiren hitzaurre interesgarri bat ere badago ‘Zerbitzuko lantegiko ezkaratzetik’ izenekoa.

Euskal Idazleen Elkarteak argitaratzen duen *Hegats* aldizkariko ere egin zituen Lizardiri eta Cesare Pavesei buruzko analisiak.

Telebistako kolaborazioa

90. hamarkadan bertsolaritzari buruzko saio luze bat grabatu zuen ETBrekin. *Mintzoaren arnasa* izena jarri zioten eta berau izan zen 2001ean argitaratu zuen *200 urtez bertsoetan* zazpi diskoko bildumaren abiapuntua ere.

Beste liburu batzuk

Autore nagusia ez izan arren hainbat liburutan parte hartu zuen Letek. Horren adibide da *21* izenekoa. 21 autorek euren lanaren lagin bat –Leteren kasuan aurretik ere argitaraturik zeuden poemak– plazaratu zituzten bertan. Aurretik, artean 1969 baino ez zela, *Poemas al Che* izeneko omenaldi libururako poema bat idatzi zuen eta nazioarteko edizio garrantzitsu batean kokatu zuen bere poema.

Pio Barojari eskainitako liburuan ere parte hartu zuen 1972an, *Pio Baroja. Bere ehunurteburuan 1872-1972* izenekoan. Julio Caro Barojak irekitzen du liburua ‘Baroja eta Euskal Herria’ izeneko kapituluarekin (13-28 or.) eta Letek hartzen dio erreleboa ‘Pio Baroja eta hemeretzigarren mendea’ deitutakoaren bitartez (29-83 or.). Kapituluak Barojaren lehen urteak deskribatzen ditu: garaiko euskalduntasunaren purutasunaren mitoa azaltzen du eta haren pesimismoaren jatorria seinalatzen, familia burgeseko pertenezia, Madrilera

egokitzea, bere medikuntza ikasketak, Zestoara leku-aldatu eta euskaldun izatearekin berraurkitzea... pasarte ugari aipatzen ditu. Ondoren, Madrila itzuli zen eta idazle bihurtutakoan, ekoiztako uzta literarioaren errepasso sakona egiten du Letek kapitulu luze honetan. Karlistadetan hartu zuen posizioaren analisisa egiten du oiartzuarrak.

Juan Mari Lekuona hurbiletik (1927-2005) liburuan, bere adiskidearen omenezkoan, Leterena da lehenengo artikulua. ‘Juan Mari Lekuona’, maisu eta lagun’ izeko kapitulua argitaratu zuen (17-34 or.). Lourdes Otaegi izan zen edizio honen koordinatzailea eta Gorka Aulestia, Anjel Lertxundi, Pello Esnal, Jean Haritsschelhar, Ana Maria Toledo edo Jon Kortazarren analisiak biltzen ditu. Lekuonaren lan eskerdaren errepasso sakona egiten du liburuak eta bere soslai pertsonala ere zirriborrotzen du nolabait. Leterena da hurbilpen pertsonalena. Haien haurtzaroko Oiartzunen deskribapena egiten du eta baita haien arteko harreman “leiala eta oso pedagogikoa” ere (Zenbait autore, 2008).

1996an euskaltzain urgazle izendatu zuten Lete. 2010ean, hil baino hilabete gutxi lehenago, ohorezko euskaltzain izendatu zuten.

2.3.4 Poesia

Pasaiako fabrikako leihotik begira bere lehen poemak zirriborrotatu zituenetik zendu zen arte asko findu zen Leteren idazkera. Frankismoak iraun zuen bitartean, poeta sozial moduan posizionatu zen. Ondoren, estilo jasoago baten bilaketan murgildu zen. XX. mendeko euskal poeta handienetarikoen artean kokatu daiteke. Honakoak dira Letek argitaratu zituen poesia liburuak edo Leteren poemaren bat biltzen zutenak:

- *Egunetik-egunera orduen gurpillean*. 1968, Hegosa Cinsa.
- *Poemas al Che*. 1969. Instituto del Libro.
- *Udazkenean*. 1971, Itxaropena.
- *Bigarren poema liburua*. 1974, Gero Mensajero.
- *21*. 1978, Hordago.
- *Urrats desbideratuak*. 1981, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala (GAK).
- *Zentzu antzaldatuena poemategia*. 1992, Euskaltzaindia BBK.

- *Biziaren ikurrak*. 1992, Erein
- *Abestizak eta poema kantatuak*. 2006, Elkar.
- *Egunsentiaren esku izoztuak*. 2008, Pamiela.

Leterentzat idaztea zer zen

Bigarren poema liburuan poesia “gauzen izentatze etengabe bat” (1974, 27) dela dio Letek: “Gauzek, ordea, beren izena behar dute. Eta gertakizunek. Beren izena behar dute, eta izena bilatuz gero leporatu egin behar zaie (1974, 23).

Urienek *Erlea aldizkarian* esandako hitzak jaso zituen bere liburuan: “hitzek ez dutela ezer erredimitzen, ez galera ez heriotza, ez kulparen kontzientzia, ez eta ezjakintasun funtsezkoena ere (...) Hitzaren bidezko ahalegina alferrikakoa bada ere, ahalegin horretan bakarrik berma gaitzke; ahalegin horrekin lortu dezakegu heriotzatik libratzea, une batez bederen” (Urien, 2020, 105).

Prosazko zehaztasunez deskriba ezin daitezkeen pentsamendu eta ideiek poesian ostatu har dezakete eta zehazgabetasun magikoz osatutako sehaskan, irakurlearen laguntzaz, birsortu egiten dira kontzeptuak. Urienen ustez (2020, 46) Lete Maria Zambranorekin ados egongo litzateke esaten duenean hizkuntza poetikoa eta arrazoi-hitzak uztargarriak direla: “jakituria beraren adierazpide ezberdinak. Filosofiak zein poesiak jakin-minaren lurean dituzte beraien zuztarrak. Beraz, elkarrekintzan daude, hartu-emanen, gizakumeak egiten dituen galdeketa hunkituen baitan”. Zambranoren ustez poesia arrazoi-hitzak baino malguagoa da eta hainbat erraztasun ahalbidetzen ditu horrek.

Mondragon Unibertsitateak Eskoriatzan antolatzen duen Euskal Kulturgintzaren Transmisioa ikastaroan bitan izan zen solasten Lete eta malenkoniaren inguruko gogoeta interesgarri egin zuen:

Poesia ezkutukoena esateko ahalegin bat da, eta ezkutukoena arimaren itzaletan dabilta, izaki erratuak balira bezala. Poesia, gehienetan, melankoliaren hizkera bat da; eta melankolia, antzinakoek esaten zuten izpirituaren afekzio bat zela. (Lete in Urien, 2020, 64)

Lete poema bat idaztea kanta bat sortzea baino zailagoa dela pentsatzen zuen. “Kantuaz esateko gaiak eta erak oso pentsatuak izan daitezke, baina ia beti espontaneo edo

bat-batekoak gehiago dira. Kantua herrikoia denez gero, bere poesiak irakurtzekoak baino berotasun gehiago eduki behar du, prezisio gehiago, eta ulerterrazagoa izan behar du” (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 120). Letek zuzeneko emanaldiak zituen buruan bereziki baieztapen honekin. Izatez, bere hasierako kanta lehen kolpeko sinpletasun horrekin bat etor zitezkeen. Ahozko tradiziotik gertuago koka zitezkeen. Momentu batetik aurrera, ordea, entzuleari eskatzen zion zailtasun maila asko igo zuen. Lehen entzunaldian nekez uler zitezkeen letrak ekoizten hasi zen. Kantaldiak abestiak kontsumitzeko bide nagusi izateari utzi zioten eta diskoa gailendu zen. Ondorioz, entzuleak behin baino gehiagotan entzun zitezkeen aleak eta horrek poemategiko edozein kanta diskora eramateko zidorra zabaldu zuen. Poesia jaso gizarteratzeko modurik eraginkorrena izan zen geroztik musika.

Leteren obra sailkatzeko zenbait proposamen egin izan dira. Gurrutxagaren sailkapenean oinarrituko da lan hau bere poemagintza laburbiltzeko. Zarautarrak proposatutako aroak bat datoz aldaketa nola historikoekin, hala pertsonalekin ere.

- Lehenengo aroa: idazten hasi zenez geroztik 1964tik 1978ra bitartekoa.
 - *Egunetik egunera orduen gurrupillean*
 - *Poemas al Che*
 - *Udazkenean*
 - *Bigarren poema liburua*
 - *21*
- Bigarren aroa: 1978tik 1990 arterakoa.
 - *Urrats desbideratuak*
- Hirugarren aroa: 1991tik 2010era.
 - *Zentzu antzaldatuaren poemategia*
 - *Biziaren ikurrak*
 - *Egunsentiaren esku izoztuak*

Lehen aroa (1964-1978)

1964an hasi zen poesia idazten Lete. 1965ean maiztasun handiagoz hasi zen idazten eta Agora elkargoak deitutako poesia sari baterako lan bat prestatu zuen. *Pekatu zaharrak eta sinismen berria* izena zuen lan hark. 1966an lehen saria eman zioten (Ibon Sarasola bigarren

geratu zen). 1967an berriz irabazi zuen lehiaketa bera *Egunetik egunera orduen gurrillean* izeneko lanarekin. Hegosa-Cinsa argitaletxeak argitaratu zituen bi lanak, bat eginda, 1968an *Egunetik egunera orduen gurrillean* izenburupean. Remigio Mendibururen azala darama eta Juan San Martinen hitzaurrea. Letek errealismo sozialetik abiatu zuen bere ibilbidea. Hasierako poesia hura zorrotza eta ironikoa zen eta Gabriel Arestiren eragina oso nabarmena zen. Gurrutzagak *Caravansari aldizkarian* (2006, 87) Celayaren eragina ere aipatzen du eta estilo aldetik, Erregimenaren aurka idazteko, ironia eta burla-haizea zerabiltzala nabarmentzen du.

Garaiko prentsan izan zuen erreseina interesgarria egin zion Txillardegik (Larresoro izengoitia erabiltzen zuen). Lete gazte hark zituen hiru kezka nagusiak “jende umilaren aldeko maitasun suharra, Euskal Herria’rekiko jainera bizia, eta heriotzaren tema iraunkorra” zirela aurreratu zuen –laugarren kapituluan aztertuko ditugun hiru gai–. *Zeruko Argiako* artikulua kritika nagusiak forma aldetik hartutako arriskuen gainekoak ziren eta Arestiren gehiegizko eraginaren gainekoak. Gainontzekoan, liburuaz oso ondo mintzo da:

Leterengan sustraitukotako idazle bat, olerkari *engagé* bat aurkitu dut, ez ameslari bat; eta hau ez da iñundik ere akats bat. Ez horixe! Lerendabiziko partean hortara, aldekotasun ausartu hunek salbatzen du dana.

“Aide illun bat” delakotik aurrera, ordea, liburuaren bi herenetan beraz, nere bihotza poztu egin zan. Olerki-guna ez zaio Xabier Lete’ri falta. Liburuan aurrerago, beraz, eta hobe; olerki garratz batzuk dardar utzi nautela aitortu beharrean nago. Gehienetan tristura muzin bat aurrean, olerkitasuna gardenago atxeman dut, hizkera landuago, lerro-banaketa funtsezkoago, egokitasuna handiago eta artifizialekiarik ez. Hitz batez, atzeko bi herenetan liburu ondu egiten da. Bukatzean, hortara, hunkiturik utzi dut eta berriz irakurtzeko gogoaz. (1968, 7)

Ezkerrak (2012, 56) dio ezin hobeto uztartuta daudela sustrai arestitarrak eta herri sustraiak; bertsolaritzaren eta ahozko literaturaren aberastasuna bistakoa dela; Leterengan “gutxitan bezala, poesiak eta bertsolaritzak bat” egiten zutela baieztatu zuen Iturribidek eta bere umorea eta ironia nabarmendu zituen (2010, 76-77). Sanchezek, berriz, “*poesia de urgencia*” delakoaren korrontea jarraitzen zuela. Esther Zarrauak (1991) dio Lete bere lehen liburutik (1968) oso konprometitua izan zela bere inguruarekiko, bere sentimenduekiko eta poesiarekiko; baina Sanchezek konpromiso horren sorbatza seinalatzen du, itsumen bihurtzeko arriskua. Zapalduaren eta zapaltzailearen arteko harremana errepikatzen da Leteren poematan. Zapaltzailearen aurkako salaketa eta zapalduaren egoera gainditzeko ahalegina aireratzen ditu Letek: “Aparteko gizon baten alde agertzen da, ‘borroka’ aldeko gizonaren

alde, bere egoera zein den ikusiz gero arazoak gainditzen saiatzen dena” (Sanchez, 1993, 106).

Zarrauak oiartzuarra oso pertsona sentiberatzat zeukan eta honakoa irizten dio (1991, 41): “Poetak bere irudimenak sortutakoa ordenatu eta izendatu nahi duenean sartzten da arrazonamendua. Hori da bidea, sentimenduei forma ematea eta ez alderantziz”. Poetak esateko daukanak benetakoa behar zuen, bestela joko erretoriko hutsean erortzeko arriskua ikusten zuen Letek.

Jon Kortazarrek honakoa dio *Laberintuaren oroimena* izeneko lanean:

X. Lete, poeta eta kantaria, bere obra herri tradizio ironikoaren ildotik darabilen autorea da. Tradizio horren presentzia haren estilo gihartsuarekin pareka daiteke. Haren obran nolabaiteko nazionalismoari zentzua eman zioten mitoen beste alde ikusteari, eta ironiaz begiratzeari ekiten die. Honela, ez da harritzekoa izango Herrialde honetan egokituz joan ziren inmigranteei zuzenduriko gaien presentzia. Bestalde, Letek beranduagoko liburuetan, euskal tradizioa eta Europako poesia modernoa elkartzeko ardura erakutsi du, edertasun estetikora gerturazten dabiltzan poetei egindako omenaldietan, gerraurreko sinbolismoaren bidea jarraitzen duelarik. Haren poesia, hala eta guztiz, indar handikoa izatera iritsi da, eta bere birtuterik garbiena zuzentasuna da. Arrandikerietatik aldenduz, Lete Euskadiko egoeraz zuen larridura adieraziko zuten hitzen bila ibili izan da bere jokera poetiko osoan. (1989, 90-91)

Lehen fase hau hiru azpiataletan banandu daiteke. Lehen azpiatalean Letek bakarka ziharduen; ordura arte irakurritako poeten eragina nabarmena zen. Hurrengo azpiatalean, dagoeneko Ez Dok Amairuren parte izanik, sormena kolektiboagoa da. Bere idazkera mantentzen du, fintzen du, eta funtzio argi bat hautematen hasten da. Bigarren azpiatal honetan kokatu daitezke *Arrastoa eta itzala* izeneko liburuxka (1969) argitaragabea eta *Udazkenean*.

Juan San Martinek kaleratutako *Uhin berri* poesia antologian aipatzen du *Arrastoa eta itzala* Leteren obra moduan. Gurrutxagak dio liburuxkak 19 poema dituela, eta tartean direla ‘Seaska kanta’, ‘Giza aberea’ eta ‘Detroit 67’ eta ‘Ernesto Guevararen heriotzean itxaropenezko negarra’ abestiak; baita *Udazkenean* liburuko ‘Gizon eroria’ eta ‘Zure xamurtasuna’ ere (2020a, 73).

Udazkenean liburua, berriz, hiru poemako liburu labur bat da eta lehen orrialdean “eriotzari, maitasunari” eta “gizon eroriari” jarritako poemak direla aurreratzen du (4. kapituluko gai hautaketarekin koherentea da autorearen banaketa, beraz). Liburua ‘Sinisten dut’ poemarekin hasten da eta ondoren datoz ‘Zure xamurtasuna’ eta ‘Gizon eroria (Martin Luther King zenaren oroimenez)’.

Letek berak argitu zuen poesia sorkuntzako lehen aroak hiru azpiatal izan zituela. Joxe Mari Belokik 1978an *Herri Irratian* egindako elkarrizketan hala aitortu zuen:

Lehenengo fase bat bada, lehen-lehena kantatzen hasi nintzenekoa orain 12 urte (1966) eta Ez Dok Amairuren elkar lan hartan gero girotutako kantak, Ez Dok Amairuk bere izatea borobildu zuen arte eta desegin zen arte, urte haietan lehenbiziko 5-6 urte haietan nigan bi fase bezala zeuden. Lehenengo fasea izan zen hasierakoa. Behar baldin bada batez ere nik neuk neure burua aurkitu nahi nuen edo definitu nahi nuen nolabait. Inguru batekin harremanetan, baina nire burua definitu nahi nuen. Edo suertatzen zitzaizkidan harreman berezi batzuk gustu baten araberakoak edo behar baten araberakoak adibidez euskal poetekin, euskal poeta klasikoekin. Harreman konplexuak ziren nire buruarekin, inguruarekin eta nolabait definitu nahi nuen hura guzti eta kantatu (...) Ez Dok Amairu arte gutxi gorabehera.

‘Nafarroa, arragoa’ bera ere Ez Dok Amairuren garaian egiten hasi nintzen, nahiz eta geroxeago bukatu. Gero iruditzen zait sartu nintzela Ez Dok Amairu ondoren sartu nintzela 3. fase batean(...) Hirugarren fase horretan nire ahaleginik nagusiena ingurua definitzearen, nire ahalegin nagusiena ingurua definitzeari buruz doa. Hau da, ni sentitzen naiz euskal gizarte baten barruan eta euskal gizarteak dituen problematika batzuei begira. Eta horien barruan (...) aterabide batzuk aurkitu nahirik, ez? Eta kanta batzuk sortzen dira. Kanta konkretuak, definizioz, itxuraz, gai aldetik, tematika aldetik, halako berezitasun objetibo bat duten kantak (...). Behar baldin bada, lehenengo kantak edo lehenengo kantetatik edo lehen bi faseko kanta haietan subjektibitate handi samarra zegoen bezala, gero ere, gero egingo ditudanetan ere egongo dira, dudarik gabe. (Lete, 1978)⁹

Leteren lehen faseko hirugarren azpiatalean kaleratu zuen bere hurrengo liburua, *Bigarren poema liburua* (Gero-Mensajero, 1974). Egitura aldetik, lau zatitan banatua dago: “Hitzak izaten jarrai daitezela”, “Zuhaitz bakarraren itzala”, “Poeta bat ilargian” eta “Itsaso eragotzia”. Liburu honek Sara Sotoren azala eta marrazkiak daramatza eta hitzaurrea Anjel Lertxundik idatzi zion. Leteren bulkada soziala ez zegoen oraindik agortua, baina aurreko liburua baino askoz ere intimo eta barnerakoiagoa da honakoa. Hala ere, idazlearen segurtasuna eta ausardia igartzen da beste poema batzuetan, eta umorez eta ironiaz zipriztindutako aleak daude. Kantagintzari egindako ekarpenari dagokionez, ‘Sinisten dut’, ‘Izarren hautsa’, ‘Chile’ eta ‘Nafarroa, arragoa’ abestiak topa ditzakegu liburu honetan

⁹ Inazio Mujikak transkribatu ditu elkarrizketa hauek. Oraingoz argitaratzeke daude eta orrialderik ezin zaie esleitu.

argitaratuak. Iriondoren ahotik ezagutu ziren beste batzuk ere bai, hala-nola, ‘Begi sakonak’ eta ‘Lur erre bat baino haratago’.

Liburu hau existentzialismoaren baitan kokatu liteke. Kortazarrek *Laberintoaren oroimena* liburuan dio forma aldetik aurreko liburua baino hobea dela irudi poetikoak aberastu egiten direla eta formarekin jolasten hasten dela:

Hor arruntak dira adjektiboen bikoizketak eta kontzeptua bera luzatzea bertso luzeetan (...) Letek nahiago ditu poema horientzako ahapaldi luzeak, kontzeptua eta esanahia hobetu, luzatu eta uler daitezzen. Bere poesiak indar sobera du nahi duena adierazteko, naiz eta azpian mingostasuna egon. Testuak aberatsak dira imajinetan, paralelismoetan, objektu bati buruzko metaforen pilaketan. (Kortazar, 1989, 38)

Otaegik dio autore askok Leteren obra gailentzat jotzen dutela liburu hau eta bere belaunaldikoen hausnarketen formulazio sakonak daudela bertan:

Letek baliabide poetikoez soildu zuen bere diskurtso literarioa, kutsu errealistako poesigintza egin zuen, gaiak berrituz eta zuzentasunez aurkeztuz. Leteren poesia konpromisoari lotua ikusi dute kritikoez, nahiz eta bigarren liburu honetan poesia sozialaren oldea gainditu eta ahots pertsonalagoa eta estetika depuratuagoa garatua zuen, kezka sozial eta existentzialismoaren ubide bilakatuz, paralelismo, metafora eta adjektibazioaren bitartez (...)

Poesia sozialaren hizkera indartsu eta ia profetikoaz iragartzen du gizakiaren etengabeko ahaleginak absurduak direla, baina zentzua izatea nahi lukeela poetak, etsai zaion ingurumarian aurrera ateratzeko ahaleginak ez izatea zentzurik gabekoak. Halere, nagusi da, poemario osoa aintzat hartuta, nihilismo eta etsipen giroa, batez ere hasieran, galtzailearen duintasunez jantzia bada ere. Camus eta garaiko existentzialismoaren malenkonia kosmikoa eta izatearen absurdua eta ondoriozko asperdura islatzen dira. Halere, antsia irrazionalarekin batean, liburuko poemarik hoberenek argitasunaren bilaketa, zentzu eskea egiten dute. (Otaegi, d.g.)

1978an kaleratu zen *21* izeneko liburua (Oteiza et al., 1978). Bertan beste hainbeste autoreren (Jorge Oteiza, Tomás Goikoetxea, S. Idarreta...) lanen laginak jasotzen ziren. Tartean, Leteren hainbat poema: ‘Hitzak izaten jarrai dezatela’ poemarekin hasi eta ‘poeta bat poesian’-ekin bukatu (49-63 or.). Datak hurrengo fasean kokatzera bideratuko lukeen arren, aurretik idatzitako poema bilduma izateak honako fasean finkatzen du. Lehen aro honi buruzko gogoeta interesgarria egiten du Gurrutxagak bere tesian (2020a, 646):

Leteren hasierako poesia eta kantagintza, existentzialismoaren itzalpean garatuak, enuntziazio monologikoaren erakusgarri dira. Formulazio sendo eta utopikoak ikusi genitzake bertan, diatriba gogorretan mugitzen diren azalpenak, eta ni poetiko oihukari bat.(...) orduko abesti batzuek gaur arte izan duten onarpen zabalak —baita esapide edo formula batzuen zabalkundeak ere— Lete poetaren eta kantariaren garai hartako eraginkortasuna erakusten dute, baita esateko era hark zegokion garaitik haratago egiteko izan duen indarra ere.

Bigarren fasea (1978-1990)

1978tik aurrera kantaldien zirkuituan jarduteko bestelako premia bat sumatu zuen Letek. Antton Valverderekin elkarlana estutu zuen eta 1978an kaleratuko zuen disko prestatzen ari zen buru-belarri. Letek, Herri Irratian egindako elkarrizketan sumatzen zuen fase berri batean sartzen ari zela, adierazkortasun gehiagokoa eta heldutasunaren atarikoia (Lete, 1978). Adierazpen horiek egin eta denbora gutxira, ordea, Letek kantari ibilbidea eten zuen, giro panfletarioak erreta, eta kazetaritzara eta literaturara bideratu zuen bere sormena. Gurrutxagak kinka hartaz honakoa dio:

Artistak bere burua behartua ikusten du enuntziazio berri bat bilatzera. (...)

Atxagaren belaunaldiak 80etan gora egiten duen bezala, 90etan guztiz kontsagratu-rik idazle multzoa izateraino, Leteren belaunaldiko idazle eta abeslari-ek nekez eusten diote —edo hondoratu egiten dira— hurrengo hamarkadetan. Hain zuzen, egindako lanak hipotesi edo galdera berri bat sortarazi digu: 80 eta 90etako adierazmolde poetiko eta musikal jakin batzuk ezin ote litezkeen ulertu Trantsizioan bizi izandako krisi latzari erantzuteko desiratik sortutako hizkera artistiko gisa. Hau da, gure susmoa da “desengainuaren” urteetako bizipenek eragindako urradurari erantzun nahirik sortu zirela geroko enuntziazio poetiko zenbait, bereziki Leteren garaikide edo belaunaldikide izan ziren artistengan. Hala da Leteren kasuan, zeinak, UDn (1981) baliaturiko porrotaren estetika gordinaren ondoren, enuntziazio poetiko berri bat bilatu zuen 90etatik aurrera. (...)

Enuntziazio liriko berritu baten bilaketan, Leteren kasua paradigmaticoa da. Izan ere, ikusi dugu poetak irtenbide bat bilatzen duela, ez fedean oinarritua. (Gurrutxaga, 2020a, 646-647)

1981eko Irun Hiria Literatur lehiaketa irabazi ondoren kaleratu zuen *Urrats desbideratuak* liburuan forma sinbolisten gehitzea azpimarratzen du Kortazarrek (1989, 39). 34 poema biltzen dira bertan. Kantagintzaren ikuspuntutik oso garrantzitsua da ‘Habanera’, ‘Zure tristura nabari dut’, ‘Berriro igo nauzu nere mendira’, ‘Neguaren zain’, ‘Malkoak euri balira’, eta ‘Thesa zilegi balitz’ bezalako kanten jatorria baita. Eta, potentzialki, beste kanta asko ere musikatu zitezkeen metrika aldetik bertsoen moldea baitute askok. 20 urte inguruan existentzialismoaren bideari jarraitu arren, Nietzscheren eragin filosofikoa gailentzen hasi zitzaion liburu honetan Zarrauak dionez (1991, 41). Haren arabera, salbazio bakarra ihesean dago, eta are modu dramatikoagoan ikusita, heriotzean. Sanchezek (1993) dio “etsipena eta pesimismoa” direla nagusi bere lan honetan.

Herriak emandako urrats desbideratuez kexu da, eta urtetan itxarondako askatasunaren kudeaketak etsipenera darama Lete. Ihesaren kontzeptuari heltzen dio Letek salbazio gisa. Zer esan gutxien eman duen liburua hauxe du ziurrenik, baina ez hala Gurrutxagaren tesian. Bere iritziz *Bigarren poema liburuan* kaleratzen duen pentsamendu poetikoa eta liburu honetakoa ez dira berberak:

Iruditeriak, batetik, eta gai batzuen erredundantziak, bestetik, etorkizuneko poetikarako ate bat zabaltzen dute. Elementu horien artean daude, gutxienez, bere baitara biltzeko nahia, inguruaren eta izadiaren behaketa liluratua, paisaia amestu eta ebokatuen garrantzia, sinbolismo berri baten abiapuntua, zentzuen garrantzia, Jainkoaren lehen agerpen zantzuak (Igerabide 1998, 21) eta baita kulparen zama ere. Elementu poetiko horiek garapen betea aurkituko zuten Leteren aurrerantzeko poesian. Gisa berean, badaude geroago agertuko ez diren ezaugarriak ere, eta, aldiz, aurreko liburuetan badaudenak. Horietan nabarmenena poesiaren maila sozial eta politikoa da. Liburu honek, esan bezala, puntu klabe bat markatzen du Leteren poetikan. (2020a, 76-77)

Hirugarren fasea (1991-2010)

Zentzu antzaldatuaren poemategia da fase honi hasiera ematen diona. Lete Euskaltzaindiak antolatutako Felipe Arrese Beitia sarian gailendu zen 1991n, eta urtebete beranduago argitaratu zuen 41 poemako liburua. Lourdes Otaegik *Eguno euskal poesiaren historian* dio gaia mantendu arren, haiek lantzeko ikuspegia eta tonua aldatu zituela eta bere estoizismoa nabarmentzen ditu (2009, 137).

Aldaketa pertsonal handiko bolada baten ondoren idatzitako liburua da. Politikagintzan jardun ondoren, bikote harremanean krisi batean murgilduta egon ostean, eta osasun arazoek itota. Kritikari gehienek Leteren bilakaera poemategi honetan kokatzen dute. Liburu honetan, ordea, herriaren tematikaren zentralitatea izatearen kontenplaziora mugitzen da. Gerardo Markuletak (1992) kutsu erlijiosoa antzeman zion liburuari:

Oso tonu diskurtsiboa dute, salmoen doinukoak (eta ikusiko dugunez, ez alde formalean bakarrik), baina gora-behera handiekin, sententzia bilutsietatik elipsirik ia jasan ez duten hitzlau itxurako poemetara joanez. Erritmoan ere, zenbaitetan, Lete kantariaren belarria somatu dugu faltan.

Irigarayk, ordea, naturaren behaketak Leteri damaion sosegua azpimarratzen du:

Naturak eta materialismoak existentziaren zentzua eman diezaiokete, heriotza ulertarazi, baina ezin diote ezerezarekiko auzia xuritu, ezta hilondokoaz lasaigarririk eskaini ere. Eta aitzitikoa nagusituko zaio, izpiritualismoa, orokorra zein erlijio zehatz bati lotua. Hein batean, hor kokatuko da handik goitiko Xabier Leteren poesia, nahiz beti arrazoimenaren eraginez ondua izan eta ez gutitan bere usaiako osagaiak han-hemenka nabarmendu. Jakitun izanagatik ere bizi-mailak materiaren bilakaeraz eta eboluzioaren eraginez baizik ezin direla gauzatu, jainkozko entitatea du sortzen bere nahikari eta izuen idera, aski rilketar eran. Fatalismoak ez dezan eraman erabateko etsipenera jainkotasuna du deitzen, konbokatzen. (Irigaray, 2011, 18)

Irigarayk aski modu finean nabarmendu zuen Rilkeren eragina liburu honetan. Markuletak egindako lehen kritikan Salvador Espriu ere aipatu zuen eta bigarrenean zeinbait poema Ribaren poemaren birkreazioak kontsidera daitezkeela esatera ausartu zen. 2.4.6 puntuan helduko zaio birkreazioaren gaiari.

1992an, *Zentzu antzaldatuena poemategia* oinarri hartuta, *Biziaren ikurrak* izena hartuko zuen liburua osatu zuen (Ereinen argitaratua). 33na poema zituzten bi zatitan banatu zuen Letek: ‘Dohainen liburua’ eta ‘Otoitzen liburua’. Bigarren zatiko poematako asko sonetoak dira. Iñaki Aldekoak dio kantuak eta otoitzak bat egiten dutela Leteren poesian (Aldekoa, 2004). Letek 2009an *Irulegi* irratian egindako elkarrizketan aipatu zuen fedearrekiko zalantza etengabekoa izan arren balio kristauak hunkitu egiten zutela. Bizitzaren fase hartan, gainera, erredentziarako bide eman zion praktika honek: “Kristautasunaren barruan, erlijio praktikaren atal nagusia da errukia. Eta errukia, besteak beste, gure naturaren jakituriatik letorke. Ez dagoela inor perfekturik, alegia, eta bere kasa oso izan daitekeenik” (Lete, 2009). Aurretik justiziaren aldarria egitetik errukiaren aldarria egitera pasa zen Lete (Lete, 2011, 158). Otaegik irizten dio heriotzarik izkinaegin nahi ziola poetak eta poesiaren ahalari esker eternitate literarioa erdietsi (2009, 139).

Hortik aurrerakoak lehorre urteak izan ziren Leterentzat. Osasunez pattal, poesiak utzi egin zuela sentitu zuen:

Diziplina falta baino gehiago da ez dudala nik poesia hola sentitzen, inspirazio falta handi bat. (...) Ez datozkizu hitzak, eta hitzak oso garrantzitsuak dira, hitzek utzi egiten zaituzte. (...) Ez baldin badituzu poemaren hitzak ikusten, halako bisio bat bezala, ez bazaituzte barrua inarrostean, orduan idatz dezakezu poesia, baina poesia lehorra izango da edo kontzeptuala izango da. Baina faltako zaio emozioa. (Lete, 2011, 63)

2006. urtean, Lurdes hil eta urtebetera, *Abestizak eta poema kantatuak* (Elkar) argitaratu zuen: bere abesti gehienak biltzen zituen liburua. Liburuan, hitzez gain, Leteren hitzaurre

autobiografiko zabala dago, eta hari egindako bi elkarrizketa sakon ere bai, Joxe Arregiren eta Lander Arbelaitzen eskutik. Bere kantuen eta kantagintzaren gaineko azalpenak daude liburu horretan. Abestitzen artean, bere kanta daude (bere ahotik ezagunak direnak eta baita beste abeslariak musikatu zituztenak ere) eta baita Letek itzulitako abestiak ere. Ordura arte, kanta asko berridazten jarduna zen Lete eta lan honekin nolabaiteko osotasuna eman nahi izan zion bere obrari; kantuen behin betiko bertsioak ezarri: “azken irakurketarako balio luketenak liburu honetakoak dira” (Lete, 2006, 46).

Bizi zela argitaratu zuen azken liburua *Egunsentiaren esku izoztuak* izan zen (Pamiela, 2008a). Isilune luze baten osteko poema liburua izanik, oso garai ezberdinetako olerkien bilduma da. Atalik esanguratsuen ‘Neguan izan zen’ izenekoak da. Funtzioari erreparatzen bazaio, akaso ez; baina literatur kalitateari begiratzen bazaio bere lan gorena dela esan liteke. Gurrutxagak dionez, (2006, 86) azken fase honetan galera absolutuaz mintzo da Lete.

Urien-en *Poesia, zaurien ukendu* liburua Leteren lan honekiko maitasun aitormen bat da. Liburua irakurtzeko giltzarriak eskaintzen ditu saio honek, filosofia, literatura eta dokumentazio lan sendoa uztartuz. Urienen ustez “izotza, hotza, negua, oinazea eta galerak sortutako bakardadea dira liburua barnebiltzen duten atmosferaren osagaiak”. Letek liburu horri buruz 2009an eskainitako hitzaldi bat jasotzen du liburuak:

Uste dut poesia-liburu hori nire barne-izatearen aitortzen bortitza dela eta bertan daudela jasoak azken urte hauetako gogoeta, sentimendu, oinaze, zauri eta galera guztiak”. Poema hoi bidez adierazi zituen bere “izpirituaren azpimarratzen bortitzenak” eta agerian geratu ziren bere egiazko izaeraren “argigune urriak eta ilungune izugarriak”. (Lete in Urien, 2020, 99-100)

1995ean hasi zen liburu horretako lehen poemak idazten, Obanosen pasatako udaldi batean. Poemei zentzua, ordea, heriotzek eman zioten. Lagunenak eta, batez ere, Lurdesenak.

2009ko urriaren 27an bere azken *Egunsentiaren esku izoztuak* poesia-liburuagatik Euskadi Literatura Saria eman zioten. Liburu berarentzat izan zen euskarazko 2009ko Espainiako Literatur Kritikoaren Elkartearen poesia saria poemak sailean. Leteren liburuak borobilena da ziurrenik, eta garapen osoaren izaera zirkularra ere igarri daiteke. Letek paradisu terrenalak topatzeko ahaleginak bistaratzen ditu. Gurrutxagak bere tesian modu argigarrian seinalatzen du zein den Leteren merituetako bat, bere mundua den mundu bihurtzeko gaitasuna:

Letek bere mundu poetikoa eraiki eta komunikatzen du, baina ni poetikoaren mailan gauzatzen den mundu horrek garaitu egiten du Leteren mundua, eta testuinguru berrietako irakurlari dei egiten dio, Leteren poetikaren baitako elementuak bizi ditzan. Horrela, Lete ez da bere heriotzaz ari, baizik heriotzaz; ez da Lurdesen heriotzaz ari, maitearen galeraz baizik; eta ez da euskal aberriaz —bakarrik— ari, aberriaren bizipen unibertsalaz baizik. (2020a, 649)

Letek beste poetez idatzitako artikuluetan oinarritzen da Sanchez bere poesiaren definizioa osatzeko. Poesiaren mailu izaera eta kontzepzio sinbolistagoa uztartzen dituela dio, sentimenduen adierazpide ez ezik errealitatearen ispilu izatearen funtzioa ere bete behar duela dio (1993, 100): Leterentzat poesia errealitatea izendatzea, laburbiltzea, deskribatzea eta eraldatzea da. Gogoetaz osatutako hezurdura bat du eta estilo literarioak betetzen du haragiz. Idazteak zauriak sendatzeko balio du, baina baita borrokarako ere.

Letek liburu honen ostean *Herbestea* izeneko beste bat kaleratzeko asmoa adierazi zuen *Irulegi* irratian egindako elkarrizketan (2009), baina ez zuen betetzerik izan. Elkarrizketa hau *Egunsentiaren esku izoztuak* liburuaren aurkezpen biraren ondorioz sortu zen, 2009ko otsailean Izpuran egin zen emanaldi baten kariatara. Hamabi emanaldi izan ziren guztira. Lehena Iruñean izan zen 2008ko abenduaren 2an –Mikel Laboa hil eta hurrengo egunean– eta artistaren eta zaletuen hunkidura erabatekoa izan zen. Lete 2010eko maiatzaren 8an azaldu zen jendaurrera azkenekoz, Ataunen, liburuaren aurkezpena egitera.

2.3.5 Itzulpenak

Letek kalitatezko literatura eskaini nahi zion euskal jendarteari. Berak liburutegi zabalerako sarbidea izan zuen gaztetandik eta zenbait hizkuntzatan ulermena bermatua zuen, baina besterentzat ere nahi zuen aberastasun hori. Horregatik, kanta eta poemak itzuli zituen; hasierako diskoetatik erakutsi zuen asmo hori.

Gustuko zituen testuak euskarara ekartzeko joera izan zuen bizitza guztian zehar. Honako egileen lanak itzuli eta musikatu zituen Letek:

- George Brassens: *Saturne* – San Martin, azken larrosa; *Je me suis fait tout petit* – Panpinaren begirada; *Suplique por être enterré à la plage de Sète* – Sète hiriko hondartzan lurperatua izateko eskaria.

- Jacques Brel: *Les vieux* – Zaharrak, *Les timides*, Lotsatiak, *Au suivant* – Hurrengoa, *La Chanson des Vieux Amants* – Maitale ohikoen abestia, *Ne me quite pas* – Ez nazazu utzi, *Amsterdam* – Amsterdam, *Voir un ami pleurer* – Lagun bat negarrez, *La ville s'endormait* – Hiria lotan zen; *Quand on n'a que l'amour* – Maitasuna besterik ez denean, *Quand mama reviendra* – Ama itzultzean.
- Gabriel Celaya: *Retorno* – Itzulera.
- Leonard Cohen: *Suzanne* – Suzanne, *Bird on the wire* – Txoriak kaiolan.
- Lluís Llach: *L'estaca* – Agure zaharraren erranak; *Vaixell de Grecia* – Greziako itsasontzia, eta *Corrandes d'exili* – (H)erbesteko kalejira tristeak.
- Cesar Pavese: *Verrà la morte e avrà i tuoi occhi* – Heriotza etorriko da eta zure begiak izanen ditu.
- Rainer Maria Rilke-ren *Das Stunden-Buch* obraren (Orduen liburua liburuaren) 22 poema.
- Mikis Theodorakis: *To Πνευματικό Εμβατήριο* (greziarrez) – Izpirituaren eresia.

Zenbait poemen itzulpenean zorrotza da Lete, baina beste askotan ez du itzulpen lan askeagoa egiten du. Poemaren edo poemarioaren mamia bereganatu eta birformulatu egiten du. Kantuen itzulpenean, bereziki, kantaren musikalitatea mantentzearen alde egiten du, mezua apur bat bihurritu behar badu ere. Anjel Lertxundik *Itzuliz usu begiak* saiakeran Leteren lana goresten du. Bere ustez, itzultzaile gutxik sintonizatu du jatorrizko poemen espirituarekin eta irakurlearekin Letek bezain zehatz (2019, 333). Hizkuntza batetik besterako itzulian zati bat galtzen eta bestea irabazten denaren ideia defendatzen du Lertxundik, eta poemak horiek euskarara ekarri izanari ematen dio balioa:

“Galduak galdu, hori da euskararentzat irabazi duena hizkuntza batetik besterako bidaiari: itzultzailearen poetikotasun erantsia (...) ematen du itzultzaileak, itzulpenaren errotan, poema berri bat sortzen duela, eredu goren baten imitazioz egina, baina osoro berea. (...) bidaiari galdutakoa ordezkatzeko asmatu du (...) hainbat bertsio daukagu hainbat hizkuntzatan, bakoitza bere xarma propioarekin eta, aldi beran, sustrai beraren zentraltasunarekin”. (2019, 333-334)

Lertxundiren ideia honi helduz, itzultzen duenak jatorrizko poemak bere egiten ditu. Letek zein poema itzuli ere hautatu ahal izan zuen. Haietako batzuk, bere diskografia eta poema liburuen parte dira; baina beste batzuk paperean argitaratu gabe geratu dira. Hala ere, bere

funtsean ikusgai daude. 1967ko abuztuaren 7an Trinitate Plazan emandako kontzertuan Joan Manuel Serrat-en ‘*La mort de l’avi*’ kanta jo zuen, itzulita:

No hi ha rialles, sols hi ha plors.
No hi ha cançons, sols hi ha gemecs.
Sembla que tot vagi de dol
En aquest racó mariner.
A la taverna, els pescadors
Estan tots muts, no diuen res,
I les comares, a l'església,
Preguen per l'avi.
Tothom anirà a l'enterrament,
Tothom dirà: "que bo què era!"
Tothom sabrà parlar-ne bé,
Potser algú plorará de pena.
Però no d'amor, perquè, al vell,
D'amor, tan sols li'n van donar
La barca, el vent, els aparells,
La xarxa, el sol i el blau del mar.
Però l'endemà tot ha canviat,
Car ningú no pensa en el vell.
Els pescadors són a la mar,
Els minyons juguen pel carrer.
Però a la platja, plena ahir,
Sols una barca hi ha restat,
Amb una xarxa que mai més
No tornarà a besar la mar.
No tornarà a besar la mar,
Mai més.

Negarra bai. Parrerik ez.
Abestirik ez da entzuten.
Denak trixte dirudite
gure itxas bazter baten.

Arrantzaleak, taberna.
Itzik ez dute egiten,
eta atsoak, elizan.
otoitz bat ixilik.

Eta denok joango dira
zarrari lurra ematera.
Zer ona zan esango da
malko batzuekin batera.

Baiñan maitasunikan ez,
ez die inork emango;
itxasoak bakarrikan,
sare zarrak ta eguzki epelak.

Biar gizaz, argitzean,
ahaztu dira agureaz.
Arrantzaleak lanera
mutikoak jolasean.

Baiñan ondartzan ixilik,
ontzitzo bat gelditu da,
itxasoak iñoiz berriz
xamur laztanduko ez duna.

Kanta honetan itzulpena ia literala da, nahiz eta zenbait xehetasun aipatzen diren jatorrizkoan eta itzulpenean ez. Letek, ahal duen neurrian, errimatzeke ahalegina egiten du; kasu batzuetan errima aberatsekin (“ematera”-”batera”), eta beste batzuetan errima asonanteekin. (“gelditu da”, “duna”). Mezua formaren gainetik jartzen du itzulpen honetan.

‘*Donna, Donna*’ abestia ere itzuli zuen. Abesti hau Aaron Zeitlingena da, eta melodia Shalom Secundarena. Leteren belarrietara Joan Baezen ahotik heldu zen, 60ko hamarkadan:

Mutiko baten galderak

Mutiko batek bein galdetu zun
“aitatxo noiz etorriko da”
amak negarrez erantzun zion
“zeruan dago gure zai”.
(...) izar baten gainean

turne’ abestia ere itzuli zuen. ‘San Martin, azken larrosa’ deitu zen bere diskotan. Letek ber Georges Brassensen ‘*Sae* itzulpen lan gehienetan ez zituen itzultzaile lan zorrotzak egiten. Testuaren arimaren bila abiatu, hura harrapatu, eta euskaraz berridazten zituen. Hona originala eta itzulpena:

Il est morne, il est taciturne
Il préside aux choses du temps
Il porte un joli nom, Saturne
Mais c'est Dieu fort inquiétant

Ez da ilun, ez da beldurgarri
egun joanen itzala,
oin galduek zapaldurik duten
bide xahar bat bezala.

En allant son chemin, morose
Pour se désennuyer un peu
Il joue à bousculer les roses
Le temps tue le temps comme il peut

Mila negu, mila udaberri
astindu ditu ekaitzak,
banan-bana lurrean etzanaz
bizi-aroen emaitzak.

Cette saison, c'est toi, ma belle
Qui a fait les frais de son jeu
Toi qui a dû payer la gabelle
Un grain de sel dans tes cheveux

Eta bihar, egunsentirako,
prest egongo da jantzia,
ur-gainean isilik legoke
mugazainaren ontzia.

C'est pas vilain, les fleurs d'automne
Et tous les poètes l'ont dit
Je regarde et je donne
Mon billet qu'ils n'ont pas menti

Zatoz, maite, ta azken larrosa
moz dezagun elkarrekin,
ez da bihar alferrik izango
udazkeneko San Martin.

Viens encore, viens ma favorite
Descendons ensemble au jardin
Viens effeuiller la marguerite
De l'été de la Saint-Martin

Eta hala, poliki-poliki
azken argia itzaliz,
etxe zahar maitagarri hartan
leiho guztiak zabalik,
mugaz harat eramaten duen
bidean zehar ibiliz

Je sais par cœur toutes tes grâces
Et pour me les faire oublier
Il faudra que Saturne en fasse
Des tours d'horloge, de sablier
Et la petite pisseuse d'en face
Peut bien aller se rhabiller...

Letek 1978an *Herri Irratian* egin zioten elkarrizketan kontatu zuen Brassensen lau kanta itzuli zituela 1976an kaleratu zuen *Kantatzera noazu* diskorako. Azkenean, haietako bakar

bat, ‘San Martin azken larrosa’, sartu zuen diskoan; zenbait kanta “birsortzera, birkreatzera edo berritxuratzena” dedikatu zela, puntualizatu zuen:

Bere kantuetan dagoen funtsezko tematika hartuz, gero beste kontenido bat eman, beste modu batera zehaztu kontenidoa eta, en fin, giro bati jarraituz, zerbait egin, rekreazio gisako zerbait egin, ez? (...) San Martin azken larrosa izan liteke nik zenbait frantses kantari zor diodan zerbaiten aitortze bezalako bat izan liteke kanta hau. (Lete, 1978)

Aitortza hori zabalagoa bihurtu zuen gerora, Brelen kantekin egindako lanarekin. Antzerako jokatu zuen miresten zituen beste artistekin ere. Rilkeri zuzendutako diskoa bat ere ondu zuen 2004an.

Letek, itzultzaile orok ohi duen gisa, zenbait erabaki hartzen ditu. haietako bat “mugaz harat” itzultzea izan zen. Lapurdiko deklinatzeko modua hobetsi zuen frantses jatorriko kantari baten letra izanik. Doinua ere mantendu egin zuen, baina errima sistema aldatzea erabaki zuen. Brassensen abestiak ABAB egitura errepikatzen du. Errima sistema hau ez da hain ohikoa euskal literaturan. Bertsolaritzan antzekotasun gehien duen doinua ‘Iparragirre abila dela’ litzateke. Gaztelaniarekin talkan egoteak sortu ditu, hala ere, errima sistema hori adoptatzeko saiakera dotoreak eta Letek baditu zenbait poema bide hori hartzen dutenak. ‘Biographia’ da ezagunenetako bat:

Nere izatearen ordu ilunenak maite ditut orain
haiek zirelako kontzientziaren ingude garratza,
itzaltzearen delarik zentzu iratzarrien lorezko baratza
ezin baitut hazia gatzak estali zuen lur antzuan erein.

Zuhaitz heldua naiz hilobiari itzal isil dagiona,
menturazko ametsa gazte batek noizpait abesti egina:
atsedena baliz ausaz iraunkorra eta lotan grina
bere soseguan argitsu litzateke lurrezko gizona.

Oso konplexua da errima sistema hau mantendu, eta aldi berean jatorrizko mezuari fidel izatea eta baliteke horregatik erabaki izana lerro paretan bakarrik errimatzea. Bestalde, hala eginda, koplak handiko egiturak sortzen ditu Letek 10/8ko bi puntu, nahiz eta hemistikioa ezohiko lekuan hautsi (4+6).

Cesare Pavesearen ‘Verrà la morte e avrà i tuoi occhi’ ere kantatu zuen Letek. ‘Heriotzaren begiak’ itzuli zuen. Letek Italiako idazlearen poema batzuetatik (ez poema bakarretik) kanta sortzea erabaki zuen. Bi puntuko estrofatan bildu zituen itzulpenak eta lerro paretan

errimatzen dute modu kontsonante eta asonantean. Etribiloan, ordea, ez zuen errimarik erabili:

Verrà la morte e avrà i tuoi occhi
questa morte che ci accompagna
dal mattino alla sera, insonne,
sorda, come un vecchio rimorso
o un vizio assurdo. I tuoi occhi
saranno una vana parola
un grido taciuto, un silenzio.
Così li vedi ogni mattina
quando su te sola ti pieghi
nello specchio. O cara speranza,
quel giorno sapremo anche noi
che sei la vita e sei il nulla.

Per tutti la morte ha uno sguardo.
Verrà la morte e avrà i tuoi occhi.
Sarà come smettere un vizio,
come vedere nello specchio
riemergere un viso morto,
come ascoltare un labbro chiuso.
Scenderemo nel gorgo muti

Etorriko da zure soaz heriotza
gor, logabe, alhadura zaharren gisa,
goiznabarretik gauera alboan dugun
ohidura zentzugabe bat bailitzan.

Zure begiak alferrikako hitza izanik
garraisi mutu, isiltasun oro isil,
goiz bakoitzean aurkitzen dituzu adi
ispilura begiratzuz, ilun, hurbil.

Jakinen dugu egun hartan, oh itxaropen!
Bizitza zarela eta ezereza,
guztontzat du heriotzak soa zorrotz
bakar, mutu, leizera jeitsiko gera.

Urratuko da ezpain hertsien keinua,
aurpegi arrotza leihoaren ondoan,
usadioen guneak desitxuratuz
biluztasuna nagusitzen denean.

Zure begiak argi grisaren errainu,
mendi ilunen goizorduko izotza,
esnatzearen dardara eta ikara
kale hutsetik hurbiltzen zarenean.

Jakinen dugu egun hartan, oh itxaropen!
Bizitza zarela eta ezereza,
gizontzat (guztontzat?) du heriotzak soa zorrotz
bakar, mutu, leizera jetsiko gera.

Gurrutxagak (2020a, 631-632) bere tesian dio itzulpenak ez duela korrespondentzia zuzenik, baina aldi berean seinatzen du ez dela poema bakarraren itzulpen soila, Paveseren zenbait poesiaren uztarketaren ondorioz mamitutako berridazketa baizik:

Itzulpen aitortua da eta, beraz, printzipioz irakurleak espero du Leteren itzulpenak “baliokidetza” bilatzea italierazko jatorrizkoaren eta bere euskal testuaren artean. Kontua da baliokidetza hori, korrespondentzia zehatzari dagokionez behintzat, ez dela ikusten —beste kontu bat litzateke defendatzea Paveseren tonua harrapatzeko modu egokiena horixe zela hain justu ere—: Paveseren poemak bi ahapaldi dauzka, Leterenak bost, eta horietatik bi ez dira Paveseren poemakoak —Paveseren beste poema bat eta Leteren beraren ideiak daude horien oinarrian—. Beraz, Leteren itzulpenak Pavese hartzen du abiapuntu, baina behin hiru ahapalditan itzuli-moldatu duelarik, beste bi ahapaldi gehitzen dizkio. Esan bezala, irakurlearekin ezarritako hitzarmena itzulpenarena denez, printzipioz irakurleak ez du zertan pentsatu bi ahapaldi horiek Paveserenak ez direnik —de facto, armiarma web orrian Leteren bertsioa itzulpen gisa dago—.

Metrikoki egiten dion soinekoa kenduta, nahiko itzulpen zuzena da gure ustez. Gurrutxagak aipatzen dituen bi estrofak honakoak dira:

Urratuko da ezpain hertsien keinua,
aurpegi arrotza leihoaren ondoan,
usadioen guneak desitxuratuz
biluztasuna nagusitzen denean.

Zure begiak argi grisaren errainu,
mendi ilunen goizorduko izotza,
esnatzearen dardara eta ikara
kale hutsetik hurbiltzen zarenean.

Lehenengo estrofaren jatorria ez da argia. ‘*The cats will know*’ (1950) poematik eratorriak dirudite zenbait elementuk (leihoen eta keinuen aipamena dela-eta):

Ancora cadrà la pioggia
sui tuoi dolci selciati,
una pioggia leggera
come un alito o un passo.
Ancora la brezza e l'alba
fioriranno leggere
come sotto il tuo passo,
quando tu rientrerai.
Tra i fiori e davanzali
i gatti lo sapranno.
Ci saranno altri giorni,
ci saranno altre voci.
Sorriderai da sola.
I gatti lo sapranno.
Udrai parole antiche,
parole stanche e vane
come i costumi smessi
delle feste di ieri.
Farai gesti anche tu.
Risponderai parole –
viso di primavera,
farai gesti anche tu.

Eta eduki dezakete beste poema baten arrastorik ere: “*Sei un chiuso silenzio / che non cede, sei labbra / e occhi bui. Sei la vigna*”.

Bigarrenaren jatorria askoz argiago topatu da Paveseren ‘*In the morning you always come back*’ izeneko poeman (1950ekoa):

Lo spiraglio dell'alba
respira con la tua bocca
in fondo alle vie vuote.
Luce grigia i tuoi occhi,
dolci gocce dell'alba
sulle colline scure.
Il tuo passo e il tuo fiato
come il vento dell'alba
sommergono le case.
La città abbrivisce,
odorano le pietre –
sei la vita, il risveglio.

Stella perduta
nella luce dell'alba,
cigolio della brezza,
tepore, respiro –
è finita la notte.

Sei la luce e il mattino.

Abestizak eta poema kantatuak liburuan Paveseren aipu baten itzulpenarekin ixten du bere antologiaren aurreko prosazko azalpena; itxuraz, bere sentitzen zuena:

izan zen gizon bat
saiatu zena,
baina ez zuena asmatu. (Lete, 2006, 42)

Zenbait autoreren kanta ugari itzuli zituen Letek. Rilkeren poemak errezitatzeko itzuli zituen eta emanaldi bat egin zuen zeinetan alemanez eta euskaraz errezitatzen ziren poemak. Antzeko lan bat egin zuen Brelen kantekin ere, baina hauek kantatzeko itzuli zituen. Hala izanik, metrikoki errespetatu egin behar izan zituen originalak eta meritu handiko itzulpenak egin zituen. Frantzian bizi zen Jean Paul Harreguy oiartzuarrari esker iritsi zen Brelen kantatara *Abestizak eta poemak* liburuan aitortzen duenez (Lete, 2006, 9).

Errenteria-Oreretan emandako kontzertuan abestu zituen eta KDan jasota gelditu dira. '*Ne me quitte pas*' abestiaren itzulpena bikaina da euskarak tamaina foniko handiagoa izanda ere, informaziorik apenas galtzen den itzulpenean. Hemen, Leteren bertsioa, ezkerreko bi zutabetan; eta, eskuinekotan, Andoni Lekuonarena:

Ez zaitetz joan,
 Ez nazazu utzi
 Ahaz dezagun
 Lehengo denbora
 Ilunperatu
 Desleialtasun
 Zaurigarrien
 Une larriak,
 Ordu zekenen
 Bihotz mindua
 Berriz ehortzi
 Behin betirako,
 Ez nazazu utzi,
 Ez nazazu utzi
 Ez nazazu utzi,
 Ez nazazu utzi.
 Nik zuretzat ditut
 Itsaso galdu
 Urrunetako
 Perla bitxiak,
 Lurbira dena
 Inguratutik
 Zure gorputza
 Urrez jazteko,
 Eraiki nahirik
 Maitasunaren
 Egoitza zabal
 Berdingabea,
 Ez nazazu utzi,
 Ez nazazu utzi
 Ez nazazu utzi,
 Ez nazazu utzi.
 Ez nazazu utzi,
 Asmatuko dut
 Zure neurriko
 Hitzen multzoa,
 Mintzatuko naiz
 Bihotzak berriz
 Batu zituzten
 Maitaleetaz,
 Zure beharrez
 Penaz hildako
 Erregearen
 Gertakizunaz,
 Ez nazazu utzi,
 Ez nazazu utzi
 Ez nazazu utzi,
 Ez nazazu utzi.

Bai, ikusi da maiz:
 Sua berpizten
 Itzalitako
 Sumendietan
 Euri berriak
 Ibar errea
 Udaberrian
 Gariz beterik,
 Arratsaldeko
 Zeru hertsia
 Gorri ta ilun
 Diren orduan,
 Ez nazazu utzi,
 Ez nazazu utzi
 Ez nazazu utzi,
 Ez nazazu utzi.
 Ez zaitetz joan,
 Ez dut negarrez
 Hitz alferretan
 Zutaz jardun nahi,
 Miresmen haundiz,
 Dantza ta irriz
 Kantu ta farrez
 Gurtzaile izan,
 Utzi iezadazu
 Zure itzala
 Zakur leiala
 Beti izaten,
 Ez nazazu utzi,
 Ez nazazu utzi
 Ez nazazu utzi,
 Ez nazazu utzi.

Ez nazaz'utzi!
 Behar da aztu,
 guztia aztu,
 aztu ta etsi:
 Aldi galdua
 joan den garai,
 kontrako zernai
 hor pilatua;
 orduen otsa,
 garratza zena,
 hausten zuena
 zorion-poza.
 Ez nazaz'utzi...
 Dizut emanen
 eurizko txirla,
 euririk ez den
 herriko perla;
 lurra haustuko
 indar berriaz
 zu apaintzeko
 urre gorriaz;
 nai nuke egin
 ner'erehua
 mait'erreinua
 ta zu erregin.
 Ez nazazu utzi
 Hitzak: Andoni
 Lekuona
 Musika: Jacques Brel
 Errepika: Ez
 nazaz'utzi,
 Ez nazaz'utzi,
 Zuk ni ez utzi,
 Zuk ni ez utzi!

Ez nazaz'utzi!
 Dut asmatuko
 nik zuretzako
 t'adierazi:
 Zuk ausnartzeko
 zu biguntzeko
 erran zoroak
 erran beroak:
 errege baten
 bihotz-arnasa,
 zurekin zuen
 maite-ametsa.

Ez nazaz'utzi...
 Ikus'izan da
 sumendi zarra,
 lotan egon-da,
 berritzen garra;
 gari-zelaian,
 —suak errea—
 dator garaian
 gari ohea;
 ilunabarrez,
 beltz eta gorritz,
 datorkit berriz
 maitea parrez.

Ez nazaz'utzi!
 Ez dut hitzikan,
 ez negarrikan,
 hain naiz gauz gutxi.
 Ni naiz gordeko
 zu ikusteko
 gogoz dantzaten,
 pozez kantatzen.
 Nai nuke izan,
 mirabe gisan,
 zure itzala,
 txakur leiala.
 Ez nazaz'utzi...

Beste bi itzulpen ere aztertzen ditu Gurrutxagak bere tesian (2020a, 631). Batetik, ‘Dama gazte bati azken agurrean’ abestia Pio Barojaren ‘Despedida a una dama’ eta ‘Final’ poemak erabiliz osatua dela jasotzen du. Bestetik, ‘Izpirituaren eresia’ Angelos Sikelianosen poemarekin Theodorakisek egindako kantua aipatzen du. Bietan, Leteren ekinbidea poemak egokitzearena da itzultzearena baino gehiago. Iritzi berekoa da Egia (2011) ‘Xabier Lete, itzultzaile’ artikuluan.

Gurrutxagak baieztapen interesgarria egiten du bere tesian. Letek itzultzaile lanetan hartzen dituen lizentziak eta malgutasunak eta zenbait poematan egiten dituen plagioen jatorria leku berean kokatzen ditu:

Bere moldaketen korpusean badaude itzulpen nahiko zehatzak —Rilkerenak, adibidez—, badaude moldaketa erabat askeak ia itzulpen gisa ere hartu ezin litezkeenak—aipaturiko Barojarena, esaterako—, hor dago Paveseren poematik abiatuz egiten duen luzapen pertsonala... eta badaude birkreazioak ere. Hain zuzen, horixe izan liteke Ribaren eta Rilkeren poemekin egiten duena definitzeko hitz egoki bat. (2020a, 632)

2.3.6 Plagioa

Leteren obran plagioak daudela salatu dute zenbaitek azken urtetan. Zenbaitek nahiago du oiartzuarraren poema horietan birkreazio edo moldaketa lan bat dagoela esatea. horietako bat da Gerardo Markuleta. Bera konturatu zen lehenengoz antzekotasunez *Poeta katalan garaikideak* antologia prestatzen ari zela. Hala iradoki zuen *El Diario Vasco*-ko prentsako kritikan (1992/12/09):

Liburuko poema zenbaitetan Carles Riba poeta katalanaren tonu metafisiko-sentsuala ageri da, eta batzutan oihartzunak oso indartsuak dira, noiz edo behin haien euskarazko birkreazioa direla ere esan daitekeelarik.

Paper nahasketa baten ondorio zela pentsatu zuen Markuletak: “Letek adin bat ere bazuen, eta itzulpen batzuk karpeta batean gorde, eta hurrengo batean jatorrizkotzat hartzea ez zen hain harrizkeoa ere” (Astiz, 2018). Markuletak telefonoz eman zion Leteri bere aurkikuntzaren berri eta honek egin behar zuena egiteko esan zion, “oso kristau” (2020an Markuletarekin izandako berriketalditik berreskuratua). Oñatiko itzultzaileak kontua ez zabaltzea erabaki zuen eta pare bat adiskiderekin baino ez zuen hitz egin gaiaz. Haietako batek, Mikel Hernandez Abaituak, gutuna bidali zion 50 euskaltzale ingururi Leteren plagioak bistaratz. *Airearen isila* nobelan badago horri buruzko aipamenik:

Antxon Bengoetxearen poema plagiaturaz oroitu zen segituan, hamaikagarren aldiz Artiesetik irten zirenetik, eta odola urdaitetik gora igotzen zitzaiola sentitu zuen. Hugo von Hofmannsthalen poesia guztia irakurri ondoren, Bengoetxearen Airearen isla liburuaren bi heren gutxi gorabehera idazle austriarraren poemetatik plagiaturata zeudela aurkitu zuen. (...) Ez zekien zer egin kontu harekin. Ez zen ausartu Gabriel Iturberen tertuliako kideei ezer kontatzen, ezta beste inori ere. (...) Ezer ez jakitea edo ezkuatzea nahiago izango zuten ziur aski, enpresaren sortzaileetako bat izan zenez gero. Bestalde, barregarri geldituko zen Madrilgo argitaletzekoen aurrean, plagioz ez konturatzeagatik. Okerragoa zen Frankfurtekoa, poema batuen irakurketa jende aurrean egin behar zelako. (Hernandez, 2016, 236-238)

Javier Rojok (2016) *El Correo* taldeko egunkarietan egindako kritikan erreparatu zuen tematika horretan: “Joseba hasieran literatur kritikaria eta gero argitaratzailea delarik, gure literaturaren mundutxoan gertatzen diren xixtrinkeriez ere hitz egiten da, hori bai, protagonisten benetako izenak eta zenbait ezaugarri aldatuta”.

Letek ordura arte Erein argitaletxean argitaratu ohi zuen. Gertatutakoaren ondoren Pamielan argitaratzen hasi zen. Polemika hura literatur munduko askorengana iritsi zen, baina ez zen publiko egin. Ramon Etchezarretak (2017) *Diario Vascon* mahaigaineratu zuen isilune hura:

Guztioi jo digu gure maitasunean halakoren plagioak, guztiok miserabletu gaitu merezi genuena baino gehiago. Sufritu dugunok ez omen dugu galtzeko lotsarik behar. Baina arrazoi gordeez galdezka hasita, lotsaz hitz egin beharra baldin badago... galdetu behar genuke zer ondradutasun klasek behartu gintuen, zuriak eta gorriak, kontrakoak eta besteak, salbuespenik gabe, isilik egon, eta ez ikusiarena eta ez irakurriarena egitera.

Koldo Izagirrek Leteren poema antologia egin zuenean plagioaren inguruko hitz-atze bat idatzi zuen eta jendaurreko aurkezpenetan ere hitz egiten zuen zenbait kasuren inguruan. Izagirrek erabilitako tonua eta testu hori antologian kokatzea ez zela egokia iritzi zioten Markuletak, Aritz Gorrotxategik eta Felipe Juaristik ‘Leterenak direnak eta ez direnak’ artikuluan (Astizek *Berrian* egindakoan). Izagirrek, liburuan dio isiltasunak, Lete babestu ordez, maiseoa eta marmarra indartu zituela eta euskal literaturari kalte egin nahi zion norbaitek halako gertaera baten erabilera makurra egin zezakeenaz kasik ardura kontua zela halako zerbaiten gainean argia isurtzea (2017, 279). Izagirrek seinalatzen dituen poemak itzuliak direla disimulatzeko ahaleginik ez zuen egin Letek eta horregatik antologiagileak galdetzen du “lapurreta ote da? Edo lapurraren xalotasunaren froga ote?”.

Bi poeta handien arteko harremana gorabeheratsua izan zen. Izagirre idazle gisa erretzen ari zen garaian oiartzuarrak, ordurako literatur zirkuituan finkatuta zegoenak, kritika gogor

samarrak egin zizkion; erretorizismo negarti baterako joera zuela adierazi zuen: “Adiskide, inor sekulan lapidatu ez duen hark bota beza lehen harria. Eta beste gauza bat ere esan nahi nioke: penagarri da hain gazterik kulpabilitate konplexuak izatea, nabarmentzeko moduan behintzat” (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 168). Urte batzuk beranduago, Pasaikoak Leteren antologia osatu zuen, baina Lete ez zuen asebate Izagirrereren hautaketak eta ez zion bere bilduman argitaratzeko baimenik eman. Izagirrereren hitzak bere egiten ditu Joseba Irazabalek bere doktorego tesian. Bertan, plagio sortzailea eta plagio gaitzesgarria bereizten ditu eta bigarrenetan kokatzen du Leteren ekintza (2021, 16).

Izagirrek seinlatu zituen birmoldatutako poematako asko eta Gurrutxagak beste batzuk gehitu zituen bere tesian (2020a, 514-515). Hurrengo bi orrialdeetan birkreazio guztien bilduma ekarriko da Gurrutxagaren tesitik: Carles Ribaren 18 poema identifikatu zituen *Bizitzaren ikurrak* liburuan. Lehen atalean, *Dohainen liburuan*, haren ideien itzulpenak dira lehen zortzi poemak:

- Lete DL1 Hiri zaharrean / *He dormit dins la torre* (Salvatge Cor 22.or.)
- Lete DL2 Ahotsak honela zioen / *L'arbre ha dit* (SalvCor 26.or.)
- Lete DL3 Bihotzez dut amesten / *Penso en el cor* (SalvCor 30.or.)
- Lete DL4 Atzerriratuak gau luzeari / *Llarga, com s'allarga* (SalvCor 34.or.)
- Lete DL5 Ni geldi / *Jo inert* (SalvCor 40.or.)
- Lete DL6 Eternitate beti / *Sempre deguda* (SalvCor 42.or.)
- Lete DL7 Zeru-horma urdina / *Celeste mur* (SalvCor 56.or.)
- Lete DL8 Abestiak narama / *El cant em mena* (SalvCor 64.or.)

Leteren funtsean ‘Ez nintzateke alferrik mintzatuko’ poema argitaragabea ere topatu zuen Gurrutxagak; Ribaren *Salvatge Cor* liburuko ‘No ho diria en va...’ poema (XXVI.a) ren itzulpena litzatekena.

*Zentzu Antzaldatu*en *Poemaliburua* da liburuaren bigarren zatia eta honakoak dira atal honetako loturak:

- Lete OL1 Izkutua zen bidea / *Era secret el camí* (Elegia 1 de Elegies de Bierville)
- Lete OL2 Ertsi zaitez / *Clou-te, cúpula verda* (Elegia 5 de Elegies de Bierville)
- Lete OL3 Memoriaren gaiak / *Les choses de l'oblit* (Estancia 25, Segon llibre)

- d'estances)
- Lete OL4 Denboraren gehiegikeria / *El dia què* (Estancia 18, Primer llibre d'estan.)
- Lete OL5 Izpiritu ilun / *Ànima meva...* (Estancia 26, Primer llibre d'estan.)
- Lete OL6 Hiltzea agian / *Morir tal vegada* (Estancia 4, Segon llibre d'estances)
- Lete OL7 Zoriontsu ortze / *Feliç qui ha viscut* (Estancia 6, Segon llibre d'estances)
- Lete OL8 Ametsaren uharteok / *Illes del somni* (Estancia 11, Segon llibre d'estanc.)
- Lete OL9 Oste arlotea / *Espellifada caravana* (Estancia 15, Segon llibre d'estanc.)
- Lete OL10 Egunsentira / *M'he abocat al alba* (Estancia 18, Segon llibre d'estanc.)

Rainer Maria Rilke da Leteren beste iturrietako bat. Liburu bereko lehen zatian, sei dira Rilkeren oihartzuna duten poemak eta hiru bigarreanean:

- Lete DL9 Entzun zenitzake / *Ya oyes los primeros* (Sonetos a Orfeo XXV)
- Lete DL10 Denbora, hain hauskorra / *Existe realmente el tiempo* (Soneto XXVII)
- Lete DL11 Hainbat urruntasunen / *Siente, callado amigo* (Soneto XXIX)
- Lete DL30 Oh atsegin haundi / *Oh este placer* (Soneto XXIV)
- Lete DL32 Zinez sinisten dut / *Creo en todo lo nunca dicho* (Horas, Vida monást. 12)
- Lete DL33 Nere izatearen / *Amo de mi existencia* (Horas, Vida monást. 5)
- Lete OL12 Ez zaitu harritzen / *No te asombra* (Horas, Peregrinación 1)
- Lete OL13 Denetan eskasena / *Solo soy uno* (Horas, Peregrinación 11)
- Lete OL32 Nekarazten bazaitut / *Si a veces te molesto* (Horas, Vida monást. 6)

Zentzu Aldatuen Poemategitik kanpo utzi zituen Letek bi poema hauek :

- Lete ZAP XIV Psalmoak ditut nik / *Tengo himnos que callo* (Horas, Vida monást. 40)
- Lete ZAP XV Zuek, hiri ez setiatuek / *Oh, vosotras, ciudades* (Horas, Vida monást. 49)

Plagioaren susmoa berresteko, Gurrutzagak tesian jasotzen du eskura zituela Letek honako liburuak (2020a, 229):

- Ribaren *Obra poética: Antología*, Ínsula, 1956.
- Ribaren *Obres completes 1: Poesia*, Edicions 62, 1988.
- Rilkeren *Correspondencia*, Calamus scriptorius, 1980.
- Rilkeren *Elegías de Duino. Los Sonetos a Orfeo*, Cátedra, 1987.
- Rilkeren *El libro de horas*, Lumen, 1989.

Gurrutzagak dio ez duela sumatzen Leteren poemak itzulpenak direla disimulatzea helburu izan lezakeen urruntze estrategiarik, eta plagiotzat hartzeko “alde bakarra aitortua izatea edo ez izatea” izango litzatekeela. Plagiatutako poemei esker sari bat bereganatu izanak larriagotu zuen egilearen ekintza.

2.3.7 Obren eta gertakarien kronologia laburra

Lehen fasea (1964-1978)

- 1.1 fasea: Norbanako gisa (1964-1968)
- 1964. Antzerki taldeen biltzarra Eibarren.
- 1965. Gabriel Arestiren *Justizia txistulari* antzezlanaren egokitu zuen.
- 1965. *Zeruko Argian* kolaboratzen hasi zen (1976 arte jarraitu zuen).
- 1968. *Egunetik-egunera orduen gurpillean*. liburua (Hegosa Cinsa).
- 1968. *Jakin aldizkaria*. Serrati buruzko artikulua.
- 1968. *Xabier Lete* diskoa (EP)
- 1.2 fasea (1968-1972)
- 1965. Ez Dok Amairuren sorrera.
- 1969. *Lourdes Iriondo-Xabier Lete* diskoa.(EP)
- 1969. *Xabier Lete* diskoa (EP)
- 1969. *Poemas al Che* liburuko kolaborazioa.
- 1970. *Euskal kantari berri hautatuak* bilduma. Herri Gogoia.
- 1971. *Udazkenean*.
- 1972. Ez Dok Amairu desegin zen.
- 1.3 fasea (1972-1977):
- 1972. Baroja eta Euskal Herria izeneko kapitulua idatzi zuen *Pio Baroja bere ehunurteburuan: 1872-1972* libururako.
- 1973. *Alzateko Jauna* antzezlanaren.
- 1974. *Xabier Lete* diskoa. Edigsa.
- 1974. *Bertso zaharrak* diskoa (Elkar). Antton Valverderekin eta Julen Lekuonarekin batera egindako bertso zaharren bilduma.
- 1974. *Bigarren poema liburua*. Gero Mensajero.
- 1974. *Jakin aldizkaria*. Lizardiri buruzko artikulua.
- 1976. *Txirritaren bertsoak*. Herri Gogoia / Edigsa. Antton Valverderekin batera egina.
- 1976. *Lurdes Iriondo-Xabier Lete*. Herri Gogoia / Edigsa.
- 1976. *Kantatzera noazu...* Artezi. Garaia aldizkarian kolaboratu zuen urte honetan zehar.
- 1977. *Jakin aldizkaria*. Kantagintza Berriari buruzko artikulua.
- 1978. *21* liburua. Hordago.
- 2. fasea (1978-1990):
- 1978. *Lore bat, zauri bat* diskoa. Herri Gogoia.
- 1978. *Bai euskarari* diskoa. Euskaltzaindia.
- 1978. *Karlistadaren kronika* antzezlanaren.
- 1978. *Txirritaren asto lasterra* antzezlanaren.
- 1979. *Muga aldizkarian* kolaboratzen hasi zen (1981 arte).
- 1980. '33en manifestua' sinatu zuen.
- 1981. *Urrats desbideratuak* liburua kaleratu zuen. GAK.
- 1981. *Iparragirre. Zure oroiz* diskoa. Xoxoa
- 1982. *Gabon Txirrita* antzezlanaren.
- 1983. Politikagintzan sartu zen.
- 1985. Gaixotasuna antzeman zioten.
- 1987. Politika utzi zuen.
- 1989. Hil edo bizi egon zen, lehen aldiz.

- 1989. Kristautasuna praktikatzen hasi zen.
3. fasea (1991-2010)
- 1991. *Eskeintza* diskoa. Elkar.
- 1992. *Zentzu antzaldatuoen poemategia*. Euskaltzaindia BBK.
- 1992. *Biziaren ikurrak*. Erein.
- 1992. *Hurbil iragana* diskoa. Elkar.
- 1992. *Euskaldunon Egunkarian* kolaboratzen hasi zen (1995 arte)
- 1996. Hil edo bizi egon zen, bigarren aldiz.
- 2001. *Berrehun urtez bertsoan (7 KD)*. Elkar.
- 2004. *R.M^a Rilkeren "Orduen Liburua"* disko-liburua. Pamiela. Littera&Musika.
- 2005. Lurdes Iriondo zendu zen.
- 2006. *Abestizak eta poema kantatuak* liburua. 2006, Elkar.
- 2006. *Adiskide bat bazen* emanaldia eskaini zioten Hernanin.
- 2008. *Egunsentiaren esku izoztuak* liburua. Pamiela.
- 2008-2009. *Egunsentiaren esku izoztuak* liburuaren jendaurreko irakurketak.
- 2009. *Neguan izan zen* disko-liburua (DVD) (2009, Pamiela)
- 2010. *Xabier Lete zuzenean. Erreterria 1999.IX.25. Azken Kontzertua* diskoa. 2 KD. A&M Kultur Promotorak.

2.4 Kantagintza berria

2.4.1 Musikaren boterea

Musika bere dimentsio estetikotik haratago doa. Kohesio sozialerako balio duen lanabesa ere bada, gozagarri eta osagarri da eta nortasunaren sortzaile eta mantentzaile. Halaxe baieztatu zuen Theodor Adorno-k (1985, 15):

La tendencia a la integración, a la uniformidad, de las formas sociales se ha extendido al mundo entero; se la puede encontrar en todos los países, incluso en aquellos cuyos sistemas políticos son opuestos. Esa tendencia a la integración penetra en la música. Pues ésta no es solo un arte dotado de una esencia propia, sino que es también un hecho social.

Musikak nortasunak batzeko balio badu, zatitzeko ere balio dezake. Alberto Cabedo Masek dio (2009, 87) kultura guztiek erabili dutela musikaren boterea (ekonomikoa, politikoa, soziala, erlijiosoa edo militarra) historian zehar. Abeslariak jendartearen hezkuntza sentimentalean zuzeneko eragina daukatela defendatu zuen Torrego Egidok (1999, 244) *Canción de autor y educación popular* liburuan. Horren adibide garbiena herrialde bakoitzaren ereserkia litzateke. Hiritar guztiei nortasun bera emateko ahalegin bat da. Musikak, beraz, nortasunaren eraikuntzan indar zentripetua eta zentrifugoa eragin ditzake.

Juan Rogelio Ramirezek dio musika etnia, herri edo klase sozial baten adierazpide kulturala izan daitekeela, haren ondorio, alegia; edo gustu musikal bera duten pertsonen identitate bateratze bat egin dezaketela partekatzen duten zaletasunetik abiatuta (2006, 251). Pentsamendu honi gehitu dakioke bi prozesu horiek batera ere eragin ditzakeela musikak: izan daiteke kultura baten ondorio eta kultura kohesionatuago bat eragin.

Musikaren boterea kontuan hartuta, Estatuak eta estamentu boteretsuek ez dute dudarik egin izan eta musika beraien interesen alde erabili izan dute. Erabilerarik deitoragarriena eta narratsena zentsura izan da. Kapitalismoak, merkatuaren legeak eta haren gainean ezartzen den botereak ere kontrol mekanismoak ditu eta nahieran erabiltzen dira mezu batzuei bozgorailua eman eta besteei sordina ezartzeko.

60. hamarkadaren amaieran errepresio garaia bizi zituen munduak eta haren kontrako ahotsak sortu ziren. Gitarradun poeten garaia izan zen, kantagintza berriarena. Musikari

hauek izendatzeko hainbat aldaera jaso zituen Torrego Egidok: protesta kantua, kantagintza politikoa, kantagintza testimoniala, kantagintza berria, beste kantagintza, kantagintza herrikoa edo kantagintza herrikoi kontzientea, autore kantagintza, kantagintza soziala eta antropologikoa eta Iberiako kantagintza berria terminoak jasotzen ditu (1999, 43-44).

2.4.2 Nazioarteko eragina

Kantagintza berria ez zen hutsetik sortu. 60. hamarkadaren amaieran nagusi ziren errepresioa eta askatasun egarria; eta testuinguru hura egokia izan zen kantu errebindikatiboak sortzen zituzten artistentzat. Diktaduren aurkako mugimenduak izan ziren horietako asko.

II. Mundu Gerra ostean Amerikako Estatu Batuak eta Sobiet Batasunak gerra hotzean ziharduten eta kolektibo bakoitzak bloke baten edo bestearen arteko hautua egin behar zuen gutxi-gehiago.

Bestalde, kolonizazioak mendean hartutako nazioek bilakaera askatzaileari ekin zioten, borroka baketsuan edo borroka armatu bidez, eta horrek Afrikako, Amerikako eta Asiako mapak aldatu zituen.

Ez da kasualitatea Ez Dok Amairu bezalako mugimendu bat sortu izana. Garai hartan antzerako kolektibo asko sortu ziren. Errepresio eta askatasun egarri testuinguru hura egokia izan zen kantu errebindikatiboak sortzen zituzten artistentzat. Kolektibo horietako artista asko etorri ziren Euskal Herrira Ez Dok Amairuk gonbidatuta.

Frantziako eragina nabarmena izan zen. Georges Brassens, Jacques Brel eta Léo Ferré nabarmendu ziren *La chanson française* mugimenduaren bitartez. Ana Luna Alonsok (2000) dio anarkismoa, marjinazioa, Jainkoaren existentzia, denboraren joana, tradizioaren krisia, gazteriaren errebeldia zirela artista hauek lantzen zituzten gaietako batzuk eta eransten du autore horiek ezezagunak zirela espainiarren gehiengoarentzat. Frantziara joan-etorria egin zezaketen euskaldun eta kataluniar pribilegiatuak ekarri zuten haien musika.

Hain zuzen ere, mugimendu horretatik oso gertu, eta eragin nabarmenak jaso zituena izan zen *La Nova Cançó Catalana*. 1963an jaio zen *El Setze Jutges* mugimendua. Espainiar Estatuan ere oihartzun handia lortu zuten bertako kantariak. Mikel Laboa Zaragozatik Bartzelonara

joana zen, Neuropsikiatria espezialitatea egitera. Katalunian Nova Cançó eta Els Setze Jutges mugimenduekin egin zuen topo. Horietako askorekin harremana egin zuen, musikarako gero eta joera handiagoa zuen ikasleak. Bartzelonan sortu zuen lehen kanta, Gabriel Arestiren ‘Apur dezagun katea’ poema musikatuz. 1963an amaitu zituen medikuntzako ikasketak; hurrengo urteak Donostia eta Bartzelona artean eman zituen. Euskal Herriko egonaldietan, Katalunian ezagututako mugimenduen antzeko zerbait sortzeko ideia zerabilen.

Latinoamerikako kantagintza berriaren eragina ere handia izan zen. Kantagintza honek herrien izpiritu kritikoa eta iraultzailea sustatzen zuen eta AEBko inperioaren aurkako mezuak batasuna ematen zien naziotasun ezberdinetako kideei. Aipatu gabe ezin dira utzi *La Nueva Canción Castellana* eta *Voces Ceives* (Galizia) ere, nahiz eta eragin apalagoa izan zuten Ez Dok Amairurengan.

Aurrerapen teknologikoek ekarritako erraztasunak ere ez dira gutxietsi behar. Letek hainbeste miresten zuen Gabriel Celayak berak ere halaxe aipatu zuen 1960an:

Los recursos técnicos, y en especial la posibilidad de hacer audibles y no sólo legibles, en nuestros versos gracias a medios como el micro, el altavoz, la radio, etc..., son sumamente importantes y están llamados a revolucionar una literatura que venimos concibiendo desde el Renacimiento bajo el signo de la imprenta, que es como decir de la lectura a solas... (Celaya in Arkotxa, 1983, 160)

Amerikako hegoak

Latinoamerikako kantagintza berriaren eragina ere handia izan zen. Testuinguru interesgarria zen bertakoa: Kubako Iraultza gertatu berri zen, Brasilen militarrek modernizazio prozesua eten berri zuten, Amerikako Estatu Batuetan Vietnamgo gerraren aurkako ahotsak sumatzen ziren eta mugimendu hippie-a sortzen ari zen. Lurralde honetan ere izan ziren mugimendu honekin harremana zuten zenbait kantari, hala nola Pete Seeger, baina garesti ordaindu zuten beraien ahots disidentea.

Velasco-k (2007, 141) azaltzen duenez Hego Amerikako eta Ertamerikako herrialde gehienek inperioen aurkako borroka iraultzailea sustatzen zuten eta aldi berean beraien herrialdeko musika berreskuratzen zuten. Kantagintza honek “herrien izpiritu kritikoa eta iraultzailea sustatzen zuen eta inperioaren aurkako mezuak batasuna ematen zien naziotasun

ezberdinetako kideei. Autore bakoitzak bere inguruko eragin musikalak gehitzen zizkion mezu komun horri”

Euskal ikuspegitik, Atahualpa Yupanqui bezalako kantariak garrantzia handia izan zuten. Izatez, ama euskal jatorrikoa zuen Yupanquik. Victoria Eugenia izan zen 60ko hamarkadan. Hego Amerikako mugimendu honi garrantzia aitortzen dio Benito Lertxundik:

Berpizkunde garai bat izan zen, ezagutzen ez zen mundu bati hautsa kendu eta berragertaraztea. Kantu zaharrak ikusi, aztertu, kantatu, ikasarazi... Munduan protesta kantuaren korronea zegoen bogan eta guk ere zaldi hura hartu genuen. Gure herriaren egoera ikusita neurri-neurriko mugimendua zen, uhin hura gehienbat Ameriketara garatu bazen ere. Horrekin batera oso inportantea izan zen gure egoera politikoaren azterketa modu egoki batean kanporatzea. (Aristi eta Marquez, 2012)

Figura 16

Ez Dok Amairu eta Atahualpa Yupanqui



Hegoa ez ezik, Ipar Ameriketako eragina ere izan zuen Ez Dok Amairu taldeak. Vietnamgo gerraren aurkako protesta mugimendua globala zen eta zenbait musikari faxismoaren aurka lerratuta zeuden. Barbara Dane (1927) eta Pete Seeger (1919-2014) Euskal Herrian izan ziren kantari. David Sheak egindako elkarrizketa batean Danek gogoratu zuen Espainiara joan aurretik bere abestiak gaztelaniara itzul zituzan eskatu ziola zentsurak eta benetan kantatuko ez zituzten kanta inozenteak bidali zituela. Donostian izan zenean bere kantak euskarara itzuli zituztela dio (Shea, 2001, 451).

Seeger ere izan zen Euskal Herrian. Lete, Artze eta Lertxundi izan zituen harreragile. Komunismoaren aurkako sorgin ehizaren mehatxura ohituta, erresistentzia antifrankistarekiko interesa erakutsi zuen. *Herri Irratian* elkarrizketa egin zion J. M Iriondok eta horrek biztanle askori folklorea berreskuratzen egin zuen lana baloratzen lagundu zion (Martin-Etxebeste, 2020, 364-365). Artzek jardun hura aldarrikatu zuen, izan ere, zenbaitek abesti herrikoiak berreskuratzea orainari aurre ez egiteko aitzakia gisa interpretatzen baitzuen (Seeger, 1971) Bere kontzertua heldu zenean gehienezko pertsona edukiera hirukoiztu egin zen eta ekitaldi gogoangarria izan zen .

La chanson française

Hego Amerikako eragina ez ezik Frantziakoa ere nabarmena izan zen eta kasu askotan zuzenagoa. Georges Brassens (1921-1981), Jacques Brel (1929-1978) eta Léo Ferré (1916-1993) nabarmendu ziren *La chanson française* mugimenduaren bitartez. Brelen abestiak miresten zituen Letek eta bere kantak itzuli zituen euskarara. Oiartzuarraren azken diskoan leku handia hartzen dute kantaok.

Ana Luna Alonsok (2000, 206) dio autore horiek ezezagunak zirela espainiarren gehiengoarentzat. Aipatu bezala, nazioartean mugitzeko arazo gutxien zuten pertsonak ekarri zuten haien musika. Anarkismoa, marjinazioa, Jainkoaren existentzia, denboraren joana, tradizioaren krisia, eta gazteriaren errebeldia zituzten kantagai. Inspirazio iturri subertsiboa zen, beraz, diktadura garaian murgilduriko jendartearentzat.

El Setze Jutges

Hain zuzen ere, mugimendu horretatik oso gertu, eta eragin nabarmenak jaso zituen izan zen *La Nova Canço Catalana*. 1963an jaio zen *El Setze Jutges* mugimendua. Espainiar Estatuan ere oihartzun handia lortu zuten bertako kantariak:

La nova cançó fue el más importante e influyente movimiento musical en los primeros años sesenta. Esta escuela de cantantes catalanes se formó alrededor de un núcleo de poetas, músicos y estudiantes que proponían renovar la canción de su tierra, con un marcado espíritu nacionalista.(Alonso, 2006, 207)

Miquel Porter i Moix, Remei Margarit, Josep Maria Espinàs, Delfi Abella, Francesc Pi de la Serra, Enric Barbat, Xavier Elies, Guillermina Motta, Maria del Carme Girau, Martí Llauredó, Joan Ramon Bonet, Maria Amèlia Pedrerol, Joan Manuel Serrat, Maria del Mar Bonet, Rafael Subirachs eta Lluís Llach izan ziren kolektiboaren bueltan bildu ziren kantariak.

Euskal Herrian eta Katalunian diktaduraren intentsitatea handiagoa izan bazen ere, Espainia guztian izan zen errepresioa eta horrek ahalbidetu zuen kantari kataluniarren entzuleria handitzea. Haien kantagintza genero bihurtu zen.

Kantariok hartu zuten famaren erakusle, 1968an Serrat hautatu zuten Eurovisión-en TVE ordezkari zezan eta honek katalanez kantatzea jarri zuen baldintzat. Ez zuten onartu eta azkenean Massielek ordezkatu zuen Serrat. Belen Oronozek garbi seinalatzen du Artzeren inguruan egin zuen tesian bazirela Erregimenak baimendutako zenbait ahots musika estilo horren zaletuak asetzeko funtzioa betetzen zutenak; eta, bestalde, bazirela ahots kontrakulturalak (2011, 100).

Hizkuntzaren aferak krika-krikak sortu zituen zenbaitetan *Nova Canço*-ren barruan. Zenbaitek gogor jardun nahi zuten beraien idealen defentsan eta beste zenbait malguagoak ziren gaztelaniaz kantatzeari zegokionez.

Puntu honetan, aipatu behar da mugimendu hauen gorakadak interesa sortu zuela diskoetxe berriengan eta horixe izan zela *La Nueva Canción Castellana* izeneko mugimendua sustatzeko motiboetako bat. Luis Eduardo Aute eta Massiel ziren partaide ezagunenetakoak. Genero moduan, kantaera estilo antzekotasunez, aipatuko diren mugimenduarekin zerikusia badute; baina askapen grinari dagokionez tarte bat bazen haien artean. Gaztelan *La voz del pueblo* delakoa sortu zen 1967an eta Andaluzian *Canción del Sur* bi urte beranduago. Kanariar Uhartetan *Pueblo, Palabra y canción* sortu zen 1969an.

Diktaturak, kataluniarren mugimenduaren tamainak kezkatuta, zentsura gogortu zuen. Kanten letrak ez ziren askoz ere ausartagoak, baina badaezpadako neurriak hartu zituzten zentsoreek. Irratietan emititzeko zailtasunak jarri zizkien artistei. Barbat, Pi de la Serra eta Lluís Llach izan ziren zentsurarik bortitzena pairatu zutenak.

Voces Ceibes

Galizian ere izan zen kantagintza berriaren ernamuinik. *Voces Ceibes*ek azpian hartutako hizkuntza eta kultura baten aldarria egiten zuen. Espainiar gehienen begitara primitiboak eta nekazariak soilik ziren galziarrak.

1968an sortu zen Voces Ceibes. Benedicto García eta Xabier Gonzalezek eman zuten mugimenduaren lehen kontzertu hura, Raimonek Santiago de Compostelan kontzertua jo eta urtebetera. Ondoren abeslari gehiago batu zitzaizkien. Xulio Formoso, Guillermo Rojo, Miro Casabella eta baita Vicente Araguas ere. Bibiano Moron eta Suso Vaamonde ere aipagarriak dira. Mugimenduak idazle iraultzaile garrantzitsuen babesa jaso zuen, hala nola, Xesus Alonso Monterorena (1928) eta Manuel Maria Fernandezena (1929-2004). Biak pozik zeuden gazteak beraien hizkuntza, literatura eta kultura sustatzen ikusita.

Taldeko partaideek urtetan bahituta egondako Galiziako folklorea berreskuratu eta herriari itzuli zioten. Julio Iglesias eta Juan Pardo ere garai honetakoak dira, eta musika genero honen bolada ona baliatu zuten haien burua promozionatzeko.

70. hamarkadan hautsi zen kolektiboa. Mugimendu honen arrakasta aurretik aipatutakoena baino apalagoa izan zen, baina kontzertuetan jarraitzaile oso fidelak izan zituzten.

Voces Ceibesen ondoren etorri ziren zenbait kantautore, hala nola Emilio Cao, Jei Noguero, Suso Vaamonde edo Luis Emilio Batallán.

Eraginei dagokienez, Portugaldik Luis Cilia eta José Afonsok zekarten aire freskoak zuzeneko eragina izan zuen haiengan. Zeharka, Laboa bezalako abeslariengana ere iritsi zen haien eragina.

Espainiako eta Portugaleko diktaturak azkenetan zirela kulturaren berrinterpretazioaren alde egin zuen Afonsok eta Mozanbikeko doinuak ere egokitu zituen. Korrante honek lan handia

egin zuen diktaduraren aurkako ideien hedakuntzan eta 1974ko apirilaren 25ean Portugalen Krabelinen Iraultza hasteko hautatu zuten kanta Afonsorena izan zen.

Cilia berriz Angolan jaioa zen eta 1964an kaleratu zuen lehen diskoa *Chants de lutte* izenekoa. Atzerriko erresistentzia mugimenduaren parte kontsidera daiteke. Alderdi komunistako kide zen Cilia eta entzuleria progresista frantziarrarentzat kontzertuak ematen zituen maiz (Fiunza, 2006, 92).

2.5 Ez Dok Amairu

1965ean bildu zen Ez Dok Amairu eta 1972an zatitu zen. Euskal Herriko kultura mugimendu abangoardista izan zen, lau urte lehenago abiatutako Euskal Kantagintza Berriaren barruan sortua. Hainbat artistek osatu zuten; abeslariak eta idazleak nagusiki. Une hartan hain azpiratua zegoen euskal kultura suspertu zuen. Batez ere kultura arlokoa izan zen arren, eragin handia izan zuen politikan, Francoren diktaduraren amaierako aldi hartan. Ez Dok Amairuk sekulako garrantzia izan du Euskal Herriko kulturaren historian. Etnogenesi momentutzat jotzen du ordukoa Josu Larrinagak (2016), hau da, euskaldun izateko modu berri bat eraikitzeke funtsezko pausoak ematen lagundu zuten kolektiboko kideek.

Kontzertu ugari eman zituzten iraun zuen urte bakanetan. *Baga Biga Higa* izeneko sentikaria sortu zuten, besteak beste; eta sentikari haren ondotik etorri zen Ez Dok Amairuren amaiera.

2.5.1 Partaideak

Asko izan ziren talde honen inguruan ibili ziren pertsonak eta inplikazioa eta oihartzuna ez zen berdina izan denentzat. Honakoak dira aipatzen diren izenetako batzuk: Lurdes Iriondo, Joxean Artze, Jexux Artze, Jose Angel Irigaray, Mikel Laboa, Julen Lekuona, Benito Lertxundi eta Xabier Lete; baita Joxe Mari Iriondo, Juan Migel Irigaray, Jose Luis Frantzesena *Schubert*, Imanol Urbietta, Joxe Antonio Villar, Juantxo Mingo, Mikel Bikondoa, Angel Mari Arenas, Felix Sarasola, Juan Mingo, Luis Bandres, Jean Paul Harreguy, Jose Mari Zabala eta Jose Luis Zabala ere. Beste zenbait pertsona ere bazebiltzan kolektiboaren orbitan. Talde moduan parte hartu zuten Yoloak, Oskarbi eta Bihurriak-ek (Arantxa Gurmendiren rock musika taldeak). Pertsona asko ziren eta Artzek azpimarratzen zuen (1977, 47) kolektibo hartan bakoitzak taldea aberastu behar zuela eta aldi berean taldeak bakoitza.

Hiru poeta handi zeuden taldearen muinean: Artze, Lete eta Irigaray. Lete zen literarioki gehien nabarmentzen zena, Artze haustura handiena eragiten zuena, eta Irigaray ideologikoki taldea gidatzeko ardura zuena. Artzeri berriz arte mota guztietatik omen zetorkion eragina, eta nazioartearekin igurtzi gehien zuena omen zen “hitzen magiarekin esperimentatzen zuen, txundigarria zen, espeziala, esperimental”. Bere burua bigarren maila batean kokatzen du

Irigarayk (2018). Hala ere, kantagintza izan zen taldearen zeregin nagusia, baina idazle talde garrantzitsua ere bildu zuen eta ordurako errekonozimendu handia zuen eskulturagileak eta artistak ere sustapen lanetan ibili ziren: Nemesio Etxaniz, Jorge de Oteiza, Koldo Romero, Jose Luis Zumeta, Nestor Basterretxea, Fernando Larruket eta beste hainbatek zuzeneko eragina izan zuten. Letek Oteizari egindako elkarrizketan bigarrenak azaltzen du lanerako taldeak sortzea izan zela bere ahaleginetako bat:

Siempre, he perseguido la formación de equipos, creyendo que la investigación, incluso la resistencia cultural, la fuerza nuestra, nuestra ofensividad posible es siempre en equipo, a base de comandos concretos de trabajo, indagación (1977, 28-29)

2.5.2 Ez Dok Amairuren sorrera

Sorreraren inguruko bertsio bakar eta ofizialik ez dago; uste faltsu edo gezur dezente topa daitezke. Ez zen pertsona bakar baten ekimena izan; garai historiko berean, premia eta grina bertsuek piztutako zenbait jendek elkar bilatu eta elkar topatu izanaren ondorio izan zen kolektiboa.

Joxe Mari Iriondok 2018an egindako elkarrizketan kontatzen duenez, 1965eko urriaren 13an egin zuten taldearen lehen bilera Zarauzko Euromar hotelean. Lehenengo bileran bertan ziren Joxean Artze, Lurdes Iriondo eta Joxe Mari bera. Bigarren bilera, urriaren 27an, Azpeitian izan zen J. M. Iriondoren etxean (Villa Pakea-Belaetxen). Hirugarrena, handik beste 15 egunera (azaroaren 10ean) Donostiako San Martin kaleko Iturrioz tabernaren sotoan —“ez Kursaaletxo sotoan, Lertxundik dion gisan” puntualizatzen du J. M. Iriondok—. Iriondok konbokatu zituen Imanol Urbietta, Julen Lekuona, Jose Luis Frantzesena *Xubert* (Yoloak taldeko musikaria), Donato Larrañaga eta Mikel Garmendia. Nemesio Etxaniz apaizaren presentzia ere aipatzen du. Han zen Lete, Julian Lekuonak deituta. Mikel Laboa ez zen bileran izan, kanpoan ikasten baitzegoen. J. M. Iriondok *Herri Irratiak* taldearen sorreran izan zuen garrantzia azpimarratzen du. Garai hartan haien kanta irrati estudioan grabatzeko gonbita egiten hasi ziren eta entzuleek harrera beroa egin zieten kantari haiei. Artze bera “liluraz” mintzo zen ekimen hartaz.

Marixol Bastidak osatutako biografian, berriz, Laboarengan kokatzen du ekimena. 1964an Neurologiako kongresu baten kariatara Bartzelonara egindako bidaiaren batean Setze Jutges

kolektiboaren kontzertu batean izan zen eta hurrengo bi urteetan zehar Euskal Herrian antzerako zerbait egiteko nahia mamitu zitzaioela dio Bastidak (2014, 142-143). 1965. urte amaieran Xabier Antzarekin batera Oteizarengana joan omen zirela eta kantagintzaren inguruan talde iraunkor eta berritzailea sortu nahi zutela adierazi ziotela dio Bastidak. Egunkariaren bitartez izan omen zuen Lertxundiren berri eta Jarrai antzerki taldearen bidez Iriondoren ezagutza. Sistiaga margolariaren bidez ezagutu zituzten Artze eta Zumeta; eta Julen Lekuonarekin harremanetan jarri zen zeinak Lete haurtzaroko lagun zuen. Bileratako asko Kursaal zaharraren sotoetan izan zirela dio Bastidak (2014, 149, 155).

Letek Jose Antonio Sistiagaren bultzada goraiatu zuen sorrerako momentuan (Ibarzabal, 2020, 69). Barandiaran galeriak sustatu zituen Oteizak eta margolariak euskal arteari buruzko ekarpenak egiten hasi ziren bertan. Artistek, ordea, hizkuntzaren hauturik egin beharrik ez zeukaten beraien obratarako. Beste zenbaitek defendatzen zuen euskal kultura soilik euskaratik egin zitekeela. Eztabaidak sortu ziren galeriatan eta hura babestu zuen eraikuntza enpresak porrot egitearekin batera desagertu zen ekimena.

Izenaz

Joxean Artzek proposatu zuen Ez Dok Amairu izena. Bestelakoa da jatorriaren bertsio zabalduena. Bertsio horren arabera Oteizak izena eman zion taldeari, Resurreccion Maria Azkuek *Euskalerrriaren Yakintza* liburuan jasotako Martin Errementariaren ipuina baliatu omen zuen horretarako.

Joxe Mari Iriondok (2018), ordea, dio izena Artzek jarria dela: Bilerara bakoitzak zenbait izen proposatzekotan geratu zirela dio eta Artze izan zela proposatzen lehena. Ez omen zuen inork beste izenik proposatu, oso egokitzat jo zuten denek:

Joxanek gurean izan zen batean *Euskalerrriaren Yakintza* ikusi zuen eta han irakurri zuen Martintxo errementariaren ipuina, liburua ez zidan itzuli gainera. Bilera haren akta nik jaso nuen (gero Lurdes hasi zen lan hori egiten). Artzek topo egin zuen Oteizarekin eta hark onartu egin zuen, “me parece precioso el maleficio del trece” eta Artzek hori jakinarazi zuen bileran”.

Bigarren azalpen horrek bi bertsioen erkatzen ditu nolabait, Artzeren jatorria markatzen baitu eta Oteizaren onarpena edo bedeinkazioa.

Taldearen logotipoa, txalaparta bat, Remigio Mendiburuk (Hondarribia, 1931-1990) egin zuen. Eskulturagilea Gaur taldeko sortzaile izan zen, Basterretxea, Eduardo Txillida, Amable Arias, Jose Luis Zumeta eta Sistiaga, Rafael Ruiz Balerdi eta Oteizarekin batera.

Taldearen izenarekiko lotura handia izan zuten sortzaileek: Benito Lertxundik *Ez dok amairu* (Elkar) izeneko diskoa atera zuen 1971n; Laboak ere bere lan guztiak zenbakitu egin zituen, batetik hamazazpiraino, baina hamahirurik gabe, Ez Dok Amairu taldearen omenez.

2003an, Korrikako 13. edizioan mugimendua espresuki omendu zuten, eta urte hartako abesti ofiziala Mikel Laboak interpretatu zuen, beste batzuekin batera.

2.5.3 Lehen kontzertuak

Bi aproba eta estreinaldia

Taldearen izena erabili gabe bi jaialdi egin ziren. Lehena, 1966ko urtarrilaren 9an izan zen, Hernaniko Aitor zineman. Lehen emanaldian kantuan aritu ziren Julen Lekuona, Benito Lertxundi, Lurdes Iriondo, Bat eta Bi bikotea, Mikel Laboa, eta Jose Antonio Villar (honek Juan Mari Lekuonak Erromatik euskarara itzulita bidaltzen zituen kantak abesten zituen). Saizarbitoria izan zen aurkezle (Bastida, 2014, 155). Bigarren emanaldia, hilabete bereko 23an Donostiako Victoria Eugenia. Kolektiboaren sorreran oso garrantzitsua izan zen Iñaki Beobideri (Zumaia, 1934) lehen emanaldia ilunegia iruditu zitzaion eta beste kantarien astuntasuna konpentsatzeko Biurriak taldea gonbidatu zuen oholtzara. Hauek *ye-ye* kantak defendatu zituzten, baita Beatles-enak ere¹⁰. Kontzertua ez zen oharkabean pasa *Zeruko Argian*. Erredaktorearen izenik ez da ageri, baina Aranburu-Altuna izan daitekeela aipatu zuen J. M. Iriondok. Kronika luzea da halako lan akademikotan ohi denerako, baina merezi duelakoan txertatzen dugu:

Zeruko Argia onen beste orrialde batean, gertaera pozgarri bat aitatzen degu. Hernani'n ilbeltzaren 9an eta Donosti'ko Victoria Eugenia antzokian 23'garrean, garaipen aundia izan du gure izkuntzak.

Egun oietan, izan ere, lenengo aldiz antolatu da Euskal Abesti Berrien Jaialdia. Gure gaztedia, nexka eta mutil, bildu dira gaurko giro berriko kanta sail bat abesten. Erriak, berriz, ederki erantzun du, ta kantarien lana gogoz txalotu ere.

¹⁰ Honako esteka jarraituta entzun liteke: <https://soundcloud.com/user-653780982/biurriak>

Kitarra ta pilarmonikaz lagunduak batzuek; orkestinaren laguntzaz besteak, gaurko telebistan erderaz entzuten ditugun abesti berrien giro ta aidetan, euskerazko itzekin abestuak entzun ditugu alako kanta atsegiñak. Euskerak gaur arte lur berria zuan kanta sail ori. Gaurtik euskerak beretzako irabazi du kanta berrien saila.

Benito Lertxundi oriotarrak asiera eman zion jaialdiari. Mutil onek bere kitarrak, igaz La Voz de España'k antolatutako leiaketan, bigarren saria jaso zuan. Euskeraz ere jator kantatzen du.

Urrengo, KEMEN izeneko neska irukotea, pilarmonikaz lagunduta agertu zitzaigun, kanta arin eta atsegiñez. Mikel Laboa mediku gazteak, kanta zaarrak berrituta bezela erakutsi zizkigun Ernani'n. Bere diskoa ezaguna da Euskalerrian, eta aurrera dijoa diskoak gertatzen.

Mari Lourdes Iriondo'k ez du iñoren bearririk kitarra artu ta zoragarri abesteko. Erriz-erri dabilkigu, eske guztiei erantzun eziñaz. Zuaznabar anaien Txalaparta ere antziñako usaiz igurtzia zetorkigun. Arantxa Gurmendi'k bere era berria erakutsi zigun dotore ta txairo orkestinaz bere doiñuak apainduaz.

Julian Lekuona apaiz jaunak, ostera, abesti sakonak eta zirrarakorak ixuri zizkigun, kitarra eskuetan artuta.

Azkenean, Bikondoa auspo-joille yayoa, España'ko txapeldun eta Europa'n bosgarrena gelditu danak, bere soiñuaz gozatu du jendea. Bukatzeko, PELOTARI pelikula, euskeraz azaldua ikusi genduan, arri ta zur. Alako zine ederrik eta ikusgarririk! Gure pelota joko zoragarria, esnaera pozgarrian agertzen du, gazte ta zarrentzat.

Orrelako Jaialdi berria atsegin da gure izkuntzarentzako. Orain ekin beste gazteok ere, zuen gaitasuna sail ontan erakusten. Sortu kanta berriak, lengo zaarrekin batera kanta ditzan Euskalerriak. Iparragirre'renak bere sasoi bezela, barreia ditezela aide berriok Euskalerriguzian! (Sinadura gabe, 1966, 7)

Kronikan aipatzen den bezala, bertan zen Julen Lekuona eta han abestu zuen lehenengo aldiz aste batzuk lehenago idatzitako 'Eliza pobrea' abestia:

Eliza pobrea, Eliza pobrea,
danontzat hobea.
Moztu kardenalen arropak,
Moztu torre luze zorrotzak,
Moztu obispo kotxe luzeak.
Kendu urre eta pitxiak,
Kendu kristau diferentziak,
Kendu ministro diru-zaleak.
Non da estalpean jaioa?
Non da Gurutzera ihoa?
Non da Nazaret-go langilea?
Ager aski da Jaungoikoa,
Ager berarekin nahikoa,
Ager arpegi jatorra. (1965)

Apaiz baten ahotik halakoak entzuteak eragin handia izan zuen: “Gipuzkoako elizbarrutiko gotzain eta Aizpurutxoko erretore gaztearen agintari lehena zen Lorentzo Bereziartua jaun bidaniarra zeharo haserretu omen zitzaion jaialdi hartako entzuleen artean sortu zuen histeria ikaragarriaren berri norbaitek eman zionean” (Iriondo, 2006,12).

Ezagun egin zen ‘Iltzaile bat bezela’ izeneko abestia ere. 1964an Madrilen epaitzen ari ziren apaizei buruzko kanta zen hura. Trenean bururatu zitzaion eta tren-txartelean bertan idatzi zuen letra.

Hiltzaile bat bezala hemen naramate; bi eskuak loturik mundutik aparte. Errurik ez dutela azaldu nahi nuke. Egia nahi dunantzat emana dut merke	Egia eman eta zigorrez erantzun. Gure bizkar moretan daiteke irakur. Egia utzi eta obe'te da entzun? Munduak esandako zortzi mila gezur	Nola mahi dela, ere, egirik ez utzi. Nahiz zigorrez laztandu zure gorputzari. Gure eginkizuna esan munduari. Egiak gihartzen du indar berri hori. (Lekuona, 1999, 175)
--	--	--

Bi emanaldietan jendetza bildu zen. Jaialdien amaieran beti filmaren bat proiektatzen zen: *Pelotari* edo *Amalur*, Larruquert eta Basterretxearenak. Formatua gerora ere berdina izango zen *Baga Biga Higa sentikaria* abiatu arte.

Egitura malgua izan arren, nolabaiteko antolaketa ere izan zuen Ez Dok Amairuk: Joxean Artze zuzendari artistikoa zen eta Jose Angel Irigaray antolatzaile zuzendaria.

Kudeaketa

Hasieran, taldearen kudeaketaren pisua Iriondok eta Letek hartu zuten beregain, baina 1968tik aurrera biak alor artistikora zuzendu ziren erabat eta Nekane Oiarbide hasi zen lan horietan. Oiarbidek Ingalaterran urtea pasatu berri zuen eta ikaskide batek proposatu zion lana. Irigarayk eta Artzek (Iturriotz tabernan, Artzain onaren plazan) egin zioten elkarrizketa eta baiezkua eman zioten elkarri.

Momentu politiko bortitza izanik, gauzak ondo egin behar zirela azpimarratu zuen Oiarbidek *Argiak* egindako elkarrizketa batean (Oiarbide, 2005). Jaialdiak antolatzeko baimenak eskatzen zituen eta ez zen batere lan samurra. Horretarako, Sindikatura joan behar izaten zuen lan-kontratuak betetzera, nortasun agiri eta artista profesionalen txartela eramaten

zituen. Zenbait artistek, Iriondok, Lertxundik eta Laboak esaterako, bazuten txartel hori (*Circo, variedades y folklore* agirira eskuratzeko azterketa egin ostean); Letek eta Artze anaiak ere atera zuten. Jaialdiak egiteko Gobernadore Zibilaren baimena ere behar zen eta zentsurak kantei onarpena eman behar zien (gaztelaniazko itzulpenak bidali behar ziren). Artistak kantatuko zituen kantak halako hiru aurkeztu behar ziren, bi heren inguru ukatu edo zentsuratu egiten baitzituzten. Julen Lekuonaren kantak, adibidez, etengabe zentsuratzen zituzten. Oronozek Maite Alonsoren izena ere aipatzen du kudeaketa lanetan.

Estreinaldia

Ez Dok Amairuren lehenengo emanaldi ofiziala martxoaren 6an egin zen Irungo Bellas Artes aretoan. Bellas Artes aretoa leporaino beteta zegoen, eta lehenengo lerroetan aurpegi ezagun ugari: Basterretxea, Larruquert, Zumeta edo Oteiza bera, zer ikusiko zain.

11:30ean zen hastekoa baina berandu hasi zen. Imanol Urbietak abestu behar zuen eta berak eragin zuen atzerapena. Donostian ari zen kantuan otxote txapelketa batean Oleskariak zortzikoarekin. Hura bukatutakoan joan zen Irunera.

J. M. Iriondok egiten zituen kontzertuen aurkezpen lanak. Letek Martin Errementariaren ipuina kontatu zuen emanaldiaren hasieran.

Irungo aretoa gainezka bete zen, beste herrietakoak bete ziren bezalaxe. Ekonomikoki, 9.050 pezeta bildu ziren sarreretatik, baina 150 pezeta bakarrik gelditu kaxarako, aretoaren alokairua, SGAE-Menores zergak eta beste zenbait gastu ordaindu ostean.

Arrakasta handia izan zuten, *La Voz de España*-n hiru egun beranduago (1966) argitaratutako kronikaren arabera: jaialdiak arrakasta handia izan zuela: “El festival de música moderna con canciones en vascuence, tuvo gran éxito en la localidad. Es muy fácil que se organice una jornada similar en Fuenterrabía¹¹”. Euskal jatorria ez zuten abestiak kantatzeak (gaur egun folklorikotzat hartzen ditugun gitarrak lagundutako kantek eta rock melodiek) mesfidantza sortzen zuten euskaldun askorengan. Jon Oñatibiak bi arrisku ikusten zizkion kanpotik jasotako musika euskaraz egiteari:

¹¹ Hemerrotekako fitxategi eskaneatuan ez da irakurtzen margenetan idatzitakoa; eta, beraz, interpretatua dago.

Alde batetik, atzerritik etorritako kanta berriak, lendabizi berexi, gero itzak jarri, eta urren, gure erriari atsegin zaizkiola ikusi ondoren, bere diskoa egin nai degunerako abesti orrek alde egin du lur ontatik eta bere orde besterri batzuek jabetu dira gazteen biotzetaz. Bestela, oroitu emen “Gaztetxo naiz” abesten asi giñanerako, aspaldi obiratua zegoen gaiñerako errialdeetan.

Bigarren egokieza, berriz, atzerritik etorritako eresi berriak euskal nortasunari kalte aundia egioten diolako da; berrikeri oyek, alde guztietako giroetaz nagusituta, alako berdintasun belaska bat sortzen bai dute, bide batez, erri bakoitzeko nortasunak uxatuz... (1966, 12)

Iñaki Beobidek *Zeruko Argian* (1966) idatzitakoa argigarri izan liteke kontzertu hark euskaldunen artean ere izan zuen inpaktua neurtzeko:

Zenbait hedabidek euskal musika puskatzeko jaialdi gisa ikusi zuten: “Egunak aurrera, erdaldun eguneroko batean emakumezko baten lana agertu zan Jaialdi auen egite kaltegarria aipatuaz. Gerxeago, beste eguneroko bat aurrez idatzitakoarekin bat egiñaz jantzi urratzean geitu zan, ondoren irrati bat, gero...”

Bazen aldekorik ere. Beobidek euskararen baliagarritasuna eta modernitatea aldarrikatu zituen artikuluan eta emanaldiari eman nahi zitzaion folklore ukitua kritikatu zuen:

Ez degu uste euskeraz mintzatzea, euskeraz abestea folklore egitea danik, ez daukagu ain galdutzat gure euskera. (...) Euskerak mugak al ditu? Onetako erabili diteke ta beste gauza artarako ez? Ez, ez degu zuek bezela pentsatzen. Guretzako euskera, ez da baserri batean edo urrezko bitrina batean gorde behar dugun gauz bat (...) Gaztediak ez ditu abesti zaarrak gorrotatzen (...) Pekatu bat egin duzute, GITARRA joaz euskeraz abestu. (...) (1966, 7)

Hurrengo jaialdiak, berriz, Zumarragan, Seguran, Ordizian, Madrilen, Donibane Lohitzunen, Erreterian, Orion, Ondarroan, Durangon, Bilbon, Eibarren, Ondarroan (bigarren aldiz), Bermeon, Andoainen, Bergaran, Lekeition, Donostian, Barakaldon, Bilbon (bigarren aldiz), Bartzelonan eta abar eman zituzten, hurrenez hurren. Durangokoa izan zen, hain zuzen ere, Bizkaian egin zen lehenengo jaialdia, II. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren barnean.

Lertxundik dio *Plazer bat izan duk, Benito!* liburuan berehala hasi zela jendea plazak betetzen: “Beharbada loturarik gabeko mugimendu zatikatu bezala gauzatu izan bazen, hemen kantari bat eta han beste bat, guzti hura hasi zen moduan hasi ez bazen, gaur egun euskal kantagintza deitzen zaion hori ez genuke ezagutuko” (Aristi eta Markez, 2012).

Lanketaren hasiera

1966an eta 1967an jaialdi asko eskaini zituen taldeak, batez ere Gipuzkoan eta Bizkaian. Bartzelonan ere izan ziren, baita Madrilen ere. Ez Dok Amairu-ren hasierako kontzertuen

edukia berdintsua izaten zen aldiro. Eta horrela jarraitu zuten *Baga Biga Higa sentikarira* arte.

Euskal kulturaren garaikidetasuna aldarrikatu zuen kolektiboak. Musika berritzeaz gain eta Euskal Herritik kanpoko korrante eta mugimenduetatik edateaz aparte, estetikoki ahalegin ausartak egin zituen taldeak. Letek *Jakin aldizkarian* adierazi zuen “garai hura arte euskal gizartearen barruan funtsezkotzat jotzen ziren pauta batzuk (estetikoak, erlijiosoak, moralari buruzkoak, politikoak) kolokan jarriak gertatuko ote ziren beldurra nabaria” zela batzuen baitan: “Euskal kanta berria, ‘iskanbila’, ‘gusto txar’, ‘zarpailkeria’ eta ‘pesimismoz’ josia zegoela zioten. Kantariak tipo ilun eta ukakorrek zirela, alegia” (1977, 22).

Profesionalizazioa

Jendeak aintzakotzat hartu ahala, parte-hartzaileen profesionalizatzea ere aldarrikatu zuten. Artistek apustu egin zuten ofizio horren alde eta haien lanak utzi zituzten. Diru asko irabazten zutelako susmoa zabaldua zegoen. Errealitatea oso bestelakoa zen Oronozek (2011, 236) kontatzen duenez: hamar hilabetez jardun ziren ikuskizunaren prestaketan eta sentikariren 24. saiora arte artistek ez zuten sosik jaso. Handik aurrera 500 pezeta kobratzen hasi ziren. Baldintza duinetan jotzeko eta profesionalizatzeko nahi hori “burgeskeritzat” hartu zuten zenbait antolatzaile militantek (Lete, 1977). *Zeruko Argiako* artikulu honetan Bilboko abeslari batek hautsak harrotu nahi izan zituen Ez Dok Amairu taldeko artista batek bere ustez diru gehiegi eskatu zielako:

Badakigu bere lantxoak dagokiola: abestiak ikasi, eresiari izkia ipiñi, edo eresia ta izkia guztiz berriak asmatu... Ezaugarri gera bere lan orreri dagokionez edo bere bizibide edo irabazi ori daukatenez, utsean ezin ibili litekeala. Baiña geiegizkoa deritzat eskatu duena. Ez degu uste oso euskaldun jokatzea danik.

Jai antolatzaileak ezingo bai lioteke bakoitzari orrenbeste ordaindu, erriarentzat sarpideak garestiegi joko lutekelako. Nere ustez era au erriari bere egarrion itozteko litzake. Ez dezala ba gaizkitara artu abeslari onek. Erriaren ona nai badegu, erriarentzat abestu bear da. Ta ez erriaren bizkar sakela berotu” (“Iturrixar”, 1967)

Asko agertu ziren Ez Dok Amairuren profesionalizazioaren alde, baina aberkideen higadura etengabea izan zen. kontuan hartu behar da garai hartako kultur programazioa zenbateraino zen *amateur*-a. Ez Dok Amairuko taldekideak askotan deitu zituzten kantaldietara eta bertaratutakoan bozgorailurik ez zegoela jakiten zuten. Antolatzaile askok borondate onez

ziharduten, boluntario lanean; baina ez ziren jabetzen ekitaldi kultural bat antolatzeak dakarren gastuaz. Haien buruei galdetzen zieten ea haiek borondatez ari baziren, zergatik ez zuten berdin jardun behar artistek... Orduan ere, ez zen erraza artistak lanean ari zirela ulertaraztea. Letek 1978an idatzita utzi zuen beraien lana ekonomikoki gutxietsia izan zela:

Hasta hace muy poco tiempo, han existido dos clases de actividades: las que están relacionadas con el trabajo (...) y luego lo que es un poco diversión, lo que es fiesta, hobby, no sé, la cultura, el arte, (...) en todo caso había una visión también muy sublimada: (...) tienen que ser uno héroes, son unos luchadores de la cultura, así como otros son luchadores de la política, y claro, pues como son uno héroes, pues no tienen que comer, no tienen que comer garbanzos ni nada, tienen que vivir del aire (Ibarzabal, 2020, 83)

2.5.4 Baga Biga Higa Sentikaria

1970ean sortu zen Baga Biga Higa sentikaria, Ez Dok Amairuren azken proiektua. Laboaren ‘Lekeitio 2’ abestitik hartutakoa zen zenbakien erreferentzia eta “sentikaria” kontzeptua gehitu zion Artzek. Urte hartako abuztuaren 22an estreinatu zen, Portugaleten (Ornoz, 2011, 234) eskaini zen lehenengoz, J. M. Irigarayk dio Elai Alai taldeak antolatu zuela. Eta ondoren Urnietan, Tolosan, Donostian, Bilbon, Elorrioren, Uztaritzen, Iruñean, Barakaldon... Baita Euskal Herritik kanpo ere: Bartzelonan (Herrialde Katalanak), Pauen (Frantzia), Britainian... Aurreko emanaldietan artista batek hurrengoari txanda ematen zion, *collage* moduko bat osatuz; sentikariak, ordea, ikuskizunaren osotasuna zuen helburu. Diziplina askotako elementuak batzen zituen ikuskizunak, beraz, ez litzateke zentzu hertsian kantagintza gisa soilik sailkatu behar. Gurrutxagak, bere tesian, jasotzen du ikuskizun baten elementuen berri:

T. Kowzanek, R. Barthesen ideia jarraituz, arte eszenikoetan parte hartzen duten hamahiru zeinu sistema identifikatu zituen Literatura y espectáculo lanean (1992, 168-187): hitza, tonua, mimika, gestua, mugimendua, makillajea, orrazkera, arropa, osagarriak, dekoratua, argiztapena, musika eta soinua. Kantagintzari dagokionez, lehen planoan dauden elementuak entzumen-zeinuak dira, ezen ez hainbeste zeinu bisualak; alegia, hitza, tonua, musika eta soinua dira komunikazio bide nagusiak. Bigarren planoan geratzen dira, printzipioz, mimika, orrazkera, dekoratua, eta gainerakoak. (2020a, 168)

Argiak itzalita hasten zen emanaldia, eta piztu ahala, Baztango mutil dantza egiten zuen talde osoak. Luis Mari Bandresek jotzen zuen txirula. Ondoren, elkarren segidan abesten zuten artistek, txalo egiteko tarterik utzi gabe, argiekin jokatuz. Gainerakoan, antzerkia, dantza, poemen irakurraldia eta kantak ziren osagai nagusiak. Ikuskizun bateratuak ikusgarriago egin

zuen haien emanaldia. Honela zion sentikaria ulertzeko banatzen zuten eskuorrian (J.M. Iriondok helarazitako fitxategi argitaragabetik):

Egun ez duzu betiko eran egiten genuen jaialdirik idoroko. (..) Zenbait urtetan elkarrekin ibiliz gero, bestearen beharra senditzen dugu. Hau bizitzaren mail guztietan gertatzen da; eta areago, talde baten barrenean. Ez dugu artalde batetan amildu nahi; aitzitik, taldearen barrenean arituz eta haren bidez, norberaren burua aberasten joan dadin nahi genuke. (...)

Pentsatzen dugu, egungo antze-lana ez dela hainbat xoil-xoilik batek egin dezakena, nola elkarrekilakoa. Hain zuzen, honek izan nahi du gure eginkizunaren ardatz eta funtsa: elkarren arteko egintzatan, aske sortutako lana; norberaren nortasunaren bila joan nahi duena. Biderik egokiena delakoan gaude.

Erdian txalaparta dadukagu; antziñako lan-tresna, oraiko gizonen lanaren adiereazpena; taldearen beraren errorik sakonenetarikoa. Erdian daukagula, beraz, kondairaren akelarrea –kanta zaharrak, tresna zaharrak, gure kanta, olerkiak, dantza-, gure izatea zehar osaturikako sentikaria agertu nahi genuke. Eta orok parte hartuz, kondaira zehar osatzen eta aberasten joatea.(Iriondo, d.g.)

Partaideak

Honakoak ziren ikuskizunean partaideek hartzen zituzten izenak eta hartarako gehienetan erabiltzen zuten eskaleta (paperean zegoen bezala mantendu da):

- Jesus Arza “Panpalox”
- Joxan Arza “Ziripot”
- Julian Beraetxe “Belagile bat”
- Juan Migel Irigarai “Belagile bat”
- Jose Angel Irigarai “Miel Otxin”
- Lourdes Iriondo “Mari-eder”
- Kepa Garbizu “Belagile bat”
- Mikel Laboa “Perenauxea”
- Benito Lertxundi “Erlandeko”
- Xabier Lete “Anaios”
- Nekane Oiarbide “Sorgin bat”
- Jose-Mari Zabala “Xagit”

Musika-tresnak

- Txalaparta, tobera Arza anaiak
- Soiñua Juan Migel Irigarai
- Musu-kitarra Jose Angel Irigarai
- Gitarra-laguntzak, flauta Jose-Mari Zabala
- Txistu Jose-Mari Irastorza

Bestelakoak

- Argazkiak: Jose-Mari Zabala
- Kartela: Jose Luis Zumeta eta Jose Mari Zabala
- Antolaketak: Nekane Oiarbide
- Ikuskari honen zuzendari orokorra: Joxan Arza
- Taldearen zuzendari: Jose Angel Irigarai.

Eskaleta

- 1. zatia: Baztango mutil dantza, talde osoak.
 - Xoxoak galdu du, Joxe A. Irigarai.
 - Txalaparta, Arza anaiak.
 - O, Pello Pello, Mikel Laboa - Jose M. Zabala.
 - Txorietan buruzagi, taldea.
 - Arranoak bortuetan, Mikel Laboa - J.M. Zabala.
 - Txoria kaloian, Mikel Laboa.
 - Tobera, Arza anaiak.
 - Behin batez, Xabier Lete.
 - Udaberria, poesia, Joxe A. Irigai.
 - Emakumea, poesia, Joxe A. Arza.
 - Jarraian, J.A. Irigarai, Lourdes Iriondo, Arza eta abar, poesia osatuz.
 - Zatozte denok, poesia errezitatua, J.A. Arza.
 - Partitzeko tenorea, Lourdes eta Xabier
 - Poesia irakurtzea, Joxe A. Irigarai
 - Katea, X. Lete, Juan Migel Irigarai, Lourdes Iriondo, B. Lertxundi
 - Txori txikia, Benito Lertxundi, amaieran talde osoak lagunduta
- 2. Zatia:
 - Tobera, Arza anaiak eta talde osoak
 - San Martin de la Moja/ Moja de San Martin
 - Bertsoak + tobera, Xabier Lete.
 - Alzateko jaun, X. Lete.
 - Txoriak txori, Mikel Laboa - Jose M. Zabala.
 - Poesia irakurtzea, Joxean Arza.
 - Haur bati, B. Lertxundi.
 - Muxu-kitarra, J. A. Irigarai.
 - Ia guriak egin du, bertsoak, X. Lete.
 - Umeek ere jakin dute, B. Lertxundi.
 - Tristura haundi bat, J.A. Irigarai eta Juan Migel Irigarai.
 - Muxu-kitarra, J.A. Irigarai.
 - Kontutxoak, Lourdes Iriondo, Juan Migel Irigarai, Lertxundi
 - Etzait gustatzen katerik, J.A. Irigarai
 - Gizona, lana, makina, denak batera.
 - Lourdes, X. Lete, J.A. Irigarai, J.A. Artze, J.M. Artze.
 - Baga, biga, higa, Mikel Laboa, J. M. Zabala eta korua, denak batera.
 - Julian Beraetxe (argiak) eta Nekane Oiarbide ere eskenan sartzen dira, eta ikusleak tauladura igotzen.
 - Baztango Mutil dantza eta amaia. (Iriondo, d.g.)

Harrera

Artistek bakarka disko ugari kaleratu zituzten kolektiboa bizirik zen bolada hartan. Taldearen aterkipean disko bakarra argitaratu zuten: *Euskal kantari berri hautatuak* bilduma (Herri Gogo, 1970). Julen Lekuona ('Aleluia'), Benito Lertxundi ('Ezin uka' eta 'Ez kanta beltza'), Mikel Laboa ('Haika mutil' eta Itturingo arotza'), Lurdes Iriondo ('Festa bukatzean'), Xabier Lete ('Urrilaren 28 egun eta 'Giza aberea'), Oskarbi ('Iru gauean' eta 'Txori txikiak') eta Irigarayren ('Urak dakarrena') kantuak zeuden bertan. Hamar kantatik hiruk Leteren abestitzak zeramatzen.

Sentikariak aretoak lepo bete zituen eta kritika onak izan zituen. Haranburu-Altunak *Zeruko Argian* 1971ko martxoaren 14an zion goi-mailako obra bat zela eta taldea goren mailara igo zela ikuskizun honekin. Aldizkari beran, Edorta Kortadik (1971ko apirilaren 4an) ikuskizuna goraiatzeko kronika bat osatu zuen 'folk eta ez dok amairu' izenekoan. Sentikariaren izaera abanguardista eta kolektiboaren momentu interesgarria azpimarratu zituen bertan:

Gaur eguneko "Ez dok amairu" eginaren eta sortzekoaren tartean kulunkaka dabil, atzokoaren eta biharkoaren arteko borrokan. Tarte hune hau, halabeharrez, interesantea da oso egin duanari begira jarri ezker, baina, bestalde, oso zaila egiteko duanari begira jarrita. Hontan ikusten ditugu "Ez dok amairuren" kinka larria: zer pauso emanen ditu aurrerantzean eta zer pauso eman dezazke folk izateari utzi gabe. Atzorkoa eta biharkoa, iragana eta geroa uztartu ahal ditzan eta egunerako balio duten adierazpen estetikoetan eman ahal dezan oso artista izan behar dut batek gauregun. (...)

Aldi berean, ikuslea maila horretako arte adierazpenetara ohituta ez egonik, "urruti xamar" gelditzeko arriskua seinatzen zuen; "arte-modu landua dualako begien aurrean". Maila artistikoz ari zen Kortadi; baina ideologikoki ere eskandalagarria zen ikuskizuna zenbaitentzat. M. Ordoquik *El pensamiento Navarro* aldizkarian (1971/05/30) kritika gogorra egin zion Iruñeko Gayarre antzokian egin zuten emanaldiari. Sexu aipamenek, genero aldarrikapenek; eta, batez ere, kristautasunaren aurkako erasoek sutu zuten kazetaria eta Udalari halako emanaldiak debekatzeko eskatu zion:

Toda sana organización, (...) que tienda a revitalizar el sentido tradicionalmente vasco de la vida del País (perfectamente compatible con nuestro españolismo bien probado) nos tendrá en la línea de la más cordial colaboración. (...) Sería tonto afectar una ignorancia suicida respecto a algunos movimientos sedicentes vascos cuya finalidad principal es destruir el sentido y expresiones de la vida profundamente cristiana de nuestro pueblo, introduciendo una visión pansexual de la sociedad y unos módulos radicalmente marxistas de la sociedad vasca. (...) Quiere dar la impresión que el Pueblo Vàsco es un pueblo terriblemente triste (...) y de que no saldrá de esa tristeza sino gozando al límite del único placer que vale la pena: el sexual.

Zenbait paragrafotan Leterengan zentratzen da, ezkondu eta haur asko izateko zegoen presioaren aurkako diskurtsoa kritikatzeko du eta artista alferizat jotzen ditu. Jainkoa-ren, ordez, 'Altzateko jaun' barojatar eta erridikulu bat gurtzea eta gogor salatzen du. Kritika gogorak zetozkion kolektiboari sektore tradizionalista eta espainolistarengandik, baina ez ziren kritikatzeko zituzten bakarrak.

2.5.5 Hausturak

Sentikari haren ondotik etorri zen Ez Dok Amairuren amaiera, 1972ko abenduan. Krisia urtebete lehenago hasi zen korapilatzen. Zatiketak ez zuen motibo bakarra izan, kausa askoren ondorio bat izan zen eta arazo artistikoak, sozialak eta politikoak korapilatu ziren.

Hasteko, denbora oso gutxian sekulako arrakasta lortu zuen taldeak eta ez zen erraza arrakasta hura kudeatzea. Lertxundik aipatu zuen "taldearen eragina eta izaera indartzen zihoan neurrian, harengan eraginiko presioa areagotzen" joan zela; kolektiboa norabide ezberdinetan barreiatu zela, alegia (Feito, 2005). "Ordura artean izandako tinkotasunez jarraitzea gero neketsuago" zitzaiela zehazten du Irigarayk (2018). Iruñearrak dio zurrumurrak sortzen zirela tarteka: Iriondo konfabulatua zegoela zioten batzuek eta Lertxundi gaztelaniaz kantatzen hasi zela esaten hasi zela Imanol.

Presio erlijiosoak

Eskandalu bat izan zen beste kraskadura areagotu zuen beste faktore bat. Txikikeria bat izan zen berez; baina aparteko garrantzia eman zaio amaierako kontakizunean: 1971ko urriaren 31n gaupasa egin zen Larraizko belardian, Txindokiren magalean. Ez Dok Amairuko zenbait kidek hartu zuten parte, Lertxundi, Laboa eta Artze anaiak tartean; nahiz eta ez zen ofizialki Ez Dok Amairuren emanaldi bat izan. Hiru mila lagun bildu ziren bertan. Akelarre bat izan zelako zurrumurrua zabaldu zuten hainbat hedabidek, ermitako irudiak profanatu zirela

asmatu zuten (Bastida, 2014, 181), eta mezatan kritika gogorrak egin zizkieten. Ez Dok Amairuren kontrako kanpaina gogor bat izan zen horren kontura. Iñaki Aldekoak modu ederrean laburbiltzen du:

Txalapartaren “ttakun” oteizar natibistaren deira bildutako gazte jendeak maitasun librean igaro bide zuen gaua. Bertako lekukoen esanetan, ordea inork ez zuen halakorik ikusi. Gertatu “omen” ziren, eta seguru gertatu zirela, baina, garai bateko inkisidoreen buruetan bezala, oraingo honetan apaiz, nazionalista tradizional eta, oro har, hara hurbildu zen ortodoxia atzerakoiaren irudimenean gertatu zen. Gure “68ko maiatz” propialak urtetxo batzu gehiago behar izan zituen sexu-harremanak normalizatzeko. (2015, 49-50)

Anekdotak hori lan akademiko batean jasotzeko modukoa da, hain justu, erakusten duelako garaiko tradizioa eta modernitatea zein urrun zeuden ideologikoki. Artistikoki, kolektiboaren proposamena arriskatu egia eta banguardista egia zen zenbait euskaldunentzat. Sektore espainolistek, jakina, ez zuten begi onez ikusten; baina botere gunetan zebiltzan zenbait euskaldunek ere ez, kristautasunarekin talka egiten baitzuen. Alde guztietatik iristen zitzaizkien zartakoak Leteren esanetan:

Eta, noski, nik egiten nituenean kanta horiek, ez ziren bakarrik haserretzen katolikoak, fededunak, sabinianoak eta tradizionalistak; marxistak ere haserretzen ziren, eta guk, "Ez dok amairu"n, bagenuen oso fama txarra guzti horri buruz. Oso antimarxistak ginela esaten zuten. Sinisdunek —katolikoek, apaizek eta abarrek— esaten zuten esistentzialistak ginela zentzu ateo, edo nihilista batetan, baina ezkerak ere esaten zuen gu nihilistak ginela —ikuspuntu dotrinal marxista batetatik— ez genuelako sinisten printzipio teoriko horietan. (Muruaga, 1991)

Marruskadura hauek aztertu ohi ziren kolektiboaren bileratan. Taldeko batzuek artista izaeran jartzen zuten enfasia eta hala zen heinean kontraesanak eta kritikak kostatzen ala kostatzen oholtzaratu egin behar zutela irizten zioten. Taldeko beste batzuek entzuleriari entzun eta proposamena haiek onartu zezaketeneraino soilik behartu zitekeela zioten; emanaldiak baloreak indartzeko balio behar zutela eta ez eskandalua eragiteko (Ibarzabal, 2020, 88).

Interes artistikoak

Taldeak urtebete pasa zuen blokeo egoera batean. Kohesioa gutxitu egin zen. Ordura arteko konfiantza arrakalatua zegoen. Bestalde, zenbait artistak (Laboak, esaterako) bakarkako bideari ekin nahi zioten. Bastidak berak, bikotekidearen biografian, dio elkartzera bultzatzen egin beharra betarik zegoela eta hausturak, mingarriak izanagatik, beharrezkoak eta emankorrak direla (2014, 185).

Hausturaren zati bat atzera botatako kanta batzuetan kokatzen da: *Baga, biga, higa sentikariaren* bi disko grabatuta zituen taldeak. Hasiera batean, sei kanturekin arazoak izan zituzten, baina azkenean zentsura igaro zuten diskoan grabatutako abesti guztiek. Kaleratu aurretik, ordea, bi abestik eztabaida eragin zuten talde barruan: Iriondok musikatutako Gabriel Arestiren poema batek ('Heure ahizpei esaien') eta Joxan Artzeren kantu batek ('Zatozte denok'). Taldean ez zen adostasunik lortu, eta aurrez hitzartua zuten denen adostasuna behar zela edozer argitaratzekotan.

Irigaray zen ezezkoa garbi zuenetako bat: "Beharbada hanka sartu nuen. *Baga biga* argitaratzen ari ginen momentu hartan eta pentsatu nuen agian ezetz esaten banion argitalpenari anarteko lagunarteko girora itzuliko ginela. Eraginkorra izan nahi zuen erreakzio bat sortu nahi nuen; niretzat taldeak jarraitzea zen garrantzitsuena" (Irigaray, 2018). Azkenean, grabatuta zegoen disko hori ez zen inoiz argitaratu.

Presio politikoak

Garaiko egoera politikoak ere eragin zuen desegitean. Taldeko kideen ikuspegi politikotan ñabardura asko zeuden: "baziren ETAzaleak, PNVzaleak, mojak...", dio Irigarayk. Denak abertzaleak ziren, baina denetariko eragin ideologikoak jasotzen zituzten eta hori gero eta agerikoagoa zen. Irigarayk hartu zuen kolektiboaren ildo politikoa markatzeko ardura denek hala erabakita, berak (2018) dio "ur uherretan" mugitzen zirela, tranpak eta erasoak zituztela etengabe: "Ez Dok Amairu argitan zebilen talde bat zen; baina denak era berean ezkutuan ere biltzen ginen tarteka, eta gero hori dena modu *naif* batean azalarazi behar genuen, metafora bidez".

Horri, taldearen kanpoko eragileak gehitu zitzaizkion. Haien gaineko kontrol ideologikoa ezartzeko ahaleginak izan ziren eta kontzertuetan eduki politikoak modu esplizituagoan eskaintzeko eskatzen zieten. *Kontzertu mitina* sustatu nahi zutela sentitzen zuten taldekideek horrek "artistikoki" degradatzen zituenaren sentipena zuten.

J.M. Iriondok dio ETAREN presio gogorrek zeudela. Kantuetan "egurra emateko" eskatzen omen zieten.

Espainiako kantagileek, berriz, mugimendu antifrankista egituratu nahi zuten. Pako Ibañez aipatzen du Irigarayk norabide horretan presioa egiten. Antifrankistak ziren kide guztiak, jakina, baina ez hori bakarrik...

Egoera, beraz, ez zen erraza taldekideentzat. Letek adierazi zuen izatez Ez Dok Amairu ez zela sekula ofizialki desegin, lozorroan utzi zela eta ez zela berriz esnatu (2020, 87). Izatez, hainbatetan jarraitu zuten elkarrekin jaialdiak eskaintzen. Londreseko Euskal Etxean, adibidez, elkarrekin jo zuten Iriondo, Lete, Valverde, Laboa eta Enrike Zelaia 1977an elkartearen berrindartze ekimenaren baitan (Martin, 1997, 20).

Zazpiribai eta Ikimilikiliklik

Zazpiribai eta Ikimilikiliklik sortu ziren gero, kolektiboaren errautsetatik.

Ikimilikiliklik ikuskariak sentikariaren bide artistikotik jarraitu zuen. Artzek, Laboak, Jose Mari Zabalak eta Jesus Artzek osatu zuten talde hori, Zumeta margolariaren laguntzaz. Ikimilikiliklik Algortan eskaini zen lehen aldiz 1975eko apirilaren 18an. Gero, 40 bat aldiz taularatu zuten Euskal Herriko hainbat herritan. Kanpoan ere eskaini zuen taldeak, Bordele (Frantzia), Valladolid (Espainia) eta Zaragozako (Espainia) unibertsitateetan.

J. M. Iriondok (2018ko elkarrizketa) dio Artzek soinuarekin esperimentatzeko gogoia zuela eta lau puntutatik entzutea nahi zuela. Magnetofonia ere erosi zuen, baina Artzek bere hasierako obrekiko lotsa sentitzen zuenez ziurrenik suntsitu egingo zituen orduko grabaketak.

Ez Dok Amairuko beste kide batzuk Zazpiribai taldea sortu zuten garai berean. Bertan zeuden Lertxundi, Lete, Irigaray eta Iriondo, Lapurdiko eta Baxenafarroako beste kantari batzuekin: Peio Ospital, Pantxoa Carrere, Patxika Erramuzpe, Ugutz Robles-Arangiz, Maite Idirin, Eneko Labegerie... Irigarayk (2018) berak dio, nahiz eta banaketaren alde horretan geratu, Zazpiribai “kontinuista” izan zela eta interesgarriagozat jotzen zu Ikimilikiliklik bidea, “abanguardistagoa” baitzen.

Figura 17

Zazpiribai taldea (1972)



Herri Gogoa diskoetxea

Ez Dok Amairuri lotuta sortu zen Herri Gogoa diskoetxea 1967an. Garai hartan disko txukun bat ateratzeko lanak zeuden Euskal Herrian eta Madrilera edo Bartzelonara joaten ziren grabatzera. Besteren irizpideen, interesen eta baliabideen mende geratzea ekarriko luke diskoetxe propio bat ez izateak eta horregatik herri ekimenari esker sortu zen, gaur egun *crowdfunding* deituko litzaiokeena eginda.

Urnietan egin zen lehen estudioa, Salestarrarren ikastetxeko antzokian. Han grabatu zuren Letek, Lertxundik, J. Lekuonak, Iriondok, Laboak, Oskarbik eta Artze anaiek. Ekipoa Bartzelonan alokatu zuten.

Paco Miangolarraren, Venezuelatik etorritako negozio gizonaren, figura funtsezkoa izan zela dio Jon Eskisabelek (d.g), Badok euskal musikaren atarian. Berak erositako ekipoarekin atondu zuten Donostiako Gros auzoan erositako etxeko grabazio estudioa. Beobide (Zumaia,

1934) izan zen grabazio haietako soinu teknikari hasieran. Jarrai antzerki taldeko kide zen Beobide. Talde berekoak ziren Saizarbitoria, Gurmendi, eta Juan Antonio Arozena

Espainiako zentsurak ez zion Herri Gogoa-ri diskook kaleratzeko baimenik eman eta Edigsa-HG zigiluarekin kaleratu ziren diskoak. diskoetxeak 80ko hamarkadara arte iraun zuten. Ez Dok Amairu banandu zenean Irigarayk Artezi diskoetxea sortu zuen. Iriondok eta Letek bertan grabatu zituzten lehen LPak (disko luzeak) 1974an, Gorka Knorrek bi disko (*Araba kantari*, 1974an; eta *Nik nahi dudana*, 1975) eta Benito Lertxundik *Zuberoa /Askatasunaren semei* 1977an.

2.5.6 Borondatez isiltzea

Garai hartako kontzertuak errito politiko-sozial bihurtu zirela dio Larrinagak (2016, 55) eta ordura arte eskainitakoa ez zitzaioela aski entzuleriari. Kantari askok bere lekua berrasmatu behar izan zuten. Ordura arteko funtzioa eta oihartzuna mantentzekotan mezua ideologiaren zerbitzura jarri beharra zegoen eta Letek asko estimatzen zuen autonomia ideologikoa. Euskal Herrian prozesu hori liseritzen ari ziren bitartean, Espainian artista izaera finkatzen ari ziren kantariak. Víctor Claudínek 1976an kokatzen du protesta kantuen aroaren gailurra, eta hortik aurrera masa kontzertuen eta kontzertu politizatuen indarra galtzen hasten dela dio. Bizpahiru urte beranduago iritsi zen momentu hori Hego Euskal Herrira. *Lore bat, zauri bat* kaleratu ondoren (1978an), kantagintzatik erretiratzea erabaki zuten Letek, Iriondok eta Valverde. Garaiko giro politikoak musikariengan eragiten zuen presioa ez zuten atsegin:

Aspertua eta gogaitua nengoen kantaldien inguruan eta barruan gertatzen zirenekin. Oso giro makurra zegoen, eta kantaldiak aitzakia bat ziren kontsignak eta esloganak oihukatzeke, 'Gora Euskaldi askatuta', 'Gora Euskadi sozialista' eta abar. Batzuetan haserretu egiten nintzen, baina hori entzuleek oso gaizki hartzen zuten, eta kantari lagun batzuek ere bai. Beraz, egun batean pentsatu nuen: "Aguanta zaitzate! zeuen ama santisimak!" (Lete, 2011, 76)

Urte luzetan frankismoaren aurkako ahots izan ostean, Ez Dok Amairuko kideak oholtzatik urruntzen hasi ziren pixkanaka. *El País* egunkariak 1980ko bere azken kontzertuaren kronika jaso zuen eta, neurri batean, urte haietako estimu urriaren arrasto bat izateko interesgarria izan daiteke:

Lete ha sido particularmente víctima de todos los complejos problemas que agarrotan la canción vasca e impiden levantar el vuelo a quienes pretenden trabajar en ella. Discos destrozados por casas de grabación de baratillo, (...) completa falta de promoción, lectura casi exclusivamente política de su trabajo... Lete se retira sin haber aparecido una sola vez en Televisión Española, quizá por haber cantado sólo en eusquera, lo cual resulta para él tan natural como caminar con las extremidades inferiores. (...). Cuando desgranaba los versos de esta última, inspirada en el suicidio de Beatriz Allende, era difícil sustraerse a la idea de que Xabier Lete ha sido también uno de esos exiliados interiores, primero bajo el franquismo, y después, perseguido por la incomprensión y la intransigencia de quienes no le perdonan haber cantado en apoyo al Estatuto o haber estampado su firma bajo un llamamiento contra la violencia. Como el mismo Lete explicó el sábado desde el escenario, también de exilio se muere, en La Habana, como Beatriz Allende, o en el corazón de Euskadi. (Ruiz de Azua, 1980)

Lete ez ezik, kontzertuz kontzertu bizitzetik eta musika ogibide izatetik gertu zeuden beste hainbat artistek, beraz, etenaldia izan zuten. Lertxundik, adibidez, nahiko modu leunean egin zuten eskola zaharretik berrirako trantsizioa; Laboak bere proposamena are abanguardistagoa bihurtzeko baliatu zuten urrutiramendua; Lete, berriz, erabat erretiratu zen oholtzatik eta literaturan kantagintzan baino erosoago sentitu zen. Poesiak bestelako babes bat eman zion oiartzuarrari.

Hark eta kolektiboko beste zenbait kantarik 80ko eta bereziki 90eko hamarkadan bereganatutako jarrera eta ildo estetikoaren jatorria Trantsizioaren urteetan egon daitekeenaren hipotesia plazaratu zuten Gurrutxagak *Jakin* aldizkariko artikulu batean:

Garaiko gertakariak sortzaile horiengan eragin zituzten zauriak sendatzen saiatzeko erantzunak dira. Hala irakur daiteke Leteren obra, zeinetan poetak beste ahots bat bilatu zuen 90etan: ahots poetiko berri bat, argitasunari eusten lagunduko ziona bere saminen iluntasunean (2021, 85).

Geroztik Lete igo zen oholtzara tarteka, baina ordutik aurrera osasuna izan zen jarraikortasunez jendaurreratzea eragotzi ziona.

2.6 Zentsura

Musika, sorreratik bizi izan da zentsuraren mehatxupean. Duela mende batzuk Erljio estamentuak ziren musikaren zuzentasuna zehazten zutenak. Ondoren, mendebaldean behintzat, Estatuak hartu zieten erreleboa, baina beti mantendu du indar subertsiboa ere (Attali, 1995, 13). Zentsura erabili duten estatuak diktaturak nahiko ezberdinak izan badira ere, zentsura erabili duten modua oso antzerakoa izan da. Brasilen, Portugalen, Argentinan eta Espainian oso legedia eta prozedura antzerakoak erabili dira (Fiunza, 2012, 01).

Frankismoan zehar zentsurak geruza bat baino gehiago zituen bere eraginkortasuna handitzeko. Lehenik eta behin, argitaratu nahi ziren kantu guztiek zentsoreen eskuetatik pasa behar zuten:

El visado previo de los textos literarios de las grabaciones que se editen o produzcan en España, que se destinen a difusión pública, comercial o gratuita, así como la comprobación de los citados textos una vez que hayan sido realizados. (Fiunza, 2012, 9-10)

Miren Ibarluzeak dio 1963 arte ez zen Madrilen euskarazko testurik ulertzeko gai zen zentsorerik eta delegazio probintzialetan pasatzen zela galbahetik. Zentsoreek erabakitzen zuten letrak behar bezain otzanak zirenez. Aldea zegoen zentsore batetik bestera, eta horregatik editoreek batzuetan zuzenean jotzen zuten Madrila, malguagoak zirelakoan (Torrealdai, 2000 in Ibarluzea, 2020, 349). Ibarluzeak gehitzen du batzuetan testuak baino pisu gehiago zuela autoreari edo editoreari buruz prestatuak zituzten txostenek.

Zentsoreen ostean, bigarren geruza bat igaro beharra zegoen: irratiena zen. Irratsaioetan emititzeko modukoak ziren edo ez ere erabakitzen duten zentsoreek. Hedabide gehienak boterearen eskuetan zeuden garai batean zentsuratzeko beste modu bat zen hau, artista baten proiektzioa oztopatzeko gai baitziren. Bestalde, Gobernadore Zibilen papera ere funtsezkoa izan zen komunikazioaren kontrolean (Marín, 2013, 270). Gipuzkoako gobernadore zibila Enrique Oltra Moltó izan zen 1968tik 1970era eta kolektiboko hainbat kideri kantatzeko debekua ezarri zien.

Eugenio Ibarzabalek dio gobernadore zibilen jarduna pertsonala eta arbitrarioa zela; batek erabakitakoaren aurka egin zezakeela hurrengoak (2020, 22). Oronozek bere tesian seinatzen ditu zentsurak autoreei eragiten zizkion buruhaustek:

Ez zuen artistaren lana zuzenean baldintzatzen, baina maiz lan hori “moldatzera” behartzen zuen: “arriskutsu” izan zitezkeen kontzeptuak isilaraziaz, sinbolismora joaz, terminoak moztuz, eta hamaika trikimailu erabiliaz. Gainera, zentsore askok ikuspegi politikoa zuten, askotan artista bere pentsaerarengatik epaitzen zuten, ez soilik bere lanarengatik. (2011, 471)

Zapalkuntza sistema haren aurrean, sortzaileek zentsuratzaile propioa garatu zutela dio Ibarzabalek (2020, 23). Lourdes Otaegik *Censura y literatura* liburuan kontatzen du zentsoreek zuzenean baztertuko ez bazuten eta zigortuak izango ez baziren, beraien mezua modulatu beharra zutela autoreek. Idazleek euren burua zentsuratzen ikasi zuten, zenbait gai zuzenean ez jorratuz, zenbait izenondo ezabatuz edo ordezkaturik, ideia bat irudien bidez moztuz, hitz-jolasak asmatuz... azken batean, mezua kode zifratu bihurtuz:

La censura se vuelve creativa en ellos al estimular su capacidad de creación lingüística, su aptitud para combinar los distintos elementos -fónicos, sintácticos, semánticos, rítmicos, gráficos, métricos- del lenguaje, y extremar su habilidad para crear un lenguaje necesario para sugerir la idea censurada. Mediante procedimientos de desvío y rompiendo los artificios de previsibilidad, la linealidad del verso o del discurso, o la unidad del vocablo, alcanzaron a dotar de sentidos nuevos a las palabras al margen de las convenciones del sistema y liberando los enlaces sintácticos, mantienen la tensión y el equilibrio. (2020, 246)

Zentsuratua izan zen Torrealdaian eta gaiaren inguruko ikerketa sakonak egin zituen. Zentsurak herri baten eztabaida eta pentsamendua galarazten duela adierazi zuen eta artistengan autozentsurak duen eragin negatiboa azpimarratu zuen (1999):

Frankismoaren garaian eztabaida politiko, ideologiko eta kulturala ezabatuta geratu ziren, ezin baitzen horiez hitz egin. Beraz, pobretze handia, basamortu kulturala ekarri zuen zentsurak. Hori 40 urtetan baino gehiago eman zen, ez bakarrik liburugintzan, baita komunikabideetan ere. Gero kontuan hartu behar da, euskarazko kulturak beste traba batzuk ere bazituela. Izan ere, edukiaz gain hizkuntza bera ere zentsuratu zen.

70. hamarkada instituzioei, kapitalismoaren produkzio sistemari eta egitura sozio-politiko errepresiboari egindako kritikek markatu zuten. Intentsitate ezberdineko zentsura aldiak izan ziren 60. hamarkadatik 80.era bitartean. Zenbat eta malguago izan zentsorea are zehatzagoa izan zitezkeen kantaria. Horrela, mugen bilaketa etengabe bat ziren argitaratutako kantak. Dena den, ez da gutxietsi behar beldurrak eragindako autozentsuraren indarra. Mugaren bat zeharkatzeak ondorio tamalgarriak izan zitzaizkien garai hartan eta mugen esplorazio hau

tentuz egin beharra zeukaten artistek. Fiunzak (2012, 16) aipatzen du autozentsura hau dela hain zuzen ere diktadurak bilatzen duena, norbere burua mugatzen trebatzeak, beldurrez gauzak egiteari uzteak, errepresio zuzen gutxiago erabiltzea ahalbidetzen baitu.

Euskal Herrian, Katalunian bezala, zentsura ez zen gradualki leundu; alderantziz: mugimenduaren hazkunde ahalmenak kezkatuta denbora pasa ahala zorrotzen joan zen Letek *Jakin* aldizkariko 4. alean dion gisan:

Hasiera batetan, kantaeraren fenomenoak sorpresan harrapatu zuen mundu guztia. Sorpresan euskal entzulegoa, eta sorpresan bai eta erregimen zapaltzailearen makineria ere. Euskal kanta berria, azaleko zenbait fenomenoren aldetik, gazteria inkonformista bezain kontsumista bati zegozkion usadioekin nahas baitzitekeen; zenbait herabetasun, musika erritmo berrietara lerratzea, informalismoa, masifikazioa, eta abar. Hori horrela izanik, eta zenbait euskaldunen mesfidantzaz beste, euskal kantak sistemaren hasierako despistearen bentaja batzu jaso zituela esan behar; batez ere, tolerantzi itxurako zerbait. Baina hori berehala bukatu zen; errepresio aparatoa euskal kanta berriaren benetako esanahiaz jabetu zen bezain azkar, hain zuzen. Eta, zoritxarrez, azkar jabetu zen. (1977, 19-20)

Kideetako askoren kontzertuak debekatuta zeuden Gipuzkoan eta Bizkaian, Leterenak eta Iriondorenak kasu. Letek berak kontatzen du (1977, 23) nola egokitu zituzten letrak zentsurara:

Zentsura aldetiko zailtasun eta baimen aldetiko eragozpenak handituz joan ziren arabera, kantariak beren lanaren iraupena gordetzeko ahal zuten taktika guztietara jo behar izan zuten; eta taktika horietatik bat, kanten nabarmenkeria gogorrenak hizkera metaforiko baten bidez estaliz joaten izan zen. Mezuaren klabeak ezinbestean disimulatuak eta ilun samarrak bilakatu ziren. (...) Bazen ideien aldetiko radikalizazio gero eta handiagoa eskatzen zuenik. Nahiz eta radikalizazio hori asko eta askotan azalekoa baizik izan ez.

Irigarayk (2018) dio hasierak ez zirela samurrak izan: “hasieran Zumarragan-eta oso hotz hartzen gintuzten, ia tomateak botatzen zizkiguten. Bat batean zabaltzen hasi zen olatua bezala. Herri Irratiari esker”. Arrakastak, samurtu zuen kantarien sentipena, baina debekuak ugaritzea ere ekarri zuen.

Irratietan ere bistakoa zen zentsura. Zentsoreek erabakitzen zuten zein kanta argitaratu zitekeen eta zein emititu zitekeen irrastian. Ibilbidea 1961ean hasi zuen Loiolako Herri Irratiak topatu zuen zentsurari izkinaegiteko teknika: irratora bertara eramaten zituzten kantariak eta han grabatzen zituzten kantak eta ondoren emititzen. Kanta hauek arrakasta handia izan zuten. Herri Irratiak, Elizaren mendeko erakundea zenez, askatasun zirrikitu bat sumatu zuen: kontuak erakunde hari eman behar baitzizkieten eta ez zuzenean frankismoko erakundeei. 1970etik 1989ra Irratiko zuzendari Juan Lekuona Urrutia (Tolosa, 1928-2005) izan zen eta

Joxe Mari Iriondo esatari. Bigarrenaren esanetan, Lekuonak ez zion inoiz oztoporik jarri euskal kantariak, bertsolariak, edo eta euskal kulturari zegokion edozer gauzari irratian atea parez pare zabaltzeko “siempre que no pongas la emisora en solfa”, esaten omen zion (2021eko elkarrizketa).

Laudorio eta kritiken artean abiatu zen kolektiboa eta halaxe segi zuen bere ibilbide laburrean, higadura etengabekoa eraginaz.

Zentsura gainditzeko baliabide interesgarria izan zen ahozko ondare kulturalaren erabilera. Autoretza herrikoiko letrek, neurri batean, kantaria arduraz gabetzen zuen; are gehiago, bat-batean sortua eta kontsumitua bazen:

Ahozkoa, erabilgarriagoa da erresistentziarako, atzemaneginagoa delako. Belarriak ukitu eta haizeak eramaten duelako. Lekua, momentua eta entzulegoa aukera dezake autoreak, bere diskurtso ezkutua azaltzeko. Bera berehala desagertuko da. Mezu hori belarriren batean ostendu bada, beste leku, momentu eta entzuleria egoki batean zabalduko da, autorea eta sorrera ahazturik, letra orijinala aldatu behar bada. (Sarrionandia, 2010, 425)

Zentsurari izkinaegiteko irudimena erabiltzen zuten artistek eta hedabideek. Zenbaitetan aski zen hitz joko bat: Voces Ceibeseko partaide Bibiano Morónen ‘Can de palleiro’ kantan “*Abaixo a dentadura*” aldarrikatzen zuen, diktadura mespretxatzeko. Artista gehienek metaforak erabili zituzten, hala nola txoriak eta loreak. Hala ere, zentsurari aurre egiteko adierazpen distiratsuen, ziurrenik, Laboarena da. Lekeitio-en bidez hitzak esanahiz hustu zituen, edozein zentsorerentzat zentsurakaitz egiteko moduan, baina esan nahia mantentzen zuten hitz horiek eta entzuleriak aisa deskodetzen zuen Laboaren intentzioa. Mezu kodifikatua ulertzeko giltzarria da testuingurua eta hura deskodetzeko beharrezkoa da nortasun kolektibo baten parte izatea. Horrela, Artze eta Laboak osatzen zuten tandemean publikoak berehala ulertzen zuen zer ari zitzaizkion transmititzen eta identifikaturik sentitzen zen (Otaegi, 2015, 205). Azken batean, Shannonen komunikazio eskema klasikoaren bidez behatzen bada eskemaren pisu klasikoaren desoreka gertatzen da. Eskema honetan igorlea eta hartzailearen arteko komunikazioa arrakastatsua izateko inoiz baino beharrezkoagoa da testuingurua partekatzea, kasik koderik partekatu beharrik gabe ere mezua deskodetzera iritsi daiteke gizarte kohesioari esker. Delfak abestiak aztertzeko hiru ahotsez mintzo da:

La canción protesta activa un escenario con tres voces representadas en el propio universo textual: el emisor, el destinatario y el opositor de ambos. El emisor y el destinatario se agrupan en un nosotros que se opone a la tercera persona. El yo enunciador se presenta como portavoz de una voz que critica explícitamente a la tercera persona, por lo que cargará su discurso de actos que amenazan la imagen positiva y negativa de este. (2016, 162)

Shannonen eskema honetan kodea bera ere garrantzitsua da Oronozek defendatzen zuenez: “euskeraz abesteak berez zekarren errebindikazioa” (2000, 71).

Kantagintza berriko partaideek ondarea berreskuratu zuten eta bere garaiko egoeraren kronikagile ezagunenak dira. Elizabeth Jelinek dio (2002, 10) memoriak berebiziko garrantzia duela talde zapaldu, isilarazi eta diskriminatuengan eta iraganaren kontaketa autobalorazio eta konfiantza mailak hobetzeko balio duela.

1968an Ez Dok Amairuren paraleloan Herriko taldea sortu zen Bizkaian: Hor ziren Maite Idirin, Bittor Egurrola, Zintzoak... protesta kantuak egiten. Baina urtebete bakarrik iraun zuen: Idirinek ihes egin behar izan zuen, Bittor Egurrola ezkutatuta egon zen eta besteak isildu egin ziren.

2.7 Laburpena eta hausnarketa

Euskal kulturaren gailurretako bat da Ez Dok Amairurena. Haien kantez orainaldiraino iristea lortu badute ere bidea ez da laua izan. Alde batetik, iritzi publiko euskaldunaren kritikak kudeatu behar izan zituzten. Kolektiboaren proposamena abanguardistaegia zen zenbaitentzat eta mezu aurrerakoi eta askazaleek talka egin zuten sektore tradizionalistekin. Beste zenbait sortzailearen inbidia ere kudeatu behar izan zuten. Euskal kantagintza tradizionetik modernorako zubia izan zen eta horrek folkloristen haserrea piztu bazuen ere, baikorra izan zen epe luzera begira.

Berebizikoa izan zen kolektibo honen ekarpena euskal kulturarentzat. Aurtenetxek (2010) dio kantagintza berriaren bidez komunikatzeko modu berri bat sortu zela. Erregimenaren mezuei, isunei eta zentsurari aurre egiteko modu bat: “Oholtza gaintetik, gitarra baten laguntzaz, itxaropenari, bizitza berriari, jendarteak pairatutako kutsadurari, askatasunari, justiziari, bakeari, eta elkartasunari kantatzen zitzaion eta nortasun berri bat sortzen zen, herri kontzientzia bat sortzen saiatu ziren, injustiziei aurre egiten, eta literatura herriari hurbiltzen. Kantua zen mezua zabaltzeko bidea eta kontzertuak ekintza politiko bihurtu ziren hein batean”.

Kontzientzia huraxe zuen Letek ere: “Kantarien lana, errekupeazio lan bat zen, beste ezer baino lehen. Kantatzeko era herriko baten berreskuratzearekin batera –kanta zaharrak ere jasoz–, hizkuntzaren eta herri kontzientziaren errekupeazioa”. *Jakin* aldizkariaren 4. alean honakoa dio: “Jendea, hasiera batean, ez en kantalditara honako edo halako mezu baten bila joaten, euskaraz kantaturiko kanta batzu entzutera baizik. Kanta haiek euskaraz kantatuak izateak bazuen entzuleengan berezko xarma bat” (1977, 18).

Ez Dok Amairu kolektiboak garai ezberdinak bizitzea egokitu zitzaion, Hasierakotan euskararen eta ondarearen berreskurapena aski zen entzuleentzat; hutsune hori bazen, eta arrakasta handiz bete zuen kolektiboak. Taldearen estiloa zentsurari izkinaegiteko sortutako hizkuntza metaforikoan oinarritzen zen. Hizkuntzaren distantzia horrek ahalbidetzen zuen ideologia ezberdinetako pertsonen interpretazioa balekoa izatea. Denbora pasa ahala, ordea, haien arrakasta ebidentzia bat zen nazio askapenari lotutako sektoreentzat eta zabaltzen zuten mezua esplizituagoa izan zedila eskatu zieten. Kolektiboko kideek bere burua artistikoki

birkokatu behar izan zuten bolada horretan. Zenbait sektorek eskatzen zituen mezu esplizituak eskaintzeko prest zeuden taldeak ugaltu egin ziren eta publikoak mezu haien egarria erakusten zuten. *Rock Radical Vasco* deitu izan zaionaren hazia, beraz, aurreko belaunaldian ereina zegoen.

Mobilizazio sozialerako eta herri kontzientziarako tresna bihurtu zen musika 60. hamarkadan. Ez Dok Amairu-ren kasuan ukatutako nazio baten nortasuna berreskuratzeko balio izan zuten kanteak. Berreskurapen horrek bi adar izan zituen, bata iraganerakoa eta bestea etorkizunerakoa: Ondare kulturala berreskuratu eta jendartearen ahotara eraman zuten kantariak eta kexa sozialak eta mezu politikoak helarazteko kanal eraginkor bihurtu ziren.

Makinaria frankista prestatu gabe harrapatu zuen hasieran mugimenduak, baina zentsura gogortu zuen gerora. Horrek hitzak hobeto neurtzera eraman zituen artistak. Paradoxikoki, estutasun hura aberastasun bihurtu zen. Kantuen eta poemen hitzak lirikotasunez bete ziren eta hitz objektiboki inozenteak deskodetzeko gai ziren entzuleak testuinguruaren eraginez.

Taldeak zabaldu nahi zuten mezuaren eta zabaldu zezakeenaren arteko oreka bilaketan jardun zuten eta alde guztietako presioak jasan zituen. Herriko taldearen bidez bistaratu daiteke garai hartan edozein mezu kultural emateak zekarren konpromiso maila eta arriskuaren benetakotasuna.

Zentsuraren eragina erraz gutxietsi liteke, baina dirudiena baino sustraituagoa dago bere eragina. Lehenik eta behin zentsura zuzena dago, gertatu zenaren konstantzia: argitaratu ezin izan ziren liburuak eta aldatu behar izan ziren esaldiak. Ondarearen baten galera dakar horrek, eta ñabardura batzuen lautzea. Argitaratzen diren zenbait testuren inozentzia behartuak, urte batzuk beranduago, apropiazioa gertatzeko arriskua areagotzen du. Alegia, autoreak defendatzen zuenaren aurkakoa den ideologia batek bere testuak hartu eta bere egitea errazten du.

Zenbaitetan zentsorearen lanak arrastoa uzten du. Zenbaitetan, –errepresio aroa luzea bada eta ezustean eten ez bada– zentsoreek egindako lanaren arrastoak desagerrarazi ditzakete edo haien ondorengoek sarbidea debekatu etorkizuneko ikertzaileei. Gertatutakoa berraztertzeo aukera zailtzen du horrek.

Sortzaileak zentsoreen eskutara iritsi aurretik egin duen autozentsura ariketaren arrastorik, ordea, ez da gelditzen normalean. Zenbait sortzaile gai dira sortze prozesu horren berreraikuntza mahai gainean jartzeko (fitxategiak ondo gorderik mantendu bazituzten), baina beste hainbat testuren osotasuna betiko galdu da.

Zentsoreen inozokeriari egozten bazaio ere, tarteka pieza subertsibo bati *ustekabe*an argitaratzeko baimena ematea ere izan daiteke estrategia bat, aro horren normaltasun itxura areagotzen du.

Sortzaileek autozentsura eta zentsura igaro ostean liburua argitaratzen dute eta horrek eroslearentzat, iritzi publikoarentzat edo historiarentzat askatasun faltsu baten itxura sortzen du. Horren adibide izan liteke Otaegik (2020, 248-249) jasotzen duen pasartea. Bertan, Juan Antonio Zarzalejos Bizkaiko Gobernu delegatuak Arestiren lana argitaratzearen aldeko presioa egin zuela kontatzen da Ministerioan idazleak zentsoreek eskatutako aldaketa guztiei men egin ziela puntualizatu ondoren: “el hecho de que salga como sale lo considero una baza importante; ya me comprendes”. Mezua behar adina etxekotu izanaren garaipena eta argitalpen askatasuna zegoenaren itxura uztartzen zituzten erregimenak jokabide honen bidez.

Ez Dok Amairuk, hala ere, nazioarteko mugimenduetako eredia erabili zuen zailtasunei aurre egiteko. Mobilizazio sozialerako eta herri kontzientziarako tresna bihurtu zen musika 60. hamarkadan. Indarrean ziren Kantagintza berriek zenbait ezaugarri zituzten komunean:

- Hasieran, gaizki antolatutako mugimendu gisa hasten dira mugimendu gehienak.
- Miseria garaikideak zituzten kantagai eta etorkizun hobe baten ametsari jarraika zebiltzan.
- Denek pairatu zuten errepresioa. Horrek beraien mezua indartzen zuen eta beraien entzuleriaren konplizitatea lortzen laguntzen zien. Askotan mezuak deskodetzeko eta haiei balioa emateko beharrezkoa da errepresio horren berri izatea.
- Musikariak izan arren, letrek eta haien interpretazioek garrantzi berebizikoa zuten.
- Abestiak jendartea lozorrotik esnatzeko tresna izan zitezkeela ohartu ziren.
- Ahaztutako eta zapaldutako iragana berreskuratzeko ahalegin kontziente bat egin zuten.

- Mugimendu gehienek erdigune kohesionatu bat dute, baina baita geruza lausoago bat ere zeinak zaildu egiten baitu mugimenduaren ertzak non dauden markatzea.
- Mugimenduetako partaideek nazioarteko mugimendu baten partaide zirela sentitzen zuten.
- Nazioarteko kantarien arteko trukea izan zen eta ideien eta doinuen mestizajea.
- Mugimenduak arrakasta lortzearekin batera hasi ziren gehienetan mugimendu barruko arrakalak. Arrakastaren kudeaketa ez zen erraza izan.
- Musika industria indartsua izan zezaketen lurraldeetan kantari aratz edo puruen eta komertzialen arteko eztabaida piztu zen.

Aipagarria da mugimendu gehienetan emakumeen presentzia lausoa dela. Euskal Herriko kasua gertutik aztertuta sumatu daiteke lehen lerrokoak ez ziren emakumeen presentzia, antolaketa eta kudeaketa lanetan batez ere. Iriondo izan zen protagonismoa izan zuenetako bat eta zer pentsatua ematen du gaur egungo euskaldunon imajinarioan zein leku gutxi eman zaion. Beraz, ondorioztatu daiteke beste mugimenduetan ere bistakotik haratago berebiziko garrantzia izango zutela emakumeek, baina historiak ez dituela behar bezala jaso.

Gaur egun, topiko bihurtu dira txoriak askatasunaz hitz egiteko, baina garai hartan funtzio garrantzitsua bete zuten. Esan nahi da, zehaztasun maila handia ez izatea adaptatiboa izan zela; ez borondatearen ondorio. Gainera, gertatu izan da letren esplizitutasun falta horregatik, letra horiek erabili izana autoreek gustuko ez zituzten mezuen indargarri moduan. Zenbaiten estrategia komunikatiboek artisten figura bereganatzeko ahalegina egin izan dute eta testuingurua bihurtu hitzok bere ideologian kabida izan zezaten.

2.8 Erreferentziak

- Adorno, T. W. (1985). *Impromptus. Serie de artículos musicales impresos de nuevo*. Editorial Laia.
- Agote, G. (d.g.). Xabier Lete Biografia. *Badok Euskal Musikaren Ataria*.
http://artxiboa.badok.eus/artista.php?id_artista=87
- Aldekoa, I. (2004). *Historia de la literatura vasca*. Erein.
- Aldekoa, I. (2015). *68ko belaunaldia*. Utriusque Vasconiae.
- Alonso, A. L. (2000). La influencia de la canción de autor francesa en la creación musical española: Paco Ibáñez traductor-versionador e intérprete de Georges Brassens. En *VII Coloquio de la Asociación de Profesores de Francés de la Universidad Española*. 205-212 or.
- Ansa, E. (2019). *Mayo del 68 vasco*. Pamiela.
- Aristi, P. (1985). *Euskal kantagintza berria 1961-1985*. Erein.
- Aristi, P. eta Markez, M. (2012). *Plazer bat izan duk, Benito!* Elkar.
- Arkotxa, A. (1983). Xabier Lete: un poète basque sous le franquisme, une conception de la finalité du langage poétique. *Iker*, 2. 155-173 or.
- Artze, J. (1977). Kanta berria aztertzen. *Jakin*, 4. 45-50 or.
- Astiz, I. (2018/01/14). Leterenak direnak eta ez direnak. *Berria egunkaria*.
<https://www.berria.eus/paperekoa/2048/032/001/2018-01-14/leterenak-direnak-eta-ez-direnak.htm>
- Attali, J. (1995). *Ruidos: ensayo sobre la economía política de la música*. Siglo XXI.
- Aurtenetxe, A. (2010/01/08). Introducción al movimiento cultural Ez dok amairu. *Euskonews*, 515. <http://www.euskonews.com/0515z/bk/gaia51501es.html>
- Ayerbe, M. (2016/10/23). Teatro saltseroa. *Berria egunkaria*.
https://www.berria.eus/paperekoa/1987/041/002/2016-10-23/teatro_saltseroa.htm
- Badok (d.g.). Xabier Lete. *Badok euskal kantagintzaren ataria*.
<https://www.badok.eus/euskal-musika/xabier-lete#diskografia>
- Bastida, M. (2014) Memorias. *Una biografía de Mikel Laboa*. Elkar.

- Belter (1967). Mari-Lourdes Iriondo “Joan Baez del País Vasco”. *Belter informa boletín informativo*, 18. 3 or. Xabier Lete eta Lurdes Iriondo funtsa [XL 132-6].
- Beobide, I. (1966/03/13). Bestelakoak al gea?. *Zeruko Argia*, 159, 7 or.
- Cabedo, A. (2009). Música, género y paz: anotaciones a partir de los estudios musicológicos feministas. *Tiempo de paz*, 95. 86-92 or.
- Claudín, V. (1981). *Canción de autor en España (apuntes para su historia)*. Júcar.
- Delfa, C. V. (2016). Actividades de imagen en el género discursivo de la canción protesta: un análisis desde la teoría de la cortesía. *Analecta Malacitana*, 40(7). 147-163 or.
- Egia, G. (2011). Xabier Lete, itzultzaile *Senez aldizkaria*, 41. 43-82 or.
https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/20110824/egia?set_language=eu
- Eskisabel, J. (d.g). herri gogoa. *Badok euskal kantagintzaren ataria*.
http://artxiboa.badok.eus/diskoetxea.php?id_edukia=18
- Etxeberria, H. (2002). *Bost idazle hasier Etxeberriarekin berbetan*. Alberdania.
- Etxezarreta, R. (2017/12/8). Elurretako Lete. *El Diario Vasco*.
https://pgrakoak.blogspot.com/2017/12/elurretako-lete.html?spref=tw&fbclid=IwAR0b874utbwGUh0zeLLKWYNRJvPVT_ijxI0IR86-afZmj7QTcXBoiTeZDPg
- Ezeiza, K. (2019/06/03). Barren-barreneko sentimendu zoragarri bat da artistaren lana. *Goiberri*.
<http://goiberri.eus/2019/06/03/barren-barreneko-sentimendu-zoragarri-bat-da-artistar-en-lana/>
- Ezkerra, E. (2012). *XX. mendeko euskal literatura*. Etxepare Euskal Institutua.
- Feito, A. (2005). *Benito Lertxundi, el bardo de Orio*. La voz del folk.
- Fiuza, A. F. (2006). *Entre um samba e um fado: a censura e a repressão aos músicos no Brasil e em Portugal nas décadas de 1960 e 1970*. [Doktorego tesia, Universidade Estadual Paulista, Faculdade de Ciências e Letras de Assis].
<https://repositorio.unesp.br/handle/11449/103161>
- Fiuza, A. F. (2012). La censura musical en las décadas de 1960 y 1970 durante la Dictadura Franquista: un examen de la documentación del MIT. In Ibarra, A. (Ed.) *No es país para jóvenes*. Instituto Valentín Foronda. 43-59 or.
- Garzia, J. (1991/02/10). Min bizi bizia. *Euskaldunon Egunkaria*.
<https://www.berria.eus/hemeroteka/egunkaria/?u=1991&h=02&e=10&bilatu=alea&orridata=19910210&ikusi=25>

- Gereñu, I. (2018). Teatroaren mututzea XX. mendean. Frankismoaren eta zentsuraren eragina euskal teatroaren bilakaeran. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 63(2). 731-763 or.
- Gereñu, I. (2020). La supresión en el teatro vasco. La censura franquista en la evolución de un teatro de identidad del siglo XX. In Olaziregi, M. J. eta Otaegi, L. (Ed.) *Censura y literatura. Memorias contestadas*. Peter Lang. 63-80 or.
- Gurrutxaga, Alex (2006). Bernardo Atxaga. Notas para un diálogo poético, Bernardo Atxaga y Xabier Lete. *Caravansari*, 6. 86-89 or.
http://www.caravansari.com/caravansari_numero_6.pdf
- Gurrutxaga, Alex.(2020a). *Xabier leteren poetika: aldaeren azterketa eta bilakabidearen irakurketa bat*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Artxibo digitalak ikerketa irakaskuntza (ADDI).
https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/47863/TESIS_GURRUTXAGA_MUXI_KA_ALEXANDER.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Gurrutxaga, Alex (2020b). *Xabier Lete. Aberriaren poeta kantaria*. Alberdania.
- Gurrutxaga, A. (2021). Ihesa zilegi balitz: Xabier Lete eta trantsizioko poetikak. *Jakin*, 242. 71-88 or.
- Gurrutxaga, Amagoia (2020/12/26). Izar eta ezin. *Berria egunkaria*.
<https://www.berria.eus/paperekoa/2009/022/001/2020-12-26/izar-eta-ezin.htm>¹²
- Haranburu-Altuna, L. (1971/03/14). Baga, biga, higa... nigan. *Zeruko Argia*, 419. 6 or.
- Hernandez, M. (2016). *Airearen isila*. Elkar.
- Ibargutxi, F. (2016/09/07). Gora Txirrita! Behera Txirrita!. *El Diario Vasco*.
<https://www.diariovasco.com/culturas/201609/07/gora-txirrita-behera-txirrita-20160907000929-v.html>
- Ibarluzea, M. (2020). Censura, traducción e ideología: líneas de investigación en el ámbito de los estudios vascos. In Olaziregi, M. J. eta Otaegi, L. (Ed.) *Censura y literatura. Memorias contestadas*. Peter Lang. 337-360 or.
- Ibarzabal, E. (1977). *Koldo Mitxelena*. Erein.
- Ibarzabal, E. (2016). *Días de ilusión y vértigo 1977-1987*. Erein.
- Ibarzabal, E. (2020). *Xabier Lete, de un tiempo, un país*. Erein.

¹² APA7 arauen arabera, Alex eta Amagoiaren izenak A. laburtu beharko lirateke; baina pertsona ezberdinak direla erakustearren hizki bat gehiago jartzeko lizentzia hartu da.

- Igerabide, J. K. (1998). Dos estilos opuestos para una misma música: Mile Lasa y Xabier Lete. *Ínsula*, 586. 21-22 or.
- Irazabal, J. (2021). *Plagioaren auzia Xabier Aldairen Bazterrekoak liburuan*. [Gradu amaierako lana, Euskal Herriko Unibertsitatea][Dokumentu argitaragabea].
- Irigaray, J. A. (2011). Xabier Lete, lore gorrien arteko poetika. *Hegats*, 47. 11-23 or.
- Iriondo, J. M. (d.g) Ez Dok Amairu. Zenbait iritzi. [Dokumentu argitaragabea].
- Iriondo, J.M. (2006). *Lourdes Iriondo. Bidegileak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Iturbide, A. (2000). *B. Gandiaga, J. A. Artze eta X. Leteren poemagintza. Poesia tradizionalaren bidetik*. Erein.
- “Iturrixar” (1968/08/25). Euskal abeslari berriari buruz. *Zeruko Argia*, 286-287. 7 or.
- Izagirre, K.; Lertxundi, A.; Lete, X.; Saizarbitoria, R. (2003). *Hitz lau*. Euskal Editoreen Elkarte.
- Izagirre, K. (2017). *Elurra ikusi dut*. Elkar.
- Jelin, E. (2012). *Los trabajos de la memoria*. Instituto de Estudios Peruanos.
- Kamio, A. (2016/03/05). Ez Dok Amairu: Jaio, irauli, hil. *Gara*.
<http://www.naiz.eus/es/actualidad/noticia/20160305/ez-dok-amairu-jaio-irauli-hil>
- Kortadi, E. (1971/04/04). Folk eta ez dok amairu. *Zeruko Argia*, 422. 7. or.
- Kortazar, J. (1989). *Laberintuaren oroimena*. La Primitiva Casa Baroja.
- Kortazar-Billelabeitia, J. (2018). Gipuzkoako 1936ko “izu urdinaren” bi kasu alderatuta: Beasain eta Arrasate. *Vasconia* 42. 101-138 or.
- Labaien, A. M. (1964/01/05). Teatroa pozgarri ala gogaikarri? *Zeruko Argia*, 45. 8 or.
- Labandibar, G. (2019/01/01). Oiartzun, memoriaren leku. *Oiartzungo Udala informatzen*, 87. 26-28 or. https://issuu.com/oartzungoudala/docs/udala_informatzen_87_2
- Larrinaga, J. (2016). *Euskal musika kosmikoak: Euskal musika popularra gizartearen isla eta aldatzailea*. Baga Biga.
- Lekuona, J. (1965) Eliz bat pobrea [Abestia]. *Egia N°1*. Eusko Gaztedi.
- Lekuona, J. (1966/03/01). Euskal musika berri. *Zeruko Argia*, 166. 7 or.
- Lekuona, J. M. (1999). *Oiartzungo kantutegia bertako herri memoriatik*. Mugarri.
- Lertxundi, A. (2019). *Itzuliz usu begiak*. Alberdania.

- Lete, A. (2015). Niretzat 'andereño' hitzak badu esanahi zabala, xamurra, nortasun propioa duen hitza dela uste dut. *Oiartzungo urtekaria*, 45. 10-24 or.
https://issuu.com/oartzungoudala/docs/2015_urtekaria/10
- Lete, X. (1969) Ernesto Gebararen heriotzean itzaropenezko negarra. In Fonet, A. (Ed). *Poemas al Che*. Instituto del Libro.
- Lete, X. (1971). *Udazkenean*. Icharopena.
- Lete, X (1972). Baroja eta Euskal Herria. In Baroja, J. C. (Ed.). *Pio Baroja. Bere ehunurteburuan 1872-1972*. Editorial Mensajero. 29-83 or.
- Lete, X (1974b). *Bigarren poema liburua*. Gero-Mensajero.
- Lete, X. (1977). Kanta berria, erresistentzi abestia. *Jakin aldizkaria*, 4. 16-28 or.
- Lete, X. (1978a). Xabier Leteren elkarrizketa [Elkarrizketatzaile: Joxe Mari Beloki] *Herri Irratia*.¹³
- Lete, X. (2001). Rainer Maria Rilke: Gizakiaren jainkotasun erbesteratua. (Arantxa Iraola eta Imanol Irigoiek elkarrizketatua). *Pagoarte*, z.g. 23-30 or.
- Lete, X. (2006). *Abestitzak eta Poema Kantatuak*. Elkar.
- Lete, X. (2008b). Juan Mari Lekuona, maisu eta lagun. In Otaegi, L. (Ed.) *Juan Mari Lekuona Hurbiletik*. Oiartzungo Udala / Euskaltzaindia. 17-33 or.
- Lete, X. (2009/02/20). Xabier Leteren elkarrizketa (Elkarrizketatzaile: Maria Agnès Gorostiague). *Irulegi irratia - Euskal Irratiak*.
- Lete, X. (2011). *(Auto)biografia bat* (Editore: Inazio Mujika). Alberdania.
- Madariaga, A (2021/03/4). Oi, Labeguerie, kanta berri. *Berria egunkaria*.
<https://www.berria.eus/paperekoa/2028/028/001/2021-03-04/oi-labeguerie-kanta-berri.htm>
- Marín, M. (2013). *Los gobernadores civiles del franquismo, 1936-1963: Seis personajes en busca de autor*. Editorial Comares.
- Markuleta, G. (1992/09/09). Erromes nekatuaren salmoak. *El Diario Vasco*.
<https://kritikak.armiarma.eus/?p=7344>
- Markuleta, G. (1992/12/09). *Xabier Lete erromesaren otoitz liburua*. *El Diario Vascoren Zabalik* gehigarria. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=7345>
- Markuleta, G. (2014). *Poeta katalan garaikideak*. Elkar.
- Martin, M. (1977/12/14) Kantaldi en Portobello. *Punto y hora*, 65 or.

¹³ Inazio Mujika (Erein argitaletxea) da irratiko esanak transkribatu eta helarazi dizkidana.

- Martin-Etxebeste, J. (2018). Xabier Lete: XL bihotz bat. *Oiartzungo urtekaria*, 48. 66 or.
https://issuu.com/oartzungoudala/docs/oartzun_2018_baja_326812937a8c1f
- Martin-Etxebeste, J. (2017). La nueva canción vasca, Ez Dok Amairu, o el arte de esquivar la censura. In Moitio, I.; Nuñez, A. T. (Koor.) *Memorias de guerra. Proyectos de paz*. Gernika- Lumoko historia bilduma. 103-114 or.
https://issuu.com/museodelapazdegernika/docs/memorias_en_red/105
- Martin-Etxebeste, J. (2020). El día en que Pete Seeger cantó en Donostia. In Kortazar, J. *Bridge*. Iberoamericana-Vervuet. 357-371 or.
- Miguel, I. (2017/04/22). Los viejos tuneros del barrio. *El Diario Vasco*.
<https://www.diariovasco.com/san-sebastian/201704/22/viejos-tuneros-barrio-20170422003842-v.html>
- Mujika, I. (2012). *Xabier Lete Bergaretxe. Zuekin nago kantatzen 1944-2010 Bidegileak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Muruaga, B. (1991). Xabier Lete, bere baitan ibiltari. *Plazara*, 18. 19-24 or.
- Oiarbide, N. (2005/10/02). Ez dakit Ez Dok Amairuren historia osoa inork idatziko duen (Elkarrizketatzaile: Miel Anjel Elustondo). *Argia*.
<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2009/nekane-oiarbide-ez-dakit-ez-dok-amairuren-historia-osoan-inork-idatziko-duen>
- Oñatibia, J. (1966/03/20). Folklore ta kanta berriak (II) Kanta berrien ondorenak. *Zeruko Argia*, (160).12 or.
- Ordoqui, M. (1971/05/30). Ez dok Amairu, un espectáculo intolerable. *El pensamiento Navarro*. <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFFondo/irujo/2955.pdf>
- Ornoz, B. (2011). Josanton Artze “Harzabal”: inguruaren eragina poesiagintzan (1969-1979). [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Artxibo Digitala Ikerketa Irakaskuntza (ADDI).
<https://addi.ehu.es/handle/10810/10801?locale-attribute=eu>
- Otaegi, L. (d. g.). Bigarren poema liburua (1974). Euskal Literaturaren Hiztegia (ELH).
<https://www.ehu.es/ehg/literatura/?p=180>
- Otaegi, L. (2009). Biziaren ikurrak (1992) In Kortazar, J. (Ed.) *Egungo euskal poesiaren historia*. Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua. 137-146 or.

- Otaegi, L. (2015). Mikel Laboaren Lekeitioak: esanezina oihu bilakatua. In Arroita, I. eta Otaegi, L. (Ed.) *Oroimenaren lekuak eta lekukoak*. EHUko Argitalpen Zerbitzua: 147-170.
- Otaegi, L. (2020). La poesía de Gabriel Aresti ante la censura: códigos de expresión para tiempos de silencio. In Olaziregi, M. J. eta Otaegi, L. (Ed.) *Censura y literatura. Memorias contestadas*. Peter Lang. 241-263 or.
- Oteiza, J. (1977/02/03). Entrevista con Oteiza (Elkarrizketatzaile: Xabier Lete). *Garaia*, 23. 26-35 or.
<https://www.pamiela.com/index.php/56-prensa/hemeroteca/448-2009-entrevista-a-ot-eiza-de-xabier-lete>
- Oteiza, J.; Goikoetxea, T.; Idarreta, S.; Lete, X.; Uriarte, E.; Munarriz, J.; Merino, J. L.; Rincón, L.; Agirre, J.; Artze, J. A.; Zabaleta, Y.; Ojembarrena, E.; Ertzilla, M.; Sanchez, M. Garitaonandia, K.; Irigoien, R.; Lasa, A.; Egillor, J. C.; Zabaleta, P.; Legasse... (1978). 21. Hordago.
- Palacios, José. (2005). *Verrà la morte e avrà i tuoi occhi / Vendrá la muerte y tendrá tus ojos*. Ediciones Perdidas.
- Perez, A. (2016/09/13). Elizatik urrun, tabernatik gertu. *Berria egunkaria*.
https://www.berria.eus/paperekoa/1860/032/001/2016-09-13/elizatik_urrun_tabernatik_gertu.htm
- Perez-Gaztelu, E. eta Saez de Eguilaz, H. (2020). *Zerbitzuko lanean. Lete kazetari, Lete prosagile*. Mugarri.
- Ramírez, J. R. (2006). Música y sociedad: la preferencia musical como base de la identidad social. *Sociológica*, 60. 243-270 or.
- Rivas, M. (2011 abendua). Personajes: Xabier Lete. *Antzina aldizkaria*, 12. 60-66 or.
http://www.antzinako.org/Revistas/Antzina_12.pdf
- Rojo, J. (2016/12/30). Amodioaren inguruan. *El Diario Vasco*.
<https://kritikak.armiarma.eus/?p=7058>
- Ruiz de Azua, V. (1980/08/06). La canción vasca, entre el abandono oficial y la indiferencia del público. *El País*.
https://elpais.com/diario/1980/08/06/cultura/334360808_850215.html

- Sanchez, M. (1993). Leteren poetika. In Aristondo, I. et al. (Ed.) *Gaurko poesia*. Labayru. 95-127 or.
- Sarasola, B. (2015). *Bainaren belaunaldia*. Labayru.
- Sarasola, I. (1977). Egoerak eraginda literato (Elixabete Garmendiak egindako elkarrizketa) *Argia* aldizkaria (19-22 or.)
<https://www.argia.eus/argia-astekaria/766/egoerak-eraginda-literato>
- Sarrionandia, J. (2010). *Moroak gara behelaino artean?* Pamiela.
- Seeger, P. (1971). Pete Seegerri elkarrizketa (Elkarrizketatzaile: Jose Mari Iriondo). *Herri Irratia*.
- Shea, D. (2001). “*Lodo por la patria*”. *Estudio cultural de la canción comprometida en Bárbada Dane y Luis Eduardo Aute*. [Doktorego tesia, Universidad de las Palmas de Gran Canaria]. <https://accedacris.ulpgc.es/handle/10553/19721>
- Sinadura gabe (1966/03/09). Música moderna en vascuence. *La Voz de España*, 9067. 10 or.
- Sinadura gabe (1966/01/30). Euskal kanta berriak aidean. *Zeruko Argia*, 153. 7 or.
- Torrealdai, J. M. (1999). Zentsurak basamortu kulturala ekarri zuen (elkarrizketatzailea Ainhoa Irazu). *Euskonews&Media*, 37.
<http://www.euskonews.com/0037zkb/frelkar.htm>
- Torrego Egido, L. (1999). *Canción de Autor y educación popular*. Ediciones de la Torre.
- “Txillardegí”, J. L. Alvarez (1968/09/22) Olerkari gazte bat: Xabier Lete. *Zeruko Argia*, (290). 7 or.
- Urien, A. (2020). *Poesia zaurien ukendu*. Pamiela.
- Urkiza, A. (2021). *Garen hori*. Elkar.
- Urretabizkaia, A. (2002) Abertzaletasuna, nik ulertzen dudana moduan, bukatua dago, nazionalismoak irentsi du. *Hermes aldizkaria*, 4. 42-49 or.
- Urrotz, K. (1968/08/25). Ez Dok Amairu Disko berriak. *Zeruko Argia*, 286-287. 7 or.
- Velasco, F. (2007). La Nueva Canción Latinoamericana. Notas sobre su origen y definición. Presente y pasado. *Revista de Historia*, 12(23), 139-153 or.
- Zarraua, E. (1991). Xabier Lete: Mirando atrás. *Zurgai*, 31. 40-41 or.
- Zenbait autore (1980/05/27). Manifiesto de intelectuales y artistas vascos contra la violencia. *La Gaceta del Norte*. 24-25 or.
- Zenbait autore (2009). *Isiltzen ez den isiltasuna*. Mugarri bilduma.

3. KAPITULUA: Metodologia

3.1 Xabier Leteren abestien deskribapena eta azterketarako prozedura

Azterlan hau kualitatiboa da funtsean. Zenbait datu kuantitatibo aztertzen ditu, aurreikuspenen baieztapenerako lagungarri direnak edo emaitzen indargarri; baina interpretazioan oinarritutako ikerketa da batez ere.

Prozesuari dagokionez, kanten letrak banan-banan aztertu dira lehenik, modu kronologikoan. Behin eta berriz errepikatzen ziren gaiak multzokatu eta azterketa tematologikoa egin da. Multzokatzea justifikatzeko ikerketa kuantitatiboa egin da. IXA taldearen baliabideak eta laguntza erabilita aztertu dira zenbait arlo. Leteren abestien korpusa AnalHitza baliabidetik (Otegi et al., 2017) iragazi da. Hizkuntza prozesatzaile modularrak hainbat intuizio emaitza zientifiko bihurtzea ahalbidetu du. Bertatik ateratako emaitzak grafiko bihurtu dira objektibotasun eta estetika, biak, uztartuz 4.1 atalean.

Bestalde, autorearen bizitza eta bere obra lotuta daudenez, bere biografia eta elkarrizketak arakatu dira; testua ez ezik, haren testuingurua ere kontuan hartu da interpretatzeko. Azterketarako gidalerroaz gain, interpretazioa ere gehitu zaio eta inferentziak ere egin dira (Bardin, 1991, 30). Leteren obraren lehen zatia, bere estiloa markatu zuena, argitaratu zen garaian zentsura puri-purian zenez esan nahiaren eta esanahiaren arteko tarte bat bazegoen eta adreilu ikusezinok azalarazteko helburua ere badu lan honek.

Azkeneko kapituluan, berriz, bertsolaritzaren eta Leteren obraren artean dagoen elkarreragina aztertuko da.

Ikerketarako baliagarri izan dira Koldo Mitxelena Kulturgunean dagoen Xabier Leteren ondarea jasotzen duen Lete-Iriondo funtsa eta zenbait hipotesi kontrastatzeko balio izan dute bertan egindako bilaketek. Bestalde, zenbait elkarrizketa ere egin dira, datu biografikoak kontrastatzeko eta kontakizun ezberdinak topatu diren kasuetan, argitzeko. Zenbaitetan kontsulta laburrak izan dira eta solasaldi luzeak beste batzuk. Hona kontsultatutakoen eta elkarrizketatutakoen zerrenda, jaiotza urtearen hurrenkeran:

- Joxe Mari Iriondo (1938, Azpeitia): Ez Dok Amairuko sortzaileetako bat izan zen eta Lurdes Iriondoren sendikoa.
- Imanol Irigoien (1940, Altza): idazlea eta margolaria da. Bere anaia, Joan Mari da. Leterekin ahaidetuta dago, amaren aldetik.
- Xabier Amuriza (1941, Etxano): Bertsolaria eta bertso-jartzailea, idazlea.
- Joxe Anjel Irigaray (1942, Iruñea): Ez Dok Amairuko kide izan zen eta poemagile nagusietako bat.
- Arantxa Lete: (1945, Oiartzun): Haur eskolako irakasle erretiratua. Xabierren arreba da.
- Joxe Anjel Arbelaitz (1953, Oiartzun): Xabier Leteren kultur sustatzailea izandakoa.
- Karlos Jimenez (1956, Rosario): Piano-jotzailea.
- Inazio Mujika Iraola (1963, Donostia): Erein-eko editorea.
- Gerardo Markuleta (1963, Oñati): Idazlea eta itzultzailea.
- Joxean Goikoetxea Maritxalar (1967, Hernani): Soinujolea.

3.2 Korpusa

Letek 116 kanta kaleratu zituen guztira bere musika diskotan. 15 lan argitaratu zituen, 22 disko, guztira. Horietatik 21 bizirik zela; eta, hil ondoren, bere Errenteriako zuzeneko emanaldia biltzen zuen beste disko bat atera zuten.

Bere lehen lanak EPak izan ziren, ohiko diskoak baino iraupen laburragoko biniloak. Haien ondorengoak disko luzeak. Kanta bera behin baino gehiagotan grabatuta topa liteke bere ibilbidean zehar eta kanta berririk gabeko diskorik ere argitaratu zuen. Bestalde, zenbait bildumatan –*Bai, euskarari!*, adibidez– Leteren kanta solteak tartekatu izan dira eta beste artista askok erabili izan dituzte bere letrak kanten abiapuntu gisa.

Kantautorea zen Lete, bere letrak abesten zituen nagusiki. Justu horiek izango dira tesi honetan aztergai. Hala ere, mugako kanta batzuk egon litezke. Honakoak dira korpusa mugatzeko jarraitu diren irizpideak:

- Argitaraturako diskoak hartuko dira kontuan, zendu ondoren argitaratutako *Azken kontzertua*-ren KDa barne. Azken hau, hil ondoren argitaratu zen, baina aurretik entzuna eta onartua zuen Letek diskoaren argitalpena Joxan Arbelaitzek baieztatzen duenez (2021eko komunikazio pertsonala).
- Fokua ez da kanta argitaragabeen gainean jarriko, baina tarteka aipagai izango dira gai nagusien ikuspuntua baieztatzeko indargarri badira. Haietako askok zirriborro moduan biziraun dute; eta beste batzuk, jendaurrean abestu zituen arren, bere disko batean biltzerik ez zutela merezi uste izan zuen. Horregatik, bere obrarekiko zuen osotasun ikuspegia mantentzeko, zentzuzkoena da Letek plazaratu gabe utzi zituen horiek ez erabiltzea bere kantagintza definitzeko.
- Bertsolaritzari eskaini zizkion diskoak (*Bertso zaharrak*, *Txirritaren bertsoak* eta *Berrehun urtez bertsoan*) ez dira kontuan hartu Leteren gaien azterketarako. Bertsolaritzari buruzko atalean aipagai da bere lana, baina ez bertako letrak.

- Badira zenbait kanta Leteren letra daramatenak, baina Iriondok kantatzen dituenak. Leteren izena diskoaren izenburuan agertzen denez korpusaren barnean kokatu dira. Beraz, ‘Ez nazazu utzi (I)’, ‘Gaua’, ‘Festako gaua’ aztergai dira.
- Korpusetik kanpo utzi dira beste autore batzuek Leteren letrekin egindako kantikak.
- Letek itzulitako kantikak ez dira sakon aztertuko. Tartean dira Rilkeren *Orduen liburua* eta kantagintza frantsesari eskainitako zuzeneko diskoko hainbat kanta.
- Ez dira aztertuko Letek diskoratu zituen euskal poeten letrak ere.

3.3 Abestiak

Aipatutako irizpideetatik iragazita, 40 kantaren azterketa egin da lan honetan. Honakoak dira kanten izenburuak (1. eranskinean daude kanta guztiak):

1. Euskalerra nerea
2. Lore gorrien balada
3. Poeta hoiek
4. Giza aberea
5. Maiteaz galdezka
6. Seaska kanta
7. Alzateko jaun
8. Nafarroa, arragoa
9. Ni naiz
10. Sinisten dut
11. Ez nazazu utzi (I)
12. Gauda
13. Festa bukatzean (Festako gaua)
14. Chile
15. Ez dut amets haundirik
16. Gizon arruntaren koplak
17. Haur andaluz bati seaska kanta
18. Izarren hautsa
19. Langile baten seme¹⁴
20. Otsoak eta txanogorritxu
21. Cançó a Catalunya¹⁵
22. Gauaren ordezkoko eguna
23. Haizea dator ifarraldetik
24. Herri zahar hontan

¹⁴ Jatorrizkoak “langille” dio, baina *APK* liburuan zuzendu egin zuen Letek eta hala jasotzea erabaki da.

¹⁵ *Abestitzak eta Poema Kantatuak* liburuan ‘Catalunyari abestia’ izenburua jarri zion.

25. Lore bat, zauri bat
26. Teologia, ideologia
27. Xalbadorren heriotzean (I)
28. Xalbadorren heriotzean (II)
29. Aberri ilunaren poema
30. Agian
31. Amodio, amore
32. Biographia
33. Eskeintza, nere aita zenari
34. Ez esan, maite
35. Habanera
36. Neguaren zai
37. Henry Millerri eskutitza
38. Jardin bat zuretzat
39. Malkoak euri balira
40. Zuk badiozu

Hona, zein diskotan kaleratu zen abestia lehen aldiz:

Lehen singela (1968)

- Euskalerrri nerea
- Lore gorrien balada
- Poeta hoiek

Bigarren singela (1969)

- Giza aberea
- Maiteaz galdezka
- Seaska kanta

Lurdes Iriondo-Xabier Lete (1969)

- Gaua
- Festa bukatzean
- Ez nazazu utzi (I)

Xabier Lete (1974)

- Alzateko jaun
- Nafarroa, arragoa
- Ni naiz
- Sinisten dut

Kantatzera noazu (1976)

- Ez dut amets haundirik
- Chile
- Gizon arruntaren koplak
- Haur andaluz bati seaska kanta
- Izarren hautsa
- Langile baten seme
- Otsoak eta txanogorritxu

Lore bat, zauri bat (1978)

- Cançó a Catalunya
- Gauaren ordezeko eguna
- Haizea dator ifarraldetik
- Herri zahar hontan
- Lore bat, zauri bat
- Teologia, ideologia
- Xalbadorren heriotzean (I)
- Xalbadorren heriotzean (II)

Eskeintza (1991)

- Aberri ilunaren poema
- Agian
- Amodio, amore
- Biographia: Karlos Jimenez
- Eskeintza, nere aita zenari
- Ez esan, maite
- Habanera
- Neguaren zai

Azken kontzertua (2011)

- Henry Millerri eskutitza
- Jardin bat zuretzat
- Malkoak euri balira
- Zuk badiozu

3.4 Tematologia

Tesi honek tematologiako pautak erabiliko ditu aztergaiari jarraipena egiteko. Esparru hau, aztergaia interpretatzeko eta alderatzeko beste diziplina artistikoekin sarea josten saiatzen da eta bidea zabalik uzten du etorkizunean korpus handiagoekin harremanak ezartzeko. Cristina Naupertek 2003an argitaratutako artikulu bilduma, *Tematología y comparatismo literario*, izeneko liburua, izan da metodologiaren iparrorratz.

Literaturaren kritika egiten denean bide estrukturalista edo formalista jarraitu daiteke (Levi-Strauss, Jakobson, Greimans, adibidez), psikoanalitikoa (Freud, Rank, Jung), edo soziologikoa (perspektiba marxista, esaterako). Bide hauek, markatuak izanagatik, gurutzatu egiten dira tarteka eta kritika tematikoa hiru bideen norabide berean doa Tomé-ren esanetan (1986, 133, 139).

Tematologiak gai beraren inguruan idatzitako ahalik eta testu gehien biltzen ditu eta lagin zabal horrek ondorio eta joera objektiboagoak zehaztea ahalbidetzen du. Metodologia honek tradizio handia izan du zenbait herrialdetan. Alemanian *Stoffgeschichte* deitzen zaio. Jatorrizko adieran *stoff*-ek ehuna du ardatz. Euskaraz, istorio edo poema baten osagaiari, ehundurari egingo lioke erreferentzia. Herrialde eta hizkuntza aniztasun horren eraginez, ordea, diziplinaren terminologia nahasgarria gerta daiteke, eskola bakoitza bere izendapenak ezartzen saiatu delako:

A me pare che ci sia ancor oggi, rispetto alla critica tematica, un deficit di proposte metodologiche omogenee e dettagliate, che esistano alcune grosse difficoltà teoriche non del tutto risolte, a cominciare dalla definizione stessa di tema (per non dire dell'intricata, disperante questione della differenza tra tema e motivo), e che ci sia purtroppo negli studi in questo settore una notevole confusione terminologica, con proposte disparate che vanno da tema a topos ad archetipo a immagine a simbolo a mito. (Ceserani, 2008, 27)

Finkatu gabeko terminologiagatik Literaturan inoiz gutxietsitako diziplina izan bada ere badira lan serioa egin duten hainbat autore (Erich Auerbach, Ernst Robert Curtius, Mario Praz eta Vladimir Propp, adibidez) eta Artearen historian indar handia duen ikerlerroa izan da (Aby Warburg eta Erwin Panofskyren lanak lekuko) Werner Sollorsen arabera (2003, 58).

3.4.1 Gaia

Euskaraz, terminologikoki, itzulpenik egokiena *gaia* izan daiteke. Ñabardurak daude gai, motibo, arketipo, fabula, mito eta kondaira bezalako hitzen artean eta horrek Europako hizkuntzen eta eskolen artean terminologia bateratzeko arazoak sortu ditu. Troussonen lanean hain gertu dauden kontzeptuen arteko nahasketak seinalatzen ditu eta mugak ezartzeko ahalegina egiten da. Hurrengo lerroetan terminologia nola ulertu den eta nola erabiliko den azaltzen ahaleginduko gara. Alde batetik, arketipoez hitz egin daiteke. Troussonek izendapen hori ematen die ibilbide bat (kondairazkoa, mitologikoa, biblikoa, literarioa, historikoa) egiten duten pertsoneri (1965, 90-91). Pichois eta Rousseauk *pertsonaia literario* deitzen diete arketipo sozial, profesional eta psikologikoa elkartzen dutenei.

Beste alde batetik, zenbait ikertzailek argumentuen historia aztertzen dute. Halakoetan, literatur azterketak artearen historiarekin paraleloan garatu behar dira. Argumentuak errepikatu egiten dira historian zehar eta garai bakoitzean gertatzen diren estilo eta egiturazko aldaketak behatu behar dira, horiek baitira argumentuan aldaketak eragin ditzaketenak. Aldaketa horien zergatia interesgarria izan daiteke (Frenzel, 2003, 33). Altxorraren bilaketa, mendekua, infernurako bidea, botere gosea... literaturan eta zineman behin eta berriz errepikatzen diren argumentuak dira. Dударik gabe, aztarka jarduteko lokatz oparoa izan zitekeen arren, egokiagoak izan daiteke narrazioei erreparatzeko, abestiak aztertzeke baino.

P. Albouy-k gaia kontzeptua ez, mitoarena hobetsi zuen; eta azterketa horretarako jatorriari erreparatzea proposatzen du: mitologikoa (Orfeo), biblikoa (Sansón), historikoa (César), edo literarioa (Donjuán, Fausto) den zehaztea, alegia (Trousson, 1965, 91).

María Isabel Lópezek gaiak eta testuinguru historikoa lotzea gomendatu zuen *El tópico literario: teoría y crítica* liburuan (2008, 91). Modu horretan, zenbait sortzailek garai bertsuan gai bera nola darabilten ikertzeko ateak zabaltzen dira.

3.4.2 Motiboa

Motiboak esanahi propioa duten unitateak dira, zatitu ezin daitezkeenak eta literaturan historian behin eta berriz errepikatzen direnak (Frenzel, 2003, 47). Motibo berririk nekez sortzen da, baina aurreko motiboen gainean egindako aldaketen konbinazioek sortu dezakete ordura arte existitzen ez zen genero literario bat (2003, 51). Azterketa historiko-konparatiboetan motiboen intertestualitatea aztertu ohi da; obra ugaritan aldaketa gutxiarekin nola agertzen diren:

Paul Hadermann introduce el término “matriz” considerando que entre éste y la noción de tema se encuentra el lugar del motivo. Entiende por "matriz" un elemento no connotativo, formal, mecánico y repetitivo que no pertenece al nivel del sentido y significado. Hendrik van Gorp lo define como equivalente de “matter” y lo identifica con Stoff, entendido como materia prima. (Frenzel, 2003, 45)

Motibo bat autore baten obran zehar behin eta berriz errepikatzen bada *leitmotiv* izendapena ematen zaio. Kontzeptua honen jatorria musikan dago. Wagnerrek bere konposaketatan leitmotivak erabili zituen pertsonaien eszenaratzeak identifikatzeko Carriónek jasotzen duenez (2021, 190). ikertzaileak dio motibo alegorikoetan esanahia finkoa dela eta erraz identifikatu ohi dela eta motibo sinbolikoak konplexuagoak eta aldakorragoak direla. Horregatik, beharrezkoa da espezialistek motibo hauen esanahiak deskodetzeko argitaratutako eskuliburuak kontsultatzea. Tesi honetan Chevalier eta Gheerbranten *Dictionary of symbols* erabiliko da Leteren esanahiak herri literatura tradizionalarekin alderatzeko.

Antzekotasunik baduten arren, gaiak, argumentuak, eta motiboak bereizi egin behar dira:

Trousson opina que “les études de thèmes” son una disciplina histórica en la medida en que se refiere a la “Stoffgeschichte” [historia de argumentos] en el sentido alemán de la palabra. “Le thème” (Stoff argumento) obedece según Trousson a un status fundamentalmente literario; aunque el motivo, siendo más abstracto, comparte un poco la suerte del argumento por su relación con él, constituye, sin embargo, una unidad semántica de carácter no literario, la cual por su empleo en el campo artístico está sujeta a un proceso de individualización. La tesis de Trousson sobre el argumento hay que aceptarla sin ambages; la historia de argumentos tiene algo que ver con la hoy en día tan comentada intertextualidad: es un diálogo entre las obras literarias que prolonga a través de los siglos. Así las cosas, desde mi punto de vista, esta característica es igualmente aplicable al motivo, cuya procedencia semántica no literaria convirtió Trousson en el centro del debate. (Frenzel, 2003, 32)

Frenzelek dio motiboa unitate txiki bat dela, bere baitan itxitako multzo bat, eta testuan zehar errepikatzen dela. Espazio, egoera, pertsonaia edo objektu baten adierazpen eskematizatua da. Gaiak, berriz, lan osoaren edo zati baten muina azaltzen du, modu abstraktuan (Frenzel, 2003, 47).

3.4.3 Nortasunaren gaia

Cristina Nauperten ustez diziplinarteko lan askoren oinarrian tematologia dago eta oso erabilgarri izan da kritika feministarentzat, nahiz eta ez den beti izendapen hori aitortu emaitzak argitaratu direnean (2003, 19). Baieztapen bera egiten du *Black Studies*-en alorrerako ere: nortasunaren gaia aztertzerakoan gorputzen deskribapenek hartzen duten pisuari buruzko hainbat ikerketa egin direla eta esklabotza eta mendekotasun harremanak bezalako gaiak ere errekkurrenteak izan direla dio (2003, 17-18). Ez da arrazarena mendekotasun egoera bakarra. Klase kontzientzia eta aberria gai garrantzitsuak izan ziren Ez Dok Amairuko partaideentzat. Edward P. Thompsonen iritziz, nortasunaren elkarzutean klase ardatza dago batetik eta naziotasun ardatza bestetik. Indar gehiago batean edo bestean jarri hamarkada luzetako eztabaida izan da, eta izaten jarraitzen du, gaur egungo migrarien jatorria aldatu bada ere:

Las clases no existen como entidades separadas, que miran en derredor, encuentran una clase enemiga y empiezan luego a luchar. Por el contrario, las gentes se encuentran en una sociedad estructurada en modos determinados (crucialmente, pero no exclusivamente, en relaciones de producción), experimentan la explotación (o la necesidad de mantener el poder sobre los explotados), identifican puntos de interés antagónico, comienzan a luchar por estas cuestiones y en el proceso de lucha se descubren como clase, y llegan a conocer este descubrimiento como conciencia de las. La clase y la conciencia de clase son siempre las últimas, no las primeras, fase del proceso real histórico. (Thompson, 1979, 55-56)

Max Weberrek, erromatarren nekazaritza historiari buruzko tesia egin ostean, antzekotasunak sumatu zituen beste zenbait lurraldetan izan ziren migrazio mugimenduetan. Soldata baxuagoen truk lan egiteko prest zeuden poloniarrek ordezkatu zituzten jaiotzazko alemaniarrek nekazaritza eremuetan:

Este enfrentamiento del germanismo (Deutschum) versus el polaquismo (Polentum), se expresa también en términos de culturas: la primera, espiritualmente más elevada, depositaria de una tradición de alta cultura y altos niveles de vida física y espiritual; la segunda, por el contrario, de baja cultura y bajos niveles de vida física y espiritual. El resultado de esta contienda según este análisis, no favoreció a los “económicamente más desarrollados o la nacionalidad más talentosa”, y Weber afirma que la historia de la humanidad (Menschentum) registra varios casos de esta suerte en la que “algunas razas poco desarrolladas” se impusieron sobre “soberbias expresiones de la vida espiritual y artística”. Porque al este del Elba, en condiciones de modernización capitalista, el resultado fue que los polacos mostraron mayor “adaptabilidad” hacia las “condiciones de existencia” prevalecientes. La “raza eslava” fue capaz de ajustarse a un más bajo estándar de vida y así emerger victoriosa del “proceso de selección” que causó que los alemanes abandonaran sus territorios. (Vernik, 2018, 23)

Verniken hipotesiaren arabera, Weber ikuspuntu eurozentrista eta arrazista batetik abiatzen da, baina Amerikarako bidaiak eta Du Boisekin izandako harremanak bizitza modernoko aurreiritzi eta diskriminazioei buruzko ikuspegi zabalago bat eman zion. Weberrek arrazen arteko talkaz ere jardun zuen –arrazak, komunitate bereko sentipen subjektiboa duen gizatalde gisa ulerturik– (Vernik, 2018, 30):

El encuentro con W. E. B. Du Bois, junto con el cúmulo de observaciones y vivencias de su viaje por Estados Unidos, contribuyó en Max Weber, no solo a enfatizar la importancia de la articulación de la categoría de clase con las de etnia y nación, sino especialmente para al “giro” de su pensamiento, que pasa de una mirada “esencialista” –presente en sus trabajos socioagrarios, del período 1891-1897– hacia una aproximación “invencionista” –manifiesta en sus escritos de entre 1909 y 1914–. Pasa entonces Weber, antes y después de su intercambio con Du Bois, de un enfoque de corte biologicista y esencialista de las razas y las nacionalidades, a una aproximación más matizada, dinámica y antibiologicista. (Vernik, 2018, 24)

Gorka Romanen *El deseo nacional* izeneko tesian (2015) euskal abertzaletasuna aztertzen da. Aberria existitu dadin aberri hori existitzeko desio politiko baten bultzada beharrezkoa dela dio bertan eta desio hori oinarri solido eta ukigarrien gainean eraiki ohi dela. Horrek legitimitatea eta batasuna eskaintzen die eskatzaileei. Horregatik aldarrikatu ohi dituzte nazionalismoek elementu etniko, kultural eta linguistikoak (2015, 37). Tesiak aberriaren kontzeptua ulertzeko dimentsio bertikal baten (etnia, ohitura, historia, hizkuntza) eta dimentsio horizontal baten (orainaldiko testuinguru politikoa) deskribapena egiten du Igor Filibiren esanetan oinarrituta:

Para comprender el fenómeno del nacionalismo resulta imprescindible atender a dos dimensiones centrales (MacCrone): una vertical, relacionada con la continuidad histórica de la comunidad y sus recuerdos y elementos compartidos (lengua, pasado y símbolos comunes); y una dimensión horizontal, relacionada con las condiciones materiales concretas (económicas, sociales, políticas y culturales) de un determinado momento histórico. (Filipi, 2007, 263 in Roman, 2015, 35)

3.4.4 Maitasuna eta heriotza

J. P. Richard-ek “ideia edo hitzen konstelazio” gisa izendatzen ditu gaiak (Trousseau, 1965, 91). Elkarrekiko distantzia ezberdinetara dauden, baina independenteki distira egiten duten unitateen multzo moduan definitzea oso egokitzat jotzen da. Gai edo tema gisa izendatuko dira objektu multzoak biltzen dituzten kategoria, sentimenduak eta ideiak. Horien artean, badira literaturaren historian bereziki landu diren bi gai: maitasuna eta heriotza (*Eros* eta *Tanatos*). Bi gaiek protagonismo handia dute Leteren obran.

David Pujantek tematologiaren gai nagusitzat hartzen du bikoia:

En el caso del binomio Eros-Tanatos, la multiforme representación de una doble tendencia primigenia humana, misteriosamente contrapuesta entre sí, y que se ha dado, aun sin formulación explícita, en mitos, fábulas, relatos de todo tipo, desde que existe constancia de la creación humana. Es la misteriosa y permanente relación entre vitalismo y tendencia autodestructiva que se da en todo ser humano; una relación que se ha definido en el siglo XX, con elementos mitológicos, por parte de psicoanalistas, sociólogos y filósofos. (2006, 114)

Ángel Carriónnek *Zer aldizkariko* artikuluan dio gaien diziplina dokumentario-genealogikoa dela eta hainbat gairen batura osatzeko balio duela. Adibide gisa jartzen ditu leialtasunik eza, familiakoenganako maitasuna edo gaztetako maitasuna edo sentsualitatea. Leteren kantagintzan aztergai izango dira hauek guztiak.

Bakanak dira gizakietan jaiotzetikako emozioak. Paul Ekmanen arabera (1999) poza, tristura, beldurra, haserrea, nazka eta ezustea lirarteke oinarritzko sei emoziook. Gizakiak baditu zenbait instintu ere. Horietako bat, ugalketarako grina primarioa da, baina gizakiaren intelektuak hura arrazionalizatu du historian zehar José Antonio Marinaren ustetan:

La inteligencia provoca una sentimentalización de la vida afectiva. Los mecanismos instintivos decaen y los contenidos significativos van adquiriendo preponderancia. Nuestra vida emocional se va haciendo más y más semántica. Dejamos de ser tragones y nos convertimos en gourmets. Una prueba es la sentimentalización de la sexualidad. El impulso a la unión genérica cualquier macho con cualquier hembra se integra en un movimiento de dirección contraria, extremadamente personalizador: este macho o esta hembra. El instinto, transfigurado por la inteligencia, se convierte en sentimiento. (2005, 21)

Herbert Marcusek Eros eta Tanatosenen arteko harreman freudiarra laburbildu zuen *Eros y civilización* izeneko liburuan. Bertan dio gizakiak sorkuntzara, kulturara, bideratu izan dituela instintu sexuala; baina, aldi berean, bere baitan duela suntsitzeko instintua ere. Gizakiak, gizartea eratu nahi badu, instintuei uko egin eta haiek kontrolatzeko mekanismoak arautu beharko ditu. Norbanako erreprimituak eta errepresoreak behar ditu, beraz, gizarteak eta hain justu errepresio hori bera izango da, ordea, zenbaitetan gatazka berrien eztaandagai (1983, 11-12). Marcusek bestelako mundu ikuskera bat defendatzen du zeinetan mundua ez den menderatua izango, askatua baino. Erosen korapilo erreprimituak askatuta, libreki adierazi ahalko da Erosa eta mundua ordenez, edertasunez eta bakez beteko litzateke (1983, 155).

3.4.5 Natura

Natura ere aztergai izan da gai gisa. Hain zuzen ere, Frenzelen lan-taldeak landu zuen gaietako bat izan zen eta azterketaren bidez ohartu ziren poema haietan motiboen egiturak ezberdinak zirela narrazioekiko:

Los motivos de la experiencia subjetiva y los de las imágenes objetivas van parejos y se combinan, las uniones motílicas se aproximan con arreglo a su grado de complejidad a la estructura que posee la “imagen” poética, frente a cuya microestructura han de ser delimitadas. Los trabajos presentados también han tratado de clasificar el poema analizado dentro de la historia de la poesía de la naturaleza de la literatura nacional correspondiente, dejando traslucir un gran abanico de evoluciones diferentes aunque comparables. (Frenzel, 2003, 49)

Humanidades ambientales liburua ingurumenaren eta artearen arteko loturez mintzo da. Filippo Tommaso Marinetti poetak *Le Figaron* argitaratutako ‘Manifestu Futurista’k teknologia, industrializazioa eta gerrak gozesten zituen XX. mende hasieran. Mende erdi bat beranduago, justu kontrako baloreek hartu zuten indar. Gizakiak naturarekiko duen ustiaketa ohitura ezbaian jarri zuen kontrakulturak. Natura gizakiaren zerbitzura dagoen izate gisa hauteman beharrean harekin kooperatzea proposatu zuen kontrakulturak eta gizakia ere naturala dela aldarrikatu zuen (López eta López, 1991, 144). Fisikoki ere, naturarekiko

harremana eten egin zen zenbait biztanleren bizitzan eta kontrakulturak harekiko harremana berreskuratzea proposatzen zuen. Portales eta Pitatok (1978) *Ozono* aldizkariko aipuetan diote norbere gorputza ere ahaztuxea zegoela. Bizimodu sedentarioaren eta mugimendu mekanikoen ondorioz zenbait gorputz lurperatutako altxor bilakatu zirela zioten; eta gizakiak, hitzaren ahalmenak itsuturik, bere gorputza mespretxuzko objektutzat hartzen zutela (López eta López, 1991, 126-128).

Carmen Marínek 'Acerca de las vinculaciones del arte a la ecología' kapituluan Leteren garaian kontrakulturak izan zuen funtzio bertsuak deskribatzen ditu gaur egungo testuinguruan ere:

Urge cambiar el actual modelo hegemónico de sociedad: los cambios han de ser grandes tanto en el plano económico como en el tecnocientífico pero, sobre todo, en el plano ético y político, precisamente en el que el arte debe desempeñar su papel [...] Las políticas a las que aspiramos están requiriendo de los artistas imágenes que ilustren no solo los escenarios posibles en la transición, sino especialmente los escenarios deseables y los cauces para alcanzarlos. (Ruiz, 2018, 106)

Gizakiak natura poetikoki abitatzearen ideia indartsua zen Leteren aberriaren osaketan (Gurrutxaga, 2020a). Hölderlinen eta Nietzscheren pentsamenduak aztertu zituen Pablo Oyarzunek. Bere arabera, Hölderlinentzat natura infinitua eta jarraitua da; eta artea, finitua:

El arte, en este sentido, es una oposición interna a la naturaleza misma, en la cual ésta se refleja, pero sin que ningún reflejo pueda ser fijado de una vez por todas: arte y naturaleza están gobernados en su relación por la eternidad de la única ley natural, que constantemente se transgrede a sí misma: la ley del Wechseln und Werden, del "cambio y devenir", que es el habla de los dioses (...), y que en el espacio moderno ya solo rige como silencio. Pero al reinscribir el arte en la naturaleza, como diferencia interna suya, se abre la posibilidad para reinscribir la naturaleza en el arte: es lo que hará Nietzsche con su noción de lo apolíneo y lo dionisiaco como "poderes" brotados de la propia naturaleza, "impulsos artísticos de la naturaleza" que el arte mismo está llamado a configurar. (Oyarzun, 147-148)

Leteren gauzak izendatzeko joera bat dator Francis Baconen pentsamenduarekin gizakiari naturaren interpretazioa egitea dagokiola dionean. Horrez gain, gizakiari naturaren transformazio lana dagokiola aldarrikatu zuen Baconek (Manzo, 2004, 333). Natura imitatzea, zuzentzea, edo askatzea ez zela aski zion, gizakiak natura transmutatu eta muturrera eraman behar zuela uste zuen:

En la reforma baconiana el objetivo del poder humano no está reducido al orden del mundo presente. El ministro de la naturaleza, a través del reflejo de la realidad, tiene por objetivo producir "nuevas creaciones" que pueden ser transgresoras del curso ordinario de la naturaleza pero al mismo tiempo son imitaciones de ella. Esta paradójica circunstancia se ve reflejada en una de las más logradas expresiones de Bacon: "a la naturaleza no se la domina sino obedeciéndola". (Manzo, 2004, 332-333)

Liparren garrantziaz dihardu Gaston Bachelardek *L'intuición de l'Instant* liburuan. Autorearentzat elkarrekiko independenteak diren liparrez osatzen dira denbora eta, horrenbestez, errealitatea. Bachelard, horrela, Bergsonen pentsamenduari kontrajartzen zaio zeinarentzat unea iraunkortasunean egindako ebakuntza artifiziala litzatekeen. Bachelardentzat errealitate bakarra une zehatzetan dago, eta iraunkortasuna une horien pilaketaren ondorioz sortzen den *constructo*a da. Norbanakoak ez du, beraz, bere burua erabat ezagutzen; bere iraganeko hainbat unereren araberako irudia eraikitzen du. Ikuspuntu honek eredu psikoanalitikoek baino botere handiagoa aitortzen dio irudimenarenari:

La función de irrealización que caracteriza a la imaginación es la función creadora de imágenes, imágenes que superan lo meramente real; de modo que la creación de imágenes, poéticas o plásticas, es un acto espontáneo que funda la posibilidad misma del arte; pero, como acto creador es un acto discontinuo que, según Bachelard, no tiene antecedente, es nuevo y su arraigo en la conciencia no significa una relación de tipo causal, tal como lo vería el psicoanálisis, sino es acto instaurador de una realidad inédita. No se alcanza la naturaleza de la imagen artística reduciéndola a los impulsos inconscientes, tal cosa sería —señala irónicamente Bachelard— explicar "la flor por el abono". (Castillo, 1994, 109-110)

3.4.6 Tematizatzearen balioaz

Azterketa tematikoek korpus handien alderaketa ahalbidetzen dute. Tesi honek Leteren kantak soilik aztertzen ditu, baina beste autoreen lanak hartu eta aztertuz gero alderaketa interesgarritarako bidea zabalduko litzateke. Ez Dok Amairuko gainontzeko kantarien letren azterketarekin konparatu daitezke artisten arteko estiloak bereizteko; edo gaur eguneko bakarlariekin, gaien lanketa ezberdina den ikusteko.

Tematizatzea irakurlearen lana da. Irakurlea obratik independentea da eta bere garaiko eta testuinguruaren arabera burutzen du lan hau, modu subjektiboan. Autorea eta interpretea denboran, espazioan eta ideologian zenbat eta bananduago kokatu, interpretaziotarako marjina ere handitu egingo da:

El tema no se inscribe de forma objetiva en el texto, sino que más bien se trata de una categoría macrotectual, de manera que la determinación temática unívoca del texto intimida al intérprete. Claude Brémond admite que la libertad interpretativa del lector tiene unos límites establecidos cuando éste no es capaz de ignorar totalmente las letras del texto, es decir, su autotematización. No obstante, teme que el lector, de acuerdo a sus intenciones personales, vaya a enderezar los vacíos y dobles sentidos del texto, tan pronto como no se produzca una autotematización. Para Cesare Segre faltan las evidencias para probar tal conciencia interpretativa del lector: sólo aquellos lectores matan a un texto que cierran los oídos a su voz, para así escuchar únicamente la voz de su propia fantasía. Brémond no hace comentarios sobre cómo se constituye una autotematización y en dónde se puede encontrar. (Frenzel, 2003, 43)

Interes estetikoek, logikoek, estadistikoek, genealogikoek, psikoanalitikoek, estrukturalistek, nazionalistek edo biografikoek zeharkatu dezakete gaia zehazteko prozesua. Beraz, aditu batek poema bat ikuspegi batetik aztertzen badu, kategoria horretakoa izango da. Hori dela-eta, Leteren kantak ikuspegi bat baino gehiagotatik aztertuko dira. Maitasun abestiak izango dira azteraldi batean, eta heriotzari buruzko gogoeta beste batean. Poema bera, beraz, bi poema (edo gehiago) balira bezala begiratuko dira. Begirada mailu edo bihurkin izan, poemak iltze edo torlojo hautemango dira.

Kontrakulturaren eragina dute Leteren abestiek eta hautatutako gai nagusiak (maitasuna, heriotza, natura eta nortasuna) zeharkatu zituen mugimenduak alde edo molde; horregatik, Lópezen *La contracultura en España en la segunda mitad de la década de los 70* (1999) erreferentziatzko bihurtu da. Liburuaren bigarren zatiak 70eko hamarkadako kontrakulturaren ezaugarrien deskribapena egiten du eta Letek kontrakulturaren zein ezaugarri egin zituen bere eta zeinekin ez zen lerratu azalduko da laugarren kapituluko azterketan.

Autore baten obran motibo batek duen nagusitasuna frogatzeko beharrezkoa da autore horren bizitzaren (azterketa sinkronikoaren) eta bere eredu eta iturrien (azterketa diakronikoaren) arteko oreka (Frenzel, 2003, 36). Tesia osatu duen ikertzailearen eta ikertua izan den testuaren artean dagoen denbora tarteak ere nolabaiteko eragina izan dezake ikerlanean.

3.5 Bertsolaritza

Eskutik helduta joan ziren Lete eta bertsolaritza. Tesi honen 5. kapituluan sakonki aztertuko da harreman hori. Bere testuek ahozkotasunarekin duten harremana aztertzeko Garziatarren urratsak jarraituko dira: Juan Garziaren *Txirritaren baratzea* liburua (1997) bereziki lagungarri izan da Txirritaren eta Leteren estiloa erkatzeko; eta bertsolaritzaren (eta kantagintzaren) ikuspegi komunikatiboa aintzat hartzeko ezinbestekoa da Joxerra Garziaren, Juanen anaiaren, ikerketen arrastoa. Juan Mari Lekuonaren gidalerroak ere giltzarri izan dira azterketa egiteko. Ahozkotasunaren aterkipean babes hartzen duen diziplina da bertsogintzarena. Ahozkotasunean garrantzia handia du memorian iltzatzeko moduko aleak sortzeak eta horretarako egiturazko eta hunkidurazko estrategiak erabiltzen dira.

3.5.1 Errima, neurria eta doinua

Alde batetik bertsogintzaren alde formalari erreparatu zaio. Leteren kanten errimak aztertu dira espresuki eta bertsolaritzan erabiltzen diren irizpideen arabera sailkatu dira. Horretarako, Txapelketa Nagusiko epai irizpideak berrikusi eta izendapen taula berri bat proposatu da. Neurrien izendapenerako eta doinuen kontsultarako gune gisa, berriz, Bertsolaritzaren Datu Basea erabili da.

3.5.2 ‘Txirritaren baratzea’

Juan Garziak Txirritaren bertso sortak aztertu zituen bertsogintzako marken bila eta horrenbestez haren estiloa hautemateko marka zerrenda bat proposatu zuen. Honakoak dira, haren ustez, Txirritaren bertsokeraren ezaugarri nagusiak:

- Zehaztasuna eta grafikotasuna
- Enfasiak, pilaketak, superlatiboak
- Hitzak hitzez hitz hartzearen posibilitate espresiboak
- Bikoiztasuna eta kontrastea
- Metaforak, irudiak, konparazioak
- Komodinak, klixeak, formulak, plantilak....

- Errima arrazoi
- Anbiguitearen jokia

Juan Garziak Txirritaren bertso sortak arakatu zituen marka horiek identifikatzeko eta 1997ko *Txirritaren baratzea* liburuan argitaratu zituen. Hurrengo paragrafoetan ezaugarri hauek xeheago azalduko dira, batez ere, Leteren letrak aztertzeke interesgarritzat jotzen direnak.

Grafikotasuna, enfasia eta pilaketa

Zehaztasuna eta grafikotasuna: bertsoek gehiago dute zehatzetik abstraktutik baino. Juan Garziak *Norteko ferrokarrilari* jarritako bertsoetatik “laroiei urteko amona, / frantses euskaldun buru-zuri bat, Bentaberriko moñoña”. Adibidean ikusi litekeen bezala, Txirritak zehaztasunaz gain errepika bidezko enfatizatzea ere bilatzen zuen. Estilo zuzeneko elkarrizketak ere ageri dira, akotazio moduan: “Alabai amai esaten zion: / “au ezin al du ikusi?”. Juan Garziak “belarrietarako komikiak idaztearekin” parekatzen du ezaugarri hau (1997, 24).

Enfasiak, pilaketak, superlatiboak: Enfasia emateko hizkuntzak duen modurik sinpleena superlatiboa erabiltzea da eta Txirritak erabiltzen du egitura hori, jakina. Gehien erabiltzen duen eskema “ezin” + partitiboa +“liteke” da: adibidez, “gizonik ezin hasi liteke / zaldi obiaren billa”. Bereizgarriagoa delako, ikusgarriagoa da pilaketa, ordea. Txirritaren bertsoetan hiru elementuko enfasia nagusitzen da. “Maite zaituztet presidentiak, ministro, diputaduak” eta “tunel, zubi ta erriyo” dioten bertsoak erabiltzen ditu Juan Garziak hori ilustratzeko (35-38 or.). Ez da kasualitatea pilaketa horietan hiru elementu aipatzea. Kortazarrek ere aipatzen du oralitatearen baliabiderik garrantzitsuenetako bat hirukoiztasunaren formula dela, bai ekintzei dagokienez eta baita pertsonaiei, esaldiei eta objektuei dagoekienez ere (Kortazar, 2000, 18). Pilaketa hori batzuetan “eta” lokailuan erredundatuz egiten du (polisindetona) edo bestetan hura ezabatuz (asindetona). Enfasi hirukoitza darabil “preziso al da beti kalderan / kiskaltzen egon biarra?” bezalako esaldietan ere. Txirritak enfasi negatiboa ere erabiltzen du maiz. Inork “ez dago eguraldi txarra” esaten badu, entzuten duenak ulertu beharko luke ez dela literala; eguraldia bereziki dela ona, alegia. Juan Garziak dio efektu hau ironiarekin senidetuta dagoela eta zenbaitetan gauza bat edo aurkakoa esan nahi duen interpretatzen asmatu behar dela (1997, 34). Juan Garziak ez du

aipatzen, baina mereziko luke aipatu gabe ez uztea izenondoekin errimatzeo teknika inkontzientearen ondorio izan litekeela. Hitzen kategoria gramatikaren arabera errazagoa edo zailagoa da errima gisa erabiltzea. Aditzondoak dira erabilgarrien bertsolarientzat, karga semantiko gutxiko hitzak izanik ez baitute asko mugatzen puntua. Izenondoek, ordea, -tasunen bat gehitzen diote izen bati eta horrenbestez zehatzak dira oso. hala izanik, haietako batekin errimatu nahi duen bertsolariak bi aukera ditu: izenondo soil edo ezezko moduan erabili.

Alderaketak

Hitzak hitzez hitz hartzearen posibilitate adierazkorrari erreparatzen dio Juan Garziak kapitulu batean eta Txirritaren “akabo haien jornal bidia / trena etorri zenian” jartzen du adibide gisa, “etorri” hitzaren mugimendu eta sorrera adierak bilduz. Kafkak *Metamorfosian* protagonista xomorro bihurtuta ere gauza bera egin zuela gehitzen du (1997, 42). Esanahi literalarekin eta figuratuaren arteko jolasa du giltzarri efektu honek.

Bikoiztasuna eta kontrastea: ikertzaileak seinalatzen du puntu batekin zerbait adierazi eta hurrengoarekin hari erantzuten diola Txirritak. Txikiko metrikatan hala izan ohi dela dio, eta handikoetan batzuetan puntu bakarraren barruan gertatzen dela hori: “garai batez majuak / bazituen sobran / orain zeinek nahi duen / hemen dabil obran” (1997, 48). Kontraste hori areagotu egiten du Txirritak lokailuak (baina, berriz,) isilduta edo denborazko saltoekin indartzen du: “orain ur hotzak dabilki trena lehen irakinak bezela”. Askotan elementu kontrajarriak aukeratzen ditu Txirritak eta puntu berean kontrajartzen “buruko zimak falta ditu ta bizarra dauka ugari” “indar aundiyan dijuala're geldituttzen da kolpetik”. Batzuetan Txirritak erritmoagatik beragatik egiten ditu ebaki hauek, ez baitu kontrastea helburu, erreduantzia baizik: “pruebak neronek ikusi ditut ez dut auzotik jakina”. Kontrastearen hurrengo eskilara oposaketa bikoitzarena litzateke: “aundi gaxtuak nahi duen arte / txiki onaren biziya” (50-52 or). Deskontrastea ere aipatzen du: “aitak biyotza gogorra zuen, orri ez zaio bigundu” (55 or.). Bikoitz indartuak ere topatu daitezke: “bera jetxi, gora iyo”

Zortziko txikian eta handian hirugarren puntuak duen garrantziaz idazten du Juan Garziak (1997, 47. or.), azken puntuak bertsoa atzera hasierakora itzultzen duela esaten du.

Irudiak

Metaforak, irudiak, konparazioak: Txirritak bere garaian literaturan egiten ez ziren metaforak sortzeko grazia izan zuela dio irundarrak (Garzia, 1997, 60-61) eta metaforak osatzeaz gain haien hedapenak egiten asmatu zuela. Norteko ferrokarrilaren bertsoetan trena eta zaldiaren arteko alderaketa egiten du eta handik makinari “ perra berriak” jartzearen ideia ateratzen du eta baita “zaldi hobiaren billa” nekez hasiko dela inor. Metaforaren hedapenaren adibide jartzen du “aingeru orrek izan bihar du / iturri asko nahastua / eta tragorik gozoez hura / non edan zuen ahaztua”. Metaforetan eta irudi-konparazioetan fosilduak, ohikoak, arruntak, errepertoriozkoak eta orijinalak egon litezkeela dio. Atzera begirako ikerlanetan, ahozkotasunezko piezatan, zaila da kategorizazio hori egiten garaikide izan ez den baten begiradatik. Txirritak, ordea, ez zuen konparaziorik erabiltzen normalean, errimatzeke ez bazen. Zenbaitetan metafora ironikoa erabiltzen du hernaniarrak: “aingeru horrek” “nere palaziyuan”.

Oinak eta oinarriak

Komodinak, klixek, formulak, plantilak: Txirritaren bertsoetan errimatzeagatik edo neurtzeagatik behartuta sartutako hitzak eta betelanezkoak seinatzeko tartetxo bat hartzen du Juan Garziak. Bat-batean ohikoak dira oso halakoak, baina idatzizkoetan ere maiz topa daitezke.

Askotan zeharkatutako zelaiari ibiltarien arrastoa sortzen zaio, eta belarrik hazi ez den bidetik abiatzen da bidaria gero, bide traketsagoa izango bada ere, erosotasuna bidaide. Hala, zenbait formula idazteko txantilo bihurtzen dira. Txirritaren “partean, artean, aparteant” edo “bertsoak, besoak, gurasoak, gaixoak, erosoak” errima sortez osatutako bertsoak gogorarazten ditu (1997, 73-75).

Enfasietatik hiperboletara: Hiperbole asko erabiltzen zituen Txirritak “merezki luke diamantezko estatua bat jartzia” edo “Donostiatik sumatzen ziran aien ukabilkazuak” baina sinesgarriaren mugan ere bai batzuetan “lehengo segunda bezain ederra dugu oraingo tertzera”

Errima arrazoi: Egileak azaltzen du bertsoetan errimak beti markatzen duela enfasi leku bat (Garzia, 1997, 86). Zenbait oinek bertsolariek esan nahi dutena esatea ahalbidetzen dute karga lexiko gutxi dutelako edo sortzaileak esaldiaren amaieran kokatzen asmatu duelako. Bestetan, ordea, oin hori da bertsolariaren apustu nagusia. Horrelakoak, errima arrazoi bezala identifikatzen ditu Juan Garziak. “Lengo segunda bezain ederra dugu oraingo terzera” jartzen du horren adibidetzat. Oin horren indarretako bat elebitasunarena da. Efektu hori are nabarmenagoa da lerro osoa hitz bakarrarekin osatzen denean edo beste hizkuntza batetik mailegatutakoa denean. Anjel Mari Peñagarikanok, adibidez, bat-batean asko erabiltzen duen teknika da. Hona, umorezko adibide bat, ingelesetik ekarritako hitz baten bidez eskuinean iltzatua:

Jon Maia ezagutzen dut
ez da nire maizter
ta bere abentura
esango dut laister:
erakutsiaz bere
beso eta izter
harro esaten zuen
nahiz ta egon oker
"Nik izan beharko nuke
Euskadiko mister". (Peñagarikano, 2003)

Joskera eta loturak

Joskera, hizkuntz ekonomia, elipsia: Txirritaren meriturik nagusienetako bat “gauzak hizketan bezalaxe edo natural esatea” dela dio Juan Garziak (1997, 99) –naturaltasun hori zenbateraino ote den euskaldun guztiena eta zenbateraino gipuzkoarra ere zalantzan jartzen badu ere–. Esaldien arteko lotura gramatikalen urritasuna ere bertso molde klasikoaren ezaugarritzat jotzen du. Bertsolariak, neurri-errimek hala behartuta, elipsiak egitearen baliabidea edergarri eta estilo bereizgarri bihurtu zuen. Elipsi sintaktikoa eta semantikoa uztartzen zituen Txirritak deskribapenatarako estilizazio inpresionista eta narrazioetarako estilizazio espresionista sortzeraino.

Bestalde, solaskide-ikuspuntu aldaketa azkarrak aipatzen ditu ahozkotasanaren marka moduan. Txirritaren bertso bat jartzen du baieztapenaren ilustragarri:

Ezkonberriak, etorri onuntz
gure aixkire prestuak
zuek exian noi z ikusiko
aurrak an daude poztuak;
“Ama guretzat zer ekarri du?”
luzaturikan eskuak;
“Ara aizezko pelotak eta
karamelozko txistuak”. (Garzia, 1997, 102-103)

Etenak eta loturak: Bertsoaren unitate sintaktiko oinarritzkoa puntua dela seinalatzen du Juan Garziak eta neurri baten barruan sartu beharrak bertsolaria hiperbatonak egitera behartzen duela gogorarazten du (1997, 113or.). Txirritaren bertsoetan ez da ohikoa bi puntu edo gehiagotan banatutako esaldirik topatzea. Esaldiak puntuka banaturik egon ohi dira eta “baina”rik topatzekotan puntu barruan topatu ohi da. Puntu batek eta hurrengoan, ordea, funtzionatu dezakete elkarrekiko kontrastean, juntagailuen ezabaketa bistaratuz (antifrasia).

3.5.3 Komunikazio ekintza

Poesia komunikazio ekintza bat da. Poema ia guztiak ahoz irakurtzeko modukoak izaten dira. López-Casanovak egoera komunikatibo irudikatu horretan hiru jarrera edo figura pragmatiko daudela dio: enuntziazioa, apostrofea eta abesti lengoia. Enuntziazioan ahots poetikotik apartekoa da errealitatea; apostrofean igorlea hartzaile lirikoa esplizitatu egiten da; eta abesti lengoian ahots lirikoaren eta poetaren arteko identifikazio handia egon ohi da, askotan lehen pertsona gailentzen zaiolarik (Cabo eta Cebreiro, 2006, 286-288).

Bertsolaritza nekez ulertu daiteke igorlearen eta hartzailearen arteko harremanik gabe. Norbere buruarentzat kantatzea, entzulerik gabe, jolas erakargarria izan daiteke maiz aritu denarentzat; baina ez da bertsogintzaren dimentsiorik ohikoena, ezta interesgarriena ere.

Joxerra Garziak frogatutzat ematen du bertsolaritza gozamen iturri dela eta, esperientzia propiotik haratago, SIADECOREkin kolaboratuz egindako ikerketa soziologikoaren bidez bermatzen du baieztapena. Horrez gain, entzuleriaren eta sortzailearen arteko batasuna kultur ekoizpenaren parte direla defendatzen du, Xavier Rubert de Ventos-en lana aipatuz:

El efecto y significado no es algo añadido o adherente a los productos sino que es inherente a los mismos: no forma parte de su estilización retórica sino de su misma producción poética. De ahí que prescindir de la respuesta personal que tales productos suscitan suponga el olvido de lo que más propio tienen de su misma esencia. De ahí también que, para entenderlos, haya que empezar por responder generosamente a sus estímulos y tomar esa respuesta misma como nuestro objeto de estudio: atender a los fenómenos sociales en la medida en que no sólo aparecen en formaciones políticas e institucionales (Iglesia, Derecho, aparatos ideológicos, et.) sino que se manifiestan en la psicología de los individuos: en sus más íntimas reacciones y apreciaciones. (Rubert de Ventos, 1988, 33 In Garzia, 1998, 430)

Joxerra Garziak erretorikaren genero epidiptikoan kokatu zuen bertsolaritza, hau da, entzuleriaren onarpena bilatzen saiatzen den atalean. Sailkapen honetako berbaldien helburua entretenitzea, informatzea, hunkitzea eta pertsuaditzea izan ohi da (Garzia, 2006, 132-133). Honela azaltzen du Perelmanek *Tratado de la argumentación* liburuan.

El objetivo de toda argumentación —hemos dicho— es provocar o acrecentar la adhesión a las tesis presentadas para su asentimiento: una argumentación eficaz es la que consigue aumentar esta intensidad de adhesión de manera que desencadene en los oyentes la acción prevista (acción positiva o abstención), o, al menos, que cree, en ellos, una predisposición, que se manifestará en el momento oportuno.

La elocuencia práctica, que implicaba los géneros judicial y deliberativos, constituía el campo predilecto en el que se enfrentaban pleiteantes y hombres políticos que defendían, argumentándolas, tesis opuestas y, a veces incluso, contradictorias. En tales torneos oratorios, los adversarios trataban de ganarse la adhesión del auditorio sobre temas controvertidos, en los que el pro y el contra encontraban a menudo defensores igual de hábiles y, en apariencia, igual de honorables. (1989, 91)

Erretorikaren diskurtsoa zokoratuta egon zen hainbat urtez baina indarra berreskuratu du azken urtetan:

Para Aristóteles, el orador se propone alcanzar, según el tipo de discurso, objetivos diferentes: en lo deliberativo, aconsejar lo útil, es decir, lo mejor; en lo judicial, defender lo justo, y en el epidíctico, que versa sobre el elogio y la censura, ocuparse sólo de lo que es bello o feo. Se trata, pues, de reconocer unos valores. Sin embargo, al faltar la noción de juicio de valor y la de intensidad de adhesión, los teóricos del discurso, siguiendo a Aristóteles, mezclan incontinentemente la idea de bello, objeto del discurso, equivalente, por otra parte, a la de bueno, con la idea del valor estético del propio discurso. Por eso, el género epidíctico parecía depender más de la literatura que de la argumentación. Así es como la distinción de los géneros ha contribuido a la disgregación ulterior de la retórica, pues la filosofía y la dialéctica han anexionado los dos primeros géneros, y la prosa literaria ha englobado el tercero (Perelman, 1989, 96)

Erretorikako Inventio, Dispositio, Elocutio, Memoria eta Actio-n jartzen du fokua Joxerra Garziak (2008, 56). Alegia, bertsolariak ideia nagusia pentsatu, bertsoaren neurrian estrategikoki kokatu, ideia esan-indarrez bete, gogoan hartu eta jendeari helarazten dio. Perelmanen esanetan, genero epidiktikoan *Elocutio*-a da gehien garatzen den alorra.

Hark aipatutako bost puntuez gain, bada *Intellectio* izeneko beste puntu bat bertsolaritzan pertinentzia izan dezakeena. Mezua pentsatzen duenak sortu behar duen diskurtsoaren arrazoia aztertzen du eta sortzen ari den mezua osotasuna. Horren arabera izango dira inventio, dispositio, elocutio eta actioa. Honela azaltzen du Albaladejo-k:

El examen de la *intellectio* permite situar esta operación retórica dentro de la serie de las operaciones no constituyentes de discurso -integrada por la memoria y la *actio/ pronuntiatio*-, puesto que se trata de una operación retórica previa a la serie de las operaciones constituyentes de discurso -formada por la *inventio*, la *dispositio* y la *elocutio*- y, por tanto, previa a las operaciones retóricas de su propia serie --especialmente desde el punto de vista teórico-operacional o abstracto, pero también desde la perspectiva temporal concreta de la activación general del conjunto del proceso constructivo-comunicativo retórico que necesariamente supone, aunque consideramos que su actividad se mantiene durante el desarrollo de las respectivas actividades de las otras operaciones retóricas, sean constituyentes de discurso o no constituyentes de discurso-. (Albaladejo, 1994, 340)

Bertsogintza *performance* bat dela aldarrikatzen du Joxerra Garziak eta bat-bateko sorkuntza aztertzeko Bauman-en ahozko artearen ikuspuntua hobesten du Zumthor-en ikuspegi literarioagoaren gainetik. Baumanen arabera, entzuleriak badu bertsolariak egiten duen jardunaren zailtasunaren berri, eta gaitasun hori aitortu ez ezik baloratu ere egiten du.

Genero epidípticoan, berbaldia sortzen duen pertsonarengandik ez da disonantziarik espero, “tokatzen dena” modu elegantean esatea baizik; herriaren ahotsa izatea, beste hitz batzuekin esanda. Kontrakoa egitea sakrilegio moduko bat litzateke:

El que lo epidíptico esté destinado a ensalzar valores sobre los cuales los individuos están de acuerdo explica que se tenga la impresión de cometer un abuso cuando, con motivo de un discurso semejante, alguien adopta una posición en una materia controvertida, orienta su argumentación hacia valores puestos en duda, introduce disonancias en una circunstancia creada para favorecer la comunión (v. g.: durante una ceremonia fúnebre). El mismo abuso existe cuando un educador se hace propagandista (Perelman, 1989,103).

Zailtasuna sorkuntzaren parte da, beraz, eta ez zailtasun teknikoa soilik. Zentsurari aurre egiteko trikimailuak sortzeak edo zuzenean aurre egiteak ere zaildu egiten du jarduera suposatzen duen ingenio edo ausardiagatik.

Bertsogintzan testuinguruak garrantzia handia du. Garziak testu deitzen dio bertsolariak kantatzen duenari eta testuinguru entzuleriak dituen balore eta erreferentzia komunei nola ikuskizuna gertatzen ari den une, gune eta inguruneari. Horregatik, absurdua deritzo testua

soilik baloratzeari. Testuinguru oso kohesionatu batean balore partekatu bat aipatze hutsak sortu dezakeen emozioa ezin da gutxietsi: “sin necesidad de grandes metáforas, hipérboles ni otras figuras, así ocurre que en contextos cerrados, fuertemente cohesionados, muy densos (...) puede producir, en ese ceremonial de autoafirmación, una gran emoción” (Garzia, 1998, 432). Autore berberak (1999, 273) inguru-testu trinkoa eta ezpaldua bereizten ditu. Inguru trinkoetan komunitate izaeraren pertzepzioa sentitzen da, eta balio eta argudioak partekatuak direnez haiek aipatu hutsez emozioa eragiteko aukera dago. Horren ondorioz testuak bigarren mailako garrantzia du eta formuladun hizkera baten aldeko hautua egin dezake sortzaileak. Ereku tipifikatu honetan bertsolaritza sintetiko, ez analitiko-kritikoa sortzen dela dio ikertzaileak. Inguru ezpalduetan, ordea, bertsogintza analitiko, kritikoa gailentzen da eta arrakasta lortzeko bertso luzeagoen aldeko apustua egin dezake bertsolariak hunkidura sortzeko baliabide gehiagori kabida emateko.

Garziak (1998) emozioak sortzeko lau estrategia deskribatzen ditu eta inguru kohesionatuetako balioren baten izendapen hutsa da horietako bat. Beste emozio bat sortarazi dezake gaitasun teknikoen erakustaldi batek. Argumentuan oinarritu gabeko edergarri batek (hiperbolea, hitz jokoa...) ere emozio dekoratibo gisa izendatzen duena sor dezakeela seinalatzen du. Azkenik, emozio poetiko-erretorikoa legoke. Kasu honetan aurreko guztien batuketa moduko bat gertatzen da: edergarria ez da edergarri huts, argumentuaren indargarri baizik, eta gainera testuinguruak haren interpretazioan emozio kolektiboa gehitzen dio. Bakanak izaten dira halako momentuak. Aipatu berri denaren lau adibide bilduko dira jarraian.

Testuinguru partekatuaren garrantziaren adibidetzat jarri ohi da Manuel Olaizola *Uztapidek* 1962ko Txapelketa Nagusian ama gaitzat emanda kantatu zuena:

Hauxe da lan polita
orain neregana
alboko lagunendik
etorri zaidana.
Bertsoak bota behar
dira hiru bana
hortan emango nuke
nik nahitasun dana:
beste ze-esanik ez da
esatian 'ama'. (Uztapide, 1962)

Gaur egungo bertsolariek, teknikoki, garai batekoek baino baliabide gehiago dituzte eta zaila da teknikoki entzulea harrituko duen ariketa batean korapilatzea. 80. hamarkada aurretik neurri luzean jarduteko gai ziren bertsolariak bakanagoak ziren eta entzuleria txunditzeko erabiltzen zuten errima ugariko doinurik. Oraindik ere bederatziko txikia bezala ezagutzen den neurria irristakorra da bertsolari gehientzat eta horregatik mantentzen da Txapelketa Nagusiko finaleko buruz burukoan. Entzuleak amaierako ideia baloratzen du, baina bertsolariaren estutasuna igartzeko ere gai da. Jon Lopategik, bere borondatez, neurri hau erabili zuen berak zaborretara botatako arropak jasotzen ari zen eskale bati hiru bertso kantatzeko. Ezohiko joskera naturalez osatutako bertsoak dira eta horregatik bihurtu ziren historiko:

Erropa zahar hoiekin
etsian nengoen,
beti jantzi ohi naiz
ahal denik ondoen,
akaso bota ditut
behar zen baino lehen,
baina ondorioa
horra hor nabarmen,
triste nago zeren
aitona zahar horren
jokoa gaur zer den
ikusi ondoren
miseria gehiegi
daukagu hemen. (Lopategi, 1986)

Batzuetan aparteko argumentazio baten beharrik ez dago arrakasta komunikatiboa topatzeko. 2005eko Txapelketa Nagusiko finalean umorezko saioa osatu zuten Sustrai Colinak (laneko nagusiaren rolean) eta Unai Iturriagak (langilearenean). Nagusiaren autoan zihoazen eta honek azkar eta bortitz gidatzen zuela-eta, gonbitoka egin zuen langileak. Colinak honakoa erantzun zion:

Jeitsi dizkiot martxa
ta gero soldata
ta hala're hor dabil:
“puta, mierda, kaka”.
Egin zazu botaka
utzi zazu marka
gaur zu zaude botaka
ta bihar botata. (Colina eta Iturriaga, 2005)

Egoeraren deskribapena egin duen hitz bikotearen jolasa aski da, eta asko da.

Oso noizean behin, dena batera alineatzen da eta bertsoaldi historiko bat sortzen da. Azkeneko Txapelketa Nagusian izan zen halako momentu bat, Irunen, Maialen Lujanbioren eskutik. “Dena ondo zihoan argia piztu den arte” izan zuen gaitzat eta honakoa bota zuen bigarren bertsoan:

Estali arte izan dugunak
nahiko irri nahiko broma
ahorik aho pasa dugunak
gin-tonic barruko horma
bular pareta zut neukan eta
zuk eman didazu forma
galtza estuak nebilzkin arren
ez takoi, eta ez gona.
Hau ta hura naiz hartzen ari naiz
zenbait botika, hormona
gizona eta andrea nauzu
ez andrea, ez gizona
nere inon ez egon nahia ote
da zure ezinegona? (Lujanbio, 2017)

Momentu horretara arte pil-pilean ez zegoen gai bat mahai gainean jarri zuen Lujanbiok eta aldi berean argudio eta edergarri den hitz joko batez amaitu zuen bertsoa. Gaitasun teknikoari dagokionez ez da aparteko erakustaldia akaso bertsoaren luzeragatik –Txapelketa Nagusian ohikoa da neurri horretan kantatzea– ez da ohikoa, ordea, kalitatezko edukiaren halako dentsitatea topatzea.

Teorizazio hau eta bertsokera maila hau azken hamarkadatarakoa da, jakina. Kontuan hartu behar da Leteren sorkuntza aro emankorrean bertsolariek zerabiltzaten baliabide erretorikoak bestelakoak zirela. Andoni Egaña bertsolaritza eraldatzeko lehen urratsak ematen hasi zenerako (1993rako) Leteren bertso ezagunenak idatzita zeuden. Lete, beraz,

Amurizaren garaiko bertsolariekin alderatu beharko litzateke bere ekarpena kontuan hartzeko.

3.5.4 Ahozkotasuna

Poema askotan bistakoa da ahozkotasunaren eragina. Gustavo Guerrerok *Teorías de la lírica* izeneko lanean aipatzen du:

El carácter circunstancial del discurso, rasgo que refleja la relación directa del texto con un lugar y un momento precisos, un espacio y un tiempo ritualizados, coordenadas que se encarnan en el evento en que se canta o o que son el evento mismo; de ahí los índices textuales de un discurso situacional que se expresan a través de ciertas figura pronominales y de las marcas del presente, signos que traducen la interacción general entre el sujeto y la enunciación y sus destinatarios. (1998, 20)

Ahozko estiloa sakon aztertu zuen Juan Mari Lekuonak. Leterekin izan zuen harremana kontuan izanik, autore honen ikuspuntua egokia da haren lana aztertzeko. Euskal ondareaz gain, nazioarteko idazle askoren kutsuak ere bereganatu zituen kantariak Lekuona familiarekin zuen harremanaren bitartez. Herri mailako poesiaren gain, oso maila jasoko poesiara ere sarbidea izan zuen haien bidez.

Oronozek, bere tesian, Artzeren ahozko poesiaren eragina aztertzeko Lekuonaren sailkapena berreskuratu zuen (2011, 129-130). Adierazpidearen alde soziokulturalari erreparatuta artista eta entzuleriaren arteko harremana azpimarratzen du: Lehenik eta behin, ahozkotasunaren gordailu funtzioa azpimarratzen du. Tesiko emaitzetan ez du alde hau lantzen, bere esanetan “gizarteak ezin duelako aktiboki olerkien sorreran eragin” (2011, 361). Kapitulu baterako emango luke baieztapen horren errefutazioak. Poeta batek eta kantautore batek publikoarekiko duten harreman ezberdinak beraien obran zenbaterainoko eragina izan dezakeen azterzea interesgarria litzateke; Artzeren eta Leteren obraren alderaketa hori egiteko dago.

Lekuonak azpimarratzen zuenez, artista memoriadun izakia da; egiturak, ereduak eta baliabideak bereganatu ditu eta herriak ondare hori bizirik mantentzeko sentsibilitatea sentitzen duela dio. Bestalde, entzuleriak herri artistaren jardunean eragiten duela gehitzen du (obra aldi berean osatuz edo gozatuz) eta, horrenbestez, ahozkotasunaren emaitza kolektiboa

da, “herri altxorra” (Oronoz, 2011, 129). Sormen prozesua naturaltasunez eta bat-batekotasunez burutzen du artistak; bere funtzioa, beraz, kolektibitatea interpretatzea da. Bere iragazkitik igaro eta putzu zaharretik erreka berria sortzen du. Poetek, funtzio soziala izateaz gain, herri ondaretik jasotako alde estilistikoak bere egiten dituztela aipatzen du Oronozek bere tesian, eta aldaketa txikiekin itzultzen diotela garaiko jendarteari:

Ezaugarriok Lekuonak kantautoreari eskatu behar zaizkion baldintzen definizioarekin bat egiten dute, poeta, musikalaria edota kantariari dagozkien ezaugarriekin. Artzek batez ere prozedura ludiko-koral deituak baliatuko ditu, zehazki erritmoan, soinuen adierazkortasun berezian eta hitzen esanahi bakunean oinarritzen diren dekorazio olerkiak. Herri poesiarako hoskidetasun jolas hauek poesia fonetikoaren esperimenez gertu leudeke finean, olerkariak guztiak nahasian eta lotuta erabiliko ditu. (Oronoz, 2011, 132)

Jon Kortazarrek, Parryren eta Jon Juaristiren ikerketak aipatuz, esaten du ahozketasunean garrantzitsua dela egitura irekiaren kontzeptua. Berbaldiak errepikatzen diren aldiro birsortu egiten direla defendatzen dute eta, beraz, tradizioko testuak etengabe eraldatzen direla (2000, 18-19).

Baliabide erretorikoak

Bat-bateko bertso sortzaileek entzulearengan emozioen bat eragiteko erabiltzen dituzten baliabide poetiko-erretorikoen errepasoa egin eta hura ahozko komunikazioa hobetzeko gako didaktikoak proposatu zituen Joxerra Garziak bere tesian (1999, 234). Horretarako, zenbait bertsoaldi hautatu eta haien arrakasta komunikatiboa zertan datzan azaltzen du. Errepikapenari, adibidez, garrantzia handia aitortzen dio. Ahoz sortutako piezatan ohikoak dira hitzen eta formula zehatzen errepikapena, onomatopeia eta estilizazioa. Lekuonaren ustez, memoria eta bat-batekotasunak ez diote lekurik uzten, egitura zail eta konplexuei. Garziak, berriz, ahozko baliabideen konplexutasuna seinatzeko ahalegina egiten du. Lekuonak adierazpidearen alde literarioei ere erreparatzen die: “Irudi eta ideiak erritmo azkarrean mugitzen dira artistaren buruan elisio ugariren bidez, prozedura erretorikoak erabili gabe, logika eta denbora ordenua errespetatu gabe eta irudien artean itxurazko lotura logikorik izan gabe” (Oronoz, 2011, 131).

Lekuonak dio ahozko testua irekia dela eta beharrezkoa dela aldaketak pairatzea iraupenerako. Garaian garaiko ezaugarrietara egokitzen dela, zatiak galdu edo zehaztu

ditzakeela (Oronoz, 2011, 132). Igorlearen baitan dago aldaketa hori, beraz bere ezaugarri geografikoak eta memoria ahalmenak iraupenerako aberasgarri edo kaltegarri izan daitezke.

Erdi-ahozkotasuna eta testu trantsizionalak

J. M. Lekuonak erdi-ahozkotasuna deitzen zion idatzizko lengoian idatzitako, baina ahozkoak bailiran gozatzekoak diren testuei. Bertso-paper askok jarraitzen duten estiloa da hori. Gaur egun badira bertsoen arauak estuki jarraitu arren poesia kontsidera daitezkeen bertso-paperak, baina Xalbadorren aurreko bertsolarien artean halako gutxi topatuko dira. Bertsoan egon daiteke poesia, jakina. Kontua da zein gailentzen den bietan.

J. M. Lekuonak adierazi zuen ahozko estiloak memoria kolektiboari esker irauten duela; gainera, askotan idatzizko estiloari kontrajartzen zaio ahozkoa, bere esanetan. Ahozkotasuna literatura idatziaren aurreko lege soziokulturalei atxikita dagoela dio (1998, 211-212). Definizio honek ez du autore anonimoen memoriaren berreskuperapena ardatz, sortzailearen idazkera estiloa baizik. Ahozko estiloko testuetan lehentasuna da lehen kolpean ulertzeko moduko diskurtsoa izatea, komunikazioa aurrezartzea bilatzen du estiloak eta kontakizunak aldaketa bat-batekoak izatea edo nahiko erraz konpon daitezkeen akatsak aurkitzea ohikoa da. Modu oso planeatu, egituratu eta enkripatuei kontrajartzen zaie, beraz, ahozko estiloa.

Idatzitako testuak eman nahi den mezua aurrez pentsatzea dakar eta haren arabera informazioa hautatzea. Idazten duenak, beraren eta idatzi duenaren arteko distantzia handitzen du, eta testuinguruari dagokion informazioa esplizitatu beharko du mezua ahalik eta zalantza gutxienekin ulertua izan dadin. Ahozkotasunean, ordea, ohikoagoa da igorleak eta hartzaileak espazioa eta denbora konpartitzea eta horrek diskurtsoa batera eraikitzeak aukera ematen du. Biak present egonik esanahiak eta gakoak bistakoak dira bientzat eta ez dira zertan mezuan esplizitatu. (Bigas eta Correig, 120). Poeta alfabetatuek ahozko estiloa simulatuz idatzitako poemei testu trantsizional deitzen die Sarali Gintsburgek (2017, 478). Estilo hori imitatzeak, idatziz onargarri ez litzaizkieken zenbait marka baimentzen dizkiete beraien buruei.

Gandarak, emozioak sortzea helburu nagusi dutenez bertsoak eta abestiak multzo berean jartzen ditu; 50eko hamarkadatik aurrera herriaren premiari atxikitzen zitzaizkion (2018, 689):

Pertzepzio emozionala ardatz funtsezkoa izan zen euskal kulturaren, haren atzematearen eta egokitzapen modernoaren balioztatze prozesuan. Emozioak euskal mundua atzemateko irizpide nagusi izateak corpus eragile beraren baitan biltzen ditu bertsolaritza bat-batekoa eta kanta, adibidez. Abestiek eragin dezaketen atzemate emozionala lotua dateke momentuari, testuari, erritmoari, (...) memoria bidezko transmisioa ahozkoari lotua izateak eta bertsolaritzaren helburua emozioak sortzea izateak espresuki jardun eraginkorra bihurtu zuela bertsolaritza, zentsuraren kontrako erresistentziarako tresna gisa. (Gandara, 2018, 689)

3.5.5 Formulak

Milman Parryk (1930, 77) zehaztu zuen formula bat baldintza metriko jakin batzuetan funtsezko ideiak adierazteko hitz talde bera maiz erabiltzea dela. Bertsolarientzat ezinbestekoak dira formulak. Bertsolarien prestaketaren zati handi bat korpus propio eta pertsonal baten pilaketa da; ondoren, horretatik abiatuta, sortzeko. Garai batean memoriaz ikasitako bertsopaperek osatzen zuten korpusaren zati handiena. Gaur egun, bertso-eskolatan bertsoaldi hautatuak kantatu ohi dira eta gozamenerako ez ezik doinuak ikasteko, errimak barneratzeko, eta estrategia onak identifikatzeko ere balio dute. Azken batean, sortzen hasi aurreko korpusa –inoiz almazena deitu izan zaio– loditzeko balio dute. Bertso-eskola bakoitzak lanketarako erabiltzen duen bertsoaldi aukeraketak, beraz, partaideen estiloan eragin dezake korpus bertsutik abiatzen baitira haien formulazioak.

Oso bertsozalea den nukleoak korpus oso zabala bereganatu du urteen poderioz eta bertsoaldi onenek kontsentsu moduko bat lortzen dute –txapelketako bertsoen antologia eta urte bakoitzeko bertsoaldi onenen hautaketa den *Bapatean* liburua kanonizatzaile dira–, eta bertsozaleak, bat-bateko sorkuntzaren testigu denean, korpus guzti hori buruan entzuten du.

Bertsoak eta ahozko poemak entzuten dituenean publikoak datorren zatia asmatzeko jolasean parte hartzen du. Foleyk harriduraz behatu zuen fenomeno hori bertsolaritzan, 2005eko Txapelketa Nagusiko finalean:

La interacción entre performer y audiencia es sorprendente. Al ser tan fino el patrón de rima y ritmo, hay veces en las que el horizonte se ilumina, ya que los oyentes pueden adivinar las últimas líneas de un verso que nunca antes se había cantado; esto es un gran ejemplo de la gran comunión que hay entre público y bertsolari. (2007, 05)

Publikoari sormenaren parte dela sentiaraztea komunikatzeko teknika garrantzitsua da. Linda Whitek honakoa dio:

In bertsolaritza we cannot explain the phenomenon in terms of multiformity, where entire lines can be substituted by others in the retelling of an old tale. The tales are contemporary, dealing with modern topics which are assigned moments prior to the performance, and the repetition of lines, indeed, of words, would be judged a fault in Basque bertsok. (2005, 248)

Entzuleak ere bertsoa eraikitzen du, beraz. Batetik, entzun duenaren kalitatea neurtzen du eta, bertsolariari eta gainontzeko audientziari *feedbacka* helarazten dio txaloen bitartez. Bertsolariak pentsatzeko dituen tarteak baliatu ditzake entzuleak haren lekuan balego esango lukeena pentsatzeko eta bertsoa osatu ahala segidan datozkeen hitzak asmatzeko gai dira trebatuenak.

3.6 Erreferentziak

- Agirre, J; Lizaso, J.; eta Lazkano, I. (1985-05-19). Bertsoa buruan ta [Bat-bateko bertsoaldia] *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/kj36o>
- Albaladejo, T. eta Chico Rico (1994). La intellectio en la serie de las operaciones retóricas no constituyentes de discurso. In Albaladejo, T; Chico Rico, F.; eta Del Río Sanz (Ed.) *Retórico hoy*. Editorial Verbum. 339-352 or.
- Amuriza, X (1980/01/06). Gai horrek badu mamia [Bat-bateko bertsoaldia]. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/gov6g>
- Aristi, P. (1985). *Euskal kantagintza berria 1961-1985*. Erein.
- Bardin, L. (1986). *Análisis de contenido*. Ediciones Akal.
- Bigas, M. eta Correig, M. (2008). *Didáctica de la lengua en la educación infantil*. Síntesis.
- Cabo, F. eta Cebreiro, M. (2006). *Manual de teoría de la literatura*. Castalia.
- Carrión, A. (2021) La configuración de la inventio narrativa: una propuesta metodológica para el análisis tematólogo de las ficciones audiovisuales. *Zer*, 26(50). 185-206 or.
- Castillo, R. (1994). La teoría del instante en Bachelard y el espacio onírico. *Revista de Filosofía de la Universidad de Costa Rica*, 32(77). 109-116.
- Ceserani, R. (2008). Il punto sulla critica tematica. *Allegoria*, 58. 25-33 or.
- Chevalier, J. eta Gheerbrant, A. (1996). *Dictionary of symbols*. The penguin.
- Colina, S. eta Iturriaga, U. (2005/12/18). Hau da hau kotxetzarra [Bat-bateko bertsoaldia] *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/ks9hg>
- Ekman, P. (1999). Basic emotions. *Handbook of cognition and emotion*, 98. 45-60 or.
- Foley, J. M. (2007). Basque oral poetry championship. *Oral Tradition*, 22(2). 3-11 or.
- Frenzel, E. (2003). Nuevos métodos en una antigua rama de la investigación: dos décadas de investigación sobre stoffe, motivos y temas. In Naupert, C. (Ed.), *Tematología y comparatismo literario*. Gredos. 27-52 or.
- Gandara, A. (2018). Zentsura eta errealitate sinbolikoa: oinarri teoriko eta euskal adibide zenbait. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 2(63). 671-694 or.
- Garzia Joxerra (1998). Texto, contexto y situación en la poética de los bertsoaris. In Zenbait autore. *Encuentro Iberoamericano De La Decima*. 429-437 or.

- Garzia Joxerra (1999). *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak: (marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa)*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea].
- Garzia, Joxerra (2006). Retórica y comunicación. In Lopetegui, G; M. Muñoz, M; E. Redondo, E. (Ed.) *Retórica y comunicación, fuentes antiguas y usos actuales*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 129-139 or.
- Garzia, Joxerra (2008). *Jendaurrean Hizlari*. Alberdania.
- Garzia, Juan. (1997). *Txirritaren baratzea*. Alberdania.
- Gintsburg, S. (2017). It's got some meaning but I am not sure...: The role of the particle (wa)-ma in the oral and transitional poetry of the Jbala (northern Morocco) from the cognitive perspective. *Pragmatics and cognition*, 24(3). 474-495 or.
- Guerrero, G. (1998). *Teorías de la lírica*. Fondo de Cultura Económica.
- Gurrutxaga, Alex (2020a). *Xabier Leteren poetika: aldaeren azterketa eta bilakabidearen irakurketa bat*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Artxibo digitalak ikerketa irakaskuntza (ADDI).
https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/47863/TESIS_GURRUTXAGA_MUXI_KA_ALEXANDER.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Kortazar, J. (2000) *Euskal literaturaren historia txikia*. Erein.
- Lekuona, J. M. (1998). *Ikaskuntzak Euskal Literaturaz (1974-1996)*. Deustuko Unibertsitatea.
- Lopategi, J. (1986/03/23). Erropa zahar hoiekin [Bat-bateko bertsoaldia] Bertsolaritzaren Datu Basea. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/g4mc0>
- López, E. eta López, A. (1991). *La imagen del nacionalismo vasco y de la violencia política en el País Vasco en la prensa Americana (Estados Unidos) y La contracultura en España en la segunda mitad de la década de los 70*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- López, M. I. (2008). *El tópico literario: teoría y crítica*. Arco Libros.
- Lujanbio, M. (2017/11/01). Trago bat eta beste trago bat [Bat-bateko bertsoaldia] Bertsolaritzaren Datu Basea. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/14hrec>
- Manzo, S. (2004) Francis Bacon: la ciencia entre la historia del hombre y la historia de la naturaleza. *Cronos*, 7(2). 277-346 or.
- Marcuse, H. (2010). *Eros y civilización*. Ariel.
- Marín, C. (2018). Acerca de las vinculaciones del arte a la ecología. In Albelda, J.; Parreño, J. M.; Marrero, J. M. *Humanidades ambientales*. Catarata.

- Marina, J. A. (2005). *Ética para náufragos*. Anagrama.
- Muruaga, B. (1991). Xabier Lete, bere baitan ibiltari. *Plazara*, 18. 19-24 or.
- Naupert, C. Tematología y comparatismo literario, ¿un matrimonio de conveniencia? In Naupert, C. (Ed.), *Tematología y comparatismo literario*. Gredos. 9-24.
- Ornoz, B. (2011). *Josanton Artze "Harzabal": inguruaren eragina poesiagintzan (1969-1979)*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Artxibo Digitala Ikerketa Irakaskuntza (ADDI).
<https://addi.ehu.es/handle/10810/10801?locale-attribute=eu>
- Otegi, A.; Imaz, O.; Díaz de Ilarraza, A.; Iruskietta, M.; eta Uria, L. (2017). Analhiza: a tool to extract linguistic information from large corpora in Humanities research. *Procesamiento del Lenguaje Natural*, 58. 77-84 or.
- Oyarzun, P. (200) Lo trágico, de Hölderlin a Nietzsche. *Revista de filosofía*, 55-56 (1). 137-156 or.
- Parry, M. (1930). Studies in the epic technique of oral verse-making. I. Homer and Homeric style. *Harvard Studies in Classical Philology*, 41, 73-147 or.
- Perelman, Ch; eta Olbrecht, L. (1989). *Tratado de la argumentación. La nueva retórica*. Editorial Gredos.
- Peñagarikano, A. M. (2003). Jon Maia ezagutzen dut [Bat-bateko bertsoaldia]. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/et730>
- Pujante, D. (2006). Sobre un nuevo marco teórico metodológico apropiado a la actual tematología comparatista en España. *Hispanic Horizon*, 25. 82-115 or.
- Roman, G. (2015). *El deseo nacional: la gramática del surgimiento de los sujetos nacionales*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Artxibo digitalak ikerketa irakaskuntza (ADDI). <https://addi.ehu.es/handle/10810/16196>
- Sollors, W. (2003). La tematología hoy. In Naupert, C. (Ed.), *Tematología y comparatismo literario*. Gredos. 53-85 or.
- Thompson, E. P (1979). *Tradición, revuelta y consciencia de clase*. Editorial Crítica.
- Tomé, M. (1986) ¿Qué es la mitocrítica. *Estudios Humanísticos. Filología*, 8. 133-143 or.
- Trousseau, R. (1965). *Une probléme de littérature comparée: les études dethé nes*. Essai de méthodologie. M.J. Minard.
- “Uztapide” Olaizola, M. (1962/12/30). Hauxe da lan polita [Bat-bateko bertsoaldia] *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/glghs>

- Vernik, E. (2018). Sobre las identidades sociales: clase, etnia y nación. Del encuentro de Max Weber con W. E. B. Du Bois. In Zenbait autore (Ed.) *Actualidad de la nación. Materia y memoria de la vida popular*. Ediciones UNGS. 19-35 or.
- White, Linda. (2005). Formulas in the Mind: A Preliminary Examination to Determine if Oral Formulaic Theory May Be Applied to the Basque Case. In Armistead, S. G. eta Zulaika, J. (Ed.) *Voicing the Moment: Improvised Oral Poetry and Basque Tradition*. University of Nevada Press. 1247-1263 or.

Elkarrizketak

- Amuriza, X. (2021). “Berariaz egindako elkarrizketa”. 2021eko maiatzaren 21ean.
- Arbelaitz, J. A. (2020). “Berariaz egindako elkarrizketa”. 2021eko azaroaren 1ean.
- Jimenez, K. (2020). “Berariaz egindako elkarrizketa”: 2021eko urriaren 21ean.
- Goikoetxea, J. (2021/07/22). “Berariaz egindako elkarrizketa”. 2021ko uztailaren 22a,.
- Iriondo, J. M. (2018). “Berariaz egindako elkarrizketa”. 2018ko martxoaren 20an, 2018ko irailaren 21ean, eta 2021ko uztailaren 10ean.
- Irigaray, J. A. (2018). “Berariaz egindako elkarrizketa”. 2018ko martxoaren 14an, 2018ko uztailaren 13an, eta 2021ko ekainaren 5ean.
- Irigoién, I. (2017). “Berariaz egindako elkarrizketa”. 2019ko irailaren 25ean.
- Lete, A. (2020). “Berariaz egindako elkarrizketak”. 2020ko irailaren 30ean, 2020ko irailaren 30ean.
- Markuleta, G. (2020). “Berariaz egindako elkarrizketa”. 2020ko abuztuaren 11n.
- Mujika I. (2020). “Berariaz egindako elkarrizketa”. 2020ko maiatzaren 14an.

Leteren diskoak

- Lete, X. (1968). *Xabier Lete*. [EP]. Herri Gogoa / Edigsa.
- Lete, X. (1969). *Xabier Lete*. [EP]. Herri Gogoa / Edigsa.
- Lete, X. eta Iriondo, L. (1969). *Lourdes Iriondo eta Xabier Lete*. [EP]. Artezi.
- Lete, X.; (1969). *Xabier Lete*. [kasetak]. Artezi.
- Lete, X.; Valverde, A.; Lekuona, J. (1974). *Bertso zaharrak* [kasetak]. Herri Gogoa / Edigsa.
- Lete, X. (1976). *Kantatzera noazu...* [kasetak]. Artezi.
- Lete, X. eta Valverde, A. (1974). *Txirritaren bertsoak* [kasetak]. Herri Gogoa / Edigsa.
- Lete, X. (1978). *Lore bat, zauri bat* [kasetak]. Herri Gogoa.

- Lete, X. (1991). *Eskeintza* [Diskoa]. Elkar.
- Lete, X. (1992). *Hurbil iragana* [Diskoa]. Elkar.
- Lete, X. (2001). *Berrehun urtez bertsotan. Xenpelar, Bilintx, Elizanburu, Etxahun, Otaño, Txirrita, Basarri, Uztapide, Xalbador eta Lazkao Txiki-ren bertsoak* [7 KD]. Elkar.
- Lete, X. (2004). *R.M^a Rilkeren 'Orduen Liburua'* [disko-liburua]. Pamiela.
- Lete, X. (2009). *Neguan izan zen* [DVDA]. Pamiela.
- Lete, X. (2010b). *Xabier Lete Zuzenean. Errenteria 1999.IX.25. Azken Kontzertua*. [2 KD]. A&M Kultur Promotora.

4. Letek jorratu zituen gaiak

Kapitulu honetan Letek abestietan gehien landu zituen gaietan sakonduko dugu. Abestien azterketa estilistikoa egin eta bere biografia osatu ostean zedarritu ditugu gai nagusi horiek eta azterketa kuantitatibo baten bidez baieztatu dugu gai erabilienak zirela. Gaiak taldekatu egin ditugu lau multzotan: maitasuna (leialtasuna, erakarpena, laguntasuna), heriotza (sufirimendua, fedea), natura (argia, landareria) eta nortasuna (aberria, langileria, nazioartekotasuna).

Idazlearen poema liburu ezezagunean “eriotzari”, “maitasunari” eta “gizon eroriari” eskainitako zati bana dago. Hiru gaiak bat egiten dute ikerketa honetan proposatutakoarekin eta natura gehitu beharko litzaioke. Lete bera konziente zen bere gaien temaz:

Badira gai batzuk beti agertzen direnak, adibidez, argiaren lilura, argiaren beharra; izadiarekiko miresmenaren eta maitasunaren gaia ere hor dago, oreka bat aurkitu nahian norberaren, inguruaren eta izadiaren artean. Gero, beste gai edo giro bat askotan agertzen zaidana da galeraren esperientzia. Bizitza, azken batean, galtze bat da, galtzen joatea. Gaixotasunak eragina izan du horretan. Galtzen duzu osasuna, galtzen duzu bizitza, galtzen duzu kemena... Eta bizitza nolabait itzaltzen doa, eta, zu galtzen ari zara bizitza, eta nolabait ere, galtzailea zara. Ideia hori askotan agertzen zait modu batera edo bestera. Eta horrekin batera bizi egarri handi bat. Bizitzari atxiki nahia, eta bizitza ulertu nahia, eta gozatu nahia. Hori ere askotan agertzen zait. (Lete, 2001, 28)

Urienek Leteren bi medikuak elkarrizketatu zituen *Poesia zaurien ukendu* liburuan eta Anjel Mendiak aitortu zion Lete ulertzeko lau giltzarri daudela: erreferentziatzko autoreak, sufrimendua, Lurdes Iriondo, eta naturaren bidez hautematen den jainkoa (2020, 84). Bestelako taldekatze baten alde egin bada ere, ezin uka medikuaren iritziak eta lan honek tematikoki badutela antzekotasunik.

4.1 Datu kuantitatiboak

Lemen hitz kategoriei dagokionez, espero zitezkeen bezala, Leteren kantuetan izenak dira nagusi (%43) eta lautik batean izenondoak lagundurik datoz (%11). Laurden bat (%27), berriz, aditzak dira. Gehien erabiltzen dituen izenen artean naturari erreferentzia egiten diotenak nabarmendu daitezke: gau (29), lur (27), lore (20), mundu (13), otso (13), abere (12) –horietatik 7 ‘Giza aberea’-n-, haize (12), argi (12), negu (9).

Figura 16

Korpusean gehien aipatzen diren izenak



Gizakiari dagozkion hitzak ere ez dira gutxi: gizon (23), bihotz (20), hitz (13), giza (12), begi (12), poeta (11) –horietatik 9 ‘Poeta hoiek’ kantan–, herri (17), bide (19), etxe (13), haur (10), lo (9). Kontzeptu abstraktuei dagokienez amets (17), bizitza (17), eta lan (17) dira gehien errepikatzen diren hirurak; ondoren datoz beldur (12), negar (12), heriotza (10), egia (9), eta maite (9). Maiztasun handiz errepikatzen diren beste hitzen artean honakoak nabarmendu behar dira: ezin (24), ta (22), nahi (20), behar (16), arte, ordu (11), bat (9),

Izenondoan artean zail(a) da gehien erabiltzen duen lema (17), ondoren datoz bizi (13), maite (12), zahar (12), berri (5), ilun (9), eder (8), beltz (7), bakar (6), txar (6), bera (6), bero (6), hotz (5), hobe (6), alfer (5), garbi (5), triste (5), oso (5), eguneroko (5), gogor (5).

Figura 17

Korpusean gehien aipatzen diren izenondoak



Aditzei dagokienez, izan (232) eta ukan (204) erabili zituen gehien. Ondoren, ordena honetan: egon, joan, egin, edun, ezan, jakin, esan galdu, hil, ibili, bete, etorri, hartu, sinetsi, gelditu, erantzun, sortu, ikusi, iraun, lotu (8).

Aditzondoan kasuan, gabe (25) hitza da gehien erabiltzen duena eta lotura garbia dago izenen artean aipatu diren ezin, nahi, eta behar lemekin. Beti (10) eta orain (9) denborazko aditzondoak ere maiz erabiltzen ditu. Hurrengo erabilienak, 7 alditatik 4ra: hor, non, bila, agian, zehar, hain, nahiko, zintzilik, ongi, hemen, arrastaka.

Aipagarria da Leteren ezezkorako joera. 100 aldiz baino gehiagotan erabiltzen du ez hitza. Aditez aparte, eta (85 + 33 aldiz ta) eta bat (84) dira gehien erabiltzen dituen hitzak.

Bateratsu erabiltzen ditu zu (52) eta ni (47) eta ia erditan gu (29), birritan soilik “zuek”. Nik (14) gailentzen zaio, ordea, zuk-i (7). Genitiborik erabiliena zure (14) da, segidan datoz bere (13) eta gure (13), nire (9). Jokaturako aditzetan, ordea, lehen pertsonako aditzak dira maizen agertzen direnak: naiz (19), zaitut (14). Hirugarren pertsonan du (16), duen (14), dira (13) eta den (10) dira gehien erabiltzen dituen aditzak.

4.2 Maitasuna

4.2.1 Maitasunaren eraikuntza

Maitasuna *constructo* sozial bat da. Alde batetik, egitura egonkor bat sortzearen ideiarekin lotu izan da maitasunak eta beste alde batetik erakarpen sexualaren ondorioz pizten ziren sentipenekin. Zenbaitetan biak uztargarriak izan dira. Historian zehar maitasunari buruzko diskurtsoak aldaketak izan ditu eta eraikuntza konplexua duela esan liteke Luis Torregok azaltzen duenez:

Acaso esta complejidad se deba a que el amor, como sentimiento, es una realidad culturalmente construida. Nuestra vida amorosa es el resultado de una larga historia de creación sentimental, desarrollada a través de los tiempos y dependiente de las formas y visiones de la existencia propias de cada sociedad y de cada momento histórico. (1999, 272-273)

Mendebaldean, XVIII. mendera arteko ezkontza asko interes ekonomikoen arabera uztartzen ziren. Historiaren une honetatik aurrera sentimenduetan oinarritutako elkartzeek indarra hartu zuten eta maitasun erromantikoaren ideia hedatu zen. Iruditeria horretan, maitasunaren gorentasuna aldarrikatzen zen sexuaren indarraren gainetik. Ikusi hutsarekin maitemintzen ziren pertsonen kontakizunak atal honetakoak dira. Ikuskera horiek etxearen (*hogar*-en adieran) eta amatasunaren (ama onaren) idealizazioa zehaztu zuten. Gizonezkoen maitasuna, berriz, bifurkatu egiten zuen sistema honek afektuzko maitasuna etxerako gordez eta desiozkoa kanporako (Giddens, 1999, 43-44).

Filosofikoki, maitasuna eta norbere izatearen eta osotasunaren inguruko ekarpen asko daude. Maitasunaren, laguntasunaren eta miresmenaren arteko mugak nahiko lausoak izan daitezke. Emilio Lledó filosofoarentzat laguntasuna zoriontasunaren forma gorena da (Guillén, 2001, 81). Aristotelesek zioen *philiaren* hiperbole bat zela *erosa* eta, bide beretik, Laín Entralgok eranstean du *erosa* bereziki sutsua den laguntasuna besterik ez dela, beste pertsonarekiko erakarpen sexual bat ere baduena (Guillén, 2001, 88). Maitasunaren purutasunaren bila abiatuta, Dieter Henrichek dio Friedrich Schiller (1759-1805) izan zela maitasunaren eta ipseitatearen (*Selbstheit*) arteko mediazioa ezartzen lehenengotakoa (*Teosofía de Julio* liburuan). François Hemsterhuisek (1721-1790) Schillerren lana osatu zuen esanaz maitasuna gizabanakoaren fininitasuna hausteko ahalegin bat dela: ondoko izakia jan edo zuzenean

ondoko izaki bilakatzeko nolabaiteko grina duela norbanakoak eta maitasuna dela nitasunaren luzapen hau lortzeko modu zibilizatuena (Henrich, 1972, 55-56).

Hölderlinen *Hyperion* liburuan agertzen da maitasuna dela gizakiak burutu dezakeen ekintza gorena (2001, 67-68). Liburuak maitasun pasionalaz, eszeptizismoaz, gatazkez eta naturaz dihardu eta Leteren obran suma daiteke haren kutsua. Hölderlinen eraginak bi gai hauek ez ezik, natura eta aberria ere ziprztinduko ditu. Letek erakarpena eta pasioa ukatuko ez bazuen ere, maitasun sosegatuaz idatzi zuen batez ere; heriotzaren mehatxuak zeharkatzen zuen maitasunaz zehazki. Bere gaztaroan maitasunaren ikuspegiaren iraultza iritsi bazen ere, Leteren maitasunaren diskurtsoa nahiko erromantikoa eta tradizionala izan zela esan liteke.

Foucaultek, *Sexualitatearen historia* liburuan, defendatu zuen bioboterea gizakia kontrolpean mantentzeko mekanismoa zela. Sexualitatea errepresiotik bizitzea eta bikote harremana alternatibarik gabeko erakunde bezala aurkeztea ohiko praktika ziren Leteren gaztaroan:

Todavía a comienzos del siglo XVII (...) no buscaban el secreto; (...) . Los códigos de lo grosero, de lo obsceno y de lo indecente, si se los compara con los del siglo XIX, eran muy laxos. Gestos directos, discursos sin vergüenza, trasgresiones visibles, anatomías exhibidas. (...) A ese día luminoso habría seguido un rápido crepúsculo hasta llegar a las noches monótonas de la burguesía victoriana. La sexualidad es cuidadosamente encerrada. Se muda de lugar. La familia conyugal la confisca. Y la absorbe por entero en la seriedad de la función reproductora. En torno al sexo se establece el silencio. La pareja, legítima y procreadora, impone su ley. Se impone como modelo, hace valer la norma, detenta la verdad, retiene el derecho de hablar —reservándose el principio del secreto—. Tanto en el espacio social como en el corazón de cada hogar existe un único lugar de sexualidad reconocida, utilitaria y fecunda: la alcoba de los padres. (...) Lo que no apunta a la procreación o está transfigurado por ella ya no tiene sentido ni ley. No puede expresarse. Se encuentra a la vez expulsado, negado y reducido al silencio. No sólo no existe sino que no debe existir y se lo hará desaparecer a la menor manifestación —actos o palabras—. (Foucault, 2011, 9)

Maitasuna arautzeko botere gehien zuen erakundea eliza izan zen. Mendebaldean erlijio kristauak izan zuen sarmenak *eros*-aren (erakarpenaren) desnaturalizazioa ekarri zuen eta *agápê*-ak (maitasun garbi edo kastoak) ordezkatu zuen literaturan. David Pujantek *Eros y Tánatos en la cultura occidental* liburuan dio horrek Eros eta Tanatos-en arteko desoreka ekarri zuela:

En dicha ortodoxia, al aparecer la mujer relacionada con la carnalidad pecaminosa, Eros cobra un carácter negativo del que ya difícilmente va a desprenderse. Y la relación entre carne, mujer, pecado y Satanás será básica en gran parte del desarrollo de la historia cultural medieval. (Pujante, 2017, 376)

Bekatuaren irudia hezurretaraino sartua zeukan Letek. ‘Teologia, Ideologia’ abestian parodiatu egin zuen Bibliako pasarte hura:

Perfekziozko obra haretan
laister sortu zen nahaspila,
Adan maltzurra abiatzen da
sagar errearen bila.
Lehendabiziko askatu zuen
gerrikoaren hebilla,
Eba ikaraz zegoen baina
bekaturako abila. (Lete, 2006, 76)

Beste pertsonetikiko erakarpena kudeatzeko moduari dagokionez, Ibarzabalek dio (2016, 192) Jean-Paul Sartre eta Simon de Beauvoirrek zuten bikote harremaneko ideiak interesatzen zitzaizkiola. Beharrezko maitasuna eta maitasun gertagarriak bereizten zituzten:

Sartre a sus veinticuatro años supo que no quería perderse el amor de Simone, pero no estaba dispuesto a que ese amor le exigiera renunciaciones. Desde un principio dejó claro que él no tenía vocación de monógamo (...) La originalidad que él aportaba era proclamar que las mujeres deberían hacer lo mismo (...) Sartre lo explicó diciendo: “Lo que hay entre nosotros es un amor necesario: pero nos conviene también conocer amores contingentes”. Según él, esos amores contingentes deberían ser amores, y no aventuras pasajeras (...) sin que por ello rompieran ni alteraran los fuertes lazos que les unían.

Simone, que ya había tenido ocasión de ver en su entorno los fallos del matrimonio convencional (...) decidió aceptar las arriesgadas reglas de juego que le proponía Sartre: toda una revolución si pensamos que estaba corriendo el año 1929. (De Armas, 1987, 41-42)

Letek, ordea, ideia intelektualki bereganatu arren emozionalki ere ez zuen damuaren kargaz gaingabetzerik lortu eta sentipen hura sendatzeko kanta eta poema ugari idatzi zituen.

4.2.2 Kontrakultura

Kontuan hartu beharra dago Letek bizi zuen garaia kulturalki berezia izan zela. Diktadura amaitzen ari zela zirudien eta askatasun kolektibo eta indibidual handiagoak gertu sumatu zitezkeen. Horren aurrean, gazteriak, ohi duenez, jarrera haustailea hartu zuen ekitez eta irudiz. Kontrakulturak estetika ezberdindua ere bazekarren; gaur egungo tribu urbanoek duten uniformizazio, jarrera, portaera, errepresentazio jolas, eta itxura bezala (Costa, Perez, Tropea; 1996, 91). Kasu horretan bereizgarri izan zituzten ilaje luzeak eta bizarrak.

Zahar askoren ikuspegitik errebelde haiek probetxurik gabeko gazteak ziren, gozamen-nahiak gidatzen zituenak; mundu zaharra kritikatu bai, baina proposamen seriorik ez zekarten norbanakoak. AEBn indartsua izan ziren *beat* mugimendua eta *hipiena* eta munduan zehar ere barreiatu ziren. Izenari dagokionez, Mario Maffik *underground* kultura gisa bataiatu zuen mugimendua, Andrés Lópezek kontrakultura deitu zion mugimendu honi. Theodore Roszakek seinatu zuen mundu ikuspegia erro-errotik aldatzeko irrikan zegoela gazteria:

Lo nuevo en la transición generacional en que nos encontramos es la escala a que se produce y la profundidad del antagonismo que revela. Hasta el punto de que no parece una exageración llamar “contracultura” a lo que está emergiendo del mundo de los jóvenes. Entendemos por tal una cultura tan radicalmente desafiada o desafiada a los principios y valores fundamentales de nuestra sociedad, que a muchos no les parece siquiera una cultura, sino que va adquiriendo la alarmante apariencia de una invasión bárbara. (Roszak, 1976, 57)

Zenbait pentsalarik kontrakultura utopikoa aldarrikatzen zuten. Haien arabera, gizakiek orduko bizi mailarekin konformatzen baziren, teknologiari esker, apenas lanik egin gabe bizi zitezkeen. Horrela, lan egin eta kontsumitzeko gupil erotik aterako litzateke gizakia eta gozamenara eta artera bideratutako bizitza bat eratu (López, 1991, 157). Jack Kerouac, *beat* belaunaldiko idazlea, izan zen askorentzat ideia horiek ondoen bildu zituenetako bat; hona bere bisioa azaltzen duen pasarte bat:

Señala así la actitud del Bardo, del bardo lunático zen de los viejos senderos del desierto que ve que el mundo entero es una cosa llena de gente que anda de un lado para otro cargada con mochilas, Vagabundos del Dharma negándose a seguir la demanda general de la producción de que consuman y, por tanto, de que trabajen para tener el privilegio de consumir toda esa mierda que en realidad no necesitan, como refrigeradores, aparatos de televisión, coches, coches nuevos y llamativos, brillantina para el pelo de una determinada marca y desodorantes y porquería en general que siempre termina en el cubo de la basura una semana después; todos ellos presos en un sistema de trabajo, producción, consumo, trabajo, producción, consumo... Tengo la visión de una gran revolución de mochilas, de miles y hasta de millones de jóvenes norteamericanos con mochilas y subiendo a las montañas a rezar, haciendo que los niños rían y que se alegren los ancianos, haciendo que las chicas sean felices y también las señoras mayores, que serán más felices todavía, todos ellos lunáticos zen que andan escribiendo poemas que surgen de sus cabezas sin motivo y siendo amables y realizando actos extraños que proporcionan visiones de libertad eterna a todo el mundo. (Kerouac, 1997, 79-80)

Mugimendu honen arabera artista ez zen, ordura arte pentsatu ohi zen bezala, jenio bat; pertsona arrunta zen, baina haren irudimena ez zegoen oraindik diru premiaren ideiarekin pozoindaturik (Maffi, 2009, 48-49). Norabide berean dio Letek:

Gu bezela sozietateko ordenazio batean indarrez sartua, histori momentu batean ezarria, frustrazioz josia, ekonomia eta politika estruktura batzuen obratz eta graziaz presionatua eta bizimolde batzuetara behartua. eta, azkenik, herri baten barruan sortu eta herri horren gorabeheran kontestuan bere nortasuna eta askatasuna adieraztera eta osatzera obligatua. (...) bere berezitasuna sensibilitate berezi batean dago. (...) Gaur egunean eta toki batzuetan beste aldeko fenomenoak ere gertatu da; hau da, artistari bere autonomia eta sortzailetasuna ukatu zaizkio, eta orduan bere ahalmenak propaganda politiko batean oso zakarki enplegatuta izan dira. Hori ere aberrazio bezala juzgatu behar da. (...) Autonomia eta konpromisoa; horra hor egiazko artearen bi koordinadak. (...) Herrikoitasunik gabeko arte idealista bat egin nahia, ohargabekeria eta traizioa litzateke. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 96-97)

Andres Lópezen kapituluak kontrakulturak garai hartako krisiari eman zizkion bost erantzun esplizitatzen ditu (López eta López, 1991, 110-111):

- Kontrakulturak desioaren eta sexuaren askatasuna sustatu zuen: maitasun libre, eta gorputzarekin harreman naturalagoa, eta moral judu-kristautik aldentu zen.
- Ezagutza lortzeko bide alternatiboak proposatu zituen: drogak, Ekialdeko pentsamendua, transzendentzia, artea, denboraren balioa.
- Gainontzeko norbanakoekiko errespetua eta bakea sustatu zuen, eta berdinen arteko konpetentzia gaitzetsi: bikotea, familia, komunak; hedabide libreak.
- Ekintza soziala alderdi politikoen esku utzi beharrean autogestioa, desobedientzia, pasotismoa, eta anarkismoa lorarazi zituen.
- Naturarekiko harremana berrezarri eta ahalik eta gehien ustiatzeari uzteko grinaren aurka posizionatu zen.

Lete erantzun horietako batzuetan identifikatu daiteke, baina beste batzuetan bere testuak ikuspegi tradizionalagoekin hobeto ezkontzen dira. Kontrakulturak Ez Dok Amairu taldeko kide guztiak zipriztindu bazituen ere, ez zituen berdin busti. Artze eta Laboak, adibidez, joera abanguardistenei atea ireki zieten, are gehiago kolektiboa desegin eta bide propioari ekitean.

Maffik jaso zuenez, musika gazteriaren ispilu bihurtu zen, geroz eta biziagoa, oldarkorragoa eta sormenez beteagoa:

Come John Cage, Morton Feldman La monte young, ecc (la cui produzione rientra piuttosto nel mondo della musica d'avanguardia contemporanea e partecipa del fenomeno sperimentale-intellettuale-filosofico-artistico più che di quello underground), la musica diviene poi bas per certe forme miste come lo happening e contemporaneamente ispira ritmi, temi e tecniche del cinema underground. (Maffi, 2009, 185-186)

Neurtuagoa izan zen Leteren eragina, *actioari* zegokionez; eta baita maitasunari buruzko diskurtsoan ere.

4.2.3 Maitasun abestien sailkapena

Ez dira asko Leteren maitasunezko kantak. Ez, behintzat, maitasun erotikoa ardatz hartzen bada. Leteren eskumuturretik eta ahotsetik halako gutxi jaso dira. Askoz egokiagoa litzateke maitasunez hitz egitea. Erich Frommek (1963) (*in* Torrego, 1999, 275) bost maitasun mota deskribatu zituen: gizakiekiko maitasuna, senitartekoen maitasuna, maitasun erotikoa, norbere buruarekiko maitasuna eta Jainkoarekiko maitasuna. Leteren zenbait kantek bikote harremanen zailtasunez dihardute, beste zenbaitek maitea galtzeko beldurretik abiatzen dira eta Jainkoaren existentziaz gogoeta egiteko aitzakia dira. Topa litezke senitartekoekiko zenbait maitasun adierazpen eta baita lagunekiko maitasun eta miresmen aitortpenak ere. Frommek biltzen ez duen maitasun forma bat da herriarekikoa. Esan bezala, maitasuna testuinguru nazionalaren eta historikoaren arabera aldatzen joan daitekeen kontzeptua da. Frommen eta Torregoren sailkapenetatik abiatuta, maitasunezko abestizat jo diren 16 kanta lau sailetan banatu dira:

Taula 2

Maitasun abestien azpisailkapena

Maitasun erotikoa	Senitarteko eta lagunekiko maitasuna
Festa bukatzean Agian Ez esan maite Zuk badiozu Amodio, amore	Seaska kanta Lore bat, zauri bat Xalbadorren heriotzean (I) Xalbadorren heriotzean (II) Eskaintza nire aita zenari
Maitasuna eta heriotza batzen dute	Konpromiso soziala eta maitasuna, uztarturik
Maiteaz galdezka Jardin bat zuretzat	Lore gorrien balada Otsoak eta txanogorritxu Aberri ilunaren poema Ez nazazu utzi (I)

Atal honek poetaren maitasun agerpenen bilduma egingo du. Leteren abestiak maitasunarekin duten harremanaren arabera sailkatu dira. Abestiek, jakina, ez dute interpretazio bakarra. Norbaitek ‘Habenera’ iraultza kubatarraren idealarekiko maitasun abesti bezala katalogatu dezake, adibidez.

Maitasuna da kantarik gehien sorrarazi duen kontzeptua. Luis Torregok bere liburuan dio kantautoreen artean ez dagoela maitasunaren pareko kontzepturik. Abestien funtzio didaktikoaz kontziente da Torrego eta transmititzen duten mezuaren araberrako azpiatalak ere proposatzen ditu *Canción de Autor y educación del sentimiento amoroso* atalean. Hona haren sailkapena, adibide eta guzti:

- Maitasuna bera gogoetagai duten kantak (“L’amor tot s’ho vall’, María del Mar Bonet).
- Maitasunaren aroak eta maitatuaren adinari lotuak (‘Cançó del vells amants’, Guillermina Motta).
- Maitatuaren gorputzari zuzenduak (‘Zure bularretan’, Imanol).
- Maite den pertsonaren beharrari buruzkoak (‘Zu, maitea’, Itziar).
- Maitasuna eta konpromiso soziala (‘Adeu, adeu, amor meu, i sort’, Joan Manuel Serrat).
- Maitasunak eragindako gorputzaldiak deskribatzen dituztenak (‘Maitasunez hil’, AnttonValverde/Xabier Lete).
- Desioa, oroitzapena, maite den pertsonaren askatasunarekiko errespetua... (Torrego, 1999, 286-287)

Azpiatal horietan lehenak balioko luke ‘Amodio, amore’ abestia kokatzeko. Horrez gain, maitasuna eta konpromiso sozialaren kategoria oso egokia da beste bi kanta sailkatzeko: ‘Lore gorrien balada’ (metodologian aztertu da dagoeneko) eta ‘Otsoak eta Txanogorritxu’. Biek kritika eta kontrol soziala dute helburu.

Maitasunaren adinari buruzko aipamenak baditu Letek “emazte adintsua” aipatzen du ‘Malkoak euri balira’ abestian; hortik aurrera, korpusetik kanpo arakatu behar da. Hala eginez gero, bi ertzetako adibideak topatu daitezke: batetik, Brelen itzulpena, adineko maitaleei buruzko abestia; bestetik, 15 urteko neskei idatzitako kanta argitaragabe bat: ‘Melankoliaren

printzesak’, Jon Miranderen irakurketek eraginda idatzitakoa izan litekeena. Gaiak zeresana eman zezakeela kontziente zen Lete, baina jendaurrean abestea erabaki zuen. Gaia “hunkigarria” iruditzen zitzaioela esan zuen kantaren aurretik egin zuen sarreran.

Entzun neskatxa eder
hamabost urteko printzesa
zure bularrak sagar dira
marfil guria limoi ta menta
zure izterrak kristala baina
zure sexoa egunsentiko
larrosa bildu ihintzez bustia
orri zuriak ta beltzak ditu
gordetzen duzun egunkariak.

Entzun adosleszente
sorpresaz betetako kutxa
metafora bat omen zera
poema baten musika ihesa
galdera iluna zure gorputza
baina baduzu argitasun bat
logika dena hausten duena
Batxillerreko asignatura
inork oraindik ez dakiena.

Entzun, kimera gazte
malkotan urtutzen zarena
zure bihotza txoria da
bizitzak tiroz hil nahi duena
kristal finaren txintzarri hotsa
eta ezpainak musuen zauri
itsasoaren gatza bezela.
Desioaren sapore dena
odol barrura daramatena

Entzun neskatxa eder
hamabost urteko printzesa
zure bularrak sagar dira
marfil guria limoi ta menta
zure izterrak kristala baina
zure sexoa egunsentiko
larrosa bildu ihintzez bustia
orri zuriak ta beltzak ditu
gordetzen duzun egunkariak.
orri zuriak ta beltzak ditu
gordetzen duzun egunkariak. (Lete, d.g.)

Torregok dio Kantagintza berriko maitasuna ez zela mugatu bikotekidea gurtzera. Errealitatea besarkatzen zuen jarrera bat izan zen maitasuna: Francesco Alberoniri hitzak lapurtuz dio

maitasuna elkartasun esperientzia absolutua dela, alienazio guztien azkena (Torrego, 1999, 317). Maitasuna elkartasun gisa ulertuta aberriari buruzko abesti batzuk ere sailkapen honetan kabituko lirarteke.

Alde kuantitatibotik begiratuta, “maite” hitza Letek gehien erabiltzen duenetako bat da. 21 aldiz aipatzen da: bederatzitan izen bezala eta hamabitan izenondo gisa. Letek bere kantatan gehien darabilen hitzetako bat da “bihotza”rekin batera. Hogei aldiz darabil berau, guztira. Aipagarria da bi horiek direla Leteren lemarik erabilienak, “gau, lur, lore, gizon, ezin, ta, nahi, gabe”, eta “bat”ekin batera.

Maite

Maitatu aditz moduan erabili zuen lehen kanta ‘Lore gorrien balada’-n izan zen: “gizonak zeinek maiteko ditu/ kartzelatik irtetzean” galdetzen du poetak. ‘Ez dut amets handirik’ abestian, berriz, “bizitza maite dut baina ez dut alferrik gastatzen” dio. Maitatu hitza, beraz, ez du, kasu honetan, amodio hitzarekin lotzen, estimatu edo apreziatu-ren adierarekin baizik. ‘Henry Millerri eskutitza’ abestian zerbait atsegitearen sinonimo da maite izatea:

Maite duenak edertasuna
maite duenak lilura
hurbiletik begira dezala
Platonen liburu hura (Lete, 2010b)

Bere buruaren onarpenarekin lotzen du “maite” ‘Biographia’ abestian. Maitatu baino, haiekin adiskidetu dela iradokitzen du:

Nere izatearen ordu ilunenak maite ditut orain
haiek zirelako kontzientziaren ingude garratza, (Lete, 2006, 97)

‘Maiteaz galdezka’, ‘Ez esan, maite’, eta ‘Zuk badiozu’ abestietan izen funtzioa hartzen du “maite” hitzak, “kuttuna”-ren adiera berarekin:

Ez dezagun esan, maite
gu ez ginela horrelakoak,
munduak ginduela hondatu.

Zuk badiozu nik ez dudala
hitzik maitea zuretzat
ezta zuretzat nik ez dudala
maitea orain hitzikan (...)

Zuk badiozu nik ez dudala
pozik maitea zuretzat
ez da zurekin ez daukadala
maitea orain pozikan (...) (Lete, 2006, 100)

Azpimarratzekoa da zenbat alditan agertzen den “maite” hitza aberriari lotuta, izenondo edo aditz moldean. ‘Euskalerrri nerea’, ‘Cançó a Catalunya’, edo ‘Aberri ilunaren poema’-n, adibidez :

Euskalerrri nerea ezin zaitut maite,
baina nun biziko naiz zugandik aparte. (Lete, 2006, 60)

Zu zera beste aberri, etxe hurbil maitea,
jakituriak guretzat mugan duen atea. (Lete, 2006, 85)

Maite zaitut, Euskadi, eta alferrik da
ez zaitudala maite oihukatzen badut
ohera naramazu gauero zurekin
maindire odolduek irentsi nazaten. (Lete, 2006, 61)

Hitzaren aldaerei erreparatuz gero, ‘Eskaintza, nere aita zenari’ abestiko “keinu maitekorrak” aipatu behar dira, hitza izenondo bihurtuta; baita ‘Lore bat, zauri bat’-eko “Nahiko hunan, Beatriz / Txile libre batean / adiskide artean / maitasuna dastatu”. ‘Malkoak euri balira’-n, berriz, “malkoak euri balira / udazken traidorean / maitalerik gabe / kopez bazter utzia”. Maitasuna, espresuki, aipatzen du ‘Nafarroa, arragoa’-n, gorrotoari kontrajarriz eta “lurrik maitatuena dela dio”; atal honetan aztertuko diren ‘Amodio, amore’ eta ‘Jardin bat zuretzat’ abestietan agertzen da eta baita Iriondok kantatzen zituen ‘Gaua’ eta ‘Festa bukatzean’ abestietan ere.

Bihotz

Lehenengo diskoan ‘Bihotza’ izena zuen Krutwig-en poema bat musikatu zuen Letek. Geroztik, maiz erabili zuen lema hori. Diskoratuak ‘Xalbadorren heriotzean’-en bi poemetan erabiltzen du. Poemarik ezagunenean, izenondo bihurtuta (“bihozbera”):

Adiskide bat bazen orotan bihozbera
Poesiaren hegoek
Sentimentuzko bertsoek antzaldatzen zutena.
Plazetako kantari bakardadez josia.
Hitzen lihoa iruten
Bere barnean irauten oinazez ikasia.

Nun hago, zer larretan
Urepeleko artzaina.
Mendi hegaletan gora
Oroitzapen den gerora
Ihesetan joan hintzana.

Hesia urraturik libratu huen kanta.
Lotura guztietatik
Gorputzaren mugetatik aske sentitu nahirik.
Azken hatsa huela bertsoerik sakonena
Inoiz esan ezin diren
Estalitako egien oihurik bortitzena. (Lete, 2006, 83)

Xalbadorri buruzko poema ezezagunagoan, maite duena galtzeko beldurrarekin lotuta darabil,
bihotza sentimenduen gordailu gisa kokatuta:

Teilatuan elurra
Herrian ekaitza
Bihotzean azken agurraren beldurra...
Udazken hotza
Loratzeko ezinak
Bizitzaren garrasia heriotz egina.

Eskuak luzatzean
Bizitza jasotzeko asmoz
Eta lurra bakarrik behatzetan sentituz,
Zeinen beltza den ekaitza
Zeinen hotza elurra
Zeinen deigarri bizitza heriotza honetan. (Lete, 2006, 82)

Teilatua buruarekin lotu daiteke, herria gizartearekin eta bihotza sentimenduekin. Horrela, gizakiaren hiru dimentsioetan (plano arrazionallean, irrazionallean eta gutasunean) etsipen aldiberekoa azpimarratzen du. Chevalier eta Gheerbrantek diote bihotzak zentraltasuna eta afektibitatea sinbolizatzen dituela (1996, 479).

Abestitzak eta Poema Kantatuak liburuko ‘Ez dut amets handirik’ abestiaren behin betiko bertsioren (originalean bestelako formulazioa darabil) “bihotza-heriotza” binomioa elkarren ondoan jarri zituen Letek, oin segida gisa:

Zergatik kale erdian ipuin zoroak kontatu,
bizitza merezi zuten gazte ederrak hondatu.
Eguneroko fruituez bete nahi nuke bihotza
bakarrik etorriko da, zertan kanta heriotza. (Lete, 2006, 79)

Letek bihotza aipatzen du beste zenbait kantatan ere, oinazearekin lotuta gehienetan, baina zenbaitetan edukiontzi gisara. Batzuetan formulazio ohikoenean darabil. ‘Gaua’ abestian, adibidez, “triste jartzen dezu bihotza” dio. Bestetan, antzeko efektu bat bilatzen du apur bat originalagoa den eran: “bihotzeraino sartua / galtzailearen orratza” (‘Langile baten seme’). ‘Neguaren zai’ abestian ere ongiaren gordailu da bihotza: “Eguzki eder joan guzien / argia bait du bihotzak / eta zentzuen mila ernegai / iraganaren oroitzak” dio. Konplexutasun gehiagoko metafora erabiliz, Beatriz Allenderen bihotza “txori zauritu” bat dela esanez hasten du ‘Lore bat, zauri bat’ abestia.

‘Amodio, amore’-n kontrastez betetako hiru esaldiren amaieran erabiltzen du: “gau beltzaren argi, argiaren mindura... / sutan daukazulako izotzaren bihotza / izozten duzulako eguzki beroena”. Izatez, bihotzari buruz egiten dituen aipamenak lotuago daude herriarekin. ‘Herri zahar hontan’ en “Bihotzen antsi bat saminez betea” dio eta ‘Malkoak euri balira’ abestian, adibidez, “ehun hodei ilunen / jasa izugarriek / kaleak uholdeka / itoko lituzkete, / errotik garbituko / ohizko zekenkeriak / hondakinez gainezka / dituen bihotzak” dio.

4.2.4 Konpromiso soziala eta maitasuna

Zenbait kantatan kanpotik datorren mehatxuari aurre egitean sortzen diren dilemak dituzte oinarri kantek. Horietako bat inbaditzaile edo eragin negatibo gisa identifikatutakoek bertako pertsonak seduzitzeko duten gaitasuna da. Korpusean ildo horretako hiru kanta badaude: ‘Haur andaluz bati seaska kanta’ (nortasunari eskainitako atalean aztertuko da), ‘Lore gorrien balada’ eta ‘Otsoak eta txanogorritxu’. Azken bietan emakumeek gorpuzten dute bertakoaren irudia eta haien desioa edo interesa neurtzera gonbidatzen ditu kantak. ‘Lore gorrien balada’ n gizon dirudunak dira limurtzaile eta ‘Otsoak eta Txanogorritxu’ n “otso” kapitalista-inperialista-globalizatzaileak. Bietan bizimodu erosoago baten aurrean amore ez ematea da aholku nagusia. Neskei gazte konprometituen ahalegina kontuan hartzeko eskatzen die lehen diskoko abestiak: “gizonak zeinek maiteko ditu kartzelatik irtetzean”, galdetuz. Espetxetik irteten den pertsonari maitasunez itxarrotearen ideia behin baino gehiagotan

agertzen da bere kantatan. ‘Ez nazazu utzi (I)’ abestian, adibidez, “ez nazazu utzi, ez, nik etzaitut utziko. / Amets egingo duzu illunabarrean / libre jarriko nautela eguna argitzean” dio. Korpusetik kanpoko ‘Espetxeratuaren eskutitza’ abestiak ere antzeko ideia darabil; baina amari zuzentzen zaio batez ere: “Gabon ama, bi hitz bakarrik / berri on bat zuri emateko, / bukatu da gure gau luzea (...) maitatu dut gure aberria / sufritu dut kate lazgarria, / (...) eska iezaeizu aberkide guztiei / indar guziz oihu egin dezaten / denok batera atera gaitezen / zulo hontatik, libre izateko. (Lete, 2006, 128)

‘Aberri ilunaren poema’ ez zaio zehazki konpromiso politikoari lerratzen. Aberria maitatzearen kontzeptuari heltzen dio. Kantan, maitasun korresponditua da aberriarena; baina harreman toxikoa da inondik ere: “puta batek alkola behar duen gisa, / zinema ilun baten ate bazterretik / oinaze ta irainez, gorrotoz beterik” maite dute elkar. Maitasuna eta beharra nahasten ditu kantak eta harreman sadomasokista bat deskribatzen du: “gogoaren kontra / kolpatzen nauzunean arnasa ustelez”, “basa eta zakarra” da aberria berarekin; “badakit eta nola hilko nauzun laister”, esaten dio. Narratzailearen ahotsak ere, erresignazioz errematatzen du bere maitasuna:

Maite zaitut, Euskadi, eta alferrik da
ez zaitudala maite oihukatzen badut
ohera naramazu gauero zurekin
maindire odolduek irentsi nazaten. (Lete, 2006, 62)

4.2.5 Senitarteko eta lagunekiko maitasuna

Leteren miresmen eta maitasun adierazpen sentituenak pertsona zendu ostekoak dira. Horregatik aparteko sail bat egin bada da ere, maitasuna eta heriotzaren azpisail gisa ere ulertu daiteke atal hau. ‘Seaska kanta’ maitasunez betetako kanta da, dudarik gabe; samurtasunez betetako kanta hau sekula izan ez zuten haurrari zuzentzen zaio. Izan ez zuten haurrarekiko nostalgiaz beteta daude bertso hauek. Letek ezohiko babesa eta goxotasuna darabiltza haurraren negar desesperatua isilarazteko *mantra* moduan. Hala ere, bigarren estrofak hasiera bortitza du “zure bular politak / zerrien jostailu”. Esaldi horrek 1974an argitaratu zuen ‘Zakurrek jan bezate’ izeneko poemako “zerrien bazkari bihur dadila” lerroa dakar gogora:

Zakurrek jan bezate
esperantza,
zerrien bazkari bihur dadila
justiziaganako ametsa,
astoek zanpa ditzatela
injenuitatearen loreak,
ziminoek likistuz hondatu daitezela
uste onaren irrifarrak.

Hil bedi siniskeria,
argizarizko hegoen gainean
zankolaka bizi erazten gaituen
nahitasun minberagarri hori.

Horrela
egun oroz izanaz
gizon soil izaten ikasiko dugu,
ezerezaren aurrean
osotasun bilakatuko gara,
horrela
gizon izanaz,
haur jaio berria
bildu eta papertokira bota
basuretara bota
eskuak garbitu
afaltzera joan (1974, 56)

Batetik, haur jaio berria zakarrontzira botatzearen irudi bortitza agertzen da; eta, beste aldetik, animalien irrupzio trakets bat dago edertasunarekin kontrastea egiten duena. Tematikoki ezberdinduriko poemak dira, baina hunkidura sortzeko formula hori bera darabil ‘Seaska kanta’ abestian.

Aitari eskaini zion abestian maitasuna eta errukia nahasten dira, baina bigarrena nagusitzen zaio lehenari. Maitasunari erreferentzia egiten dio: “Urduri, arretaz entsegatu zituzten keinu maitekorrak” dio; baina, batez ere, aitaren langile izaera goresten du Letek, “Langile baten semea naiz ni” dion kantan egiten zuen bezalaxe. Belaunaldien arteko talka eta langileriaren inguruko gogoeta egiten duenez, 4.4 atalean aztertuko da sakonago kanta hau. Arantxa Letek dionez (2021ean egindako elkarrizketa) aita goizean goiz ateratzen zen etxetik eta iluntzera arte ez zen bueltan izaten. Hitz gutxikoa zen, eta ikasgaiak ekintzen bidez, eredu bihurtuta, irakastea zuen atsegin.

Azkenik, ‘Lore bat, zauri bat’ kanta eta Xalbadorri eskainitako bi letrak daude. Hauetan, hizkuntzaren erabilera bat dator maitasun abestietakoekin. Bizitza galtzeko beldurra (“bihotzean azken agurraren beldurra”, bizitzaren aldarria (bizitzaren garrasia”, eta temperatura eta argitasun jokoak “zeinen beltza den ekaitza / zeinen hotza elurra”) bat datoz bikote harremani buruz idatzi ohi zituen maitasun abestiekin.

Xalbadorri eskainitakoetan ez da erotismoaren arrastorik ageri. Gorputzaren aipamen bakarra, hain justu, gorputzaren mugetatik askatzeri buruzkoa da. Beatriz Allenderi buruzko kantak, berriz, erotismo kutsu gehiago du eta gorputza present dago: “gorputz-gogoak”, “gaztetasuna ispiluan mirestu”, “eskuen dardar hautsiak”, “zentzuak (...) askatu”, “gozamenetan hustu”... Letek diskoraturutako kanten artean erotismo maila altuena duen letretako bat da.

4.2.6 Maitasun erromantikoa

Leteren maitasun abesti borobilena ‘Jardin bat zuretzat’ da. Argi eta garbi, maitasun aitortza bat da, erabatekoa. Hala ere, badira maitasun-abesti kategorian eroso kabitzen diren beste lau abesti: ‘Zuk badiozu’, ‘Ez esan maite’, ‘Agian’, ‘Festa bukatzean’ Hauetako gehienak maitasun kontsumituari edo desamodio egoerari buruzkoak dira.

‘Amodio, amore’ ere aurreko kategorian sartzeko modukoa litzateke; baina kasu honetan amodioa bera da gogoetagai. ‘Maiteaz galdezka’-n, berriz, bikotekidearen heriotzak Jainkoarekin elkarrizketa bat abiatzeko aitzakia sortzen du (hori dela-eta sakonago aztertuko da aurrerago).

Pasioa

Ibazabalek bere liburuan Lete aise maitemintzen zela badio ere (2016, 455), desioaren eta pasioaren inguruko aipamen gutxi ditu abestietan. ‘Habenera’-k ere baditu halako zertzelada batzuk: “abanikodun mulatak / gauari haize egiten / musiken aire nagiek / odola erretzen zuten”. Beatriz Allenderi idatzitako kantan ere “Nahiko hunan zentzuak, / lore goiztarren gisan, / zorrik ordaindu gabe / desiotan askatu” oihukatzen du; loreen eta sexuaren irudiak lotuz. Loreak darabiltza Brassensen kanten birkreazioa den ‘San Martin azken larrosa’ abestian ere “Zatoz, maite, ta azken larrosa / moz dezagun elkarrekin, / ez da bihar alferrik

izango / udazkeneko San Martin”. Zahartzaroko azken gozatua hartzeko gonbidapen leuna da Leterena. ‘Henry Millerri eskutitza’ abestia da sexuari zuzenean heltzen dion kanta bakanetako bat; baina ezin esan maitasunaren gaia jorratzen duenik. ‘Teologia, Ideologia’ abestian jatorrizko bekatuaren aipamena egiten du, eta originala leuna bada ere, *Abestitzak eta Poema Kantatuak* liburuan are gehiago leuntzen du esateko modua:

Perfekziozko obra haretan
laister sortu zen nahaspila,
Adan maltzurra abiatzen da
sagar errearen bila.
Lehendabiziko askatu zuen
gerrikoaren hebilla,
Eba ikaraz zegoen baina
bekaturako abila. (Lete, 1978b)

Perfekziozko obra haretan
laister sortu zen nahaspila,
Adan maltzurra abiatzen da
sagar helduren bila.
Lehendabiziko askatu zuen
desioaren kutxatila,
Eba ikaraz zegoen baina
bekaturako abila. (Lete, 2006, 76)

Leteren esaldi erotiko bitxienetakoa ‘Seaska kanta’ n topatu daiteke:

baratz onen erdian
goseak nago ni
zure bular laztanen antsiz
ta egarriz. (Lete, 2006, 49)

1978an Joxe Ramon Belokik *Herri Irratian* egindako elkarrizketan aitortu zuenez nahiko modu surrealistan sortutako kanta da eta Leteren belaunaldiak sexuarekin zuen harremanaren adierazgarri izan daiteke: “Amaren bularra, haurra nola han dagoen, nola gu denok –batez ere gazteak garenean, eta geroago– egoten garen bularrez betetako baratze zabal horren erdian, gosez eta egarriz, gure sexualitatea realizatu nahirik eta xarma bat aurkituz, emakumearen gorputzean”. (Lete, 1978a)

Poema liburuetan erotismoari buruzko erreferentzia gehiago topa daitezke. *Bigarren poema liburuko* poemaz hornitzen den 21 liburuan adibidez, ‘Ezpain gori zabalduetan laztantzean’

izeneko poema jasotzen da (Oteiza et al, 1978, 54): “zure gerri eder zuria zilizioz lotu ondoren / dantza apasionatu batean bilduko gera...” dio oso esplizitua den poema honek.

1971n argitaratutako *Udazkenean* izeneko poema liburuan badauka ‘Zure xamurtasuna’ izeneko poema erotiko bat:

Zure xamurtasunean gora
korritzen ditut
bide extu eta beroak
zeru-lurren muga ameslariak
egan igaroaz.
Austen ditugu lore jostagarriaren
estutasun irripartsuak
eta ez gera gaizki konpontzen
elkarren onduan.

Indarrez libratzen ditugu
errekaren ur kantariak,
eguzkiaren sua
lurraren oparotasun emekorra
aizearen xixtu bizia
eta odolaren eziñegon urduritsuak.

Zugan garbitzen naiz
eta nigan osotzen zera
ezerezetik bizitzara
bein ta berriro berpiztuaz.
Izaten laguntzen nauzu,
eta bizitzaren zurnbilloak nekatuta
itxas baztarrera bitsutsik
botatzen gaituanean,
zure bideetan gora ekitzen diot
argia billatuaz.

Ate miragarriaren maratillak
apurtzen dizkitzut
kiñu laztanean,
eta zure zabaltasun emaroa
bustitzen dut
blai-blai egin artean.

Euri izartsu batean murgiltzen gera
jira-bira ariñean,
eta burruka goxo hortan
gure nekea atsedentzean
ez gera ain gaizki konpontzen,
maite,
elkarren ondoan. (Lete, 1971, 9-10)

Valverderen ahotsean plazaratu zen ‘Bizi nintzen, hiltzen nintzen’ abestian ere bada horrelakorik:

Bizi nintzen, hiltzen nintzen
une bakoitzean,
argia zegoen hori eta zabal
gauza guztietan ezti amildua,
hodeien lasterka
bidaia luzeen gogorapena zen
ordu neutralean,
kaleko soinuek presentzia zuten
kristal orbanduen etxe isilean,
bakarrik nengoen eta, hala ere,
denok zeundeten han nere bazterrean,
zuek ere, banan-banan
algara erodun adoleszenteak,
izara arteko antsia ilunetan
sexoaren printzak oinazetan galduz
maitasun haundi bat
itxaropen gabe
galdetzen zenuten
aingeru basati
orbanik gabeak. (Lete, 2006, 119)

Esplizitutasun mailarik handiena duen kantatako bat argitaragabea da eta ‘Gauze bakardadean’ izena du. Gurrutxagak jaso zuen eta kontatzen duenez ez zuen kaleratu, besteak beste, “txerrikeria” bat zela esanez kargu hartu ziotelako publikotik:

Gauze bakardadean egoten naiz, ni,
ez bazaude zu.
Gauze bakardadean suak hartzen nau
ta behar zaitut.
Zure uretik edan, zure gorputzez ase,
zure bular leunak laztanez bete.
Etzazu ezetz esan, urduri zabiltz, kezkatu.
Zuk ere arratsean desioz beharko nauzu.
Ilunabarreko bakardadean
maitatuko zaitut beso artean,
gozatuko zera joku batean
eder zabaldurik lore artean.
Zure begi urdinak bi izar galdu izango dira.
Zure bular leunak suak harturik lehertuko dira.
Desiozko zeruan ta ni zure barruan
gure sua euriak itzali arte. (Gurrutxaga, 2020a, 503-504)

Bistan da garaiak aldatu direla. Orduko erotismoa plazaratzeko mugak eta gaur egungoak oso ezberdinak dira. Ezaguna da Valverderekina batera antzeztan zuten ‘Maitasunez hil’ abestia ere. Bertan, sedukzioaren porrota erakusten da, behin eta berriz, errukiaren bidez egoera komiko bihurtzeraino:

Hamairu urte nituanian oraindik galtza motxetan,
bere atzetik ibiltzen nintzen herriko kale hotzetan
printsesa hura behar bezela kortejatzeko lotsetan
bere etxera lagundu nahirik eskolatik arratsetan.

O, ez, esaten zuen, oraindik ez, gaztetxo naiz.
O, ez, inola ez, etxera joan behar dut garaiz.

Hemezortzira ailegatuta erromantizismoz beterik
etzen posible eromen hura bazter batera uzterik
aingeru harek etzidan sortzen sufrimentua besterik
sekula ere ez nuen lortu bi besoetan hartzerik.

O, ez, esaten zidan, maitemintzeko gaztea naiz.
O, ez, oraindik ez, lotsa ematen dit ta ez dut nahi.

Lotsaren lotsaz pasa ta gero dozenerdi bat eskutik
pentsatu zuen komeni zela joatea bide estutik
eta nik nola oraindik ere jarraitzen nuen gertutik
esposatzia eskatu nion ez bazitzaion inportik.

O, ez, erantzun zidan, aspertzen nauzu, zoaz apaiz.
O, ez, inola ez, beste batekin ezkontzen naiz.

Festa batean ikusi nuen handik zortzi bat urtera
ta hotz-hotzean ausartu nintzen sagar helduen hartzera
irrifar lizun makur batekin izkutatu zen atzera,
etzen ausartzen bere zezena adarrez adornatzera.

O, ez, ez da posible, horrelakorik ez nuke nahi.
O, ez, inola ez, ni emakume zuzen bat naiz.

Mutilzahartuta bizi nintzela laugarren piso batean
behin, uste gabe, topatu nuen gure etxeko atean...
bere onenak gastatutako alarguna zen artean
eta honela erantzun zidan, oraingoz bion kaltean

O, ez, orain ia ez, nahiz eta zutaz pentsatu maiz.
O, ez, inola ez, oheratzeko hoztua naiz. (Lete, 2006, 122)

Xabier Amurizaren ‘Asteburu aldera’ bertso sortarekin harreman zuzena du Leteren letra honek. Anje Duhaldek 1990ean argitaratutako diskoko kanta ligatu nahi duen pertsona batek jasotako kalabazak kontatzen ditu. Amurizaren letra ordu gutxitako kontakizuna da; Leteren istorioak, berriz, denboran aurrera egiten du bitzita baten garai ezberdinetako oztopoak seinatzeko. Amurizaren kontakizunean protagonistak bilatzen zuena topatzen duen arren, bi kanten arrakasta komunikatiboa galtzaile txikiak bere buruaz barre egiteko duen gaitasunean datza:

“Aizan, hi, ez al huke
ni ezagutu nahi?
ni ezagutu nahi?”
Hura miru-begia
jarri didana, ai!
Ez dit erantzun baina
masailean jo bai
haseratik ezin, ba
dena gerta zelai
hemen behar dena da
ekin eta jarrai.

Beraz, banoa berriz
zoko begirale
zoko begirale
"Ez haut, ba, ezagutzen"
bigarrenak ere.
"Nahi al naun ezagutu?"
nik segidan galde
ez du hitzik atera
bai muzinka alde
masaileko triste bat
ere eman gabe. (Amuriza, 1990)

Modu honetako kantak ezagutzea garrantzitsua da Letek maitasun, sedukzio eta erotismoz kargatutako kantak idazten zituela frogatzen baitute. Sortzen zitzaizkion, baina ez zituen bere diskoetarako hautatzen. Itxuraz, kantagintzari beste funtzio bat aitortzen zion. Horren adibide izan daitezke Iriondorekin plazaratu zuen diskoko ‘Gaua’ eta ‘Festa bukatzean’ abestiak eta baita hark kantatutako ‘Ez nazazu utzi (I)’ abestia ere. Agian artista moduan proiektatu nahi zuen irudiarekin bat ez zetorrenaren sentipena gailentzen zitzaion.

Izatekotan, maitasuna aberriaren edo borrokaren gaiarekin uztartuta jorratzen zuen maitasunaren gaia:

Ez nazazu utzi, nik etzaitut utziko
ez nazazu utzi, ez, nik etzaitut utziko.
Negar egingo duzu illunabarrean
baiñan poztuko zera eguna argitzean.
Ez nazazu utzi...
Amets egingo duzu illunabarrean
libre jarriko nautela eguna argitzean. (Lete eta Iriondo, 1969)

Hipotesi horren aurka, argitu beharra dago *Abestitzak eta Poema Kantatuak* liburuan sartu ‘Gaua’ eta ‘Festa bukatzean’ abestiak sartu zituela; ez, ordea, honako hau.

Erotikoa edo sentsuala zenaz gain, sentimentala zen zatia bistaratzea ere ez zen samurra. Leterentzat bere kantei erreparatzen bazaie. Intelektuala izatearen eta sentimentala izatearen arteko uztarketa gatazkatsua izan baitaiteke:

“Asumir” (no reprimir) la extrema tontería, la tontería desnuda de su discurso, es lo mismo que para el sujeto batailleano desnudarse en un lugar público: es la forma necesaria de lo imposible y de lo soberano : una abyección tal que ningún discurso de la transgresión puede recuperarla y que se expone sin protección al moralismo de la antimoral. (Barthes, 1993, 192)

‘Amodio, amore’

‘Amodio, amore’ abestiak maitasunaren gazi-gozaok erreparatzen ditu. Maitasunaren deskribapen dramatizatutzat har daiteke kanta hau. Guillermina Mottaren ‘Cançó Dels Vells Amants’ abestiarekin lotura bat ezar daiteke biak maitasunaren higadurari buruzkoak diren heinean:

Amor, amor,
meravellós i tendre i dolç amor,
des del matí naixent fins al ponent,
t'estimo encara, ho saps, t'estimo. (1974)

Oiartzueraz, amore emateari “amur” ematea esaten zaio. Leteren kanten bidez egiaztatu daiteke hori. Adibidez, ‘Giza aberea’-n erabiltzen du “amur ematen duen pizti bildurtia” esaldia. Amodioa eskaintzea eta amore ematea nahiko aurkakoak diren bi ekintza dira, baina hoskidetasunaren jokoak erakarrita abiatu zuen kanta Letek. Autoreak frantsesezko *amour* hitzarekin jokatu ordez, italierako *amore*-rekin jokatzeari hobetsi zuen.

Letek, kanta askotan ohi duen bezala, kontzeptuen bi aldeen kontrastea bilatzen du (“gau beltzaren argi, argiaren mindura”), baina ez da orekatua argia eta itzala. Iluntasunean dauden argi bakanak seinalatzen ditu, baina argi horiek sortzen dituzten itzaletan ere erreparatzen du Letek; beraz, kanta honetan maitasunaren ikuspegi nahiko ezkorra ematen du. Kontzeptu bakoitza zenbateraino den baikor eta zenbateraino ezkor eztabaidagarria izan badaiteke ere, saiakera modura, kanta honetako estimulu positibo eta negatiboak seinalatu dira. 13 aipamen positibo eta 23 negatibo zenbatu dira:

Ezin zaitut abestu, amodio, amore - plazeraren altzoan zarelako dolore	+ -
ekaitzaren marru, irriaren tristura	- - + -
gau beltzaren argi, argiaren mindura...	- + + -
sutan daukazulako izotzaren bihotza	+
izozten duzulako eguzki beroena,	-
izanik zu geldoen zauri eragingarri	-
ezin zaitut abestu, amodio, amore.	-

Ezin zaitut aipatu, maitasun neurrigabe	-
mugarik ez duenak ez baita dauka izenik,	
odolaren deiadar oihu gorritz sortua	-
zentzu iratzarrien egunsentiko kea...	+ -
guziaren beharrez eskas zaizun atala	-
poema ilun baten sormenezko lerroa,	- +
nahimenaren makurle, zoriaren keinua	- +
ezin zaitut abestu, amodio eroa.	-

Ezin zaitut abestu, amodio, amore	-
baikortasun itsuan zarelako debeku,	+ -
belazean dagoen lorarik ederrena	+
izotzaren arnasa zelatari ez balitz...	-
oroitzapen ttipien gordekari eta kutxa	+
ezi antsiatuen garraztasun azkena	+ -
desio bakarraren ispilu puskatua	+ -
ezin zaitut abestu, maitasun ukatua.	-

“Ezin zaitut maite”ren (‘Euskalerrri nerea’) oihartzuna den “ezin zaitut abestu”-rekin hasten du kanta. Plazera eta “dolorea” kontrajartzen ditu, marrua eta irria, gaua eta argia, argia eta mindura, sua eta izotza, izotza eta eguzkia. Sekuentziak haur ipuina gogoratzen du nekazariak esnea behiari, behiak belarra nekazariari, belarrak ura hodeiari...

Bigarren bertso honetan maitasun eroa, pasionala deskribatzen du, senak berpiztu dizkiona eta kontrolaezina. Neurririk gabekoa da sentitzen duen maitasuna eta horren ondorioz kosta egiten zaio sentimenduak hitzetara errenditzea.

Azken bertsoan debekatutako maitasun baten berri ematen du. Zailtasun horrek berak harremana ederrago egiten duela kontatzen du: “lorarik ederrena izotzaren arnasa zelatari”. Eta ukazioaren garraztasuna aipatzen du “ispilu puskatu” baten gisa.

Robert Stenberge (1986, 125) dio maitasuna hiru aldeko triangelua dela eta intimitatea, pasioa (erakarpen fisikoa eta emozionala) eta konpromisoa (maitatzeko erabakia, harremana mantentzeko esfortzua) direla bere aldeak. Bertsook har daitezke maitasunaren aldagai hauen deskribapentzat. Lehenak bikotekideen arteko komunikazioa eta konexioa nola hozten den erakusten du, bigarrenak desioa eta idealizazioa ditu ardatz, eta hirugarrenak konpromisoa (konpromisorik ezaren bidez deskribatua). Stenberge dio hiruki honetan alderen bat desorekatzen den aldiro maitasunak forma ezberdinak ematen dituela: adibidez, intimitatea eta pasioa batzen badira, baina konpromisoa falta bada maitasun erromantikoa sortzen da; pasioaren eta konpromisoaren gaintik intimitatea gailentzen bada, berriz, kariñoa deitzen zaio.

Abestia, metrikoki, konplexua da: zortzi lerrotara maketatua dago, baina hamasei lerrokoa ere kontsidera daiteke (hegoaldeko eran emanez gero). Zazpi silabakoak dira lerro gehienak, nahiz eta, tarteka, hankamotzak egin. Silaba murrizketa hori (“ekaitzaren marru”, “gau beltzaren argi”) musikalki babesten du (azken silaban azentua jarritz). Binaka errimatzen ditu puntuak, pareatuak eginaz. Lehen bi puntutan bai, baina ondoren komenentziaz errimatzerantz itzultzen da.

Maitasunaren hasierako desioaren berotasunetik hoztasunerako bidaia seinalatzen du kantak: “izozten duzulako eguzki beroena”. Letek zentzuen esnatzea, naturaren ernetzea eta instintuen indarra kanta bat baino gehiagotan aipatzen ditu: ‘Neguaren zai’-n “eguzki eder joan guzien / argia bait du bihotzak / eta zentzuen mila ernegai / iraganaren oroitzak”; ‘Biographia’-n “iratzartzeak delarik zentzu iratzarrien lorezko baratza”; ‘Lore bat, zauri bat’-en “nahiko hunan zentzuak, lore goiztiarren gisan / zorrik ordaindu gabe desiota askatu”. Bizitzarekin lotura estuan aipatzen ditu beti. “nahimenaren makurlea” da, beraz, maitasun harremana, “desio bakarraren ispilu puskatua”.

Harremanaren iraunkortasunari buruzko mezu positibo gutxi ematen ditu kantak, baina egon badaude: “oroitzapen ttipien gordekari eta kutxa”, adibidez.

Abestiko maitasunaren ikuspegia ez dator guztiz bat Letek elkarriketatzen defendatzen zuen maitasun harreman betiereko eta baldintzarik gabearekin. Esan liteke, beraz, izenburuaren

norabidea indartuz, kanta honek hasierako amodioaren ondoren amore ematen duen bikote harremanari buruzkoa dela.

Leialtasuna ardatz

Gai nagusi gisa leialtasun falta duten zenbait kanta ditu Letek. Bertso librez idatzita dagoen ‘Ez esan, maite’ poemak gizakien ahultasuna eta borondate hauskorra ditu ardatz. Harremanak idealizatzearren arriskuaz dihardu. Ohi bezala, argia eta itzala darabiltza ongiaren eta gaizkiaren edo zuzentasunaren eta akatsaren arteko marra seinatzeko.

‘Agian’ abestiak, berriz, leialtasunak harreman barruan sortzen duen oinazeaz hitz egiten du. ‘Ez esan, maite’ kantan ez bezala, errudun sentipena eta leialtasun falta alde bakarrean kokatzen du:

Agian zuk bazenekien
berak bazekiela
ez zeniola dagoeneko
leialtasunik gordetzen.

Agian berak bazekien
zuk bazenekiela
ordu oroko galderaren
erantzun beti estaliaz.

Orduan udaberriko lore xumeak
ikusten zenituen gauez
mesanotxe gainean
portzelanazko ontzitzoan

Agian berak negar egiten zuen
malko isilez goizaldean
zure lo sorgorak
kulparen angustia estaltzerakoan.

Agian horrela behar zuen izan
isiltasuna, loreak, malkoak
portzelanazko ontzitzoa buruki ondoan,
esker txarraren arauak
bait ditu bizitzak gehienetan
leial irauten dutenentzat. (Lete, 2006, 99)

Bost estrofako egitura du kanta honek. Lau lerrokoak dira denak, azkena izan ezik. Azken honek sei ditu. Azken estrofa hau bi esalditan banatuta dago: lehen lerroa eta azkeneko hirurak

osatzen du zati garrantzitsuena, eta bigarreanean eta hirugarreanean (“isiltasuna, loreak, malkoak, portzelanazko ontzitxoak buruki ondoan”) zerrendatze indartsua egiten du.

Zati guztiak hasten dira hiru silaba ondorengo etenarekin eta anafora “agian X-k” esaldiaren jokoekin osatzen du.

Kontatzen den istorioan bikoteko bat ez zaio fidel besteari eta loreak oparitzen dizkio errudun sentipena arintzeko. Besteak, ordea, susmatzen du gertatzen dena eta sufritzen ari da. Sufrimendu horrek maitasun istorioa mutilatzen du, baina ez da harremana etetera iristen eta biak kondentzen ditu: bata engainatua izatearen oinazera eta besta errudun sentipenera. Korapiloaren irudikapena indartzen du poetak bere buruari zuka idatzita. Letek kasik heriotzara arte garraiatu zuen errudun sentipenaren pisua. Azken urtetan barkatutzat eman zuen bere burua eta horrek sosegua eman zion. Bere azken liburuarekin zor bat kitatu zuela uste zuen Irigarayk (2018). Lete bere ekintzekiko kritiko mintzo zen bizitzako pasarte batzuetan nahiko zukeen mailan ez zela egon irizten zion:

Tipo zuzena izan nahi nuen, eta ez nintzen hain tipo zuzena izan beti. Leialtasunez jokatu nahi izan nuen maite nituenekin eta ez nintzen leiala izan (..) Gauza askoren damua dut. Beti bizi naiz damutzen. Gizakiok ez gara inozenteak. Errorea, errua eta kulpa badaude. (Garzia, 2016, 770)

Interesgarria da portzelanazko ontzitxoaren eta loreen arteko jolasa. Ontzia iraunkor izateko sortua da (nahiz eta hauskortasunaren mehatxua harekin duen); lorea, berriz, iragankorra da eta ureztatu egin behar da. Loreek edertasuna sinbolizatzen dute eta portzelana ere aski ederra izan badaiteke ere, kantu honetan hotz eta bizigabe ageri da “buruki ondoan”, ia buru barruan. Landareriari eskainitako zatian (4.4.2 atalean) ikusiko denez, ‘Lore gorrien balada’-n ere aipatzen dira loreak, opulentziaren sinbolo. Loreak eta maitasuna lotuta doaz, beraz.

Poema honen azken estrofari erreparatu gero, Leteren ohiko formula bat, esateko molde bat, seinlatu daiteke. “Agian horrela behar zuen izan” esaten du abestiak eta *Zeruko Argiako* iritzi artikulu batean oso antzeko esamoldea erabilia zuen aurretik: “Jainkoa; hitz debekatua dirudi gaur eguneko estrukturen barruan. Gure pentsamenduaren eskemak Jainkoa baztertu egin dute, eta, behar bada, horrela behar zuen izan” (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 77).

Letek adierazi zuen abestiok Lurdesi eskainiak daudela. Zerrenda berean kokatzen ditu ‘Zuk badiozu’, ‘Jardin bat zuretzat’ eta ‘Egunsentiko enara ilunak’ ere: “Esango nuke abestitz horietan gauzatzen zirela urte askotako elkarbizitzari zegozkion gogoeta psikologiko eta etikoak. Abesti horiek, nik beti orain arteko testamentutzat hartu izan ditut” (Lete, 2006, 36).

‘Zuk badiozu’ edo gabezien eskaintza

‘Zuk badiozu’ abestian maitale baten purrustadei emandako erantzunak biltzen dira. ‘Maitasunez hil’ abestiaren bertsiio tragikoa litzateke. Ez dirudi, ordea, maitale berri bat seduzitzen saiatzen denik, baizik eta konformagaitz zaion bikotekide bati zuzendua dagoela. Maitasun abesti honetan etenek, egituren errepikapenak eta errimak garrantzia handia dute:

Zuk badiozu nik ez dudala
hitzik, maitea, zuretzat
ezta zuretzat nik ez dudala
maitea, orain hitzikan.
Nik hitzik ez dut aspaldietan
solas gaiztoak baizikan
gastatutako oihal xare bat,
izpiritua hutsikan,
zer dira hitzak, noretzat dira
zuretzat izan ezikan?

Zuk badiozu nik ez dudala
pozik, maitea. zuretzat
ez da zurekin nik ez dudala
maitea, orain pozikan.
Pozek datzaten putzu horretan
ez da aspaldi urikan,
beira guztiak uholde dira
soa amilduz gauzetan
zu urrun zaude, bila noazu
egunsenti ilunetan.

Zuk badiozu nik ez dudala
hitzik, maitea, zuretzat
ez da zuretzat nik ez dudala
maitea orain hitzikan.
Nik ez dut ezer, hori da gauza
ez hitzik, ez etxerikan
ez pentsamendu, ez aberririk
ia ez dut ametsikan:
bizitza baten azken hondarrak
eta zuloak patrikan. (Lete, 2006, 100-101)

Imanol Larzabalek *Jon-etorrian* diskoan argitaratutako ‘Maitiak galdegin zautan’ abesti herrikoia ren letrarekin paralelismoa du abestiak. Bikotekideetako batek zer duen galdetzen du eta besteak gabezia bistaratzen du, baina amaieran buelta ematen dio maitasunak salbatuko dituen esperantzaz:

Maitiak galdegin zautan,
polita nintzanez
polit, polit nintzela baina,
larrua beltz, larrua beltz.

Maitiak galdegin zautan,
premu nintzanez
premu, premu nintzela baina,
etxerik ez, etxerik ez.

Maitiak galdegin zautan,
boltsa banuenez
boltsa, boltsa banuela baina,
dirurik ez, dirurik ez.

Maitiak galdegin zautan,
lana banuenez
lana, lana banuela baina,
gogorik ez, gogorik ez.

Gaixoa, hil behar dugu,
guk biok gosez
gosez, gosez hil behar baina,
elkar maitez, elkar maitez. (1987)

Edukiari erreparatuz, lehen bi bertsoek talde bat osatzen dute. Lehen bertsoaren lehen puntuan hitzak ez izateaz kezu da maitalea, bigarrenean pozik ez jasotzeaz. Bigarren puntuan ezeztatu egiten du hori narratzaileak; eta, hirugarrenean, arrazoi ematen dio. Laugarren puntuetan figura baten bitartez irudikatzen du bere gabezia; eta, bosgarrenetan, duen apurra maitaleari eskaintzeko prest dagoela adierazten du.

Hirugarren bertsoan berriz itzultzen da hitzetara, eta bere gabezien zerrenda egiten du (ez hitzik, ez etxerik, ez pentsamendurik, ez aberririk, ez ametsik), baina bizitza bat daukala eskaintzeko azpimarratzen du.

Metrikari dagokionez, hiru hamarreko handitzat hartu daitezke nahiz eta lizentzia batzuk hartzen dituen errima aldetik. Lehen lerroan hoskidetasuna mantentzen badu ere, ondoren

datorren zortziko handia da ondo errimatzen duena (-ikan). Hiru bertsoak errima “berarekin” osatzen ditu (nahiz eta bigarren bertsoa azken bi puntuetan -ikan errimatzetik -etan errimatzerara pasatzen den). Gipuzkerazko partitiboez baliatzen da Lete gehienetan errimatzeko; horrekin puskatzen duelako, bereziki borobila da azken oineko “patrikan” oina, euskara hain erraza den deklinabide bidezko errimaren errepikapen sentipena uxatu eta amaituaren sentipena indartzen duelako.

Leialtasunaren kontzeptua behin eta berriz da aipagai *Egunsentiaren esku izoztuak*-en. Kantagintzan 4 aldiz zenba daiteke zama handiko kontzeptu hau. Haren antonimoa, traidore hitza, kanta bakarrean (“Malkoak euri balira / udazken traidorean”). Iritzi artikuluetan, ordea, maizago agertzen da. ‘Jakín nahian’ artikuluan egiten duen aipamenak balio dezake leiala izatea Leterentzat zer zen ulertzeko:

Eta orduan, zure hilobia estaliko duen harriaren gainean honako hitz hauek jarriko dituzte: “Hemen lurperatu zuten. Pertsona eta traidore”. Traidore izateak beldur handia ematen zidan. (...) ez dago munduan traidore izan gabe bizitzerik. Ideal bati eusten badiozu, beste bat traizionatuko duzu. Ezkerrera begiratzen baduzu, eskubikoek zuk egindako iruzurraren mina sentituko dute barruan”. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 80)

Figura 18

Lourdes eta Xabier gaztetan eta urte batzuk beranduago



4.2.7 Heriotza

Maitasun harreman baten arrakastatzat hartu ohi da “heriotzak banatu artean” maiteminduta jarraitzea. Gorabeherak izan bazituzten ere maitemindurik iritsi ziren puntu horretara Lete eta

Iriondo. Leteren *Egunsentiaren esku izoztuak* liburua horren adibide da. Torregok, Schopenhauer eta Quevedo zitatu, azpimarratzen du maitasunaren potentzia gorena heriotzarekin aurrez aurre jartzen denean lortzen dela; heriotzatik harago ere maitatzeko bulkada sentitzen denean (Torrego, 1999, 316). Maitatzen den aldiro denborari ihes egiten zaio eta eternitatean sartzen (Gurmendez, 1985, 143 in Torrego, 1999); maitasunak eternitate amestuaren ameskeria sortzen du bikotean. Marcusek ere gauza bertsua adierazten du Erosak bere burua betikotzeko ahalegin etengabekoan diharduela dionean eta grina horri Tanasosen saihestezintasuna gehitzen dionean (1983, 206, 215).

Abestien artean, ‘Jardin bat zuretzat’ nabarmentzen da. Bere bikotekide zenari, Lurdesi, idatzitako lau hamarreko txiki distiratsu dira kanta hau osatzen dutenak. ‘Amodio, amore’-n bezala, gauza onen eta txarren kontrastean oinarritzen du esan-indarra; baina, hartan ez bezala, kontraste horiek elkarrekin gainditu zituztela nabarmentzen da.

Lehenengo eta bigarren bertsoan egitura hori erabiltzen du. Hirugarren, bertsoa da ilunena; Iriondoren heriotzaren mehatxuak sortuko lioken tristura deskribatzen baitu. Azken bertsoan, berriz, eternitatea elkarrekin igarotzeko itxaropena edo zalantza irekia planteatzen du:

Egunak eta gauak uda eta neguak etsipen ilunenak zorion orduak bizitzaren zauriak helburu galduak laztanik xamurrenak bide erratuak elkarren babesean igarotakuak.	Egunsentiko ihintza goizeko loreak itsasoaren hatsa eta koloreak urruneko hiriak lurralde hobeak musika eder baten azken akordeak maitasunezko hitzak barruan gordeak.	Eskutikan hartuta amilduak gera erreka bat bezela menditikan behera: oinazea geurea geurea plazerra, itzal bihurtuko naiz zu galtzen bazera itzalaren itzala ezereza bera.	Mugarik gogorrena, noizpait hil beharra igaro eta gero munduko zeharra: mendabeltxen usaia, zure irrifarra betiko gozatzea nere ametsa da zeruko jardinetan, zerurikan bada. (Lete, 2006, 102-103)
---	---	---	--

Kantak bi bertsoz osatutako bi zati ditu. Lehen bi bertsoan elkarrekin pasatako denboraren deskribapena egiten du. Lehen bertsoan, kontrasteekin, kontrajarritako kontzeptuekin ekiten dio lehen puntutik laugarrenera Letek: “uda eta neguak” eta pilaketa bat osatzen du errepikatan oinarritua, azken lerroan momentu on eta txar horiek guztiak elkarren ondoan igaro dituztela esanez errematatzen du.

Bigarren bertsoan ere egitura bertsua erabiltzen du, baina oraingoan gauza ederren pilaketa nagusitzen zaio kontaketari. Azken puntuan “barruan gorde”-tako maitasun hitzak aipatzen ditu, esaldiak dituen bi interpretazioekin: mimoz mantentzearena eta behar zen garaian esan ez izanarena. Lehenengo hipotesiak indar gehiago du.

Kantaren bigarren zatiak bizitzaren azken fasea maite duen pertsona gabe egin beharrak sortzen zion ezinegonaz hitz egiten du. Hirugarren bertsoan, “erreka”ren aipamena egiten du, bizitzaren joana deskribatzeko. Espainiar literaturaren klasiko bihurtu diren Jorge Manriqueren poemaren oihartzuna dakar.

Nuestras vidas son los ríos
que van a dar en la mar,
que es el morir,
allí van los señoríos
derechos a se acabar
y consumir;
allí los ríos caudales,
allí los otros medianos
y más chicos,
y llegados, son iguales
los que viven por sus manos
y los ricos. (1907)

Erreka hori, ordea, ez da pertsona bakarrarena, bik osatzen dute. Eta horrek baten heriotzaren mina handitu egiten du eta deuseztatu, neurri batean: “itzal bihurtuko naiz zu galtzen bazera / itzalaren itzala, ezereza bera”.

Hölderlinen eragina sumatu daiteke hemen ere. 1795ean argitaratutako eta 2001ean itzultitako filosofo honen *Hyperion* liburuan azaltzen du maitasunaren esentzia ez datzala pertsona bakoitzaren baitan, maite duen pertsonaren baitan baizik. Hala izanik, norbere burua ukatu beharra dauka norbanakoak benetan maitatu nahi badu. Maitatzea, aldi berean, norbere identitatea eta maitalearen ezberdintasuna besarkatzea litzateke; biko osotasunezko unitate bihurtu arte. Horrek eragiten du, lipar batez, gizakia Zerutiarra den zerbaitekin konektatzea (Piulats, 1999, 480). Horregatik, maitalearen heriotzak Lete ere hil egingo luke. Bikoteak jainkozkoa edo zerutiarra den zerbait eraiki du lurrean. Adinaren poderioz maitasuna bulkadaz husten eta esanahiz betetzen dela idatzi zuen Marinak (2005, 21).

Azken bertsoan, hil beharraren tristura aipatzen du; baina aurretik bizi izana azpimarratzen du. Irrifarra-mendabeltza metafora osatzen du eta memoriaren bidez edo betiereko bizitza medio betiko gozatzeko aukera aipatzen du. Dotorezia erabatekoz berbalizatzen du Jainkoaren existentziarekiko dituen mesfidantzak, lehenik zerua ziurtzat emanez eta azken momentuan haren existentziarekiko zalantza agertuz, azken sei silabako zartako baten bidez.

Maitasuna galeraren beldurra da

Maitasunak eta drogekiko mendekotasunak antzerako mekanismoak darabiltzate, neurotransmisore berberak dira lanean jartzen direnak; beraz, sustantzia baten premia eta maite den pertsonaren ausentzia abstinentzia sindrome bertsua eragiteko gai dira. Hala ebatzi zuen Maureirak (2009) bere ikerlan batean. Maite zituen pertsonak galtzeak desasosegua sortzen zion Leteri, eta haien heriotzean edo heriotz atarian argitaratutako kantak maitasun aitortzak dira. Bai bihotza eta bai maitasuna tenperatura jokoekin konbinazioan erabiltzen ditu Letek. Heriotzari eskainitako atalean (4.2 azpiatalean) berriz helduko zaio gaiari.

1966ko abuztuaren 7an, 22 urte besterik ez zituenean, heldu zion gai horri *Zeruko Argian* argitaratutako artikulu batean ‘Maitasuna eta eriotza’ izenburupean, Iriondorekin harremanean hasi berri zela, modu ederrean deskribatu zuen bere bizitzako konstante bat izango zen sentipen oraindik gaztea:

Bakarrik bizi banintz, eta inor maitatuko ez banu, ez litzaidake axolako nire personalitatea egun baten ezerezean itzaltzea. Baina gaur ezin soportatu dut heriotzaren iluntasuna. Ezin dut soportatu nire maitearen begietako distira eta bere ezpainetako irribarrea egunen batean itzali daitezkeela pentsatzea”. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez 2020, 78)

Profetikoa da kontrastatzea nola 1966an, dagoeneko, prosazko formulazioan adierazten duen urte asko beranduago neurri txikian formulatuko zuen ideia bera: “Jainkoa: behar zaitugu! Jauna, Jauna... nire maiteren irribarrea zure besoetan aurkitu dezadala berriro egunen batean” (Perez-Gaztelu eta Saez de Eguilaz-Perez, 2020, 79). Abesti honekin ez ezik ‘Maiteaz galdezka’-rekin ere lotura zuzena du prosaz idatzitako pasarte horrek.

Gaixo bizitzeak heriotzari begietara begiratzeko aukera eman zion Leteri, eta maitasunaren eta heriotzaren artean halako zubi bat zegoela iradokitzen zuen *Zeruko Argian*:

Maitasunak egiten du heriotza ikaragarria, ez besteak. Nik ez dut nahi nire maitea egunen batean ni gabe gelditzea, eta ni bere maitasuna gabe suertatzea. Hori ezin daiteke!
Maitasunak etorkizuna eskatzen du. Horregatik egiten zaigu hain tristea maiteagandik inoiz apartatu beharra, berriro bakarrik gelditzea. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 79)

4.2.8 Ondorioak

Errepaso honetatik ondorioztatu daiteke ez dela Lete maitasunari buruzko kanta asko idatzi dituen poeta. Ez dio, behintzat, gaiari nagusitasunik eman bere diskoetan. Biografiaren bitartez azaldu daiteke horren zergatia: 1965ean ezagutu zuen Lurdes Iriondo Letek. Elkarrekin topo egin baino lehenagotik zuen gustuko. Bere kantak eta bere itxura begiz joak zituen oiartzuarrak aurretik eta Ez Dok Amairuko bileratan guztiz txunditu zuen Usurbilgoak. Iriondok ez zuen harremanik izateko asmorik, bihotzeko patologia bat zuen eta inorekin lotzeko planik ez zuen egin nahi; baina, azkenean, elkarrekin maitemindu ziren (Lete, 2011, 42). Iriondoren gurasoek, familia diruduna izaki, ez zuten ontzat eman artista batekin ezkontzea hasieran. Oztopoz beteriko maitemin fase hura, 1965etik 1968ra oso sutua izan zen; baina fasea bat dator Leteren sorkuntza faserik sozialenarekin eta existentzialenarekin. Lete kritiko zen jendartearekin lerratzen ez zen poetekin eta bere idazlanetan maitasunari espazio gehiago emateak kritikagai zuen eredia gorpuztera bidera zezakeen. Idatzi, ordea, maitasunezko letra asko idatzi zituen. Askotan Lurdesi zuzendutakoak eta hark kantatzeko pentsatuak. Gehienak ez ziren argitaratu: ‘Pagopeko lorea’, ‘Nere loaren ametsean’, ‘Irripar batez bidean gora’, ‘Maitaleak’, ‘Behin batez’ bezalako abestiak, inoiz edo behin jo zituen kantaldietan edo grabatu zituen irratirako baina ez ziren bere diskotara iritsi.

Abandonatutako maitalearen abesti tipikorik apenas entzun litekeen oiartzuarraren ahotsean, ez eta haren esperoan idatzitako kanta etsiturik ere. Estilo horretako kantak idatzi zituen, baina Iriondoren ahotsean plazaratu ziren (‘Gaua’, ‘Ez nazazu utzi (I)’ eta ‘Festa bukatzean’, adibidez). Ondorioztatu liteke letrak behar bezain onak izan arren beste zerbait zela bere ahotsean halakorik argitaratzea eragozten ziona: fribolitatea iruditzen zitzaion agian, edo bere artista izatea gutxituko zuela.

Leterentzat maitasuna argia da, munduko itsuskeria ilun guztien artean ageri den argitasun printza bat. Maitasunak badu instintuekin lotutako fase indartsu bat, eder eta bortitz agertzen dena bere kantatan. Elkarrizketa batean maitasun hau konpultsibo gisan deskribatu zuen

(Lete, 2009), baina ez zuen erabateko maitasun gisa definitzen. Lilura eta jabetzearen prozesua zela irizten zion. Ondoren, maitasun harremana luzatu ahala, maitasuna sentimendu apalagoa bihurtzen zen bere ustez eta aparrik gabeko elkarbizitza bihurtzen da amodioa zeinetara biek amore ematen duten. Aparrik gabeak, ordea, ez du baliorik gabea esan nahi. Letek harremana bizitzarako pakto gisa deskribatu zuen:

32 urte Lurdesekin eman ondoren, elkarri askotan esaten diogu, oraindik elkar maite badugu eta sekula baino gehiago, bidean izan ditugun oztopoak eta konplikazioak eta krisiak eta zailtasunak, horiek ere onerako izango ziren. Eta izango ziren gure harremana depuratzeko, uste eta erromantikokeria eta banitatea eta ameskeria faltsuak erretzeko, garbitzeko eta benetan sentimendu, atxikimenduzko eta solidaritatezko eta elkar laguntzazko sentimendu sakon batera iristeko. (Lete, 2011, 149)

Aipatzen zituen krisien artean tentazioa ageri da; desioa eta erakarpena berpizten duen estimulua. Tentazioa, ordea, ez da bizitza berri baterako alternatiba gisa irakurtzen, ez du oinarrizko harremana hausteko arriskuan jartzen. Lete damu zen maite zituen pertsonekin leial jokatu ez zuen aldiez. Ezkutuko bekatu gisa azaleratzen du hori bere abestietan, eta aldi berean erruduntasun sentipen kristauarekin lotuta: “Egunsentietan kulparen zamak kolpatzen gaituela jakitea, horretaz konturatzea, hori da poesia, eta jakitea maite dugun guzti hura iragankorra dela, hauskorra” dio (Lete, 2011, 67).

Xalbadorren “asko maite duenak / asko sufritzen du” puntua sinatuko luke Letek. Maitasuna “elkarrekin asko sufritu ondoren bi pertsona erabateko eta betiko loturara eramaten dituen” zela esatera iritsi zen (Lete, 2011, 154). Erakarpentetik urrun eta solidaritateetik gertu dagoen sentimendua zen maitasuna Leterentzat. Hark esana da berari kosta egiten zitzaiola poesia baikorra idaztea. Oinazean zetzan beretzat poesiaren iturriak. Maite zituen izaki eta pertsonak heriotzatik ezin libratu izateak angustia sorrarazten zion, baina angustia hori poema bihurtu eta mina arintzeko gai zen. Ziurrenik, hori dela eta dira Leteren maitasun kanta gehienak zendutako pertsonen zuzenduak, minaren bulkadak idaztea errazten ziolako. Sorkuntza sendagai zuen. Agian, horregatik, senitarteko eta lagunei zuzendutako atalak eta heriotza eta maitasunari buruzkoak elkar ukitzen dute.

Stenbergen hirukiaren arabera (intimitatea, pasioa eta konpromisoa) Leteren abestietan emakumeekiko intimitatearen eta pasioaren zantzu gutxi topatu daitezke. Pasio zantzu berezi batzuk topa daitezke Leteren kantetan: sehaska kanta baten barruan bularren erotismoari

buruzko lerroak, edo buruaz beste egin zuen politikariaren potentzial erotikoa ez gozatuaz, adibidez. Kanta erotikoa gehienak diskoratu gabe gelditu ziren. Pasioa eta intimitatea ez; baina beste pertsonarekiko konpromisoa, ordea, kanta askotan agertzen da.

Maitasuna constructo sozial bat dela onartuta eta haren eraikuntza plastikoa dela jakinda, letragileek aberriaren, bizitza bizitzeko ereduaren eta maitasunaren iruditeriaren eraikuntzan duten zeresana handia dela ondorioztatu daiteke. Ez Dok Amairu kolektiboko kideek oraindik ere euskalduntasunaren iruditerian iltzatuta dirauten kantak idatzi zituzten, baina maitasunaren alorrean ez zen mezu subertsibo asko hedatu. Zorionez edo zoritxarrez Letek ez zuen maitasunari buruz zuen ikuspegi osoa zuen ikuspegia lau haizetara zabaldu.

Amatoriaz ez ezik, harremanez, eta harremanez ez ezik, leialtasunaz ere badihardu Letek maitasunaz hitz egiten duenean (Lete, 2011, 153). Adiskideei, lurraldeari eta aberriari lotutako leialtasuna dira bere maitasuna ulertzeko modua. Izatez, aberria bera izan daiteke Leteren maitasun harreman gorena. Zenbait kantatan maitale bat balitz bezala zuzentzen zaio Euskal Herriari: “ezin zaitut maite, / baina non biziko naiz / zugandik aparte?”, “Behar zaitut, Euskadi, desesperatuki”. Politika gaiak maitasun abesti giza mozorrotzea ohiko teknika izan zen zentsura ekiditeko. Letek, ordea, aurkakoa egiten du aberria esplizitatuz.

4.2.9 Erreferentziak

- Amuriza, X. (1990). Asteburu aldera [Abestia]. *Anje Duhalde Amurizaren kantari*. IZ.
- De Armas, I. (1987) Simone de Beauvoir: amar sin ataduras. *Cuadernos Hispanoamericanos*, 449. 35-56 or.
- Barthes, R. (1993). *Fragmentos de un discurso amoroso*. Siglo Veintiuno de España Editores.
- Chevalier, J.; eta Gheerbrant, A. (1996) *Dictionary of symbols*. The penguin.
- Costa, P. O.; Pérez, J. M; eta Tropea, F. (1996). *Tribus urbanas*. Paidós Ibérica.
- Foucault, M. (2007). *Historia de la sexualidad. I La voluntad del saber*. Siglo XXI editores.
- Gartzia, S. (2016). *Hamaika euskal literato eta Jainkoa*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Giddens, A. (1999) *La transformación de la intimidad*. Cátedra.
- Guillén, C. (2001). *Entre el saber y el conocer. Moradas del estudio literario*. Fundación Jorge Guillén.
- Heinrich, D. (1972). Hegel and Hölderlin. *Idealistic studies*, 2(2), 151-173 or.
- Hölderlin, F. (2001). *Hyperion*. Erein.
- Ibarzabal, E. (2016). *Días de ilusión y vértigo 1977-1987*. Erein.
- Kerouac, J. (1997). *Los vagabundos del Dharma*. Anagrama.
- Larzabal, I. (1987) Maitiak galdegin zautan [Abestia]. *Jon-etorrian*. Elkar.
- Lete, X. (d.g.b). Melankoliaren printzesak [Abesti argitaragabea].
- Lete, X (1971). *Udazkenean*. Icharopena.
- Lete, X (1974b). *Bigarren poema liburua*. Gero-Mensajero.
- Lete, X eta Iriondo, L. (1976). *Xabier Lete eta Lurdes Iriondo*. [Diskoa] Edgisa.
http://artxiboa.badok.eus/fitxategia_ikusi.phpid_fitxategia=2024
- Lete, X. (1978a). Leteren kantagintzari buruz egindako elkarrizketa sorta. [Joxe Mari Belokik gidatutako elkarrizketa]. *Herri Irratia*. Lete.¹⁶
- Lete, X. (1978b). *Lore bat, Zauri bat*. Herri Gogoa.
- Lete, X. (2006). *Abestitzak eta Poema Kantatuak*. Elkar.
- Lete, X. (2010b). *Xabier Lete Zuzenean. Erretereria 1999.IX.25. Azken Kontzertua*. A&M Kultur Promotora.

¹⁶ Inazio Mujikak helarazitako elkarrizketaren traskribaketa erabili da. Inoiz argitaratu daitekeen liburu baten zirriborroa da.

- López, E.; eta López, A. (1991). *La imagen del nacionalismo vasco y de la violencia política en el País Vasco en la prensa Americana (Estados Unidos) y La contracultura en España en la segunda mitad de la década de los 70*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Maffi, M. (2009). *La cultura UndergrounD*. Casa editrice Odoia.
- Manrique, J. (1907). *Coplas por la muerte de su padre*. Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes.
http://www.cervantesvirtual.com/obra-visor/obra-completa--0/html/ff6c9480-82b1-11df-acc7-002185ce6064_5.html
- Marcuse, H. (1983). *Eros y civilización*. Sarpe.
- Marina, J. A. (2005). *Ética para náufragos*. Anagrama.
- Maureira, F. (2009). Amor y adicción: comparación de las características neurales y conductuales. *Revista Chilena de Neuropsicología*, 4. 84-90 or.
- Motta, G. (1974). Cançó Dels Vells Amants [Abestia]. *Cançons Que Estimo Per a la Gent Que Estimo*. Edigsa.
- Oteiza, J.; Goikoetxea, T.; Idarreta, S.; Lete, X.; Uriarte, E.; Munarriz, J.; Merino, J. L.; Rincón, L.; Agirre, J.; Artze, J. A.; Zabaleta, Y.; Ojembarrena, E.; Ertzilla, M.; Sanchez, M. Garitaonandia, K.; Irigoien, R.; Lasa, A.; Egillor, J. C.; Zabaleta, P.; Legasse... (1978). *21*. Hordago.
- Perez-Gaztelu, E. eta Saez de Eguilaz, H. (2020). *Zerbitzuko lanean. Lete kazetari, Lete prosagile*. Mugarri.
- Piulats, O. (1999). Identidad y diferencia en la filosofía de la unificación de Hölderlin. *Identidad humana y fin de milenio. Thémata*, 23. 477-486 or. [Online](#).
- Pujante, D. (2006). Sobre un nuevo marco teórico metodológico apropiado a la actual temología comparatista en España. *Hispanic Horizon*, 25. 82-115 or.
- Pujante, D. (2017). *Eros y Tánatos en la cultura occidental. Un estudio de temología comparatista*. Calambur.
- Roszak, Th. (1976). *El nacimiento de una contracultura*. Kairos.
- Stenberg, R. (1986) A triangular theory of love. *Psychological Review*, 93(2). 119-135 or.

Torrego, L. (1999). *Canción de Autor y educación popular (1960-1980)*. Ediciones de la Torre.

Urien, A. (2020). *Poesia zurien ukendu. Xabier Leteren arrastoan*. Pamiela.

4.3 Heriotza

Gaur egun, Euskal Herriko eskelatan gehien ageri den esaldietako bat Letek sortua da: “ez nau izutzen negu hurbilak / udazkeneko beroan, / dakidalako irauten duela orainak ere geroan”. Bere kantagintzan zehar alde ezberdinetatik heltzen dio heriotzaren gaiari oiartzuarrak, eta gai horretan erreferente bihurtu dira bere hitzak euskal literaturan. Letek berak onartu izan du gazte zelarik hark joera suizidak izan zituela, bere “ttipitasunaren kontzientziak birrindu” egiten zuela (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 276).

Segidan heriotza kantagai duten aleen sailkapen bat proposatzen da:

Taula 3

Heriotza soilik edo Eros eta Tanatos

Heriotzari buruzkoak	Maiteen heriotzaz
Sinisten dut	Maiteaz galdezka
Izarren hautsa	Seaska kanta
Ez dut amets handirik	Altzateko jaun
Biographia	Lore bat, zauri bat
Neguaeren zai	Xalbadorren heriotzean (I)
Malkoak euri balira	Xalbadorren heriotzean (II)
	Eskeintza nere aita zenari
	Jardin bat zuretzat

4.3.1 Heriotza, gau hotza

Heriotza eta maitasunaren arteko alderaketa eginda agerian gelditzen da alderantzizko joerak daudela. “Maite” hitza ez bezala, “heriotza” lema ez da bereziki errekurrentea Leteren obran: 13 aldiz erabiltzen du korpus honetan. Horrez gain, hamabi gehi bat aldiz erabiltzen du “hil” aditza (eta launa aldiz “itzali” eta “amildu”). Hala ere, maitasunaren presentzia nahiko apala dela aipatu den bezala, poetaren kantuetan heriotzaren presentzia oso garrantzitsua dela

azpimarratu beharra dago. Bistan da, beraz, bestelako hitzez ere baliatu zela gaiaz mintzatzeko. Kuantitatiboki, seinalatu daiteke, adibidez, 29 aldiz erabiltzen duela “gau” lema, 27 aldiz “lur” eta, hamabi aldiz “begi”; izenondoei dagokienez, bederatzi aldiz ahoskatzen du “ilun” eta bost aldiz “hotz”. Azpimarratu behar da Letek txikitan iluntasunari beldurra ziola, hala baieztatu zuen bere arreba Arantzak (2021). Horrek pentsarazi diezaguke Letek iluntasuna eta heriotzaren arteko lotura errotua zuela.

4.3.2 Jainkoa

Lehen diskotik, amodioa, heriotza eta Jainkoa lotuta agertzen dira eta hala jarraitu zuten bere obra guztian zehar. Hasierako lanetan heriotza kezka existentzial gisa agertzen zen, eta bere gaixotasuna ernamuindu ahala oinazea ukigarri bihurtu zen. Urienen liburuaren tesi nagusia da poesia sufrimendua arintzeko bide izan daitekeela:

Kezka eta ezinegonei erantzuteko saiakerak dira haren poemak, hein handi batean. Izan ere, gaixotasuna ez da barrura begira jartzen gaituen faktore bakarra, badaude gure buruari begiratzera bultzatzen gaituzten bestelako ezinegon batzuk ere. Barrura begiratzekoan sortutako kezka horiek, gaixotasunak zein bestelako ezinegonek eragindakoak, hitzez adieraz daitezke, Leteri berari ikasi diogunez, poesia ikuskera argiago eta zabalago baten bilaketa baita, errealitatearen ikuspegi hedatuago bat ematen duena (Urien, 2020, 34).

Letek 2007ko urtarrilaren 31n emandako hitzaldi batean (“Heriotza bizi. Testigu baten ikuspuntutik”) bizitzaren esanahiari buruzko lau galdera nagusi planteatu zituen: Jainkoa, gizakien arteko maitasuna, giza sufrimendua eta heriotza (Galardi, Arrieta eta Lete, 2007). Leteren hileta elizkizuneko homilian Jose Maria Setien gotzainak lau galdera hauek aipatu zituen eta Lete erantzun propioa ematen saiatu zela nabarmendu zuen. Haien arteko adiskidetasuna medio frogatu ahal izan zeun galdera horiek ez zirela kezka intelektual hutsalak, baizik eta aderez eta sakon bilatu zituela erantzunak modu egiazkoagoan bizi ahal izateko; bere bizi esperientziaren adierazpena iritzi zion (Setien, 2010):

Jainkoaren existentziari buruzko galderari erantzutekoan, Jesusen hitzak gogoratzen ditu: "Ez pentsa munduari bakea ekartzera etorria naizenik; bakea ez, baina banaketa ekartzera etorria naiz" (Mt 10, 34). Eta gogoeta hau egiten du: Bakea ez, baizik gatazka ekartzera etorri zen. Izan ere, Jainkoarekiko atxikimenduak eta haren irudia litzatekeen hurkoarenak kontraesanean jartzen gaituzte mundutartasunarekin, gutasunaren harrokeriekin eta ongizate epel eta egoistenekin. Jainkoarekin ez dago bakerik eta konponbide diplomatikorik. JesuKristoren Jainkoagan sinestea ezin daiteke gure bizitzarekin eta existentziarekin zerikusirik ez duen sinestea izan. (Setien, 2010)

Leteren kristautasuna

Hiru aro garbi gutxienez baditu Leteren sinesmenak: Lehen fasean eliza katolikoari lotuta zegoen haurra izan zen. Hala ere, bertako joera nagusi zelako sentitzen omen zen katoliko; beste leku batean jaio izan balitz beste erlijio bat gurtuko zukeela sinesten zuen. Jainko bakarrean sinesten zuen erlijiotatik apartekoa. Hamazazpi urterekin, ordea, agian kristaua bai; baina katolikoa ez zela pentsatzen zuen.

Gero, erlijioaren praktika bazter utzi zuen. Ez zuela beharrezko iruditu zitzaion. Jainkoan ez sinestera igaro zen 60. hamarkadan eta *Hemen aldizkarian* adierazi zuen hori liberazio handi bat izan zela beretzat: "Jainkorik gabe, ni erabat nire buruaren jabe nintzen, neure erabakien jabe. Askatasun infinitu bat erdietsi banu bezala" (Gartzia, 2016, 739). Beranduago, 90. hamarkadan, Bere altzora itzuli zen berriz. Fase hauek ez dira itxiak, joerari erantzuten diote; baina badira mugarri izan ziren pasarteak.

1985ean itzuli zen sinesmenera eta 1990ean praktikatzera. Berarentzat erlijioa gizona baino haratago dauden indar bati buruz galderak egitea zen (26 or.). Jainkoa traszenditzen duten zerbait da, "gure goitik dagoena" eta aitzaki horrekiko harreman poetiko bat bilatzen hastea. Jainkoaren bilaketa, Leteren kasuan, *poiesis* bat da (grezieraz, "gauzatze oro" esan nahi du. Leterentzat garrantzitsua bihurtu zen otoitz egitea. 1990az geroztik hasi zen berriz otoitz egiten. Leire´ra joaten zen eta hunkituta sentitzen zen bertako otoitzekin. Egunsentiaren esku izoztuak liburuan errezoen aldeko aldarri egiten zuen: "Eta zer, Jainkoa /otoitzekin eraikia / gure biluztasunean baizik ez bazina" (2008a, 147).

Gizarte laikoak Jainko handirik ezean jainko txikiak asmatzen zituela pentsatzen zuen. Giza eskubideak enpirikoki non dauden galdetzen zuen eta gizakumearen fantasiaren asmakizun

bat direla irizten zion. Ez direla biologikoak, bere burua babesteko ideia bat baizik, Jainkoa bezala.

Bere haurtzaroan eragin handia izan zuen kristautasunak. Gaztaroan mundua aldatzeko itxaropenez betetako aroa egokitu zitzaion eta Vatikanoko II. Kontzilioak ere ez zuen guztiz asebate bere belaunaldia. Lertxundik honela deskribatzen du garai hura: “apaiztegiak husten dira, apaiz asko sekularizatzen, mundua ulertzeko irizpideak ez dira erlijioan bilatzen... Jainkoak gero eta presentzia apalagoa zuen errotik aldatzen ari zen bizitza sozialean zein pribatuan” (Zenbait autore, 2020, 14). Igerabidek liburu berean dio, Jainkorik ezean, ‘Altzateko jaun’-en ahotsa gehitu nahi ziola bere kantagintzari “garaiko ikuspegi eta estrategia politiko, kultural eta sozialari dimentsio historiko eta antropologiko askoz ere zabalagoa” eman nahi ziola (2020, 26). Unamunoren kasuan Charles Moellerrek dio haragiaren eta izpirituaren ernatzea batera heldu zitzaizkiola (1964, 76), Leteren kasuan gorputza arima baino lehenago ernatu zitzaioela esan liteke eta gorputzaren apaltzeak ahalbidetu ziola izpirituaren beharrak hautematea.

1989an, ordea, Lete hil ala bizi egon zen eta horrek aldaketa handia eragin zion. Juan Mari Lekuonak oliodurak eman zizkion, hilzorian baitzegoen, Iriondok halaxe nahi izan zuen nahiz eta biak guztiz fededunak ez izan. Orduko hartan heriotzari izkina egin zion eta bizitakoaren ondorioz berreskuratu egin zuten fedea. Ziurrenik inoiz ez zuten erabat galdua, baina ezkutuan praktikatzen zituzten otoitzak; eta pasarte hartatik aurrera espiritualitate hori sekreturik gabe bizitza erabaki zuten. Letek berak aitortu zuen bere alde errezatu zutela jakiteak hunkidura sortu ziola kordea berreskuratu zuenean.

Bizitzeko bigarren aukera hura iraganarekin haustura egiteko momentua izan zen. Euskal Herriaren nortasuna konfiguratzeko deman porrot sentipenari buelta emateko garaia, intelektualki; ordura arteko estiloa birformulatzeko garaia, literarioki. Birsortze horretan inguruan izan zituen pertsona garrantzitsu asko sinestunak ziren eta berak ere hala izan nahi zuela erabaki zuen. Kontsolamendu bera opa zion bere buruari ere. Ilogikoa badirudi ere, lehenago hasi zen otoitzean, sinesten baino. Praktikak eraman zuen federa. Lehen ere, ohituta zegoen Jainkoari hitz egitera.

Oso litekeena da Rainer Maria Rilkeek garai honetan txunditu izana. Antzeko prozesu batetik igaro ostean sumatu baitzuen idazleak goi-arnasa: “mistizismo estetiko eta izpirituaren bilakaeraren ildotiko gizatasuna, alegia; eta gizatasunaren esperientzia hori kristau-sinesmena lora zekion lur egoki(en)a izan zitzaion” (Gartzia, 2016, 759).

1991n, Muruagak egindako elkarrizketa batean, oso argi hitz egin zuen bere orduko fedez:

Azken denbora hauetan gertatzen ari zaidana da —oraindik razionalki ez baldin banaiz agnostiko edo sinisdun bihurtu, bihotzari edo sentimenduari edo intuizioari dagokion aldetik— zalantzan jartzen ari naizela garai bateko nire agnostizismoa. Nik ez dakit Jainkoa zer den, egia esan. Nik Jainkoa izaki bizardun bezala ezin dut ententitu, uste dut ez dela egiazkoa. Ez dut uste ez zeru, ez infernuri egongo denik, besteak beste pentsatzen dudalako gizona aski eskasa eta miserablea dela horrelako sari edo zigorrak merezi ahal izateko. Nik ez dakit guzti hori nola espresa eta irudika daitekeen, baina Jainko edo traszendentzia deitzen den printzipio batetan, ez dakit sinistu egiten dudana, baina kezkatzen nauen zerbait dela egia da. Nigan badago, momentu honetan, halako zera bat, halako bilaketa bat bezala... Materiak bere legeak ditu, eta ez dakit lege horiek norbaitek ezarri dizkion ala ez, baina ezarri baldin badizkio ere, gero materiaren legeak autonomoak dira. Eta gure arrazoia ere, autonomoa da eta librea, eta ni razionalista naiz, eta librementsadorea izan behar dela uste dut. Materialista izaten segitzen dut, eta uste dut hori kontziliatu daitekeela, edo uztartu daitekeela, nahi baldin bada, sinismen edo fede batekin.

Bai Lertxundik eta bai Igerabidek uste dute Letek ez ziola inoiz kristau izateari utzi. Zarauztarrak dio, bere ustez, Leterena Jose Mari Kortazarrek (2008, 179) aipatzen duen konbertsioa baino gehiago “seme prodigoaren itzulera” izan zela, Igerabidek aipatzen duen gisan “duintasun tentez eta jendearen esanen gainetik” :

Jainkoari hain lotsagabe hitz egin zion hura erregutik erlijiora igarotzen ikusteak bat baino gehiago txundi-arrario utziko zuen (...) Mundua bihotzaren bidez xurgatzen zuen Letek (...). Sentitze eta zirrara horien bidez, azkenean haurtzaroko bihotz aratzarekin topo egin zuelakoan nago, eta erlijioa ez zegoen araztasun hartatik urruti (Zenbait autore, 2020, 28-29).

Argiako 2.257. zenbakian, ordea, Letek fedea “erabat galdu” zuela aitortzen du: “arrazoi aldetik, eta psikologikoki ere, iruditu zitzaidan ez nuela horrelako loturarik behar”. Elkarrizketa berean dio susmoa duela Iriondok ez zuela sekula erabat baztertu fedea; eta baieztapen hori singularrean egiteak bere posizionamendua argitzen laguntzen du.

Dena den, Letek sekula ez zuen Jainkoaren existentziaren ziurtasun osorik izan, beti mantendu zuen zalantza hura. Gartzia bildu zuenez, *Euskadi Irratian* egindako elkarrizketan aitortu zuen zaila dela Haren existentziari buruzko ziurtasuna izatea eta *Berriako* elkarrizketan (2009/01/30) berretsi zuen:

Nik uste dut Eliza Katolikoak Akinoko Santo Tomasek Jainkoaren existentzia frogatzen erabili zituen argudioei lotuegia jarraitzen duela, neurri batean. Hori dena azken batean fedetik abiatuta sor daitekeen egitura intelektual bat besterik ez da. Ezin da enpirikoki frogatu Jainkoaren existentzia. (Gartzia, 2016, 748)

Errezatzearen eta errezeitzearen arteko lotura ere egiten zuen Letek, galdetzeko modu bat iruditzen baitzitzaion. Jainkoaren existentzia “susmatuko dugu, baina misterioa ez dugu desestalduko, Jainko ezkutu baten aurpegia ez dugu zuzenean inoiz ikusiko. Horregatik ere esaten dut nik poesia, galdera den neurrian akatamendua ere badela. Bihotzez, eta zinez galdegiten duenak, azkenik akatatu egiten du” (Gartzia, 2016, 779). Hiru errezzatzeko era bereizten zituen Letek:

Bat, errekonozimendukoa, mojak eta fraideek monasterioetan egiten duten, Jainkoa aitortuz eta beren izatea eta espiritua haren eskuetan gomendatuz, eskaerarik egin gabe; beste bat da eskariarena, ohikoena, Jainkoari osasuna, bakea, ingurukoen zoriona edo gisakoak eskatzeko egiten dena; hirugarren otoitz mota norberaren gehiegikerien ezabatzearen aldekoa da, budisten helburua bilatzen duen otoitza. (Zabala, 2004, 37)

2004an egin zituen adierazpenok Letek Pagoartek antolatutako kontzertu baten harira egindako elkarrizketan. Kultur elkarte honek kontzertua antolatu zuen Oiartzungo San Esteban parrokiako organo berezian interpretatua izateko. Ramon Lazkanok Leteren *Zentzu antzaldatu*en liburuko poema bat hartu zuen oinarri egun hartan estreinatu zen konposaketa sortzeko (Martin-Etxebeste, 2004, 5). *Otoitz baten gisan* izenburua hartu zuen ikuskizunak.

Amildegian bizitzea zer denaren erakusgarri, interesgarria da datu hau: hirutan jaso zituen oliodurak Letek: 1989an, 2001ean eta 2010ean.

1991n Jorge Gimenezek *Plazara* aldizkarirako egindako elkarrizketan bere agnostizismoa zalantzan jartzen ari zela aitortu zuen; bere burua materialistatzat definitu zuen Letek eta fede batekin uztargarria zela adierazi:

Gertatzen da materialismo horrek baduela baita ere, alderdi poetiko bat. Ni izadiaren aurrean kontenplatibo jartzen naizenean, urte askoan zehar ez dut sinistu izan Jainkoaren printzipio sortzailearen adierazpen baten aurrean egon naizenik. Izadia, niretzako, materia hutsa zen, baina hain ederra, hain maitagarria, hain hunkigarria, hainbeste kolore eta forma adierazten zituen... Materia hura material poetiko bihurtzen zitzaidan, eta beti izan da horrela. Nik beti sinistu dut gure exaltazio handienak materiatik sortzen direla, harreman fisikoak, sexualak, bihurtzen dira joko mental, sentsibilitate joko, harreman espiritual, baina funtsean, horiek ere materialak dira, eta sortzen dutena exaltazio material bat da, baina gero purifikatzen den zerbait da, eta hor badago dimentsio poetiko bat, estetiko eta espirituala (Lete, 2011, 97-98).

Kristautasuna ez ezik Greziako mitoak ere suma daitezke Leteren obran eta interesgarria da Gartzia (2016, 730) bere liburuan aipatzen duena: modernitateko gizakia sufrimenduaren kontra errebelatu ondoren (Prometeo) konturatu zen oinazea eta frustrazioa ere bizitzaren parte zirela (Sisifo) eta hura leuntzen saiatzen dela; baina ez dela guztiz egingarria. Bizitza iheskorak eta sufrimendua saihestezina izanik, osasun arazoek eraldaketa espirituala ekarri zioten, eta horren jakitun zen bera ere; hala berbalizatu zuen: “hala ere, gehitu behar dut nik ez dudala eskubiderik gaixotasunaren alderdi moralak goraiatzeko, mila bider madarikatu baitut neure egoera. Baina, era berean, aitortu behar dut gaixotasunak erregeneratu egin ninduela” (Gartzia, 2016, 731).

Gartzia laburbildu zuen oinazeak, pozak edo sendotasunak baino gehiago, lagundu ziola Leteri egiara hurbiltzen, gauzen benetako neurria jartzeko baliagarri izan zitzaiola, eta besteekiko beharra onartzeak harremanak zabaltzen lagundu ziola (2016, 70). Heriotzaren beldur eta etsipenetik libratu zituela; eta askatuago sentitu zirela, bizitzaren zama, bere antsia erraldoiekin, arindu zizkiela heriotzaren gertutasunak (2017, 51). Hala ere, kosta egiten zitzaion munduko oinazea eta izaki ahalguztidun baten existentzia uztartzea. Sufrimenduaren irakaspen funtzioa zen bere galdera temati batzuen erantzuna: “beharrezkoa al zen gaizkia eta gaizkiak dakarren sufrimendua? Nondik sortua da gaizkia, funtsezko giza kondizio lehenetik ala gizatasunaren bilakaera aldrebestuetatik? (...) Jainko on eta ahalguztidun batek sortu bagintuen, nolaz onartu zuen gaizkia gizatasunean ezarria egotea?” (Gartzia, 2016, 744).

Fededuna izateak abantaila asko eskaintzen dizkio gaixo dagoen gorputz bati eta halaxe zen Leteren kasuan ere, baina kulpa sentipena ere hauspotzen zion. Dena den, elkarrizketatan aitortzen zuenez, Jainkoaren figura zuen gertukoago elizarena baino. Jainkoa Leterentzat ez

zen dogma bat. Harekin otoitzean eta aldi berean liskarrean bizi zela aitortu zuen *Irulegi irratiko* elkarrizketan (Lete, 2011, 159).

Letren kristautasuna

Ingurune kristau batean jaio zen Lete. Osaba apaiza zuen eta familiak elizara joateko ohitura errotua zuen. Elizkizunetako liturgiak beti erakarri izan zuen. Gaztaroan *praktikantea* izateari utzi zion eta asko urrundu zen mundu horretatik. Bere iruditerian, ordea, eraginak beti izan zuen kabida eta elizatik urrunen zirudienean ere bertako formulazioak suma zitezkeen bere letratan. Ironikoa da hori bere lehen aroan noiz erlijio-instituzioaren aurkako mezua duen mamiak eta mezatako pasarteetan traza formak. *Bigarren poema liburuko* ‘Goldea da beharrezko’ poemaren Genesiaren pasarteak erabiltzen ditu:

Goldea da beharrezko.
Esku sendo zuhurrak
daramaman goldea,
gizon langilearen arnasa bizikorra,
gariaren berotasun oriztatua.
Hazia da beharrezko.
nekazari zailduak zabaltzen duen
euri oparoa,
desioaren sabeletik maitasun orruz
haragi biguina ematen den
ziztada zuria.
Euria da beharrezko.
Eta ardo gorri ilundua.
Eta hitza,
gizonagan jaio baitzen
eta gizonaren iturrietara
uholde bat bezala
itzuliz baitoa.
Itsasoa da beharrezko.
Eta zilarrezko bide iheskorretik
gelditu gabe doan
txalupa kulunkaria...
Goldea da beharrezko (1974b, 71)

1992ko argitalpenetatik aurrera, norantzaz aldatuta, espiritualitateak zentralitatea hartzen du mamian eta formalki kutsu elizkoiko esaldiekin jarraitzen du. *Egunsentiaren esku izoztuak* liburuan, adibidez, ‘Gure aita, zeruetan eta erbestean zarena’ izeneko hau topa liteke:

Gure aita, zeruetan eta erbestean zarena
zer esanen diegu buruan tirokatuei
zer esanen diegu labeetan erretakoei
zer esanen diegu ziegetan lurperatuei
zer esanen diegu torturatuei, ezabatuei,
zer esanen diegu haien ondorengoei
zer esanen diegu historiaren hondakinei,
zu izanik den ororen lehena eta zentzua
zure baitan balego giza-destinoaren giltza
esaiguzu, zer esan behar diegu haiei
iraindutakoei, odoldutakoei, apurtutakoei,
emaigu kaddish baten hitzak
requiem batenak hala behar ezker
esaiguzun non leudekeen errukia, salbabidea
otoitzak, arrenak, doluaren sendagarriak,
adi gauzkazu, adi beti ahuspezkatuak
zure gurutze salbagarriaren aterbe aurrean
gure aita, sufrimenduaren egoitzetan zarena. (Lete, 2008a, 117)

Zenbait kantatan egiten ditu fedearen aipamenak. ‘Herri zahar hontan’ izeneko kantuan, adibidez, “otoitzen gezurra, lanaren nekea” jartzen du jatorrizko bertsoan. Urte dezente beranduago, kristautasunera itzuli ostean, zuzenketa egin zion letrari eta *Abestitzak eta Poema Kantatuak* liburuan “oroitzapenen gezurra”-gatik ordezkatu zuen esaldia (2006, 91). Aipagarria da nola erabiltzen duen Letek bi hitzen arteko hoskidetasuna edo oihartzuna aldaketa ahalik eta samurrena izan dadin jatorrizkora ohitutako entzulearen belarriarentzat. Esanahiaren aldaketa, ordea, indartsua eta esanguratsua da oso.

Heriotzaren presentziak Jainkora hurbildu zuen Lete. Politikan buru-belarri murgildu zen aroaren ondoren, gaixotzea etorri zen eta esperientzia haren bidez berreskuratu zuen fedea. Handik aurrerako bere liburuetan bistakoa da eragin hori edukiaren aldetik. Kantagintzari dagokionez aldaketa ez zen hainbesterakoa izan. Gai zentral moduan ez zuen asko esploratu alor hori eta estilo aldetik aurretik ere bere-berea zen ezaugarri bat zen eliz kutsuko formulak erabiltzearena. Azken batean, garai hartako ahozko eredu kultu garrantzitsuenetako bat zen elizako sermoi eta kantena.

Bere poematan ere maiz topa daitezke formulazio elizkoiak. ‘Hitzak izaten jarrai dezatela’ poema, adibidez, “Hasieran bakardade haundi bat zen” esaldiarekin hasten da (1974b, 49), Bibliako genesiaren pasartea gogorarazten du.

1992an kaleratu zen *Biziaren ikurrak* liburuan (eta haren ongarri izan zen *Zentzu Antzaldatuaren Poemategian*) bistakoa zen erlijioaren eragina. Hala azpimarratu zuen Gerardo Markuletak *El Diario Vasco*ko kritikan (1992). Liburuak otoitzaren egitura, itxitura, eta tonuko poemak biltzen zituela esaten zuen eta, aurreko argitalpenean bezala, jainko kristauaren presentzia oso nabaria dela. Eragin horrek garaiko irakurlearentzat atxikimendu eza ekar zezakeela ere seinalatzen zuen. Munduko erromesaldiaren nekea, heriotzaren hurbiltasun larria, eta poetak arimaren nolabaiteko iraunkortasunean aitortzen dituen sinesteak jarri zituen adibide gisa.

Bizitzaren hondarrean Rilkeren *Orduen liburua* argitaratu zuen. Karlos Jimenez pianoan zuela, autore txekiarraren 30 poema errexitatu zituen kantariak.

Argitalpenaren hazia izan zen ikuskizuna antolatu zuen urte batzuk lehenago Pagoarte elkarteak. Begoña Bergaretxek errexitatzen zituen poemak alemanez.

Aurrerago sakonki aztertuko den gisa, Letek ere bazuen orduekin halako tema bat (ikus, Lete eta Eguneko orduak atala, 4.4.4). Sinbolismoz beteta zeuden berarentzat eguneko orduak eta esanahi zehatza ematen zien egunsentiei eta iluntzeei.

Emanaldiaren harira argitaratutako liburuxkan argitzen du orduen liburuak Erdi Aroan otoitz edo irakurketa bat egiteko lagungarri bezala erabiltzen zirela.

Imanol Irigoien eta Arantxa Iraolak erredaktatutako testuan Letek adierazi zuen Jainkoarekiko galdetze bat dagoela bere testuan eta galdera horiei forma ezberdinak ematen zaizkiola. Momentu hartan Lete pentsaera horretatik gertu sentitzen zela esan zuen: “orain 20 urte ziur aski ez nukeen poesia hori errexitatuko” (Lete, 2001, 25-26). Leteren ustez, Rilkek ez du Jainko handi batez hitz egiten, jainko ahulago bat erakusten du. Argitalpenean dio gizakiaren heriotzarekin jainkoa ere hiltzen dela dirudiela. Rilkek Jainkoa aldameneko gelan dagoela parafraseatzen du Letek, baina tartean dagoen harresia ez dela inoiz eroriko.

Figura 19

Iraola, Imanol Irigoien eta Lete



Oharra: Iturria, Pagoarte elkarte.

Letek elizkizunen edertasun estetikoa gogoratzen zuen haurtzaroan: “Organua, intzentsua, kantak, argiak, zeremoniak, prozesioak... Dena zen oso barrokoa, baina oso ederra”. Hala ere, horri Jainkoaren irudi kastratzailea kontrajartzen zion. Beldurrean oinarritutako jarraipena egiten zion liburuan aitortzen duenez:

“Erljioa gure gazte denboretan oso gauza formalista zen, nahiko itxia. Batetik zeuden dogmak eta bestetik konportaerari zegozkion arauak eta kontrol guztiak. Nik nahiko era irrazionalean bizi izan nuen. Irrazionalki irakasten ziguten erlijioa, irrazionalki hitz egiten zitzaigun Jainkoaz, dena zen irrazionala. Gainera, moraldidearen aldetik guk bizi izan genuen erlijioa gauza itsusia zen, hertsia guztiz, sexuari oso atxikia. Bekatua beti lehen mailan zegoen. Gainera, bekatua ez zen izpirituaren kontrakoa. Ez, ziren bekatu arruntak”. (2011, 36)

Badu haurtzaroko meza haietako liturgia deskribatzen duen poema bat *Bigarren poema liburuan* (1974b, 35):

Meza saindua hasterakoan
hiru apez aldarean
kyrie eleison
argiak eta organoa
meza nagusi saindua
igande orotakoa.
Hiru apez aldarean
elkarren ondoan

Laino santua hedatzen doa
bihotz-animaliak estaltzen
fedea geroz eta beroago
otoitz sutsuak asmatzen
sactificetur nomen tuum
deabru Satanax uxatzen.

Meza saindua aurrera doa

sakristau eta serora
apezgai eta diakonoak
eredo in unum Deum
organoaren arnasa tuberkuloso.

Meza saildua aurrera doa
argi lanbrotan saintu guztiak
hasiak dira dantzatzen
zorabiozko fandango mistikoa
et cum spiritu tuo
bikario jaunaren sermoi predikua.

Intzentsuaren usai gozoa
beste usaiez nahastua
erreberentzia ongi neurtuak
gloria eta kredo
vere dignum et justum est
eta kandela piztuak.

aurrera doa
aurrera doa
ez da sekulan bukatzen,
zintzur batzuk lakartu dira
baina ez dira nekatzen
isildu gabe kantatzen
vere dignum et justum est
sanctifceur nomen tuum
non morietur in aeternum
et cum spiritu tuo..

(allegro in crescentdo
forte
fortissimo)

Ite missa est
Amen!!

Igandeko mezaz gain, eguneroko jardunean ere erakunde kristauen jardunak eragin zuzena izan zuen bere izaeran. Txikitan jasotako tratuak, bekatuaren beldurrak eta errudun sentipenak bizitza osorako markatu zuen. Letek *Bigarren poema liburuko* ale honetan ez zuela horrelakorik barkatuko oihukatu zuen:

Ez dago ahazturik
odol gaziaren usaia,
burni zauritzailearen mistika
ez dago ahazturik.
Juduen oihuak
hereje kixkalduen deiadarrak
heziketa zikiratzaileak
eta horrelako xehetasun jostagarriak
ez daude ahazturik.

Zikiroei
zikiro ospetsu haiei
oroitarazi behar diet
deus ez dagoela ahazturik:
ez dugula barkatzen,
berek barkatzen ez zuten bezela.

Eta kontatuko genukeela.
Esango genituzkeela....
Nahiz isilik egon.
Nahiz isilik egoteko erabaki sendoa
harturik eduki. (1974b, 84)

Bereziki da ederra “barkatu gure zorrak guk ere gure zordunei barkatzen diegunez gero” esaldiaren birformulazioa.

Leteren hitzak elizaren barruan entzuteko parada ere izan zuten zenbait entzule pribilegiatuk. Oiartzungo organorako egindako konposizioa atondu zuen Ramon Lazkanok. 2004ko apirilaren 2an izan zen kontzertua San Esteban parrokian Pagoartek antolatuta. *Zentzu antzaldatu*en poemategia liburutik hartutako poema hau musikatu zuen konpositoreak:

Gorde nazazu, jauna,
gorde nazazu neronengandik
lehenik
beldur handiaren ilunabarrean.

Gorde nazazu, Jauna
hilezkortasunaren
amets arro guzietatik.

Gorde nazazu, Jauna,
ez etsaien ezpata garratzetik
itxaropen izugarri honetatik baizik.

Agian ahazdura da araua, ankerkeriaren miseriek
elikatzen dutelako bihotz beldurtuaren burnizko araua;
begiradaz deuseztatu nahi izan genuelarik begirada
eta hurkoari destainuz itzulerazi norberarekiko gorrotoa.

Gorde nazazu izan nintzen hura
berriro ez izatetik, ezaldakor.

Lazkanok *Oarsoaldeko Hitza*-n (2004/03/31) honakoa adierazi zuen: “Xabierren hitzek nire begietan egia poetikoaren konbikzioa berpizten dute: (...) eszeptizismoaren bidea urratzen du nire gogoan” (Iraola, 2004, 3). Letek dio esperantzaren gehiegikerien aurka Jainko bati eskaera egiten zaiola. Leteren ustez beharrezkoa da esperantza, baina esperantzaren ilusio idealetan bizitzeak oinaze asko ekar dezakeela ere uste du. Itxaropen askorik gabe bizitzeari zentzuzkoago deritzo, norbere buruaren handitasunarekiko esperantzan ibili gabe.

Sufrimenduaren zergatia

Setienek Leteren hiletan aipatu zuen sufrimenduaren zergatia ulertzen saiatu izan zela kantaria eta haren hitzak gogoratu zituen: “Sufrimenduari buruz dio, guk kristau sinestunok ezin dugula onartu manikeoek aldarrikatu zuten onaren eta gaizkiaren banaketa, hori onartuz

gero lurrera letorkeelako erredentzioaren itzaropena”. (Setien, 2010). Letek uste zuen fedea ez duela pertsona baten jokaera guztiz baldintzatzen, baina konbentziturata zegoen zenbait balio lantzeko baliagarri dela:

Pentsatzen dut jendea fededuna izan daitekeela baina oso gaizki portatu daitekeela lasai-lasai; oso krudela eta oso gaiztoa izan daitekeela fededuna izanda ere. Baina sinismena izateak gure bizitzari ezartzen dio errespetuaren dimentsio bat: zerbait errespetatu gu baino handiagoa izan daitekeena. (Lete, 2001, 26)

Errudun sentipenarekin lotuta daude barkamena eta errukia. Letek deskribatu zuen jendarteak afekzio positibo (justizia egarria, auto-errealizazioa eta abar) eta negatiboetan neurtu zituela kontzeptuak; eta ez zegoen ados errukia pietatea eta barkamena zerrenda negatiboan kokatzearekin:

Agian, afekzio positibo horien azken sustentarria egoismoan legoke; eta, beharbada, bestea ere. Bigarrenek badute, ordea, bertute bat lehenengoek ez dutena; ez direla hurkoarentzat hain krudel eta inplakableak. (...) alderdi moral eta psikologiko on bat dutela, pesimismoaren baitan oinarritzen direlako. Pesimismorik gabe ez dago jakituririk. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 284)

Kristautasunerako ibilbide horren adierazgarri da 1991n kaleratutako 'Biographia' izeneko abestia. Kasu horretan heriotza erruduntasun sentipenarekin lotzen du: “Ez du idatziko liburu zaharren mutu eta gorrak, / zorabio batean nahasten direlarik begi hain nabarrak / azken arnasarekin ordainduko ditugu aintzinako zorrak”. Erredentzioa eta errudun sentipena maiz agertzen dira Leteren obran. Zenbaitetan, kasu honetan bezala, sufrimenduak bizitzaren alde onak bistaritzen laguntzen dio: “Nere izatearen ordu ilunenak maite ditut orain / haiek zirelako kontzientziaren ingude garratza” (Lete, 2006, 97).

Oso interesgarria da kanta horretako “Zuhaitz heldua naiz hilobiari itzal isil dagiona” esaldia. Bere eta inguruko heriotzaren kontzientzia azpimarratzeko modu bat da. Zuhaitzak bizidunak dira, baina bizitza pausatua daramate, sosegatua.

Letek sinesmenari buruzko artikulu interesgarria argitaratu zuen 1966an. Hain ohikoa zuen ironia erabili zuen erlijioen absurdua salatzen. Unamunok bezala, sinetsi egin nahi zuela aldarrikatzen zuen “arrazoiarekin, arrazoirik gabe, edo arrazoiaren kontra....!” (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 78). Leteren posizionamenduan Unamunoren

La agonía del cristianismo (1931) eta *San Manuel Bueno, mártir* (1931) liburuen arteko antzekotasunak sumatu daitezke:

Don Manuel, el protagonista de su novela, es un héroe trágico que se debate entre su increencia y su voluntad y necesidad de creer; y la tragedia de don Manuel es la misma tragedia de don Miguel. Su idea es que hay que mantener la ilusión, porque la religión es la única solución contra el sinsentido de la existencia, y la fe la única salvación posible frente a la muerte, el único medio de sobrevivir y sobrevivirse. Don Manuel conoce la falta de sentido de la existencia, cree en la nada, se siente atraído por la eterna quietud del lago (el suicidio, la noluntad o voluntad de no ser). Necesita y quiere creer, pero no puede creer (Mata, 2001, 124)

Letek, hilzorian egon ostean, Jainkoaren existentziaz konbentzitu zuen bere burua eta bistakoa da esperientzia hark izan zuen indar eraldatzailea *Zentzu antzaldatu*en poemategian:

Fatalismoak ez dezan eraman erabateko etsipenera jainkotasuna du deitzen, konbokatzen. haren balizkotasunean da aterbetzen. Berraurkikuntzan sinetsi nahi/beharra, beraz, zalantza eta autotroponpatzeak gorabehera. Egia erran, gizateriak ez du besterik egin bere bilakaera luzean. '// Poesiak ezin heriotza berrerosi, baina bizi-larrimina ezitzen lagun dezake, are liseritzen, besteak beste, min-izu hori exortzizatze aldera, hitz bilakatu. Zenbat eta hitz zehatz eta eraginkorrago, hainbat eta osatzaileago (Irigaray, 2011, 18).

Sebastian Gartzia Leteren dimentsio espirituala ere kontuan hartzeko aldarria egin zuen *Berria egunkarian* 2020ko azken-aurreko egunean. Bere iritiz, bere heriotzaren hamargarren urteurrenean maiz bazter utzitako kontua izan da hori:

Xabierrek, fedea galduta ere, ez zuen inoiz bere burua ateotzat jo. Urte horietan barrena, Xabierrek ez zien inoiz giza eta jainko-misterioei buruzko galderei uko egin. Eta horixe da (Xabierrek dixit) erlijiosoa izateko modu bat: "Erljioa, misterioaren atarirantz begiratzu bizitzea da... Ni agnostiko nintzanean, urte batzuez gustura ibili nintzen harro eta libre, erlijioaren gauza horiek mesprezatzu. Halere, zenbait esparrutan eta zenbait gunetan emozioa senti nezakeen, harridura, lilura, Leireko monastegian, adibidez, monjeek konpletak eta salbea abesten zituztenean. Behin, oroitzen naiz 'Hemen zerbait berezia dago' neure buruari esanez atera nintzela elizatik. Paisaiak ere asko laguntzen zuen, hango isiltasunak, haizearen xistuak, Aragoiko mendien urdin-koloreak". (Gartzia, 2020)

4.3.3 Gizakien arteko maitasuna

Letek kanta gehiago eskaini zizkion maite zituen pertsonen heriotzari bereari baino –“bakarrik etorriko da, zertan kanta heriotza” (Lete, 2006, 79)–. Maite zituenak galtzeko beldurra bistakoa da bere kantatan hasieratik bukaerara. Muguruzak 2009an egindako elkarrizketan aipatu zuen Leterentzat bizitza galera zela, eta azken urtetan idatzi zuen poesia galera horri buruzko hausnarketa izan zela (Lete, 2010a). Askoz lehenagotik, lehen diskoan bertan, 'Maiteaz galdezka' izeneko kanta grabatu zuen. Maite duen baten desagertzeak sortzen dion desasosegua azpimarratzen zuen bertan. Leteren biografiak hobetu egiten du kanta

honen interpretazioa. Azken batean, Lurdesen hauskortasunak aski interpretaziotarako ematen du, baina erlijioarekiko izan zituen hona-harakoek are interesgarriagoa egiten dute kanta honen irakurketa. Heriotza, kanta honetan, aitzakia bat da Jainkoarekin bakarriketa bat sortzeko. Ahalguztidunari kontu eske jardutea Bibliako pasarteekin lotzen du Anjel Lertxundik Balea Zuria argitaletxeak kaleratutako *Urrats urratuak* liburuan (Zenbait autore, 2020, 15), Noe, Job, Habakuk, Jesus eta baita zenbait idazlerekin ere (Goethe, Dostoievski, Unamuno, Gide, Salvatore Mitxelena...). Abestiaren bitartez Jainkoaren koldarkeria salatzen du Letek:

Herenegun goizetik maitea zen hilla,
kalera irten nintzen Jainkoaren bila
enerekin aurrez aurre esplika zedila,
behingoz utzi zezala zeruko isila. (2006, 54)

Jainkoari gizakiekiko distantzia markatzea leporatzen dio: “Jainkoa ez da bizi gizonen onduan, / urruti zegok hura han bere zeruan / gu bakarrik utzirik umezurtz munduan”. Salaketa horrek berak, ordea, Jainko baten existentzia inplikutzen du. Testuak, hala ere, Jainkoaren beraren existentzia zalantzan jarri nahi duela dirudi “Jainkoak (inundikan) ez zidan erantzun” bezalako esaldiekin.

Leteren kezka espiritualak azaltzen dira kanta honetan “gizonok nora goaz mundutik hiltzean?” bezalako esaldi existentzialisten bitartez. Pertsona hil ondoren zer dagoen galdetzen du Letek. Erlijioa kontsolamendu nahi luke; baina sinesteko frogak nahi dituen pertsonaren larruan jartzen da. Posizio horretan gizakia da ahalduntzen dena eta Jainkoa ahultzen. Rilke miresten zuen Letek eta berarenaren antzeko gogoeta bat plazaratzen du: fededunak mantentzen duela Jainkoa bizirik eta hura hiltzen bada Jainkoa ere hiltzen dela. A. Lertxundik beste interpretazio bat iradokitzen du: urrutiramendua ez dela Jainkoarena, Lete eta bere belaunaldiarena baizik (Zenbait autore, 2020, 18).

Heriotzak baino beldur gehiago ematen zion Leteri maite zituenak agurtzeak: “Gaztetan heriotzaz modu harro batean mintzatzen nintzen, estoiko baten itxurak eginez, eta gero jakin nuen heriotza ez zela nire akaberari zegokion arazoa, maite nituenen akaberari zegokiona baizik” (Urien, 2020, 109). *Egunsentiaren esku izoztuak*-en haiei eskainitako atal bat josi zuen, *Joan zirenei* deitutakoa. Bertan aipatzen ditu Xabier Lizardi, Julio Caro Baroja,

Bitoriano Gandiaga, Jexux Artze, Julen Lekuona, Imanol Lartzabal eta Juan Mari Lekuona. Kantuetan ere baditu lagunen agurrari erreferentzia egiten dioten letrak.

Xalbador

Edonoren beldurra da maite dituen pertsonak galtzea, baina Leteren obran bereziki present zegoen sentimendu hori. Xalbador ez zuen lagun mina, baina bere misterioak hunkitzen zuen eta espero baino mingarriagoa izan zitzaion bere heriotza. Bertsolaria hil zenean bi kanta eskaini zizkion oiartzuarrak. Bata aski ezaguna da: bertan, “nun hago?” galdetzen du Letek. Hutsunea bistaratzeko ahalegina dago galderaren atzean. Bestalde, heriotzaren osteko zeruratzean landarez, belarrez eta lorez osatutako ondoren bat irudikatzen du kanta honetan ere “(zein larretan) Urepeleko artzaina”-rentzat. Bere omenaldi egunean zendu zen Xalbador. Azken bertsoa bota gabe utzi zuen ondoezik sentitu zelako eta “azken hatsa huela bertsorik sakoena” idatzi zuen Letek maisuki.

Ezezagunagoa da disko berean argitaratu zuen 'Xalbadorren heriotzean (I)' deiturikoa. Kanta horretan nabarmena da Leterentzat heriotza eta temperatura baxua batera doazen elementuak direla. Gorputz baten hoztea da heriotza, beraz; baina bereziki, elurraren kontzeptua lotu ohi du. Elurrak bizitza estaltzen du eta itxuraldatzen, baina aldi berean hurrengo udaberrirako prestatzen du lurra ziklo berri batean sartzeko:

Teilatuan elurra
Herrian ekaitza
Bihotzean azken agurraren beldurra...
Udazken hotza
Loratzeko ezinak
Bizitzaren garrasia heriotz egina.
(...)
Zeinen beltza den ekaitza
Zeinen hotza elurra
Zeinen deigarri bizitza heriotza honetan. (Lete, 2006, 82)

Aurreko kantaren urte berean argitaratutakoa (1978b) da 'Gauaren ordezkoko eguna' kantua:

Heriotz gorritz hilak izanik lagunak eta kideak.
Nun dira heien itsasontziak, nun pasadizu trebeak,
Beldurra ere ematen baitu joanaz gogoratzeak. (Lete, 2006, 88)

Kasu honetan heriotzak aberkideenak dira eta heriotzak kromatikoki markatuak daude heriotzak naturalak izan ez direla azpimarratzeko. Nahiz eta “lagunak eta kideak” aipatu,

euskal gatazkari eskainitako kantuetan heriotzak urrunagokoak dirudite. Minberagoak dirudite espresuki eresiak idazten zituen kantuetan. Kanta honetan “erreduraren errauts artetik” sortzen ari den loreaz mintzatzen da, birharagitzearen erreferentzia izan daitekeena.

Letek heriotzarekin lotu ohi zuen jaiotza maiz. Zerbaiten suntsiketak beste zerbaiten jaiotza dakar. Materiaren ziklikotasuna azpimarratzen du lehengo kanta berean:

Erreduraren errauts artetik sortzen ari da lorea,
Nahiz oraindikan bere jantziak izan ubel ta morea.
Apaldi ari da margoz apaintzen, ez da jadanik gordea,
Harrizko bere zaintzaile ditu Auñamendi ta Gorbea. (Lete, 2006, 88)

Birharagiztatzeari erreferentzia egiten dio horrela. Bere elkarrizketatan bizitzaren ondorengo bizitzari beldurra aitortzen dio eta Jainkoari eskatzen bere ondoan har dezan, samsararen gurpila etenda.

Aita

Aitari eskainitako zenbait kanta baditu eta eresi bat ere idatzi zuen 1991n. 'Eskaintza, nere aita zenari' izeneko kantak honakoa dio:

Bizidunaren aberri apala gertatzen zaion etxe orokorrean
eresirik gabe hil ziren aurrekoak,
duintasun isilez, harridura gabe zorte bakartian
beren azken orduari destainuz iheska
haiek, denbora ukatu baten kudeatzaileak. (Lete, 2006, 92)

Poema honetan belaunaldi arteko ezberdintasunak azpimarratzen ditu. Heriotzari begiratzeko modu bertsua izanda ere, bizitza bizitzeko filosofia ezberdinak kontrajartzen ditu. Bere aitaren belaunaldikoen artean heriotza erresignazioz onartzeko joera zegoela aipatzen du eta heriotzaren osteko bizidunen zaintza aipatzen du.

Leteren belaunaldiak ez zuen bere aurreko belaunaldiaren euskarazko sorkuntza ezagutzeko paradarik izan beraien gaztaroan. Eduki asko debekatuak izan zituzten eta mundua aldatzeko gogoia zela-eta beste eduki asko ezagutzeko interesa murrizta izan zen. Hala dio Ibarzabalek:

De la misma manera que no sabíamos nada de la literatura de antaño, sabíamos todavía menos de lo que hicieron y, sobre todo, de por qué hicieron lo que hicieron los políticos de la generación que nos precedió. (...) La historia comenzaba con nosotros. Desde cero. Todo estaba mal, todo se había hecho mal y nosotros íbamo a levantar al país de sus cenizas, que era lo único que habíamos podido heredar. (2020, 24)

Beranduago iritsi zitzaion aurreko belaunaldiari begira jarri eta omenaldi bate egiteko premia; dagoeneko belaunaldi gazteagoa haiek egindakoan interesa galtzen ari zenean. Bizitzaren legea da hori.

Lurdes

Maitearen galerari beldurra adierazten duen kantarik ederrena 'Jardin bat zuretzat' izenekoa da: Iriondori idatzitako bertso hunkigarriak dira. Bilintxen bertsoen oihartzunak dituzte hamarreko txiki hauek. Erromantizismotik maitasun handi, baina ez hiperboliko batera darama entzulea: “bizitzaren zauriak, helburu galduak” aipatzen ditu, bizitzaren pasarteekin ekiten dio heriotzarako bideari: “Eskutikan helduta / amilduak gera / erreka bat bezela / menditikan behera”. Kasu honetan bestearen heriotza norberaren deuseztapenarekin lotzen du “itzal bihurtuko naiz / zu joaten bazera”. Eresi aurreratu honen azken bertsoak Leteregan aipatu ditugun dimentsiotako asko biltzen ditu:

Mugarik gogorrena
noizbait hil beharra
igaro eta gero
munduko zeharra:
mendabeltxen usaia
zure irrifarra
berriro gozatzea
nere ametsa da
zeruko jardinetan
zerurikan bada. (Lete, 2006, 102)

Heriotzaren saihestezintasunarekin hasten da bertsoa, “bizitzak heriotza zor” estiloko baieztapenarekin; baina hirugarren puntuan heriotzari buruzko ikuspegi berritzailea plazaratzen du Letek: heriotzak saria dakar aurretik maite duen norbait joan zaionarentzat eta hura berriz ikusteko promesa. Hala, heriotza zigor eta ukendu da aldi berean. Dena den, azkeneko sei silabatan dena hankaz gora jartzea erabakitzen du poetak: “zure irrifarra / berriro gozatzea / nere ametsa da / zeruko jardinetan”; bere idazle ibilbide hasieran Jainkoaren existentzia zalantzan jartzen zuen pertsona berak orain zeruaren ideiak limurtzen

du eta bizi-poza ematen dio heriotzak... baina “zerurikan bada” gehitzen dio eta berriz Lete zalantzatira itzultzen da entzulea.

Letek eta Iriondok maiz hitz egiten zuten heriotzari buruz. Hala aitortu zuen 2006an *Sautrela* telebista programan egindako elkarrizketan:

Lurdesi eta niri lagundu izan digu heriotzaz mintzatu izanak asko, asko eta askotan. Eta saiatu izanak heriotzaren aurrean prestatzen, heriotzarako prestatzen. (...) Asko mintzatzan ginen eta saiatu ginen mintzatzan, denbora aurrera zihoan bezala, ahalik eta serenitate handienarekin eta ahalik eta jarrera baikorrenarekin (Urien, 2020, 105).

Beti atarian zain zeukaten “heriotza nola bizi” zen Letek bere buruari egiten zion galdera: “Giza sentimendu sakon eta hunkigarrien bukaera eta azken mugarri bezala? (...) Jauna, erruki zaitez gutaz, eta elkar mundu honetan maite izan ditugunok ez gaitzazu heriotzaren orduan eta heriotzaren bitartez bereizi; elkar maite izan dugunok elkar maitatzen jarraitu nahi baitugu eternitate osoan” (Galardi, Arrieta eta Lete, 2007, 45).

Heriotzari dagokionez, Lurdesen eta bere heriotza bakarria bailiran tratatu behar dira. Lete arnasa galtzen lehena izan balitz behin hilko zen; eta Lurdes lehenago joan zitzaienez, bi aldiz.

Heriotzari begira bizi ziren Lete Iriondo bizitzako azken urtetan eta elkarren barkamena erdietsi zutela aitortzen du oiartzuarrak. Alde horretatik, maitasun barkatzaileak iragana erredimitu ziola esan liteke (Galardi, Arrieta eta Lete, 2007, 50). Setienek hiletako hitzetara itzuliz, Setienek adierazi zuen maitasuna, barkamena eta Jainkoa lotuta daudela:

Maitasuna posible ote den galderari buruzko erantzuna aurkitu nahi duenean, San Paulok Korintoko kristau-elkarteari egindako gutunera jotzen du. Eta hau dio Xabierrek: Maitasunak erabatekoa behar duela izan aldarrikatzen zien Paulo ibiltariak. Maitasunak dena ulertzen eta barkatzen duela. Horrelako maitasuna posible ote den zalantzaren aurrean, zera aitortzen du: Ez jakituriak, ez mundu honetako ezagutza eta gaitasun guztiek, ez lukete deus balioko, "maitasuna faltako balitzaizu". Hala ere, Jainkoa maitasuna dela esaten du: *Deus caritas est*. (Setien, 2010).

Letek eta Iriondok maiz solastu zuten heriotzaren inguruan eta duintasunez bizi eta duintasunez hiltzea desio zuten:

Gure gizartean, bizia luzatzea helburu bezala hartua izan den eta adin luzeranzko estatistikek pozez betetzen omen gaituzten gizarte honetan, adin heldu horren bizi-tankerak gero eta makurragoak dira. Jende zaharrarekin ez dakigu zer egin, eta zahartzaroa askotan heriotzaren atari oso iluna bihurtzen dugu. Zaharrek, batez ere gutxitzen hasten direnean, -indarrez, osasunez, buruz-, beren lekua galtzen dute gizartean eta munduan. Oso alai esaten dugu zaharrak gizartearen ardurapean jarri behar direla, eta ongizate sozialaren zerbitzuek begiratu dutela haiengatik. Baina egiazko kasuistikari begiratuz, ongi ikus genezake zahar asko episodio gobernazezin gertatzen direla. Egia esan, zahar asko desauziatu eta desgizatu egiten ditugu, bizitza betearen eszenatokietatik boteaz. Ez al da hori bizitzeko eta heriotzara hurbiltzeko modurik triste eta baldarrena? (...) Gure gizartea ez dago egokitua zahar eta gaixoeekin bizitzeko (...) Azken ordua iristean bizitzatik alienatuak etsipenean egunak bukatu beharra, hori oso tristea da. (Galardi, Arrieta eta Lete, 2007, 47)

Marcuseren esanen arabera pertsona batek errepresio gabeko giro batean heriotza liberazio sinbolo gisa hauteman dezake, baldin eta bizitza oso bat bizi izan duela sentitzen badu eta bere unea hautatzeko eskumena badu (1983, 218). Letek hiltzeko autonomiarik eza salatu zuen eta, hala behartuz gero, eutanasiaren alde mintzatu zen publikoki Eliza Katolikoaren Foroetan. Letek ez zuen hil nahi Lurdes “egoera makurrean utzita” (Galardi, Arrieta, Lete, 2007, 206-207).

Ni ziur nago Jainkoak ezin dezakeela nahi beragan sinesten duten maitale leialak elkarrengandik modu txarrean malapartatuak izatea. Fededun bezala iraupenean sinesten baldin badugu, eta beste bizitza batean sinesten badugu, zergatik ez muga elkarrekin igaro? Lourdes eta ni, errukiak eta erresponzabilitateak eramaten gintuen elkarrekin hiltzera desiertzera. Bagenekien hori oso zaila izango zela, gizarteak ez dituelako horretarako prozedurak prestatuak. (...) Bizitzak Jainkoaren dohain argitsu bat behar lukeela izan, eta ez degradaziora kondenatzen gaituen fatalitate fisiko bat. (Galardi, Arrieta eta Lete, 2007, 52)

Iriondok 2005ean, Lete baino bost urte lehenago, alde egin zuen, baina hilurren zela esan zion oraindik ondo zegoela eta zerbait ederra sortu zezan eskatu zion. Promesa horren ondorio da *Egunsentiaren esku izoztuak* liburua.

Bidaide izandako pertsonaren heriotzak beste errealitate bat ere zabaldu zion. Jendarteak hildako pertsonetikiko izaten duen urruntzea:

Hildakoak mundu honetatik desagertu zitzaizkigun, baina ez ziren ezabatuak izan. Eta guk, gure urruntzearekin, ez dugu eskubiderik haien anikilazioa bilatzeko. Ez ditugu hildakoak anikilatu behar. Hildakoen baztertearen tentazio horretatik ihes egitean datza gure leialtasunaren zati handi bat. Hildakoei atxikimendu eta leialtasuna zor diegu, Jainkoak haiekin bilbatuko gaituen arte gu baikara, oroimenaren bizikeraren bitartez, haien nor izatearen sustentarria eta bermea. (Galardi, Arrieta eta Lete, 2007, 53).

Berak hildakoen memoria gordetzea erabaki zuen, eta hori zenbait ekintza bidez gauzatzen zuen: Jainkoaren aurrean otoitzean eginaz, “amultsuki haiekin solatuz, eta hilerrira loreak eta irriak eta negarra eramanez” (Gartzia, 2017, 787). Joandakoen “sustentarrria eta bermea” bizirik geratzen direnak direla uste zuen. Letek, beraz, hildakoekiko harremana mantentzea zuen xede, loreen eta errezoen bidez. Biak uztartzen dituen poema bat irakurri zuen Lourdes Iriondo lorategiaren inaugurazioan:

Eta zer, Jainkoa
gure otoitzean baizik ez bazina,
esku dardaratiak lotzen zaizkionean ikonoari
eta argi batek pixtarazten duenean gauzez
madonnaren irudi sotila.
Hor naukazu zure errukiari atxikia
azken desolaziotik babestua eta salbatua
izan nadila eskatuz.
Zuk dakizu bilatzen zintugula ilunabarrean
mendi urdinsken artean
monje legun kantatzaileek
beraien izpiritu azure altzora zeramatenean.
Biok izan baiginen kontsolamenduan bat
eliz-sabaietaruntz aideratzen ziren kantu ozen haietan
zure urruneko erresumaruntz
izarretatik haratago,
bakez zaudenean oihan hesia eta ibarra
eta gure arima graziaz blaituek
gauaren isiltasun murmuriotsua zutenean zelatatzen. (Sinadurarik gabe, 2006, 7)

4.3.4 Heriotza

'Sinisten dut' abestia, osorik da bizitzari, heriotzari eta fedeari buruzkoa. Diskoan, erreztatuta grabatu zuen. Bistakoa da, gaia eta moldea loturik daudela. Elizako diskurtsoen kutsua erabatekoa da:

Sinisten dut
egun batean hilko naizela
hutsean eroria
ezerezean amildua
hauts bihurtuko naizela.
Sinisten dut
hartuko nauen lur hortatik
landare berriak sortuko direla:
landaretatik zuhaitzak
zuhaitzetatik loreak
loreetatik fruituak
frutuetatik gizonak eta abereak bazkatuko direla.
Sinisten dut
haiek ere noizpait
lurrera deituak izanen direla,
zabaltasun sakonera
forma guztien sortokira itzuliko garela.

Sinisten dut
izaki guztien aldakuntza
etengabea dela,
ixuraldatze sakon batek berbihurtzen gaituela
eta izatetik izate
atsedenik gabeko mugimenduak garamatzala.
Edertasunaren neurri bakarrean
finkatuta bizi behar dugulako
sinisten dut
gainerako neurri guztia
gezurrezkoak direla.
Sinisten dut
kolore zoragarriko larrosen kapulotasun legunean
haize euritsuaren freskotasunean
itsasoaren aldakuntza gazi mugikorretan
eta jakintsuagotzen gaituen zalantza orokorraren baitan. (Lete,2006, 58)

Ikuspegi nahiko panteista duela esan daiteke. Bizitzaren eta materiaren ziklo etengabea deskribatzen du. Bizitzari eta heriotzari begietara begiratzen dion poema bat da honakoa. Hala deskribatu zuen 2018an *Herri Irratian* egin zioten elkarrizketan:

Desegite hori, eta lurrera itzultze hori, nik asumitu egiten dut eta adierazi nahi izan nuen poema honetan; bai, hilko garela, desegingo garela, lurrera itzuliko garela gu garen sustantzi hori guztia sakabanatuko dela, baina era berean, bizitza berrien eta bizigai berrien fermento bat eta material bat badagoela, materialki eta behar baldin bada, espiritualki gure bizitzaren desegite horretan. (Lete, 1978)

Letra bikaina da, baina baliteke Lete hartaz guztiz harro edo asebeteta ez sentitzea. 1974an argitaratu zuen abestia eta 1989an hilurren egon ostean aukera izan zuen letra berreskuratuz,

berridatzi eta berrargitaratzeko. Halaxe egin zuen beste kanta askorekin. Kanta hau, ordea, behin besterik ez zuen grabatu.

Lourdes Otaegik 1974an argitaratu zuen poema liburuko zenbait ale batzen ditu *Materia estelar* izeneko artikuluan. ‘Sinisten dut’, ‘Izarren hautsa’ eta ‘Egun batez’ izeneko poematan naturaren zikloa deskribatzen du eta gizateriaren zikloarekin parekatzen:

En el "Sinisten dut" declara que creen en la incesante sucesión de cambios de todos los seres en que una oscura ley de transformación profunda nos lleva a transmutarnos de ser a ser, que nos transporta en una rueda cuyo movimiento no se detiene jamás y que avanza para volver a la profundidad el espacio y a la fuente de la que surgieron todas las formas existentes. Por ello cree en la belleza como única medida, en la continua mudanza de las cosas y la duda permanente que nos hace más sabios. (Otaegi, 2007, 533)

Pierre Teilhard de Chardin neo-humanistak Leterengan duen eraginaz mintzo da artikuluan: “Trató de conjugar, “una parciación científica de la realidad de la evolución del universo, considerándolo una energía de la naturaleza que genera la cosmogénesis y por otra una visión metafísica de la condición humana” (Otaegi, 2007, 533).

Heriotzak norbere gizatasunaren neurrikoa izan behar zuela aldarrikatu zuen Letek eta bizitzan zehar esan beharrekoak esanda uztearen garrantziaz gogoeta egin:

Heriotzak bizitza bat klausurutzen duenean, apelaziorik gabe egiten du eta luzapen guztiei amaiera ematen die. Eta, orduan, bizirik gelditu dena hasten da heriotza beste modu batera bizitzen, hasten baitzaio oihuka iraganari eta kontzientziaren urradura guztiak jartzen baitira zauritan: nostalgia, pena eta kulpabilitatea (Galardi, Arrieta eta Lete, 2007, 49).

Heriotzaren gaia ondoen lantzen duen kanta 'Neguaren zai' izenekoa da. Autore gutxik deskribatu izan dute heriotza hain dotore. Autoreak heriotza neguarekin ordezkatzeko du eta metaforaren hedapenarekin jarraitzen du kanta guztian zehar. Bizitza gazte uztearen beldurra agerian dago kanta honetan. Bertsoak “ez nau izutzen” edo antzeko aldaeraren bat eginaz hasten baditu ere hain zuen errepikapen temati horrek uzten du bistan badela beldur bat haren atzean. Hala ere, heriotza atsedena da Leterentzat eta nork oroitu izateari garrantzia handia ematen dio:

Ez nau iluntzen baratzatikan
azken loreak biltzeak
muga guzien arrazoi bila
arnas gabe ibiltzeak,
arratsaldeko argi betera
zentzu denak umiltzeak...
atsedenezko loa bait dakar
behin betirako hiltzeak. (Lete, 2006, 94)

Letek, bere kantaren lehen bi puntuei erantzunez honakoa esan zuen 2007an heriotzari buruzko hitzaldi batean:

Nik poeta hari erantzungo nioke ez dela izutzearena arazoa, galera erradikalarena baizik. Erantzungo nioke dialektika poetiko -materialistek kontsolamendu fiktizioak eskaintzen dituztela, ez baitago estoizismoaren baitan heriotzak behin betirako itzalpera eraman dizkigun haiei pozaren eta argiaren printza bakar bat ere eskaintzerik. Norberak onar dezake norbera mundu honetatik ezabatua izatea –azken finean ez da hain zaila, lo hartzearen pareko baita, inoiz ez esnatzeko–, baina maite izan ditugunak eramanak izatea, hori ezin da onartu. (Galardi, Arrieta eta Lete, 2007, 49)

Lau zortziko handitan zehar gaia alde batetik eta bestetik arakatzen du. Erreduantzia bereziak ditu Letek kanta honetan: “Nun dirudien bizirik gabe / natura zabal hilotzak”, adibidez.

Deskantsuaren erreferentzia nabarmenagoa da ‘Giza aberea’ abestian. Heriotzak atsedena dakar, behingoz, neke eternaletik libratu dezakeen bakarra da, liberazioa:

Amets bat berotzeko astirik izan gabe,
iraungo duen egia bat ezin erditurik,
biraoka beteaz bere bakardadea
badoa ta badoa, heriotzaren bila giza aberea. (Lete, 2006, 50)

Negua ez ezik, iluntasuna ere heriotza izan daiteke bere kanta batzuetan: 'Herri zahar hontan' kantuan, adibidez, “Gauerdi isilen ezkila bakarra” aipatzen du bizitzaz betetako “ametsen sukarra” eta “gorputz loratuen” artean. Hasieraren eta amaieraren, oparotasunaren eta zimeltzearen arteko jolasa darabil etengabe kanta honetan:

Denbora lotzen duen orduen gurpila,
Argi azken baten izpi iheskorra
Jarraituko dugun borroka bizia,
Eskeiniko dugun ahalmen guzia,
Azken ordurarte, atsedetik gabe,
Ilunabar arte, anaien ondoan
Herri zahar hontan. (Lete, 2006, 90)

Zenbaitetan bere hitzak beste autore batzuen liburu eta diskoetan topatzen zituen idatzirik Letek. Halako zerbait gertatu zitzaion Jacques Brelen ‘Les vieux’ abestiarekin eta itzultzea erabaki zuen. Kantak maisuki deskribatzen ditu zahartzearen ajeak. Gaixotasunak azkartu egin zuen heriotzaren prozesu naturala: “Adin heldurik aurrera goazenean, zahartzarorantz, oharpenaren kontzientzia izugarri areagotzen da. Konturatzen gera bizitza mugatuz daola, territorioak murrizten doazela –bai fisikoak eta bai emozionalak– eta dekadentzia hori heriotzaren abisu bortitz eta erabatekoa dela” (Galardi, Arrieta eta Lete, 2007, 46).

Hilko garelako, bizi

‘Cançó a Catalunya’ abestiak “zure itzalak uxatzen dit heriotzaren beldurra” aldarrikatzen du. Desagertzeko arriskuan dauden bi kulturek nola elkarri bizirauten lagundu diezaioketen erakutsi nahian. Jatorrizko ‘Ez dut amets haundirik’ abestiak heriotza aipagai du, baina hedonismo gehiagoz mintzo da. Bizitzari kontrajartzeko elementu bat da heriotza eta hain justu hartaz gozatzeko motibo:

(...) Bizitza maite dut, baina
ez dut alferrik gastatzen
eguneroko lorea
egarriz baitut dastatzen.

Nik ez dut ehortze ondoko
omenaldirik desio
bizitzaren etsai denez
gorrotatzen dut herio.
Ez dut nahi herri zahar baten
agoni kanpairik entzun
alferrik da bihozkadaz
egoerari erantzun.
Lur bortitz honen azpian
hobeagorik ez dago
handik berriz itzultzerik
ez da asmatu oraino. (Lete, 2006, 79)

Azken bertso honen azken aurreko puntuak seinalatzen du Letek ez zuela kristautasunaren hil ondorengo bizitza hobe batek limurtzen garai honetan. *Carpe diem* filosofiari heltzen dio bete-betean. Kontrakulturaren ezaugarrietako bat da orainean fokalizatzeko joera hau (López eta López, 1991, 202).

Hilko garelako, ez hil

Hala ere, kanta honetan bizitzaren balioa goratzen badu, ziurrenik Euskal Herrian urte horietan heriotzaren exaltazioa egitearen erreakzio gisa goratzen du. Ez zegoen ez herriaren eta ez beste ezeren alde bizitza ematearen alde, eta are gutxiago kentzearen alde (Lete, 2011, 100). Diskurtso hori deslegitimatzeko helburua du kanta honen letrak. Hipotesi hori indartzen du letra *Abestizak eta Poema Kantatuak* libururako egokitu zuen moduak (4.5.3 puntuan aztertuko da sakonago):

Ez dut amets haundirik

Nik ez dut amets haundirik, zeru ederrik eskeintzen,
etsipenaren mugetan zuekin nago bizitzen.
Nik ez dut solas lodirik etorkizunaz egiten,
bat-bateko librakuntzaz ez dut aspaldi sinisten.
Bizitza maite dut, baina ez dut alferrik gastatzen
eguneroko lorea egarriz baitut dastatzen.

Nik ez dut ehortze ondoko omenaldirik desio
bizitzaren etsai denez gorrotatzen dut herio.
Ez dut nahi herri zahar baten agoni kanpairik
entzun
alferrik da bihozkadaz egoerari erantzun.
Lur bortitz honen azpian hobeagorik ez dago
handik berriz itzultzerik ez da asmatu oraino.

Zergatik kale erdian ipuin erorik kontatu,
bizitza merezi duen gazte ederrik hondatu.
Uste onaren emaitzak gau beltzak ditu urratu,
hobe da etorkizuna adimentsuki moldatu.
Eguneroko fruituaz eskuak bete ditzagun
alferrik da bihozkadaz egoerari erantzun.

Nik ez dut amets haundirik
(Ahopez kantatzeko letaniak)

Nik ez dut amets haundirik, zeru ederrik eskeintzen,
etsipenaren mugetan zuekin nago bizitzen.
Nik ez dut solas lodirik etorkizunaz egiten,
bat-bateko librakuntzaz ez dut aspaldi sinisten.
Bizitza maite dut, baina ez dut alferrik gastatzen
eguneroko lorea egarriz baitut dastatzen.

Nik ez dut ehortze ondoko omenaldirik desio
bizitzaren etsai denez gorrotatzen dut herio.
Ez dut nahi herri zahar baten agoni kanpairik
entzun
ezin diot galerari odolarekin erantzun.
Lur bortitz honen azpian hobeagorik ez dago
handik berriz itzultzerik ez da asmatu oraino.

Zergatik kale erdian ipuin zoroak kontatu,
bizitza merezi zuten gazte ederrak hondatu.
Eguneroko fruituez bete nahi nuke bihotza
bakarrik etorriko da, zertan kanta heriotza.
Nik ez dut amets handirik, zeru ederrik eskeintzen
herri honen karriketan zuekin naiz bizi ta hiltzen.

Anbiguitate politikoak gutxitzera jo zuen Letek bere kantagintzan. Izan ere, bere lehen diskoko ‘Euskalerra nerea’ abestiko azken lerroak lanaren osteko atsedena goraiatzeaz gain,

si vis pacem para bellum-en antzeko gogoeta bat ekar dezake gogora. Justiziaz eta lan klandestinoaz mintzo da eta heriotzak bakez beteko duela gehitzen du. Horregatik, ziurrenik, Letek, *Abestitzak eta Poema Kantatuak*-en paragrafo hori berridaztea erabaki zuen:

Egun bakoitzak badu bere zeregina,
justiziko bide bat denontzat berdina.
Denon artean izanikan
ezin ukatu gure lanikan.
Illunpetako jarduna
heriotzak pakez beteko duna.

Egun bakoitzak badu bere zeregina,
ekintzetan gauzatzen da bizitzaren grina...
errespetata bizia, elkarri merezia,
guztiok berdinak gera:
hauskorrak, hilkorrek azkenean.

Aipatutako “errespetata bizia” horri garrantzia handia eman zion Igerabidek *Urrats urratuak* liburuan. Donostiako Antzoki Zaharrean izan zen emanaldian Lete gozo kantari gogoratzen du idazleak:

Xuxurlan hasi zen emanaldia, kantu molde hunkigarrian, ahots unatuaz baina inoiz baino sentikorragoaz. Tarteka, intziren bat, tarteka erregu-tonua. Une batez, intzeria gailendu zen airean, entzuleak elektrizaturik uzterainokoa, kantaren zatiño bat lelo-intziri bihurturik: "Errespetata bizia, errespetata bizia,..." Ez dakit zenbat bider errepikatu zuen. Nire baitan intziri hark eternitatea bat iraun zuen errepika haien, gure arteko bortxakeriak bezainbat denbora. Erregua. Erregua. (Zenbait autore, 2020, 48)

‘Haizea dator ifarraldetik’-en ere badago erahilketen aipamen bat: “Itzal gaiztoak isurtzen dira mendi hegaletan behera, / argi apalak badoaz laister bat-batean itzaltzera. / Izan zehatzak uzten ditugu erortzen zulo beltzera / prestatzen gera etxe hustua arrotz guztiei saltzera”. Heriotzak baimentzearen edo konplize izatearen aurka mintzo da Lete interpretazio baten arabera.

'Habanera' abestian ere bi zortzi silabakotan primeran laburbiltzen du bizi-ikuspegia: “Jaio ginen, bizi gera, ez dugu ezer eskatzen”.

Bizitza gozatu beharraz mintzo da Lete. Heriotzaren gertutasunak bizitzaren beraren kontzientzia sakonagoa eman zion. Bizitza gozakaitz batek, helbururik eta pasiorik gabeko bizitza batek ez zuela merezi adierazi zuen 'Giza aberea' abestian:

(...)

“Begiak lurean ta ezer ikusi gabe
sudurrarekin usman usai txar bat irentsiz,
bihotz ustel usaia, odol ustel usaia
badoa ta badoa giza aberea.

(...)

Amets bat berotzeko astirik izan gabe,
iraungo duen egia bat ezin erditurik,
biraoka beteaz bere bakardadea
badoa ta badoa, heriotzaren billa giza aberea”.

Heriotza urrun dagoenean

Tarteka heriotza besterena izan da bere obran, aparteagokoa, eta errepresioaren adar bat gehiago bezala agertu izan da. 'Chile' izeneko kantaren kasua litzateke:

Zail da onartzen egia,
zail da estaltzen odola
zail da hilak berpiztea kaletan,
zail da, zail da bizitzea,
zail da, zail da sufritzea holakoetan,
zail da hari eten hori, zail, lotu nahi izatea
zail hilobiak eraikitzea bihotzetan. (Lete, 2006, 80)

Kasu horietan ez dago heriotzaren beraren irakurketarik. Ekintza da axola zaiona eta eragin duena salatzea du helburu kantak.

Lore Bat, Zauri Bat diskoari izena ematen dion kantak ere elkartasun kontzeptuarekin lotzen du heriotza. Beatriz Allenderi zuzentzen zaio: “Hire aitaren heriotz hura / Bilakatu zain orain heriotz”. 1977ko Allenderen heriotzak sakonki markatu zuen Lete eta kantu hau eskaini zion:

Har zan atsedean betiko loan,
Gu gaitun orain mendekatzaile
Heriotz horren mezu gogorrik
Ez baitinagu inoiz ahaztuko. (Lete, 2006, 81)

Baliteke urte haietan jasandako errepresioa emakume harengan gorpuztuta ikusi izana. Letek maiz bizitzaz hitz egiten zuen heriotzaz mintzatzeko, kanta honetan oso bistakoa da: “Hari mehe bat hunan bizitza / Urratua dun keinu bortitzez”, “bizi baihintzean deserri hortan.”Nahiko hunan gaur ere / Bizitzaren kaliza / Ardo gorritz beterik / Gozamenetan hustu”.

Bizitzaren sufrimenduaren eta heriotzaren sosegua parekatzeko joera zuen Letek. 'Nafarroa, arragoa' abestian odola, zauriaren eta luzapenez heriotzaren, kontrajartzea egiten du iturri biziarekiko:

Nafarroa, Nafarroa, zuhur eta eroa,
lurrik maitatuena, hormarik gabe utzitako etxea,
erreka gardenen negarrez ibai lodietara
ixurtzen ari den odol bustikorraren iturri bizia. (Lete, 2006, 61)

Gaiarekiko zuen interesaren erakusgarri, Pavesseroen abesti bat ere bertsionatu zuen. 'Heriotzaren begiak' izena du kantak: "Etorriko da zure soaz heriotza / gor, logabe, ahaldura zaharren gisa".

Azken hatsa

Bizitza guztian atzetik izan zuen heriotza Letek. Haren edertasuna miretsi zuen, haren krudeltasuna salatu indarkeriaren ondorio zenean, hara iritsi arteko sufrimendua deskribatu zuen, eta hura iritsi aurretik zegoen bizitzari heldu zion pasioz. Letek heriotzai buruz egindako gogoeta batekin bukatzen da honako azterketa:

Heriotza ez da gertakizun edo arazo isolatu bat gizakumearen bizitzan. Beste zenbait bizikizun eta kategoriei loturik legoke. Heriotzak badu zerikusia gu izan garen guztiarekin: sentimenduekin, atxikimenduekin, sineskizunekin. Heriotza, gertakizun bezala, bizitza bat klausuratan duen une guztiz berezia da, bikoiztu ezina. Eta trantsitu horretarako prestakizunetan gure izatearen beste ezaugarri guztiak hartzen dute parte. Ez gara hutsetik hutsera hiltzen, izate existentzialetik, mugaz haraindiko misterio batera baizik" (Lete, 2011, 206).

Ideologikoki zenbait urtetan kristautasunaren aurka posizionatu izan baziren ere, heriotzaren gertukotasunak eta gaixo kronikoaren bizitzak fedea indartu zien Iriondo eta Leteri. Garai hartan oiartzuarra ospitalean hil edo bizi zegoela Juan Mari Lekuona apaizari hots egin zion Iriondok oliodurak eman ziezaizkion.

Esan dezagun, beraz, Iriondoren irudia maitasunari eta zaintzari lotuta egon zela Leterentzat eta heriotzaren gertutasunak harreman zuzena izan zuela bien kristautasunaren berhartzearekin.

2010eko abenduaren 4ean hil zen Lete, ostiralez, bere gaixotasunaren ondorioz, bi egun ospitalean larri igaro ostean.

Leteren oroiminezko mezan Felix Zubia mediku eta adiskideak bi bertso kantatu zizkion. Haietako lehenengoan kantariaren ahotsa bere egin zuen eta harekin denbora asko pasatzen zuenez litekeena da Letek esan nahi zuenaren oso gertuko zerbait transmititu izana:

"Ez nau izutzen", esan zenigun
begietara begira.
"Negua dator nere albora,
bukatu da nere bira.
Gustora noa bake-bakean
Lourdes dagoen tokira,
nerekin dago, soma dezaket,
irripar batez ari da". (Zubia, 2010)

Leteren beste adiskide handi batek, Atxagak, hil zenean zenean poema bat idatzi zion. Gurrutxagak jaso zuen *Caravansari* aldizkariaren 6. alean. Luzea izan arren, atal hau ixteko bereziki interesgarria delakoan lanari eransten diogu:

Figura 20

Atxaga eta Lete



Zeinek esan behar zigun guri, Lete
trumoia bezala ibiltzen hintzen hori,
dena bizar kizkur eta ile kalpar
eta oihuka, Txano Gorritxori deika
benetako Otsoa uh uh uh uh uh
hik herorrek ematen huela...
zeinek esan behar zigun hari bat,
urrezko hari bat zela hire muin,
armiarma sareetako bezain mehe,
eta hari horrekin, urregin batek bezala,
urreginaren esku eta gai aldi berean,
hire heriotzarako azken 5.000 egunak
josi behar hituela poliki-poliki
harik eta dena amaitu arte.
Lore artean ikusi hindugun etzanda.
In manos tuas, Domine.
Lore artean hengoan etzanda
leiho handiko gelatxo batean,
eta inguruan adiskideak,
batzuetan urduri barrezka.
Gizon gazte bat, xuxurlaka,
hire liburu bat irakurtzen ari zuan
otoitzean bezala.
Neska batek, hirekin behin
Alkizako errepidean egokitu
eta Heriotzaz hitz egin zuenak
hala nola baserritar batek
beste baserritar batekin
eguraldiaz edo azokan ikusitakoaz;
neska hark, Lete, negar egiten zian hiregatik,
eta beragatik, eta denongatik.
Joan egin ninduan
jende artetik kale bakartira:
neguko arrats isilean
uhuriak sentitu nizkian,
uhurika ari zuan otso bat
uh uh uh uh mendian.
Joan ninduan mendira,
sartu ninduan basora,
Otsoa hizketan hasi zuan:
“Zertan da Xabier Lete lehena?”
Lore artean etzanda hengoela
esan nioan, 5.000 egunen buruan
bake-bakean ematen huela.
Eta urregina ere aipatu nian,
5.000 egun haien urreaz
argitasun bat sortu zela aretoan.
“Eta jenderik izan al du?”
galdetu zian uh uh uh Otsoak.
“Aretoa beteta zegoan”, erantzun nioan.

Bera ere kantari hasi zuan orduan,
trumoi ahotsez, dena bizar eta ile kalpar:
“Etxetikan lanera noa nahiko mantso,
Realak cuatro uno galdu zuen atzo”.
“Ba, jakin ezak —moztu nioan—
Realaren partiduan minutuko isilaldia
egin zutela Xabier Lete Lehenaren omenez.”
Eta esan zian berak: “Ba, jakin izatera,
Uh uh uh uh, irabazle jarriko nian,
Realak cuatro uno irabazi zuen atzo,
eta hor konpon neurriak eta neurri-ondoak”.
Konturatu ninduan orduan Otsoa eta hi,
5.000 egun urrezko hariz jositakoa,
bat zinetela, auskalo nola.
In manus tuas, Domine,
zure eskuetan, Jauna...
Mikel Laboa gogoan hartu
eta hire azken liburuko
197. orrialdeko poeman
in manos tuas, Domine irakurtzean,
hunkitu egin hintzen, Lete.
Eta ulertzen haugu,
nola ez haugu ba ulertuko?
Gu bezalakoak, herri ttikietako umeak,
idiak beren gurdiekin kale nagusitik
pasatzen ziren garaian jaioak,
behiei begira egoten ginenak
hiltegiara zeramatzatenean
soka batez lotuta kale nagusi beretik,
eta haiek harri pinporrean utzitako pustiletan
txorientzako zepoak jartzen genituenak,
guk, gu bezalakoek, herri ttikietako umeek,
bihotzean itsatsita zeramaagu Beste Leku hura,
harrizko murru sendoek babeste zutena,
non nahasten ziren intsentsuaren eta ezkoaren
usainak, eta batzuetan baita arrosarena ere;
non ontziak urrezkoak ziren, non hizkuntza
Virgiliorenaren berbera zen, in manos tuas,
Domine...
Nola ez haugu ba ulertuko?
Beste Leku horretan nahi izan huen
hire 5.000 egunetako azken jostura egin,
eta zer poza izango zen hiretzat,
egia bada hik herorrek
Xabier Lete Lehen horrek
sinisten huena,
zer poza izango zen hiretzat
dena lorez inguratua egotea,
eta soinu-jolea doi-doi jotzen,
eta urrezko hari bat airean:

“Inor mozkortu al da?” berak.
Eta ezezkoa eman nionean:
“Xabier Lete Lehenak ez dik beraz
ardotan gastatu nahi izan!”
Eta jarraitu zian Otsoak, hasperen eginez:
“Errebindikatu al du inork ezer?
Baliatu al da inor aukeraz,
demagun, euskararen ofizialtasuna
Obanosen edo Zangozan eskatzeko?”
Zer esan ez nekiela gelditu ninduan.
Otsoak uh uh uh barre algara egin zian.
“Zein haiz hi, ordea?, galdetu nioan.
Eta berak, “Ni? Xabier Lete Bigarrena!”
Astebete geroago han ninduan ostera,
mendian, basoan, Otsoarekin.
Esan nahi baita Xabier Lete Bigarrenarekin.
Hire heriotzaren inguruko mezak,
hitzaldiak, artikulua aipatu nizkioan,
eta hire zenbat kanta jarri zituzten irratian.

“Izotz-ondoko eguzki,
Neguaren barre...”
Ulertzen haugu. Nola ez, ba?
Baina hik ere ulertu beharko duk,
eta ez bakarrik otsailean ari naizelako,
Otsoaren alde jartzea,
eta egloga bat bezala hasi den gorazarre hau,
“Zeinek esan behar zigun guri...”,
demanda bat bezala bukatzea:
Gure artean bizi behar baduk
ez hadi izan bakarrik
Xabier Lete Lehen;
egunak zeuzkaagu aurrean,
100, 500 edo 20.000,
denak bizi beharrekoak,
eta bizitzeko uh uh uh uh
Otsoa ere behar diagu;
behar diagu Xabier Lete Bigarrena,
Lehenarekin bat zena, auskalo nola.

4.3.5 Ondorioak

Amodioa eta heriotza estuki lotutako bi gai dira Leteren obran. Abesti bertsutan agertzen dira bataren eta bestearen aipamenak. Bestalde, heriotza eta sinesmena ere bikote banaezina lirateke.

Letek kristautasunarekin maitasun desamodio harreman izan zuen. Kristautasunaren balio askori aurre egin zion kontrakulturak eta hasieran moral judu-kristautik aldentuta koka daiteke Lete. Ez zuen muturreko proposamenik egiten (drogen defentsa, esaterako), baina Ekialdeko pentsamenduaren traza izan dezakete bere zenbait hitzek. Ez zen, ordea, Joxan Artzeren punturaino iritsi. *Isturitzetik Tolosan barru* liburuaren egileak 1982an adierazi zuen gauzen barruko muina ikusten hasia zela eta barrutik kanpora idazten hasi zela. Modernitatearen azalari uko eginda primitibismora itzuli zela adierazi zuen Kortazarrek (2003).

Bestalde, Frankismoaren eta Elizaren arteko konplizitateak 40 urte iraun zuenez kontrol sistema boteretsua harilkatzea lortu zuen eta horrek zuzeneneko eragina izan zuen Leteren hezkuntzan. Bere belaunaldia beldurtu eta kastratu izanagatik gorroto zuen instituzioa. Sexuaren inguruko tabuak eta infernuaren beldurra hezur-mamietaraino sartuta zituen. Beste alde batetik, ordea, txikitatik erakarri zuen liturgiaren edertasunak eta monagillo begiradatik hura ezagutzeko parada izan zuen. Sinesmenari dagokionez, oinazez betetako bizitzarako eta maite zuen pertsonaren galera min gutxiagoz bizitzeko kontsolamendua eskaintzen zion berriro topatzearen ideiak; gainera, Elizaren espazioak eta profesionalek babesa luzatzen zioten. Letek sinetsi egiten zuen sinestea erabaki zuelako. Bere sinesmenaren gakoetako bat Iriondo izan zen. Oso sinestuna izaki, Leteren zalantza eta ezinegon askoren erantzunak luzatu zizkion. Litekeena da Iriondok sekula federik galdu ez izana, baina momentu historiko hartan pentsaera hura oso popularra ez zelako isilpean gorde izana. Leteren zenbait adierazpen irakurrita, ordea, badirudi fedea galdu zuela bolada batez eta ondoren, hilzorian egon ostean, berreskuratu egin zuela; hortik aurrera, elkarri errezatzeko baimena eman zioten.

Letek, ohi zuenez, modu kritikoan jarraitu zuen fedearen bidea ere. Bere bilaketa eginaz, egitarako bidean sasiak kenduz, autoritadedun pertsonak esaten ziotena entzun bai baina automatikoki sinetsi gabe.

Leteren abestietan heriotza iluntasunarekin eta hoztasunarekin lotuta dator. Heriotza amaiera da; baina ez da betiko amaiera bat, bizitza berri baten hazia baizik. Bere pentsamendua budismoaren edo hinduismoaren berriragiztatzetik gertu sumatzen da zenbaitetan; beste batzuetan hauts izan eta hauts bihurtzearen ideiatik hurbilago sumatu daiteke. Hildakoak usteltzen dira, bizidunen ongarrri bihurtu, eta bizitzara datozen berriz. ‘Sinisten dut’ kantan bistakoa da hori.

Leteri ezkortasuna egotzi zaio askotan, eta azaleko irakurketa izan liteke hori. Izan ere, heriotzaz hitz egiteko joera horren atzean bizitza benetan apreziatzen zuen pertsona baten begirada zegoen. Hain maite, ezen galtzeko beldurrak batzuetan gozatzea zailtzen baitzion. Bestalde, benetako beldurra maite zituenak galtzeari zion; edo maite zituenak zaintzeko eta kontsolatzeko aukera galdua partitzeari. Ezkortasunaren parte bat, beraz, bizinahiari eta ardurari dagokio.

4.3.6 Erreferentziak

- Chevalier, J.; Gheerbrant, A. (1996) *Dictionary of symbols*. The penguin.
- Galardi, X; Arrieta, M.; Lete, X. (2007). *Heriotza bizi*. Erljio eta Kultura Foroa. 41-54 or.
- Gartzia, S. (2016). *Hamaika euskal literato eta Jainkoa*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Gartzia, S. (2020/12/30). Mesedez, ez mutilatu Xabier. *Berria egunkaria*.
<https://www.berria.eus/paperekoa/1876/016/001/2020-12-30/mesedez-ez-mutilatu-xabier.htm>
- Gurrutxaga, Alex (2016). Notas para un diálogo poético: Bernardo Atxaga y Xabier Lete. *Caravansari*, 6. 88-90 or.
- Ibarzabal, E. (2020). *Xabier Lete, de un tiempo, un país*. Erein.
- Iraola, A. (2004/03/31). Pagoarteren organo kontzertua. *Oarsoaldeko Hitza*. 2-4 or.
- Irigaray, J. A. (2011). Xabier Lete, lore gorrien arteko poetika. *Hegats*, 47. 11-23 or.
- Kortazar, J. (2003). Artzeren poesiaren pentsakizunaz. *Lapurdum*, 8. 285-328 or.
- Kortazar, J. M. (2008). Errukiaren argia. Erljio gaia Xabier Leteren Otoitzen liburuan. *Litterae vasconicae: euskeraren iker atalak*, 10. 167-198 or.
- Lete, X. (1974b) *Bigarren poema liburua*. Gero Mensajero.
- Lete, X. (1978a). Xabier Leteren elkarrizketa [Elkarrizketatzaile: Joxe Mari Beloki]. *Herri Irratia*.
- Lete, X. (2001). Rainer Maria Rilke: Gizakiaren jainkotasun erbesteratua. (Arantxa Iraola eta Imanol Irigoiek elkarrizketatua). *Pagoarte*. 23-30 or.
- Lete, X (2006). *Abestizak eta Poema Kantatuak*. Elkar.
- Lete, X. (2008a). *Egunsentiaren esku izoztuak*. Pamiela.
- Lete, X. (2010a/12/06) Al final te reconcilias con la humanidad a través del respeto (Elkarrizketatzaile: Jabier Muguruza). *Deia.com*.
<ps://web.archive.org/web/20101210194652/http://www.deia.com/2010/12/06/ocio-y-cultura/cultura/al-final-te-reconcilias-con-la-humanidad-a-traves-del-respeto>¹⁷
- Lete, X. (2011). *(Auto)biografia bat* (Editore: Inazio Mujika). Alberdania.

¹⁷ Jatorrizko elkarrizketa 2009ko maiatzaren 10ean argitaratu zen, *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian. Gerora, *Encuentros con el alma* (Alberdania) liburuan jaso zen elkarrizketa.

- López, E.; eta López, A. (1991). *La imagen del nacionalismo vasco y de la violencia política en el País Vasco en la prensa Americana (Estados Unidos) y La contracultura en España en la segunda mitad de la década de los 70*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Marcuse, H. (1983). *Eros y civilización*. Sarpe.
- Markuleta, G. (1992/12/09). Xabier Lete erromesaren otoitz liburua. *El Diario Vasco*.
<https://kritikak.armiarma.eus/?p=7345>
- Martin-Etxebeste, J. (2004/04/02). Pagoarteren organo kontzerturako prest daude artistak. *Oarsoaldeko Hitza*. 5 or.
- Mata, C. (2001). Unamuno, del ensayo a la novela filosófica: La agonía del cristianismo y San Manuel Bueno, mártir. *Hispanica Polonorum*, 3. 121-130 or.
- Moeller, Ch. (1964). *Literatura del Siglo XX y Cristianismo IV. La esperanza en Dios nuestro padre*. Editorial Gredos.
- Muruaga, B. (1991). Xabier Lete, bere baitan ibiltari. *Plazara*, 18. 19-24 or.
- Otaegi, L. (2007). Xabier Lete: Materia Estelar. In Sabadell-Nietoo, J. (Koor.) Kortazar, J.; Fraga, L. eta Paz Gago, J. M (Ed.) *Cien años de poesía. 53 poemas en catalán, gallego y vasco: estructuras poéticas, pautas críticas*. Peter Lang. 521-534 or.
- Perez-Gaztelu, E. eta Saez de Eguilaz, H. (2020). *Zerbitzuko lanean. Lete kazetari, Lete prosagile*. Mugarri.
- Setien, J. M. (2010) Xabier Lete: Jose Mari Setien gotzaiaren homilia bere hiletan. *Arratia pastoral barrutiaren webgunea*.
<http://arratiaeliza.blogspot.com/2010/12/xabier-lete-jose-mari-setien-gotzaiaren.html>
- Sinadura gabe (2006). *Lourdes Iriondo 1937-2005 Urnietako herriaren oroimenean*. Urnietako Udala.
- Urien, A. (2020). *Poesia zurien ukendu. Xabier Leteren arrastoan*. Pamiela.
- Zabala, J. L. (2004/03/31). Musika, hitza, otoitza. *Berria egunkaria*. 3. or.
- Zenbait autore (2020). *Urrats urratuak Xabier Lete gogoan*. Balea Zuria.
- Zubia, F. (2010) Ez nau izutzen, esan zenigun [Bertso-jarriak] *Arratia pastoral barrutia*.
<http://arratiaeliza.blogspot.com/2010/12/xabier-lete-jose-mari-setien-gotzaiaren.html>

4.4 Natura

4.4.1 Sarrera

Natura funtsezko osagaia da Leteren abestiak sortzerakoan. Zenbait abestitan, ‘Ni naiz’ edo ‘Nafarroa, arragoa’ⁿ adibidez, naturaren gorespen erabatekoa suma daiteke. Hala ere, naturaren erabilera bereziki baliagarria izan zitzaion zuzenean esan ezin zuenaren edo anbiguoki esan nahi izan zuena adierazteko.

Letek poesiarako inspirazio gisa ikusten zuen natura. Urtaroei erreparatzen zien artikulu bat argitaratu zuen *Euskaldunon Egunkarian*, “Izadia eta poetak” izenekoa. Bertan aipatzen zuen udaberria zela urtarorik ikusgarriena eta hordigarriena; baina, ñabardurak hautemateko gaitasuna dutenek, neguan topatuko dutela edertasun gehien. Hura zuen urtarorik gustukoena. Uda “botanika aldetik nahiko txiroa” eta “monotonoa” iruditzen zitzaion. Udazkena berriz “dekadentzia margotua” zela irizten zion (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 276-277).

Ikerlan honetan Letek naturarekiko zuen atxikimenduan jarriko du fokua. Kapituluaren atal honetan espazioaren eta denboraren dimentsioak ukituko dira. Lehenik, paisaiak definitzen dituzten naturako elementuak aztertuko dira; lau elementuak eta landareria, bereziki. Bigarrenik, denboraren dimentsioari helduko zaio, eta eguneko orduen bilduma osatuko da.

Munduarekin bat izatearen ideia bere egin zuen Letek “Gu ere mundua ginen / materia ilun berberaz eginak” (‘Ez esan, maite’); nahiz eta, kasu honetan, izadiaren makurkeria beregatzeaz ziharduen. ‘Izarren hautsa’ abestian, berriz, “Gizonen lana jakintza dela dio, hura “ezagutuz aldatzea, / naturarekin bat izan eta harremanetan sartzea”. Leterengan ez da hainbeste sumatzen naturaren suntsiketaren aurkako aldarri irmoa, ustiaketaren aurkakoa eta kontserbazioarekin itsutua, naturarekiko miresmen baldintzagabea baizik.

4.4.2 Lau elementuak

Lurra

Badira ikerlan honen korpusean oso maiz agertzen diren kontzeptuak. Lurraren kontzeptua, adibidez, 27 aldiz ageri da bere abestitzetan; gehienetan aberriarekin eta emankortasunarekin lotuta. Lurra jaiotza gunearekin harremanetan ageri da zazpi kantatan:

- “Bidea aukeratzean / gelditu nahi nuke nere lurrean”, “Tristea etxerik eza, / lurrak emango dit bere babesa” (‘Euskalerra nerea’).
- “Udaberriko lili garbia, / gure lurrean heldua” (‘Lore gorrien balada’).
- “Nafarroa, (arragoa,) zuhur eta eroa, / lurrik maitatuena” (‘Nafarroa, arragoa’).
- “Alzateko Jaun, hor zaude nunbait / zure lurrera itzultzeko zai”. (‘Alzateko jaun’).
- “Ekarri zinduten lur arrotz hontara, / ekarri zinduten, gaueko haurra”; “bota zintuztenek irakatsiko dizute / hartu zintuen lur hau lur madarikatu dela”; “gaur kabi duzun lur hontan finka zaitezen bihar” (‘Haur andaluz bati seaska kanta’).
- Anai zaharren lur gazte borrokan ezaguna, Etxera zekenen hobi, baizik langile lurra, (‘Cançó a Catalunya’).
- Ke sakon batek estaltzen baitu euskal lurraren azala”, “Ez du lur honek etsirik hartu, urratu ditu ideak” (‘Gauaren ordezeko eguna’).

Beste batzuetan lurra materia oinarritzkoa da. Hazi batekin kontaktuan bizitza sortzaile izan litekeen humus emankorra da lurra, edo justu aurkakoa gertatu dela aipatzeko erabiltzen du:

- “Nafarroa, arragoa, / lur beroen sabel emankorra / eta goiko mendi hotzen mendetako loa” (‘Nafarroa, arragoa’).
- “Hartuko nauen lur hortatik / landare berriak sortuko direla: / landaretatik zuhaitzak zuhaitzetatik loreak / loreetatik frutuak / frutuetatik gizonak eta abereak bazkatuko direla” (‘Sinisten dut’).
- “Itzaltzear delarik zentzu iratzarrien lorezko baratza / ezin baitut hazia gatzak estali zuen lur antzuan erein” (‘Biographia’).

Lurra materia ez emankor ere izan daiteke jabetzarik ez duten biztanleentzat, ‘Txile’ abestian adibidez: “Begiak lehorrik daude, etorkizunik ez dago / lur zabala eremu da ez dutenentzat” .

Inoiz edo behin, lurra pertsonifikatua dago, amalurra da: “Larhun-gainean sorgiñen dantzak nabaitzen ditut arratsaldean, / lurrak badaki kontu hoiien berri / eta hor dago ixil-ixilik” (‘Alzateko jaun’).

Batzuetan lurrak esanahi ezkorra du Leteren abestitzetan. Zenbaitetan lurrak oinen pean dagoen materia esan nahi du. Burumakur dagoen izaki baten egoera animikoaren kokagunea da ‘Giza aberea’n (“Begiak lurrean ta ezer ikusi gabe”). Iragandako une baten arrastoak bistaratzen ditu ‘Festa bukatzean’-en (“Nota galduak, / pauso baldarrak / pena baten markak lurrean, / hitz puskatuak”). Zeruarekin kontrastean ere funtzionatzen du zenbait abestitan, bai izaki bizidunen askatasunaren mugatzaile gisan “Ni naiz / txori hegalaria bat lurtasun zabarrari / etsipenez loturik dadukan katea” (‘Ni naiz’); eta baita bizimodu lurtarraren eta zerutiarraren bereizketa egiteko ere:

- “Sinisten dut / haiek ere noizpait / lurrera deituak izanen direla” (‘Sinisten dut’).
- “Mendeetan zehar kantu laguna, noizpait latinez lurperatua / laister berpiztu behar duguna”. (‘Alzateko jaun’).
- “Eskuak luzatzean / Bizitza jasotzeko asmoz / Eta lurra bakarrik behatzetan sentituz” [Xalbadorren heriotzean (I)]’.
- “Orain zerua lurrean dago / bukatu da erbestea (‘Teologia, Ideologia’).
- “Lur bortitz honen azpian hobeagorik ez dago / handik berriz itzultzerik ez da asmatu oraino” (‘Ez dut amets haundirik’).

“Gizonok nora goaz mundutik hiltzean?” bezalako galderatan lurra eta mundua elkarren sinonimo gisa erabiltzen ditu. Kanta berean (‘Maiteaz galdezka’) “gu bakarrik utzirik umezurtz munduan” dio. Hala ere, munduaren eta lurraren artean bada alde txiki bat. Lurraren kontzeptua naturari lerratuago zaio eta mundua gizakien bizitzari eta sufrimenduari. Ildo hori indartzen duten zenbait adibide topa daitezke korpusean: “munduak ez du eta / malkoen beharrik” bezalako esamoldeak darabiltza Letek (‘Seaska kanta’n); ‘Giza aberean ere “munduan zehar doa giza aberea” dio; ‘Ni naiz’ abestian “ezerezetik ihes munduaren erdian / ezin aurkitutako amets urrutia” dela dio; eta ‘Gaua’n “zuk oroitarazten nauzu / gu bizi geran mundu hau ere iluna dela” –autorearen oiartzueraren marka akastunaren adibide

garbientako baten bidez—. Kanta berean, “gauetz amets egiten dut / bihar goizean mundua hobeia izango dela”.

Figura 21

Lete, Aiako Harria atzean duela



Sua eta ura

Leteren kanta, orokorrean, hotzari lerratuagoak bazaizkio ere, suaren aipamen bakan batzuk topa daitezke. Sua bera baino gehiagotan ageri da txinparten eragina: ‘Herri zahar hontan’ abestian “gorrotozko egur borrokan errea” erakusten du, ‘Lore bat, zauri bat’ en “Oroitzapenen labe gorian / gorputz-gogoak tormentu luzez / kiskalirikan” eta ‘Ni naiz’ en “pasio zahar guztiak kiskali nahi dituen bihotz iheskorra” aipatzen du. Errautsen sinbolismoak osagai baten bizitza agortu ondoren geratzen den hondakina izatean datza. Gizakiaren balio urriaren erakusgarri dira errautsak (Chevalier eta Gheerbrant, 1996, 49). Suaren botere purifikatzailea inbokatzen du ‘Izarren hautsa’ abestian (“saia gaitezen (...) sasi zikiñak behingoz erreta bide on bat aukeratzen”) eta ‘Gauaren ordezeko eguna’ n (“Erreduraren errauts artetik sortzen ari da lorea”).

Sua espresuki berbalizatzen du ‘Gaua’ abestian: “gizonen gau beltzean / bake, itxaropen eta maitasun berri bat / piztuko direla, / gizonen gau beltzean /sua itzaliko dela”. ‘Nafarroa, arragoa’ abestian, berriz, “sua eta ura” aipatzen ditu Letek. Kanta honetan, elementu likidoaren forma zehatzak ere erabiltzen ditu oso modu erredundanteetan: “erreka gardenen negarrez ibai lodietara / ixurtzen ari den odol bustikoarraren iturri bizia”. Ez da samurra likidoagoa den esaldirik bururatzea.

Urak nagusiki garbiketa prozesua sinbolizatzen du, purua ez den zerbaiti ematen zaion bigarren aukera da eta aldi berean genesiaren oinarria (Chevalier eta Gheerbrant, 1996, 1081). Purifikazio prozesu horren erakusgarri, ‘Ni naiz’ kantuan “erreka zikinen iturri garbiak aurkitu nahi dituen poeta tristea” dela dio. Erreken aipamenak ohikoak dira Leteren abestietan, gehienetan purutasunarekin lotuta. ‘Euskalerra nereia’ abestian, esaterako, “Erreka zabal garbia / zugaron egon bedi gure argia” kantatzen du. Sinbolikoki, errekek zerbaiten (kasu honetan, aberriaren) potentziala adierazi dezakete (1996, 808) eta, aldi berean, errekek norabait daramaten bideak izan ohi da:

- “Bidasoaren ezker-eskubi udaberrian lore gorriak /ixilikako ur izkutua” (‘Alzateko jaun’)
- “Eskutikan hartuta amilduak gera / erreka bat bezela menditikan behera” (‘Jardin bat zuretzat’)

Mundua eta lurra bereizten dituen moduan bereizten ditu Letek erreka eta bidea ere. Bata naturaren pasabidea da berez-berez doana eta besteak gizakiak ibili ahala eraiki behar duena. Leteren abestietan bideak nekez izan ohi dira lauak; “txingorrezkoak” dira, “xaharrak”, “ilunak” eta nora daramaten ez dago argi: Hala ere, “bide berriak” aipatu ohi ditu, itxaropenarekin lotuta daudenak:
zen du.

- “Lankide nahi zintuzket, bide-lagun agian”(‘haur andaluz bati seaska kanta’). : “Zail da negar egitea, zail da aurrera begiratzea / zail bideak bilatzea batzutan” (‘Chile’). “Baina guztiak jakin dezagun bidea non dik dijoan”, “bide batetik okertu gabe kanta dezagun bertua”(‘Alzateko jauna’).
- “Ekin ta ekin bilatzen ditu, saiatze hortan ezin gelditu, / jakintza eta argia; bide ilunak nekez aurkitu” “ukazioa legetzat hartuz beti aurrera joatea”.“saia gaitezen (...) bide on

bat aukeratzen”.“Eta ametsa bilakaturik egiaren antziduri / herri zahar batek bide berritik ekingo dio urduri” (‘Izarren hautsa’).

- “Oin galduek zapaldurik duten / bide zahar bat bezala.”, “mugaz harat eramaten duen / bidean zehar ibiliz.” (‘San Martin, azken arrosa’).
- “Gaur, oharpen zatituen desasoseguari darraikion gatazka / norberari arrotzak zaizkion norabide erabakikorretatik jarraitzerakoan” (‘Eskaintza, nere aita zenari’).
- “Nafarroa, arragoa eta oinarri, / eta oinaze eta bidean zure bila ibiltzea ...”. “Pinudiek usaintzen dituzten / harri txigorrezko bidetan gora” (‘Nafarroa, arragoa’).
- “igaro eta gero munduko zeharra”, “laztanik xamurrenak, bide erratuak” (‘Jardin bat zuretzat’).

Itsasoa eta haizea

Uraren aipamenarekin amaitzeko, itsasoa aipatu behar da Mediterraneo itsasoz ari denean itsasoa eta argitasun iturria uztartzen ditu birritan: “ Itsasaldeko eguzki bero eta biguna” eta “Itsasaldeko eguzki bero eta biguna” (‘Cançó a Catalunya’). ‘Malkoak euri balira’ abestian hiperbole bat eraikitzeke baliatzen du itsasoa: “ama denen oihuek /espantuzko irrintziz / izoztu lezakete / entzumenik ez duen / itsaso zabala”. ‘Haizea dator’ abestian “Agur oihanak, agur itsaso, atariko lizardia” aipatzen ditu, hiru dimentsio izendatuz: natura basatia, euskaldunen bizibide eta ihesbide den gaia, eta lur etxekotua. Kantauriko itsasoa aipagai duenean, ordea, itsasoa ezinbestean haizeari lotuta doa:

- “Haizeak negar egiten du / itsasoa mutu gelditzen da zu etortzean” (‘Gaua’).
- “Itsasoko haizeak gogor astintzen dituen / laiñoen negarra” (‘Ni naiz’).
- “Desertuko haizeak lehortu ez zuen lorea / itsasoaren kolorea, hor zaude zu” (‘Altzateko jaun’)
- “Haize euritsuaren freskotasunean itsasoren aldakuntza gazi mugikorretan” (‘Sinisten dut’).
- “Itsasoaren hatsa eta koloreak” (‘Jardin bat zuretzat’).

Itsasoak infinitutasuna iradokitzen badu, haizeak naturaren indarra eta gizakiaren ziurgabetasuna sinbolizatzen ditu eta ezinbestean lotuta dago arnasarekin ere (Chevalier eta Gheerbrant, 1996, 838 eta 1111).

Abereak eta piztiak

Euskal Herriko haur askorentzat “Otso Benito” izan da Lete. Txanogorritxuren eta Zazpi antxumeen ipuinak antzeztu zituen ikusentzunezko lanetarako¹⁸. Bere abestietan dezenteko protagonismoa du animalia honek. ‘Otsoak eta txanogorritxu’ da animalia hura gehien aipatzen duen abestia. Haren eduki politikoaz aurrerago hitz egingo da, baina ukaezina da mozorrotutako otsoen mehatxua erabiltzea interesgarria iruditu zitzaiola. Literatura unibertsaleko elementu hau bere egin zuen, beraz.

Otsoari buruzko aipamenak eta naturari buruzko erreferentzia ederrak uztartu zituen Letek Iriondok abesten zuen ‘Isiltasuna’ izeneko abestian ere. Letek ez zuen *Abestitzak eta Poema Kantatuak*en sartu, baina bereak dira hitzak. Paradisuaren galera irudikatzen du (Gurrutxaga, 2020a, 497). Letek naturako elementuak baliatzen ditu aberriaren paisaia idiliko bat marrazteko eta, era berean, hura urratzeko. Armaz kargatuta suntsiketari dihardutenak otsoak dira, baina haien atzetik dator azeriak eta zakur amorratuak ere, otsoen beldurrak eragindako traumak paralizatu egin ditu biztanleak eta paparra puztuta datoz:

Isilik daude harriak
isil-isilik udazken guztia.
Isilik garrasirik latzenak
isilik arrano goitarra eta zezenaren marrua...
Lehen paradisuaren zelai zabal haietan
kantari zebiltzen libertatearen semeak,
polborazko loreak eskuetan
eta buruan fantasia mugarik gabeak.
Baina otsoak pasa zirenean
gero pasa ziren
azeri eta zakur amorratuak.
Paradisu desiatu hartako zelaietan
ximeldu egin ziren loreak
eta legortu belar gozoak,
belar gozoen zuztar
usain eta landareak...
Isilik daude harriak
isilik haizea
etxe eta kaleak,
isil-isilik daude berriro gauza guztiak
udazkenean. (Iriondo, 2006)

¹⁸ Ikusentzunezkoak ikusgai daude [hemen](https://eibar.org/blogak/orakulua/benito-otsoa): <https://eibar.org/blogak/orakulua/benito-otsoa>

Otsoa izaki beldurgarria da oiartzuarrentzat; ez garaitezina, ordea: otsoari borrokan kendutako bizitzaren zatiak aipatzen ditu 'Giza aberea' abestian. Gizakia ere otsoa bezain pizti izan daitekeela azpimarratzen du modu honetan. Oztantasan hori heziketa gogor baten ondorioztat jotzen da. Pertsonifikazioaren aurkako efektua bilatzen du poetak. Gizatasunez hustu nahi du pertsona eta lokatzetan noraezean marrazten du. Aberetzat ez ezik, piztitzat ere hartzen du kantako protagonista ("illunpetan etsita / amur ematen duen pizti beldurtia"). Piztiaren aipamen gehiago ere badaude bere abestietan. Bereziki egokia iruditzen zitzaion hitz hori Txileko egoeraz jarduteko. 'Chile'n behin eta berriz errepikatzen du singularrean:

Eta piztiak beti dauka bala bat prest
bere herri ehiztaria ehizteko,
eta piztiak beti dauka mamutzar bat
ifarraldetik lagunduz etortzeko,
eta piztiak ahoa beterik nahi du
ez du barau egunik nahi mehetzeko,
eta piztiak aukera denak dauzka
pizti izanez erailtzen jarraitzeko.

Pluralean ageri dira, ordea, 'Lore bat, zauri bat' kantaren kasuan: "Errugabea hintzean baina / Pizti zordunak ez ditun urrun". Exotaldearekiko aldea markatzeko erabiltzen ditu Letek piztiak bere abestietan.

Gorputza

Gizakia naturarekin eta bere gorputzarekin birkonektatzen saiatu zen kontrakultura 70eko hamarkadan. Bere abestiak ez ziren oso kontrakulturalak izan zentzu horretan. Gorputzaren aipamenetako asko haren mugekin lotuta daude. 'Xalbadorren heriotzean II'ko hiru lerrootan suma daiteke, adibidez, nola gorputza zer bait jasoagoa lortzeko oztopo den:

hesia urraturik libratu huen kanta.
Lotura guztietatik gorputzaren mugetatik
aske sentitu nahirik,

Erljioak bazuen zerikusirik sineskera hartan, jakina. Gorputza transzenditzeko eragozpen gisa marrazten baitute zenbait erlijioak. Deskonexio hori aurre eginaz, norbere gorputzaren ezagutza aldarrikatzen zuen kontrakulturak (autolaguntza, nudismoa...). Ez Dok Amairuk, kolektiboan lan eginda, norantza hori jarraitu zuen arren Leteren norantza indibidualean eragin handirik ez zuen izan askapenaren zati honek. Euskal Herriko giro kristauan bereziki liskartsuak ziren sexuarekin zerikusia zuten kontuak eta egin zituen saiakera bakanek kritikak

jaso zituzten istantean. Giro horretan, norbere gorputzaren jabetza eta norbere sexualiterekiko harremana ere gatazkatsua gerta zitekeen. Leteren abestian gorputzak duen presentzia urria ulertzeko gakoetako bat izan daiteke garai hartako giroa. Gorputzaren aipamenak heriotzari lotuta agertzen dira batik bat, gorputzaren bizitasuna goratzen da heriotzaren izugarria azpimarratzeko ‘Malkoak euri balira’n eta ‘Biographia’n:

Malkoak euri balira
kupirarik gabe
haurtxo baten gorputza
gerra izugarriek
burniz eta metrailaz
hausten dutenean,

Itzuliko dira exaltazio baten elikagai zaharrak,
uda ederrarekin kantak asmatutako irudi galkorrak
gorputzak, irriak, mahastien urrea, pozaren abarrak.

Ez du idatziko liburu zaharren mutu eta gorrak
zorabio batean nahasten direlarik begi hain nabarrak
azken arnasarekin ordainduko ditugu aintzinako zorrak.

Beatriz Allenderi buruzko kantan, ordea, gorputzaren eta gogoaren arteko banaketa egiten du:

Hire bihotza, xori zauritu, iheska joan zain atsedean bila.
Hari mehe bat hunan bizitza urratua dun keinu bortitzez.
Oroitzapenen labe gorian gorputz-gogoak tormentu luzez
azkeneraino irauneraziz bizi baihintzean deserri hortan.

Kanta horretan Allenderen gaztetasunaz tragikotasuna gehitzen dio bere buruaz beste egitearen ekintzari. Heldutasun eta sentsualitatea lotzen dizkio kontzeptuari ‘Herri zahar hontan’ en ere: “gorputz loratuen fereka laztana”.

4.4.3 Landareria

Lorez beteta dago Leteren obra. Lehen diskotik azkeneraino egiten ditu loreen aipamenak bere kantatan eta disko bati izena ere ematen dio: *Lore bat*, *Zauri bat*. Letek txikitako bere baratzarekin konektatzen du abestien bitartez eta sinbologia handiz erabiltzen ditu loreak bere kantatan. Bere autoretzako naturaren erreferentziak aztertu dira, nahiz eta berak itzulitako lanetan ere topa daitezke erreferentziok.

Lete bost urte arte Oiartzungo Landetxe eremuko etxe batean bizi izan zen eta haren atzealdean parke bat zeukan Joxe Arregik egindako elkarrizketa batean kontatu zuenez . Bere aita, Pasaian fabrika batean lan egin arren, mendizalea zuen oso (Lete, 2011, 27).

Koldo Izagirrek bere ibilbide poetikoaren errepassoa egin zuen *Elurra ikusi dut* antologiaren hondarrean. Lau aro hauek zehazten ditu: Lete kritiko-sentimentala, gordin-zinikoa, etsi-ukakorra eta mistiko-tragikoa:

Aro bakoitzak dauka bere hiztegia eta bere giroa, baina lauretan ageri dira, existentzialismoarekin batera, Leteren gainerako gaiak eta ezaugarriak: malenkonia, zalantza, herritartasun jator baten bilaketa, arratsaldea, gaua, egunsentia natura iradokitzaile eta bideratzaile bezela... (2017, 288)

Naturak aro guztiak zeharkatzen ditu; denetan present dago.

Lizardi

Letek Lizardiren oihartzunak dakartza bere kantatan. Haren miresle handia zen eta haren poesia anakronikotzat zuten jakintsuek neurritz gain gutxiesten zutela uste zuen:

Lizardi gerraurreko abertzale bat izan zen, politikan eta bizikera pertsonalean otzana, eta agian, ingenuoa, eta gaur horrelako tipo bitxiak ez daude modan. Gaur oso maltzurak eta ikasiak gara; literatura asko dakigu, batez ere, eta Lizardi bezalakoak ironia displizente batekin begiratzen ditugu. Baina ikusiko da, urte batzuk barru, zerk irauten duen: Lizardiren sagasti zuriek ala ironikoen inkoherentzia psikologiko eta estetikoak. (Gaztelu-Perez, 2020, 276)

Lizardiren iturritik edandakoa zen Lete eta azkar ohartu zen naturaren gorazarrea herriari buruz jarduteko primerako baliabidea zela zentsura garaitan. Leteren zaletasunaren seinale gorena da Lizardiren hainbat poema musikatu izana ('Izotz ondoko eguzki', 'Berriro igo nauzu'...) eta haren poesiaren azterketa sakona ere egin zuen. Bestelako keinuak ere egin zizkion kantariak olerkariari: 'Haizea dator ifarraldetik' abestian oiartzuarrak honako irudia erabili zuen:

Haizea dator ifarraldetik, hego berotik ekaitza,
Ez da nabari lanbro artean zuhaitz hautsien emaitza,

Zarauztarraren 'Zuaitz etzana' izeneko poema baten pasarteak honela dio:

Zuaitz bat, urtezua, lurrera botea...
Zaarra izanagatik bazun ark osasun betea!
Ondoan orra agiri, zomak ezotua,
aizkora ankerraren ebaki sarri-berritua. (1932)

Bi poematan naturaren sendotasuna finkatzen du zuhaitzaren irudiak. Zarauztarraren poeman gizakiaren zorrozatasuna da mutilatzaile eta Leteren bertsoetan haizearen bortizkeria. Bietan azpimarratzen da galera. Letek jatorrizko bertsoan “zuhaitz handien emaitza” zion zatian “asaba zaharren baratza” kantatu zuen gerora omenaldi gisa. Lizardiren *Biotz-begietan* liburuko poema baten zatia beste bategatik ordezkutzen du, beraz, hoskidetasuna mantenduz neurri handi batean.

Gurrutxagak dio aberriaren aldarrikapen bat dagoela abesti horretan: “kontzepzio integral bat, Hölderlin eta Lizardi bezalako poeta handien lerroan jartzen duena, eta “Bianditz” bezalako pieza antologikoetan gauzatzen dena” (2020a, 648).

Jaungoikoari egindako erreferentzian dago bi autoreen arteko alde nabarmenena. Hala ere, Letek Lizardiren obraz gogoeta egin zuen liburu batean eta panteistatzat jo zuen bere bizitzaren ikuspegia (Lete, Zelaieta eta Lertxundi, 1974, 29): “Lizardi, zalantzarik gabe, fede-sinesmenez kristau zen; poema askotan adierazpen oso konkretuak daude horri buruz. Baina haren sinesmena eta bizitzarekiko zentzua, sentsualitate sakon kosmiko-panteista batean finkatzen da”. Letek Lizardiz diona bere buruaren deskribapentzat ere har daiteke.

Lizardik euskara batuari egindako ekarpenak goersten zituen Letek. Bera borroka horretan ibili zen eta ohartuta zegoen urte batzuk lehenagotik zenbait idazlek izan zutela euskara ulergarrian idazteko premia:

Bere barneak naturalezaz, gauzez eta errealtate nahasitik sorturiko ideia nagusiez sentitzen duen guztia esan ahal izateko beha lukeen hizkuntza aberats, jori, oparo bat eskuen artean ez edukitzeak, bilaketa indartsu eta lehiatsu batera bultzatzen du.

Lizardik euskara nagusi bat nahi du; bere betiko izaerarik galdu gabe, gaurko mundu bihurriaren adierazle izan litekeen euskara bat. Horrela, erdal intelektualek euskarari egiten zioten kritikaren zentzu mingarriaz benetan jabetuz, Unamunoren euskararenganako zera errezolotsu eta super-klasizista, sasiunibertsalitatea, probintziano-salmantinista hari erantzuteko gai eta kapaz izan ziren idazle oso gutxietarik bat dugu. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 173)

Loreen purutasuna

Loreak, kategoria abstraktuan, bizitza eta heriotza dira Leteren kantuetan: 'Ni naiz' kantuan aipatzen du “ni naiz / lorerik gabe gelditzen ari den ardaxka lehorra”. Metafora bera, baina bizitza beharrean osotasuna, euskaltasuna, ordezkatzeko du loreak Barojari eskainitako 'Altzateko jaun' kantan (“desertuko haizeak lehortu ez zuen lorea”; alegia, Baroja ez du usteldu Espainiak).

Kantu berean “Bidasoaren ezker-eskubi udaberrian lore gorriak / isilikako ur izkutua” aipatzen du. Kasu horretan, koloreak gain hartzen dio landareari eta isuritako odola irudikatzen du isurkai likidoaren aldamenen. Aipagarria da adibide gehienetan, Chevalier eta Gheerbrantek liburuan aurreratzen zuten moduan, loreak pasibotasunari lotuta ageri direla (1996, 395).

Lorea bizitza bada, loratu ezina heriotza da, jakina, eta halaxe ageri da “Urepeleko artzaia”-ren atariko 'Xalbadorren heriotzean (I)'-en: “Teilatuan elurra / Herrian ekaitza / Bihotzean azken agurraren beldurra... / Udazken hotza / Loratzeko ezinak / Bizitzaren garrasia heriotz egina.” Ikusten denez, loreak adina, loreen ausentziak aipatzen ditu Letek.

Beste modu bateko aberastasuna ere ordezkatzeko du loreak, sistema ekologikoa nahieran darabil Letek. Baratza hitza naturaren kontrola da. Lizardik ez ezik, Txirritak ere hura erabiltzen zuen Euskal Herriaz jarduteko (Garzia, 1997, 68): “Arrosa baino zabalagoko / gure zazpi probintziak, / baratza eder bat bezela zauden / guziyak lorez jantziyak”. 'Neguaren zai kantan': “Ez nau iluntzen baratzatikan / azken loreak biltzeak” dio. Garai ezberdinetan loreak erein dituzten baratz beraren erabiltzaileak dira Lizardi, Txirrita eta Lete.

Figura 22

Lete Urnietako etxeko lorategian (1999)



Baratza, natura etxekotua litzateke, zibilizazio; eta, apur bat luzatuta, euskaldunak ordezkatzeko dituzte: 'Biographia' abestian dio "itzaltzearekin delarik zentzu iratzarrien lorezko baratza / ezin baitut hazia gatzak estali zuen lur antzuan erein". Bere kantagintzatik kanpo –*Bigarren poema liburuan*, adibidez– ageri da baratza kontzeptua eta urte asko beranduago kantatuko zuen 'Jardin bat zuretzat' abestian bezalatsu erabili zuen; elikagai iturri baino gehiago, lorategiaren adieran:

Eta bizitza

Eta bizitza
ondar fin bat bezela
behatzen artetik irristatzen zitzaigun.
Soroetako ke urdin
eta ur kantarien oihartzunarekin
batera
iragaiten zitzaigun:
maitasun zaharren melankoliaren gisan.

Eta baratze bat zen,
usai gozoz beterikako baratze bat.

Eta desio bat zen,
ase ezinezko irudimenez gainezka
lehertzen zitzaigun desio lehena.

Eta zorabiatzen gintuen
sexo usai bat zen.

Eta bizitza zen,
bizitza ber-berea
oparotasunaren oparoz
ondar fin bat bezela
eskuen artetik
gelditu gabe irristatzen zitzaigun hura. (Lete, 1974b)

Lorea opari bat ere bada zenbait kantatan: 'Haur andaluz bati seaska kanta'-n dio “Lore bat da nere hitza, dardarrez dakarkizut, / zure lo hortatik esnatzean ikurrin gisan jaso dezazun.” Kasu honetan, euskaldunek espainiarrei emandako oparia ordezkatzeko du, mundu ikuskera berri bat; baina bizitzak gizakiari emandako oparia ere izan daiteke lore hori. Bide bertutik, 'Ez dut amets haundirik' kantan “Bizitza maite dut, baina ez dut alferrik gastatzen / eguneroko lorea egarriz baitut dastatzen.”, dio. Naturak gizakiaren beharrak asetzen ditu Leteren iruditerian eta, tentuz eta esker onez jaso behar da emandakoa.

Lorea bezain garrantzitsua izan daiteke lore horien kokagunea zenbait kantatan. Leialtasunari buruz diharduen 'Agian' abestian, adibidez, “Orduan udaberriko lore xumeak / ikusten zenituen gauetz / mesanotxe gainean / portzelanazko ontzitxoan”. “Zilarrezko ontzietan” kokatzen ditu 'Lore gorrien balada'-n. Bietan, loreak oparizat har daitezke, baina beste zerbaiten ordezkotzat dira; konpentsazio bide bat. Leialtasunaren ordezkotzat bata eta maitasunaren

ordezko bestea. Letek lorrei aitortzen die balioa eta balio hori traizionatua denean edukiontzi garestietan kokatzen ditu loreak gutxietsi izana seinalatzeko.

1999ko zuzeneko kontzertuan grabatutako azken kantatako batean ere, 'Jardin bat zuretzat'-en, loreak justu leialtasunaren sinbolo dira: “Egunsentiko ihintza, goizeko loreak”. Egunero berritzen den maitasunaren ordezkoko dira. Kanta hau Leteren kantagintzaren estilokoa bada ere hiztegi aldetik esanahi aldetik eraldatuta sumatzen da, egunsentia, goiza, loreak... bezalako hitzak ohikoak dira; baina gehienetan ez bezala esanahi baikorrez zipriztinduak datoz.

Loreen sentsualitatea

Loreak sentsualitatea, sexuaren iratzartzea ordezkatzeko du kanta batzuetan; emakumezkoena normalean. Beatriz Allenderen suizidioaz diharduen kantua da 'Lore bat, Zauri bat' eta honakoa dio: “Nahiko hunan zentzuak, / lore goiztarren gisan, / Zorrik ordaindu gabe / Desiotan askatu”. Letek naturaren sentsualitatea sentitzen zuen, kasik sinestesikoki 1995ean *Euskaldunon Egunkarian* argitaratu zuen artikulu honetan frogatu daitekeenez:

Ni gaztea nintzelarik, Oiartzun ene sorterrian, (...) udaberriari Indi gaztainak eta ezkiak loratzen zirenean, haien usainak erabat hunkitzen eta deuseztatzen ninduen. Bizitzaren dei erakargarria eta neronen eskasia batera agertzen zitzaizkidan. Lore haien usaina sexu usain kosmiko baten antzekoa zen, eta nire ttipitasunaren kontzientziak birrindu egiten ninduen. Orduan nuen ikasi edertasun gehiegi kriminala izan daitekeela. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 276)

Baieztape hau lotu daiteke 'Seaska kanta'ko “edertasunak kontuz / gorderik behar du” esaldiarekin ere.

‘Hitzak izaten jarrai dezatela’ poeman ere udaberriari buruzko aipamen bertsua egiten du:

Udaberriari baratzak lorez josten zirenean, azaharren usai zuri ezetsuak irudimenezko mundu dizdiratsu batetara eramaten gintuen, eta maiatzeko loreak otoizten genituenean, sarritan gure kazkezurrak fantasia lizunez betetzen ziren (Oteiza et al., 1978, 49)

Heldutako gorputzaren aipamena ere egiten du 'Herri zahar hontan' kantan ere: “Gorputz loratuen farre eta laztana”. Kanta horretan bertan loreak edertasuna ordezkatzeko du, beste misteriorik gabe: “Zelai eta oihan, eguzki-lorea”. 'Amodio Amore'-n edertasunari

hauskortasuna edo iragankortasuna gehitzeko erabiltzen du lorea: “belazean dagoen lorerik ederrena, izotzaren arnasa zelatari ez balitz...”

Lorea izan daiteke itxaropena ere. 'Gauaren ordezeko eguna' kantuan, birsortzen ari den herria ordezkatzeko du:

Erreduraren errauts artetik sortzen ari da lorea,
Nahiz oraindik bere jantziak izan ubel ta morea.
Aspaldi ari da margoz apaintzen, ez da jadanik gordea,
Harrizko bere zaintzaile ditu Auñamendi ta Gorbea. (Lete, 2006, 90)

Bere azken kantatan loreak lore dira eta, ondorioz, heriotzaren sinbolo. 'Malkoak euri balira' abestian “eta lore bakarrek / entona lezakete / ehortze letani bat / zerraldo gainetan”, dio. Loreak pertsonifikatuta ageri dira kasu honetan.

Aurreko adibideetan lore gehienak kategoria abstraktuan aipatzen ditu, baina zenbaitetan lore zehatzak izendatzen ditu: larrosa, otea, eguzki-lorea...

Larrosa literaturan oso erabilia izan da bere elegantzia eta fragantziagatik. Letek huraxe aipatzen du 'Sinisten dut' kantan: “Sinisten dut / kolore zoragarriko larrosen kapulotasun legunean”. Kasu honetan, edertasunaren ataritzat dauka larrosa, bere baitaratuz babesten den izaki moduan. Lore honi buruzko aipamenak badaude beste autoretatik itzulitako abestitan ere: 'San Martin, azken larrosa'-n, esaterako, ”Zatoz, maite, ta azken larrosa / moz dezagun elkarrekin” kantatzen du, sexuari erreferentzia eginez. Zentzu erotiko bera igartzen zaio 'Habanera'-n: “udaberriko euritan larrosak bizten ikusiz...”

Otea, sasiaren antzerakoa kontsideratu izan da maiz, arantzengatik; baina lore hori ederrak ematen ditu eta ganadua elikatzeko baliabide ona izaten zen. 'Langile baten seme' abestian: “Ez da erraza trebe xehetzen euskaldun otea”, dio. Beraz, modu nahiko baikorren darabil otea. Lana behar duen, baina probetxua atera dakioken gaia da. 'Izarren hautsa'-n (1976), ordea, sasia modu ezkorren darabil, masustei tarterik utzi gabe: “sasia gaitezen ikusten: amets eroak bazterturikan, sasi zikinak behingoz erreta bide on bat aukeratzen” . Jatorrizko bertso hau ezabatu egin zuen Letek hurrengo bertsiotarako.

Bere poematan ere maiz agertzen dira landareak. Badu *Urrats desbideratuak* izeneko liburuan ‘Lore xumeak’ izeneko poema bat lore zerrenda bat ageri dena. Haurtzaroarekin eta leialtasunarekin ere lotzen ditu:

Arrotz kutsu bitxi bat
beregana ez balute
kantatuko nituzke
lore ahaztuak:
madreselva, azahar
iris delikatuak,
maiatz gozomin baten
adierazleak.

Ormetatik zintzilik
jardin izkutueta,
lurrean zut apalki
argiruntz begira,
presentzia sotillak
udaberri garaian
festa baten usaia
dakarkigutenak:
nostaljia ta pena
gero bakardadea
ala haurtzaro baten
azken oihartzunak.

Leialtasun harrorik
iñori eskatzeke
bidean doanari
eskeintzen direnak,
margoz eta perfumez
zentzu ahalgetuak
berriz esna ditezen
edertasunera. (1981, 67)

Jardinak

Leteren naturarekiko zaletasuna bistakoa da. 'Neguaren zai' abestian egunsentiaren indar eraldatzaileaz dihardu, ihintzaz estalitako paisaia bat deskribatuz: “nun dirudien bizirik gabe / natura zabal hilotzak”. Ohikoak dira bere kantatan goizalde eta iluntze lanbrotsu edo ihintzatsuak. Halakoetan natura itxuraldatuta marrazten du eta kanpo paisaiaren bitartez maisuki deskribatzen du gizakiaren barne mundua edo jendartearen noraeza.

Loreak ez ezik, landareria guztia kontuan hartuz are zabalagoa da kantuetan naturak duen eragina. Segidan, beraz, fruituak eta zuhaitzak ere aztertuko dira.

Figura 23

Lete bere lorategian (1998)



Lorategiek Lurrean dagoen Zeru zatia irudikatzen dute (Chevalier eta Gheerbrant, 1996, 419). 'Jardin bat zuretzat' abestian adibidez, literalki dihardu “zeruko jardinez”. Kanta honetan, usaimenak garrantzia handia hartzen du: “mendabeltxen usaia, zure irrifarra”, dio. Ez da mendabeltza bere lanetan agertzen den lehen aldia, *Bigarren poema liburuan* aipatzen du ‘lur erre bat baino haratago’ poeman zeinaren izenburua Juan Mari Irigoienek nobela famatuaren inspirazio iturri izan zitekeen:

Lur erre bat baino haratago
aurkitu nahi zintuzket...
Suak kizkali dituen
hitz
keinu
irri
negar
jarrera
guztietatik haratago.
Izarren hauts urdina
eta itsas-hegi luzea
besterik ez legokeen
lur errearen beste alde hortan.
Jatorrizko biluztasunean,
menta-beltxen usaiak dastatzen,
sekso inuzentarekin jostatuz
maitasun infinitoak egiten... (1974b, 164)

Urrats desbideratuak liburuan ere ageri da mendabeltza:

Maiteagoak negu gorriruntz
loaren apaingarriak
urrats gabeko bide galduen
mendabeltx eta harriak
mendi hegalean itzal barnekoi
hodeien dantza sarriak. (1981, 25)

Fruitua, lorea bezala, bizitzak eta naturak gizakiari emandako oparia izan ohi da Leteren kantatan; baita lanketa baten ordaina ere. 'Ez dut amets haundirik' kantan “eguneroko fruituaz eskuak bete ditzagun” abesten du.

Zuhaitzak

Zuhaitza bera eta bere zatiak oso present daude Leteren kantatan. Oronozek Artze ardatz duen tesian dio izadia etengabeko borroka eta higaduran dagoen ingurune naturala dela eta, haren parte izanik, hartara egokitu behar genukeela biziraupena ziurtatzeko. Oronozek dio zuhaitzen bidez identifikatzen zela Artze naturarekin eta argiaren bitartez batasun espiritualarekin (Ornoz, 2011, 469).

Leteren esaldi ezagunenetakoa da “gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira bestiak, / burruka hortan iraungo duten zuhaitz-ardaska gazteak” ('Izarren hautsa'). Zuhaitz genealogiko-identitarioaz ari da Lete eta baita gizaki guztiek osatzen duten sustraitze komunaz ere. 'Biographia' kantuan “Zuhaitz heldua naiz hilobiari itzal isil dagiona, menturazko ametsa gazte batek noizpait abesti egina: / atsedena baliz ausaz iraunkorra eta lotan grina / bere soseguan argitsu litzateke lurrezko gizona” aipatzen du. Kanta honetan ere nortasun hori errepresentatzen du, baina zuhaitzen patxada erabiltzen du gizakiaren iragankortasuna seinalatzeko. Zuhaitzak elementu sinbolikoak dira, lurrazala cosmosarekin konektatzen dute eta izaera sakratua dute (Chevalier eta Gheerbrant, 1996, 1026-1027). Euskal Herrian antzinatik dator zuhaitzaren, herriaren eta etxearen arteko lotura.

Normalean, zuhaitza kategoria zabal gisa darabil, baina badira zenbait zuhaitz zehazki izendatuak: pinuak aipatzen ditu 'Nafarroa, arragoa'-n: “Pinudiek usaintzen dituzten / harri txigorrezko bidetan gora”, eta lizarra 'Haizea dator ifarraldetik' abestian. Lehen ere aipatu da

Lizardi poetaren oihartzunak suma daitezkeela kanta honetan eta bere izenarekin ere jolasten duela dirudi:

Agur oihanak, agur itsaso,
atariko lizardia
imajinetan izkutatzen zait
hurbileko izadia

Kanta honetan Letek bere heriotza edo bere kulturaren amaiera gertu sumatzen du eta pertsonaz agurtu beharrean paisaiak agurtzen da. Zuhaitzek beretzat duten balio sinbolikoaren neurgailutzat hartu daiteke. Gizakiak hobira ostean ere bertan irauten duten izakiak dira beretzat. Agur horretan Otañok etxe atariko ombuari jarritako bertsoekiko lotura ezar liteke. Bertsolariak, herriminez, etxe atarian zuen intxaur-ondoa eta atzerrian zuen onbuaren arteko paralelismoa egiten du:

Euskal Herriko lur maite hartan,
jaio nintzan baserrian,
itzal haundiko intxaur arbol bat
dago gure atarian.

...

...

eguna pasa larrian eta
jiratzen naizen orduan,
nere begiak gozaten dira
aldameneko onbuan. (Euskitze, 2010, 20)

Zuhaitzen babes funtzioa bistakoa da bietan. Lehenengo bertsoan errima bera ere antzerakoa darabil. Baserri edo etxe aurreko zuhaitzak etxearen luzapen funtzioa betetzen du Otañorentzat eta, are gehiago, aberri bat ordezkutzen du. Sorta honen amaieran bere hezurak onbuaren pean lurperatu nahi dituela berresten du.

Mahatsa

Mahastiak ere aipagai ditu inoiz. Izan ere, Letek ardoaren aipamenak egiten ditu maiz samar. Ardoaren unibertsoak katebegiaren funtzioa bete dezake bere abestietan: 'Neguaren zai'-n “ardo berriak onduko dira / mahastietan aihen zaharrak / gure oraina arrazoiturik / beste batzuren biarrak”, kantatzen du belaunaldien arteko katea erakusteko. Aitonak landatutako mahatsondoetatik egiten du ardoa bilobak eta ardoak hein batean badu dastamenetik haratago

doan indar transzendental bat Leterentzat. Gandiagaren poema saritu baten harira txakolinaren aipamena egin zuen Letek *Zeruko Argian*:

Txakolina gure lur hotz-epel eta bustitik sortzen den edari garratz eta ahula da; txakolina ez da ardo, baina ardo nahi du; txakolina garratza da, gure bihotzondoa bezala, baina edatean berotu egiten gaitu; txakolina edatea, meditazio baterako lehen keinu eragingarri dugu. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 159)

Aberastasuna, oparotasuna eta zori ona ere irudikatu dezake ardoak: 'Biographia' kantuan, adibidez, "Itzuliko dira exaltazio baten elikagai zaharrak, / uda ederrarekin kantak asmatutako irudi galkorak / gorputzak, irriak, mahastien urrea, pozaren abarrak". 'Lore bat, zauri bat' abestian, adibidez, ardoa plazererako bide da, hedonismo kutsu handikoa: "nahiko hunan gaur ere, bizitzaren kaliza / ardo gorritz beterik gozamenetan hustu".

Hala ere, kontrakoa ere irudikatu dezake ardoa nolakoa den zehazten badu: "ardo mindua edanaz / historiaren tabernan" aipatzen duenean 'Langile baten seme' abestian, adibidez. 'Haizea dator ifarraldetik' kantan ardoa zalantzaren indargarri da, lausotzaile: "Haizea dator ifarraldetik hego berotik ekaitza, / ez da nabari lanbro artean asaba zaharren baratza... / eguneroko lagunak ditut beldurra eta zalantza / ardo txar honek eragiten dit noraezeko balantza". Deskribatzaile huts ere bada zenbaitetan ardoaren aipamena, sinbologiarik gabea. 'Nafarroa, arragoa'-n: "Nafarroa, arragoa mahats eta gari", dio. Kanta honetan gauza bat eta bere aurkakoa aldamenean jartzen du behin eta berriz eta fruitu urtsu hau kontrajartzen dio zekale lehorrari. *Bigarren poema liburukoa* da poema hori, eta liburu berean 'goldea da beharrezko' izeneko poeman gariaren aipamena ez ezik ardoarena ere egiten du. Gizakiak bere izerdiz menderatutako naturaren erretratu ederra da:

Goldea da beharrezko.
Esku sendo zuhurrak
daraman goldea,
gizon langilearen arnasa bizikorra,
gariaren berotasun oriztatua.

Hazia da beharrezko.
nekazari zailduak zabaltzen duen
euri oparoa,
desioaren sabeletik maitasun orruz
aragi biguina ematen den
ziztada zuria.
Euria da beharrezko.
Eta ardo gorri ilundua (1974b, 70).

Zenbait zuhaitzen gaineko lehentasunak ere plazaratu zituen. Sagarrondoaren fintasuna zen gehien txunditzen zuena:

Gerezi-lorak, ene ustez, literatura gehiago du egiatzko edertasuna baino. (...) apirileko euri-jasa bat aski izaten da gereziaren loreari bere lerdentasuna galarazteko (...) apiril eta maiatzean, lore guztietan nagusiena eta iraunkorrena sagar-lorea izaten da. (...) Sagasti loratuen marabilla ezin daiteke berdindu. Sagarrondo loratuak maitatzeko, egun euritsuetan begiratu behar dira, batez ere. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 275)

Leterentzat natura edertasuna da. Natura begiekin irensten du eta garunarekin gordetzen, bizitzearen oinazeari kontrajartzeko:

Nire bizitza, gure bizitza atzerantz begiratzen dudanean, ba ikusten ditut hainbat eta hainbat gertakizun zail, gaixotasun eta ebakuntza, eta zoritxar, bestelakoak ere, moralak ere bai, eta afektiboak, oroitzen naiz zenbait momentutan; baina gezurra izango litzateke gauz ederrez ere ez mintzatzea, eta gauza eder asko egon zen gure bizitzan, eta gauza eder horien artean egon ziren, edertasuna sumatu genuen eta presente egin zitzaizkigun toki horiek. Toki horiek batzuetan toki fisikoak dira, eta beste batzuetan toki poetikoak. Baina, bai, hor lur ederrak eta udako gari sailak eta makalen horizka eta gauza glorioso horiek denak agertzen direnean... oroitzapenak dira. (Gurrutxaga, 2020a, 228)

Letek natura behatzeko joera zuen. Egun bakoitzeko argiaren arabera paisaia aldatu egiten da, urtarook ere aldarazten dute eta behatzen duena badirudi ez dela aldatzen. Epe luzera begiratzuz gero, ordea, paisaia da mantentzen dena eta begiratzen duena bihurtzen da iragankor. Leteren paisaiak, ordea, poematan eta kantatan deskribatuak geratu zituen eta hala bihurtu zituen betiereko.

4.4.4 Eguneko orduak

Naturaren hainbat elementuren bilduma egin ostean denboraren dimentsioari heltzeko garaia da. Biak elkarri lotuta dauden eta orainean gurutzatzen dira. Atal honetan Leteren kantagintzaren egunsentitik gauerako erreposoa burutuko da. Egunaren ordu ezberdinen aipamenen bilaketa eta azterketa izango da honakoa.

Orain eta hemen gertatzen ari dena da existitzen den errealitate bakarria Bachelarden ikuspuntuaren arabera eta, uneoro denez orain, espazioak sekulako garrantzia hartzen du. Espazioa ilusio bat da ikuspuntu honetatik (Castillo, 1994, 110). Espazio hori objektiboa da egitate bat den heinean, baina subjektiboa behatzailearen perspektibak jasotzen eta interpretatzen duen heinean. Leteren eguneko orduak espazioei lotuta daude eta paisaia onirikoak dira askotan:

El devenir del espíritu, para Bachelard está constituido por momentos discontinuos, donde cada uno de ellos tiene sentido en sí mismo, (...) Del mismo modo en la poesía, las imágenes literarias encierran todas las ambivalencias del alma humana, y nacen incondicionadas, como expresión de un acto libre. (...) el tiempo íntimo, en tanto que inefable, es una ilusión, el yo íntimo solo puede pensarse en los términos del espacio. Cualquier temporalidad pura planteada como esencia humana es una nada que como tal es indefinible. La introspección es posible porque el ser humano se relaciona con su ser íntimo como si este fuese un espacio, más aún, un cúmulo de lugares que representan sus diversos estados. (Castillo, 1994, 111)

Espazio horietan eguneko ordu zehatz batean kokatzen da eta argiaren modulazioa eta temperatura dira protagonista. Izatez, argia hitza dozena bat aldiz agertzen da korpusean. Argi hori eguzkiaren errainu bat da ‘Nafarroa, arragoa’, ‘Gauaren ordezkoko eguna’, ‘Haizea dator ifarraldetik’ eta ‘Herri zahar hontan’ abestietan. Lehen kantan nahiko literala izan liteke argia; baina gainontzekoetan argiaren aipamena argi faltaz hitz egiteko modu bat da. Gau horietan argia gizakiaren itxaropen urriarekin lotu daiteke, ongiaren eta gaizkiaren arteko ziklo aldaketa baten mehatxua dira (Chevalier eta Gheerbrant, 1996, 603). Lópezek bere liburuan aipatzen duen argiaren adiera zulakorra (2008, 259) suma daitekeen abesti bakarria ‘Amodio, amore’ da: “gau beltzaren argi, argiaren mindura...” dion esaldian argia zauritu dezakeen laser bihurtzen baitu kantariak. Korpuseko gainontzeko abestietan egiten diren argiaren aipamenak zuzentasunarekin, jakintzarekin edo alaitasunarekin lotu behar dira.

Otaegik *Biziaren ikurrak* liburuari egindako irakurketan argiak Leteren poemagintzan duen garrantzia seinatu zuen eta argia zerutiarra den gai batekin txirikordatzen hasten dela ohartarazten du:

Poetaren begirada ordenatzaileak oroz gainera, iluna eta argi nabaritzen ditu paisaian: argia da paisaien antzaldatzaile nagusia, giza adimenean ere, izpirituz, pota argi bila dabil, argiaz oroitzen da, argiz jantzi nahi du bere izpiritua, hartan dauka gogoia. (Otaegi, 2009, 139)

Goiza lurtarra da, gizakiena, oiartzuarrarentzat: lanerako jaikitzea tokatzen da. 'Gizon arruntaren koplak'-en gizakiaren errutinaren adierazgarri da bigarren zortziko txikian ikus daitekeenez:

Goizean jeikitzean
lenbiziko gauza
ahoa zabaldu ta
jazten ditut galtzak
muturra garbitzean
nolako zalantzak
ezin kendurik nabil
loaren orratzak.

Egungentia goizaren adiera antzekoan erabiltzen du 'Ez esan, maite' abestian¹⁹. Kasu honetan, egungentia ia egunaren sinonimotzat erabiltzen du. Kasu honetan klaribidentzia puntu batekin dator egungentia; laino eta zalantza arrastorik gabe, baina ez da ohikoa Leteren kantagintzan:

Ez dezagun esan, maite
gu ez ginela horrelakoak,
munduak gintuela hondatu.
(...)
Gugan zegoen argia itzali baldin bazen
ez inori errurik bota
ez kulparik egotzi
argitik ilunerako urratsa
mila bider eman baikenuen,
hainbestean orbandu
elkarrekiko leialtasun lehena.
Orain badakigu non gauden
eta zer geran
eta zer itxoin genezaken
egungenti batetatik.

Izan ere, zalantzatia zen Leteren nortasuna. Oinarri finko eta irmo batzuk bazituen, baina bidegurutzak gurutze bide bihurtzen zaizkion pertsonen artean sailkatu zitekeen. Zalantza hori suma liteke bere poema askotan. 'Euskalerrri nerea' abestiak "Bide bat aukeratzean

¹⁹ Egin [klik hemen](https://www.youtube.com/watch?v=bJbMjn7oH68) 'Ez esan maite' abestia entzuteko: <https://www.youtube.com/watch?v=bJbMjn7oH68>

gelditu nahi nuke nire lurrean” dio, aukera eta erabakia esaldi berean lotuz. Zalantza, zenbaitetan bidearen kontzeptuarekin lotzen du Letek. Zalantzen aurreko jarreraz dihardu ‘Jakin nahian’ artikuluan.

Hala esan zidan behin batek: "Ez hadi kezketan bizi; aukera ezak eta ikusiko duk nola handik aurrera beste ezertxo ere ez zaiken axolako! (...) Zer errazago aukeratzea baino...? (...) ez daude munduan problemak guk gere burua justifikatu dezagun". (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 81)

Esatea, ordea, sentitzea baino errazagoa izan ohi da: “Aukeratzeak mina dakar. Izan ere, ez dago bide bat aukeratzetik beste asko bazterreratu gabe. Egia bakarra eta bide bakarra mito bat dira, eta konprenitzen saiatuz gero, kontradikzioan aurkituko duzu zure burua”. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 81)

Egunsenti lainotsuak

Egunsentia etengabeko jaiotzaren sinbolo da, hilezkortasunaren sinbolo, eta Jainkoak iluntasuna garaitzeko duen gaitasuna iradoki dezake (Chevalier eta Gheerbrant, 1996, 275). Ordu bertsuetan izanagatik, esanahi oso ezberdineko kontzeptuak dira Leterentzat egunsentia eta goiza. Eguneko lehen orduak nahasmendu orduak dira poetarentzat. Izadia eta etxea eraldaturik agertu ohi dira. Momentu hori hasiera, genesis, da kantariarentzat eta nahasmendua da nagusi. Egunsentia lausotuta ageri da maiz, gauak ingurua eraldatu izan balu bezala. Iluntasunetik argitasunerako trantsizio orduok ziurgabetasunik gabeko uneak da Leterentzat. Testuinguru horretan natura eraldatuta dago eta zentzumenak engainatu ditzakete orenek, 'Gauaren ordezeko eguna' abestian maisuki deskribatzen du ideia hori:

Gauaren ordezk esnatu zaigu egunsenti bat apala
bere argitan ez da nabari eguzkiaren ahala.
Dizdira baino nabarmenago lainoa eta itzala,
ke sakon batek estaltzen baitu euskal lurraren azala.

Gau osoan zehar iluntasunak paisaia ezkutatu ondoren, lehen argitasunak lainoa baino ez du argitzen, beraz, egunsentia ez da gaua baino fidagarriagoa. Bertso honetan lainoa eta ke sakona elkartzen dira bertsoan, berezko zalantza eta ezegonkortasun artifiziala, biak, gainezarriak. ‘Lore gorrien balada’-n egunaren hasieran usteltzen dira loreak: “Udaberriko lili garbia, / gure lurrean heldua / gaueko amets bat bezela / egunsentian galdua”. 'Amodio, amore' kantan ere egunsentia ageri da eta kearekin lotua dago. Desioak eta pasioak eragindako kontrol galerarekin lotzen du kontzeptua:

Ezin zaitut aipatu, maitasun neurrigabe
mugarik ez duenak ez baitauka izenik,
odolaren deiadar oihu gorritz sortua
zentzu iratzarrien egunsentiko kea...
Guziaren beharrez eskas zaizun atala
poema ilun baten sormenezko lerroa,
nahimenaren makurle, zoriaren keinua
ezin zaitut abestu, amodio eroa.

‘Herri zahar hontan’ abestian “lanbroak goizetan jazten duen erreka” aipatzen du, eta lanbroz estalia ez ezik, ihintzez estalia ere egon daiteke paisaia, eta hormatua ere bai. Euskal Herriko paisaia berdeak zuritasun magiko batez mozorrotuta egoten dira horrelakoetan eta badirudi denbora, bizitza eta bizidunak ere izoztuta geratu direla. Hala deskribatzen du 'Negu hurbila' abestian:

Ez nau beldurtzen egunsentian
arnas zuridun izotzak
nun dirudien bizirik gabe
natura zabal hilotzak
eguzki eder joan guztien
argia baitu bihotzak
eta begien milla ernegai
iraganaren oroitzak.

Bistakoa da, beraz, egunsentiaren indar eraldatzailea Leteren kantatan. Gehienetan, literalki, lainoa edo ihintza dira eraldapenaren arduradun; baina 'Agian' abestian, adibidez, behatzailearen begiak dira malkoz lausotuta daudenak, eta natura etxe barrura sartzea ahalbidetzen duten elementua mesanotxe gaineko loreak dira. Behatua edo behatzailearen ikus-ahalmena lausotu, efektua bera da:

Agian berak negar egiten zuen
malko isilez goizaldean
zure lo sorgorak
kulparen angustia
estaltzerakoan.

Agian horrela behar zuen izan
isiltasuna, loreak, malkoak,
portzelanazko ontzitzoa buruki ondoan,
esker txarraren arauak
bait ditu bizitzak gehienetan
leial irauten dutenentzat

Bere bizitzaren azken aldera sortutako abestietan apur bat aldatzen du ikuspuntua. Bere bikote Lurdes Iriondo galdu ostean, heriotzari zion beldurra transformatu egiten da eta lehen

natura estaltzen zuten ziurgabetasunak edertasun zeinu bihurtzen dira. 'Negu hurbila'-ko egunsentia eta 'Jardin bat zuretzat' abestikoa oso ezberdinak dira:

Ez nau beldurtzen egunsentian
arnas zuridun izotzak
nun dirudien bizirik gabe
natura zabal hilotzak
eguzki eder joan guztian
argia baitu bihotzak
eta begien milla ernegai
iraganaren oroitzak.

Egunsentiko ihintza, goizeko loreak
itsasoaren hatsa eta koloreak
urruneko hiriak, lurralde hobeak
musika eder baten azken akordeak
maitasunezko hitzak barruan gordeak.

'Negu hurbila'-ko zortziko handian egunsentia ez duela izutzen dio, baina horrenbestez mehatxu izaera onartzen dio. Hamarreko txikiko bertsoetan, berriz, egunaren orduak denboraren joanaren pilaketa egiteko erabiltzen ditu. Bertsoa naturako elementuekin hasten du, gizakiaren eraikuntzatarara bidaiatzen du ondoren, arte sorkuntzara igaro eta sentimenduetan amaitzen du. Ohi bezala, ihintzak sortutako eraldaketa ageri goizalban; baina ez da behatzailearen nahasmendu, loreen elikagai baizik. Bestalde, egunsentiko ihintzaren eta barruan gordetako hitzen arteko lotura magiko bat ere egin liteke, koplaz zaharretako iruditeria gogorarazten duena.

Autoreak berak aipatzen du egunsentien eta oroitzapenen artean lotura bat hautematen duela. Alex Gurrutxagak *Xabier Lete aberriaren poeta kantaria* liburuan transkribatu zuen Arantxa Iturbek 2008ko abenduaren 22an egin zion elkarrizketa eta egunsentien indarraz mintzo da:

Nafarroan uda pasatzen genuenean, hor aipatzen ditut poema pare batean, 'kobaltozko egunsentia', urdin-urdin hasten zenean zerua argitzen, eta urdintasun bat hartzen zuenean, izugarria (...) izaten zen egunaren promesa hori oso deigarri eta oso ederra. (...) Egunsentiaren esku izoztuak, izotza, hotza, negua, udazkena bizitzaren bukatzen hastearekin metafora bezala, baina uste dut, dena hain iluna eta hain ezkorra izan ez dadin, poema horietan udak ere badaudela. Hori bai, udak agertzen direnean, dira oroitzapen, dira gehiago izango ez diren zerbait... gogoetak dira, oroigarriak dira (2020b, 228 or.).

Urienek gogoratzen du berrogei urteko tartearen ostean heriotzaren irudia egunsentiko izotzarekin lotzen jarraitzen duela:

Gazterik idatzitako poema liburuan jada badago heriotzaren gaineko kontzientzia, denboraren igatearena, bidaiaren amaierarena. “Egunsentiko andraren esku hotza” darabil Letek heriotzaren metaforatzat 1968an idatzitako liburuan, eta Egunsentiaren esku izoztuak izena jarri zion 2008an argitaratu zuen azken liburuari (Urien, 2020, 104).

Musikatuta, baina argitaratu gabe utzi zuen ‘Egunsentiko enara ilunak’ izeneko abestiak Gustavo Adolfo Bécquer-en oihartzuna dakar. Leteren maitasun abestirik borobilenetako bat litzateke, argitaratu izan balu. Ohi bezala, maitea galtzeko mehatxua da ardatza, baina zaintza eta babesa ere esplizitatzen ditu:

Zu hor bazaude lo
eta leihora hurbiltzen banaiz
udako egunsentietan
lehen argiaren adeitasuna bilatuz,
herabeor, baldar, ahul,
izarak tolestatuko ditut
zure gorputz apala babestuz
eta gero eskeiniko natzaie gogoetei
irakats diezadaten
gure kondairaren azpimintzo
desitxuratua.
Ai, maite, zenbat beldur
egunsentiko enara ilunek
altzipresaren sosegua iratzartzean
eta mendietan argiaren lehen aztarrenak
nere bihotzari ihesaren bideak
lurralde urruneruntz seinalatzean...

Baina zu lo zaude eta behar nauzu,
baratzeko loreak zainduko ditugu
eta pozoinez beterik egonik ere
loredi horretan gera kontsolatuko. (Lete,
2006, 104)

Goiz lanpetuak

'Eskaintza, nere aita zenari' abestian ere goizaren aipamena dago, errutinaren, adierazgarri; baina, aldi berean, lainoa etxe barrura ekartzen du eta kristal lurrunduan islatzen. Poema hau Leteren aitaren belaunaldiaz mintzo da: belaunaldi honek bestelako herri eta jendarte baten itxaropena zeukan batetik, baina orainaldiko errealitateari aurre egin beharra bestetik. Sisifo, harria hartu eta, mendian gora abiatzen da goizero erresignazioz:

Goizero begiratzen zioten mentura itsuari
ohizko afan larrien beira lurrunduan
eta liburu hertsu batean misterioa zantzutuz
apal zeramaten, zorte bakartian, zeruen iraina.

Gauero hersten zutelarik nekearen parentesia
halabeharrari emana izan zaion orri lerrorik gabean
leialtasunari galdegiten zioten arauaren berri
etsipenak zalantzari erantzuten dion ordu eskergean.

Poema honek, goiza eta gaua josten ditu lerro gutxitan. Efektu horrekin lanaren efektu alienatzailea azpimarratzen da. Eguna, ohartzeko, gau bihurtzen da; lanak bizitzari eskaini beharko litzaiokeen tartea jaten du erabat. Goiza frustrazioa eta erresignazioaren tartea da; eta gaua nekearena eta zalantzarena. Poema honek, hurrengo lerroetan, are gehiago urruntzen du gizakia bere desioetatik, lanari erlijioa gehituta:

Han, haiek zuten gorpuztu kondaira itsua,
giza destinoa den zoriak eraman zituen
neurri denen gainetik dagoen agindua bereganatzera:
besteren agindua, jainkozkoa, gizakioia, beti ikurtua.

Nabarmentzekoa da gauetan “nekearen parentesia” ixteari buruzko metaforaren edertasuna.

Arratsaldearen argiak eta itzalak

Arratsaldearen zenbait aipamen badaude bere lanetan, baina kasu honetan oso konnotazio ezberdinak ematen dizkio kanta batetik bestera. Leteren lehen maketako 'Euskal Herri nerea' singlean malenkoniak deskribatzen du hirugarren estrofa:

Arratsaldeak berez dakarren tristura
niretzat izaten da bakardade hura:
nonbait ase nahirik begiak.
Balio al du gure egiak?
Bidea aukeratzean
gelditu nahi nuke nire lurrean.

Leteren izaera kontenplatioa ikusi liteke lerro horretan. Egunaren amaierarako trantsizioa behatzeak gorputzaldi sosegatua eragiten zion. Arantxa Iturbek 2008ko abenduaren 22an egin zion elkarrizketan honela deskribatzen zuen Nafarroako arratsaldeek sortzen zioten hunkidura:

Nafarroan ibiltzen ginenean, arratsaldeek eta ilunabarrek bazuten halako argi oso berezi bat, argi poetiko bat, eta bereziki eguzkia sartzen hasten zenean... (...) Han eguzkia sartzen ikustea izugarritzko ikuskizuna izaten zen, gorri-gorria eta izugarritzko eguzki ederra. Baina hori baino lehen izaten zen arratsaldearen melankolia hori, melankolia bat... sosegua ematen duena. Melankolia bat baina ez oinazetsua, baizik pozezko melankolia bat, bazihoalako egun eder luze bat, udako egun luze hori, eta bazenekielako hurrengo egunean berriz ere beste egun luze bat izango zenuela argi askorekin, hemen sekula ez dakiguna (Gurrutxaga, 2020b, 227).

'Habanera'-n aipatzen duen arratsaldea, ordea, oso bestelakoa da. Giroaren eta tenperaturaren bitartez modulatu ditu bere haurtzaroan ikusten zituen objektuak:

Berriro itzuliko balitz
iragan denbora arrotza
berdin kontsumi nezake
bainila gozo artean,
itsaso urrun batean
irudimena galdurik
udaberriko euritan
larrosak pizten ikusiz.
Osaba komertzianterik
ez nuen izan Habanan,
pianorik ez zegoen
bizi nintzen etxe hartan,
neskatxen puntilla finak
udako arratsaldetan,
errosario santua
neguko gela hotzean.

Beroaren eta hotzaren kontrastea egiteko darabil arratsaldea kasu horretan, hitz bakoitzak berotasun gradu bat kentzen edo gehitzen dio lerroari.

Argitasunez betetako arratsaldea aipatzen du 'Neguaren zai' abestian, baina hain justu aurkakoa seinalatzeko: iluntasun erabatekoa eta hotza. Arratsalde honek aurrekoak baino berantiarragoa ematen du, ilunabarrarekin mugan kokatu liteke.

Ez nau iluntzen baratzatikan
azken loreak biltzeak
muga guzien arrazoi bila
arnas gabe ibiltzeak,
arratsaldeko argi betera
zentzu denak umiltzeak...
atsedenezko loa baitakar
behin betirako hiltzeak.

'Altzateko jaun' abestian sorginen dantzak arratsaldean kokatzen ditu. Gauaren eta egunaren arteko lotura da arratsaldea eta nolabaiteko konplizitatea dago bien artean:

Bide batetik okertu gabe kanta dezagun bertsua
isil-isilik esan dezagun eukaldunen sekretua:
herri zahar baten oharpen haiek nora ditugun galduak
zenbat itxura alda ditzaken eguna hil zuen gauak.
Bidasoaren ezker-eskubi udaberriaren lore gorriak
isilikako ur izkutua:
mendeetan zehar kantu leuna, noizbait latinez lurperatua
laister berpiztu behar duguna.
Larhun-gainean sorginen dantzak naba(r)itzen ditut arratsaldean,
lurrak badaki kontu hoiien berri
eta hor dago isil-isilik.

Abesti honetan gauak eguna hiltzen du, eta horrenbestez iluntasunean murgilduta utzi du Euskal Herria. Kanta honen amaierak ezkutuan dagoena ere izan badela azpimarratzen du eta badirudi bistartzeko momentu egokiaren zain dagoela.

Gauaren begiak

Leteren autoretzako kantetan gehien errepikatzen den hitza gaua da. Aurreko adibidean ikusi den gisara (“eguna hil zuen gauak.”), gaua pertsonifikatu agertzeko joera du poetak. Gaua gogo propioa duen izaki zelatari bezala deskribatzen du 'Habanera'-n (“gauak zelatan dakusa kontzientzia bilutsik”, dio), eta 'Ez dut amets handirik'-en (“Uste onaren emaitzak gau beltzak ditu urratu, / hobe da etorkizuna adimentsuki moldatu”). Oiartzunen ohikoagoa da arratsa hitza eta hura ere topa daiteke bi kantatan. 'Maiteaz galdezka' abestian:

Orduak pasa ziren, ezer ez nun entzun,
nik ez dakit, maitea, konprenditzen duzun,
arratsaren ilunak eguna bildu zun,
Jainkoak inundikan ez zidan erantzun.

Eta hitz bera darabil 'Habanera'-n ere:

Tabako, ron ta kanelaz
girotutako arratsetan
algarak entzuten ziren
Habanako putetxetan

'Gaua' abestian kontzeptuari hizketan dihardu eta harenganako ikuspuntu ezkorra nagusitzen da (“Triste jartzen dezu bihotza, iluntzen diguzu gogoak bakardadean”). Hala ere, gauak amets egiteko abagunea ere eskaintzen du: “argiaren promesa gizonen gau beltzean”.

Interesgarria da 'Haur andaluz bati sehaska kanta', gaua eta gauaren elementuak behin eta berriz ageri baitira:

Sehaskan zaude, haurra, kabi beroan lo,
gau luzearen begiak hor daude zuri so
ekarri zinduten lur arrotz hontara,
ekarri zinduten, gaueko haurra. (...)

Bota zintuztenek irakatsiko dizute
hartu zintuen lur hau lur madarikatu dela,
bultza nahiko zaituzte herri baten desegitera,
hain maltzur da gorrotoa, hain luze ta ilun gaua.

Lotan zaude, haurra, esnatuko zera,
gauaren begiak argituko dira.
Lankide nahi zinduzket, bide-lagun agian,
gaur kabi duzun lur hontan finka zaitezen bihar.
Lore bat da nire hitza, dardarrez dakarkizut,
zure lo hortatik esnatzean ikurrin gisan jaso dezazun.

Haur baten loa da kanta honen gai nagusia. Haurrak, inozentzian, begiak itxita ditu; eta gaua da, begiak zabalik, bere loa zaintzen duena. Gauak, kantu honetan, Espainia eta bere nazionalismoa ordezkutzen du. “Gaueko haurra”-k, esnatzen denean, Letek eskaintzen dizkion loreak onartu nahi dituen ala ez hautatu beharko du.

‘Amodio, amore’ abestian gauza txarren gorpuztea da gaua; eta gauza onena, argia. Maitasuna “ekaitzaren marru, irriaren tristura / gau beltzaren argi, argiaren mindura...” dela dio. Aipagarria da, maiz ohi duen gisa, tenperaturara doala eguneko ordua aipatu berritan: “sutan daukazulako izotzaren bihotza / izozten duzulako eguzki beroena”. ‘Ez dut amets handirik’ abestian ere adiera negatiboan darabil gaua; “beltza” erredundantzia gehituz adibide honetan ere:

Zergatik kale erdian ipuin erorik kontatu,
bizitza merezi duen gazte ederrik hondatu.
Uste onaren emaitzak gau beltzak ditu urratu,
hobe da etorkizuna adimentsuki moldatu.
Eguneroko fruituaz eskuak bete ditzagun
alferrik da bihozkadaz egoerari erantzun.

Egunen gurpila

‘Herri zahar hontan’ izeneko abestiak orain arte aipatutako zenbait elementu batzen ditu letra bakarrean. Kanta honetako lehen estrofan natura eraldatuaren zenbait aldaera deskribatzen ditu, kasu honetan zalantza sortzaile baino gehiago edertasun marka direnak. Bigarren estrofak, ordea, erabat hausten du ordura arteko patxada, eta argiak sortzen duen itzalean jartzen du azpimarra. Gauerdiko ezkilaren aipamena ere egiten du:

Lanbroak goizetan jazten duen erreka,
mendi tontorretan geldiro haizea,
Zelai eta oihan, eguzki-lorea,
iturri garbien musika tristeia,
neguko elurren hoztasun zabala,
uriak dakarren patxada sakona
herri zahar hontan.

Ametsen sukarra ezpainen negarra,
gauerdi isilen ezkila bakarra,
bizitzaren irri ihes dihoana,
gorputz loratuen farre eta laztana,
hizkuntzaren doinu leun eta zakarra,
oihuka hausten den gure kanta zaharra
herri baldar hontan.

Denbora lotzen duen orduen gurpila,
argi azken baten izpi iheskorra
jarraituko dugun borroka bizia,
eskeiniko dugun ahalmen guzia,
azken ordurarte, atsedetik gabe,
ilunabar arte, anaien ondoan
herri zahar hontan.

Kanta honetan bistakoa da guztiz, nola heriotza edo azken ordua eta ilunabarra gauza bera diren Leterentzat. 'Neguaren zai' abestian ere “ez nau larritzen azken orduan / arnasa galdu beharrak” kantatzen du. *Egunsentiaren esku izoztuak* liburuan badu poema bat zeinetan paisaia eder baten atzealdean ilunabarra marrazten duen; bertan suma liteke izakiaren biziraun nahia, norbait izan nahia, galtzera doan bizitzaren aurrean:

Garisailek hesitutako bidezidorretan ibili ginen
hain ederrak ziren neguko soro berdeetan
den orok izan nahi duela aldarrikatzen duenean...
Hor almendroetan lore zuri orbandua
elurraren beldur bere gaztetasun goiztiarregian,
hor mertxikaren polifonia larroxa,
hor olibondoen zilar lerrotua
ortziaren distirari harridura bat ezarriz...
Gero, ilunabarra kobaltozko zerubazter zenean
gaua erori zen isiltasunezko hobian
bizidunon harridura guztien estalgarri
bihotzak zekienean
beste ederrik ez duela aurkituko sakonagorik,
ederresteko eta gero urruntzeko sortu delako gizona
eta miresmenak bakarrik salba dezakeelako
ezereztasunaren itzal zekenetik. (2008a, 107)

Diskoratu ez zen ‘Ez gera alferrik pasako’ abestian ere bistakoak dira atal honetan aipatu diren eguneko orduak Leteren hiztegian zuten esanahia. Abesti hau *Herri Irratian* grabatu zen, baina ez zen diskoratu. *Abestizak eta Poema Kantatuak* liburuan jasota dago, ordea:

Beste esku batzuek jasoko dute gure lana,
ez gera alferrik pasako.
Badu bizitzak etorkizun bat,
ez da ametsik hautsiko.
Izango gera egunaren hasieran gazte
eguerdiko berotan neke, ilunabar-sarreran atsedean kabi.
Baina gero, beste egunsenti batean
gure herriko jendeak argi berrira esnatzean
altxako dira eskuak
ahots latz gogorrek esanen dute egia
eta ez da nehoiz itzaliko itxaropenaren argi gorria,
gizonaren bideak seinalatzen dituena.
Beste bihotz batzuek jasoko dute gure esperantza,
ez gera alferrik pasako.
Gure oinek markaturiko bideetatik
bihar eta etzi eta beti
anai berriek jarraituko dute justiziara daraman bidea.
Ez gera, ez gera, ez gera alferrik pasako! (Lete, 2006, 113)

Egunaren hasieran indarrez eta energiaren beteta, eguerdian nekatuta, eta ilunabarrean lotarako prest agertzen da Lete eta hurrengo aroa ekarriko duen egunsentian argi gorriaz dihardu. Beraz, kanta hau interesgarria da aberriaren ikuspuntutik behatuta ere. Belaunaldiartekosunaren gorazarre bat delako eta kontsentsu baten bidez azken garaipenera iristeko ereserki izan nahi lukeelako.

Egun batetik besterako jauzian orainalditik garaipen egunera arteko jauzia egiten du Letek ‘Ez nazazu utzi’ izeneko abestian ere. Arratsaldean kezka iturri da, ilunabarra orainaldiko iluntasunei buruz gogoeta egiteko garaia; eta biharamuneko argia, itxaropena. Lau estrofatatik bi errepikatzen den estribiloari dagozkio eta beste bi estrofeak ere egitura bera darabilte, aldaera batzuekin (X - ilunabarrean / Y - eguna argitzean):

Ez nazazu utzi, nik etzaitut utziko
ez nazazu utzi, ez, nik etzaitut utziko.
Negar egingo duzu illunabarrean
baiñan poztuko zera eguna argitzean.
Ez nazazu utzi...
Amets egingo duzu illunabarrean
libre jarriko nautela eguna argitzean.

Letek, itxura batean, ikuspuntu ezkorra enfatizatu arren beti erakusten du argi zirrikitu bat. Egun batek hurrengoak dakar, eta ziklikotasun horretan munduko oinaze guztiak datorkeen patxadaren atari dira.

4.4.5 Ondorioak

Leteren kantagintzan natura bera ez da gai nagusi, lehen mailako protagonista, kanta gehienetan; baina ezinbesteko elementua da adierazi nahi duenari kolorea emateko eta ñabardura poetikoak marrazteko. Naturako elementuak motibo garrantzitsuak dira, ordea, edozein gai nagusiren gaineko ikuspuntua garatzeko. Badira gizateriaren ikuspuntu hiritarraren zenbait zipriztin bere lanetan. Industrian lanean jardundako urteetan bilduak eta aitaren kontakizunen bitartez bereganatuak ziurrenik, baina aipamen hauek normalean naturarekin konexioa galtzeak ekar litzakeen kalteak azpimarratzeko darabiltza. Industrializazioak ekarri zuen alienazioaren aurkakotzat jotzen du natura, purutasunaren islatzat dauka.

Natura indar bizi bat da bere obran eta eraldaketarako gaitasun handia dauka. Zalantzari lotuta dago maiz aldakortasun hori eta tenperaturarekin oso lotuta askotan. Bestalde, eraldaketa horrek iragankortasuna ere seinalatzen du. Letek bere existentziaren hutsaltasuna adierazten du maiz zuhaitzen betierekotasunarekin kontrastean.

Bere kantatetik ondoriozta daiteke natura elementu menderakaitza dela alde batetik, baina aldi berean gizakiaren behar guztiak asetzeko kapaz dela. Ikuspuntu ekologista eta babeslea baino, naturarekiko maitasun sakon bat adierazten dute bere letrek.

Loreek txunditzen zuten bereziki eta haien edertasuna miresten zuen. Bizitzaren metafora gisa erabiltzen ditu gehienetan bere lanean. Zentzumenak iratzartzeko duten gaitasunagatik

erotismoaren sintetizatzaile ere badira. Gordetzen duten sekretua bistartzeko mimoz zaindu beharreko izakiak dira loreak; egoki tratatu ezean zimelduko diren altxorrak.

Zaintza horretan jartzen du fokua Letek lorategiak aipatzen dituenean. Batzuetan gune espiritualak dira, paradisuaren edo zeruaren zati; besteetan, berriz, aberriaren etorkizuna dago jokoan eta lurra da bereziki landu beharrekoa. Bigarren aukera honen aldera lerratzen da normalean bere zuhaitzen erabilera eta sustraietatik enborrera eta enborretatik adarretara doan segida baliatzen du belaunaldien artekotasuna azpimarratzeko.

Esan daiteke eguneko liparrek presentzia handia dutela bere kanta eta poematan. Bere pentsamenduan orduok zuten indarraren erakusgarri dira bere liburuen izenburuak: *Egunetik egunera orduen gurrpilean* liburuan hasi zuen ibilbidea *Egunsentiaren esku izoztuak*-en amaitu zuen.

“Denbora lotzen duen orduen gurrpila”-ri begira egoten zen Lete. Iraganari begira pasatako orduak mantso joaten ziren poetarentzat (“badoaz ordu geldiak, gogorapenen hegalez”); oraineko orduak, berriz, iheskorak ziren Leteren abestitzetan, eta literalki hala deskribatzen ditu zenbait kantatan ('Giza aberea'-n, adibidez). Denboraren joanak argiaren joan-etorria markatzen du bere abestietan, eta bere egoera animikoaren isla da:

Nire izatearen ordu ilunenak maite ditut orain
haiek zirelako kontzientziaren ingude garratza,
itzaltzeaz delarik zentzu iratzarrien lorezko baratza
ezin baitut hazia gatzak estali zuen lur antzuan erein.

Iluntasunean argi pixka bat jartzea zen oiartzuarraren obsesioetako bat. “Ekin ta ekin bilatzen ditu, saiatze hortan ezin gelditu, jakintza eta argia”, dio 'Izarren hautsa'-n eta 'Ni naiz'-en “Ez zaidazu galdetu gauza ilun guztien arrazoi gordea, nora ote dihoan denbora aldakorrek daraman bidea”.

Bere abestien bidez koadroak marrazten zituen Letek. Koadro bat margotu nahi duenak errealitatearen zein zati hautatu nahi duen erabaki behar du. Lehenik eta behin, lekuari erreparatu ohi zaio; baina leku berak kolore ezberdinak ditu egunaren ordu bakoitzean. Itzalak desplazatu egiten dira egun guztian zehar, eta errealitatearen zati ezberdinak estaltzen dituzte; argi izpiek paisaiako hainbat puntutan jartzen dute fokua.

Abesti bat sortzea koadro bat marraztea bada, kontraste handiko irudia sortu nahi zuen Letek. Argi naturala eta itzal mistikoa elkarren ondoan jarri nahi zituen, bakoitzari zegokion protagonismoa emanaz eta bien arteko oreka bilatuz. Eguzkiaren lehen eta azken izpiek eskaintzen zioten horretarako aukera osoena. Bere sorkuntza markatu zuen zalantza etengabekoaren adierazgarri, paisaia aldakorrek margotu zituen, bukatutzat eman gabeko lanak, sikatu gabeko olioak, denborak eraldatuko zituenak.

4.4.6 Erreferentziak

- Castillo, R. (1994). La teoría del instante en Bachelard y el espacio onírico. *Revista de Filosofía de la Universidad de Costa Rica*, 32(77). 109-116.
- Chevalier, J.; eta Gheerbrant, A. (1996) *Dictionary of symbols*. The penguin.
- “Euskitze” Peritz, X. (2010) *Pedro Mari Otaño Barriola 1857-1910*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. [Online](#).
- Gurrutxaga, Alex (2020a). *Xabier Leteren poetika: aldaeren azterketa eta bilakabidearen irakurketa bat*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Artxibo digitalak ikerketa irakaskuntza (ADDI).
https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/47863/TESIS_GURRUTXAGA_MUXI_KA_ALEXANDER.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Gurrutxaga, Alex (2020b). *Xabier Lete. Aberriaren poeta kantaria*. Alberdania.
- Iriondo, L. (2006) *Antologia* [Diskoa]. Elkar.
- Izagirre, K. (2017). *Elurra ikusi dut*. Elkar.
- Lete, X.; Lertxundi, A.; eta Zelaieta, A. (1974). Xabier Lizardi olerkari eta prosista. *Jakin*, 14. 11-43 or.
- Lete, X. (1974b) *Bigarren poema liburua*. Gero Mensajero.
- Lete, X (1981). *Urrats desbideratuak*. Gipuzkoako Arrezki Kutxa Probintziala.
- Lete, X. (2004ko apirila). Xabier Leterekin kontu kontari (Elkarrizketatzaile: Joxe Arregi). *Hemen*, 4.
- Lete, X. (2010a/12/06) Al final te reconcilias con la humanidad a través del respeto (Elkarrizketatzaile: Jabier Muguruza). *Deia.com*.
<https://web.archive.org/web/20101210194652/http://www.deia.com/2010/12/06/ocio-y-cultura/cultura/al-final-te-reconcilias-con-la-humanidad-a-traves-del-respeto>
- Lete, X. (2011). *(Auto)biografía bat* (Editore: Inazio Mujika). Alberdania.

- Lizardi, X. (1932). Zuaitz etzana. *Biotz-begietan*.
<https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/L/LizardiBiotz014.htm>
- López, E. eta López, A. (1991). *La imagen del nacionalismo vasco y de la violencia política en el País Vasco en la prensa Americana (Estados Unidos) y La contracultura en España en la segunda mitad de la década de los 70*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- López, M. I. (2008). *El tópico literario: teoría y crítica*. Arco Libros.
- López, E.; eta López, A. (1991). *La imagen del nacionalismo vasco y de la violencia política en el País Vasco en la prensa Americana (Estados Unidos) y La contracultura en España en la segunda mitad de la década de los 70*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Oronoz, B. (2011). *Josanton Artze "Harzabal": inguruaren eragina poesiagintzan (1969-1979)*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Artxibo Digitala Ikerketa Irakaskuntza (ADDI).
<https://addi.ehu.es/handle/10810/10801?locale-attribute=eu>
- Otaegi, L. (2009) Biziaren ikurrak (1992) In Kortazar, J. (Ed.) *Eguno euskal poesiaren historia*. Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua. 137-146 or.
- Perez-Gaztelu, E. eta Saez de Eguilaz, H. (2020). *Zerbitzuko lanean. Lete kazetari, Lete prosagile*. Mugarri.
- Urien, A. (2020). *Poesia zurien ukendu*. Pamiela.

4.5 Nortasunaren gatazka: lana, aberria, eta nazioartea

4.5.1 Sarrera

Nortasunak eta gatazkek leku oso garrantzitsua dute Leteren obran. Hiru esferaren inguruan orbitatzen dute bere katek nagusiki: langileria, aberria eta nazioarteko elkartasuna. Euskal Herriaren nazio askapenaren mugimenduak bete-betean harrapatu zuen Lete 60. hamarkadatik aurrera. Hasierako urte haietako kantaririk lerratuenetako izan zen Lete. Ozen aldarrikatu zuen artistek herriarekiko zuten konpromisoa. Berezi atxikitzen zitzaion langileriaren borrokari. Nazioarteko askapen prozesuei eta autoritarismoaren aurkako mugimenduei ere erreferentzia egiten zien bere abestietan. Taula honetan daude borrokaren bat ardatz duten 18 abesti. Hiru gai nagusitan sailkatuta:

Taula 4

Nortasunari buruz diharduten kanten sailkapen tematikoa

Langileria	Aberria	Nazioartea
‘Langile baten seme’	‘Euskalerra nere’	‘Chile’
‘Eskaintza, nere aita zenari’	‘Poeta hoiek’	‘Lore bat, zauri bat’
‘Giza aberea’	‘Lore gorrien balada’	‘Cançó a Catalunya’
‘Haur andaluz bat seaska kanta’	‘Ez dut amets haundirik’	‘Habanera’
‘Teologia, ideologia’	‘Izarren hautsa’	
‘Otsoak eta txanogorritxu’	‘Gauaren ordezkoko eguna’	
	‘Herri zahar hontan’	
	‘Aberri ilunaren poema’	
	‘Alzateko jaun	
	‘Malkoak euri balira’	
	‘Gaua’	

4.5.2 Langileria

Klaseen arteko talkak, langileriaren antolamendua eta marxismoa pil-pilean zauden Leteren sorkuntzako lehen fasean. Langile kontzientzia sakona zuen Letek. Ferminek, bere aitak, fabrikan egiten zuen lan eta lidergo sindikala beregain zeukala dio Arantxa Letek (2021eko elkarrizketa):

Neska koxkorra nintzela, lehen greban, gure aita hor saltsan ibili zen. Nik gure ama nahiko urduri ikusten nuen. Lankide bat erdi-ezkutuan etorri zen galdezka: “Fermin etorri al da? Berak esan behar digu bihar goizean zer egin behar dugun”. Gure aita bileraren batean zegoen. Naturalki jaso genituen halako gauzak. Gure aita ez zen oso eskolatua –ama eskolatuagoa genuen– baina jakin-mina zuen eta munduko gauzen berri izatea gustatzen zitzaion.

Xabierrek ere egin zuen fabrikan bolada batean eta orduko esperientziek indartu egin zuen klase horrekiko ardura. Bere lehen poema liburuan oso presente dago gaia.

Bere burua ezkerrekotzat zuen Letek eta gaztaroan harrotasunez defendatu zuen posizio hura. *Zeruko Argiako* artikulu batean ezkerreko ideologia ez ezik praktika ere beharrezko zela aldarrikatzen zuen. Politika egiteko aukera zuten Europako herriei buruz honakoa idatzi zuen 1967ko abenduaren 3an *Zeruko Argian*: “beharrezkoak diren zenbait kolaborazioko posturretan itzali eta galtzen da ezker izpiritua. (...) eskuindarren jakintza, ohitura, janzkera eta komodidade berdinekin bizi den Europako ezkertiar bati ez zaio erraza izango erreboluzioaren izpirituan leial eta tinko irautea” (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 94), bere poema liburutako komuneko poetari bezala, pentsamendua eta praktika gurutzatzen zaizkio. Adierazpen hauek interesgarriak dira, izan ere, bistan uzten dute ez zuela gerora kudeaketa politikoan lan egingo zuenaren aurreikuspenik.

Letek sorkuntzaz bizitzea lortu zuen nolabait, eta horrek hazteko aukera eman zion:

Cuento con gran sinceridad en la entrevista que abandonó los estudios que no le gustaban y los trabajos que no le apeteían. No hubo hijos, la casa estaba pagada, algo también obtendría Lourdes y su vida no tenía grandes gastos. Es decir, Lete vivió sin dinero y sin obligaciones, que es a lo máximo que se puede aspirar en esta vida. (...) Supongo que en algún momento lo pasaría mal, o mejor, andaría un poco justo de dinero. (...) Le recuerdo dueño de su tiempo y de sus citas. (Ibarzabal, 2020, 26-27)

70eko hamarkadak aurrera egin ahala marxismoaren kontzepzio teorikoek eta kontraesan praktikoek talka egiten zuten maiz eta intelektualek berrirakurketak egiteari ekin zioten:

The fading of the figure of the intellectual as critical consciousness and the emergence of the figure of the intellectual as expert, did not represent an episode in the end of history, summoned to contemplate itself in the marriage between liberal-representative democracy and the sovereign market that had finally been effected. Marx continued to be the subject of topical re-readings and represented a moment in attempts to revive a critical theory commensurate with the new era, different from the reconstructive endeavours ventured by the great communist heretics of the previous period. Rather than an end of Marxism, what occurred was the diffuse and, above all, well-nigh impotent lowering of a thousand Marxisms, as the historian of the world economy Immanuel Wallerstein has nicely put it. The problem is an adequate assessment of this situation, which frustrates the hopes of Marxism's undertakers (Tosel, 2008, 42).

Lehenagotik, Sartre eta Camusen artean ere izan ziren zenbait eztabaida. Askatasunaren gorazarreak hautuak egitera behartzen du norbanakoa. Aldekoak dio Sartre existentzialismoaren “larrimin burges intelektuala alde batera utzi eta Materialismo historikoaren” esanetara errenditu zela, langileriaren eta gizarte-borrokaren norabidearekin elkartasunean aritzeko:

Historia bilakatu zaion filosofia da aurrerantzean marxismoa, gizakia bere osotasunean, bere egoera historiko zehatzetik abiatuta mundua ulertzeko gai den antropologia bakarra. Ez da Jainkoagan sinesten, bai ordea Historian.

Camusen “Gizaki matxinatuarentzat”, berriz, dialektika marxistak askatasunaren ukazioa zekarren berarekin. Camusek honako interpelazio hau egiten dio marxismoari, edo onartzen da helburuak bitartekoak ere justifikatzen dituela, krimena ere legitimatuz, edo aurrerantzean uko egiten zaio marxismoari, filosofia absolutu gisa hartuta. Ez du bere iraultza gaitzesten, baizik eta bortxaz konkistatutako boterearen ideia, alegia, ekintza prometeiko eta erromantikoaren irudi hori. (...) Camusen kasuan, ez da halakorik justifikatzen duen Jainkorik, ez Historiarik, ezta hizki larrizko Arrazoirik ere. (...) Camusek ikuspegi moral batetik jardun zuen. Urte horietan komunismoaren makurrak bisitatzea ez zegoen ondo ikusita Parisko ezkerreko intelektualen artean. (Aldekoa, 2015, 98-99)

Marxismoaren inguruko gogoetak ere argitaratu zituen Letek. 1980an *Muga* aldizkarian ‘*Richard Lewontin. Marxismo y sociobiología*’ izeneko artikulua kaleratu zuen, adibidez. Bertan, biologo honen pentsamendua azaltzen du: kapitalismoak ez dituela gizakien beharrak betetzen uste du Lewontinek, marxista independentea dela dio eta ez dagoela ados Marxekin lana gizakia beste izakietatik bereizten duena dionean. Soziobiologiari buruzko gogoeta plazaratu zuen Edwar Wilsoni kontrajarriz:

Si él, Lewontin, se compromete en la lucha contra la sociobiología, es porque ve en ella una falsa ciencia cimentada en las ideologías perniciosas, pero que tampoco pretende probar la falsedad de las teorías wilsonianas arguyendo que ellas impiden la revolución. Agrega Lewontin que él no acepta el punto de vista estalinista sobre la división de la ciencia en la ciencia burguesa y ciencia proletaria y que si el movimiento Science for the people se denomina así, es por la convicción de que el saber científico es utilizado por los que detentan el poder como un arma contra los que no lo detentan. Y que, por lo tanto, “ciencia para el pueblo” no quiere decir otra cosa que una ciencia que no vaya contra el pueblo”. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 395)

Hurrengo orrialdeetan zehar, Letek langileriaren gaia zer-nola marraztu zuen deskribatuko da kantaz kanta. Lanaren gogortasunari buruzkoa da ‘Giza aberea’. Langileriaren ikuspegi ez hain etsigarria berreskuratzen du ‘Langile baten seme’ abestiak eta haren segidatzat har daiteke ‘Eskaintza, nere aita zenari’ izenekoa. Proletariotzaren kontzientziaz dihardu ‘Teologia, Ideologia’ abestiak eta lan esku merke bihurtzen diren migrarien integrazioaz ‘Haur andaluz baten seaska kanta’k. Bide batez, sarrera labur bat egingo da 5. kapituluaz aztertuko den ‘Gizon arruntaren koplak’ abestiari buruz zeina, funtsean, gizon langile normatibo bati buruzko kanta satiriko bat baita. Hala azaldu zuen *Herri Irratian*:

Eguneroko gizona, gizon bulgarra esango genukeena. Kontzientziazio gehiegi ez daukana eta kezka gehiegi ere ez eta halako... ez dakit... beno, eguneroko mundu arrunt, bulgar eta ohiturazko batean, ez? Eguneroko rutinaren esaten den bezala bizi den gizonaren arazoa. Gizon hori hain kritikatu izan da eta hain da kritikagarri, guk denok baitaukagu gizon horretatik asko, gizon rutinario, eta eguneroko gizon zera, klitxe askori atxikiz eta klitxe askotatik barrena bizi den gizon horrekin guk ere hainbeste baitugu, ba bururatu zitzaidan, okurritu zitzaidan kanta satiriko bat. Irri kanta bat egitea, dedikatzea. Gutako edozein izan litekeen gizon arrunt horri. Ni ere arrunta sentitzen naizelako askotan eta gero hemen Euskal Herrian, gizon arrunt hori normalean langile, langile jendea izan ohi da, ez? Egunero lan egiten duen gizona askotan esaten den bezala, tipo alienatua, ez? Besteentzat lan egiten duena eta konturatzen ez dena eta ezarritako usadioak eta ezarritako moralitatea eta ezarritako sinismenak eta ezarritako pautak bereganatzen dituen tipo arrunta, ez? Ez dakit nola esan, kriteriorik ez duena edo izateko posibilitatea izan ez duena edo eguneroko bulgaridatean dabilena. Beno, orduan hori dena nola diskutigarri den eta nola kritikagarria den, kritikatzeko, baina era berean samurtasun berezi bat jarri nahi izan nion, ni ere arrunta sentitzen naizelako eta bizitza, askotan, hori besterik ez delako, eguneroko arruntasun bat. (Lete, 1978a)

‘Giza aberea’

Lanbide gogorrek gizakia alienatzeko duten gaitasunari buruzko kanta da ‘Giza aberea’. Lana beti ageri da gogor Leteren kantetan, baina zenbaitetan (‘Eskaintza nire aita zenari’ abestian, adibidez) langilearen jarrerak (langile klase kontzientziak) duintzen du. Erich Frommen *Ensayos sobre el Apocalipsis* liburuko kapitulu batean dio garai hartako belaunaldi

zaharrenak edozein modutan bizitzera ohitu zirela ordurako, baina krisia nabarmenagoa zela gazteriarentzat:

El moderno industrialismo ha obtenido un rotundo éxito en la producción de este tipo de hombre. Es el hombre “alienado”. Está alienado en el sentido de que sus actos y sus propias fuerzas han llegado a enajenarse de él; están por encima y en contra de él; le gobiernan en vez de ser gobernadas (...) Es el prisionero de las circunstancias económicas y políticas que él mismo ha creado. (Brown et al., 1973, 32)

Letek kanta honen zenbait bertzio egin zituen. Lurdeseekin batera kaleratu zuen diskokoa, esaterako, originala baino laburragoa da. Konpara ditzagun bi bertzioak:

Makurka ta poliki, arrastaka bidean
bizkarrezurra oker zerbitzuko lanean,
zerbitzuko lanean burutik altxa gabe
munduan zehar doa giza-aberea.

Makurka ta poliki, arrastaka bidean
bizkarrezurra oker zerbitzuko lanean,
zerbitzuko lanean burutik altxa gabe
munduan zehar doa giza-aberea.

Begiak lurean ta ezer ikusi gabe
sudurrarekin usman usai txar bat irentsiz,
bihotz ustel usaia, odol ustel usaia
badoa ta badoa giza aberea.

Eskuak jaso eta haizerik ezin heldu
ezin ordu ihesen zatirik harrapatu,
itzalean zapaldu, marruez arrastaka
lokatzetan aztarka giza aberea.

Eskuak jaso eta haizerik ezin heldu
ezin ordu ihesen zatirik harrapatu,
itzalean zapaldu, marruez arrastaka
lokatzetan aztarka giza aberea.

Atzapar estuetan bizitzaren zatiak
otsoari burrukan garrasika kenduak
eta bazter batean urduri kozkatuak
munduan zehar doa giza aberea.

Galdutako desio lorearen beharra
udaberri epelen arratsalde nabarrak
gorputz gozatze samur mundua bezain
zaharra
alaitasun azkarra, maitasun hain ederra
keak eramane dituzte musikaren oharrak
bular legun batzuen xarma eta galdarra
xarma eta galdarra nork xukatu ditzazke
giza aberearen antsi eta negarrak

Zakurren ibillera, oihuz zaunka ta zaunka
zintzurrean loturik beldurraren gustoa
mingainetik zintzilik lotsa eta nekea
badoa ta badoa giza aberea.

Amets bat berotzeko astirik izan gabe,
iraungo duen egia bat ezin erditurik,
biraoka beteaz bere bakardadea
badoa ta badoa, heriotzaren billa giza
aberea.

1915ean Franz Kafkak kaleratu zuen *Metamorfosia (Die Verwandlung)* liburuaren eragina nabarmena da kanta honetan. Gizakia gehienei errazak litzaizkiokeen mugimenduak modu neketsuan egiten deskribatzen du izakia:

Gregorio se deslizó lentamente con el sillón hacia la puerta; al llegar allí, abandonó el asiento, arrojóse contra ésta y se sostuvo en pie, agarrado, pegado a ella por la viscosidad de sus patas. Descansó así un rato del esfuerzo realizado. Luego intentó con la boca hacer girar la llave dentro de la cerradura. Por desgracia, no parecía tener lo que propiamente llamamos dientes. ¿Con qué iba entonces a coger la llave? (Kafka, 1979, 28)

Pasarte honek ‘Giza aberea’ren edukiarekiko antzekotasuna du gizaki menderatu bat marrazten duen heinean eta ‘Sinisten dut’ kantarekin ere ezar liteke lotura bat hiztegiari eta estiloari dagokionean. Idazlearen miresle zen Lete eta hari buruzko artikuluren bat ere idatzi zuen *Zeruko Argian*.

Kafkaren aitaz diharduelarik bere prosak poesia zati batzuk gogoratzen ditu: “aita beti izan zen horma gogor bat bezain pasatu ezinezko muga, hautsi ezinezko neurria, (...) txindurri baten gisan bazterreratua, itzalera bidalia, erreztua; menpetasun definitibo batera kondenatua” (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 98). Lanaren beste dimentsio bat –bere garairako aurreratua kontsidera daitekeena– deskribatzen du bertan; mando baten ikusmena mugatzen den bezala, lanak pertsonaren bizitzeko energia xurgatzen duen elementu bat dela hautematen du:

“Ordutik aurrera, mugimendua da bizitzaren norma bakarra; mugitu zaitez, eta salbatua aurkituko zara. Ez albora begiratu; barrura are gutxiago. Segi, segi aurrera. Ekin: horra sendagai berria. Ez zara damutuko. Damutzeko astirik ere ez zaizu geldituko. Ez zara agian inora iritsiko, baina ez du axola”. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 80)

Abestiaren letran gabezia pilaketa erabiltzen du Letek etsipenari bide emateko (hiruna aldiz errepikatzen dira “gabe” eta ezin” hitzak; giza aberearen lorpenak “bizitzaren zatiak” dira; garaipenek, izatekotan, partzialak behar dute. Ukoa onarpena modu bortitzean deskribatuta dago abestian.

Lanak alienatutako gizaki bat irudikatu daiteke protagonistaren atzean. Lanerako besterik bizi ez den pertsona bat. Begoña Muruagak *Plazara aldizkarian* egindako elkarrizketaren aitortzen duenez, “gizonaren bizitza zama izugarri bat bezala agertzen da, Sisiforen harria bezalakoa”. Kanta hau garai hartako adierazgarriena dela irizten dio autoreak. Esan liteke kanta autobiografikoa dela. Bere ametsak betetzeko bere burua fabrikan lotuegi ikusten zuen boladan idatzi baitzuen:

Ni hemeretzi urterekin lanean hasi nintzen, Pasaiaiko fabrika batetan, estudioak utzita. Bizimodu hura hain zen grisa eta iluna niretzat, non eta nire egoera, esistentzialki, abere ilun eta eskas baten gisan sentitzen nuen, eta lanaren mundu horretan sartu nintzenean, benetan giza abere bat sentitu nintzen, eta ez abere noble bat, ez arranoa, baizik eta petroleoz hegialak zikinduak dituen kaio bat. Egia da, gainera, orduan irakurri nuela Arestiren poesia, eta hasi nintzela bi iluntasun horiek bat egiten: gizonaren esistentzia, berez —jaio garelako eta hainbeste sufritu dugulako— hain da iluna, hain da makurra..., eta, bestetik, hasten garenean bizitzarekin harreman konkretutan ere —lanean, adibidez— iluntasuna da nagusi. Bi sentsazio horiek lotu nituen eta kanta hori egin nuen, (...) Hor gizonaren bizitza zama izugarri bat bezala agertzen da, Sisiforen harria bezalakoa, eta, gainera, Jainkoaren interbentziorik gabe, baizik eta destino beltzaren interbentzio bat bezala. (Muruaga, 1991)

Aipatu behar da zentzumenak bizien agertzen diren Leteren kanta dela honakoa. Usaimenaren, eta zapoaren aipamen esplizitua egiten du, itsutasuna ere kantagai du, eta aliterazioak darabiltza entzumena enfatizatzeko. Letra honetarako hitzen hotsa tentu handiz hautatzen du Letek, eta koherentziaz ahoskatzen kantuetan (“makurka, bizkarrezurra oker, aztarka”). R-ak eta leherkariak pilatzen ditu poetak esaldiz esaldi, entzuleari girgilu eta kateen soinua entzunarazi nahi balio bezala:

Makurka ta poliki, arrastaka bidean
bizkarrezurra oker serbitzuko lanean,
serbitzuko lanean burutik altxa gabe
munduan zehar doa giza-aberea.

R-ez gain txistukariak pilatzen ditu zenbait lerrotan: “itzalean zapaldu, marruez arrastaka / lokatzetan aztarka”. Itzalean zapaltzeak adierazten du gizakiak libreen egin ohi duena ere, non zapaldu hautatzea, zorte txarreko egiten duela; itxaropenik gabeko bidaia bat marrazten dio Letek kantako protagonistari.

Kokapen funtzioa du lehen bertsoak. Deskribapen gordina da, sentitua, eta aliterazioz betea, ahoskatzeko gaitza. Errepikapenen indarra ere nabarmentzekoa da: “zerbitzuko lanean / zerbitzuko lanean”, bihotz ustel usaia, odol ustel usaia”). Horrekin langilearen errutina indartzen du.

“Begiak lurrean ta ezer ikusi gabe” hasten du bigarren bertsoa, hiperbolikoki. Gizaki hori animalizatzeko bultzada da. Epe motzeko arnasak orainean bizitzera kondentzen du izakia, ez du etorkizunik, eta ezin du planik egin. Horren arriskuez mintzo den kanta bat du Silvio

Rodriguezek: ‘Fabula de los tres hermanos’ kantak lurrera begiratzearen ondorioz galtzen den anaia bati buruz dihardu:

De tres hermanos el más grande se fue
por la vereda a descubrir y a fundar.
y para nunca equivocarse o errar
iba despierto y bien atento
a cuando iba a pisar...
de tanto en esta posición caminar
ya nunca el cuello se le enderezó.
y anduvo esclavo ya de la precaución,
y se hizo viejo queriendo ir lejos
con su corta visión... (Rodriguez, 1980)

Gizakia aberetzeko helburua betetzeko zentzumen gizatiarretan basatiena, usaimena, darabil. Usaimenaren erabilpena ez da batere ohikoa Leteren abestitzetan eta darabilenean usain atseginak gailentzen dira: “mendabeltxen usaina”, “pinudiek usaintzen dituzten”. Kanta honetan, ordea, usain desatsegina da, entzuleak ere nekez ezabatuko duena:

Begiak lurrean ta ezer ikusi gabe
sudurrarekin usman usai txar bat irentsiz,
bihotz ustel usaia, odol ustel usaia
badoa ta badoa giza-aberea.

“Eskuak jaso eta” haizea heldu nahi luke Picassoren koadroko emakumearen gisan. Hiperbole bat da, haizerik ezin baitu heldu inork, ezta “ordu ihesen zatirik” ere. Galdutako denbora berreskuratzeko nahia, iragana aldatu nahia gai unibertsala da. Marcel Prousten *Denbora galduaren bila (À la recherche du temps perdu, 1913-1927)* gogoratzen du. Iraganaren nostalgia hori present dago Leteren beste kantaren batean ere: “berriro itzuliko balitz / iragan denbora arrotza” (‘Habanera’).

Izakiak atzaparrak ditu eskuen ordeaz, eta “bizitzaren zatiak”, ondo kostata, “otsoari burrukan garrasika” kendu dizkio. Gero, “bazter batean urduri kozkatzen” du bere garaipen pirrikoa. Kaleko zakur deslai baten portaera deskribatzen du: modu desesperatuan borrokatzeko gai den izaki bat da, baina aldi berean duen apurra galtzeko beldurrez bizi dena. Lorpena izan daitekeen hau ere (otsoari borrokan irabaztea) bere garaipenaren itsusitasunarekin lausotzen du Letek. Estrategia ohikoa da klaserik baxuenetan borrokak indibidualizatzea, haien berdinekin edo baxuago daudenekin borroka eginaraztea haien arteko etsaigoa mantentzeko.

Modu honetan, langileen arteko batuketa zailtzen da eta ez dira gorago dauden klaseen aurka antolatzen.

Hurrengo estrofan, laugarrenean, zakurra aipatzen du. Otsoa aipatu berritan zakurra aipatzeak etxekotzeko bidean gakoetako bat izan zen beldurra azpimarratzen du: “Zakurren ibillera, oihuz zaunka ta zaunka / zintzurrean loturik beldurraren gustoa”.

Izakiaren “zintzurrean loturik”, beldurra ez ezik, lotsa eta nekea ere badaudela esaten du kantak. Alde batetik, zentzumenen erabilera sinestetikoa aipatu beharra dago puntu honetan. Bestalde, garrantzitsua da lotsaren sentimenduaren aipamena, izan ere, kanta osoko kontzesio gizatiar bakarretakoa da.

Azken bertsoan gizaki hori izakitzera eraman duen errealitatea azaltzen du bi lerrotan. Amets egiteko denbora eza eta errealitate bat sortzeko gaitasunik eza aipatzen ditu. Giza aberearen egoera testuinguruari egozten dio, eta bere amorrua biraoka askatuz borobiltzen du.

Estetikoki lokailu guztiak ezabatzen ditu Letek, kadentzia motela, sumatiboa emateko, munduko gauza txarren pilaketa astun bat eraikiz. Horrela, “heriotzaren bila” dihoan giza-abereari ihesbide bakar hura planteatzen zaio, hura eder begitantzeraino.

‘Eskeintza nire aita zenari’

Nekeari aurre egiten dion (g)izakiaren irudia maiz agertzen da Leteren kantatan. Lanak eragindako izerdia eta atsedeen falta aipatzen ditu ‘Herri zahar hontan’ abestian ere: “Otoitzen gezurra lanaren nekea, / Erbesteko lege bakerik gabea, / Amets ero baten morroi ta semeak”. Lan baldintza neketsuei idatzitako kantak diren heinean senidetuta daude ‘Giza aberea’ eta aitari idatzitako eskaintza. Lete bere sentipenak exajeratuz iritsi zen ‘Giza aberea’ idaztera.

Errealitate bera interpretatzeko moduak, ordea, askotarikoak dira eta errealitate berari aurre egiteko estrategia ezberdina zerabilten beste belaunaldi batzuek.

Aurreko kantak lanaren monotoniak pertsona nola usteltzen zuen deskribatzen badu, honek beharrari aurre egiteko jarrera duina defendatzea du helburu. Salbazioa erabaki txikietan

zegoela eta bere aitaren belaunaldiak errukia bizirauteko estrategia gisa erabili zuela ondorioztatu zuen Letek:

Nahikoa kezkatuta nago errekontziliazioaren ideiarekin, piedadearen ideiarekin, barkazioaren gorabeherarekin. Azkenean —eta hori nire aitarengandik ikasi nuen, eta hari azken disko honetan dedikatu diodan horrelako erreflesio bat sartu dut— norberaren bizitza ironiaz hartu behar dela eta ez dagoela absoluturik, eta errekontziliazio moduko baten beharra dagoela, mundu hau eramangarri bihur dadin. Nik ez dakit pentsamentu honen sustraiak kristauak diren, ala piedadearen ideia hori posmodernidadeari dagokiona den, zeren eta Gianni Battimo-k hitzaldi batetan esan zuen piedadea zela salbatuko gintuzkeen gauza bakarra —piedadea konprensiotzat ulertuta—: hain gara denok ere txikiak, non eta elkar konpadezitu beharra, soportatu beharra daukagun, ez balore abtsolutuetan oinarritutako filosofia batzu eraikitzeke, baizik eta superbibentziaren pentsamendu minimo bat birrelaboratzeko. Posmodernidade deitzen dena, behar baldin bada, horrela entenditzen dut nik: ez pentsamendu handiak; ez ikuspegi historizista batetatik erredentzio batetara eramango gaituzten pentsakerak —horiek, azkenean, faltsu eta totalitario bihurtzen direlako—, baizik eta pentsamendu erlatiboak, txikiagoak, eta gehiago begiratuz arlo pertsonalari eta gure buruaren txikitasunari. (Muruaga, 1991)

Figura 24

Lete-Bergaretxe familia



‘Eskeintza, nere aita zenari’ abestian gizakiak bere esentziaren zati bat galtzen du (“nor zirenen irudi deseginkor”-ez mintzo da), baina ez da erabat aberetu. Kanta honetan pertsonak ezaugarri gizatiarrak ditu, baina xumetasunaren eta pribazioaren azpimarratzea etengabea da: ukazioz betetako garaia egokitu zaie, patua beraien belaunaldiaz trufatu da, eta heriotzari destaina eginez bizi dira, duin eta apal, harridura gabe:

Bizidunaren aberri apala gertatzen zaion etxe orokorrean
eresirik gabe hil ziren aurrekoak,
duintasun isilez, harridura gabe zorte bakartian
beren azken orduari destainuz iheska
haiek, denbora ukatu baten kudeatzaileak.

Goizero begiratzen zioten mentura itsuari
ohizko afan larrien beira lurrunduan
eta liburu hertsu batean misterioa zantzutuz
apal zeramaten, zorte bakartian, zeruen iraina.

Gauero hesten zutelarik nekearen parentesia
halabeharrari emana izan zaion orri lerrorik gabean
leialtasunari galdegiten zioten arauaren berri
etsipenak zalantzari erantzuten dion ordu eskergean.

Han, haiek zuten gorpuztu kondaira itsua,
giza destinoa den zoriak eraman zituen
neurri denen gainetik dagoen agindua bereganatzera:
besteren agindua, jainkozkoa, gizakoia, beti ikurtua.

Urduri, arretaz entsegatu zituzten keinu maitekorrak,
lanean galdu zuten arrenkura gabe bizitzaren dema,
onest izan ziren ahal zuten neurrian beren buruekin
eta azkenean arerioari eskeini zioten jakitun zaharrak
auzien unean ironiz ohi duen erruki osoa.

Gaur, oharpen zatituen desasoseguari darraikion gatazka
norberari arrotzak zaizkion norabide erabakikorretatik jarraitzerakoan,
guri haiek, aintzinako irri eta negarren epopeia idatzitakoek
nor zirenen irudi deseginkorretatik digute irakasten
ez dagokiola gizakumeari giltzarria duten Jainkoen epaia:
pietate haundiaren arreta digute gauetik zuzentzen. (Lete, 2006, 93)

Egokitu zaionarekin konformatu eta erresignazioz aurre egiten dio Leteren aitak poema honetan. Izenburuak modu argian seinalatzen du hari zuzendua dagoela, baina poema hirugarren pertsona pluralean mintzo da. Esan liteke, beraz, aitarekin fusionatzen duela aitaren belaunaldi osoa. Lete kritikoa zen nazionalismoarekiko, baina “arbasozalea” zela zion (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 269). Belaunaldi horren apaltasun

etiko-ideologikoa nabarmendu nahi du poemak. Apaltasun horretaz, elkar ulertzeaz, eta errespetuaz gogoeta egin zuen Letek:

Apaltasun hori beharrezkoa eta ona da, baina ahulezi baten adierazpena ere izan daiteke..., eta hor kontradikzio bat badago: printzipio indartsurik ez baldin badago, etika baten funtsa zertan oinarritzen da? Hori da galdera. Printzipio funtsezko batzu daudenean azpitik, sinismen batetan edo bestetan oinarrituak, ematen du printzipio horien gainean eraiki daitekeela konportamendu-kodigo bat; hau da, etika bat, eta bestela ezin daitekeela eraiki. Printzipio horiek failatzen dutenean, badirudi etika posiblerik ez dagoela, fundamentatua behintzat, eta bakar-bakarrik posible dela etika interpersonalista eta minimalista bat: tolerantzia, errespetu eta dezentziaren etika minimo-minimo bat. (Muruaga, 1991)

Poema hau ez da hutsaren erdian sortutako ale isolatua. Bere poema bat baino gehiagorekin ezar daitezke loturak. Adibidez, *Urrats desbideratuak* liburuko ‘Dante Alighieri Ravenna-n’ poemaren hirugarren estrofa “Denbora fatal baten kontatzaile trebeak” dio:

Denbora fatal baten
kontatzaile trebeak,
inpernu antzaldatuz
bere sorterria,
gaztaroko antsiak
barruan zeramatzin
iñoiz ezin itzaliz
irrikaren suak:
lore ate neskatxak
udaberriko gauak,
gizonak maitagarri
ohi duen guztia. (1981, 57)

Leteren abestiak, berriz, “haiek, denbora ukatu baten kudeatzaileak” dio. Leteren formulazioak antzekoak dira bietan.

Arantxa Letek dio (2021) aita zena goizeko 7:00tan irteten zela etxetik eta hamabi ordu beranduago itzultzen zela. Xabierrek poematan hainbeste aipatzea –ama, berriz, apenas azaltzen den– berarekin nahi baino denbora gutxiago pasa izanaren zantzutzat dauka. Bestalde, beraien aitaren filosofia ulertzeko gakoak ematen ditu. Ferminek irabazlearekiko errukia sentitzen zuen: garaipena lortzeko borrokak sortutako suntsipenak irabazitakoaren balioa deusezten zuela uste zuen. Hori jakinda, hobeto uler daitezke “onest izan ziren ahal zuten neurrian beren buruekin / eta azkenean arerioari eskeini zioten jakitun zaharrak / auzien unean ironiz ohi duen erruki osoa” bezalako esaldiak.

Bigarren poema liburuan ‘Eskaintza, nere aita zenari’ kantarekin ahaidetua dagoen poema bat bada. Kasu honetan, ez zaio belaunaldi bati mintzo, herri bati baizik; baina bietan tonu ezkor berbera darabil:

Ezaren semeak

Gu
ezaren seme
zalantza orokorraren zaldun lurreratu
odol eta lokatzezko denbora hauetan
nostalgiaren sabelean bilduta aurkitzen
garenok...

gure kondaira
letra ttipiekin eskribitzen den horietakoa
da
eta gure etorkizuna
laino grisen ezparadiso problematikoa

Oroitzapenak gordetzen dituen maleta
zaharra
zuloz beterik dago aspaldian
eta horietatik ixurtzen doaz
esperantzak
fantasiak
gorroto farregarriak...
Neguaren atariko arratsaldetan
gure aterabideak banan-bana kontatzen
aspertzeraino saiatutakook...
baina sentimentuaren ariak
ezin ditu inork behar bezala lotu
elkarri itsatsi.

Arrazoiaren gurdia
bere ardatzaren inguruan
geratu gabe bueltaka dabila,
eta bihotza

nazkatzeraino mekanismoz beterikako
makina karrankari bat besterik ez da
neguaren atariko arratsaldetan. (1974b,
46)

Gauza bertsua esan daiteke ‘gizon ttiki haiek’ poemari buruz ere (1974b, 98) non Sisiforen mitoa inoiz baino ebidenteagoa den:

gizon ttiki haiek

Gizon ttiki haiek
harri handia ezin mugituz
izerdia
eta orrua zerioten,
lerdia zerioten
gizon ttiki haiek
harriarentinkotasunaren aurrean.

Gizon ttiki haien biraoek
eskandalu izoztu bat
sorrerazten zuten...

Saiatzen ziran gizon ttikiak
baina harriaren haunditasunaz
txundituta
deuseztasunaren itzal beltzean
murgildurik
geratu behar zuten.

Gauaren erortzearekin
harri handiaren pean etzanaz,
beren nekea ezin txukatuz
egunsentiak arrapatzen zituen,
eta argi berriaren amorez
berriro zutituz,
harriaren itzalean kaka eginaz,
berriro harriari bultzaka
hasi behar...
O, gizon ttikiak!
Karon tek bere ontzian eramandakoak
eta oraindik hatsari doi-doian eutsiz
lan eta lan ari diren
gizontto ttikiak...

‘Eskeintza nire aita zenari’ poemari Konstantino Kavafis-en kutsua dariola dio Gurrutxagak *Xabier Lete Aberriaren poeta kantaria* liburuan (2020b, 178) eta ‘Termopilak’ poema seinalatzen du zehazki. Greziar gerlariak historiak jaso ditu eta Letek aipatzen duen belaunaldia liburuetatik kanpo geratuko da agian, baina ohorearen, duintasunaren eta errukiaren balioetan bat datoz bi poemak:

Honor a aquellos que en sus vidas
se dieron por tarea el defender Termópilas.
Que del deber nunca se apartan;
justos y rectos en todas sus acciones,
pero también con piedad y clemencia;
generosos cuando son ricos, y cuando
son pobres, a su vez en lo pequeño generosos,
que ayudan igualmente en lo que pueden;
que siempre dicen la verdad,
aunque sin odio para los que mienten.
Y mayor honor les corresponde
cuando prevén (y muchos prevén)
que Efiálfes ha de aparecer al fin,
y que finalmente los medos pasarán. (Kavafis, d.g., 35)

Gaiari dagokionez, gehitu daiteke ‘Sacerdote del Serapion’ekin senidetua dagoela: “A mi buen padre anciano, / que me amó siempre igual; / a mi buen padre anciano que murió anteayer, poco antes de anochecer”. ‘Cuando puedas’ izenekoaren esfortzua en inguruko aipamenean kutsua ere azpimarra daiteke:

Y si no puedes hacer tu vida como la quieres,
en esto esfuérzate al menos
cuanto puedas: no la envilezcas
en el contacto excesivo con la gente,
en demasiados trajines y conversaciones.
No la envilezcas llevándola,
trayéndola a menudo y exponiéndola
a la torpeza cotidiana
de las compañías y las relaciones,
hasta que llegue a ser pesada como una extraña. (Kavafis, d.g., o.g)

‘Eskeintza nire aita zenari’ abestia isilaldi luzearen ostean argitaratu zuen Letek *Eskeintza* diskoan. Disko berekoak dira ‘Habanera’, ‘Neguaren zain’ eta ‘Haizea dator ifarraldetik’ bezalako kanta ezagunagoak. Hala ere, pentsatzekoa da Leterentzat esanahi berezia zuela, diskoari izena eman baitzion. Errezitatuz grabatu zuen kanta hau, Karlos Jimenezek txukundutako piano nota ohe baten gainean. Pier Paul Berzaitzek kanta honen bertsio bat²⁰ kaleratu zuen. Kasu honetan, poema modu melodikoagoan egokitu zuen, eta kutsu elizkoia erantsi.

²⁰ Egin [klik hemen](https://www.youtube.com/watch?v=w4Ff2ve6Ouk) ‘Eskaintza nire aita zenari’ren bertsio hau entzuteko: <https://www.youtube.com/watch?v=w4Ff2ve6Ouk>

‘Langile baten seme’

‘Giza aberea’ eta ‘Langile baten seme’ abestietan bezala, Letek begiekin ikusitakoak garrantzia handia du honako honetan ere. Fabrikan aitaren erreleboa hartu, lanbide hura utzi eta paper artean murgildu arteko bidea deskribatzen du. Lan fisikoaren duintasuna aipatzen du, baina lan kulturek dituzten zailtasunak salatzeke ere baliatzen du abagunea. Halaxe kontatzen du Letek kanta honen jatorria:

Nik abesti batean aldarrikatu nuen langile baten semea nintzela. Aita fundizioko moldeadorea zen, eta Pasaiako Victorio Luzuriaga fabrikan egiten zuen lana. Gaztetan ELAkoa izana zen. Lan ongi eginaren urguilua sakonetik bizitzen zuen. Hitz gutxi, zuzen bizi, iragana errukiz eta ironiaz begiratu. Hori zen bere araudia. Inolaz ere, ni industri peritoxa izatea nahi zuen, baina horretan ezin izan nion pozik eman. Baina gero, poesia idazten hasi nintzenez, oso harro sentitu zen. (Lete, 2011, 19)

Letek lehen bertsoan katebegiaren irudia azaltzen du: “langile baten semea naiz ni / aita bezela langile”. Bere abestizetan maiz agertzen da errepikapen ziklikoen pertzepzioa (ezagunena, “gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak...”). Kate horren betiketzea eta aldatzeko ezintasuna aipatzen ditu kantak, pertsonalki eta herri moduan. Bestalde, pertenezia horri kontrajarrita, “puntakoak” aipatzen ditu (“puntakoetan inor ez zaigu / gertatu ongile”, nagusiei erreferentzia eginaz.

Bigarren bertsoan fabrikatik kultur sorkuntzarako jauzia kontatzen du, “bidezidorra”ren aipamenarekin. Erabaki horrekin patuak beretzat hautatua zuen bidea baztertzeko aukera izan zuela erakusten du eta hautu egokia egin duenaren intuizioa du kantariak bertsoaren amaieran. Erabakiak gurasoen desilusia edo kezka dakar, beraiek lan egonkorrago baten segurtasuna hobesten baitute. Lete, ordea, “bizitzarekin borrokan” sentitzen da postu horretan eta bere egoera astundu egiten du “altzairu”aren aipamenak. Bizitza errealean, gurasoek begi onez ikusi zuten bere kultur gile papera. Bertso hau da Leteren asmoa ondoren laburbiltzen duena. Kultur sortzaileek profesionalizatzeko ahalegina egin zuten eta hori problematikoa izan zen orduko jendartearentzat. Fabrika batean izerditzen zuen langilea eta oholtza batean abesten zuena klase bereko langile kontsidera ote zitezkeen zalantza zuen Letek eta kanta bihurtu zuen:

Gizarte bat estrukturatua dagoen produkzio molde baten barruan (...) ni zer naiz, eta ni bezala beste batzuk zer gara? (...) ni ez naiz inoiz sentitu langile tipikoa, hemen eguneroko usantzan langile bat kontsideratzen den bezala, ez? Hau da, langile asalariatu bat, besteren zerbitzura edo besteren interesetara lan egiten duen langile bat. Era berean, ni ez naiz sekulan izan langile hemen deitzen den langile autonomoa, ez? Bere negozioa daukana edo bere lanbide organizatua daukana. Orduan euskal kulturaren barruan lana egin duen beste jende asko bezala eta zenbait kantari bezala ni sentitzen nintzen urte luzez halako tipo arraro xamar bat, ez marjinatua ez eta gutxiagorik ere, baina bai pixka bat atipikoa, ez? Ez nuke esango desklasatua ere, ez. Ni langile sentitzen naiz eta langileriaren barrutik sortua eta nolabait langile baina era berean lan berezi baten barruan, ez? Langintza berezi baten barruan, horrek dituen kontradikzio guztiekin. Eta Langile baten seme kantan nik uste dut hori reflejatzen dela edo reflejatu nahi dela nolabait, ez? Problema bat da hori, askotan aipatu izan dena eta Euskal Herrian zenbait momentutan askotan tratatua izan dena, eztabaidatua eta komentario, kritika eta planteamendu askoren iturburu izan den gaia, ez? Zer da lan egitea eta lanaren zentzua eta lana nola egin behar da, ez? Eta hori euskal kulturaren arlo horretan lan egin dutenei askotan planteatu zaie, ez? Justifikatzen ahal da lan klase hori? Zer zentzu du lan horrek? Zertarako balio du? Aski al da pertsona baten bizitza betetzeko? Beharrezkoa al da? Askotan esan izan ohi da, baietz, oso beharrezkoa dela lan klase hori, ez?, lan egitea kulturaren barruan ahalik eta liberazio gehienarekin eta ahalik eta dedikazio gehienarekin, baina klaro, gero kezka batzuk sortzen dira, ez? Ni nola integratzen naiz besteren lanarekin, besteren... (Lete, 1978a)

Hirugarren bertsoan alferkeriaren apologia egiten du nolabait eta keinu bat egiten dio ‘Giza aberea’ri “zomorroa”ren aipamena eginda. Norbanakoen hutsaltasunari, haien bizitzaren garrantziari, erreferentzia egiten dio “limosnatik bizi diren umezurtz”ekin parekatuz. *Abestizak eta Poema Kantatuak* liburuan umezurtzen aipamena ezabatu eta “eguneroko ogia irabazteko peskizan” berridatzi zuen.

Laugarrenean bere egoera pertsonala herriarekin alderatzen du: “ezintasuna gailendu eta bakardade latza”, edo “baztertua” bezalako esapideak erabiltzen ditu. Lehen pertsonako singularretik pluralerako jauzi horiek ohikoak dira bere kantentan. Autoreak herria gorpuzten du, eta sinesgarritasuna duen pertsona izanik entzuleriak bere egiten ditu autorearen sentimenduak. Bere lanetan beste konstante bat den itxaropenari zirrikitu bat irekitzen dio oraingoan “eromen kolpez”. Arrazionaltasunaren bidea aldarrikatzen du maiz Letek, baina erotasunaren aldarria ere egiten du muturreko egoeratan.

Bidezidorraren gaia, musikaren bidea, esplizitatzen du bosgarren bertsoan eta herri batentzat lanean ari denaren sentipena nabarmentzen zaio. Euskal Herriak historian izan duen zorte txarra distiratsu agertzen du “ardo mindua edanaz historiaren tabernan” puntuan eta “nahiz desapiyo galanki jaso bueltan ezin eman”-ekin erramatatzen du. Aurreragoko bertsio batean desafio hitzaren partez “muturreko” erabiltzen du. Galtzailearen papera bikain irudikatzen da

“bueltan ezin eman” horrekin, erresignazio puntu bat sumatzen da bertso honetan. Gerra Zibilak gogor kolpatutako herria izan zen Oiartzun eta bere familiari ere tokatu zitzaion zigorra. Arantza Urretabizkaiak *Hermes*-en egindako elkarrizketan gogoratzen du abertzaletasuna “galtzaileen pathos gisa” bizi izan zuela haurtzaroan; historiaren zati hura ez ahazteko ahalegina eskertzen zuen Letek, hein batean, hildakoak gogoratzea aldarrikatzen zuen antzeratsu:

“Euskaldunak onak ginen, zuzenak, beti sufritzen bizitakoak, zanpatuak eta, era berean, arrazoi zutenak. Abertzaleek gerla galdu zuten, afusilatuak izan ziren, atxilotuak. Pentsatu izan dut abertzaletasunaren obsesio hori gugan itsatsi bazen, guk ere obsesio horrekin jarraitu badugu, 36an abertzaleek hartu zuten jarreraren ondorioz izan zela. Alegia, beren kontzientziarekin zuzen eta Errepublikarekin leial jokatu zuen jendeari justizia egin behar zitzaiola, ez genuela hura ahazteko eskubiderik”. (2002, 45)

Hala ere, gehiegizko biktimismoa egon ote zitekeen galdetzen zion bere buruari zenbait artikulutan; hala nola, 1994ko *Euskaldunon Egunkarian* argitaratutako ‘Minima moralia’ izenekoan:

Norberaren kolektibitatea, enda, nazio, klase edo delakoa, besteren menpeko errugabe eta zapaldua izan denaren ideia kontsolagarri horrek, barne-historiaren korapilo guztiak urratzen ditu. Inozentzia lehen eta erabatekoaren konbentzimendura helduz gero ez baitago ekoizpen frakasatu eta kudepen aldreberen erantzukizunez arduratu beharrik. Historiaren edozein une eta pasartetan aurki ditzake batek bere desgraziaren errudun hurbil ala urrunak. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 271)

Bertso honen errima den “otea” kontzeptuak merezi du aipamen bat. Ñabardura txiki bat egiten du jatorrizko bertsiotik behin-betikora: “ez da erreza trebe xehetzen euskaldun otea”; => “ez dut asmatu nola xehetu euskaldun otea”.

Aurretik (4.4 atalean) aztertu da Leteren bertsoek maiz naturari erreferentzia egiten ziotela eta nekazaritza giroko ezagutzaren erakusgarri da aipamen hau, oraingoan lanari lotuagoa naturari baino. Basora joan, otea xehetu eta ganaduari ematea ohikoa zen garai batean (Salaberria, 2010). Lan neketsua eta ezatsegina izan zitekeen, arantzaz betetako landarea baita otea. Euskal Herria ere arantzatsua zitzaion Leteri. Otearen aipamena, zorroztasunez iltzatzen zaio laugarren bertsoan aipatzen duen “baztertuaren arantza”-ri. Juan Mari Lekuonak 1966an idatzitako ‘Errota zahar maitea’ kantuan, otea ez, alea da xehetzen dena:

Errota zahar maitea
uraren ertzean.
uraren ertzean ta
basati beltzean:
Negar egiten duzu
alea txetzean
nire ere triste nabil
zutaz oroitzean. (2000, 14)

Maitemindutako apaiz baten ezinegona islatzen da kanta honetan. Bi bizilagunek xehetzearen ekintzaren nekea azpimarratzen dute, xehetzen den gaiaren higaduraz gain xehetzen duenarena ere existitzen da.

Leteren azken bertsoa bere iritzia errespetarazteko eskaera gisa uler daiteke: “norbaitek esango balu hobe nukela joatea / neri berdin zait zuek hemen ta ni hor egotea”.

Azken bertso honetan “Euskalerra nerea / ezin zaitut maite”ren dikotomiara itzultzen da autoreak. Herri galtzailearekin identifikatzen da, horretan ez du zalantzarik adierazten; baina ezerosotasuna sortzen dio aberkide dituen zenbait pertsonen iritziak. Kanta honek, langileriaren parte izatearen pertzepzioa eta aberri baten parte izatearena elkartzen ditu eta parekatu ere egiten ditu.

‘Langile baten seme’ kantaren zenbait bertso egin izan dira. Besteak beste, bertsolaritzatik hain gertu dagoen Bi Bala taldeak egindakoa da haietako bat²¹. Neurri aldetik duen konplexutasuna kontuan izanik eta ahozkotatasunaren adibide onenetakoa den heinean beste ikuspuntu batetik aztertuko da bertsolaritzari eskainitako 5.5 atalean. Gauza bera esan liteke aipagai dugun hurrengo kantari buruz ere: gaiaren aitzakian hurbilduko gatzazkio eta geroagorako utziko ditugu ahozkotatasunarekin harremana duten gaiak.

‘Teologia, Ideologia’

Lete, denbora pasa ahala, langile mugimenduan sortu ziren korronteekiko kritiko bihurtu zen, batez ere goizetik gauera marxista bilakatu zirenekiko. 1978ko ‘Teologia, ideologia’ abestian, —formari dagokionez Leteren bertso sorta borobilena den honetan— jarrera marxistak parodiatzen ditu. Handik bi urtera hasiko ziren Bizkaiko Labe Garaietako industria-birmoldaketak. Sortak ez du zuzenean marxismoa kritikatzeko, baina gogor

²¹ [Hemen entzungai](https://www.youtube.com/watch?v=c3KHCH2wB0E): <https://www.youtube.com/watch?v=c3KHCH2wB0E>

kritikatzen du jende askok ordura arte erlijioak ezarritako dogmak itsu-itsuan jarraitu ostean, haiek baztertu eta marxismoak proposatutakoak itsutasun berarekin praktikatzea. Fede batetik besterako trantsizio hau berresten du Aldekoak Kontzilioak eragindako izpiritu berriaren ildotik:

Elizako erakunde sozialak berehala bihurtu ziren mugimendu marxisten babesleku, eta ETako eta ezker muturreko talde berriak (“sestakoak”) elikatzeko gune. 70eko hamarkadan, langile mugimenduaren eta unibetsitarioren eragin handia izan zuten talde haiek. Imanol eta Oskorriren sentsibilitate soziala mugimendu horien babesean sortu zen. (“Ez dok Amairu” taldeko kideen ideologia politikoa abertzalea zen, eta garaiko *eladioen* [ELA-BERRI] orbitan ibili zen). (2015, 30)

Aldekoak dio orduko Eliza eta Estatuia “hezur eta mami” zirela (2015, 33) eta Jon Kortazarrek lerro gutxitan laburbiltzen du garai hartako elizak bizi zuen egoera:

Europar anakronikoa ez da elizak gaurkotzeko egiten duen ahalegina, estatuaren eta elizaren artean dagoen botere banaketa falta baino. Euskal Herrian elizak krisi bikoitza bizi du: batetik, gizarte osoak bizi duen sekularizazio prozesua bizi du, seminarioak hustu egiten direlarik, apaizen eta langileen arteko loturak estutzen direlarik, nazionalismoaren defentsa indartu delarik, gazte mugimenduak (HOAC) eta langileen artekoak (JOC) kristautasunaren barnean zabaltzen dituztelarik. (2003, 288)

Lehen hiru bertsoek Adan eta Evaren paradisuako desterrua kontatzen dute eta bekatu originalaren ostean “eskulanaren beharra” ezartzen dio lehenari:

Sagarra kozkaz irentsi orduko
hor entzuten da kondena:
“hartu nahi hukek baratza hontako
fruta gozo ta onena;
hoa kanpora, lotsagabea,
eta paga zak ogena,
eskulanaren beharra zegok,
ematen diat ordena”.

Adan, “gaueko tren hartuta” Bilbora iristen da eta Labe Garaietan kontratatzen dute eta langile bizimoduaren kalbarioa umore handiz deskribatzen du, jendartearen presio sozio-ekonomikoari erreferentzia eginez:

Gertatutako deskalabruak
mingosten diozka gozuak,
eta gainera pagatu behar
piso txar baten plazuak.
Komodidade handirik ez du
proletario auzuak,
eta bizkiak erditzen ditu
bere emazte gaixuak.

Seigarren bertsoan adiskide batek marxismoaren abantailak goratzen dizkio “leihoak erdi itxitan” egindako bilkura batean –bere etxean gai delikatu ez halaxe hitz egitera ohituta zeuden– eta guztiz konbentzitzen du hiru ordutan:

Handik aurrera Adan jartzen da
su ta gar kausaren alde,
folleto batzuk eman diozkate
hutsaren truke, debalde,
Marx eta Lenin irakur ditzan
gehiegi nekatu gabe,
hiru astean egiten zaigu
fedea berri baten jabe.

Eta horrela bihurtzen dira
teologiak programa,
nolabaitean arindu nahirik
gizonak daraman zama.
Ez baldin badugu guztiz galdu nahi
nahiko eskas duen fama
Mosku aldera itzul liteke
Erromako elizama.

‘Eskeintza, nire aita zenari’ abestian ere azpimarratzen du berea eta berearen aurreko belaunaldia “besteren agindua, jainkozkoa, gizakoaia, beti ikurtua” betetzera ohituta zegoela. Erligioaren eta politikaren pertsuasio mekanismoak antzerakoak dira azken finean, eta Letek bazekien batetik besterako lerratzeak intentsitate handiz gertatzen zirela:

Marx vio muy lúcidamente que una masa humana arrancada por la revolución industrial de sus raíces, adquiriría una disponibilidad para el cambio de actitud -preparado ya por el cambio de hábitat y de oficio de la que habían carecido el campesinado y el artesanado, instalados en una situación social vivida como status o estamento, como condición aceptada, en tanto que querida por la Providencia, por el mismo Dios. El cambio de actitud consiste, por tanto, en sacar al proletariado de su pasividad, en dotarle de conciencia de clase, lo que supone conciencia de explotación, y de imprimirle voluntad revolucionaria de liberación.

El resultado moral (...) es la creación de un Hombre nuevo, el perfecto proletario marxista. (López, 1968, 20)

Kantariak bertsoaritzaren eta kristautasunaren ezagutza erakusten du sorta hau idazteko. Irakurketa soziologiko oso interesgarria egin zuen kanta plazaratu zuen garaian. Kasu honetan, langile klasearen inozentzia salatzen du eta liderren pertsuasio ahalmena azpimarratzen. Korrontearen aurka joateko bere joeraren adibide ere bada kritika hau.

Lanak eta langile klaseak zentralitaterik ez baldin badu ere, aipamena berezi du ‘Gizon arruntaren koplak’ bertso sortak. Bertan, normala edo ohikoa denaren aipamen asko egiten

ditu: langileria klasean kokatzen da, ezkontuta dagen gizon heterosexuala da, kalea gizonekin gurutzatzen da, Realzalea da... Aurrerago aztertuko den kanta honetan ez dago *a priori* gogoeta sakonik; baina agian horregatik, –normatiboa denaz azaletik diharduelako– da interesgarria, bere nortasuna edo identitatea eraikitzen duten hainbat aspektu aipatzen dituen heinean.

‘Otsoak eta txanogorritxu’

Leteren kanta berezietako bat da honakoa, ulergaitzenetakoa agian testuinguruan jarri ezean. Letek tonu satirikoa hartzen du kantu honetan. Otsoaren eta Txanogorritxuren ipuina erabiltzen du mehatxutzat daukan kolektibo bati buruz ohartarazteko. Aparatu kapitalista eta inperialista salatu nahi zuen Letek. Otsoak, artaldean lekua egiteko itxura atsegina hartu ohi duela esan nahi zuen eta jendarteak –hasieran mesfidantzaz hartzen badu ere– nolabaiteko lilura sentitzen duela harekiko. Otsoa, lehenago edo beranduago, bere animaliatasunera itzuliko dela uste zuen Letek eta neskabila sozialista hura irentsi egingo zuela. Hala zion *Herri Irratian* egindako elkarrizketan:

Beno, hori horrela zen kanta hori egin nuenean, ez dakit gaur egun gauzak berdin ikusiko nituzkeen ala ez, zergatik izugarritzko nahaste-borraste honetan, batek ez daki gaur egun otsoak zein diren eta txanogorritxu nor den, ez? Izugarritzko saltsa dago hemen, baina bueno behintzat kanta hori horrela atera zen eta dagoen bezala dago. (1978a)

Fabula klasikoetan oinarritzen du Letek kanta eta jatorrizkoa bezala genero aldetik esanguratsua da. Kanta hau ‘Lore gorrien balada’-rekin harremana du emakumezko baten desioen zikiratzaile bokazioa duen heinean.

Serge Reggianiren abesti baten bitartez hobeto uler liteke kantaren jatorria. Italiar jatorriko kantari frantziarra honek 60. hamarkadaren erdialdean ‘Les Loups sont entrés dans Paris’²² izeneko abestia sortu zuen eta otsoaren uluaren onomatopeia erabili zuen. Leteren kantak ere “uuuu” hori darabil kantaren oinarri gisa.

Letek ohi zuen gisa, ez da itzulpen huts bat, ez bertsio bat ere. Kantaren funtsa ulertu, hausnartu eta birformulatu egin du Euskal Herriarentzat ere zentzua izan zezakeelakoan. Reggianiren abestia faxismoaren aurkako aldarria da. Faxismoa itzultzeko mehatxua beti

²² Hemen entzun: <https://www.youtube.com/watch?v=22T2wSw0-Qg>

existentiko dela gogoratzen du. Reggianik interpretatutako kanta honen letra Albet Vidalie-kin egin zuen 1967an eta Jacques Canetik produzitu. 1968ko maiatzean disko makinatan gehien jarri zen kantetako bat izan zen. Alemaniako ejertzitok Parisera bidean zihoan 1940an eta kanta hau momentu horren ereserki izateko jaio zen. Hona letra:

Les hommes avaient perdu le goût
 De vivre, et se foutaient de tout
 Leurs mères, leurs frangins, leurs
 nanas
 Pour eux c'était qu'du cinéma
 Le ciel redevenait sauvage,
 Le béton bouffait l'paysage... d'alors
 Les loups, ououh! ououououh!
 Les loups étaient loin de Paris
 En Croatie, en Germanie
 Les loups étaient loin de Paris
 J'aimais ton rire, charmante Elvire
 Les loups étaient loin de Paris.
 Mais ça fait cinquante lieues
 Dans une nuit à queue leu leu
 Dès que ça flaire une ripaille
 De morts sur un champ de bataille
 Dès que la peur hante les rues
 Les loups s'en viennent la nuit
 venue... alors
 Les loups, ououh! ououououh!
 Les loups ont regardé vers Paris
 De Croatie, de Germanie
 Les loups ont regardé vers Paris
 Cessez de rire, charmante Elvire
 Les loups regardent vers...

Gizonek bizitzeko gustua
 galdua zeukaten,
 bost axola zitzaaien guztia:
 beraien amak, anaiak, alabak.
 Haientzat dena zinea zen.
 Zerua basati bilakatu zen berriz
 Hormigoiak jan zuen orduko paisaia.
 Otsoak, uuuu
 Otsoak Paristik urrun zebiltzan,
 koazian, Alemanian.,
 Otsoak Paristik urrun zebiltzan.
 Elvire xarmanta, zure irribarrea maite nuen
 Otsoak Paristik urrun zebiltzan.
 Berrogeita hamra legoa pasadira
 gau bakar batean
 Gudu-zelaian heriotza festa bat
 usaindu daiteke.
 Kaleetan beldurrak mehatxu egiten du
 Otsoak gaez etortzen dira... beraz
 Otsoak, uuuu
 Otsoak Parisera begira ziren jarri,
 Kroazitaik, Alemaniatik,
 Otsoek Paris jo zuten begiz.
 Utzi irribarre egiteari Elvire xarmant hori
 Otsoak begiz jo dute... [gure itzulpena]

Leteren otsoek kapitalismoaren presentzia seinalatzen dute eta sistemak baliabideak irensteko duen apetituaren berri ematen du abestiak. Kanpotik etorritako polizien testuingurua azaltzen du “goseak ditu ekarri, / errez baita aurkitzea /inguru hontan janari”. Hipotesi hori indartzen du “xuri beltzak, urdin, gorri” dion zatia gaztelaniaz “lobos de muchos colores” itzuli izanak diskoan bertan argitaratzen zen liburuxkako itzulpenean.

Hala ere, benetan seinalatzen dituenak haiekin ibiltzea hautatzen duten emakumeak dira abestian, kapitalismoari atea zabaltzen dioten pertsona guztiak, alegia. Lehenengo bertsoan “Horregatik Txanogorritxu / urrundu otsoetatik!” agintzen zien, nahiz eta *Abestitzak eta Poema Kantatuak* liburuko bertsoan “adi dago otsoekin”era leuntzen duen.

Bi bertsoiek musikalki badituzte antzekotasunak eta letraren tonua ere antzerakoa da nahiz eta Leterenak umore tonu handiagoa duen:

Otsoak, uuuuh!
omen dabilta ugari,
xuri beltzak, urdin, gorri
trumilka ziren etorri.
Horregatik Txanogorritxu
urrundu otsoetatik!

Hoskidetasunari dagokionez, originalaren estribiloko -i amaiera markatu hori aukeratu zuen Letek bere abesti guztiaren errima gisa. Bertsolaritzarekiko zaletasuna igarri daiteke bere pilaketatarako eta hiperboletarako zaletasuna behatuz: “hamasei txerri, ehun oilo, hogeit ardi, gosea kentzen badaki”. Txirritaren estetika gogoratzen dute halako pasarteek.

Kanta hau ahaidetuta dago ‘Uda’ izeneko tango estiloko kanta argitaragabe batekin. ‘Kantatzera noazu’ diskorako kanta satirikoak prestatzen ari zelako sortu zuen tango doinua; ez zuen, ordea, diskoan sartu (Lete, 1978a). ‘Otsoak eta Txanogorritxu’, berriz, balekoa iruditu zitzaion nahiz eta gerora kanta honetaz bereziki harro ez egon... Hala jasota dago bere funtsean (Lete, d.g.): “Nere abestirik okerrenetakoa. ‘Gorrikerien’ kritika... Baina zeinen baldarra!”.

Aipatutako ‘Uda’ abestia *Herri Irratiko* grabaketa batean jaso dago. Hiru hamaseiko txiki osatu zituen Letek, denetan errima bera errespetatuz (‘Otsoak eta Txanogorritxu’ abestian bezala):

Ahoa iriki eta hitzik atera ez
haizeak eta ekaitzak agintzen duenez.
Ilunpean galdurik dago dena legez
sukalde txokoetan amonak nigarrez.
Ardandegian ura arnoaren ordeztan,
zirabak ehundaka aspaldiko partez
elizetako ormetan sartzen dira berez.
Ondartza gorrietan bikini bat nekez.

Behin ezagutzen nuen gizon bat, tamalez,
haurtzarotan pobre eta nehorik laguntzen ez.
Burrutia luze baten kausa-ondorenez
pixka bat txukundu zen, ez zen izan errez.
Bainan bazterrekoek, denek aho batez,
adierazten zioten izorratu nahiez:
hire txukundu nahia gorde zak, mesedez,
gaizki egiten baitik zanpatuak farrez.

Eta orduan Joxek, damutasun onez,
errukia bilatuz lehengoaren ordeztan.
Bere harrokeria sakelean gordez
limosna eskatzen zuen abots umil batez.
Hortxe ikusten dute egunez eta gauez
kale bazter batean dena zorritz betez
eta pasatzen zirenei umil so eginez
oihu egiten die: jaun-andreok, kaka pixka bat, mesedez.

Ahoa iriki eta hitzik atera ez
haizeak eta ekaitzak agintzen duenez.
Ilunpean galdurik dago dena legez
sukalde txokoetan amonak negarrez.
Ardandegian ura arnoaren ordeztan,
otsoak ehundaka aspaldiko partez
bazter guzietara hedaturik errez
Hondartza gorrietan bikini bat nekez (Gurrutxaga, 2020a, 495).

‘Haur andaluz bat seaska kanta’

‘Haur andaluz bat seaska kanta’ bi azpigairen arteko zubia da. Batetik, langile klasearen parte izateak senidetzen dituen bi mundu aipatzen ditu; baina, bestetik, ama hizkuntzaren eta kulturaren araberrako identitate talka bat ere aurreikusten du Letek. Haur koitaduak sehaskan lo datzan bitartean kantariak industrializazioak eragin zuen migrazio prozesuari buruz hausnarrean dihardu. Letek bere hezkuntzari buruzko kezka adierazten du eta jaiotzen ikusi duen lurra zenbateraino maitatzera irits litekeen zalantzan jartzen du. Hala ere badu itzaropena “lankide” eta “bidelagun” izan daitekeela haur hori etorkizunean. Iker Iraolak bere tesian dio abertzaleek, oro har, ez dutela euskararen egoera migrariekin lotzen:

Euskararen egoeraren errua ez zaiela etorkinei egozten. Euskararen errealitate soziolinguistikoa ahularen eraginez, hizkuntza kaltetzen beste hainbat gai azpimarratzen dira immigrazioa baino lehen, (...) Euskarari loturiko bigarren ondorioa nazio hizkuntzat hartzen denak immigrazioa integratzeko garaian bete beharreko funtzioari buruzko zalantza da. Euskararen egoerak berau etorkinen integrazio mekanismo nagusi gisa aurkeztea oztopatzen duenez, diskurtso abertzalean gaur egungo immigrante gehienak ez direla euskaldunduko onartu, eta espektatibak seme-alabengan jartzen dira. Bide horretan, hezkuntza sistemaren egitekoa nabarmentzen da. (Iraola, 2013, 302)

Letek Urnietan bere auzokide zen familia bateko haurrari idatzi zion sehaska kanta. Migraria den orok ez hango eta ez hemengo sentitzeko duen arriskuan oinarritzen da letra. Hala ere, doinuak eta izenburuak lerratzen dute haur horren naziotasuna, nolabait.

Leteren gaztaroan Oiartzun oso herri euskalduna zen eta migratutako pertsonak oso gutxi zirela kontatzen du 1978an egindako elkarrizketa batean. Haiek eta haien seme-alabek euskaraz aise ikasten zutela gogoratzen du:

Por los años cincuenta, cincuenta y tantos -recuerdo que al principio eran sobre todo gallegos y luego empezaron a venir extremeños-, se integraban fácilmente. Los chavales de los Rodríguez, los Vaquero y otros que recuerdo aprendían perfectamente euskera. Hasta los hijos de los guardias civiles llegaban a hablarlo. (Ibarzabal, 2020, 47)

Gu mutil-koskorak ginenean (..) kanpotarrek oso definizioa zehatza zuten (...) Hasiera batean gallegoak, gero txurrianoak edo koreanoak. Orduan, hemen, Euskal Herrian beti ezagutu dut eta dugu halako postura defentsibo bat kanpotarren kontra, (...) arrotasun bat ekarri digute. (Lete, 1978a)

Migrazio prozesuak asko aldatu dira azken hamarkadatan, baina migrazioaren erruz lurraldeko hizkuntza eta kultura galtzeko arriskuaren pertzepzioa present dago gure gizartean aspalditik. Erramun Osak eta Xabier Aierdik diote Etorri berriek lehendik zeudenei ispilu bat ipintzen dietela. Gizarte horrek bere erronken kontzientzia hartzeko baliatu dezakeen ispilua dela eta aspalditik beharrezko den hausnarketa beharra azaleratzen duela: “euskarak etorkinekin arazo bat badauka, batez ere, eta gauza guztien gaineratik, bere gizarte propioarekin du erronka, eta izatekotan, arazoa (2009, 1448). Verniken ikuspuntutik behatuta, mezu onberaren atzean jarrera arrazista eta integratzailea suma daiteke (2018, 30).

Eremu geografiko berean bizi diren identitate ezberdinen arteko igurtziez dihardu kantak. Komunitateen elkarbizitzarako hizkuntza, kultura eta erlijioaren faktore esanguratsuak dira. Oarsoaldeko kasuan, hizkuntza eta kultura ezberdinen arteko topaketa zen fabrikena. Klasea

izan zitekeen, kasu horretan, batasun gune. Edward P. Thompsonen iritziz klaseak ez dira modu unibertsalean ulertu behar, berezitasunak bultzatako egituraketa historikoak dira: goi mailako klaseek jatorri ezberdineko langileak elkar etsai gisa hautematea sustatzen dute (1979, 55-56).

Kantatzera noazu... diskoko abestiaren sarrera musikalean ‘Haurtxo txikia sehaskan dago’ doinua jotzen du piano batek eta segidan flamenko kutsuko gitarra batek hartzen dio erreleboa. Kanta honen lehen bi estrofa orainaldian kokatzen dira eta iraganari begira daude. Kantaren hurrengo bi estrofa etorkizunean kokatzen dira eta problematika aurreikusten dute. Azken bi lerroak hasierako bi lerroen errepika dira. Informazio guztia izanda, hasierako inozentzia galtzen dutenak:

Seaskan zaude, haurra, kabi beroan lo,
gau luzearen begiak hor daude zuri so

Lehen lerro horretan sehaska eta habiaren arteko metafora sinplea egiten du eta bigarrenean gauaren luzea azpimarratzen du, menderakuntzaren neurria enfatizatuz. Kantak iluntasuna esan-indarra handitzeko baliatzen du, lehenik gaua pertsonifikatzen du, haurrari begira jarrita. Ondoren, haurra etorkina dela nabarmentzen du eta “gaueko haurra” deitzen dio, bere azala ohikoa baino ilunagoa delako. Modu horretan, gauean kantatzeko abesti bat, ematen dio gaueko haurrari.

Espainiar etorkinekiko iritzi ona ageri du Letek bigarren estrofan “zure gurasoek lan egin nahi zuten”, “ez morroien gisara”. Bigarren estrofa honetan haurrak etorkizuna gorpuzten du eta haien beldurrak eta itxaropenak islatzen ditu beragan. Badago, beraz, langileria klasearen kontzientzia bat.

Are gehiago bistaratzen du kontzientzia hori hirugarren estrofan, haien etorkin izaera ez dela hautu bat azpimarratzen duenean (“bota zintuztenek”, esanda). Euskal Herriaren izaera deusteztera bultzako dezaketela abisatzen dio haurrari, jendartearen zati bat gorrotoz beterik zegoela ohartaraziz. Hirugarren estrofa honen amaiera enfatizatzen du musikak. Garai hartako euskaldunek, harrera mesfidati baten ostean, integraziorako bulkada izan zutela uste zuten Letek:

Bigarren fase batean ez bakarrik kanpotik etorritako hauen rebindikazioa edo justifikazioa baizik defentsa handi bat ezagutu dugu. Kanpotarra, berdin zaio andaluz edo extremeñua edo nonahitik etorritakoa Euskal Herrira, ez bakarrik ez da gure etsai baizik kasik definitu izan da gu baino askozaz ere jende hobeago bat bezala. Alegia, ez dute errurik, lan baten bila etorri ziren, beren lurraldetatik bota zituzten, oligarkia batek ezarritako distribuzio ekonomiko horren barruan galtzaile izan dira, hona etorri behar izan dute, hemen ere esplotatuak izan dira eta... orduan kasik ez bakarrik justifikatzen nituen baizik kasik eredu bezala harturik (...)

Alde batetik gureganatu nahi ditugu baina ez gureganatu, alegia, mentalizazio, ez dakit, mentalizazio apostoliko baten bidez, gure ideologia eta gure problematika eta beren buruan sartu nahirik, baizik normaltasun barruan, eguneroko normaltasun baten bidez, gu euskaldun bezala portatuz, guk haiei gure nortasuna bortxaz ezarri gabe, baina adieraziz bai, eta agertuz gure nortasuna zer eta nolakoa zen, eta gure problemak zer eta nolakoak ziren.

Orduan ni konturatzen nintzen neurrian haiek konturatzen zirela gure arazoaz, era berean konturatzen nintzen haiek ez zirela hala ere hemengoak sentitzen. Konturatzen ziren hemengo problemaz eta errespetatzen zuten, baina haiek beti nabaritzen nituen nik andaluz bezala, andaluz izaten eta andaluz izan nahirik. Orduan haur hark hezitzen denean, handitzen denean haur honek pentsatzen nuen nik garai hartan hezitzen denean, handitzen denean, zer jokabide eramango du hemen Euskadin. Integratuko da ala ez da integratuko? Edo neutrala izango da edo aurka jarriko da? eta abar eta abar. Orduan itxaropen eta beldurra, dialektika hori. (Lete, 1978a) [ahozko hizkeraren zenbait makulu, ezabatuta]

Laugarren estrofan inguruaren eraginetik urrundu eta haurraren hautatzeko askatasunean jartzen du fokua. Haurra euskaldun sentitzea nahi luke Letek, harrera egin dion herriarekiko atxikimendua eskatzen dio eta “lore bat” eskaintzen dio, “hitz” bat. Euskara eskaintzea herri bat eta nortasun bat eskaintzearekin parekatzen du, beraz.

Aipagarria da jatorrizko bertsiotik *Abestizak eta Poema Kantatuak* liburukora leundu egin zuela poema Letek. Hona aldatu zituen lerroak, aski esanguratsuak:

- lan egiñaz bizi, ez morroien gisara => sari bat izan zezan lanaren izerdiak
- Bota zintuztenek irakatsiko dizute => Lehengo nagusiek irakatsiko dizute
- Lankide nahi zinduzket, bide-lagun agian, => Adiskide nahi zinduzket, aberkide agian,

Azken aldaketa da aipagarriena. Abestiaren ardatza desplazatzen baitu Letek “lankide” hitza ezabatuta.

4.5.3 Aberria

Romanen tesian aipatzen da abertzaletasunak bi dimentsio dituela. Bata, bertikala, euskalduntasunaren ondareari dagokiona; eta bestea, horizontala, herri horri dagozkion baliabideei lotuta dagoena.

Euskaldunok dimentsio bertikalari dagokionez ezaugarri benetan indartsuak ditugu, oso antzinakoak eta bereizgarriak. Aldarrikapen etnokulturalaren araberako nortasuna arrazoitzeko erabili izan da dimentsio hori historikoki, nazionalismo alemaniarraren ildotik. *Volk* kontzeptua sustatu zuen Johann Gottfried von Herder-en eta Johann Gottlieb Fichte filosofoen ideien eragina seinalatzen du Romanek (2015, 37). Lete ez zen korrante horren defendatzaile sutsua eta “nazio” izendapena ez zitzaion erabat gustatzen. Euskaldunen leinu zaharra eta RH negatibodun biologizistatik zetorren aberriaren eraikuntza ez zen bere aldarria; bai, ordea, arbasoen sorterriarekiko ezagutza, errekonozimendua eta maitasuna (Lete, 2019). Leterentzat aberria euskal kultura zen, euskara eta paisaia. Dimentsio horizontalari dagokionez, Hego eta Ipar Euskal Herriaren garapen ezberdinei erreparatu zien *Irulegi irratian* izandako berriketaldian: beretzat Lapurdi, Zuberoa eta Baxenafarroa ziren berak desiratu eta bizi duen aberriaren lurraldea. Bertako biztanleek hizkuntzari dioten maitasuna azpimarratzen zuen. Hegoaldean, ordea, industriak eta gehiegikeri ekonomikoek bazterrak bortizki urratu zituela salatu zuen (Lete, 2019).

Hala ere, aberriaren definizioa aldakorra eta kontraesankorra izan daiteke Leteren letretan. Euskal Herriaren ideia antzekotasunen gainean eraikitzea nahi zuen, eta ez exotaldeekiko aurkakotasunez. Historikoki, euskaldunen artean oraindik ukigarria zen karlistadetan gertatutako zatiketa; orbaindu gabeko zauriak utzi zituen Oiartzunen bertan. 1976 urtekarian *Foruak, karlistak eta nazionalistak* izeneko artikulua plazaratu zuen Letek. Herriko bertso eta kontakizunen bidez kontatu zuen bertan azken mendeetako euskaldunen historia. Senideen arteko liskarrak aipatzen zituen 1994ko ‘Aranismoaren aker beltza’ izeneko *Euskaldunen Egunkariako* artikuluan:

Urte asko pasa behar izan dute gauak pixka bat ahazteko eta anaia haserretuak berriro ere batzen hasteko. Jende asko egongo da oraindik Oiartzunen bai alde batetik eta bai bestetik, batasun bati buruz errezero eta sospetxa izango duena. Baina zulo horretatik atera egin behar da; etorkizunak, Euskal Herrian, autonomia zabal eta sakon bat eskatzen du, eta autonomia hori ziur nago gaur egun nazionalista eta karlistek, denek onartuko dutela, hori baita aspaldi-aspaldiko naiaren ondorena. (...) Nazionalistek akatsak izan zituzten beren politikan (...) Karlistek, beren aldetik, zor latz bat badute Oiartzunen eta Erreterian, bizitza batzuen zorra. Barkatu egin behar den zorra. (...) Batu gaitezen; oraindik, hain zuzen eta Xenpelarrek esaten zuen bezala, euskaldunen nortasunaren eta libertateen arazoa airean baitabil. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 225-226)

Urte bereko beste artikulu batean abertzaletasuna eta nazionalismoa kontzeptuak bereizten saiatu zen Lete:

Nazionalistak aurkakoak behar ditu bere pasioa elikatzeko: arerioak, erbestekoak, arrotzak, menperatzaileak. Abertzaleak, aldiz, senideekin konparti dezakeen lurralde bat behar du. Nazionalismoa, etsaigoaren baita funtsatzen da; abertzaletasuna, aldiz, solidaritatean eta anaidi baten zentzun poetikoan. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 270)

Hizkuntza herri baten nortasunaren parte garrantzitsua zela ere uste zuen: “hizkuntza minorizatuen ikuspuntutik: Euskal Herria, euskaldunon sorteri edo nazio litzateke”, baina “ez bakarria eta ez beti erabakiorra” ere (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 267). Norbanakoak zapaltzen duen lurra eta mintzatzen duen hizkuntza nortasunaren zati garrantzitsutzat zeuzkala ezin uka; hala izanik, euskalduntasunaren kritikak edozein pertsona gutasunaren multzotik apartatzea ekarri zezakeen. Horren lekuko da hainbeste miresten zuen Pio Barojari buruzko liburuan hartaz diona:

Ez ditut orain euskaldun gaietaz egindako haren nobela hain ezagunak aipatuko. Nere ustez, umoredun ipuinetan ematen du Barojak euskal girorik bortitzen eta interesgarriena. “Lecochandegui el jovial” eta horrelakoetan Barojak, umore pantagruelikoaren bitartez, euskaldun jendaren epikureotasun oso mundutiar eta aske bat azaltzen du. Hala ere, sentimendu eta nahikerietan euskadun, bere bizitza razionalean ez hainbeste, sekulan behar bezain gartsuki konponduko ez zituen kontradizioetan sartu zen. (...) Maite zuen Europako hemeretzigarren mendea, eta mende harek Espainiako liberal bati sortzen zizkion buruhauste eta arregura maitetsuak bere eginkizunaren gai nagusitzat hartu zituen. Baroja ez zen, handik aurrea, neurri apal batean baizik guretar izango. (Lete, 1972, 44-45)

Hortik, aurrera, Leteren aberria herri baten borondatean zetzan. Letek nazioa eta aberria kontzeptuak bereizten zituen: “Norbaitek esan izan du nazioa, sorlekua, jaiotzetik inposatzen zaigula eta, alderantziz, aberria geuk aukeratu genezakeela” (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 268). *Euskaldunon Egunkarian* argitaratutako artikulu batean adierazi

zuen Julio Caro Barojarekin bat zetorrela euskal “nazionalismoaren hertsikeria eta sinplekeria pseudo-historizista” kritikatzan zuenean:

Nik uste dut nazionalista izateko egitura eta predikamen historizistak ez direla beharrezkoak. Nazionalista izateko, borondatea behar da. Komunitate baten gehiengoak nazio politiko bat konstituitu behar duela uste badu, lortuko du ala ez, baina ez du dantzatutko “beste” nazio bateko balio kodigoen arabera, balio horien predikatzailak intelektual oso ilustratuak izanik ere. Nazionalismoaren frakaso politikoa, nazio bat eraiki nahi izateko egiazko motibazio sakonik ez dagoen hasten da; orduan, hain zuzen, nazionalismoa arazo erretoriko bilakatzen da, ekintza “bortitz” batzuen mamukeriaz azpimarratu nahi izaten dena. Gehiago da besteak ikartzeko teatroa, egiazko sentimendu bati legokiokoen jarrera baino. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 250)

Herri batentzat Estatu bat izatea garrantzitsua zen Leteren ustez eta erabakitze eskubidea nahiko zukeen, baina 1994an adierazi zuen zalantzak zituela alderdi politikoek “norantz nahi luketen egiaz” autodeterminatu (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 262). Kantariaren lehen piezatan argiak ziren frankismoaren aurkako aldarrikapenak, eta “Euskalerra maitea ezin zaitut maite” bezalako lerroak eramangarriak zitzaizkion jendarteari. Gerora, ordea, bere indakeriaren aurkako posizionamendua esplizitatu zuen, militantzia itsua kritikatu, eta espainoltasunaren aurkako konfrontamendua gogaikarria zitzaiola adierazi zuen: “Nik ezin dut, egiaz eta benetan, ez lurralde entitate, ez gizarte entitate eta ez kultura entitate bezala, Espainia arbuiatu eta gorrotatu. Ni Espainian zehar gustura ibiltzen naiz eta oso ongi eta oso etxean sentitzen” (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 250).

Presioa

Hain kultur sortzaile garrantzitsuaren ahotik halakoak entzuteak jopuntuan jarri zuen Lete –inoiz edo behin etxetik kanpo lo egin beharra izan zuen–. Arantxa Letek (2021), minberaturik, adierazi zuen bere anaia ez zela indarkeriaren aurka posizionatu zen bakarria izan; baina harekin bereziki bortitzak eta zorrotzak izan zirela zenbait herritar bolada batean. Urienen ustez polarizazioarekiko haserrea eta bere itxaropenaren hondoa antzematen da *Egunsentiaren esku izoztuak* liburuko honako poeman:

Ez zineten lurraldearenak
ez eta aberriarenak ere
aldarrikapen hutsalen izaki bahituak zineten
gizatasuna gutxietsiz, adimena irainduz
nere haurtzarotik sumatu izan zaituzte
gure aurrekoen gudu-kantuetan
baina
haien antzinako nobleziari gabe
eta galdetzen nion neure buruari
zergatik diraute isilik jakitunek
zergatik joan ziren hoberenak kontakizunik gabe
ez zineten herriaren zerbitzari
zuzenek amoroski ureztatutako lorei apala
asaba zaharren baratza
odoleztatzen zenuten hantustekeriaz
bizitza bat pozoitu zenidaten
ordezka ezina, bakarra, betirako galdua
eta gainera eskuzartak nahiko zenituzkete
irri adeitsuak, ezabatuen keinu maitekorrak
aldizka hitz batzuk ere eskatzen dizkidazue
edo gutxienez isiltasunezko ordainsaria
jaso ezazue dena, zuentzat argudio irrigarrien ospea
aintza eta etxetiarren ohiko losintxa
baina ez galdetu neri orainaz eta geroaz
ez baitut ihardespenean doi-doi bainaiz hemengo
azken hondarrean, zer esan dezake hilotzak (2008a, 75-76).

Euskal herritarra sentitzen zen Lete, baina borroka gatazkatsuegia zitzaion. Heriotzatik gertuago egotearen kontzientziak hauspotuta, pentsamendu kolektibotik indibidualagora pasatzen zen:

Hasi nintzen sentitzen eta pentsatzen bizitza eta gure inguruarekiko harremanak, azkenean, oso mugatuak direla, eta, behar baldin bada, ez dagoela salbazio handi batzutan sinisterik eta dignidadea eta dezentziaren bitartezko salbabide pertsonal txikitzen sinisten hasi beharra zegoela. Hasi nintzen, beraz, hori konprenitzen eta neure buruari barkatu nizkion gauza asko, eta inguruko jendeari ere barkatu egin nion. Esango nuke, nobabait ere, bizitzarekin errekontziliatzen hasi nintzela. Eszeptikoa ere bihurtu nintzen, hasi nintzen gero eta gutxiago sinisten aberriaren kausan eta gizonaren liberazio orokorrean, eta zenbait ikuspegi sozial baikor eta regeneratzaileengan ere dudak nituen... (Muruaga, 1991)

Indarkeria liserikaitz zitzaion eta nazio aferaren konponbide proposamena Espainiako Estatura mugatu zuen nagusiki, estatu federal baten aldeko eskea eginaz, 1994ko artikulua honetan:

Ni ez naiz hasiko estaturik gabeko nazio minorizatuen arazo korapilatsua ezereza erreduzitzen, ez eta nazio arazoa hizkuntza arazo soila dela aldarrikatzen ere. Zerbait gehiago da: sorgunearen errekonozimendutik egituraketa politikora garamatzen bide konplikatu da “nazio arazoa” eta bide horretan, barenerantz eta kanporantzko antagonismoak jasan behar dira, gatazka bizian ala sintesiaren bitartez. Nik beti sintesi eta akordioen alde egon naiz. Espainiaren egituraketa federatu bat eskatuko nuke nik, estatu propio baten *desideratum* mitifikatu horretan gure argudio, paranoia eta odol isurketak jarri orde. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 262)

Balioak aberri

Urte berean –50 urte zituela– “abertzaletasunari legokiokeen izpiritu poetiko eta eraginkorra erabat galdua” zegoela idatzi zuen 1994an *Euskaldunon Egunkarian* Artikulu berean aberriaren definizio osatua idatzi zuen:

Aberria, patria, leku fisiko edo mental bat da, non kokatzen den norbera nortasun balioen bitartez izaera konpartituetara heltzeko. Aberria izan daiteke fisikoa, lurralde bat; mentala, ideia eta sugestio intelektualen esparruan; izpirituala, artistarentzat, sinestunarentzat, edertzalearentzat. (...) Aberkerien aurka argudio asko erabili da aplikagune sozial eta politikoetan. Baina aberkeria horiek nazionalismoa dira hain zuzen, zentzurik txarrean. Egiazko aberria elkar aurkitzean eta eraikitze poetikoen ‘lekua’ da. Aberriak faszinatzioa eta harriduraren bitartez bakarrik dira deskubritzen; edo beste tesitura batera etorritik, atxikimendura garamatzaten balio-zeinuen bitartez: erlijiosoak, sentimentalak, kulturalak eta abar. (...) Aberria atxikimendu bat da, zenbat eta izpiritualagoa orduan eta sakonagoa. Baina izpirituaren baliauneak desberdinak, pluralak dira. (...) Nik aberria une bakar eta harrigarrietan nabaritu izan dut: udako gau epel batean belar usaina sentitzean; kanta xahar batzuk entzutean; baserriar adinduekin mintzatzearan... edo, agian, urruneko hiri argitsu miresgarrien irudia begiztatzean. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 267-268)

1995ean idatzitako ‘Metafisikatik errukira’ artikuluan berriz aberria gurasoentzat zer zen definitu zuen: “duintasuna, eraikuntza, gizakiarekiko errespetua, herri baten sustrairik hoberenetatik sortuko ziren landareen zaintzea”. Etorkizuneko landaren zain, zainen zaintza ere bazen aberria Leterentzat. Artikuluaren eta abestien bitartez behin baino gehiagotan adierazi zuten bere aberriarekiko atxikimendua eta distantziamendua aldi berean; “erbeste hurbila” zela zion: “Ez nau asko liluratzen (askotan gogaitzen nau) naizen tokikoa izateak, baina lurralde eta erresuma arrotzek ere ez naute behar hainbat deitzen” (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 283).

Gaztaroan frankismoa zuten etsai, baina trantsizioaren ostean euskaldunek nahi zuten herria eraikitzeko erronka zuten esku artean. Euskaldunaren nortasuna zer zen erabaki beharra zegoen 70. hamarkadaren amaieran. Letek *Muga* aldizkarian idazten zuen eta gaiari buruzko

gogoetak plazaratu zituen. Lan horretan bidelagun zuen Eugenio Ibarzabal eta *Xabier Lete de un tiempo un país* liburuan jaso zituen nortasunaren funtsezko bost faktore:

- Existencia de una lengua propia, el euskera, aunque la historia nos hable de un bilingüismo desigual en el día a día.
- Afán de autogobierno y vocación de pacto a la hora de mantenerlo.
- Diversidad interna y, a su vez, gran autonomía territorial entre los vascos.
- Un paisaje particularmente bello, que hace inconfundible a nuestro país.
- La iniciativa privada, la vocación y capacidad de crear y emprender, que ha alentado, comparativamente hablando, una sociedad, si bien desigual, más igualitaria que el entorno que le rodeaba. (2020, 16)

Ibarzabalen definizio hau bereziki da interesgarria garai hartan afinitate handia baitzuten politikoki biek. Gainera, orain arte aipatutako ikuspegiarekin bat egiten du.

Euskara

Letek miresten zituen pertsona askok ez zuten euskara menderatzen. Berak, ordea, garrantzia handia aitortzen zion euskal nortasunean. Lete, hizkuntzari zegokionean gertuago sentitu zen Pio Barojatik Unamunotik baino; “Unamunorentzat, adibidez, euskara ez zen hizkuntza zahar eta baldarra soilik, espresio-bide atzerakoi eta kaltegarria ere baizik (...) Barojak ez zuen konprenitzen hizkuntza bat, naiz eta apala izan, baztertzearen, arbuiatzearen arrazoia. Batetik, ez zen bestea bezain hantuste eta transzendentalista”, dio ‘Pio Barojari eta hemeretzigarren mendea’ izeneko kapituluan (1972, 72-74). Baroja Zestoan mediku lanetan jardun zen garaian finkatu zitzaion euskalduntasuna eta beranduago, Beran etxea erosi zuenean, berak indartu.

Leteren ustez nazionalismo politikoa zen susmagarria eta ez kulturaren abertzaletasuna. Kultura unibertsala kontsideratzen zuen zientzia eta tekniken esparrukoa, eta lilura sortzeko gaitasuna zuten gai partikular gisa definitzen zuen kultura (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 269).

‘Euskalerra nerea’

Leteren diskografia osoko lehen lerroa “Euskalerra nerea / ezin zaitut maite” da. Poetak berak ez zekien zenbateraino joango ziren paraleloan bere biografia eta abesti honen letra.

Leteren aberriarekiko maitasun-gorroto harremana behin eta berriz errepikatzen da bere abestietan. Interesgarria da ikustea nola kokatzen den Lete aberriarekiko posizio ezberdinetan kantaren arabera. Aberriaren mikaztasuna seinalatzen du askotan: ‘Euskalerra nere’, ‘Ez dut amets handirik’, ‘Haizea dator ifarraldetik’, ‘Gauaren ordezeko eguna’, ‘Herri zahar hontan’, eta ‘Aberri ilunaren poema’-n, adibidez, ikuspegi ezkorra ematen du, baina beste abesti batzuetan aberriaren parte sentitzen da eta harrotasunez aldarrikatzen du: ‘Lore gorrien balada’, ‘Nafarroa, Arragoa’, ‘Alzateko jaun’, ‘Haur andaluz bat seaska kanta’, ‘Cançó a Catalunya’, eta ‘Langile baten seme’ abestien kasua litzateke.

Abokatu eta fiskal jokaera hori bera suma liteke ‘Euskalerra nere’ren lehen puntuetan, “baina non biziko naiz / zugandik aparte” galdetzen duenean. Kantagintzan ez ezik, literaturan ere badago oso antzeko dilema bat. *Bigarren poema liburuan*, adibidez, ‘hala ere’ izenburua duen poeman ideia berari bueltaka dabil:

hala ere, gelditu egingo naiz
hala ere, hau nere lurra da
hemen dago
gure etxe bakarra.

hala ere, ez dut besterik
hala ere, ez dut hobeagorik
hala ere, nora joan gintezke.

horregatik
hala ere
oraindik
gelditu egingo naiz.

hala ere. (1974b, 77)

Anafora honen bitartez Euskal Herriarengandik amorratzen duten gauzen zerrenda isildua osatzen du. Ezin maitatu horrek, jakina, maitasun handi bat ezkututzen du

‘Haizea dator ifarraldetik’

‘Haizea dator ifarraldetik’ Leteren abesti borobilenetakoa da. Metrikoki perfektua da eta eduki aldetik indartsua. Polarizazioaren aurkako ereserkia sortu zuen Euskal Herriari kantatzeko. Poesia urrutiramendu estrategikoz darabil Letek irakurlearen eskuetan utziz

metafora bakoitzaren esanahia. Garai batean zentsura saihesteko zerabilen estrategia erabili zuen zentsurarik gabeko garaietan zenbait entzuleren balizko desadostasunetik babesteko.

Haizea dator ifarraldetik, hego berotik ekaitza,
Ez da nabari lanbro artean asaba zaharren baratza...
Eguneroko lagunak ditut, beldurra eta zalantza
Ardo txar honek eragiten dit noraezeko balantza.

Itzal gaiztoak isurtzen dira mendi hegaletan behera
argi apalak badoaz laister bat-batean itzaltzera.
izen zehatzak uzten ditugu erortzen zulo beltzera
prestatzen gera etxe hustua arrotz guztiei saltzera.

Etxea hustuz badoa ere noizpait bazuen biztunik,
ez dut onartzen orde zatorren maizter aldrebes hitzunik...
nahi ez badugu denon artean eraman karga astunik
gurdi okerra zuzen lezakeen doktrinarian ez dut nik.

Agur oihanak, agur itsaso, atariko lizardia,
imajinetan izkutatzen zait hurbileko izadia.
odolarekin pozoitzen dugu herri baten izerdia
irrintzi gorritz jauzika dator irabazleen zaldia. (Lete, 2006, 87)

Abestiaren lehen lerroa dikotomia bikoitz batekin hasten du: haizea eta ekaitza, eta iparra eta hegoa kontrajarriz. Hirugarren puntuan Leteren lanean hain ohikoak diren “beldurra eta zalantza” aipatzen ditu eta horiekin mozkortu dela iradokitzen du. Ardo txarrak zentzumenak nahastu dizkiola sumatzen du. Ez da ardo eskasaren ondorioak aipatzen dituen lehen kanta: Euskal Herriari historiaren tabernan mindua egokitu zitzaiola aipatzen du ‘Langile baten seme’ abestian. ‘Neguaren zai’n, berriz, belaunaldiartekotasunaren sinbolo bezala funtzionatzen du ardoak: “ardo berriak onduko dira / mahastietan aihen zaharrak / gure oraina arrazoiturik / beste batzuren biarrak”.

Kantaren bigarren lerroan ekaitzaren eta haizearen ondorioak aipatzen ditu. Kanpoko ekaitzak etxearen garrantzia enfatizatzeko balio du. Bachelardek dio etxea arima dela, aberriaren muina:

Los metafísicos del hombre lanzado en el mundo, podrán meditar concretamente sobre la casa lanzada en medio del huracán, resistiendo la cólera del cielo. Hacia y contra todo, la casa nos ayuda a decir: seré un habitante del mundo, a pesar del mundo. El problema de ser, es un problema de energía y en consecuencia, de contra-energía". La imagen de la casa se transforma en la imagen intermediaria entre el hombre y el universo. El universo nos habla de lluvia, de viento, de tormenta, lo que obliga al hombre a transformar su casa para que resista la cólera de los elementos naturales desencadenados. La casa así plantada, sea en el valle o en la montaña llega a ser un ser de confianza, un ente que está construido a la vez con partes del universo y de la vida humana. (Castillo, 1994, 115)

Haizearen ondorioak ez dira bistakoak, lanbroak estaltzen baititu. Artzek idatzitako eta Laboak ezagun egindako 'Gure bazterrak' abestian ere lanbroaren aipamena egiten da barne-begirada goraiatzeko. Xalbadorrek ere aipatzen du fenomeno meteorologiko bera 'Herria eta hizkuntza' bertso sortan: "Bat herria goratzen arrotz baten gisa, / arrotz-nahiak berriz herriaren hitza; / (...) lainopean bezala galdurik gabiltza" (1976, 177). Gai aldetik ere bat datoz bi bertso-jartzaile hauen sortak.

Bigarren bertsoa "itzal gaiztoak" datozela eta "argi apalak" badoazela esanaz hasten du. Espainiaren menderakuntzaz hitz egiten du, kultura baten etorrera eta bestearen iluntzea datorrela iradokitzen du eta kritika gogorra egiten die euskaldunei, beraien herria saldu dutela irizten baitio. Xalbadorren bertso sorta gogorarazten du: "Gora Euskal-herria! Frantsesez ziola" (1976, 177).

Bigarren bertsoa hirugarren puntua kontuan hartzekoa da. 'Ez dut amets handirik' abestiaren ildokoa da; sakrifiziorik ez egitea aldarrikatzen du. 1978ko lehen bertsoan "ez dut utzi nahi izan zehatzik izengabetan galtzera" idatzi zuen eta 2006koan -azken bertsiotzat hartzea nahi izan zuenean- "izen zehatzak uzten ditugu erortzen zulo beltzera" zuzendu zuen, esaldia zehaztuz eta galera egintzat emanaz.

Bigarren bertsoaren amaieran eta hirugarrenaren hasieran herria-etxea metafora baliatzen du Letek hirugarren bertsoan arrotzen esku geratzen ari dela salatzen. Alde batetik, Arestiren "aitaren etxea" gogorarazten du etxe horrek; baina, bestalde, etxearen defentsan Aresti baino epelago kokatzen da: armarik gabe eta besorik gabe. Etxe hori birmoldatzeko beharrezko lehengaien garraiorako gurdi bat zuzendu beharra adierazten du. 2006an argitaratutako azken bertsoan herritar guztiek ados jarri beharko luketela azpimarratzen zuen Letek, eta jatorrizko

bertsoan “inork ez baitu ausart hartu nahi berezko karga astunik,” dio. Norbanakoen arduratik kolektiborako jauzia oso interesgarria da.

Azken bertsoa despedidakoa da, konkistatzailearen garaipena onartzeaz den herri etsitu batena.

‘Gauaren ordezkoko eguna’-k ‘Haizea dator ifarraldetik’ eta ‘Herri zahar hontan’ekin jolas moduko bat egiten du Letek. Hirurako *track* bakarrean bildu zituen eta tematikoki ere batuta daude. Lehenengo biak neurri berean aurkeztuak daude, baina ‘Gauaren ordezkoko egunak’-k ez du hainbesteko distirarik.

‘Gauaren ordezkoko eguna’

Kanta hau Frankismoaren tuneletik irten arren eta kanpoko argia aurkitzeko zailtasunak zituen herri bati luzatu zion Letek. Iluntasunetik argitasunerantz mugitzen da abestia gradualki eta itxaropena agertzen du.

Gauaren ordezkoko esnatu zaigu egunsenti bat apala
Bere argitan ez da nabari eguzkiaren ahala.
Dizdira baino nabarmenago lainoa eta itzala,
Ke sakon batek estaltzen baitu euskal luraren azala.

Lehen zen iluna, beldur luzea, ezina eta dardara,
lanaren sari debeku latza, kartzela eta ikara.
Iragan hortan oker trabatuz begiratzen dut nik hara
Eta entzuten lehengo jabeen disimuluzko algara.

Ez du lur honek etsirik hartu, urratu ditu ideak,
Heriotz gorritz hilak izanik lagunak eta kideak.
Nun dira haien itsasontziak, nun pasadizu trebeak,
Beldurra ere ematen baitu joanaz gogoratzeak.

Erreduraren errauts artetik sortzen ari da lorea,
Nahiz oraindik bere jantziak izan ubel ta morea.
Apalki ari da margoz apaintzen, ez da jadanik gordea,
Harrizko bere zaintzaile ditu Auñamendi ta Gorbea. (Lete, 2006, 88-89)

Lehen bertsoa argitasunaren kontzeptuari tiraka hasten du, Kataluniari eskainitako kanta bezala. Egunsenti ilun batean kokatzen du entzulea, lainoz eta kez estalirik. Euskal Herriak Trantsizioa hasteko zuen ziurgabetasunaren erretratu interesgarria egiten du. Bigarren

bertsoan, berriz, Frankismora egiten du atzera eta azken puntuan Francok eta bere ondorengoek “dena lotuta” utzi zuenaren ideia adierazten du. Iraganeko zamaren pilaketa bat (debekuak, kartzela eta beldurra) egiten du eta orduko korapilotan trabatuta gelditzeko arriskuaz ohartarazten du. Hirugarren bertsoan errepresioak hildako pertsonak ditu aipagai. Caronteren itsasontzian joandako lagunez gogoratzen da.

Hirugarren bertsoa heriotzen aipamena berpizkundearekin lotzen du laugarren bertsoan, maisuki: hildako lagunaren ontzia sutan errekan behera irudikatzeko gai denak egurraren zirtakatzea ere entzun ahal izango du Letek bilatutako aliterazioari esker (“erreduraren errauts artetik sortzen”). Itxaropenezko irudia sortzeko lore baten jaiotza aipatzen du eta haren sorrera aspaldikoa dela dio. Errautsaren kontzeptua erabilia zuen disko berean Kataluniari eskainitako abestian: “Inoiz errausten ez dena baita zure egurra”. Euskal Herria, ordea, erretzat ematen du. Zaintzaile ditu Auñamendi eta Gorbea. Bi mendiok euskararen herria batetik bestera zaintzen dute eta gaia zentratzen laguntzen dute.

Letek ‘Haurrak haunditzen doaz’ izeneko abestia ere sortu zuen eta *Abestitzak eta Poema Kantatuak* liburuan jasota dauka. ‘Eskaintza aita zenari’ kantarekin (eta ‘Ez gara alferrik pasako’ argitaragabearekin) lotura ezarri daiteke. Kasu honetan, bere belaunaldia da indarrez hustu eta ile-urdinez bete dena eta pasatako treni begira gelditzen dira, nahi baino argi apalagoa dakarren egunsentia heltzean:

Nekatuta nago, nekatuta gaude
gehiegi sinistu dugu
edo gutxiegi agian,
haurrak haunditzen doaz.

Egunero daude mila harri
bidean traban jarriak
armiarmak bezela burmuinean,
eta loa astunagoa da
eta amodioa ohizkoagoa.
Eta zure begi tristeak daude
konturatu zinelako
arrunta nintzela batez ere,
ez dela asmakizun harrigarririk
bizitzaren ohizko joanean.

Baina trenak pasatzen dira
eta amesten dugu bidaia ederra,
amesten dugu oraindik goizaldean
egunsentiko argiarekin
trenak pasatzen entzutean. (Lete, 2006, 117)

‘Herri zahar hontan’

Leteren aberriaren deskribapena da ‘Herri zahar hontan’ abestia. Naturari erreferentziak egiten dizkio nagusiki, baina gradualki naturatik ihes egin eta gorputz, kultura eta sentimenduetara joaten da, zehatzetik abstraktura. Kopla zaharraren lehenengo bi puntuetako irudikapen magikoak gogorarazten dituzte lehen hiru bertsoetako lerroek eta mezu nagusia laugarren bertsoetako azken bost lerroetan dago: “Jarraituko dugun borroka bizia, / Eskeiniko dugun ahalmen guzia, / Azken ordurarte, atsedetik gabe, / Ilunabar arte, anaien ondoan / Herri zahar hontan”. Izenburuak garrantzia handia du, estrofa guztien oina da eta estribilo labur moduko baten funtzioa betetzen du. Egituraren errepikapen bat dago kanta guztian zehar: aditzen erabilera minimora murrizten du eta izenei eta izenondoei ematen die protagonismoa.

Lanbroak goizetan jazten duen erreka,
mendi tontorretan geldiro haizea,
Zelai eta oihan, eguzki-lorea,
Iturri garbien musika tristeia,
neguko elurren hoztasun zabala,
Euriak dakarren patxara sakona
Herri zahar hontan.

Ametsen sukarra ezpainen negarra,
Gauerdi isilen ezkila bakarra,
Bizitzaren irri ihes dihoana,
Gorputz loratuen farre eta laztana,
Hizkuntzaren doinu leun eta zakarra,
Oihuka hausten den gure kanta zaharra
Herri baldar hontan.

Berorik ez duten hitz alferren kea,
Gorrotozko egur borrokan errea,
Bihotzen antsi bat saminez betea,
Otoitzen gezurra lanaren nekea,
Erbesteko lege bakerik gabea,
Amets ero baten morroi ta semeak
Gure herri hontan.

Denbora lotzen duen orduen gurpila,
Argi azken baten izpi iheskorra
Jarraituko dugun borroka bizia,
Eskeiniko dugun ahalmen guzia,
Azken ordurarte, atsedetik gabe,
Ilunabar arte, anaien ondoan
Herri zahar hontan.

Egileak *Abestitzak eta Poema Kantatuak* liburuan argitu zuenez, kanta hau Jacques Brelen

'*Le plat pays*' kantuan oinarrituta dago (2006, 91):

Avec la mer du Nord pour dernier terrain vague
Et des vagues de dunes pour arrêter les vagues
Et de vagues rochers que les marées dépassent
Et qui ont à jamais le cœur à marée basse
Avec infiniment de brumes à venir
Avec le vent de l'est écoutez-le tenir
Le plat pays qui est le mien

Avec des cathédrales pour uniques montagnes
Et de noirs clochers comme mâts de cognac
Où des diables en pierre décrochent les nuages
Avec le fil des jours pour unique voyage
Et des chemins de pluie pour unique bonsoir
Avec le vent d'ouest écoutez-le vouloir
Le plat pays qui est le mien

Avec un ciel si bas qu'un canal s'est perdu
Avec un ciel si bas qu'il fait l'humilité
Avec un ciel si gris qu'un canal s'est perdu
Avec un ciel si gris qu'il faut lui pardonner
Avec le vent du nord qui vient s'écarteler
Avec le vent du nord écoutez-le craquer
Le plat pays qui est le mien

Avec de l'Italie qui descendrait l'Escaut
Avec Frida la Blonde quand elle devient Margot
Quand les fils de novembre nous reviennent en mai
Quand la plaine est fumante et tremble sous juillet
Quand le vent est au rire,
quand le vent est au blé
Quand le vent est au sud, écoutez-le chanter
Le plat pays qui est le mien

Gurrutzagak bere tesian gehitzen du 'Hitz alferren kea' izena zuela jatorrizko bertsoak eta 1968an grabatu zuela *Herri Irratian* (2020a, 442). Zarakzarrak nabarmentzen du maila formalean, ahapaldien banaketan esaterako, nabarmena dela jatorrizkoaren eragina; baina Brelen hitzak difuminatu egin zirela sormen prozesuak aurrera egin ahala (2020a, 668).

Disko bereko bi erreferentziarekin lotura du kanta honek: "egur borrokan errea"-ren aipamena egiten du hemen, Kataluniari erreferentzia egiten dionean erretzen ez den egurra dela. Bestalde, lanbroaren aipamena ere badago, 'Haizea dator ifarraldetik'-en bezala lehen bertsoan. Kasu honetan erreka janzten du, lanbroa pertsonifikatuz.

Lehen bertso hau da Leteren obrarik umelena. Lanbroa eta erreka ondoren, iturri garbia aipatzen du ('Ni naiz' abestian bezala) eta elurra eta euria gehitzen ditu ondoren:

Lanbroak goizetan jazten duen erreka,
mendi tontorretan geldiro haizea,
Zelai eta oihan, eguzki-lorea,
Iturri garbien musika tristea,
neguko elurren hoztasun zabala,
Euriak dakarren patxara sakona
Herri zahar hontan.

Paisaiaren irudi positibo eta negatiboen kontrastea egiten du bertso honek. Lehen lerrotan nahiko neutroak izan daitezkeen elementu ederren pilaketa egiten du. Laugarren lerroan "iturri garbi"-aren lerratze positiboa musika tristearekin neutralizatzen du eta, segidan,

hotzaren erredundantzia laukoitz bat eraikitzen du (“neguko elurren hoztasun zabala”). Euriak, aurreko eta moteltze nahitako bat egiten du hotz+hotz+hotz+hotz eta euriari mundua moteltzeko gaitasuna aitortzen dio. Letek bazuen fijazio bat hotzarekin. Hala aitortu zion Muguruzari: “en el largo invierno hacía un frío tremendo en todas partes: en las casas, en la iglesia, en la calle, en el autobús... ¿Pero un frío del carajo! Era una sensación de incomodidad extrema la que te provocaba. El único lugar donde te podías guarecer del frío era en las tabernas del pueblo” (Lete, 2010a). Txikitan iltzatutako sentipen hori metaforikoki erabiltzen du poetak behin eta berriz. Adibidez, ‘Euskalerra nerea’n “anaien aurpegiaren begirada hotza” aipatzen duenean.

Bigarren bertsoan giza ezaugarriak kontrajartzen dizkio zenbait ezaugarri negatibori. Hirugarren bertsoan berriz negatibotasun hori zabaltzen du, norbanakoaren akatsetatik gizarterako jauzia eginez. Bigarren estrofa honetan “ametsen sukarra” aipatzen du eta hirugarrenean “amets ero baten morroi ta semeak”. Baliteke, amets beraren jarraipena bada, denbora jauzi bat adieraztea. Hipotesi hori indartzen du laugarren estrofaren hasierak: “Denbora lotzen duen orduen gorpila” Letek ohikoa duen “kate” edo belaunaldien segida erabiliz, jarraikortasun hori da Leteren konstanteetako bat: “jarraituko dugun borroka bizia”. Esaldi hori aldatu egin zuen *Abestizak eta Poema Kantatuak*-n eta “jarraitu behar dugun gatazka bizia” esaldira modulatu zuen. Batetik bi sinonimoren (borroka=>gatazka) arteko trukaketa dago eta bestetik lehen bertsioko borondatez jarraitzeko gogotik halabeharrez heredatutako gudurako jauzia ez da nolana hikoia (jarraituko dugun=>jarraitu behar dugu.)

‘Haizea dator’, ‘Gauaren ordezkoko eguna’ eta ‘Herri zahar hontan’ hirukotea gradualki baikortzen doala esan liteke. Lehen kantan garaitutzat ematetik, bigarrean itzaropen zantzuak ikustera pasatzen da, eta azken honetan borrokarako grina etengabe batera bideratzen du bere lurraren edertasunak.

Letek ‘Egoera bat dela eta’ izeneko artikulua idatzi zuen 1970ean *Zeruko Argian* eta bertan salatzen zuen euskaldunak “gure gorabeherentzat soluzio magiko” baten zain sumatzen zituela. Estrategietan zehaztasun falta salatzen zuen. Ustez norabide bertsutan zihoazen pertsona askoren batuketa ezinezkoa sumatzen zuen. Bere kantatan maiz agertzen zen bidea aukeratu behar diren dilema hori eta “urratsak zuhurki eta zentzuki” ematea proposatzen zuen

(Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 111). Hiztegi horrek ‘Ez dut amets haundirik’ eta ‘Izarren hautsa’ gogorarazten dute: (“amets eroak behingoz erreta / bide on bat aukeratzen”) edo “hobe da etorkizuna adimentsuki moldatu. /(...) Eguneroko fruituaz eskuak bete ditzagun / alferrik da bihozkadaz egoerari erantzun”. Garai hartan eman ziren pausoekiko eta erabakiekiko desadostasuna agertzen zuen beraz. Oso aurreikuspen interesgarriak egin zituen Letek: “Guri gertatzen zaiguna ez da kasualitatea, historiak eraman duen prozesu konkretu baten ondorena baizik. Herri guztien historiaren une berezietan, indar ekonomiko, kultural eta ideologiko batzuk konkretatu egiten dira, eta beste guztien gainetik jartzen. Aipatutako indarrok, giza errealitate baten adierazpen berezia diren horiek, garai bat markatzen dute eta herri bati bide bat erakusten diote (ez, nahi eta nahi ez, biderik onena, biderik posibleena baizik) (...) Kondizioak aldatu egiten dira, kanpoko edo barruko indarrak direla medio eta aldakuntza horrek estrategiaren eta jokabideen aldatzea eskatzen du. Horretaz ahazten den herriak bere egoeraren agintea galdu du, eta itsumenezko abiada horretan mila kankarreko hartzeko zorian jartzen da” (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez 2020, 112).

‘Ez dut amets handirik’

Euskal Herriaren askapen mugimenduaren estrategiarekin oso kritiko agertu zen Lete kanta askotan. Egoerei adimentsuki erantzun beharrean bulkada automatikoz erantzuten zitzaiela salatzen du ‘Ez dut amets handirik’ kantak. Lete ezkortzat hartzen da eta kanta hau ere hala sailkatu daiteke bote-lasterrean, baina kantu gutxik bezala egiten dio gorazarre bizitzari.

Bizitza sinpleaz gozatzeko aldarria egiten du Letek, izenburuan aurreratzen duen gisan. Lehen lerroak ematen dio izena kantari. Errepikapenaren eta anaforaren bidez pilaketa sentsazioa areagotzen du “nik ez dut...” esanez eta azken aurreko puntua aurreko bien sintesia da “ez dut bizitza alferrik gastatzen” eta azken bi lerroetan negatiboari kontrapuntua ematen dio positiboki “egunero egarriz dastatzen duen lorea” aipatuz.

Nik ez dut amets haundirik, zeru ederrik eskeintzen,
etsipenaren mugetan zuekin nago bizitzen.
Nik ez dut solas lodirik etorkizunaz egiten,
bat-bateko librakuntzaz ez dut aspaldi sinisten.
Bizitza maite dut, baina ez dut alferrik gastatzen
eguneroko lorea egarriz baitut dastatzen.

Nik ez dut ehortze ondoko omenaldirik desio
bizitzaren etsai denez gorrotatzen dut herio.
Ez dut nahi herri zahar baten agoni kanpairik entzun
ezin diot galerari odolarekin erantzun.
Lur bortitz honen azpian hobeagorik ez dago
handik berriz itzultzerik ez da asmatu oraino.

Zergatik kale erdian ipuin zoroak kontatu,
bizitza merezi zuten gazte ederrak hondatu.
Eguneroko fruituez bete nahi nuke bihotza
bakarrik etorriko da, zertan kanta heriotza.
Nik ez dut amets handirik, zeru ederrik eskeintzen
herri honen karriketan zuekin naiz bizi ta hiltzen. (Lete, 2006, 79)

Aurreneko bertsoa anaforarekin hasten du (“nik ez dut amets handirik”, “nik ez dut solas lodirik”); eta bigarren bertsoan ere antzerako formula darabil (“nik ez dut”, “ez dut nahi”), ordenaz aldatuta . Bigarren bertsoan, bizitza bizi den bitartean gozatu behar dela defendatzen du, eta heriotza gorroto duela esan. Bere izatea berriz ere herriarekin lotzen du eta haren heriotzarekin kontrajartzen du. Hil kanpaiak eta bihozkadak jartzen ditu aurrez aurre bigarren bertsoan eta azkenaren amaieran errepikatuko du esaldi bera. Leteren alderik hedonista eta bizizaleena ageri da kantu honetan horrek bere posizio etikoa indartuko duelakoan.

Utopia eta ameskeriak baztertu eta sakrifizioak egiteari uztea eskatzen du Letek. Hain zuzen ere, “utopia” hitza erabiltzen du “Uste onaren emaitzak /gau beltzak ditu urratu” esaldiaren lehen zatiaren gaztelaniazko itzulpena egiteko diskoaren liburuxkan. Zentzuzko estrategia bat eraiki eta hura jarraitzea proposatzen zuen, eta erreakzioen bitartez jokatzeari uztea. Hildako, erbesteratu, torturatu, eta kartzelaratu asko zeuden garaia zen eta amets kolektiboak norbanakoen suntsiketa eragiten zuela jakinarazi nahi zuen: “bizitza merezi duen gazte ederrik hondatu” Borroka armatua etetea eta beste estrategia bat “adimentsuki moldatzeko” proposamena kontrakulturaren korrontearekin koherentea da:

Es fácil comprender que, así las cosas, muchos jóvenes decidan “abandonar”, alejarse de la lucha política, pero no sólo como pura evasión (aunque ésta exista en muchos casos), sino en busca de salvar su vida personal y de conseguir que el sistema de competencia se vaya agostando (sic) simplemente por falta de combatientes.


Es, precisamente, salvar la vida personal lo que se convierte en objetivo prioritario. La acción social - porque, como veremos, lo anterior no significa un individualismo a ultranza- versa sobre la calidad de la vida cotidiana y el control sobre el destino personal (López, 1991, 225)

Beste hipotesi bat litzateke aipatzen dituen “ipuin eroak” bestelakoak izatea: benetako bizitzaren baten distrakzio liratekeen erronka txiki edo handiak. Gaur eguneko ikuspuntutik desazkundearen abantailak azpimarratzen ditu, kapitalismoaren etorkizunagatik oraina hipotekatzeko joera salatuz. Anibalentzia horrekin jokutzen du autoreak eta horrek balioa ematen dio norberak bere irakurketa egin dezan.

Dena den, Leteren ohiko eskema bat dago: iluntasunarena eta egoera etsiarena, baina itxaropenerako zirrikituak dituen. Kasu honetan, ohikoa baino posizionamendu baikorragoa agertzen du bere egoerarekiko eta inguruaren iluntasunak ez du narratzailea ohi bezainbeste ziprztintzen.

Figura 25

Xabier Lete



Letek, fase honetan, bere kantagintzaren funtzioa aldatu zuen; dagoeneko ez zuen herriak entzun nahi zuena kantatzen, bere ustez entzutea komeni zitzaiona baizik. Belarrientzat lakarrak ziren esaldi hauek bere epe laburreko proiektio artistikoan kaltegarri izan zitezkeen, baina perspektiba historikotik bere ausardia bistan geratzen da. Belokik egindako elkarrizketa honetako zati luze honetan bistaratu daiteke Leteren esplizitutasuna:

Nik sineskeria denak ukatzen ditut edo ukatu nahi ditut. Sinesmena gauza bat da. Konfiantza gauza bat da. Eta fede bat edukitzea norberaren baitan eta bere herriaren baitan gauza bat da, eta helburu, ez dakit, maximalistak ere beharrezkoak dira, ez?, guk hara iritsi behar dugu, askatasun oso bat, eta hara guk askatasuna entenditzen dugun bezala eta osoa entenditzen dugun bezala. Baina gero, prozesu horretan, askotan ikusten nuen eta ikusten dut bihurtzen ditugula gure nahi maximalista horiek fedeko artikulu, ez? Nik ez dut uste politika alorrean eta herri baten errekonstruzio bide horietan maximalismo horrekin eta fedezko artikulu horiekin joka litekeenik. Eta maximalismo horien izenean eta fedezko artikulu horien izenean eta gainera, fedezko artikulu horiek hasieran helburu orokor batzuei buruzkoak izaten dira, ez? Aberria edo askatasuna edo ez dakit zer. Ondo, baina gero partikularizatu egiten dira. Aberria eta askatasuna eta abar eta abar, baina halako taldek ikusten dituen bezala edo halako taldek daraman borrokaren bidez eta abar eta abar. Orduan badago halako polarizazio bat: onak batetik txarrak bestetik eta maximalismo izugarri batzuk gertatzen dira. Eta okerrena, maximalismo horien izenean jende askok larrua jokatzen du, bizia ematen du edo ez du ematen, izugarriko sufrimenduak jasaten ditu ala ez. Orduan, ez dakit, helburu politiko edo herri helburu batzuen sakralizazioa eta... fede artikulu bihurtze horren aurka egindako kanta bat da Ez dut amets handirik hau. Eszeptiko xamarra beharbada? Beharbada, bai. Baina batez ere iruditzen zait eszeptikoa baina gehiago, ez dakit, relatibista xamarra beharbada, ez? Gauzak hemen izan diren bezala eta izango diren bezala ikusten dugunez, bat-bateko librakuntzaz ez dut aspaldi sinisten esaten da kanta honetan; hau zenbaitek ez du oso ondo hartu ez? Zer da bat-bateko librakuntza hori eta... norengatik ari haiz hori esaten?, beno, ba inorengatik ez, denongatik. Bat-bateko librakuntza hori posible da? Gizona —eta ez gizona baizik— gizona kolektibitate bezala herri bat, bat-batean, kolpe batez eta borroka oso eta epe motzeko baten bidez aska liteke? Askatasuna bereganatu lezake? Bere buruaren jabetza lor lezake? (Lete, 1978a)

Kartzelaratuta zeuden euskaldunei eskainitako kanta bat ere badu Letek: ‘Espetxeratuaren eskutitza’. Peio eta Pantxoak egin zuten ezagun abestia eta ezker abertzaleak bere egiteko moduko ikuspuntua dauka:

Gabon ama, bi hitz bakarrik
berri on bat zuri emateko,
bukatu da gure gau luzea
Laister nauzu anaien ondoan
etxe zaharrera berriro itzuliz
lehengo kaletan borrokatzeko.

Esaiezu nere lagunei
ez noala esku hutsikan,
maitatu dut gure aberria
sufritu dut kate lazgarria,
baina hargatik etsipen beltzean
ezerezean ez naiz erori.

Ez nuke nahi ilunpe hontan
anai bakar bat lotuta utzi,
eska iezaiezu aberkide guztiei
indar guziz oihu egin dezaten
denok batera atera gaitezen
zulo hontatik, libre izateko. (Lete, 2006, 128)

Letek kanta inoiz ez diskoratu izana esanguratsua izan daiteke. *Abestizak eta Poema Kantatuak* liburuan sartzea erabaki zuen, baina oin ohar bat jartzeko beharra sentitu zuen: “Abesti hau 76. urtean konposatu zen, amnistiaren aldeko jardunak bakea ekar zezakeela sinisten genuenean”. (Lete, 2006, 128). Kanten egokitasuna garai historikoaren arabera modulatzeko ariketa ohikoa zen kantagintzan. Laboak, adibidez, ‘Liluraren kontra’ eta ‘Denak ala ezer ez’ abestiak elkarren segidan interpretatu ohi zituen 70eko hamarkadaren erdialdera arte, baina bigarrena kantatzeari utzi zion bere abestitzen interpretazio okerrik egin ez zedin (Bastida, 2014, 173).

‘Alzateko jaun’

Aberria sortu egiten da. Gertakarien kontaktak, epikaz kontatutako pasarteek sortzen dute aberriaren iruditeria. Letek esan zuen ez zitzaiola biologian oinarritutako aberria interesatzen; sinesmenen eta ohituren berezkotasuna enfatizatzen saiatu zen. 1974an argitaratutako ‘Alzateko jaun’ abestia protoeuskaldunen irudia berreraikitze ariketa gisa ikusi daiteke. Zuka zuzentzen zaio Lete jatorrizko euskaldun pagano hari eta “gu” erabiltzen du orduko euskaldunez jarduteko.

Alzateko Jaun, hor zaude nunbait
zure lurrera itzultzeko zai.
gure izatearen testigu zuzena
makurtu gabeko zuhaitz lerdena
desertuko haizeak lehortu ez zuen lorea
itsasoaren kolorea, hor zaude zu.

Hamasei salbe ta hamalau kredo
erderaz entzunagatik
bazenekien hori ez zela sekulan guretzat egin.
Urrezko daukat eta diruak ez dira engainu txarra
bazter batera apartatzeko lehengo sinesmen zaharra.

Merkatarien aldamenara amildegian goitik behera
oharkabean eroriko gera;
baina guztiok jakin dezagun bidea nundik dihoan
Alzateko Jaun, hor zaude zu.

Bide batetik okertu gabe kanta dezagun bertsua
isil-isilik esan dezagun eukaldunen sekretua:
herri zahar baten oharpen haiek nora ditugun galduak
zenbat itxura alda ditzaken eguna hil zuen gauak.

Bidasoaren ezker-eskubi udaberrian lore gorriak
isilikako ur izkutua:
mendeetan zehar kantu laguna, noizpait latinez lurperatua
laister berpiztu behar duguna.

Larhun-gainean sorgiñen dantzak nabaitzen ditut arratsaldean,
lurrak badaki kontu hoiien berri
eta hor dago isil-isilik. (Lete, 2006, 64)

Pio Barojaren eleberri bateko protagonista da Alzateko jauna, 1922an argitaratutako *La Leyenda de Jaun de Alzate* izenekoak. Liburuak zabalkunde handia izan zuen Frankismoaren amaiera aldera. Barojak mundu paganoa eta kristaua elkarrekin talkan kokatzen ditu, duela mende batzuek atzerago kokatutako agertoki batean, eta Euskal Herriarekiko zuen ikuspegia lantzen du bertan. *Herri Irratian* egindako elkarrizketan azaldu zuen Barojak “euskal nortasunaren eredu erromanizatu gabeko Euskal Herri baten eredu” den pertsonaia sortu zuela; autentikoa, baina Baionako itsasertzera hurbiltzen ziren atzerritarrekin harremana zuena (Lete, 1978a). Lete pertsonaia harekiko oroimenez eta berpizte premia mintzo da. Idazlearen inguruan sentimendu kontrajarriak aurkezten ditu bere mendeurreneko liburuan. Batetik, haren iraganaren miaketak eta maitaketak goستن ditu, baina, bestetik, autore haren posizio ideologiko batzuk gaitzesten:

Baroja, ohiturari jarraituz, etxeko gauzetaz radikalegia zen, kanpokoetaz ere askotan zen bezala. Radikalitasun ezinezko harek, ordea, garai hartan aterabiderik ez zedukan; eta Baroja behin eta berriz bazterreratua eta umore txartua geratu zen. urruneko herri zahar jentil eta askeago baten bila abiatzearen arrazoietakoa bat, hori izan zela uste dut; eguneko errealitatea ez onartzerakoan, beste errealitate ideal eta amesgarriago baten bilatzera bultzatu zuen bere burua (...) Jokabide horren indar eragikorra askotan oso ona zen; errealizaio literarioa ere aski egokia eta xarmangarria izan zen gehienetan. Planteamendu orokorra zen, hain zuzen, diskutigarria. (Lete, 1972, 81-82)

Euskal Herriko berezko izateari zilegitasuna eman nahi zioten kontakizunaekin lotu daiteke kanta hau. Bereziki interesgarria da kristautasuna eta aberria lortzen dituelako. Letek *Herri Irratian* egindako elkarrizketan esan zuen Barojaren ustez elizak ekarri zuela merkantilismoa eta merkantilismoak usadioen eraldaketa:

Euskal Herrira sartzen direlarik indar ekonomiko berri batzuk, merkantilismo mota berri bat, salerosketa, beste ekturura ekonomiko batzuk,... gertatzen da menperakuntza bat eta menperakuntza hori, normala den bezala, ez bakarrik euskareren kaltetan baizik estilo baten usadio baten kaltetan doa. Euskal Herria erromanizatua gertatzen da eta erromanizazio horretan. (1978a)

Bestalde, katolizismoak zuzenean egindako zapalkuntza ere salatzen du. Autoritate intrantsigente gisa aurkezten du Eliza. Euskal Herrian pixkanakako erromanizazioaren eta bortxaren bidez azeleratutako prozesuaren bidez aldaketa eragin zela eta oraindik ere eragiten jarraitzen zela adierazi zuen Letek irratsaio berean (1978a).

‘Nafarroa arragoa’

Aberriaren eraikuntzaren beste urrats bat ereserkiena zen. Sortzera zihoan nazioaren ereserkiak ere sortu behar ziren eta baita probintzia bakoitzarena. 1975ean Lertxundik Anjel Irigarayk idatzitako ‘Bizkaia maite’ musikatu zuen; Letek 1974an argitaratua zuen ‘Nafarroa, arragoa’ eta baita Gorka Knörrek ‘Araba’ ere.

Araba, oi Araba!
zu ote zare
aitaren zazpigarren alaba?
Iparraldeko oihanek
diraute lerdetik
hegoa-aldean, berriz
zelai bilutsik, bilutsik.

Araba, oi Araba!
zu ote zare

Bizkaia maite
atzo goizean ikusi zindudan
soineko xuriz jantzia
buruan orlegi, bihotzean sua
nere gogoaren ertzatik pasatzen.
Zure usain gozoa, lana,
amodioa, itsasoa,
nere baitan sartzen.
Atzo goizean entzun nuen
zure berbaren oihartzuna,

aitaren zazpigarren alaba?
Bazegoen bide bat
bazegoen zugaitz bat;
Bainan zugaitz erori hori
bidean oztopoa, oztopoa.

Araba, oi Araba!
zu ote zare
aitaren zazpigarren alaba?
Gure nahia, ekaitza,
haizea, legorra
gizona zapaldua
bizitza, negarra, negarra.

Araba, oi Araba!
zu ote zare
aitaren zazpigarren alaba? (Knörr, 1974)

zure kantaren fereka,
bihotzean kilika
eta ohiartzunaren haunditasunean
murgilduz joan nintzen
jausika, hegaka.
Bart arratsean
arbasoen baratzaren ondoan
bertsotan eta dantzan
lotu zinen alai piper eta gatza
sabel emankorra.
Bizkaia maite
atzo goizean ikusi zindudan
soineko xuriz jantzia
buruan orlegi, bihotzean sua.
Olerkari
penatuaren gozo eta mina
amodio eta kanta
zure berba leun,
zure gatzaren bizia,
zure burdinaren gorria dira gaur
neretzat aterbe.
Bizkaia maite
atzo goizean ikusi zindudan
soineko xuriz jantzia
buruan orlegi, bihotzean sua,
lirain, sendo, eder. (Irigaray, 2001, 12-13)

Figura 26

Benito Lertxundi eta Xabier Lete



‘Nafarroa, arragoa’ 1972an idatzi zuen Letek eta 1973an Salamankan jo zuen lehen aldiz. Orainaren deskribapen sentitua eta izan zuen iraganaren nostalgia uztartzen ditu eta kontraposiziotan oinarritzen da bere esan-indarra. Letek aberria deskribatzeko erabili zuen definizioarekin koherentea da guztiz.

Nafarroa, arragoa,
argiaren pausaleku
haizearen ibiltoki zabal,
hesirik gabea.

Nafarroa, arragoa,
sua eta ura,
kondaira urratu baten oihartzun oihukatua,
amets bat baino gehiago,
ez oparotasun osoa:
nahiaren eta eziñaren burrukatoki ekaitzez betea.

Nafarroa, arragoa,
mahats eta gari
maitasun eta gorroto,
gezur eta egia gurea.
Nafarroa, arragoa,
lur beroen sabel emankorra
eta goiko mendi hotzen mendetako loa.

Nafarroa, arragoa, zuhur eta eroa,
lurrik maitatuena,
hormarik gabe utzitako etxea:
erreka gardenen negarrez
ibai lodietara ixurtzen ari den
odol bustikorraren iturri bizia.

Nafarroa, arragoa,
izen bat
eta oinarri
eta oinaze,
eta bidean zure billa ibiltzea...
Piñudiek usantzen dituzten
harri txigorrezko bidetan gora
o, Nafarroa, Nafarroa betikoa. (Lete, 2006, 61)

Arragoa metalgintzan erabiltzen den tresna da, eta Bizkaiko errealiterako aproposagoa litzateke akaso, baina Letek aniztasun moduan erabiltzen du, gauza ezberdinak batzen diren leku moduan. Nafarroa argiaren pausaleku dela dio segidan eta burdin fundituaren argi

laranjak iradokitzen ditu. Hurrengo estrofan “sua eta ura” aipatzen ditu eta hirugarrenean “mahatsa eta garia”. Paleta zehatz bat deskribatzen dihardu Letek estrofen lehen lerrotan.

Poetak Euskal Herriko beste probintziekiko ezberdina den paisaiaren erreferentzia egiten du “haizearen ibiltoki” dela dionean, ez baita hain menditsua.

Kondaira “urratu” dela dio, historiari erreferentzia eginez. “Oihartzun ohiukatua” hitz jokoa egiten du. “Amets bat baino gehiago, ez oparotasun osoa” dio, beraz, ia perfektua da, baina zerbait du falta “nahiaren eta ezinaren” borrokatokia da. Askatasunaren erreferentzia izan daiteke.

Hirugarren estrofaren hasieran Nafarroako fruitu eta zekaleak aipatzen ditu eta kontzeptu abstraktuak kontrajartzen ditu gero, berriro ere naturaren bi erreferentziarekin amaitzeko, lurra eta mendia, emankortasuna eta loa, eta beroa eta hotza. Kopla zaharren antza badu naturaren erreferentzia pilaketa honek, baina ez du segidan sententziarik; entzuleari luzatzen dio, izatekotan, horretarako aukera.

Halatsu, laugarren pieza honen barruan ere: zuhur-eroa, lur maitatua-hormarik gabeko etxea, erreka gardena-odola kontrajartzen ditu. Erresuma bat izanda, hormarik gabe utzitako etxearena uler daiteke, garaitua den herri bat aipatuz. Ondoren, graduazio bat dago: erreka-ibaia eta, haietan barrena, odola. Hirurak jariodun elementu isurkorrak, iturriari darizkionak.

Izena duen guztia badela dioen ideia indargarri aipatzen du “izen” bat, gero hitz jokoa dator, oin-arri eta oin-aze eta oinaren segidan bidearen erreferentzia.

Errimari dagokionez -oa amaiera oso errepikatua da kanta guztian: Nafarroa, arragoa, osoa, emanko(rr)a, loa, eroa, go(r)a, betikoa.

Letek *Herri irratian* eskainitako elkarrizketan (1978a) dio kanta sortu zuenean inguru fisiko baten anotazio bat bezala sortu zuela. Gaineratzen zuen Nafarroaren problematika datorkiola burura kanta abesten duen aldiro:

Nafarroa den guzti hori eta hor dagoen problema izugarri hori. Euskadiren zati bat, Euskadiri ukatu edo diskutitu egiten zaion zati bat. Hain zati garrantzitsua eta Euskal herriaren sustrairik sustraikoena izanik, ukatua den zerbait. (..) Ez da amets huts Nafarroa, batzuek esaten duten bezala “un sueño, un mito... . Ezl Amets bat aino gehiago, baina ez da oparotasun osoa, errealitatea osoa. Nahiko genukeen zerbait da. (...) Euskal Herria edo Euskadi guretzat den bizileku jauregi honen lehenbiziko parte printzipala edo gorputz printzipal izan zitekeen eta era berean hormarik gabe utzia izan zena, historiaren haizeek puskatutako etxea, Nafarroa. (Lete, 1978a)

Oiartzunen, Gerra Zibilaren garaiko bizipenak oraindik ere gogoratzen ziren eta nafarrak maitatuak bezain gorrotatuak zirela gogoratzen du elkarrizketan: “Erlazionatzen ziren erreketekin, karlismoarekin, gerraren hasierarekin...” Horrela interpretatu behar da “maitasun eta gorroto” dion letra zatia.

Aberria eraikitzeke modu asko daude. Ikusi dugun bezala, iraganaren esplorazio batek (historia, mitologia...) justifikatu dezake orainaldiko gurari identitarioa eta Euskal Herriak argumentu sendoak zituen bide horretatik. Letek bere hitzak jarri zituen eraikuntza horren zerbitzura. Poeta nazionalaren funtzioaz dihardu Romanek bere tesian eta Iparragirreraren kasua aipatzen du. Lete ez da akaso poeta nazional bihurtu; baina Ez Dok Amairuk, kolektibo gisa, balio sinboliko hori lortu duela esan liteke. Kantagintza erritual bihurtu zen eta taldeko poeten hitzak euskalduntasunaren iruditeria:

Los mitos nacionales se reafirman y escenifican mediante la puesta en práctica de una serie de ritos que por lo general pretenden lograr la comunión y participación activa de todos los miembros (...) se manifiestan en la arena de lo público de un modo altamente performativo mediante la activación ritual. (...) Los ritos son artefactos altamente simbólicos orientados a la construcción de lo social desde lo social. (...) Durante estos procesos los individuos trascienden la estructura social para renovarla y reconstruirla. Esos tiempos y espacios crean además otros espacios de sentido en los cuales aparecen las formas de pensamiento y las representaciones colectivas. De este modo se convierten en fijadores de la experiencia, marcando paralelamente el orden social y perpetuando lo fundamental de la vida social para evitar cualquier anomalía o desorden ritual. Los rituales encargados de escenificar el mito nacional que las comunidades subalternas (y también las hegemónicas) articulan para reivindicar su identidad ante la alteridad del sujeto que los oprime tanto cultural como políticamente, son altamente performativos y por lo general necesitan ser llevados a cabo por sujetos reconocidos y elegidos por la propia comunidad. Los políticos, los miembros de órdenes religiosas, la realeza o los poetas nacionales entre otros, serán habitualmente los elegidos para desarrollar este tipo de performances sociales orientadas a fortalecer la comunidad. (...) Los poetas son sujetos carismáticos y representativos capaces de articular las virtudes del mito nacional que sustentará y legitimará al propio Estado. El mito nacional se encontrará además vinculado a una ardua defensa de los valores etnosimbólicos de la comunidad nacional. (Roman, 2015, 232-233)

Aberria indarrez konkistatu nahi zuenik ere ez zen falta...

Bihozkadakin erantzun

Indarkeriaren kritika sendoa egin zuen Letek. ETAren jardunarekiko oso kritiko agertu zen aldizkarietako idazlanetan. Kantei zegokienez, Letek hartutako bide erratuak aipatzen zituen maiz. Zenbait letratan oso argia da indarkeriaren aurka erakutsi nahi duen jarrera, eta are argiagoa da bere letrei egindako zuzenketei soilik erreparatzen bazaie. ‘Ez dut amets handirik abestiak bizitzaren gorazarrea egiten du, eta gazteriaren instrumentalizazioa salatzen: “bat-bateko librakuntzaz ez dut aspaldi sinisten. / Bizitza maite dut, baina ez dut alferrik gastatzen (...) ezin diot galerari odolarekin erantzun. (...) bizitza merezi zuten gazte ederrak hondatu.”

Borroka, konpromisoaren eta itsumenaren arteko aldeaz dihardu ‘Jakín nahian’ artikuluan: “Pertsonak ez dira instrumentuak” zion eta “persona errebalorizatzen ez baldin badugu, eta idealen bila joaterakoan pertsonen gainetik errazegi pasatzen baldin bagara, agian geroago eta problema berdina planteatuko zaigu: sufrimenduarena” (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 81-82).

Letek kontrakulturaren oinarritako bat zen pazifismoa aktiboki praktikatu zuen. ‘33en manifestuak’ zalantzatarako tartetik gabe finkatu zuen bere posizioa. 1995eko ‘Neguko gogoetak’ artikuluan Gregorio Ordoñez zinegotziaren erahilketaz mintzo zen:

Erahilketa hori politikoki errore izugarria izan da, gainera. Abertzale guztiok psikologikoki inarrosi gaitu eta lotsa-gorrira eramán. Nola defenda genitzake posizio politiko batzuk, posizio politiko horien imajina publikoa hiltzaileek hurrupatzen duten unean? Zer abertzaletasunez ari dira mintzatzen aberria laidotzen duten pistolero uzkur eta anker horiek? (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez 2020, 281)

Gerraren itsusitasuna kantagai du ‘Malkoak euri balira’ izeneko abestian. Kontrakulturak egiten zuen egoeraren diagnostikoa eta erantzuna honela laburbiltzen du Lópezek:

Vivimos en una sociedad en la que la violencia se ha instalado de tal manera que ha llegado a deformar las relaciones entre los hombres haciendo que tengan que estar continuamente preparados para repeler la posible agresión del otro, como si esta agresión fuera algo que normalmente se puede esperar.

El único salto cualitativo parece pasar por la negación de la violencia. El pacifismo, la no-violencia, es un tema común a casi toda la contracultura. El pacifismo llevará, con toda lógica, a la objeción de conciencia (1991, 222)

Hala ere, orokortze handiegia litzateke kontrakultura munduko lurralde guztietan bakezaletasunarekin lotzea. Hain zuzen ere, hainbat herrialde askabidetan zebiltzan; haietako asko, ez modu baketsuan.

Heriotzatik gertu bizitzeak bigarrenaren aldeko aldarria areagotu zion. Ez zuen, lanean ez bezala, herriaren alde sakrifizio erabatekoak egitean heroikotasunik sustatzen: “Zeren nire lagun Artzek esaten duen bezela: «Ederra bada herriarentzat hiltzea, zein ederrago herriarentzat bizitzea; herriarekin behar baita bizi, behar da irabazi»” (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 112).

Koherentzia erabatekoa mantentzearen zailtasun gisa, aipatu behar da bere testu batzuetan ongia handiagoa lortzearen truk indarkeria erabiltzearen alde ere agertu zela. Erasotuaren defentsa, adibidez, legitimotzat zuen. ‘Ez kanta beltza’ abestian aldarrikatzen du honakoa: “Ez kanta beltza, berriz ez kanta, indarren kontra jaso indarra”. Bestalde, 1965ko *Zeruko Argiako* kolaborazio batean Dominikar Errepublikako diktadorearen hilketaren gaineko poza argitaratu zuen, adibidez: “Trujillori bere lagunik bortitzenak desleialki jokatzen hasi zitzaizkion, eta horrela, egun zoriontsu batean tiroka garbitu zuten” (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 72). AEBko gobernuaren monigotetzat zeukan Trujillo. Leteren posizio etikoa, beraz, modulatu egin zen 60ko hamarkadatik 80kora.

Bere letrak ere aldatu ziren denborarekin. Hasierako Lete, sozialagoa izateaz gain, borrokariagoa ere bazen. Klandestinitatearen nolabaiteko gurtza egin ostean, *Abestitzak eta Poema Kantatuak* liburuan bere hitzak aldatu eta beste norantzan esplizitatu zituen. ‘Euskalerrri nerea’ da horren adibide:

Egun bakoitzak badu bere zeregina,
justiziko bide bat denontzat berdina.
Denon artean izanikan
ezin ukatu gure lanikan.
Illunpetako jarduna
heriotzak pakez beteko duna.

Egun bakoitzak badu bere zeregina,
ekintzetan gauzatzen da bizitzaren grina...
errespeta bizia, elkarri merezia,
guztiok berdinak gera:
hauskorrak, hilkorrek azkenean.

Euskaldunen arteko elkar ulertzea eta errespetua aldarrikatu zuen Letek. Errespetu hori indarkeriaren alde zeuden pertsonekin nola uztar zitekeen zalantza egiten zuen. Leteren ustez

zenbait pertsona “fanatizatuta” eta suminduta zeuden eta erasoen aurka borrokatu egin behar zela uste zuen:

Intolerantziaren eta agresioaren forma guztiak iruditzen zaizkit oso-oso deitoragarriak, eta uste dut horien kontra egin behar dela, lehendabiziko, predikatu, prebenitu, edukatu, eta, azken-azkenik, ezin baldin bada predikazioaren, edukazioaren, formazioaren eta prebentzioaren bitartez ezer egin, nik uste dut biolentziaren aurkako jarrera batek justifikatzen duela autodefentsa bat. Nik ezin dezaket onar biolentzia agresibo bat, inorengan, nahiz eta uste baldin badu ere munduko justifikazio teorikorik handienak dituela. (...) Ni, azken hilabete hauetan, predikatzen ari naiz alaitasunaren, konprentzioaren eta barkamenaren printzipioa, eta publikoki esaten ari naiz Euskalerrian errekontziliazio bat behar dugula, eta elkar ulertzeko ahaleginak egin beharko genituzkeela, eta eseritzeko mahai batetan hizketan hasteko (...) Orduan, kontradikzio batetan sartzen naiz neure buruarekin: ari naiz predikatzen adeitasuna, goxotasuna, tolerantzia, samurtasuna eta elkar konprenitze bat, eta, gero, esaten baldin badut ezin dudala onartu ondoan dudan baten biolentzia, ba..., esan dizut biolentzia horren kontra zerbait eraiki beharko dudala, argudio bat, baina, azken finean, argudioekin aski ez baldin bada, ukabila edo makil bat... Eta hori kontradikzio batetan sartzea da.(...) Jendeak askotan galdetzen du "gerra zibilean al gaude?", eta nik uste dut, zoritxarrez, gerra zibil larbatu batetan gaudela, eta jendeak (...) responsablea izan behar duela ondorioekin, eta ondorioen erruduna ez da erantzuten duena, baizik hori probokatu duena. (Muruaga, 1991)

4.5.4 Nazioarteko elkartasuna

Kantagintza Berriko partaideak kontziente ziren nazioarteko mugimendu baten parte zirela. Besteen zaurietan norbere mina sentitzea ahalbidetu zien horrek eta mundu hobe bat eraikitzeko ametsa abestu zuten kantari askok. Leteren zenbait kanta sozialki lerratuak daude, baina ez diote Euskal Herriari inongo erreferentziarik egiten. ‘Gaua’ abestia litzateke horren adibide: “Baina gauetz amets egiten dut bihar goizean mundua hobea izango dela, / gizonen gau beltzean / bake, itxaropen eta maitasun berri bat / piztuko direla”. Entzulearen esku geratzen da horrelakoetan eremua zehaztea. Beste kanta batzuetan, berriz, Euskal Herritik kanpo zehazten du kantaren norakoa.

Nazioarteko gatazkez mintzo diren kantak dira ‘Chile’, ‘Lore bat, zauri bat’, eta ‘Cançó a Catalunya’. Erreferentzia apur bat lausoagoa bada ere, zerrenda berean kokatu liteke ‘Habanera’ ere.

Kuba

Karibeko uharte honi buruzko kantak bistaratzen du bertako iraultzak zenbaiteraino markatu zuen bere belaunaldia. Inoiz bertan izan ez bazen ere, hango iraultza interesez jarraitu zuen Letek. Lorpentzat zuen haien borrokaren emaitza eta eredutzat hartzen zituen kubatarrak. Pentsamendu horren arrasto bat topa daiteke ‘Gizon arruntaren koplak’ abestian: “ez naiz ni gizon txarra baina ze arrai? / Fidel Castro izateko ez bainintzan jaio”. Ez zen gizon arrunta bizardun hura Leterentzat...

Arantxa Leteren esanetan (2020ko komunikazio pertsonala) Kubako iraultzak itxaropena piztu zuen garai hartan eta ez da harritzekoa Xabierren kantatan leku bat erreserbatu izana. Kantak, ez du kutsu iraultzailerik; baina autoreak zergatik sortu zuen ulertzeko pista bat ematen du. Bigarren pista Irigarayk luzatua da 2018ko komunikazio pertsonalaren bitartez. Diasporarekin lotzen du kanta poetak. Bere esanetan, Letek fantasia berezi bat zuen Ondarru aldean marinelek ekarritako habanera doinuekin. Esan liteke doinu honek, batetik, fantasia hori jasotzen duela; eta, bestetik, Salvador Espriu-ren ‘Canço del capvespre’ poematik edaten duela (Raimon-ek kantatu zuen). Nostalgiaz kutsatuta daude bi poemak eta udako

arratsaldetan kokatuak. Azken estrofak, ‘Eskeintza, aita zenari’ gogorarazi dezake eta haizearen eta “ordu geldien” aipamena egiten dute bi poemek:

S'enduien veus d'infants
el sol que jo mirava.
Tota la llum d'estiu
se'm feia enyor de somni.
El rellotge, al blanc mur,
diu com se'n va la tarda.
S'encalma un vent suau
pels camins del capvespre.

Potser demà vindran
encara lentes hores
de claror per als ulls
d'aquest esguard tan àvid.

Però ara és la nit.
I he quedat solitari
a la casa dels morts
que només jo recordo. (Raimon, 1966)

Haurren ahotsak eramaten zituzten
nik begiratzen nuen eguzkia.
Udako argi guztiak
Amesmin bihurtzen ziren
Horma zuriko ordulariak dio
nola arratsaldea badoan.
Iluntzeko bideetan
haize lasai bat baretzen da.

Agian bihar ere
etorriko dira argiz betetako
ordu geldiak, begi-asegarri,
gose den begirada honentzat

Baina orain gaua da
eta bakarrik geratu naiz
hildakoen jauregian
zeinak nik baino ez ditudan oroitzen.

Che Guevararen heriotzak hunkitu egin zuen Lete eta abesti bat idatzi zion. Lete-Iriondo funtsean topa daitekeen kanta hau pare bat aldiz besterik ez zuen kantatu (Gurrutxaga, 2020a, 479):

Ernesto Guevara-ren eriotzean itxaropenezko negarra

Boliviako lurrean
odolezko emaitza
tiroz eta bakarrik
azkeneko arnasa,
illa omen zerala
aizeak esaten du
norbaitek esaten du
illa omen zerala
Ernesto Guevara.

Bide luzea kunplitu dezu
pausu seguruz burruka latza,
orain bihotzak goibel bildurik
egiten dute zure negarra,
ixiltasunez bete da gaua
eta eguna geldi dijoa
begiak lausoz estaltzen dira
ta estaltzen dira lore guziak
izarrak ere dardarrez daude
gizonen zeru utsean.

Ernesto,
Ernesto Guevara,
ez da galduko aidean enara
ez ta mendian larrosa bakarra,
maitale gazteen gorputz antsia,
itxasoz zear doan ontzia
trixtura hontan negar aundia
itxaropenez jantzia.

Maite zendun lurrean
eman dezu bizia,
itxi dira eskuak
bukatu da nekea,
orain zabal-zabalik
gelditzen da atea
itxaropen batera
eramango gaituna,
eta zure izena
ez da iñoiz galduko
gizonen munduan.

Abesti honek garaiko zentsura pasatzeko arazoak izango zituzkeen, baina ez zuen diskotarako erabili, ezta *Abestitzak eta Poema Kantatuak* liburuan jaso ere. Habanan argitaratu zen liburu baterako sortu zuen. Beraz, litekeena da olerkia sortzeko ekimena berea ez izatea ere. *Poemas al Che* izena zuen argitalpen hark eta Habanan inprimatu zen 1969an. Bertan

argitaratu zen elebitan. Euskal Herriko (Aresti, Joxe Azurmendi, Celaya...) nazioarteko hainbat idazleren (Mario Benedetti, Vicente Aleixandre, Jose Antonio Labordeta, Alfonso Sastre, Salvador Puig...) aldamenean. 1976an argitaratu zen Espainian José Batló editore zela (98-99 or.). Gurrutxagak jasotzen duen bertsoaren azken estrofa ez zen argitaratu bertan.

Guevararen figura goستن du Letek olerkian. Bere misioa kunplitu duela esaten du; baina, batez ere, sinbolo baten galeraz dihardu poetikoki. Hala ere, askatzaile gizatiar gisa irudikatzen du Argentinako medikua. Arestik, *Harrizko Herri Hau* (1970) liburuko ‘Dilema’ poeman ordea, izaki jainkotiar batera jasotzen du askatzailea:

Eguzki-peko burjesia alu hori
arrazoi bakar baetgatik
galduko duk:
Zeren Cambridgek eta Oxfordek
izan zuten
sesio
zorioneko hartan,

(eskuak garbitu
noiz egin behar den,
piza en ondoren ala
egin aurretik),

Oriok bere epaia honela eman
zuelako:

«Egin aurretik eta ondoren
»Garbitzeko dira,
«baina batez ere
«Kristo eta Gebara
«kruzifikatu ondoren
«eta
«jainkotu aurretik (...) (1970, 122-123)

‘Bezperan’ izenekoan aipatzen du berriz : “gizonaren mendea / Kristotik Gebarara” (Aresti, 141). Guevara eta Jesukristo parekatzea ez zen oharkabea pasa aparato frankistarentzat Angel Zelaietak (2000) jasotzen duenez:

Espainiako Tribunalentzat ez zen hain isilean pasatu eta berehala gaztigatzen diote Arestiri: «Juzgado de Orden Público / Madrid, 9.XII.71.- / Resultado que la obra *Harrizko Herri Hau*, original de Gabriel María Aresti Segurola, es un conjunto de poemas en idioma éuskaro, en los que, en su mayoría, se glosa el irredentismo de los vascos con clara significación separatista, incitando para la liberación a la lucha e incluso a la fuerza y trazando paralelismos de Lenin y Che Guevara con Cristo.

‘Cançó a Catalunya’

Kataluniari maitasun eta miresmen handia agertu zion. Bertan ikasten izan zenetik harreman estua eraiki zuen eta katalunieraz irakurri ahal izateak bere estiloan eragin nabarmena izan zuen. Ibarzabalek dio Josep Plá, Salvador Espriu miresten zituela eta Raimon erreferentea izan zela Leterentzat; Pi de la Serrarekin barre asko egiten zuela ere esaten du liburuan (2020, 29).

Kanta Raimonen Euskal Herriari buruzko (‘Pais basc’) abestiarekin harremanetan jarri behar da derrigor. Raimon Euskal Herrira ekarri zuten Ez Dok Amairu taldekoek 1967an eta 1976an berriz itzuli zen. Bigarren aldi horretan, ordea, bere kontzertuak zentsuratu egin zituzten. Anaitutako bi herriren elkartruke sentitua da bi poetek egin zutena.

Tots els colors del verd
Sota un cel de plom
Que el sol vol trencar
Tots els colors del verd
En aquell mes de maig
Portava el vent la força
D'un poble que ha sofert tant
Portava la força el vent
D'un poble que ens han amagat
Tots els colors del verd
Sota un cel ben tancat
I l'aigua és sempre vida
Entre muntanyes i valls
I l'aigua és sempre vida
Sota la grisor del cel
Tots els colors del verd

En aquell mes de maig
És tan vell i arrelat
Tan antic com el temps
El dolor d 'aquella gent
És tan vell i arrelat
Com tots els colors del verd
En aquell mes de maig
Tots els colors del verd
Gora gora, diuen fort
La gent, la terra i el mar
Allà al País Basc
Tots els colors del verd
Gora gora, diuen fort
La gent, la terra i el mar
Allà al País Basc (Raimon, 1967)

Herrialde hari eskainitako kanta da ‘Cançó a Catalunya’. *Abestitzak eta Poema Kantatuak* liburuan ‘Catalunyari abestia’ birbataiatu zuen eta miresmenetik sortua dela aipatzen du (Lete, 2006, 85).

Anai zaharren lur gazte borrokan ezaguna,
ttiki geralako haundi aurkitu nahi duguna.
ekialdetik dizdiraz datorkigun eguna,
egunsentiko eguzki bero eta biguna.

Zu zaitut beste aberri, etxe hurbil maitea,
jakituriak guretzat mugan duen atea.
Hemendik aldegin eta behar balitz joatea
zure altzoan nahi nuke jasoa izatea.

Hegi ilun honetatik zure argi handira
bihotz begiak zabalik nagokizu begira.
Urteak eta mendeak zugan iraupen dira,
eraman gaitzazu azkar askatasun berrira.

Ez zera zekenen hobi, baizik langile lurra,
Euskadiko haur ttikiak duen anai zuhurra,
Zure itzalak uxatzen dit heriotzaren beldurra
nehoiz errausten ez dena baita zure egurra.

O, Catalunya! O, Catalunya! (Lete, 2006, 85)

Lehen bertsoa zahar-gazte kontrastearekin hasten du eta “borroka” hitza aipatzen du beraz askebidea dute bi herriek ahaidetasun. Kasu honetan, borroka hitza ez du gatazka hitzagatik ordezkutzen *Abestitzak eta Poema Kantatuak* liburuko azken bertsiarako; gehiago erakartzen du katalanen askapen estrategiak. Inspirazio iturritzat jotzen ditu katalanak haien argia eta beroa jasotzen dituela esanaz.

Kasik oximorontzat har daiteke bigarren estrofako “beste aberri” hori; ama bezala, ez baita ohikoa bat baino gehiago izatea. Bigarren bertsoan, mugak aipatzen ditu, baina gertukotasuna eta abegikortasuna azpimarratuz.

Lehen bertsoan bezala, hirugarrenean ere argiaren aipamena dakar, Euskal Herriko klima bortitzagoarekin kontrastean. “Bihotz begiak” aipatzen ditu gero, Lizardiren 1932ko liburuaren izenburua erabiliz eta zarauztarraren aditz trinkoetarako gustua ere bere egiten du “nagokizu”ren erabilerarekin.

Estereotipoaren aurka “zeken hobi” ez dela dio, eta langile sena aitortzen die. Leteren abestietan iluntasunari ematen zaion trataera kontuan hartuta bitxia bada ere, itzala aipatzen du babes moduan. Letek argia eta ongia lotzeko duen joeraren aurka doa. Inoiz errausten ez den egurra dela dio, hiperbole batekin lehen bertsoko berotasunaren ideia itzuliz.

Txilez

Herrialde batekiko elkartasuna erakusti bazuen, hura Txile izan zen. Bi kanta ditu hari eskainiak. Garai hartan kantautore asko zeuden bertan eta haiei emandako tratuak hunkituta do, inspiratu egin zen. Kantatako bat, ia berdina emana dago *Bigarren poema liburuan* (1974b, 100). Segidan, liburuko bertsioa transkribatuko da lehenengo eta diskokoa ondoren azkeneko estrofan dauden ezberdintasunak alderatu ahal izateko. Konparaketa errazteko liburuko maketazioa moldatuta dago eta sarrera kendua –“Behin batez Chile deitzen zen lurralde bat bai omen zen. / Zingurrien iraultza jasanezinezko delako, lehenik jana ukatu zieten. / Horrela, beharrik, janariak garestitu egin ziren. / Orduan, eskasiaren aitzakiarekin / gosetuei lepoa moztu zieten” :

Chile

Zail da eskuratzen zatia, zail da ixiltzen gosea
zail da larrutzen zerria gehienetan,
zail da dutenei kentzea, zail da bilutsia jaztea
zail mendiak berdintzea bazter guztietan,
zail da negar egitea, zail da aurrera begiratzea
zail bideak bilatzea batzutan.

Begiak lehorrik daude, etorkizunik ez dago
lur zabala eremu da ez dutenentzat.

Eta piztiak beti dauka bala bat prest
bere herri ehiztaria ehizteko,
eta piztiak beti dauka mamutzar bat
ifarraldetik lagunduz etortzeko,
eta piztiak ahoa beterik nahi du
ez du barau egunik nahi mehetzeko,
eta piztiak aukera denak dauzka
pizti izanez erailtzen jarraitzeko.

Zail da eskuratzen zatia...

Zail da dutenei kentzea...

Zail da negar egitea...

Non nahi eta beti

Non nahi eta beti

Non nahi eta beti

Non nahi eta beti

eta beti

Non nahi eta beti

Non nahi ...

beti...

Anafora da kanta honen oinarria. Gabezien eta zailtasunen pilaketa bat da lehen bertsoa. Naturaren menderaezintasuna eta arazo sozialak pilatzen ditu. Bigarren bertsoan “piztia”-z mintzo da, pertsonak animaliatuz, biktima asko eragin dituela dio eta eragiten jarraitzeko asmoa duela. Ifarraldetik datorren mamua ere aipatzen du. AEBk nazioarteko politikan eragiteko duen tema salatzen du lerro horien bidez. Zailtasunen pilaketara itzultzen da hirugarren estrofan, baina zehatzago dihardu, diktadura baten arrastoak deskribatzen. Hautsitako gizarte bat deskribatzen du.

Herri Irratian egindako elkarrizketan kanta honi buruz dio militarren estau kolpeak eta errepresioak zuzenean eragin ziotela eta maila sentimentalean landu nahi izan zituela kanta honetan. Aldi berean, kanta Txilen galtzaile izan zirenen omenezko kanta izatea nahi zuen:

Chile

Zail da eskuratzen zatia, zail da ixiltzen gosea
zail da larrutzen zerria gehienetan,
zail da dutenei kentzea, zail da bilutsia jaztea
zail mendiak berdintzea bazter guztietan,
zail da negar egitea, zail da aurrera begiratzea
zail bideak bilatzea batzutan.

Begiak lehorrik daude, etorkizunik ez dago
lur zabala desertu da ez dutenentzat.

Eta piztiak beti dauka bala bat prest
bere herri ehiztaria ehizteko,
eta piztiak beti dauka mamutzar bat
ifarraldetik lagunduz etortzeko,
eta piztiak ahoa beterik nahi du
ez du barau egunik nahi, probatzeko,
eta piztiak aukera denak dauzka
pizti izanez erailtzen jarraitzeko.

Zail da onartzen egia, zail da estaltzen odola

zail da hilak berpiztea kaletan,

zail da, zail da bizitzea,

zail da, zail da sinistea,

zail da, zail da sufritzea

zail da, zail da bizitzea holakoetan,

zail da hari eten hori, zail, lotu nahi izatea

zail hilobiak eraikitzea bihotzetan.

Begiak lehorrak daude, etorkizunik ez dago

lur zabala desertu da ez dutenentzat. (Lete,
2006, 80)

Kanpotik zetorren gai bat zen, euskaldunok gutxitan egiten dugu horrelakorik, ez dakit zergatik, behar baldin bada gehiago jarduten gara bertako arazoetaz kanpokoetaz baino, baina iruditzen zait kanpokoak ere aipagarri eta askotan argigarri direla (...) Txileko esperientzia hura oso inportantea zen, (...), sozialismorako bide demokratiko bat, esperientzia oso berezia zen, gaizki aterata zen eta (...) esperientzia hark ekarri zuen desegitea, represioa eta eskubidearen agintea eta militarren agintea bere zapalkuntza guztiekin, niretzako nahiko traumatizantea izan zen, ez? Oso esperientzia iluna eta gauza asko argitzen zituen ere zoritxarrez. Argitzen zuen, ez dakit, iparramerikarren inperialismoaren indarra. (Lete, 1978a)

Hala ere, gai honetan Leteren kantarik sentituena ‘Lore bat, zauri bat’ izango da ziurrenik. Iriondoren familiak lotura estua zuen herrialde honekin eta litekeena da horrek indartu izana Leteren afektua ere. Beatriz Allenderen historia kontatzen du kanta honetan. Euskaldun jatorriko emakume honen historiak hunkituta, kanta hau eskaini zion. 1978an argitaratu zen diskoa, bere buruaz beste egin eta urtebetera. Txilek bizi zuen egoera eta Euskal Herriak bizi zuena antzerakoak ziren, diktadura baten pean bizi ziren biak. Bere desioak proiektatzeko primerako parada zuen Letek.

Hikaz egiten dio Beatrizi, lagun mina bailitzan. Bere bizitzaren mugimendua goraiatzen du, bere bihotza atsedena behar duen txori zauritu bat dela esanaz. Bere suizidioari “keinu bortitza” irizten dio. Erbesteratuen tormentuarekin errematatzen du lehen estrofa. Bigarren estrofan Salvador Allenderen, bere aitaren, heriotz bide bera hautatu izan aipatzen du. Eta suizidioa eskuzabaltasun ekintzat jotzen du, ez berekoitasun ekintzat. Azken bertsoan memoriaren mendekatzaille funtzioa aipatzen du eta Beatrizen errugabetasuna. Bere bizitzaren gordinagatik uko egin dion bizitza xehea azpimarratzen du estribiloak:

Hire bihotza, xori zauritu, iheska joan zain atsedean bila.
Hari mehe bat hunan bizitza urratua dun keinu bortitzez.
Oroitzapen labe gorian gorputz-gogoak tormentu luzez
Kiskalirikan, deseginikan bizi bahintzanean deserri hortan.

Nahiko hunan, Beatriz, Chile libre batean
adiskide artean maitasuna dastatu.
Nahiko hunan zentzuak, lore goiztarren gisan,
zorrik ordaindu gabe desiota askatu.

Hire aitaren heriotzari ordaindu dion zerga astuna,
oihu lehertu bat utzi digunan
zauri guztien seinaleak.
Ez dun nahi izan iraganaren
faktura latza besteri itzul,
hainbeste beldur, hainbeste odol
isil-isilik pagatu ditun.

Nahiko hunan, Beatriz
poeta baten bertsoz
hire gaztetasuna
ispiluan mirestu.
Nahiko hunan gaur ere
bizitzaren kaliza
ardo gorritz beterik
gozamenetan hustu.

Errugabea hintzenan baina
pizti zordunak ez ditun urrun,
hire eskuen dardar hautsiak
haien ogena oihukatzen din.
Har zan atsedean betiko loan,
gu gaitun orain mendekatzaille,
heriotz horren mezu gogorrik
ez baitinagu inoiz ahaztuko. (Lete, 2006, 81)

Letek, mezuen indarkeria karga arintzeko egin zuen eraldaketaren beste adibide bat dago 'Lore bat, zauri bat' izeneko abestian. Jatorrizko letran "gu gaitun orain mendekatzaille" zion eta *Abestizak eta Poema Kantaituak* liburuan gu gaitun orain "azken beilari" dio. Bestalde, "Hire aitaren heriotzari ordaindu dion zerga astuna," aipatzen zuen 2006ko bertsioan, eta jatorrizkoan "Hire aitaren heriotz hura / bilakatu zain orain heriotz" pasiboagoa zeukan.

Leteren nazioarteko elkartasuna eta interesa are bistakoagoa da iritzi artikuluetan. Txilen erahildako bi kantariri buruzko artikulua argitaratu zuen Letek 1974an *Zeruko Argian*. Victor Jara eta Angel Parra kantariak hil zituztenaren berria jakinarazi zuen, hunkituta; eta ezer egin

ezin zezakeelako frustratuta (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 161). Gerora jakin zen Parra ez zutela hil, nahiz eta erbesteratu egin behar izan zuen; baina bizi-arriskuan izan zen hura ere. Handik urte batzuetara, 1987an, honako gutuna idatzi zion Parrak Jarari:

Querido Víctor:

(...) Cuando sonó el teléfono, nosotros dormíamos profundo, (...) La llamada era de Chile, para decirme que formaba parte de los perdonados, que era parte del paquete de regalo de pascua que la dictadura ofrecía este año.

La voz querida de mi hermana sonaba radiante, ¿te acuerdas Víctor de su voz? ¡Se te acabó el exilio hermano, se te acabó el exilio! Por un segundo compartí de corazón su alegría, la alegría de tantos otros que pelean todos los días a brazo partido por el fin del exilio y que en mi caso consiguieron mi perdón. Perdón, ¿pero de qué, Dios mío me pregunto?

¿Me están perdonando tus 40 balas por la espalda?

¿Mi padre a quien no volveré a ver?

Quema de libros, revistas y periódicos políticos después del golpe militar

Ellos me están perdonando nuestros 30 mil muertos y ¿el río Mapocho ensangrentado?

¿Me perdonarán acaso los cadáveres que traía el Renaico en Mulchén? ¿Los fusilados de Calama (al quínteo, es decir 1-2-3-4-5-tú), el director de la Sinfónica Infantil de La Serena? ¿El padre Jarlan símbolo de los pobladores torturados violados relegados expulsados encarcelados desaparecidos? ¿Carmen Gloria, Rodrigo? Parece que debo hacer una reverencia y agradecer el perdón. aquí no ha pasado nada y tan amigos como antes.

¿Qué te parece Víctor? A veces pienso que es mucha la generosidad, y que soy un mal agradecido. (...)

La humildad, el heroísmo no se venden ni se compran que la amistad es el amor en desarrollo que los hombres son libres solamente cuando cantan, flojean o trabajan chutear el domingo la pelota o se toman sus vinitos en las tardes le cambien los pañales a su guaguas distinguen las ortigas del cilantro cuando rezan en silencio porque creen y son fieles a su pueblo eternamente como tú y como miles de anónimos maestros somnolientos de domésticas, mineros, profesores, bailarinas, guitarreras de la Patria. También quiero decirte al despedirme que París está bello en este invierno que no acepto los perdones ofrecidos que mi patria la contengo en una lágrima que vendré a visitarte en primavera que saludes a mis padres cuando puedas que tengo la memoria de la historia y que todo crimen que se haya cometido deberá ser juzgado sin demora que la dignidad es esencial al ser humano que el año que comienza será ancho de emociones esperanzas y trabajos sobre todo para Uds. Víctor Jara que siembran trigo y paz en nuestros campos. (Parra, 2016, 76)

Komunismoaren eta kapitalismoaren arteko lehia urteak ziren eta Letek argi zuen borroka horretan zein zen bere bandoa. *Zeruko Argian* idazten hasi berritan, 1965ko azaroaren 28an, argitaratu zuen ‘Herri bat zapaldu dute’ artikulua. Bertan, AEBk Domikar Errepublikan egindakoaren aurkako hitz gogorrek ditu:

Nazio hau, Santo Domingo kapitula buru eta sinbolo duelarik, AEBen martiri berria izan da. (...) Hor datoz, bai, ipar amerikar zintzoak, indarraren estandartea eskuetan dutelarik, herriaren eskubideak zapaltzera, injustiziaren partidua defenditzera... (...) Ipar amerikarrek mamu zahar bat pintatu dute hor nonbait, piztia odolzale baten itxura emanaz. Eta mamu horri ‘komunismoa’ jarri diote izena. Eta hor dabilta munduan zehar, tontoak engainatu nahirik. (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 71-73)

Lyndon B. Johnson Presidentearen nazioarteko kudeaketari kritika eginez gutuna argitaratu zuen aldizkari berean (Vietnamen egiten ari zen sarraskiari buruzkoa) 1966ko azaroan. AEBen interbentzionismoaz gain, Europar Batasunaren sorreraren aurrean De Gaulle presidente frantsesaren papera ere aztertu zuen (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 73).

Ziprez ere analisi zehatza egin zuten 1980an *Muga aldizkarian* argitaratutako bi artikuluren bitartez. Lete bertan izana zen kantaldi batean eta interesez jarraitzen ari zen nazioarteko gatazka horren garapena.

AEBren joera inperialismoarekiko oso kritiko agertu zen Lete eta bertan gertatzen ziren injustizien aurka ere ez zen isildu. Irigarayrekin izandako berriketaldian aipatu zuen kolektiboko kideak “nazioarteari oso lotuta” zeudela (2018ko komunikazio pertsonala). Zenbaitetan aldarri intelektualak protesta kantu bilakatzen ziren. *Abestitzak eta Poema Kantatuaken* jasota dago ‘Detroit 67’ edo ‘Ez kanta beltza’ izeneko abestia eta Letek berak zenbaitetan kantatu bazuen ere Lertxundiren ahotan egin zen ezagun. 1970ean grabatu zuen:

Kaleak sutan piztu ziren
eta zakurrak, katerik gabe
beren bizitzen nagusi.
Ordu larriak hurbil daude
ta libertadearen gorritasuna zeinek ez du nahi ikusi?

Ihes doazen ur lodi hoiek ludi osoa hartuko dute,
haserrearen eskubideak mintzo gogorrez altxa baitira.
Ez kanta beltza, berriz ez kanta, indarren kontra jaso indarra
zuen bizitza laburra da eta egin ezazue librea.

Goseen Harlem, doinu zakarra, izen gabeko mixeri zaharra,
bular idorrek zintzilik eta irentsitako garrasi latza.
Ez kanta, beltza, berriz ez kanta, indarren kontra jaso indarra,
Moises zerutik ez da jeitsiko, zuen gidari bakarra

Baina zu, beltza, hasten bazera, gu ere beltzak izango gera,
behin ta betiko borroka hortan nagusi berdinen legeen kontra.
Ez kanta beltza, berriz ez kanta, indarren kontra jaso indarra
zuen bizitza zuena da eta egin ezazue librea. (Lete, 2006, 115)

“Indarraren kontra jaso indarra” aldarrikapena esanguratsua da eta bat dator Trantsizioa heldu aurretik nazioarteko aferetarako erabiltzen zuen diskurtsoarekin. Autodefentsaren alde egiten

zuen Letek eta “biolentzizko maitasunak” ordena berria ezar zezakeela idatzi zuen ‘Gizon eroria’ poeman:

Nork zion:
“odolak ez dakar
odola besterik,
ez dut sekulan
indakeriz jokatu”....?

Lurpean zizareen erreinuak agintzen du
eta otsoenak lurraren gainean,
orain eta beti.

Indarrez bota zituen lurrak
itxasoko urak
zeruen azpian tokia egiteko
eta indarrez dabil gizona
behar duen ogia
egunero jateko.

Arma ez diralako bakearen bide,
baiñan oso gauza gutxi irixten da
itzen birtutez
armarik gabe.

Mundu hontako legeak
biolentziko ordenaren
semeak
izanik,
biolentzizko maitasunak
ekarri lezake
ordena berri baten
justizia bakar hori.

Nork zion
“odolak ez dakar
odola besterik,
ez dut sekulan
indarkeriz jokatu...”?

Ordaiña garextiegia zure bakearena
orain lurpean
ilotzik usteltzeko. (Lete, 1971, 11-12)

‘Izarren hautsa’

Leteren kantu errepresentagarrietakoa da ‘Izarren hautsa’. Euskal kantagintzako letrarik ezagunenetakoa ere bada, nahiz eta jende askok bere autoretza ez duen argi. Letek, kanta

honen bidez, berea eta bere herriarena dena exigitzen du, argi eta garbi, zehaztasunez eta asaldatu gabe. Ahalegin handia suposatzen du bideak, baina bere jarduna ez da alferrikakoa beste ‘Giza aberea’ kantan ez bezala. Letek idatzita utzi zuen bere kantarik ideologikoena zela:

“Fede materialista” baten aitortzea bezela aurkezten dut gaur ere. Baina horrek bere matizazioak ditu, zeren eta, nere ustez, materiaren eboluziotik sortzen geran neurrian, gizondu egiten gera, eta gizon izatearen baitan datzate, hain zuzen, arimaren eta izpirituaren agergune eta gauzaguneak ere. Eta, horretaz gainera, gizakiaren esperientzia kolektiboaren arazoa dago, gizonak gizarte-ordena justu eta duinago batera heldu behar duelarik, lehia gizartekoi kolektibo baten bidetik... (Gurrutxaga, 2020b, 74-75)

Doinuari dagokionez, gorputz horrentzat gustuko soinekorik aurkitu ezinik ibili zen. Letek doinu indartsuan plazaratu zuen ‘Izarren hautsa’ 1976an kaleratutako *Kantatzera noazu...* diskoan (bi urte lehenago *Bigarren poema liburuan* argitaratua zeukan partzialki). Laboak aurkako prozesua zeraman: 1975ean sortu zuen doinua eta soinekoan sartuko zuen soinaren bila zebilela egin zuen topo Leteren liburuko hitzekin (Bastida, 2014, 194). Laboaren bertsioak arrakasta zabalagoa izan zuen.

Lete ez zen guztiz konforme geratu jatorrizko doinuarekin 1991ko martxoaren 16ko kontzertuan esan zuenez eta Antton Valverdek beste bat sortzen lagundu zion²³. Pianista Richard Straussen *Der Rosenkavalier* (Op. 59) operaren ondoren sorturiko suitean oinarritu zen doinua sortzeko Otxoa de Alaiza eta Gurrutxagak (2022) *Riev* aldizkarian adierazten dutenez. Hura ere Laboarenaren itzalean gelditu zen. Letek berak ere Laboaren bertsioa zuen gustukoan. Are itzalerago gelditu zen doinu originala, *Ken Zazpi* taldeak berea ez zen doinuan bertsioneatu eta gazteriarengana itzuli zuenean. Ruper Ordorikak bertsioz betetako *Azukre koxkorrak* diskoan jatorrizko doinua berreskuratu zuen. Leteren lorpen handienetako bat, kantei herrikoi kutsua ematea bazen, bere kondena txikia autoretza galerarena izan liteke.

Kantak, beraz, bertsio bat baino gehiago ditu. Segidan erredaktatzen den lehena, aurretik kaleratutako poema baten moldaketa da (azken ahapaldia ez dago poema liburuan) eta bigarren poema 1992ko diskoan kaleratu zuena (aurretik kontzertuetan hasia zena):

²³ ‘Izarren hautsa’ Valverdek konposatutako doinuarekin entzuteko, egin klik hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=FDAwPWnuREc>

Kantatzera noazu... (1976)

Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai,
hauts hartatikan uste gabean noizpait ginaden gu ernai.
Eta horrela bizitzen gera sortuz ta sortuz gure aukera
atsedenik hartu gabe: lana eginaz goaz aurrera
kate horretan denok batera gogorki loturik gaude.

Gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia,
burruka hortan bizi da eta hori du bere egia.
Ekin ta ekin bilatzen ditu, saiatze hortan ezin gelditu,
jakintza eta argia: bide ilunak nekez aurkitu
lege berriak noizpait erditu hortan jokatzuz bizia.

Gizonen lana jakintza dugu: ezagutuz aldatzea,
naturarekin bat izan eta harremanetan sartzea.
Eta indarrak ongi errotuz gure sustraiak lurrari lotuz
bertatikan irautea: ezaren gudaz baietza sortuz
ukazioa legetzat hartuz beti aurrera joatea.

Ez dadukanak ongi ohi daki eukitzea zein den ona,
bere premiak bete nahian beti bizi da gizona.
Gu ere zerbait bagera eta gauden tokitik hemendik bertan
saia gaitezen ikusten: amets eroak baztertuz bertan,
sasi zikinak behingoz erreta bide on bat aukeratzen.

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak
burruka hortan iraungo duten zuhaitz-ardaska gazteak.
Beren aukeren jabe eraikiz ta erortzean berriro jaikiz
ibiltzen joanen direnak: gertakizunen indar ta argiz
gure ametsa arrazoi garbiz egiztatuko dutenak

Eta ametsa bilakaturik egiaren antziduri
herri zahar batek bide berritik ekingo dio urduri;
guztian lana guztien esku jasoko dute sendo ta prestu,
beren bizitzen edergai; diru zakarrak bihotzik eztu,
lotuko dute gogor ta hestu haz ez dadin gizonen gain.

Hurbil iragana (1992)

Izarren hautsa denboran zehar bilakatu zen bizigai,
Materiaren ordenamenduz noizpait ginen handik ernai.
Eta horrela bizitzen gera sortuz ta sortuz gure aukera
Atsedetik hartu gabe: lanaren bidez goaz aurrera
Kate horretan denok batera lurrari loturik gaude.

Gizakiak du ingurune bat menperatzeko premia,
Borroka hortan bizi da eta hori du bere egia.
Ekin ta ekin bilatzen ditu, saiatze hortan ezin gelditu,
Araua eta argia; bide berriak nekez aurkitu
Bizilegeak noizbait erditu, hortan jokatzuz bizia.

Gizonen lana jakintza dugu ezagutuz aldatzea,
Naturarekin bat izan eta harremanetan sartzea.
Eta indarrak sakon errotuz, gure sustraiak lurrari lotuz
Bertatikan irautea: ezaren gudaz baietza sortuz,
Ukazioa legetzat hartuz beti aurrera joatea.

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak,
Heriotzaren ukazioa diren ardaska gazteak.
Beren aukeren jabe eraikiz ta erortzean berriro jeikiz
Ibiltzen joanen direnak: gertakizunen indar ta argiz
Gure ametsa arrazoi garbiz egiztatuko dutenak.

Eta ametsa bilakaturik egiaren antziduri
Herri zahar batek bide berritik ekingo dio urduri;
Guztien lana guztien esku jasoko dugu zuzen ta prestu,
Gure bizitzen edergai; diru zakarrak bihotzik ez du,
Lotuko dute gogor ta estu haz ez dedin gizonen gain.

‘Lanaren lanez, bizitu’ izenburua ere zuen poema honek (Lete, 1978b). Gurrutxagak dio izenburu horrek poemaren funts ideologiko materialista nabarmentzen duela (2020a, 360) eta izen aldaketa zentsurari izkinaegiteko estrategia izan zela suposatzen du (Gurrutxaga, 2020b, 74). Natura gizakiaren beharretara errenditzeko ahalegina deskribatzen du kantak (“badu inguru latz bat menperatzeko premia”), eta ahalegin horren emaitza da lana Leteren ustez. Produkzio sistema horretan sortzen diren gatazkak eta korapiloak askatzen joaten dira historikoki, batzuetan baketsuki eta besteetan iraultza bidez, eta horrek lan egiteko sistema eraldatzen duela adierazi zuen Letek *Herri Irratian*; eraldaketa prozesu horrek zuzeneko harremana du Euskal Herriarekin herri moduan (Lete, 1978a).

Teilhard de Chardinen ildotik egindako gogoeta da Leterena; natura teknologikoki menderatzeko jakintzan sakontzea proposatzen du eta jendarte justuago batera iristeko bide gisa ikusten du:

Dentro del marxismo la discusión en torno a la “dialéctica de la naturaleza” y, fuera de él, Teilhard de Chardin y la bioquímica, con la genética, en torno al problema de la “síntesis orgánica” muestran esfuerzos paralelos —entre otros muchos— para comprender esta autotransformación del mundo e intentar incidir, llegado el caso, sobre ella. La transformación que aquí nos interesa es la del “mundo” entendido como la sociedad humana. También la tecnología sociológica, la “ingeniería social” americana, se propone cambiar la sociedad, pero no en sentido radical, sino en el de lograr un mejor “ajustamiento” de las “piezas” -individuos, grupos, instituciones- de que se compone. El propósito de Marx es mucho más radical y, al revés que el anterior, menos “tecnológico” y más específicamente moral. Su doctrina -implicación de doctrina y praxis- significa la atribución de una nueva función -eminente práctica- al Saber; función que va más lejos de su único precedente, el *comptiano* de *savoir*, para *prévoir* y *pourvoir* (Aranguren, 1968, 19-20)

Letek bere ideologiarekiko disonantzia kognitiborik ez sentitzeko letretan aldaketak egiten zituen askotan. Beste estrategia bat ere bazerabilen tarteka: kontzertuetan egiten zituen sarreren bitartez kanten ulermena berdideratzea. Kasu honetan, Leteren ahalegina bereziki interesgarria da kantaren hasierako asmotik asko urruntzen baita. Leteren ideologia, kanta idatzi zuenean, materialista zen eta Jainkoaren existentzia ukatzen zuen. Azalpenen bitartez, ordea, kanta marko berri batean kokatu nahi zuen.

Gurrutxagak ohartarazten du abestia idatzi zuenetik hamabost urte pasa ondoren kantaren esanahia berrinterpretatzen saiatu zela Lete; haren ustez jatorrizko poemak errotik ukatzen

ditu izpiritua eta Jainkoa. (2020a, 360). Hona, birkokatze ahalegin horren erakusgarri, Letek 1991ko martxoaren 16ko kontzertuan kantari egindako sarrera, Gurrutxagak transkribatuta:

Nik uste dut pertsonak bi motor edo bi eragile dituela —bat, bihotza, sentimendua; bestea, adimena edo intelektua—, eta bi motor horien bitartez sentitzen eta pentsatzen dugula eta obratzen dugula. Baina horiek bere aldetik badituzte bi sustentarri edo bi zutabe. Bata, ez dakigu nondik sortu den, ongi ez dakigu nola, izpiritua. Izpirituak garamatza Jainkoarengana, poesiara; izpirituak garamatza ongi ezin esplika daitezkeen gauza askotara. Eta gero dugu materia, eta gu azken finean materia horren eboluzio baten ondorenak gera. Eta hor, materia eta izpirituarekin egiten dugu geran hau, geran gauza, bueno, eskas hau, baina beti hobeagotu nahi dugun hau. (Gurrutxaga, 2020a, 360)

Urtebete beranduago emandako kontzertuan (1992/10/02) bestelako sarrera hau egin zion kantari²⁴:

Garai batean, oraindik mundu hontan marxistak geratzen zirenean edo izaten zirenean. Marxismoaren barruan bazeuden definizio batzuk, eta horietatik bat zer materialismo dialektikoa. (...) Gero bazen bat, marxistek berek asko kritikatzeko zutena: materialismo bulgarra. Bulgarrak esan nahi du, bada, pentsatzen duzunean materiaren arazoetatik sortzen zaizkizula gauza guzti-guzti-guztiak, mekanikoki sortzen direla. Baina nik esango nuke bazegoela, eta badagoela, materialismo bat: (..) materialismo poetikoa. (...) Nik sinisten dut denak materiatik sortu ginela, materiaren zati bat gerala; baina, era berean, hortik, prozesu batzuen arabera sortzen dira, baita ere, izpirituari, adimenari, sentsibilitateari, fedeari dagozkion, eta poesiari, eta arteari, etabar dagozkion fenomeno eta adierazpen berezi horiek. Eta, azkenean, gure historia horixe da: lur puska miserable bat izanik, nola edo hala, dignitatea eta duintasuna eta gizatasuna lortu nahia. Nahia, ez dugu askotan lortzen baina... Aspaldiko historia hau, gaur berriz kantatu nahi dizuet (Gurrutxaga, 2020b, 73)

‘Izarren hautsa’ eta ‘Mendian gora haritza’ kantek lotura berezia dute. Garai bereko bi bertso jartzaile handien goi mailako bi erakustaldi dira. Askoz beranduago egin zen ezagun bigarren abestia, Imanol Larzabalek diskoratu zuenean; baina abestia 1978an idatzia da. Aulestian kantatu zuen lehen aldiz, irailaren 24an, beste doinu batekin, Gontzal Mendibilen musika taldeak lagunduta. Garai hartako kantarien seriotasuna interpelatzeko du Amurizak letra honen bidez, koplaz zaharren teknikaz baliatuz: “Euskal Herriko tristura / soineko beltzen joskura”. Egileak berak onartzen du Letek baduela zerikusirik bere bertsoan:

²⁴ Izarren hautsa abestia bera eta hari egindako sarrera entzuteko [egin klik hemen](https://www.youtube.com/watch?v=FDAwPWnuREc): <https://www.youtube.com/watch?v=FDAwPWnuREc>

Euskal Herriko poeta
kanposantuko tronpeta
hil kanpaiari tiraka eta
hutsari topeka.
Argitu ezak kopeta
penak eureztat gordeta
goizero sortuz bizitza ere
hortxe zegok eta. (Larzabal, 1982)

Amurizak dio Lete zela hori idatzi zuenean buruan zeukan poeta. Hari, eta garai hartako idazle askok zeukaten ikuspuntu ezkorriari egindako keinua zen, beraz (Amuriza, 2021, komunikazio pertsonala).

4.5.5 Ondorioak

Nortasunaren bilaketa garrantzitsua da Leteren abestietan. Lehen faseetan nortasun kolektiboa gailentzen zaio indibidualari eta azken fasean indibiduala (edo bikotearena) kolektiboari. Joera hori gure jendartearenarekin bat dator non nerabezaroan eta heldutasun goiztiarrean konpromisoa eta talde bateko partaide izateko beharra agerikoagoa den. Historikoki ere ulergarria da joera zapalkuntza frankistatik gizarte kapitalistarako bilakaerak horretara bultza baitzuen norbanakoa.

Nazioartean ere bazen halako korrontea eta Ez Dok Amairu ere orraztu zuen haize fresko hark. Bestelako mundu baten aukerak argitasun zirrikitu bat irekitzen zuen garai hartan eta zapalkuntzaren jatorria agerikoa zen Euskal Herrian. Hego Amerikako eta Ertamerikako zapalkuntzak ere antzerako ezaugarriak zituen eta, ondorioz, lurralde guztien arteko halako ahizpatasun bat sortu zen. Besteen oinazeak norbere oinaze sentitzeko eta besteen askapen borrokei zilegitasuna aitortzeko aukera eman zien 60ko hamarkadak.

Aldekoak dio poeta sozial baten ni poetikoa beti dela gu (2015, 56). Leteren lehen pausoak ere ikuspegi horretatik abiatu ziren. Leteren aberria kolektiboa da. Oinazea eta sufrimendua indibidualki aipatzeko joera baldin badu ere, garaipenak eta porrotak kolektiboki bizitzen ditu. Frankismoko zapalkuntzak aldarri ausartak deskodetzeko ahalmena eman zien euskaldunei eta kantaldiak askapen errito bihurtu zituzten, baina Trantsizio deitu zaionean poetek bere hitzak kalibratu behar izan zituzten berriz. Jendarteak aldarri esplizituagoak eskatzen zituen, baina letra askoren arrakasta hain justu lausotasun horretan zetzan.

Bere ideiak eskariarekin bat zetozen poetek aski izan zuten aldarriak esplizitatzea; ideiak bat ez zetozen poetek, berriz, bi aukera zituzten: iritzirik ez esplizitatzea edo aurkakotasunez esplizitatzea.

Esplizitasun erabatekorik ez duten abestitzek apropiazioa baimentzen dute. Leteri amorrua sortzen zion bere abestitzak bere garaian garaiko ideologiarekin bat ez zetozen aldarriak hauspotzeko erabiltzeak. Ez da hori gertatu zaion musikari bakarra. Iñigo Astizek *Berria*

egunkarian Josu Zabalarri egindako elkarrizketa batean (2019/12/12) aipatzen zuen nola entzuleriak Hertzainak taldearen ‘Si vis pacem, parabelum’ kanta nahieran ulertu zuen. Zabalarri dio indarkeriari zioten gorrotoa zituela jatorrian eta zenbaitek aurkako zentzua ezarri ziola:

Berez, eta bere jatorrizko zentzuan, zen guardia zibil baten heriotzari egindako negar bat. Gerora jendeak, eta bereziki jende batek, bilakatu zuena borroka armatuaren goraiipamen edo horrelako zerbait. Baina kanta horrek adierazi nahi zuena zen biolentziari genion gorrotoa eta nazka, eta biolentziaren zergatiari buruzko gogoeta egiten genuen galderen bitartez. (...) Eta gauza bera gertatu zaigu beste kanta askorekin ere: Pakean utzi arte-rekin ere bai, adibidez. Harritu nintzen behin, egin zelako ETaren kantutegia biltzen zuen disko bat edo halako zerbait, eta hor zetorren Pakean utzi arte, nahiz eta protagonistak autonomoak izan, eta ez ETako kideak; eta, gainera, abesti oso-osoa zegoen galderaz beteta. Zergatik ostia gertatzen da hau gure herrian? Min horretatik sortutako abestiak dira. Jendeak erantzun gisa hartzen zituen, eta zer esango dugu, ba, kantak publikatzen direnean jada ez dira gureak. Publikoak eskubide guztiarekin egin dezake hori. Ezin dira kontrolatu abestien eraginak eta ondorioak. (Zabala, 2019)

Leteren balio etikoak ulertzeko ezinbestekoa da berak miresten zituen gertuko zenbait pertsonaren jarrera gogora ekartzea. Koldo Mitxelena, Julio Caro Baroja eta Juan Mari Lekuonaren autoritate etikoa eta intelektualak zuzeneko eragina izan zuen eta baita Jorge Oteizaren jarrera estetikoak ere (2008b, 31). Haien posizio intelektualaren sintesi bat topa liteke Leterenean.

Leteren abestizetan naturak eta etxeak gorpuzten dute aberria. Maitasun inkondizionala eta etengabeko ezerosotasuna ageri dira aberriarekiko. Paisaia urratu baten irudiarekin lotu daiteke aberria. Interesgarria da maiz egiten duen deserriaren aipamena. *Irulegi irratian* Gorostiaguek 2009an egindako elkarrizketan aitortu zuen gisara, beretzat kontzeptu hori garrantzitsu bihurtu zen. Argitaratu asmo zuen hurrengo liburuan zentralitatea izango zukeen. Dena den, herbeste horren adierazlerik interesgarriena bere abestitzen etengabeko eraldaketan dago. Aldiro, testuinguru politikora egokitzeko ahalegin betean dihardu, kanta beraren bertsioak sortuz etengabe. Irigarayk adierazi zuen Lete berak uste baino abertzaleagoa zela.

Euskalduntasunaren, borrokaren erabileraren, eta gutasunaren definizio zehatzaren bilaketak bere obrarekiko kritikotasuna erakusten du. Euskal jendarteak aspaldi bere egindako letrak eraldatzea disonantzia kognitiboa arintzera bideratutako ariketa izan zen. Jon Sarasuak

defendatzen du intelektualaren betebeharrak bat dela estimatua izan arren etikoki zuzena ez denarekiko urrutiramendua mantentzea, kritikak jasoko badira ere.

Jokaera hori finago harilkatzen du indarkeriaren erabilerari dagokionean beste gai batzuetan baino. Migrarien kasuan, adibidez, gaur egun politikoki zuzena ez den diskurtsoa mantendu zuen ‘Haur andaluz bati seaska kanta’ n suma litekeenez. Egindako aldaketatxoek ez zuten eragotzi etorkinak arazo gisa erakustea. Zehazki espainiar etorkinek Euskal izatean izango duten eraginarekiko kezka azaldu zuen kantan; itxaropena eta beldurra uztartzen dira kanta beran. Arazo bat detektatzen eta seinatzen du, aurka posizionatu gabe, baina errezeloak agertuz. Aurreiritzietatik abiatzen da eta integrazio borondatea erakusten du. Kasu honetan, nortasunaren eraikuntzan aberriaren pisua handiagoa da langileriarena baino.

Langileriaren ikuspuntua izerdiaren, errutinaren eta sakrifizioaren bitartez islatzen da. Lanaren kontzepzio hori bere kantatan igarri liteke: lanak pertsona duindu ez ezik, usteldu ere egin dezakeela salatzen duten zenbait kanta baditu. Gehienetan modu poetikoan adierazten du usteltze hori:

- “bizkarrezurra oker, zerbitzuko lanean bururik altxa gabe” (‘Giza aberea’)
- “bizitzarekin borrokatzeko / altzairu artean” (‘Langile baten seme’)
- “lanean galdu zuten arrenkura gabe bizitzaren dema” (‘Eskeintza, nire aita zenari’).

Langileriari buruzko aipamen horiek bere ibilbidearen hasieran kokatzen dira batez ere. Horren adibide izan daiteke Errenteriako zuzenekoaren kanta aukeraraketa zeinetan ez baitagoen langileriari zuzendutakorik apenas.

4.5.6 Genero ikuspegitik, zenbait ohar

Gaur eguneko talaiatik begiratuta Leteren zenbait kantek herren egiten dute genero ikuspegiari dagokionez. Esan daiteke gizona da gizakiaren oinarria Leteren kantetan. Ez da tesi honen helburuetan sartzen halako azterketarik egitea, baina etorkizunerako betebeharrak gisa jaso da eta atal labur honetan zenbait adibide bilduko dira bide hori seinatzeko.

Euskarak ez du beste hizkuntza askok adinako genero markarik, baina hitz batzuk genero jakinekoak dira eta haien aldeko hautua egin zuen Letek behin eta berriz.

Gaztelaniaz jaso zuen hezkuntza eta hizkuntza horretan ohikoa da genero maskulinoak genero guztiak barnebiltzea. Bestalde, Leteren sorkuntza euskara guztiz batu gabeko aroan kokatu behar da eta kontsentsu batzuk geroztikakoak dira. Hala ere, 2006an argitaratu zuen *Abestizak eta Poema Kantatuak* liburuan ere –bere poemen azken bertsiok berridatzi zituenean– kasu gehienak ez aldatzea erabaki zuen.

Leteren letren datu kuantitatiboak erreparatuz, gizon hitza gehien aipatzen den hirugarren izena dela ikus liteke (gau eta lurren atzetik, eta justu loreren aurretik). 23 aldiz erabiltzen du gizon hitza. 11 aldiz erabiltzen da giza (hitza bera edo bere erroa) eta horietatik 7 ‘Giza aberea’ abestian.

Bere lehenengo diskoko ‘Euskalerrri nerea’ abestian “anaien aurpegian / begirada hotza” sumatzen duela salatzen du eta “gizonen bizitzak” pauso ilunak dituela gehitzen du hirugarren estrofan. Anaitasunaren kontzeptua aipatzen da zenbait kantatan: ‘Haur andaluz bati seaka kanta’-n (“zu zera nere anaia, itxaropen eta beldurra”), ‘Cançó a Catalunya’-n birritan (“anai zaharren lur gazte borrokan ezaguna” eta “Euskadiko haur ttikiak duen anai zuhurra”) eta baita ‘Herri zahar hontan’-en ere (“Ilunabar arte, anaien ondoan / Herri zahar hontan”). Abesti berean genero maskulinoa (“semeak”) erabiltzen du bi generoak (“seme-alabak/ondorengoak/haurrak”) ordezkatzeko “Otoitzen gezurra lanaren nekea, / Erbesteko lege bakerik gabea, / Amets ero baten morroi ta semeak”.

Hizkuntzaren genero marka hauek, idatziak izan ziren garaiagatik, ez dute autorearen hautu bat erakusten; inertzia bat dira. Euskararen tradizioarekin bat datoz. Hala ere, tradizio hori berrikusi beharko ote litzatekeen mahai gainean jarri liteke; bilketa honek etorkizun hurbilean aldatu daitezkeen kontzeptuak seinalatzeko balio lezake. Ahizpatasuna edo arrebatasuna bezalako hitzak berreskuratu dira azken urte hauetan.

Hurrengo abestian ere ('Poeta hoiek'-en) "gizona" da kartzelan sartzen dutena "semeentzat" ogia eskatzeagatik, eta gizona zigortzen dutena. Lore gorrien baladan, emakumeei eskainitako kanta bat irakur daiteke, baina aldi berean haien errudun sentipena hauspotzen duen kanta da: "gizonak zeinek maiteko ditu kartzelatik irtetea" galdetzen du.

'Maiteaz galdezka' abestiak "gizonok nora goaz mundutik hiltzean" galdetzen du gizona gizakiaren ordezkoko gisa erabilita eta "Jainkoa ez da bizi gizonen onduan" ere gehitzen du.

'Ni naiz' abestian "ni naiz kaleetan zehar neguko eguzkitan lanera dijoan gizon bakartia" dio eta baita "hotzak hiltzen dagoen gizon bakartia" ere. Kanta honetan, lehen pertsonan idatzia dagoenez, eta kutsu autobiografikoa duela suposatuz ulergarria da guztiz zehaztapen maila hau. Kasu horretan "gizakia" erabiltzeak zehaztasuna kenduko lioke kontakizunari. 'Sinisten dut' abestian "fruituetatik gizonak eta abereak bazkatuko direla" dio. Iriondok abesten duen 'Gaua' abestian ere gizonak ordezkatzeko ditu pertsonak:

Baina gauez amets egiten dut
bihar goizean mundua hobea izango dela,
gizonen gau beltzean
bake, itxaropen eta maitasun berri bat
piztuko direla,
gizonen gau beltzean
sua itzaliko dela.
Gauean, isilean,
argiaren promesa gizonen gau beltzean.

'Langile baten seme' abestiak autobiografikotik dezente duela ematen du. Kantak dion bezala, aita fabrika batean langile izan zuen; eta, aita bezala, ama ere langilea zuen. Aitari aipamen esplizitua egiten dio eta amaren aipamena, izatekotan, "langile baten seme" horretan interpretatu daiteke.

‘Gizon arruntaren koplak’-en izenburutik zehazten du bizitza ikusten duen pertsonaren generoa. Pertsona arrunt horrek izan ditzakeen izenak ere maskulinoak dira: Lorentxo edo Joxe Mari”. Eta “gizon okupatua” gauza ederra dela dio. Azken bertsoan ere eredu zehatz bat erakusten du:

Ez naiz gizon txarra, baiña, zer arraio,
Fidel Castro izateko ez bainintzan jaio;
musian egiten det makiña bat saio,
andriaren onduan afaldu det iaio,
orain ohera noa, bihar arte aio.

‘Biographia’ poeman ere “atsedena balitz ausaz iraunkorra eta lotan grina / bere soseguan argitsu litzake lurrezko gizona”, dio.

‘Izarren hautsa’ abestian ere lehen pertsona pluralean hasten da kanta, baina bigarren estrofak “Gizonak ba du inguru latz bat menperatzeko premia” dio. Eta hirugarren estrofak ere berdin “Gizonen lana jakintza dugu: ezagutuz aldatzea, / naturarekin bat izan eta harremanentan sartzea” dio. Laugarrenean, “bere premiak bete nahirik beti bizi da gizona”. Azken estrofak dio “diru zakarrak bihotzik eztu, / lotuko dute gogor ta hestu haz ez dadin gizonen gain”. Abesti honetan, gizakiaren patua eta etengabeko borroka bistaratu nahi bazuen Letek eta ez soilik gizakien erdiarena. Lengoia inklusiboagoa erabiltzea egokiagoa izan zitekeen. Letek berak ere, apur bat beranduago, berdin iritzi zion eta 1992ko kontzertu batean letra zati batzuk eraldatu zituen, “gizonak badu inguru latz bat”-en partez “gizakiak du ingurune bat menperatzeko premia” jarritz.

Izarren hautsa denboran zehar bilakatu zen bizigai
materiaren ordenamenduz noizpait ginen handik ernai,
eta horrela bizitzen gera sortuz ta sortuz gure aukera
atsedenik artu gabe: lanaren bidez goaz aurrera
kate horretan denok batera lurrari loturik gaude.

Gizakiak gu ingurune bat menperatzeko premia
borroka ortan bizi da etahori du bere egia,
ekin eta ekin bilatzen ditu, saiatze hortan ezin gelditu,
araua eta argia: bide berriak nekez aurkitu
bizilegeak minez erditu, hortan jokatzuz bizia.

Gizonen lana jakintza dugu: ezagutuz aldatzea,
naturarekin bat izan eta harremanetan jartzea,
eta indarrak sakon errotuz, gure sustraiak lurrari lotuz
bertatikan irautea: ezaren gudaz baietza sortuz
ukazioa legetzat hartuz beti aurrera joatea.

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak,
heriotzaren ukazioa diren ardaska gazteak,
beren aukeren jabe eraikiz ta erortzean berriro jaikiz
ibiltzen joanen direnak: gertakizunen indar ta argiz
gure ametsa arrazoi garbiz egiztatuko dutenak.

Eta ametsa zilegiztatuz egiaren antziduri
herri zahar batek bide berritik ekingo dio urduri:
guztien lana guztien esku jasoko dugu zuzen ta prestu
gure bizitzen edergai: diru zakarrak bihotzik ez du
lotuko dugu gogor ta estu haz ez dedin gizonen gain.

Beste kanta batzuetan hasieratik darabil “giza” eta ez “gizon”. ‘Giza aberea’ da horren adibide. Tematika bertsua duen ‘Eskaintza, nere aita zenari’ abestian ere giza kontzeptua darabil hiru aldiz: “Han, haiek zuten gorpuztu kondaira itsua / giza destinoa den zoriak eramán zituen / neurri denen gaintik dagoen agindua bereganatzera”, “besteren agindua, jainkozkoa, gizakoia, beti ikurtua”, “ez dagokiola gizakumeareí giltzarria duten jainkoen epaia”.

Giza erroa hobesten du ‘Neguaren zai’ abestian ere “gizalditako lerroan” aipatzen duenean. ‘Malkoak euri balira’-n “etxerik altuenak / lotsaz eror litezke / gizadi osoa / redimitu nahirik” kantatzen du.

‘Otsoak eta Txanogorritxu’ eta ‘Lore gorrien balada’ abestietan emakumezkoak dira seduzituak eta haien hautaketa irizpideak zalantzan jartzen ditu. Bi kantak, hala ere, emakumeek bertakoa sinbolizatzen dute; gizonak eta otsoak, berriz, kanpotik datorren mehatxua. Harreman sexual eta afektiboei dagokienez gizonaek seduzitzaile rola eta emakumea baimen emalearena izaten dute zenbait kantetan. Hala ere, korpusetik kanpoko abestietan nabarmenagoa da joera hau.

Beste kanta askotan generorik ez da zehazten. Bere letrekin identifikatuta senti daiteke edonor honako abestietan: ‘Ez dut amets haundirik’, ‘Chile’, ‘Haizea dator ifarraldetik’, ‘Gauaren ordezeko eguna’, ‘Agian’, ‘Amodio, amore’, ‘Eskaintza, nere aita zenari’ (generoa seinalatzen du izenburuak, baina poemak gizon-emakumeak ordezkatu ditzake), ‘Neguaren zai’, ‘Ez esan, maite’, ‘Zuk badiozu’.

Badira, autorearen hautuz, gizonaren ikuspuntutik idatzitako abestiak. Halakoa da ‘Teologia, Ideologia’ abestia. Protagonistatzat Adan hartzen du eta Evari genero rol tradizionalak esleitzen dizkio: “eta bizkiak erditzen ditu / bere emazte gaixuak”. Ulegarria da kontaketa modu hau, noski, istorio biblikoaren parodia bat baita bertso sorta. ‘Henry Millerri eskutitza’ abestiak sexurako gizonaek duten edo ez duten gaitasuna den ardatz: “xurgaketan ibili beharra / burua makurtuta / arrek ez dugu asko irauten / bandera altxatuta”. Kasu horretan, posizionamendua logikoki lerratua dago, ikuspegi pertsonala du eta ez du gizateria osora estrapolatzeko intentzio argirik.

Emakumezkoen aipamenak nagusi diren kantak ere baditu: ‘Malkoak euri balira’ (“emazte adintsua”, “ama denen oihuek”), edo ‘Habanera’ (“neskatxen puntila finak”, “abanikodun mulatak”) abestiak, adibidez. Emakumezkoa erabateko protagonista duen abesti bat ere badu: ‘Lore bat, zauri bat’-en Beatriz Allende da ardatz.

Leteren ikuspuntu androzentristaren zenbait zertzelada baino ez dira, bildu hemen, baina interesgarria litzateke Ez Dok Amairuko gainontzeko kantarien abestitzei erreparatzea ondorio osoagoak atera ahal izateko. Emakumeek kolektiboaren barruan izan zuten garrantziaren eta historiak jaso dituen eraren arteko kontrastea egitea ere hurrengo urteetarako erronka gisa planteatuta geratu da.

4.5.7 Erreferentziak

- Aldekoa, I. (2015). *68ko belaunaldia*. Utriusque Vasconiae.
- Aranguren, J. L. L. (1968). *El marxismo como moral*. Alianza Editorial.
- Aresti, G. (1970). *Harrizko Herri Hau*. Kriselu.
- Astiz, I. (2019/12/12). Hertzainak: abestien sorbururainoko bidaia. *Berria egunkaria*.
<https://www.berria.eus/paperekoa/1990/022/001/2019-12-12/hertzainak-abestien-sorbururainoko-bidaia.htm>
- Baroja, P. (2006). *La leyenda de Jaun de Alzate*. Txalaparta.
- Bastida, M. (2014) *Memorias. Una biografía de Mikel Laboa*. Elkar.
- Brel, J. (1968). Le plat pays. [Abestia] *Barclay. Amsterdam / Jef / Les Bonbons / Le Plat Pays*. Barclay.
- Brown, N.; Cohn-Bendit, D.; Fromm, E.; Laing, R.; Marcuse, H. (1973). *Ensayos sobre el Apocalipsis*. Kairós.
- Castillo, R. (1994). La teoría del instante en Bachelard y el espacio onírico. *Revista de Filosofía de la Universidad de Costa Rica*, 32(77). 109-116.
- Chevalier, J.; eta Gheerbrant, A. (1996). *Dictionary of symbols*. The penguin.
- Gurrutxaga, Alex (2020a). *Xabier Leteren poetika: aldaeren azterketa eta bilakabidearen irakurketa bat*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Artxibo digitalak ikerketa irakaskuntza (ADDI) .
https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/47863/TESIS_GURRUTXAGA_MUXI_KA_ALEXANDER.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Gurrutxaga, Alex (2020b). *Xabier Lete. Aberriaren poeta kantaria*. Alberdania.
- Ibarzabal, E. (2020). *Xabier Lete de un tiempo, un país*. Erein.
- Iraola, I. (2013). *Euskal nazionalismoaren diskurtsoa gaur egungo immigrazioaren aurrean*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Artxibo digitalak ikerketa irakaskuntza (ADDI). <https://addi.ehu.es/handle/10810/12457?locale-attribute=eu>
- Irigaray, J. A. (2001). *XX. mendeko poesia kaierak*. Jose Anjel Irigaray. Susa.
- Kafka, F. (1979). *Metamorfosis*. Alianza editorial.
- Kavafis, C. (d.g.). *Cien poemas*. Biblioteca Virtual.
https://www.paginadepoesia.com.ar/escritos_pdf/cavafis_100.pdf

- Knörr, G. (1974). Araba [Abestia]. In *Araba kantari* Artezi.
- Kortazar, J. (2003). Artzeren poesiaren pentsakizunaz. *Lapurdum*, 8. 285-328 or.
- Larzabal, I. (1982) Mendian gora [Abestia]. *Iratze okre geldiak*. IZ.
- Lekuona, J. M. (2000). *XX. mendeko poesia kaierak*. Juan Mari Lekuona. Susa.
- Lertxundi, B. (1970). Ez kanta beltza [Abestia]. *Ez kanta beltza / Ekaitza / Sasi intelektualak*. Herri Gogoa.
- Lete, X. (d.g.a). Abestitzak eta oharrak. Lete-Iriondo funtsa [XLM21]²⁵.
- Lete, X. (1971). *Udazkenean*. Icharopena.
- Lete, X. (1972). Baroja eta Euskal Herria. In Zenbait autore. *Pio Baroja. Bere ehunurteburuan 1872-1972*. Editorial Mensajero. 29-83 or.
- Lete, X. (1974b). *Bigarren poema liburua*. Gero.
- Lete, X. (1976) Ernesto Gebara-ren heriotzean itxaropenezko negarra. In Batló, J. (Ed). *Poemas al Che*. Los libros de la frontera.
- Lete, X. (1978b). *Lore bat, Zauri bat*. Herri Gogoa.
- Lete, X. (1992/10/02). Xabier Lete 'Izarren hautsa' (1992-10-02) (6'51) [Kontzertua]
<https://www.youtube.com/watch?v=FDawPWnuREc>
- Lete, X. (2006). *Abestitzak eta Poema Kantatuak*. Elkar.
- Lete, X. (2008b). Juan Mari Lekuona, maisu eta lagun. In Otaegi. L. (Ed.) *Juan Mari Lekuona Hurbiletik*. Oiartzungo Udala / Euskaltzaindia. 17-33 or.
- Lete, X. (2009/02/20). Xabier Leteren elkarrizketa (Elkarrizketatzaile: Maria Agnès Gorostiague). *Irulegi irratia - Euskal Irratiak*.
- Lete, X. (2010a/12/06) Al final te reconcilias con la humanidad a través del respeto (Elkarrizketatzaile: Jabier Muguruza). Deia.com.
[ps://web.archive.org/web/20101210194652/http://www.deia.com/2010/12/06/ocio-y-cultura/cultura/al-final-te-reconcilias-con-la-humanidad-a-traves-del-respeto](https://web.archive.org/web/20101210194652/http://www.deia.com/2010/12/06/ocio-y-cultura/cultura/al-final-te-reconcilias-con-la-humanidad-a-traves-del-respeto)
- Lete, X. (2008a). *Egunsentiaren esku izoztuak*. Alberdania.
- Lete, X. (2011). *(Auto)biografia bat* (Editore: Inazio Mujika). Alberdania.
- López, J. L. (1968) *El marxismo como moral*. Alianza Editorial.
- Marcuse, H. (2010). *Eros y civilización*. Ariel.
- Muruaga, B. (1991). Xabier Lete, bere baitan ibiltari. *Plazara*, 18. 19-24 or.
<https://andima.armiarma.eus/plaz/plaz1709.htm>

²⁵ Koldo Mitxelenako funtsean kontsultagai.

- Osa, E.; eta Aierdi, X. (2009). Immigrazio berria, hizkuntza arazo berririk? *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 54(3). 1433-1452 or
- Otxoa de Alaiza, J.; Gurrutxaga, Alex (2021). Xabier leteren kantagintza: bertsioak eta bilakabidea aztergai. *Riev aldizkaria*, 67(1). [Artikulu argitaragabea].
- Parra, A. (2016). *Mi nueva canción chilena. Al pueblo lo que es del pueblo*. Editorial Catalonia.
- Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez E. eta Saez de Eguilaz, H. (2020). *Zerbitzuko lanean. Lete kazetari, Lete prosagile*. Mugarri.
- “Raimon” Pelegero, R. (1966). Cançó del capvespre [Abestia]. *Cançons de la roda del temps*. Edigsa.
- “Raimon” Pelegero, R. (1967). Pais basc [Abestia]. *Raimon*. Edigsa.
- Rodriguez, S. (1980). Fábula de los tres hermanos [Abestia]. *Rabo de nube*. EGREM.
- Roman, G. (2015). *El deseo nacional: la gramática del surgimiento de los sujetos nacionales*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Artxibo digitalak ikerketa irakaskuntza (ADDI). <https://addi.ehu.es/handle/10810/16196>
- Salaberria, G. (2010). Otea ekartzera basora. *Ahotsak*.
<https://ahotsak.eus/lezo/pasarteak/lez-037-002/>
- Thompson, E. P (1979). *Tradición, revuelta y consciencia de clase*. Editorial Crítica.
- Tosel, A. (2008). The Development of Marxism: From the End of Marxism-Leninism to a Thousand Marxisms – France-Italy, 1975–2005. In Bidet, J.; eta Kouvelakis, S. (Ed.) *Critical Companion to Contemporary Marxism*. Brill.
- Urretabizkaia, A. (2002). Abertzaletasuna, nik ulertzen dudana moduan, bukatua dago, nazionalismoak irentsi du. *Hermes*, 4. 42-49 or.
- Vernik, E. (2018). Sobre las identidades sociales: clase, etnia y nación. Del encuentro de Max Weber con W. E. B. Du Bois. In Zenbait autore. *Actualidad de la nación. Materia y memoria de la vida popular*. Ediciones UNGS. 19-35 or.
- “Xalbador” Aire, F. (1976). *Odolaren mintzoa*. Auspoa.
- Zabala, J. (2019/12/12) Hertzainak: abestien sorbururainoko bidaia (Elkarrizketatzaile: Iñigo Astiz). *Berria egunkaria*.
- Zelaieta, A. (2000). *Gabriel Aresti (biografía)*. Susa.
<http://www.susa-literatura.eus/liburuak/best1058>

5. Leteren kantagintza eta bertsolaritza

Kapitulu honetan Leteren sorkuntzak bertsolaritzarekin duen harremana bistaratuko da. Orain arte eragin hori maiz aipatu da ikerlanetan. Aurelia Arkotxak (1983, 160) esan zuen Leteren obra fidel zaiola ahozko tradizioari eta herri kulturaren eta bertsolaritzaren zantzuak topatzea ohikoa zela bere obran. Jon Kortazarrek *Laberitoaren oroimena* liburuan adierazi zuen Letek poesia soziala, existentzialista egin zuela baina baliabiderik eraginkorrenak bertsolaritzatik eratorriak zituela. Letek eskolatua denaren sentimenduaz idazten du eta hori dela-eta agertzen da hain zuzena bere baieztapenekin. Zehaztasuna imajinen pilaketarekin lortzen du (Kortazar, 1989, 38). Otaegik ere *Basque Literature* lanean seinatzen du Leteren bertsolaritzarekiko zorra:

In Lete, the Arestian roots entwine perfectly with popular roots. The enriching influence of oral literature and, specifically, of bertsolaritza on Lete is notable and confers a naturalness and uncommon communicative capacity on his work, while contributing a magnifying effect to the references to Basque literary memory, marked by the verses of the bertsolariak (Otaegi, 2012, 224).

Kapitulu honetan, lehenik eta behin, Lete zaletu zen garaiko bertsolaritzara hurbilduko da ikerlana. Ondoren, bertsogintzako elementu garrantzitsuenen deskribapena egingo da. Bertsolaritzaren arabera neurria eta errima zer diren errepasatu ostean Leteren kantetan nola ageri diren aztertuko da. Berridazketaren eta ahozkotasanaren artean dagoen harremanari buruz eta jardungo da kapitulu hau. Horren segidan, bertsolaritzaren eta ahozkotasanaren markak deskribatuko identifikatuko dira, orokorrean, ahozkotasanaren teoriak diotenera hurbilduz eta Juan Garziaren metodologia zehatza aplikatuz (Txirritarekin alderatuz).

Azkenik, kantaren funtzioa letretatik harago eramanez, jendaurreko aurkezpenek betetzen zuten funtzioaz ohar batzuk egingo dira. Horrez gain, kontzertuetan defendatu zituen bertso sorta batzuen errepassoa egingo da eta bere poema liburuetan bertso neurrian idatzitako olerki batzuk aipatuko dira.

Kapitulu honetan protagonismo berezia izango dute ‘Seaska kanta’, ‘Izarren hautsa’, ‘Gizon arruntaren koplak’, ‘Langile baten seme’, ‘Teologia, Ideologia’ eta ‘Henry Millerri eskutitza’ abestiek. Kanta hauek dira eraginaren adibide egokienak eskaintzen dituztenak.

5.1 Bertsolaritza

5.1.1 Bertsolaritzaren aroak

Bertsolaritzaren historiari erreparatzen badiogu, bi sailkapen nagusi daude, Gorka Aulestiarena (1990) eta Joxerra Garziarena (2012, 91). Bost arotan banatzen dute biek; baina lehenarena zehatzagoa da denboran zenbat eta atzerago, eta bigarrena orainalditik zenbait gertuago. Bien sailkapenak bateratuta eta historian zehar nabarmendu diren beste zenbait bertsolariren izenak gehituta, honako sailkapena osa liteke:

1. Bertsolaritzaren historiaurrea (1800 aurrekoak)
2. Desafioen eta bertsopaperen aroa (1800-1900)
 - a. Erromantizismo aurrea (1800-1839)
[Fernando Amezketarra, Zabala, Txabalategi, Altamira, Aizarnako erretorea, Izuelako Artzaina, Bordel, Gabriela Lohitegi, Bizenta Mogel]
 - b. Erromantizismoa (1833-1899)
[Juan Frantzisko Petriarena eta Maria Luisa Petriarena “Xenpelar”, Iparragirre, Bilintx, Pierre Topet Etxahun, Otxalde]
3. Aurre berpizkundea edo marjinalizaziotik lehen txapelketarako tartea (1900–1935)
[Juan Joxe Alkain “Udarregi”, Jose Manuel Lujanbio “Txirrita”, Mariana Hargain, Kepa Enbeita eta Pello Otaño, Mikaela Elizegi eta Josepa Inazi Elizegi eta Pedro Jose Elizegi “Pello Errota]
4. Isilarazitako garaia (1936-1945)
5. Berpizkundea (1945-1960)
[Iñaki Eizmendi “Basarri”, Manuel Olaizola “Uztapide”, Balendin Enbeita, Mattin Treku, Manuel Lasarte, Joxe Migel Izueta “Lazkao Txiki”, Joxe Lizaso, Joxe Agirre, Imanol Lazkano, Iñaxi Etxabe]
6. Erresistentzia aroa (1960–1979)

[Jon Azpillaga, Jon Lopategi, Uztapide, Basarri, Joxe Lizaso, Agirre, Imanol Lazkano, Joxe Migel Izueta “Lazkao Txiki”, Mattin Treku, Fernando Aire “Xalbador”]

7. Jendeari kantatzetik audientziari kantatzera (1980–1998)

[Xabier Amuriza, Andoni Egaña, Jon Sarasua, Anjel Mari Peñagarikano, Sebastian Lizaso, Kristina Mardaras, Arantzazu Loidi]

8. Bertsolaritza multipolarra. Gaur egungo garaia (2001) [Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Amets Arzallus, Sustrai Kolina, Beñat Gaztelumendi, Onintza Enbeita, Nerea Ibarzabal, Alaia Martin, Jone Uria]

Bertsolaritzaren aroen edozein sailkapen, sinplifikazio bat den heinean, herren geldituko da. Ahozkotasunean oinarritutako diziplina da gaur egun bertsolaritzatzat ulertzen dena, baina gehienbat iraganeko bertso jarrien araberako sailkapena osatzen da historia idazteko.

Bertsolariak aro bakoitzean bete duten funtzioaren araberakoak dira aroak. Zenbait bertsolarik kasik aro bat izendatzeko adinako indarra eduki dezakete, hala nola, Amurizak; eta bertsolaritako batzuk aro bat (edo bi) baino gehiago gurutzatzen dituzte (hala nola, Egañak edo Lazkanok).

Sailkapen hau eta Letek argitaratu zituen bertso-sorta musikatuak erkatuz esan liteke poetak nagusiki erromantizismotik erresistentzia arorako bertsolaririk gustukoenen aleak bildu eta diskoratu egin zituela; berreskurapen eta hedapen lana burutu zuen eta kanona finkatzeko aletxo jarri. Erromantizismoa deitu den garaiko bertsolariak –Xenpelar, Bilintx, Etxahun, Elizanburu–, Aurre berpizkundekoak –Txirrita eta Otaño– eta Berpizkundekoak –Basarri, Uztapide, Lazkao Txiki– hautatu zituen.

Lete bera ere, bertso-jartzaile gisa, bertsolarien multzoan sar ote daitekeen planteatzeko moduko galdera da. Berpizkundetik aurrera funtsezkoa den bat-bateko jarduna kenduta, bere idatzizko aleei soilik erreparatuz, koka daiteke Erresistentzia aroko bertsolarien artean.

5.1.2 Leteren garaiko bertsolaritza

Txirrita hil eta zortzi urtera jaio zen Lete. Poetak 23 urte zituen Xalbadorri entzuleriaren zati handi batek txistu egin zionean. Hurrengo txapelketan, Amurizak txapela jantzi zuenean, 36.

Bertsolaritzarentzat ziklo baten amaiera da 70. hamarkada. Txapelketei erreparatzen bazaie, 60ko hamarkada Uztapideren erreinua izan zen: 1960ko Basarriren garaipenaren ostean, Oiartzuna ezkonduko bertsolari endoiarrarenak izan ziren hamarkadako txapel guztiak. Polemikoena, zalantzarik gabe, 1967koa izan zen: Xalbadorren bertsoak gutxietsi egin zituen entzuleriak (ez baitzuen euskalkia ulertzen) eta epaimahaikoak buruz buruko azken txanparako hautatu zutenean Urepelekoari txistu jo zion. Oholtza gainean zegoen Lopategi gaztea ere, eta Amurizari kontatu zionez, Lete lehen ilaratan eseria zegoen. Txistuak gailendu zirenean Lete zutitu egin zen eta entzuleriari isiltzeko keinuka jardun zuenetako bat izan zen (Amuriza, 2021). Letek, Txapelketa Nagusia pasa eta hilabete gutxira, *Zeruko Argian* gertatutakoa gogorarazi zuen eta zalantzan jarri zuen kultur esparruan lehiaketek zentzua ote zuten: “Kirolean ondo daude lehiaketak, juzga-neurriak fijoak eta matematikoak baitira. Baina arte gaiak nola juzgatu eta ordena errurik gabean klasifikatu? Lehiaketak bere gatza baduela konforme. Baina baita mingotzasun ugari ere. Oroitu bestela azkenengo bertsolari txapelketaz” (Perez-Gaztelu eta Saez de Egilaz-Perez, 2020, 87).

Ondoren, etenaldia izan zen txapelketei zegokienez 1980ra arte. Bertsogintzari zegokionez, Trantsizioa deitu izan zaion garai historikoan bertsolaritzaren funtzioa aldatu egin zen. Izatez, lehenago ere ari zen gertatzen aldaketa hori: Azpilaga eta Lopategiren plazatik kalabozorako jarduna izan zen aldaketa horren gorpuzte behinena. Aldaketa hura, aldaketa guztiak bezalaxe, ez zen guztien gustukoa izan. Zenbait pertsonaren iritziz Amurizaren aurreko arokoak izan ziren *benetako* azken bertsolariak.

Lehen aipatutako sailkapena baliagarria bada ere, kontuan izan behar da fase batetik bestera igarotzeak ez duela aurreko faseen ezabaketarik sortzen. Alegia, Lazkao Txiki koka daiteke Berpizkunde eta Erresistentzia aroan, baina hurrengo fasean ere (edo are) estimatua(goa) izan zen. Aro beraren barruan aro ezberdinetan sailkatu behar diren bertsolariak ibiltzen dira

oholtzan. Horren erakusgarri, kanona ezartzea egozten zaion txapelketari erreparatuz, interesgarria da seinalatzea 1989ko Txapelketa Nagusiko irabazlea, Lopategi, aurreko fasekoa zela:

- 1980 Xabier Amuriza: Jendeari kantatzetik audientziari kantatzera
- 1982 Xabier Amuriza: Jendeari kantatzetik audientziari kantatzera
- 1986 Sebastian Lizaso: Jendeari kantatzetik audientziari kantatzera
- 1989 Jon Lopategi: Erresistentzia aroa
- 1993 Andoni Egaña: Jendeari kantatzetik audientziari kantatzera

Antolaketa

Euskaltzaindiak antolatu zituen 1958tik 1967rako txapelketak, eta hamabi urteko etena izan zen ondoren. 1980 eta 1982koa ere erakunde berberak antolatu zituen, baina 1984an desadostasunak izan zituen bertsolariekin; handik aurrera, Bertsozale elkarteak sortu zen eta hura arduratu zen antolaketaz. Bertsolarien auto-antolaketa eredu berriak transmisioari lehentasuna eman zion eta bertsolaritzaren eraldaketa ahalbidetu zuen.

80. hamarkadan Amuriza gailendu zen Txapelketa Nagusian eta harekin zenbait sektorek ontzat hartzen ez duten estilo baten legitimazioa gertatu zen. Bestalde, bertsoan ikasi zitekeenaren mezuak indarra hartu zuen eta bertso-eskolen belaunaldia sortzen hasi zen. Handik mamituko zen aldaketa erabatekoa eta hurrengo belaunaldietarako zubia eraikiko zen. Aro honetako bertsolari esanguratsuenak izan ziren Iñaki Murua (1956), Anjel Mari Peñagarikano (1957), Sebastian Lizaso (1958), Andoni Egaña (1961), eta Jon Sarasua (1966).

5.1.3 Bertsolaritza eta Lete

Leteren kantagintza lagin moduan hartuta bistakoa da bertsolaritzarengandiko eragin zuzena izan zuela eta, behar adina azpimarratu ez bada ere, garaiko bertso jartzailerik onenetakoa izan zen, Xalbadorrekin (Aulestia, 2005, 180) batera, eta 80. hamarkadatik aurrera, Amurizarekin batera.

Xabier ez zen Letetarren etxean bertso-jartzaile izaera zuen lehenengoa. Oiartzunen hain present zegoen gerran bere amaren aldeko aitona eta osaba kartzelaratu zituztenean sorta bat idatzi zuten gertatutakoa kontatuz:

Milla bederatzireun
ogeitamaseian
San Lorentzo eguna
egun berezian,
galdezka ari ziran
inguru guztian
Bergaretxe aita-semiak
nun izaten ziran.

Egunon jaun prestuak
zer nai zenduteke?
agindu nai baezute
emen naukazute.
Erantzuna: gurekin
joan bear dezute,
asko luzatu gabe
gertatu zaitezte.

Seme txiki bat eta
bi alaba gazte
aurkitu bear ziran
pare gabe triste;
bañan seme maiteok
ia! poztu zaiteztezte,
Ama Arrate'koa
zuekin dezute.

Esana bete bear
naita-naiezian
nun arkitzen geraden
fusillen mendian.
Zer naigabe zorrotza
aitak biotzian
ume errukarrixak
gogoratutzian.

Aitak eta semiak

batak bestiari
itz askorikan ezta
begiratu sarri.
Mendixan odei beltzak
ziraden ageri,
Euria zekarten da
baita ere arri.

Ergoin'go barriora
giñanean eldu
korta modu batian
or gaituzte sartu:
beste batzuek ere
an ziraden bildu
gure barrenak ziran
naikua goibeldu.

Bi egun pasatuta
Irugarrenera
gizon agintari bat
sartu da barrena;
Pamplona'ra juateko
zekarren ordena
eta antolatzeke
al zan azkarrena.

Laster jarri giñaden
denak formatuta,
amalau lagun giñan
ondo kontatuta;
txukun jarri gaituzte
sokakin lotuta
iñor ez gelditzeko
bidean galduta.

Agindu bezin laster
abiatu gera

mendi aldapatsuak
gora eta bera;
estropozu eginda
erori lurrera,
iru ordu luzean
aa zer ibilera.

Samiñak atsegina
du bere ondoren,
oso egualdi ona
gurekin zegoen;
agintariak ere
biotz ona zuten
Lesaka'rño ongi
iritsi giñaden.

Ordu-erdi batera
utzirik Lesaka
Pamplona'ko bidian
giñaden presaka;
jendia ere ba-zan
guri begiraka
Batzuk errukituta
bestiak izeka

Andre, seme ta alaba
Zeuden Bittoria'n
Beste iru umetxo
bakarrik etxian,
aita seme batekin
Pamplona "gañian"
orra nere sendia
iru probintzitan.
(Arantxa Letek helarazitako
bertso argitaragabeak, d. g.)

Ondarea berreskuratzen

Ez Dok Amairuko kide gehienak gaztelaniaz alfabetatu ziren idatziz, baina euskararen munduari zegokion ahozko transmisioa izan zuten. Zenbait ikertzailek berreskuratutako

ahozko ondarea (baladak, poemak.e..) baliatu zituzten, eta jendartera itzuli; Resurrección Maria de Azkueren lanak, esaterako. Ana Gandararen ikerlan batek ondorioztatzen du erresistentzia sinbolikorako gune aktibo nagusietarik bat; erreferente sinboliko izateaz gain, momentuko beharrei espresuki ongi, egoki, erantzuteko gai izan zela ahozko ondare kulturala (2019, 692). Ez Dok Amairuko zenbait kidek ondarea musikatzen jardun zuten. Letek ere osatu zuen berreskurapen lan hori letra zaharrak musikatuz ('Kontrapas', 'Trapu zaharrak'...) eta bertso zaharrak hedatuz. Leteren kasuan (berreskurapen lanaz gain) ondare horrek bere estiloan izan zuen eragina da bereziki interesgarria, kapitulu honetan ikusiko denez.

Lete bertsozalea

Bertsozaletzat zuen bere burua Letek (Lete, 2011, 55). Bertsolariekiko sekulako miresmena erakutsi zuen. Zaletasuna oso txikitatik zetorkion. Herri aproposa zuen horretarako. Garaiko bi bertsolaririk onenetako bi, Uztapide eta Jose Joakin Mitxelena, bertan bizi ziren. Oiartzungo plazan bertsolariak entzutea erritual atsegina zen Leterentzat eta entzuleriak zien errespetuak arreta ematen zion (Lete, 2011, 25):

Ni harrituta egoten nintzen gizon haiek beren kantu soilarekin jendearengan zuten itzalarekin, harrituta egoten nintzen, zer nolako itzala zuten eta zer nolako arretaz entzuten zien jendeak, eta zer nolako autoritatearekin mintzatzen ziren. // (...) eta ikusten nuen [publikoa] bertsolarien aurrean oso errespetu handiz entzuten. Eta horrek asko hunkitu ninduen eta oso eragin handia izan zuen nigan. Hori beti azpimarratzen dut, imajinario batean, nire imajinario batean, bertsolari haien figura hori autoritate handiko figura bezala. (Lete, 2011, 26)

Oteizaren *Quousque tandem...!*-en irakurketa txundigarria izan zen Leterentzat. Oteizak bertsolarien jarduna sinbolismoz puztu zuen eta euskaltasunaren estilo puruena, hunkigarriena eta argiena zirela esanaz (1994, 9)²⁶:

Este es el estilo, el único que entiende (y que ya no entiende) nuestro 'bertsolari' y que si nuestro pueblo le entiende será el que mejor sabrá entender. (1994, 60)

Oteizak miresmen osoa zien Xalbador eta haren aurreko belaunaldiei. Ez zituen hain gustuko, ordea, belaunaldi berriak:

²⁶ Oteizaren liburu honek ez du paginaziorik. Blokeka ordenaturik daude testuak. Uler bedi, beraz, zenbaki hori bloke bezala, ez orrialde zenbaki gisa.

El bertsolari lo dice todo (lo decía) , hoy casi no le entendemos. Tomamos por incoherencia (y no entendemos) lo que es profunda difícil cohesión de su estilo-de-su-viaje-interior. Cuando queda inmóvil y se sumerge en el río de su memoria y reaparecen las cosa (él sigue sumergido) y vuelven a nuestra memoria (que apenas reconocemos). Pero la incomprensión del bertsolari y su actual incultura (cultura es sitio, es extensión y riqueza de memoria) se nos aparece el bertsolari en su actual abandono, como un nadador de profundidad (su estilo río-monólogo de visión interior) en un charco que le moja (o le ensucia) hasta las rodillas. (1994, 9)

Bertsolariek betetzen zuten funtzioa oso garrantzitsua zen Oteizaren ustez eta haien barrutik kanpora sortzeko modu espontaneoari balio handia aitortzen zion. Sormen unearen deskribapen ederrak plazaratu zituen liburuan:

Cómo es este estilo en el bertsolari? En algún de este ensayo nos detenemos en algunas observaciones que ampliamos comparativamente con ejemplos raramente producidos en otras disciplinas de la creación estética. Nuestra verdadera raza está dentro de nuestro idioma, vemos primero el hombre y el idioma, pero está aún más adentro, es nuestro estilo, es nuestra raza espiritual. Nuestro universo mental está ahí. ¿Cómo es? Es este estilo mental (que en el bertsolari podemos sorprender en toda su compleja naturalidad), es este estilo como de descongelación de la intraconciencia, que como en un viaje de vuelta, (de sedimentación hacia fuera) en que reaparece, irracionalmente, la conciencia a la vida, a la palabra, a la expresión. Tiene su propia técnica. La técnica del auténtico bertsolari es desandar con claridad (poco a poco y de aquí y allá) ese camino en el que se fueron oscureciendo los sucesos pasados con su realidad y sus ideas, y que la oscuridad (la del tiempo, la del olvido) fue guardando. La técnica del bertsolari es que está delante de todos y desaparece en su realidad interior. de la que salen sus palabras (que irán saliendo). Suelo decir que como dejándose llevar sumergido en un río (el río de su visión interior). (1994, 22)

5.1.4 Bertso zaharrak musikatzea

Letek ere aurreko bertsolariei miresmen handiagoa zien garaikideei baino. Kantari gisa oholtzaratu zen lehen aldian Txirritaren bertso batzuk kantatu zituen eta entzuleriak gustura jaso zituela iruditu zitzaion. Bertsolari horrekiko miresmena izaki, haren bertso sortak bildu eta diskoa osatu zuen 1974an. Antton Valverderekin batera kaleratu zuen disko hori. Urtebete lehenago *Bertso zaharrak* izeneko diskoa kaleratua zuen Antton Valverderekin eta Julen Lekuonarekin. Herriz herriko jarduna ere osatu zuten bertso horiek kantari.

Bertsolaritzari buruzko lanik mardulena 2001ean kaleratu zuen. Hamar bertsolariren (Xenpelar, Bilintx, Elizanburu, Etxahun, Otaño, Txirrita, Basarri, Uztapide, Xalbador eta Lazkao Txiki) bertso-paperak bildu, hautatu, musikatu eta zazpi diskotan bilduta kaleratu zituen. XX. mendeko bertsolari garrantzitsuenetakoen letrak plazaratu zituen: doinu zaharrak eta berriak uztartu zituen argitalpenak. Doinu berriak sortu izanaren ekarpena sekulakoa izan

zen bertsolaritzarentzat, nahiz eta bere doinu erabilienak kanta bezala plazaratutakoak izan diren. Ez Dok Amairuren eginbehar nagusietako bat zen ondareari zegokion balioa ematea eta Letek proiektu pertsonal gisa hartu zuen bertsolaritzari zegokion zatia.

Bertso-paperak eta bat-bateko bertsoak, biak, gozaten zituen Letek eta lehena eraman zuen “goren gradora”. Bat-batean bertsoan egiteko gai ere bazen Lete, nahiz ez zen goi-mailako bertsolaria (Irigoién, 2019) eta bere burua ez zuen sekula etiketa horren pean hauteman. Gaur egungo perspektibatik bertsolaritzat hartu daiteke.

5.2 Zer da bertsolaritza?

Bertsolaritza azaltzeko Xabier Amurizak *Hitzaren kirol nazionala* (1997, 198) liburuan argitaratutako koplak hau erabili ohi da:

Neurriz eta errimaz
kantatzea hitza
horra hor zer kirol mota
den bertsolaritza.

Bertsotarako arauak ditu hizpide Amurizak, baina bertsolaritza kontzeptua bertsoak egiteari ez ezik kultur adierazpen osoa izendatzeko ere erabiltzen da. Bertsoak sortzeari soilik dagokion zatia, bertsogintza litzateke.

Bertsolaritzan bat-bateko bertsoak eta bertsopaperak bereizten dira. Lehenengoak inprobisatu egiten dira eta bigarrenak ez. Historikoki, hedabideek gaur egungo azkartasunez eta eraginkortasunez funtzionatzen ez zuten garaietan, bertsopaperek funtzio garrantzitsua bete zuten eta idatzi ziren garaiaren erretratu bikainak dira askotan. Gaur egun, bat-batekotasuna da bereziki estimatua.

Joxerra Garzia, Andoni Egaña eta Jon Sarasuaren *Bat-bateko bertsolaritza: gakoak eta azterbideak* (2001) liburuan, “kantatuz, errimatuz eta neurtuz burutzen den berbaldi” gisa definitzen da bertsoa. Haien esanetan, “doinua, errima eta neurria bertsoaren alderdi teknikoak baino ez dira, hala ere. Bertsoari kalitate maila bere arazoibidearen indarrak edo bere balio poetiko-erretorikoei emango diote”.

5.2.1 Errima

Errima bi hitzen arteko atzetik aurrerako hoskidetasuna da. Azkeneko silabarekin errimatu daiteke edo silaba bat baino gehiagorekin. Bertsolaritzan errimatzen duen hitzari oina deritzo. Errimatzeko aski da hoskidetasuna izatea, baina komenigarria da hoskidetasun mailen kategorizazio bat egitea lan honetan eta batez ere hurrengoetan modu justu eta ulergarrian sailkatzeko poeten lana.

5.2.2 Doinua

Benetan aberatsa da bertsolaritzaren ondarea doinuen aniztasunari erreparatuta. Bertsolariak tradizionalki musikaren laguntzarik gabe inprobisatzen du. Juanito Dorronsorok, orain artean arlo honetan lan gehien egin duen ikertzaileak, ia 3.000 doinu sailkatu zituen (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001, 82). Bertso doinuen gehiengoa herrikoa da, usadiozko doinuetatik dator; badira metrikoki ondo egokitzen direlako musikatik bertsolaritzarako jauzia eman duten doinuak; eta baita bertsolariek propio osatutako doinuak ere.

Musika-tresnen laguntzarik gabe kantatzeko, bertsolariak ahots sendo eta belarri ona behar duela izan pentsa daiteke, baina Garzia, Egaña eta Sarasua adituen esanetan komunikazioaren arrakasta edo porrota ez dago bertsolariaren ahotsaren kalitatearen baitan, aukeraturiko doinuaren eta hura kantatzeko moduaren egokitasunean baizik (2001, 82).

Doinuak ezagutzeak sekulako garrantzia du. Hurrek musikalitatea bereganatzeaz gain, kultura eta komunikazioko edukiak bereganatzen baitituzte haien bidez.

5.2.3 Neurria

Doinua eta neurria elkarrekin doaz, nola soinekoa eta gorputza. Doinua da sortzaileari bertsoaren silaba kopurua neurtzen laguntzen diona. Neurria deritzo egitura baten hezurdura metrikoari, silaba kopurua du hezurdura eta doinua haragi. Oronozek (2011) errimari artifizio erritmiko deitzen dio, Lekuonaren lana zitatuz. Lekuonaren esanetan tradiziodun egiturak

(errima, erritmoa, kantua, eta gorputz espresioa) memoriari laguntzeko artifizioak dira; horregatik, nekez aurkitzen dira bertso askeko ereduak ahozko literaturan.

Neurriaz dihardugunean, bertsoaren luzeraz eta zabaleraz dihardugu. Zabalerari dagokionez, handia eta txikia bereizten ditugu. Handikoak diren neurriek lerro bakoitietan 10 silaba dituzte eta 8 bikoitietan. Txikikoek, berriz, 7 dituzte bakoitietan eta 6 bikoitietan. Luzerari dagokionez, lerro kopurua da kontatzen dena: zortzikoak, bere izenak dion bezala, zortzi lerro ditu; eta koplak lau –Hegoaldeko maketazioa sistemaren arabera, beti ere–. Kontaketa hau egin liteke puntuei erreparatuz ere. Puntua oin batetik hurrengora dagoen testu zatia da. Zortziko batek lau puntu ditu –eta hala maketatzen da Iparraldean–.

Aurretiaz aipatutako neurriak dira plazaz plazako jardunean maizen erabiltzen direnak. Hala ere, badira beste neurri batzuk ere. Koplek, adibidez, tradizio handia dute eta asko erabili dira eskerako eta errondarako. Gaur egun oso ohikoak dira bertso luzeagoak. Bakarkako lanetan arrakasta komunikatiboa lortzeko estrategia bat izan da hori bertsokera batzuetarako.

Neurriak mugatuak dira bertsolaritzan, eta milaka doinu existitzen dira. Bertsolaritzaren ohiko egiturak identifikatzea erraza da sinplifikaziora jotzen bada (tradizioak eta erabileraren maiztasunak zenbait identifikagarriago bihurtzen baititu), baina konplexua doinutegi osoa kontuan izanda.

Zabalerari erreparatuta, 7/6ko eta 10/8ko zabalerako bertsoak dira ohikoenak (Garzia, 2007). Konbinazio honetan, errima bigarren lerroan (bikoitietan) kokatzen da. Egitura formulatzeko beste modu bat litzateke mozketarik ez egitea eta errima hartzea lerroak ebakitzeko irizpidetzat. Kasu horretan 13 silabako eta 18 silabako lerroak lirateke txikiaren eta handiaren moldekoak. Sailkapen hau, maketazio irizpide eta tradizio gisa ere uler daiteke. Iparraldean maiz erabili izan da. Hala ere, esan beharra dago 7 silabako eta 6 silabako lerroaren artetan etena izaten dela beti.

Handiko moldean, 10 eta 8 silabako lerroen artean ez ezik, lehen lerroan ere izan ohi da 5 silabako bi zatiren azpi-banaketa. Zenbait doinuk, melodikoki, ez dute eten hori egiten. ‘Frantses euskaldun bat’ doinuak ez du 5-5eko barne-etenik erritmikoki (“Frantses euskaldun

bat etorri zait”). Bertsolariak nekez hausten zuten azpi-eten hau. Azken urtetan zenbait bertsolarik eten honen hautazkotasuna defendatu dute eta garrantzia kendu diote bat-bateko jardunerako, akats handia ez dela aldarrikatuz. Zenbaitetan mezu batzuk helaraztea ezinezko bihurtzen du eten honek (bost silabatik gorako hitz deklinaturik ezin baita kokatu puntuko lehen lerroan) eta baliteke hori izatea 8 silabako berdinen (‘Habanera’ bezalako doinuen) arrakastaren iturria. Berdinak silaba kopuru bera dute lerro bakoiti eta bikoitietan (ez dute etenik) eta ohikoenak zortzi silabakoak dira.

Bada beste zabalera klasiko bat, ertaina izenondoa hartu ohi duena (zaharra ere deitzen zitzaion). 8/7ko moldea da, adibidez, ‘Gai honek badu mamia’ doinuan erabiltzen dena.

Doinuen ehuneko handi batek handiko edo txikiko egitura erabiltzen du zabalerari dagokionez. Luzerari dagokionez, berriz, puntu kopurua aldakorra da. Birritan errepikatzen bada, koplak izendapena jasotzen du, lau aldiz errepikatuz gero, zortziko; bost aldiz errepikatuta, hamarreko. Bi izendapen hauek lerro kopurua zehazteko ere balio dute. Hortik aurrerako neurriak, ordea, normalean puntuka zenbatzen dira. Hala, seiko handia deitzen zaie, hamabi lerroko bertsoaz dihardugu. Bederatziko txikiak, beraz, ez ditu bederatzi lerro, bederatzi puntu baizik.

Segidan, ohikoenak diren neurriak jasotzen dituzten bi taula eraikiko dira. Ezkerrean, goitik behera, Hegoaldeko maketazio ereduaren arabera doinu bakoitzak duen lerro kopurua zehazten da. Goian, berriz, lerroek dituzten silaba kopurua zehazten da: txikia, handia, zaharra, ertaina eta bestelakoa. Lehenengo orriko taulak neurrien izendapena du ardatz eta zenbait kasutan parentesi artean jasotzen da izendapen hori duten doinu kopurua. Bigarren orrialdeko taulak, berriz, neurri horretako doinurik ezagunena, esanguratsuena, edo Leterekin harreman zuzenena izan dezakeena aipatzen du eta hura entzuko lotura ere jarri da:

Taula 5*Bertso doinuen izendapena*

	7/6	10/8	8/7	8/8	beste
4	lauko txikia (274)	lauko handia (204)	lauko ertaina	lauko berdina	kopla handiaren moldekoa (eskeko koplak) (100)
6	seiko txikia	seiko handia	seiko ertaina		
8	zortziko txikia (849)	zortziko handia (385)	zortziko ertaina (75)	zortziko berdina	zortziko, berdinaren moldekoa, 6 puntuz (kopla bikoitz hautsia) (20) Zortziko, berdinaren moldekoa zazpi puntuz (10)
10	hamarreko txikia (169)	hamarreko handia (71)	hamarreko ertaina	hamarreko berdina	seikoa, handiaren moldekoa, lau puntuz (29)
11	hamaikako txikia (11)				
12	hamabiko txikia (31)	hamabiko handia (14)	hamabiko ertaina (1)	hamabiko berdina	zazpi puntukoa, handiaren moldekoa
14	hamalauko txikia	hamalauko handia	hamalauko ertaina	hamalauko berdina	
16	hamaseiko txikia	hamaseiko handia	hamaseiko ertaina	hamaseiko berdina	

Taula 6

Bertso doinuen adibideak

	7/6	10/8	8/7	8/8	beste
4 lerro	Ama begira zazu	Armen hartzera	kopla ertaina	Dabadabun, dabun...	Abadinoko Karmentxu
6	Amak ezkondu ninduen	Trabuko	Seiko ertaina		
8	Gizon arruntaren koplak	Zeru altuan zegoen Jaunak	Agure zahar batek zion	Blowing in the wind	Aresoarren bandera (20) Ikusten duzu goizetan (10)
10	Espainian behera, Jardin bat zuretzat	Gure aurreko guraso zaharrak	hamarreko ertaina	hamarreko berdina	Primaderako lorian
11	Ai gure aintzinako				
12	Udaletxean badut	Abokatuak deitu berri dit / Oso polita zara izatez	Gai honek badu mamia	hamabiko berdina	Leiho ertzetik entzun dezaket
16		Haizea dator ifarraldetik		Habanera (12)	

Aipatutako neurri gehienek ohiko egiturak dituzte. Beste batzuk tradizioz kanpokoak edo nekez sailkatzekoak kontsidera daitezke. Orokortzetatik kanpokoak, behintzat, badira. Berezi izendapena jasotzen dute. Badira berezien artean, tradizio handia duten zenbait molde: kopla zaharra ('Sorterriko koplak'), sei puntukoa ('Dozena bat bertso berri'), Zazpi puntukoa, handiaren moldekua ('Leiho ertzetik') edo bederatziko txikia ('Betroiarenak') dira zenbait adibide. Doinurik erabilienetakoen artean kokatu daiteke 'Iparragirre abila dela' ere (69 bat-bateko erabilera ditu jasoak *BDBk*), baina guztiz ezohiko egitura du: originala 10 / 8A / 10 / 8A / 7A / 7A / 8B / 10 / 8B moldekua da eta inprobisatuz 10 / 8A / 10 / 8A / 7B / 7B / 8A / 10 / 8A egitura erabiltzen da. Ezohikotasuna darabilen errima sistemagatik datorkio, ez baita

batere ohikoa bertso baten barruan bi errima ezberdin erabiltzea. 'Nagusi jauna hauxe da lana' (Juana Bixenta) da errima besarkatu duten tradizio handiko doinu bat. Nazioarteko inprobisatzaileen dezimek eraginda zenbait proposamen berri izan dira azken urtean, baina ez dute arrakasta handirik izan. Saiakera jarraituenetako bat Elortzak egokitu zuen 'Izarren hautsa' doinua izan zen. Hona 2013ko Txapelketa Nagusiko kartzelakoan kantatu zuen bigarren bertsoa. Bertan, -etan da errima nagusia, baina -ita eta -uru errimak ere erabiltzen dira:

10- Deitu zidaten aurkeztu nintzen
8A ez da esan beharrik zertan.
10- Lehen kalean egon ginenak
8A gaur gaude bulegoetan
10B eta orduko hainbat kritika
10B orain goi-goian gaude jarrita
8A ta etortzen dira bueltan.
10- Utopiaren aldarrikapen
8A izanak hainbat urtetan
10- orain dakigu hoiek gauzatzen
8A ez dela erraz benetan
10D baina neurtuta ahal ta helburu
10D geure ahaleginak eingo ditugu
8A burua beti ametsetan
8A baina hankak lokatzetan. (Elortza, 2013)

Ez da zehazki Letek erabili zuen doinua eta errima sistema, baina inspirazioa handik eratorria da. Letek bertsogintzan izan duen eragina dirudiena baino hausleagoa da ikusten jarraituko dugunez.

Doinu berriak bertsogintzara ekartzea

Bertsolariak inprobisatzen ikasten duenean ia edozein doinuren gainean jarduteko gaitasuna bereganatzen du, lerro bakoitiak bikoitiak baino silaba gehiago edo berdinak dituztenean, bereziki. Hala ez denean –lerro bikoitiak luzeagoak direnean– bertsolariak metrikaren kontrolik eza sumatu dezake, 'Obladi Oblada' doinuaren gainean inprobisatzean suma liteke zaitasun hau, adibidez:

Desmond has a barrow in the marketplace
Molly is the singer in a band
Desmond says to Molly, "Girl, I like your face"
And Molly says this as she takes him by the hand (Mccartney eta Lennon, 1968)

Kanta askok dute, beraz, bertso-doinu bihurtzeko potentzialitatea. Bertsolaritza bizirik dagoen mugimendua da eta azken hamarkadetan bestelako metrikatetik ere edan du.

Doinu berriek, normalean, bakarkako lanetan izaten dute kabida. Hor ez baita beste bertsolarien ezagutza eta kontsentsurik behar. Bertso-saio musikatuak ugaltu ahala ere ofiziotako edo koplatarako melodia berriak ugaritu dira.

Doinu berrietan inprobisatzea ez da xamurra. Tentsio momentu horretan doinuaz gogoratu eta oso modu automatikoan erreproduzitu behar du garunak. Doinu bat jakitea ez da aski doinu horretan inprobisatzeko. Bertsolariak bestela ere kalkulu lan handia egin behar du testua neurrira doitzeko eta doinua automatizatua ez badu nekez kantatuko du bertso bikainik.

Doinu berri batek konexio kontraesankorra sortzen du entzuleriarekiko. Entzuleak doinua aurrez ezagutzen badu kilikatu egin dezake. Doinua ez badaki, ordea, tentsioa sortuko da eta entzulearen arreta piztu; entzuleak bertsoa eta doinua bereganatzeko egin behar duen esfortzuak komunikazioa kaltetu edo eten dezake, edo goren mailara igo.

Bertsoaz gozatzeko zenbat eta aurre-informazio gehiago, bertsolariaren diskurtsoa bereganatzeko ahalegin txikiagoa egin behar du entzuleriak. Aldi berean, doinu berri batek jakin-mina piztu dezake, arreta bereganatu, eta aparteko zailtasuna izatearen gehigarria erantsi diezaioke.

Doinu ezagunek, bestalde, jatorrizkoaren testuingurua gehitzen diote sortzen ari den bertsoari. Hala, Elortzak 'Ne me quitte pas' doinua egokitu eta bertsotarako erabiltzen badu, entzuleak Jacques Brel, Edith Piaf edo Xabier Leteren bertsioekin sentitu duena inbokatu dezake. Doinua, beraz, momentuan kantatzen duen pertsonaren afinatzeko gaitasunetik harago doa; hautu erabakigarria izan daiteke.

Figura 27

Doinu hautaketarekin zerikusia duten faktoreak

Bertsolaria

- Gaiari egokitutako doinua
- Bertsokidearekin negoziatutakoa
- Aurrez erabakitako doinua



Bertsoa

- Berezko timbrea
- Tonuaren egokitasuna
- Baliabide teknikoak
- Zarata
- Mezuaren eta doinuaren arteko batasuna



Entzuleria

- Ezagutzen dituen bertsoak
- Ezagutzen dituen doinuak
- Ezagutzen dituen bertso-moldeak
- Ezagutzen dituen abestiak
- Haietako bakoitzak duen karga sentimentala



Eskemak bertsoaldiaren unean doinuak duen garrantzia bistaratu nahi du, baina bada kantatu osteko fase bat ere. Bigarren horretan bertsoen kaliteatea jartzen da jokoan eta bertsoaldiaren oihartzuna. Gogoangarria izan bada bertsoaldiaren zirrara hori beregutzen du doinuak bolada baterako. Bestalde, gogoratzeko gaitasuna ere aipatu behar da. Litekeena da entzuleen artean doinua gogoratzeko kapaz den bertsolariren bat izatea edo hura grabatu izana ikusentzunezko hedabideren batek eta aurrerako inork erreproduzitu ahal izatea.

Aurreko eskemaren aplikazio bat izan daiteke, adibidez, 2001eko Txapelketa Nagusian Maialen Lujanbiok mendian hildako mendizaleari kantatutako bertsoa. Lehen bertsoa bereziki ederra da bertso baten barruan gutun bat hasi eta buka idazteko gai delako, pertinentzia osoz bere gaitasun teknikoaren erakustaldia eginaz eta kontraste indartsu batekin amaituz. Hirugarren bertsoa da eskasena teknikoki, baina doinuen botereaz gogoeta egiteko hona ekartzea merezi du:

Kaixo Maialen: zer moduz?
Oroimena daukat zukan,
presente zauzkadalako
nere mendi abenturan.
Zorionean gabiltza
mendiarekin loturan;
badakizu, beti gisa,
nahi ta ezinaren mugan.
Makaluko gailur horrek
gu jartzen gaitu liluran;
etzirako egongo gera
gailurrarekin joskuran.
Har zazu muxu bero bat,
jarri konfiantza gukan.
Zein bero zen muxua ta
nik zeinen hotz hartu dudan!

Negar egin nahi dut baina
ez egitea hobe da,
malkoak jausiko dira
bestela postal gainera,
ta korritu ta borratu
hemengo muxu ta zera...
Intzirika hasi nahi baina
nijoia aguantatzera.
Imajinatu dezaket
kanpo-base hartan bera...
Bere ilusio ta amets
guzia jua da gainbehera,
ikurrinarekin jua nahi
zazpi milako batera,
ta orain Makalun dago
heriotzaren bandera.

Irratiak eman zuen
elur-jauzien abisu,
baina zuk ametsarekin
horrenbeste konpromisu
bazendun, ta holakotan
egoskor bat dirudizu;
aurrera segiko zendun,
beti egin dezu berdintsu.
Bizitzan ilusioa
herioren paradisu;
gero arte esaten ere
ez didazu utzi, aizu;
ta zuri azken hitz batzuk
esan nahiean naukazu,
karta bat egingo dizut,
akaso jasoko dezu. (Lujanbio, 2001b)

Lujanbioren hirugarren bertsoak bereziki ondo funtzionatzen du Leteren ‘Habanera’ lehendik ezagutzen zutenentzat: “Karta bat idatziko dut / norbaitek erantzun dezan” klasikoaren aldaera bat baita bertso hirukotea ixten duena..

Oihane Perek aipatu zuen sortzaileak arrisku bat hartu behar duela aldaketa bat proposatzeko. Emakume bertsolariek diskurtsiboki egiten dituzten berrikuntzak plazan duten efektua eta eskatzen duten ahalegina alderatu zituen doinu berri bat plazaratzeko eskatzen duenarekin (Martin-Etxebeste, 2020, 216). Bakarkako lanetan doinu berrian inprobisatu baino lehen, askotan, entzuleria ohitu dadin, bertsolariak agurreko doinu gisa erabili ohi du doinua, batetik doinuaren izena finkatzea lortzen du horrela eta bestetik entzuleari eta epaileei (eta bere buruari) abestaldi estra bat eskaintzen dio. Doinua zenbat eta ezagunagoa izan, entzuleriak egin behar duen ahalegina txikiagoa da eta doinua zenbat eta fidelagoa originalarekiko, errazago jasoko du. Zenbait doinu agurretarako baino ez dira erabili, kantatzeko ederrak, baina bat-batean jarduteko desegokiak izan daitezkeelako. Erritmo bizi batek, eten deserosoren batek eta tesitura zabalegi batek zaildu dezake metrikoki bertsotarako egokia den doinu bat bertso doinu bihurtzea. Leteren arrakastaren gakoetako bat da bere hizketaren prosodiarekin bat zetorren musika sortzen zuela letra bakoitzarentzat. Bere burua gutxien zuten maiz musikari gisa, baina intuizio bikain bat zeukan konposatzeko. Agustín Mendizabalek Mondragon Unibertsitatean egindako ikerketa argitaragabe batean zenbatu zuen zenbait kantatan (‘Adiskide bat bazen’ hartu zuen aztergai) oiartzueraren azentuekin bat zetorrela %80an bere kantaera (%55ean euskara batuarekin); Erramun Martikorenaren bertsioa, ordea, %42an zetorren bat euskara batuarekin:

Beste ondorio garrantzitsua da Letek kantatzeko moduaren bidez testuaren azentu ugari musikalki nabarmentzen dituela. Bereziki alderdi erritmikoan behar diren egokitzapen edo aldaketak eginez, azentu musikal metrikoak eta agogikoak sortzen ditu azentu linguistikoekin bat etortzeko (Plázetakò, bakáradadèz...) eta, era horretan, azentu linguistikoak nabarmentzeko. Dena erritmo erregularrean kantatu izan balu (denak kortxeak eta esaldi eta esaldierdien hezurdura metriko berari fidelki jarraituz, Martikorenaren moduan) ez zen hori gertatuko. (Mendizabal, d.g.)

Hitzak doinura egokitu beharrean doinua hitzetara errenditzeak eta, are gehiago, ezaugarri diatopikoak kontuan hartzeak Leteren kantuei naturaltasuna eta sinesgarritasuna ematen zien. Musika aldetik jasoagoak edo konplexuagoak ziren melodiak egin zituzten konposatzaile errekonozituek Leterentzat, baina gehienak ez dira Leterenak bezain herri xehearen

sustraietaraino heldu. Leteren kanta asko bihurtu dira bertsogintzarako doinu, batetik, bere doinuak berez fidel zaizkiolako tradizioaren logikari, eta bestetik ezagun zaizkiolako bertsolari eta bertsozaleei.

5.3 Errimak eta neurriak, Leteren letretan

5.3.1 Errima

Bertsolaritzako epai irizpideen arabera (Zenbait autore, 2017) honakoak dira errimaren gutxieneko betebeharrak:

- Oin bakoitzaren azken silabako kontsonanteek hoskide izan behar dute eta bokalak bera izan behar du, adibidez: lege, hobe, pare, daude...
- Azken silabako bokala “a” baldin bada, azken aurreko silabako bokalak ere errimatu egin behar du: gogoa, aroa, hegoa...
- Azken silaba hori kontsonantez bukatzen denean, ordea (“k” ez beste kontsonante guztiak sartzen dira hor), aski izango da azken silabako “a” horri eustea: maiatz, latz, urrats, behatz...

Bertsogintza lehiakorrerako (epaileek juzga dezaten) aproposa da arautze hori, baina ez da behar bezain osoa. Malgutasuna eta zehaztasuna falta ditu. Txapelketetan kalitateari zenbaki bat jarri beharrak errima zer zen zehaztu beharra ekarri zuen. Ordura arte, bertsolariek belarriz barneratzen zuten zer zen hoskidetasuna. Bertsotan ezohikoagoa bada ere, Espainiar literaturan asonante deitzen zaion errima erabili zuen Bilintxek bere bertso famatuetakoa batean:

Bihotz baten lekuan
mila banituzke,
zuretzako maitia
izango lirazke.
Baina milan lekuan
bat besterik ez det
har zazu ba maitia
bat hau mila bider. (Dorronsoro, 1981, 141)

Bertsolaritzako estandarretan, oin hauek ez dute errimatzen. Letek, aurrerago ikusiko den moduan, Bilintxen azken eredu hau erabiltzen du tarteka; baita bertsolaritzaren ikuspuntutik ere guztiz hoskidea den eredu ere.

Errimaren kalitateak badu alde objektibo bat, baina subjektiboa izan daiteke zenbait kasutan. Adibidez, bertsolarientzat ez dago argi zerk errimatzen duen hobeto “uste”-rekin, “dute”-k edo “beste”k. Subjektibotasun hau askotan errima idatzizko eredutik abiatzen delako sortzen da edo tradizionalki hala erabili izan delako.

Errima kontsonante eta asonanteen arteko ezberdintasuna jakina da gehientzat. Bertsolaritzaren arabera ez da halakorik, errimak kontsonantea behar du. Hala ere, baieztapen hori leundu behar da soinu aldetik duten antzekotasunagatik zenbait kontsonante familiakoak direla gehituz. Alegia, kontsonante berbera balira bezala hauteman behar dira zenbait kontsonante. Honakoak dira bertsolaritzako errima familiak:

- BGRD (begirada)
- KPT (kopeta)
- MN (amona)
- S Z X (TS, TZ, TX)

Adibide batzuk jartzearen, errimatzen duten zenbait oin aipatuko dira:

- alternatiba, liga, balira, partida
- txaleko, lepo, hobeto
- bilduma, iluna
- pisu, izu, intxixu (berritsu, zerbitzu, maritxu)

Parentesi artean sailkatu dira txistukarien bi taldeak, bertsolarien artean ere kontsentsurik ez baitago bi taldeek erabat eta maila berean errimatzen duten edo ez. Berez, egon daitezke antzekotasunak dituzten beste kontsonante batzuek ere (L eta R ez daude, adibidez, oso urruti); baina goian zehaztutakoak dira finkaturik geratu direnak eta tradiziozko korpus zabala osatu dute azken hamarkadatan.

Beharrezkotzat jotzen da errimaren kalitateei buruzko zehaztapen lan bat egitea eta tesi hau ekarpen txiki bat egiten saiatuko da. Zorroztasun mailak bistaratzeko, errimen sailkapena egingo da segidan. Sailkapena egiteko hoscideak diren silaba kopurua hartuko da aintzat, horien barruan bokalen koherentzia mantentzen den eta baita oinaren azken hizkia bokala edo kontsonantea den. Azken faktore horrek errimaren kalitatea juzgatzeko giltzarri izan daitezke bokalbakarren kasuan (zenbat eta silaba gehiago errimatu, ordea, geroz eta garrantzia gutxiago izango du). Sailkapenean jarriko diren adibide guztiak dira hoscideak, baina zenbaitek ez dute errimatzen (bertsolaritzako estandarretan): bokalez amaitutako silaba hoscide bakarreko oinak eta asonanteak diren guztiek, adibidez. Beraz, paradoxikoa badirudi

ere, gerta daiteke hitz bat oso hoskide izan arren ez errimatzea (adibidez, orain eta orein hitzek).

Bertsolaritzaren arabeko errimen eta hoskidetasunen sailkapena:

- **Bokal-bakarra:** Silaba bakarreko hoskidetasuna duten oinak dira. Hitza kontsonantez amaitzen bada errima aberatsa dela esan liteke; bestela, errimatzen du, baina errima pobrea izango da. Asonantea bada, ez du errimatzen.
 - Kontsonantean amaitutako silaba-bakarra: trakets, ezetz, saihets...
 - Bokalez amaitutako silaba-bakarra: sagarra, ankerra, gogorra...
 - Silababakar asonantea: det, bider, trakets...
- **Silababikoa:** Bi silabako hoskidetasuna dute; bi bokal edo gehiago dira hoskide, beraz. Lehen bi kasutan errima aberatsa dela esan liteke, azken kasuan ez.
 - Kontsonantean amaitutako silababikoa: trakets, amets, aketz..
 - Bokalez amaitutako silababikoa: sagarra, legarra, indarra, oharra... Hiru bokal izan arren, “intxaurra” eta “haurra” bezalako oinak ere kategoria honetan sartzen dira.
 - Silababiko asonantea: traketsa, erreta, okerra..
- **Hiru silabakoa:**
 - Kontsonantean amaitutako hiru silabakoa: laguntzak, laguntzat, lagun-txat...
 - Bokalez amaitutako hiru silabakoa: harrikada, lurrikara, errita da...
 - Hiru silabako asonantea: traketsa, txaketa, pareja... Zerrenda honetako lehenengo biek hoskidetasun gehiago dute beraien artean, baten soinuak besteren parte ere badirelako nahiz ez diren ordena berean eskaintzen. Bertsolaritzan baliabide hau ez da apenas baloratzen, baina rapean adibidez oso estimatua da.
- **Lau silabakoa:**
 - Kontsonantean amaitutako lau silabakoa: herrikotzat, gerriko_hotsak, berriko txat...
 - Bokalez amaitutako lau silabakoa: harrikada, barrikada, harritara...
 - Lau silabako asonantea: tripakomin, tira horri, bira hortik.

Segidan, korpua oinarri hartuta, sailkapen honetan kokatuko dira Leteren letratako oinak.

- Silaba-bakarra:
 - Kontsonantean amaitutako silababakarra: ‘Maiteaz galdezka’ (entzun, duzun, zun, erantzun,
 - Bokalez amaitutako silababakarra: ‘Gizon arruntaren koplak’ (bi, arruntari, Joxe Mari, neri).
 - Silaba-bakar asonantea: ‘Alzateko jaun’ (Alzateko Jaun, hor zaude nunbait / zure lurrera itzultzeko zai; ‘Seaska kanta’ (nago ni, egarriz). ‘Haur andaluz bati seaska kanta’ (beroan lo, zuri so); ‘Gizon arruntaren koplak’ (gauza, galtzak); ‘Otsoak eta Txanogorritxu’ (ugari, gorri, otsoetatik).
- Silababikoa:
 - Kontsonantean amaitutako silababikoa: ‘Teologia, ideologia’ (bisitan, hertsitan, zitan), ‘Haizea dator ifarraldetik’ (biztunik, hiztunik, astunik, ez dut nik)
 - Bokalez amaitutako silababikoa: ‘Euskalerra nereia’ (maite, aparte; hotza, motza).
 - Silababiko asonantea: Amaren bularra’ (janari, hunkigarri; jostailu, behar du)
- Hiru silabakoa:
 - Kontsonantean amaitutako hirur silabakoa: ‘Euskalerra nereia’ (begiak, egiak; etortzean, bihotzean), ‘Langile baten seme’ (batean, artean, kaltean, aparte); ‘Neguaren zai’ (biltzeak, ibiltzeak, umiltzeak, hiltzeak).
 - Bokalean amaitutako hirur silabakoa: ‘Ez dut amets handirik’ (kontatu, hondatu), ‘Teologia, Ideologia’ (kondena, onena, ogena, ordena), ‘Biografia’ (dagiona, gizona).
 - Hiru silabako asonantea: ‘Izarren hautsa’ (premia, egia), ‘Habanera’ (paretetan, dezan), ‘Nafarroa, arragoa’; ‘Jardin bat zuretzat’ (amilduak gera, menditikan be(he)ra, plazera)
- Lau silabakoa:
 - Kontsonantean amaitutako laur silabakoa: ‘Biographia’ (elikagai zaharrak, hain nabarrak)
 - Bokalean amaitutako laur silabakoa: ‘Amodio, amore’ (ispilu puskatua, maitasun ukatua)
 - Lau silabako asonantea:

Zenbaitetan sailkapena korapilatsua gerta liteke. Sailkapen hau idatzizkorako zein ahozkorako baliagarri bada ere, bigarreneko kontuan hartzekoa da abesten duenaren ahoskera eta intentzioa. Begirada onbera hartzea komeni da sailkapenerako. Adibidez, ‘Xalbadorren heriotzean (II)’ abestiko estribiloan (artzaina, hintzana) bikotea bokalean amaitzen den silababakarrekotzat har daitekeen arren, zuzenagoa litzateke “i” hori kontuan ez hartzea eta bi silabako hoskidetasuna duela ondorioztatzea.

Aldagai diatopikoak kontuan hartu beharko lirateke oinak sailkatzeko momentuan. Adibidez, lehen aipatutako txistukarien kasuan ez luke zentzu askorik banaketa zorrotzegirik egiterik “s” eta “z” bereizten ez diren kostaldeko zenbait herritan. R kontsonanteari dagokionez, Lapurdin, Baxenafarroan eta Zuberoan baimendurik dago r eta rr soinuekin errimatzea. Letek erabiltzen du lizentzia hori ‘Amaren bularra’ abestian: “Amaren bularra / haurraren janari, / haurraren negarra / beti hunkigarri”. Berdin darabil ‘Jardin bat zuretzat’ en ere: “Mugarik gogorrena, noizpait hil beharra / igaro eta gero munduko zeharra, / mendabeltxen usaia, zure irrifarra / betiko gozatzea nere ametsa da / zeruko jardinetan, zerurikan bada”. Sortzen duenaren hizkera ere har daiteke kontuan, beraz, errima baten zuzentasuna sailkatzeko.

B, G, R, D kontsonanteek errima familia osatzen dute eta esan liteke R eta RR-k ere badutela ahaidetasunen bat. ‘Neguaren zai’ abestian “beroan, geroan, lerroan, erroan” errimatzen du Letek. Nolabait onar daiteke eroan, hegoan eta erroan hitzak hartzen badira hirurek errimatzen dutela, eta bikoterik urrunena hegoan eta erroan hitzek osatutakoa dela. Batzuetan oinen antolaketak berak ematen ditu interpretaziorako pistak. Letek zortziko doinuetan maiz antolatzen zituen letrak koplak bailiran. ‘Haizea dator ifarraldetik’ en, adibidez (ekaitza, emaitza; zalantza, balantza) bikoteen bidez osatzen du laukoa.

Aipatu diren azken lau oinetan ageri den bezala, oinaren barruan badaude distortsio txikiak, hoskidetasuna garbi-garbi mantentzea eragozten dutenak:

- ekaitza, emaitza; zalantza, balantza: bi silabako hoskidetasuna aitortu beharko litzaioke oin hauei (grabazio batek lagunduko luke baieztapena indar gehiagoz egiten). Azken aurreko silabako bokal indartsuena da eta haren ondoren datoz bi distortsio txikiak: Iedo N.

- biltzeak, ibiltzeak, umiltzeak, hiltzeak: kasu honetan ez dago distortsiorik. “Mintzeak” oina erabili balu ere hoskidetasun sendoa luke bertsoak; baina dagoen bezala distiratsua da.
- kontatu, hondatu: (‘Ez dut amets handirik’): oin bikote hau bokalean amaitutako hiru silabakoa da. D eta T ezberdinak dira, baina aurretik duten N horrek gehiago berdintzen ditu.
- kondena, onena, ogena, ordena: (‘Teologia, Ideologia’): errima laukote hau ere bokalean amaitutako hiru silabakotzat hartu behar da. O bokala mantentzeak garrantzia handiagoa du tarteko kontsonanteek sortu dezaketen distortsioak baino (“nd, n, g, rd”).

Zenbat eta bokal hoskide gutxiago, garrantzitsuagoa da tarteko kontsonanteen hoskidetasuna eta zenbat eta bokal hoskide gehiago gutxiago axola du tarteko kontsonanteak ere hoskide izateak. Adibidez, ‘Lore gorrien balada’ abestian “heldua, galdua, usteldua” errimatzen du. Kasu honetan, L letrak bokalak adinako karga (edo gehiago) izan dezake: negua/heldua < galdua, heldua. Antzerakoa gertatzen da ‘Teologia, ideologia’ abestiko lehen bertsoko errimekin (mundua, ondua, kontua, tontua) amaierako u eta a-z gain n-aren soinuak ere garrantzia handia hartzen du, segidan datorren kontsonantea apur bat eraldatuz. Goiko adibidean tarteko hoskidetasunak zaindu badira ere, “tipula” eta “digula” hitzek aski hoskidetasun badute. Kontsonantez amaitutako lau bokalekoan, adibidez, errimatu genezake “berrikoak”, “herriko hark” eta “gerriko bat”. Hainbeste hizki komunean izateak efektu sonoro intentsoagoa sortzen du berez paperaren gainean hobeto errimatu beharko luketen hitzek baino: denborak/gerriko bat < herriko hark/gerriko bat.

Errimaren kalitatea baldintzatu dezakeen beste faktore bat kontsonantearen gogortasuna da. Ez du efektu bera “erts” eta “ertz” errimatzeak eta “dut” eta “truk”. Erdibidean legoke “kebab” eta Bagdad” errima; kontsonanteen kokagunearen ezohikotasunak hoskidetasun handiagoa emango liokena.

Zati honetan errimek buruzko gogoetak bildu badira ere, errimen kalitatea estuki lotuta dago doinuen nolakotasunarekin. Alde handia egon liteke bertso bakoitzaren melodiaren arabera.

Leteren adibideak erabiltzearen, ‘Teologia, Ideologia’ doinuan (bertsolarientzat ‘Zeru altuan’ gisa ezagunagoa) oinaren hirugarren silabak garrantzia handia hartzen du lehen bi puntutan:

Sagarra kozkaz irentsi orduko
hor entzuten da KONdeNA:
‘hartu nahi hukek baratza hontako
fruta gozo ta OneNA

‘Habanera’ doinuan, berriz, azken aurreko silaba da indartsuena.

Tabako, ron ta kanelaz
sukartutako ameTSEtan
algarak entzuten ziren
Habanako puteTXEtan,

Gainerako doinu gehienetan (bertso doinuetan ohi den bezala) azken silaba da nagusitzen dena. ‘Neguaren zain’eko adibidea har daiteke. Kasu honetan, asko luzitzen du silaba oso kontudentea delako:

Ez nau beldurtzen egunsentian
arnas zuridun izoTZAK
nun dirudien bizirik gabe
natura zabal hiloTZAK

Hala ere, sorta honetan kalitate goreneko errimak (hiru silabakoak) darabiltzanez asko luzituko luke ‘Teologia, Ideologia’ doinuko kadentzian ere: IzoTZAK, HiloTZAK; BILtzeAK, iBILtzeAK.

Distortsio txikiekin jarraituz, batzuetan bokalen dislexia atsegin bat gertatzen da: zehazki segida berbera izan gabe, aipatzen diren bokalak berdinak izanda, belarriak berdindu egiten ditu hotsak. Adibidez, ‘Neguaren zai’n, “izotzak, hilotzak, bihotzak, oroitzak” =>ioa, ioa, ioa, oia) edo (“beharrak, amildegiaren larrak, aihen zaharrak, batzuren biharrak” =>eaa, eaa, ieaa, eiaa)

Bertsogintzan ohikoa da errima hobe baten mesedetan hitzak deformatzea. Idazle batek nekez hartuko lituzkeen lizentziak hartu ditzake bertsolariak. Zenbat eta abilagoa bertsolaria, baliabide honetatik gutxiago beharko du; baina aldi berean, zenbat eta luzeagoa bertsolaritzaren tradiziotik edandako tragoa, are naturalago egingo zaio hitz egokitu horren erabilera, bere *intake*-ean txertatuta baitaude hitz deformatu horiek. Erraz bistaratu daitezke horren adibideak Leteren abestietan errimatzeke erabiltzen dituen hitz horiek gainontzeko

testuan ez baitira “akastun”. Gogoratu daitezke ‘Langile baten seme’ko “nabile” edo ‘Euskalerrri nere’ko “duna” (“Illunpetako jarduna / heriotzak pakez beteko duna”), ‘Maiteaz galdezka’n ere badarabil: “Etixeruntz nindoala pentsatutzen nuan”.

Zenbaitetan oso errimatuak ez diruditen kantatan errima ageri da, hala nola ‘Ni naiz’-en:

Ni naiz
erreka zikinen iturri garbiak
aurkitu nahi dituen poeta tristea.
Ni naiz
kaleetan zehar neguko eguzkitan
lanera dijoan gizon bakartia.
Ni naiz
lorerik gabe gelditzen ari den
ardaska legorra,
ni naiz
pasio zahar guztiak kixkali nahi dituen
bihotz iheskorra.
Ez zaidazu galdetu gauza illun guztien arrazoi gordea,
nora ote dijoan denbora aldakorak daraman bidea.
Ni naiz
burrukaren erdian illunpetan etsita
amur ematen duen pizti beldurtia.
Ni naiz
ezerezetik ihes munduaren erdian
ezin aurkitutako amets urrutia.

Hain zuzen ere, askotan kontuan hartu ez den elementu bat hoskidetasunaren zailtasunarena da. Zenbait hitzekin errimatzea erraza da, objektiboki errima asko baitaude aukeran. Beste errima batzuekin, ordea, zaila da zortzikotea osatzea eta are zailagoa haietatik eratorritako diskurtso ez aleatorio baizik koherentziadun bat sortzea. Ez da samurra, esaterako, “prest” hitzarekin errimatzen duten hitzak erabiliz diskurtso errimatu bat sortzea –non eta ez den bidaia bati buruzko bertso bat sortu nahi–. Aurretik aipatutako adibide batean, sagarra eta ankerra ez lirakeke errima aberatsa kontsideratuko, baina gorazarre eta haserre hartu daitezke balekotzat. Oso hitz gutxi daude -rre amaitzen direnak eta ugari dira -rra amaitzen direnak. Zailtasuna, beraz, kontuan har daitekeen faktore bat da. Alor honetan, aipatu behar da Letek oparoak diren errimak erabiltzen dituela bere kantetan. Ohikoa baino zailtasun gehiagoko errimen artean ongile, eman, sortuz, edo bihotzak bezalako oinak nabarmendu daitezke. Erraztasuna eta zailtasuna ez daude, berez, edertasunarekin lotuta, baina adituenei sakonago gozatzeko bide eman diezaieke.

Euskarazko hitzak, deklinatu egiten direnez, errazkeria litzateke errimatzeko deklinazio hori daramaten hitzak behin eta berriz baliatzea. Hori epaitzeko zorroztasuna izatekotan, jakina, kontuan hartu behar da lortu nahi den efektua pilaketarena ez izatea.

Errimen errepassoa, kantaz kanta

Korpuseko kanten bi heren errimatuak dira. Hala ere, aipatu beharra dago Letek hoskidetasun zoragarriko kantak eta oso justukoak, biak, osatu zituela; baita errimarik gabekoak ere. Hurrengo taulan bere kantak sailkatu dira bertsoaritzatik begiratutako errima kalitatearen arabera. Hona sailkapena eta hura ulertzeko zenbait azalpen segidan:

Taula 7

Hautatutako 40 kantak, errimaren kalitatearen arabera sailkatuak.

Errima aberatsa	Errima edo/eta hoskidetasunak	Errima gabe
Euskalerra nere Lore gorrien balada Maiteaz galdezka Chile Ez dut amets haundirik Gizon arruntaren koplak Izarren hautsa Langile baten seme Cançó a Catalunya Xalbadorren heriotzean (II) Haizea dator ifarraldetik Gauaren ordezkoko eguna Teologia, Ideologia Amodio, amore Neguaren zai Biographia Henry Millerri eskutitza	Seaska kanta Nafarroa, arragoa Alzateko jaun Giza aberea Ni naiz Haur andaluz bati seaska kanta Otsoak eta txanogorritxu Herri zahar hontan Habanera Jardin bat zuretzat Zuk badiozu	Poeta hoiek Sinisten dut Gaua Festa bukatzean Lore bat, zauri bat Xalbadorren heriotzean (I) Aberri ilunaren poema Agian Eskeintza, nere aita zenari Ez esan, maite Malkoak euri balira

Errima aberatsen artean sailkatutako ‘Lore gorrien balada’ko lehen bertsoak poto egiten du:

Zelai ertzeko lore gorriak
neguak zapuztu ditu.
Neskatxaren ezpain eriak
zeinek laztanduko ditu?

Zenbait kantatan errima aberatsak eta pilakoak uztartzen ditu Letek. ‘Ez dut amets haundirik’-en, adibidez, errima aberatsak dira nagusi: “gastatzen-dastatzen”, “kontatu-hondatu” bezalako bikoteak; baina ez dira oin guztiak kalitate berekoak: “dago-oraino” bikotea erabiltzen du Letek, ‘Itsasoa laino dago’ abestian bezala. Beste kanta batzuetan estrofa bateko bi lerroren arteko jokia egiten du baina hurrengo estrofan ez du errepikatzen (‘Amodio, amore’-n, adibidez).

Zenbait kantatan behin eta berriz erabiltzen ditu errima aberats kontsideratzen ez diren oinak, baina aldi berean hoskidetasun ariketa interesgarriak egiten ditu. Adibide gisa, ‘Nafarroa, arragoa’-n o eta a bokalarekin duen jokia azpimarratu behar da: “osoa”, “loa”, “eroa”, “betikoa”. ‘Otsoak eta Txanogorritxu’ abestiari burua gauza bertsua esan daiteke: abesti osoak i bokalarekin errimatzen du.

‘Alzateko jaun’ abestian “nonbait” eta “zain” bezalako errimak eta “zuzena” eta “lerdena” bezalakoak uztartzen ditu. ‘Ni naiz’ abestiaren kokagunea ere ez da argia. Errima aberatsak daude, hala nola, “gordea-bidea” eta “beldurtia-urrutia”, baina zenbaitetan “tristea-bakartia”-ren mailako bikoteak egiten ditu (oiartzueraz /tristia/ ahoskatuko zuen sorreran akaso). Berdin ‘Otsoak eta txanogorritxu’-n ere (“bidetik-erditik”, “ekarri-janari”). ‘Herri zahar hontan’-en, oro har, hoskidetasuna betea da, baina aurretik aipatutako irizpideen arabera baditu zenbait traba (“laztana-zakarra”, “gurpila-bizia”...); bi bokalak mantentzen ditu baina ez kontsonantea bigarren eta laugarren estrofatan. ‘Haur andaluz bati seaska kanta’ abestian, lehen estrofan errima sistema bat darabil eta desegin egiten du ondoren. Hipotesi bat izan daiteke lehen estrofa idatzi zuela hasieran, bere errima-egitura eta guzti, eta ondorengo estrofatan, egiturak nahi zuen mezua ematea baimentzen ez zionez, nahieran moldatu zuela. Haratago ausartuta, hori abestitz batean baino gehiagotan egin zuela hipotetizatu liteke, eta horren bidez idatzi zuen lehen estrofa jakitera ere iritsi daiteke aztertzailea agian.

‘Seaska kanta’-ri dagokionez, lauko txikiz osatutako kanta bat dela esan liteke, nahiz eta lehen estrofa zortziko txikitat ere hartu daitekeen. Errima malgutasunak haren kalitatean ez ezik egituran ere sortzen ditu galdera-ikurrak: estrofa bakoitzeko azken lau guztiak I-rekin errimatzen dute. Kantari batasuna ematen dio horrek.

‘Jardin bat zuretzat’eko bertsoak metrikoki perfektuak dira, eta errima aldetik ez dira kaxkarrak nahiz eta hobetu daitekeen errimaren bat badagoen bertso tradizioetik begiratuta. Merezi du hirugarren bertsoan lupa jartzeak: batetik, hiru bokaleko (a-e-a) hoskidetasuna mantentzen duelako (“-ak gera, -kan, be(he)ra, plazerra, bazera, -za bera”); eta bestetik, R bikoitzaren eta bakarraren arteko hoskidetasuna baimentzen diolako bere buruari. Iparraldeko bertsolarien sortatan maiz erabiltzen da lizentzia hori eta zilegi da (“negarra” eta “bada” hitzek errimatzen dute). Izan ere, Lapurdi, Zuberoa eta Baxenafarroan ahoskera ezberdina dute R-ek eta horrek hoskidetasun arau ezberdinak ezartzen ditu. Xalbadorren bertsoen miresle izanik, bere buruari ere baimendu egin zion Letek. Hona Xalbadorren Bakeari buruzko sortako bertso bat adibide gisa:

Jo arazten diete bi belaunez lurra,
ixilik egon ditentzikatik zintzurra;
utitzeb badute're heien arrangura,
ez diete itzaltzen barneko su hura;
bake sortaraztaile txarra da beldurra. (1976, 250)

Aita Donostiak (d.g) jasotako ‘Amodioa zoin den zoroa’ izeneko sortako ale batek errima berarekin osatzen du bertsoa:

Martxoko hormak galduko duen lore pollit goiztiarra,
ta eihartzerat bortxatua den aizeak hautsi abarra:
ene bihotza ez daitakea gauza horier konpara?
Nehoz euea ez da izanen maitatzen dutan izarra,
hortaz oroitzu maiz etortzen zaut nigarra begietara.

‘Aberri ilunaren poema’ errima gabeen multzoan kokatu da, baina kanta honek badu aztertzaileak ukatu ezin duen i bokalaren gailentze eder bat lerroen amaieran: “desesperatuki, beterik, herri, umeeekin, atzerri, zekenekin, beterik”. Errima izateko, ordea, koherentzia gehiago beharko luke aztertzailearen iritziz.

San Martin, azken larrosa’ bezalako itzulpenetan goi mailako errimak erabiltzen ditu: “ekaitzak-emaitzak”, “jantzia-ontzia”.

Bere kantagintzako errima laukoterik distiratsuen ‘Haizea dator ifarraldetik’-en erabiltzen duena da:

Etxea hustuz badoa ere noizpait bazuen biztunik,
ez dut onartzen orde zatorren maizter aldrebes hitzunik.
Iñork ez baitu ausart hartu nahi berezko karga astunik,
gurdi okerra zuzen lezaken dotriñarikan ez dut nik.

Bi silabako hoskidetasunaren aurreko txistukariak bokal baten pisua, edo are handiagoa, hartzen du. Lehen bi oinak -dun atzizkiarekin sortutako hitzak dira, txirotu egin zezaketen errimaren aberastasuna baldin jatorrizko “hitz” eta “biz(i)”-ek ere errimatuko ez balute. Azken oina kategoria gramatikal ezberdinekoa izateak arnasa ematen dio bertsoari.

Neurri estandarrak erabiltzeko joera handia duenez, Leteren errima gehienak jarraituak dira; baina errima gurutzatuak ere erabiltzen ditu kanta zenbaitetan. ‘Chile’ kantan, adibidez:

A Zail da eskuratzen zatia, zail da ixiltzen gosea
B zail da larrutzen zerria gehienetan,
A zail da dutenei kentzea, zail da bilutsia jaztea
B zail mendiak berdintzea bazter guztietan,
A zail da negar egitea, zail da aurrera begiratzea
B zail bideak bilatzea batzutan.

Hala ere, hurrengo estrofatan egitura silabikoa mantentzen duen arren, errima sistema aldatu egiten du; sinpletu egiten du. ‘Izarren hautsa’ n ere gauza bera egiten du; baina, kasu horretan, lehen estrofa da malguagoa bigarrena baino:

A Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai,
A hauts hartatikan uste gabean noizpait giñaden gu ernai.
B Eta horrela bizitzen gera sortuz ta sortuz gure aukera
B atsedetik hartu gabe: lana egiñaz goaz aurrera
- kate horretan denok batera gogorki loturik gaude.

A Gizonak ba du inguru latz bat menperatzeko premia,
A burruka hortan bizi da eta hori du bere egia.
B Ekin ta ekin bilatzen ditu, saiatze hortan ezin gelditu,
B jakintza eta argia; bide ilunak nekez aurkitu
A lege berriak noizpait erditu, hortan jokatzuz bizia.

‘Biographia’ abestia da errima gurutzatuen beste adibide garbi bat. Sonetoaren egitura bere egiten du Letek:

A Nere izatearen ordu ilunenak maite ditut orain
B haiek zirelako kontzientziaren ingude garratza,
B itzaltzeaz delarik zentzu iratzarrien lorezko baratza
A ezin baitut hazia gatzak estali zuen lur antzuan erein.

D Zuhaitz heldua naiz hilobiari itzal isil dagiona,
E menturazko ametsa gazte batek noizpait abesti egina:
E atsedena baliz ausaz iraunkorra eta lotan grina
D bere soseguan argitsu litzateke lurrezko gizona.

F Itzuliko dira exaltazio baten elikagai zaharrak,
f uda ederrarekin kankak asmatutako irudi galkorrek
F gorputzak, irriak, mahastien urrea, pozaren abarrak.

f Ez du idatziko liburu zaharren mutu eta gorrak
F zorabio batean nahasten direlarik begi hain nabarrak
f azken arnasarekin ordainduko ditugu aintzinako zorrak.

Azken sei lerrotako errimatan jolas interesgarri bat egiten du poetak -orrek eta -arrak txirikordatuz. Bere kasa aski hoskidetasun izan dezaketean hitzak konbinatzen ditu.

Aipagarria izan daiteke, bestalde, “orain” eta “erein” hitzen hoskidetasuna. Bertsolaritzaren ikuspuntutik errima eskas kontsidera daitekeena, baina literarioki hoskidetasun handia dutenak.

Gaur egungo bertsolaritzan ez da ohikoa plurirrimoa, eta ezta errima gurutzatuak eta besarkatuak erabiltzea ere. Oin bat hautatu eta bertsoa harekin (bakarrarekin) soilik osatzen da ia beti. Hala ere, badaude zenbait bertso errima bat baino gehiago dituztenak. ‘Juana Bixenta Olabe’ eta ‘Ia guriak egin du’ dira plurirrimoaren bi adibide on:

A Nagusi jauna, hauxen da lana!,
A amak bidaltzen nau berorregana.
B Ai bidalduko bazinduke maiz!
B Zu ikusita konsolatzen naiz,
D sinistra zazu:
D oso zoraturikan naukazu!
D Horren polita nola zera zu? (Bilintx, 1874)

A Ia guriak egin du,
A badegu zeinek agindu.
A Ez oraindik umildu,
A alkarrengana bildu.
B Gerra nahi duen guzia
B berari kendu bizia. (Xenpelar, d.g.a)

Natxo de Feliperen arabera Iparragirre berarena den doinuaren gainean Xenpelarrek hari jotako erronka jasotzen duen bertsoak –‘Iparragirre abila dela’ doinuak– jatorrizkoan ez ditu errimak besarkatzen. Gaur egun, ordea, molde horretan erabiltzen da. Hona, Xenpelarren bertsoa eta Andoni Egañaren 1993ko bertso bat:

- Iparragirre abila dela	- Barruan dezu ezinegona
A askori diot aditzen,	A ta mingainean pozoina;
- eskola ona eta musika	- orain artean neskatxa zinen
A hori hoiekin serbitzen.	A orain bihurtu nahi <i>doña</i> ;
A Ni ez nazu ibiltzen	B polita zera, baina
A kantuz dirua biltzen,	B ni ere, alajaina,
B komeriante moduan.	A oso neskatxa moñoña;
- Debalde festa preparamen det	- igual, neronek jarriko ditut
B gogua dedan orduan. (Xenpelar, d.g.b)	B soinekoa eta soina. (Egaña,1993)

Doinu hau bat-baterako erabiltzen den errima besarkatutun doinu bakarretakoa da. Beste bat ‘Izarren hautsa’ren bariazio bat da. Elortzak 2009ko Txapelketa Nagusian saiakera interesgarria egin zuen norabide horretan bertsoetan oinarrituta. Elortzak Laboaren melodia hartu zuen oinarritzat, baina Leteren errima egitura zuen ekarpen nagusi. Hona, bi bertsoen errima sistemaren alderaketa:

- Ikastolako ipuinak beti	- Izarren hautsa egun batean
A erakargarri niretzat.	A bilakatu zen bizigai,
- Gaur entzun ditut otsoen kontu	- hauts hartatikan uste gabean
A eta basotako ertzak.	A noizpait giñaden gu ernai.
B Orain hemen naiz neure ohean	B Eta horrela bizitzen gera
B eta akorduak datoz oldean	B sortuz ta sortuz gure aukera
A hartz txikitxo bat kideztat	D atsedetik hartu gabe:
- ahizpa bat edo neba txiki bat	B lana egiñaz goaz aurrera
A edukiko banu behintzat!	B kate horretan denok batera
- Baina ez dakit nola etorriko	D gogorki loturik gaude.
A zaizkidan gaurko ametsak.	
D Ate azpiai nago begira	
D agertuko al da argi dirdira?	
A Gau ilunak eta beltzak	
A arrisku dira haurrentzat.	

5.3.2 Neurriak

Kantariaren eraginik markatuena ziurrenik metrikari dagokionean ezar daiteke. Bere kanta gehienek bertsolaritzaren zuzeneko eragina dute. Ez da erraza zehazten bertsolaritzaren eragina duten, edo modu zabalagoan ulertuta Euskal Herriko literaturako tradizioarena. Lan honek bertsolaritzaren markoa lehenetsiko du. Atal honetan, lehenik bi doinuren azterketa egingo da eta ondoren doinu guztien sailkapen bat proposatuko da.

Letek 1978an *Herri Irratian* egindako elkarrizketan aipatu zuen 1972an hasi zela abestitzak sortzerakoan bertsolarien eredua jarraitzen. Hitzak neurtzen eta egitura aldetik erregularragoak ziren egiturak borobiltzen saiatu zela dio; hala, estilo herrikoi batera hobeto hurbiltzen zelako (Lete, 1978a).

‘Habanera’

‘Habanera’ da 8 silabako berdinen doinurik errepresentatiboena. Berdinek silaba kopuru bera dute lerro bakoiti eta bikoitietan eta ohikoenak zortzi silabakoak dira.

‘Habanera’ Muruak eta Peñagarikanok hedatu zuten 90. hamarkadan. Bertsolariek bakarkako lanetan doinu luzeak hartzeko estrategia nagusitu zenetik erabilienean artean kokatu zen. 1997ko Txapelketa Nagusian Maiak eta Irazuk ale gogoangarriak sortu zituzten doinu horretan eta horrek oso ezagun bihurtu zuen. Xenpelar Dokumentazio Zentroko datu basetan 109 bat-bateko bertsoaldi eta bestelako 19 bertso-sorta daude bilduta (2021eko datuen arabera). Nagusiki bakarka erabiltzen dela kontuan izanda, kopuru hau oso altua da.

Izatez, hain erabilia izateak asperdura moduko bat ere eragin zuen eta ondorioz bertsolariek egitura bereko doinu berriak asmatu dituzte: ‘Arratsalde on entzule’ (Iñaki Aranagak konposatua eta Beñat Lizasok erabilia lehenengoz), ‘Boligrafoa eskutan’ (Iñaki Gurrutxaga), ‘Doinu honen izena da’ (Mikel Markez / Alaia Martin), ‘Gure herri txiki hau da’ (Bebe / Xabier Silveira), ‘Haur bat izateko nahiak’ (Luz Casal / Jon Martin), ‘Irun badaukazu zerbait’ (Andres Calamaro / Aitor Sarriegi), ‘Afari ikaragarri’ (Jon Manzisidor / Jon Maia), ‘Lau urtez behin txapelketa’ (Iñaki Apalategi), ‘Norbere mundu intimo’ (Maialen Lujanbio), ‘Tabuak

min direnean' (Jose Mari Ostolaza 'Xalbardin' / Sustrai Colina), 'Ze ederra ta ze polita' (Nerea Urbizu / Julio Soto). Hamaika doinu hauek ahaidetuta daude 'Habanera'rekin. Hura dute inspirazio iturri.

Espainiar literaturan ohikoa da zortzi silabako lerroen erabilera eta kanta askotan topa daitezke horren adibideak. Aipatu diren bertso doinu askoren jatorrian halako kanta daude.

'Seaska kanta'

Errima eta neurria estuki lotuta daude; errimadun hitzak, oinak alegia, markatzen du puntu baten amaiera. Azter dezagun 'Seaska kanta' abestia, adibidez. Zortziko txikitat sailka liteke, melodiaren logikak hala izendatzera bultzatzen du; baina plurimoa da (bi errima ezberdin uztartzen ditu pieza bakarrek). Errimari soilik erreparatuta bigarren zortziko txikia eta hirugarrena bi koplak txikiren uztarketa dela esan liteke:

6 A-ma-ren bu-la-rra
6 haurraren ja-na-ri,
7 hau-rra-ren ne-ga-rra
6 be-ti hun-ki-ga-rra;
7 ba-ratz ho-nen er-di-an
6 go-se-ak na-go ni,
7 zu-re bu-lar laz-ta-nen
6 an-tsiz ta e-ga-rriz.

Joera ohikoa da hau Juan Mari Lekuonak (1994, 1197) zionez Bizkaiko zortziko txikietan, adibidez. 'Maritxu nora zoaz' bezain doinu ezaguna jartzen du adibidetzat.

Lehen bertso lehen lerroak berezitasun bat du: silaba ditu, eta ez zazpi. Alde batetik, pentsa daiteke "Amaren bularra (da)" gehituta aski lukeela neurria modu egokian betetzeko. Aditza gehitzeak, ordea, Txirritaren bertsoek hain berezko duten elipsiaren estilazioa eragotziko luke. Azalpen logikoena da Letek literatura espainiarreko metrika modu kontzientean edo inkontzientean barneratua zuela eta melodiaren azentuak markatu ziola metrika:

Haurraren bulaRRA 6 (+1)

Handitzen zeraNEan =7

5.4 Letren sailkapena

Bertso doinuen eta Leteren kanten artean dagoen harremana zenbaterainokoa den bistartzeko autorearen kantak sailkatu dira. Bi sailkapen ezberdin egingo dira. Lehen sailkapenean metrika (forma) hartuko da sailkapen irizpidetzat; bigarreanean, aldiz, ahozkotasunarekin zerikusia duten markak.

5.4.1 Metrikaren arabera

Lau ataleko sailkapen metrikoa burutu da. Ataletako batean bertsolaritzarekin harremanik ez duten doinuak zakuratu dira. Gainontzeko hiru atalek badute bertsolaritzako metrikarekin harremanik: lehen sailean bertsolaritzan ohikoa den metrika darabilten doinuak kokatu dira. Horietako batzuk, gainera, normaltasunez erabiltzen dira bat-bateko bertsogintzan eta beste batzuk ez dute jauzi hori eman, egitura aldetik horretarako egokiak izanagatik. Sailkatzen zailagoak diren beste kanta sorta bat ere bada. Sorta honetako kanteak 6, 7, 8 edo 10 silabako lerroak dituzte nagusiki, baina ez dute ohiko egitura bat osatzen; alegia, ez dira ez zortziko txiki, ez hamarreko txiki, ez lauho handi, ezta doinu berezi tradizioidun bat ere... bertso libreak dira, lerro solteen konbinaketa.

Taula honetan ikus daitekenez, Leteren lan gehienek badute metrika tradizionalaren kutsurik:

Taula 8

Bertsolaritzako metrikak eta Leteren kantak

Taldeak	Zenbat	Gehiketa
Bertsolaritzarekin estuki lotuta dauden abestiak	19	19
Bertsolaritzarekin harremanen bat izan dezakete	8	27
Apenas duten harremanik bertsolaritzarekin	13	40

Sailkapena egiteko beharrezkoa da orokortzeak egitea eta salbuespenak barkatzea. Alegia, ‘Amaren bularra’-n aipatu den *akatsaren* antzekoak ez dira aintzat hartu. Kanta osoa zortziko txikia bada eta estribiloa ez, bigarren hau ez da kontuan hartu. Esaterako, ‘Altzateko jaun’ abestiak hasieran ez du bertso neurriekin lotura zuzenik, baina ondoren zortziko handi plurirrimoa delako sartu da lehen sailean:

10/8 Bide batetik okertu gabe kanta dezagun bertsua
10/8 isil-isilik esan dezagun eukaldunen sekretua:
10/8 herri zahar baten oharpen haiek nora ditugun galduak
10/8 zenbat itxura alda lezazken eguna hil zuen gauak.

Sailkapenak bertso gintzako metrikaren eraginaren isla garbia da, osotasun gisa sendotasuna hartzen du. Bertsolaritzarekin nola-halako harreman bat badute 40tik 27 kantek eta bertsolaritzaren egiturarekin bat egiten dute 19k.

Honakoa da goiko taula osatzeko egindako sailkapena, xehetasun gehiagorekin:

1. Bertsolaritzarekin harreman zuzena dute:
 - a. Bertsolaritzan ohikotasunez erabiltzen diren doinuak: ‘Seaska kanta’, ‘Haizea dator ifarraldetik’, ‘Izarren hautsa’, ‘Habanera’, ‘Teologia, ideologia’, ‘Neguaren zai’, ‘Jardin bat zuretzat’,
 - b. Bertso gintzarako balioko luketen doinuak, baina erabiltzen ez direnak: ‘Lore gorrien balada’, ‘Euskalerra nere’, ‘Maiteaz galdezka’, ‘Altzateko jaun’, ‘Ez dut amets handirik’, ‘Langile baten seme’, ‘Otsoak eta Txanogorritxu’, ‘Cançó a Catalunya’, ‘Gauaren ordeko eguna’, ‘Aberri ilunaren poema’, ‘Henry Millerri eskutitza’, ‘Zuk badiozu’
2. Bertsolaritzarekin harremanen bat izan dezakete: ‘Giza aberea’, ‘Nafarroa, arragoa’, ‘Ni naiz’, ‘Herri zahar hontan’, ‘Lore bat, zauri bat’, ‘Xalbadorren heriotzean (II)’, ‘Amodio, amore’, ‘Biographia’.
3. Apenas duten harremanik bertsolaritzarekin: ‘Poeta hoiek’, ‘Sinisten dut’, ‘Festa bukatzean’, ‘Gaua’, ‘Ez nazazu utzi (I)’, ‘Chile’, ‘Haur andaluz bati seaska kanta’, ‘Herri zahar hontan’, ‘Xalbadorren heriotzean (I)’, ‘Agian’, ‘Eskeintza nere aita zenari’, ‘Ez esan, maite’, ‘Malkoak euri balira’.

Zortzi silabaz osatutako lerroak topa daitezke bere kantetan. Espainiar literaturatik edo europarretik jasotako eraginaren ondorio izan daitezke. Euskal Herriko neurri zaharretan 8/7 silabako doinuetan ageri dira zortzi lerrokoak eta baita handiaren moldekoetan ere, errimatzeko lerrotan. Leteren eraginez bihurtu zen ohikoago zortzi silabako lerroa bertsogintzan. Beraz, bertsolaritzak Leterengan zuen eraginaz ez ezik, derrigor hitz egin behar da Letek bertsolaritzan izan duenaz.

Berak sortutako doinuak eta berarentzat sortutakoak (Karlos Jimenezek, Antton Valverdek,...) bertsogintzako erabilienetarikoak dira. Lete bertsolaritzara doinu gehien ekarri dituen artisten artean dago. Xenpelar Datu Baseak (2021) bera sortzailatzat jotzen duten 41 doinu jasotzen ditu; haietako batzuk herrikoiak dira eta bere ahotsean grabatu ziren lehen aldiz. Inor gutxi egin du pareko ekarpenik doinuen alorrean. Erabilpen gehien erregistraturik dituen doinua ‘Zeru altuan zegoen jaunak’ deritzona da (‘Teologia/Ideologia’ abestia). Ondoren, ‘Habanera’ eta ‘Haizea dator ifarraldetik’ dira gehien erabiltzen diren doinuak.

5.4.2 Ahozko estiloaren arabera

Moldea eta mamia ditu bertsoak eta batak besteari eragiten dio. Leteren lanean bi hauen azterketa egin da. Moldeari gutxiago eta mamiari gehiago erreparatzen dion sailkapena ere egin daiteke.

Leteren kantez ez dute estilo bakarra. Zenbait kanta zuzenak dira, lehen kolpean ulertzeko modukoak eta komunikazio zuzenari ematen diote garrantzia. Letra hauek bat-batean sortutakoen ezaugarri batzuk dituzte: konpontzen errazak diren zenbait akats dituzte, jauzika doaz eta narratzaile aldaketa bat-batekoak dituzte. Beste kanta batzuk, ordea, nekez uler daitezke lehen kolpean; idatziko ereduari lerratzen zaizkio.

Aipatutako irizpide hauek kontuan hartuta, bitan bana daitezke Leteren kanteak:

- Bertsolaritzaren eragin nabarmena duten kanteak 18
- Bertsolaritzaren eragin murriztagoa duten kanteak 22

Kasu askotan bat datoz metrikoki bertsolaritzaren eragin nabarmena duten kantak eta ahozkotasanaren eragin nabarmena dutenak.

Alde batetik, sortze prozesuak berak ematen die ahozko estiloa. Kantak letratatik hasteko ohiturak gidatuta, beste doinuren baten gainean pentsatu ditzake autoreak. Hitzak neurrian enkortsetatu beharrak elipsiak ugaltzen ditu, konjuntzioak ezabatu, zenbait akats eginarazi... eta horiek guztiek ahozkoaren estiloa areagotzen dute. 'Euskalerra nereia', 'Maiteaz galdezka', 'Seaska kanta', 'Ez dut amets handirik', 'Gizon arruntaren koplak', 'Langile baten seme', 'Teologia, ideologia' eta 'Henry Millerri eskutitza' kantak bertso sorta kontsidera daitezke. 'Zuk badiozu', 'Lore gorrien balada' eta 'Otsoak eta txanogorritxu' abestiek ere ahozkotasanaren ezaugarri asko dituzte.

Hala ere, zenbait kanta metrikoki zortziko handiak izanagatik, ez dira oso ahozkoen zerrendan jarri. Haien mezua ez da lehen entzunaldian ulertzeko modukoa. 'Neguaren zai' abestiak, adibidez, lirika lehenesten du komunikazioaren aurretik:

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan
izadiaren joan geldian
gizalditako lerroan
guzia present bihurtu arte
nor izanaren erroan.

Aipatutako kantaz gain badaude sailkatzen oso zailak diren zenbait kanta. Horregatik, sinesten dugu kantak bi multzotan ez ezik graduazio batean kokatzea beharrezkoa dela. Graduazio horretan, 40 kantatik 9 erdialdean kokatuko liriteke (aurrerago bistaratuko dira zeintzuk). Aurretik, sailkapenaren irizpideak eta zalantza gehien eragiten duten kasuen arrazoiketa egingo da.

Ahozkotasanak erangindakoen aldean sailkatu dira 'Sinisten dut', 'Izarren hautsa', 'Cançó a Catalunya' eta 'Gauaren ordeko eguna'; ez hain ahozko gisa, berriz, 'Poeta hoiek', 'Habanera', 'Haizea dator ifarraldetik', 'Neguaren zai' eta 'Jardin bat zuretzat'. Ikusi ditzagun sailkapena egiteko seinalagarriak zirela kontsideratu diren zenbait marka:

1. Lehen irakurtaldian/entzunaldian mezuaren gehiengoa ulertzeko moduko letra. ('Seaska kanta'). Horrek ez du esan nahi mezu askoz konplexuagoak barnebildu ezin ditzakeenik.
2. Hizkuntza aldetik, zenbait "akats" baimentzea errimaren edo neurriaren mesedetan bereziki ('Langile baten seme'). Hizkuntza bihurritzea, deformatzeraino. Agertzen badira, markadore indartsutzat hartuko dira. Agertzen ez badira, ez dute zertan aurkakoaren seinale izan, autorearen trebetasuna zenbat eta altuagoa, marka hauek hautemanegino dira. Bat-batean sortzen duenak akats lexikoak eta sintaktikoak egin ohi ditu eta komunztadura akatsak ere ohikoak dira.
3. Metrikoki, bertsolaritzaren moldeko egitura ehuneko handi batean. Estrofa eta estribiloa modu berezian azter daitezke. Bertsoak kanta bilakatzeak moldaketak egitea dakar zenbait kasutan; estribilo bat, adibidez.: 'Maiteaz galdezka' abestiko estrofa bertso moldekoak dira, baina estribiloa ez.
4. Tradizioko errima taldeen erabilera.
5. Mezu nagusia kokatzeko estrategia garbia ('Henry Millerri eskutitza').
6. Bertsolaritzan ohikoak diren baliabide erretorikoen erabilera, poesian ohikoagoak diren egiturak baino. Poematan, adibidez, ohikoagoak dira harridura-markak, galdera erretorikoak... Metafora modu ezberdinean erabili ohi da ahozko piezatan. Poematan ohikoak dira aditzen elipsiak, bertsoan normalean aditzak jokatu egiten dira ('Habanera') eta horren partez juntagailuak eta bestelako elipsiak ohikoagoak dira ('Gizon arruntaren koplak'). Juan Garziaren *Txirritaren baratzean* agertzen dira xehe eta adibideekin.

Seinale gehienek bertsolaritzarekin dute harremana, halako ikuspuntua hautatu delako; baina ez da ahozkotasunaren adierazpide bakarra. Elizako sermoi bat ere, ahoz jasotzeko diseinatua dago eta hala ahozkotasunarekin harreman erabatekoa du, beraz.

Ahozkoak idatzizkoa elikatzen du eta idatzizkoak ahozkoa. Sailkapen honen helburua ez da behin betiko eta eztabaida gabeko sailkapena ezartzea. Ikerlanaren helburua testuen kutsua seinaltzeko ahalegina egitea da. Norabidea markatzea, egindako bidea neurtzea baino. Hala, zalantza bide izan dira honako kantak eta eztabaidagarria izan daiteke haien kokapena:

Ahozkoen kategorian sartuak:


- ‘Sinisten dut’: Kantu hau modu prosaikoan idatzita dago. Anaforek garrantzia handia dute kantu honetan. Bertsolaritzatik urrun baldin badago ere, mezatako berbaldi batetik oso gertu dagoelako dago kategoria horretan.
- ‘Cançó a Catalunya’: Estribiloa “O, Catalunya!” harridura-marka poemaren aldera lerratzen da eta zenbait hitzen hautaketa (“zure altzoan”) poesiarako bidean egon daitezke, baina aldi berean egiten dituen metafora klaseak bertsolaritzan erabilitako antzekoak dira (“inoiz errausten ez dena baita zure egurra”). Metrika eta errima aldetik ere zortziko zaharraren eragina nabarmena da. Zalantza gehien sortu didanetako bat da kanta hau.
- ‘Gauaren ordezeko eguna’: Zortziko handi honek, moldez, ahozko egituren logika jarraitzen du. Edukiaren estiloa, ordea, Txirritarenetik oso aldendua dago. Izatekotan Xalbadorren aire bat du. *Lore bat, zauri bat* diskoan ahozkoaren eta ez ahozkoaren arteko oreka oso interesgarria lortzen du Letek. Estilo horren goi mailako agerpena ‘Haizea dator ifarraldetik’ abestia dela esan daiteke.

Ez ahozko kategorian sartuak:

- ‘Poeta horiek’: Kanta honen edukia nahiko modu prosaikoan adierazia dago eta zenbait laburdura ahozko hizkerarenak dira, baina zenbait lerrotan dituen galdera erretorikoek (“zer esan zun?”) eta zenbait harridura-markak (“Ai, poeta”) kategoria honetara lerratu dute.
- ‘Altzateko jaun’: Ahozkotasunetik aldendurik hasten da kanta, baina estribiloan nagusiki ahozko bihurtzen dela esan liteke. Hoskidetasunaren bila jarduten da kanta guztian zehar eta metrikoki ere hamar silabako lerroak dira nagusi. Edukia, ordea, kriptikoa da, lehenengo entzunaldian mezu nagusiak hautemateko nekeza. Bigarren honen pisua ponderatuta kokatu da poesiaren kategorian.
- Habanera: Bertsogintzan eragin gehien izan duen doinua izan bada ere, lehen kolpeko gutxieneko ulermenik ez du ahalbidetzen kanta honek. Metrikoki erregularra da eta errimak ere baditu, baina plurirrimoa da nagusi.

Irudia 23

Leteren kantak ahozko eraginaren arabera ordenatuak




5.4.3 Ahozko kanten garapena, diskoz disko

Letek argitaratu zituen lehenengo diskoak lau kantako maketak ziren eta ondorengo diskoetan berrargitaratu egin zituen kanta haietako gehienak. Leteren diskoetan kanta propioek hartzen zuten espaziorik gehien, baina bazituen euskal ondarea berreskuratzeko zenbait ahalegin. Aipagarria da letragile garaikideen lana ere integratu zuela bere diskoetan, haietako zenbait euskaldunak eta beste batzuk kanpokoak.

Diskoaz disko aldatu egin da ahozkoatasunak zuen karga. Segidan datorren grafikoan ikus daiteke disko bakoitzean zenbat kanta kontsidera daitezkeen idatzizko eta zenbat ahozko. Grafikoa egiteko hautatutako diskoak bere autoretzako letrak jasotzen zituztenak soilik dira eta kronologikoki ordenatuak daude.

Figura 28

Ahozkoatasunaren eragina diskoz disko



Oharra: Ahozkoatasunaren eragina duten letra kopurua (urdinez) eta idatzizko eragina gailentzen zaien letra kopurua (gorriz); beheko ardatzean. Diskoen laburdurak: Xabier Lete (XL), Lurdes Iriondo eta Xabier Lete (LI&XL), Kantatzera noazu (KN) Lore bat, zauri bat (L1Z1), Eskeintza (ESK), kontzertuko diskoa (KON).

Grafikoak lehen aldiz argitaratutako kantak soilik hartzen ditu kontuan. kontuan izan behar da Letek kanta zaharrak berriz diskoratzeko ohitura zeukala eta beste idazleen letrak ere musikatzen zituela. Azken diskoan, adibidez, grafikoak dio orekatua dagoela ahozko eta ez ahozko kanta kopurua. Hala da, lehen aldiz jasotako kantei erreparatuta; ez, ordea, argitalpen osoa kontuan hartuko balitz: azken diskoan ez ahozko kantak nabarmen gehiago izango lirateke bere kantarik ezagunenak eta Brelen itzulpenak izan baitziren ehuneko handi batean.

Leteren diskografia osoa hartzen bada, ondorioztatu daiteke hasierako diskoetan ahozkoaren eta ez ahozkoaren zama nahiko orekaturik zegoela eta *Kantatzera noazu...tik aurrera* (1976) hasten direla desorekak. Disko hura da Leteren ahozkoena. Harrigarri zaio diskoaren izena Gurrutxagari (2020b, 90) kanten transzendentzia kontuan hartuta, baina esaten denaren moldeak ahozkoatasunarekin eta mundu kantatuarekin duen harremana izan daiteke hautuaren gakoa, ez hainbeste mamia. Bi urte beranduago, *Lore bat zauri bat* (1978) diskoa kaleratu zuenean, Leteren norantza aldatu egin zen. ‘Teologia/Ideologia’ bezalako ahozko kantak izan arren ez ahozkoaren bidea askoz ere sakonagoa da disko honetan. Bide bera jarraitu zuen 13 urte beranduago kaleratu zuen *Eskaintza* diskoan ere (1991). Disko honen hasieran ahozko eragin nabarmeneko kantak daude, baina poesiara itzultzen da ondoren. Azken diskoak zuzeneko kontzertu bat biltzen du; harako prestatutako errepertorioa diskoratu zen. Ez da berak diseinatutako diskoa, beraz. Kanta berriei dagokionez, lau geratu ziren grabaturik: bi ahozko eta idatzizko ereduak beste bi.

5.5 Hiru adibide

Hurrengo orrialdeetan ‘Langile baten seme’, ‘Gizon arruntaren koplak’, eta ‘Teologia, Ideologia’ abestiak aztertuko dira bertsolaritzaren ikuspegitik.

5.5.1 ‘Langile baten seme’

Orain arteko sailkapenaren irizpideak nahiko ilunak gerta bazitezkeen, puntu honek argi foku bat piztu nahi du hiru kantari zehaztasun handiagoz helduz. Kantu hauetan ahozketasunaren zein ezaugarri topatu diren seinalatuko da, gainontzeko abestiekin egindako prozesua konprenitzeko. Aukeratutako kantuok Letek ahozketasunarekiko zuen loturaren adibide garbienak izan daitezke: ‘Langile baten seme’, ‘Gizon arruntaren koplak’, eta ‘Henry Miller-i eskutitza’.

‘Langile baten seme’ kanta langile klasearen kontzientziaz dihardu nazio ikuspegitik.

Langile baten semea naiz ni,
aita bezala langile,
eguneroko alegiñetan
soldata baten egile;
esku hutsik jaio eta
esku hutsikan nabile,
puntakoetan iñor etzaigu
gertatu ongile.

“Esku hutsik jaio eta esku hutsikan nabile” dio Letek eta esalditik bi irakurketa atera ditzakegu. Batetik, ohiko egitura bat dago, denboraren pasaera deskribatuz eta aldaketarik gertatu gabe, edo justu kontrakoa eginda: egoera guztiz aldatuta, letra askotan topa daitekeenaren antzekoa: “Ameriketara joan nintzen xentimorik gabe / handik etorri nintzen, maitea, bost miloiren jabe”. Bestetik, lerro berak “nabile” hitza darabil, nabil-en deformazioa. Oiarzuar batek ez luke horrela esango. Errimatzearen egindako aldaketa bat da, bat-bateko bertsolaritzan ohikoagoa izan daitekeena. Bat-batean ulergarri izan daiteke hizkuntza horrela behartzea, baina idatziz poeta batek ez luke halako lizentziarik “hartu behar”. Deformazio hau bera erabiltzen du “Parisan” errimatzen duenean “Parisen” errimatu beharrean.

Bertsolariak, bat-batean ari direnean bereziki, azken punturik hasten dira bertsoa eraikitzen. Ama ideia neurrira egokitu dutenean azken hitz horrekin errimatzen duten hitzen zerrenda egiten saiatzen da. Kasu honetan, Letek ongile hitzarekin errimatzen duten hitzen zerrenda egiten du eta zenbait izen "(langile, egile) inbokatzen ditu. Errima honetako oin guztiak, ordea, izenak dira eta horrek sortzailea egitura gramatikal zehatz batzuk egitera behartzen du. Horren emaitza da interesgarria izan daiteke zenbaitetan, baina normalean errepikakorra izaten da eta hobe izaten da ekiditea. Bertsoa sortzeko aukera gehiago ematen ditu izen, aditz, izenondo eta aditzondoak konbinazioak (egarri, jarri, larri, sarri) kategoria berekoen segidak baino (ahatea, tomatea, elefantea, aguakatea).

Errimekin jarraituz, bertso batean "batean, artean, kaltean, apartean" laukotea erabiltzen du Letek. Txirritaren bertsogintzan oso ohikoa den laukotea da. Txirritak edozein bertso sorta hasteko erabili ohi zuen formula hau edo oso antzekoa. "Urtean, partean, artean eta lurpean" onak ere oso ohikoak zituen. Oin horiek erabilia edozein gairi buruzko bertsoa idatzi daiteke, albiste baten galderei erantzuteko baliagarriak baitira (zer, non, noiz...). Txirritak normalean sortaren hasierako bertsoetan erabiltzen zuen, testuinguruaren berri emateko. Bertso paper hauetan hernaniarrak euskara pertsonifikatzen du eta harekin hizketan dihardu:

Ama gaxuak erantzun ziran
añ doñu triste batian
«Miñez ego n naiz juan dan berrogei
eta amabost urtian;
nere malkorik ezta legortu
ordutik orañ artian,
gure izkuntza maitagarriya
sartu nai dute lurpian,
baño gurekiñ ibilliko da
Kantabria'ko partian. (Zabala, 1992, 497)

Norteko ferrokarrilari jarritako bertsoek ere oinen formula bera darabilte:

Mila zortzirehun hirurogei ta zazpigarrenge urtean
lehenengo trena ikusi nuen Espainiako partean,
bide pixka bat bistan pasata inoiz sartua lurpean;
perra berriak erantsi dizte handikan orain artean. (Paya, 2013, 63)

Leteren estrofitan elipsi asko topa daitezke. Aditzen elipsiak ohikoak dira. Horrek testuari bertsolaritzaren estiloko kutsua ematen dio. Bertsoaren letra metrikan sartu beharrak eragiten du, berez, elipsia; baina urteen poderioz esamolde tradizional gisa gailentzen dira zenbait

formula. Ohikoa da, testu idatzietan ez bezala, koherentziarik edo komunztadurarik gabeko puntuak topatzea. Esaldiek 18 silabako luzera dute gehienetan. Gaur egungo zenbait bertsolarik enkabalgamenduak egiten dituzte. Alaiia Martin da horietako bat. 2015eko Gipuzkoako txapelketako buruz burukoko lehen bertsoa har daiteke adibide gisa. Lehen lerrotik bigarrenerako enkabalgamendua, lehenengo puntutik bigarrenerakoa, eta azkeneko bi puntuetan egiten duena erreparatzeko modukoak dira gaitasun tekniko eta gustu estetiko zehatz baten ondorio baitira:

Nikaraguatik atera
nintzen behin eta pixkana
topatu helburu bat
bizileku bat ta lana
baina faltan antzeman dut
Rosita etxeko dama
gu banatzeko kapaza
nola izan zen behin karma
sabelean mina ehuten
jardun zaidan armiarma
laster egongo da geldi
bera etortzean nigana
baina beldur naiz ze ote den
beraka esango didana
ikusten nauen unean
“Non ibili zara ama? (Zenbait Autore, 2015, 292)

Bertsoaren neurria exigentea da: zortziko handi baten egitura du oinarrian, baina azken puntua laburragoa du (‘Aizak hi mutil mainontzi’-ren estiloan) eta bosgarren lerroa 8 silabakoa. Honakoa du lerro sistema: (10, 8, 10, 8, 8, 8, 10, 6).

Sortak denboran egiten dituen jauziak ere aipagarriak dira. Zenbait esalditan, “...pendizan...paper artean ,, zomorroa izan” esaldia ere bertsolaritzaren estilokoa da guztiz. Bertso honen bukaeran, “Parisan” hitzarekin amaitzen du. Berrito ere errimatzearen deformatutako hitz bat topa daiteke, ahozkoan pasa daitekeen akatsa baina idatzizkoan konpontzeko modukoa. Puntu berean, “periodikuak” idazten du, “egunkariak” idatzi zezakeen lekuan. Testuari dena baino zaharragoaren kutsua ematen diote horrelako hitzek. Letek berak bertsotzat zuen sorta hau, halaxe katalogatzen ditu azken bertsoan “hamaika bertso....” nazue botia”.

5.5.2 ‘Gizon arruntaren koplak’

Gizon arruntaren koplak ere ahozkotasunez beteta daude. Aztertutako korpusean bertsolaritzatik gertuen dagoen kanta da honakoa, ‘Teologia, Ideologia’rekin batera. Lehen zortziko txikiak nahiko deskriptiboak dira:

Kantatzera noazu bertso bat edo bi
herenegun jarriak gizon arruntari
Antonio, Lorentxo edo Joxe Mari
gauza ederra denik ez ukatu neri.

Horietatik aurrera, elkarrekin loturarik apenas duten esaldiz beteta dago, poemaren sorrerak kasik dadaista dirudi. Kanta hau Leteren jostagarrienetarikoa da.

Bertso bakoitzeko bigarren puntua (“Antonio, Lorentxo edo Joxe Mari”, “aurrean papera ta atzean papera”, “kalean bi zakur ta beste hiru atso”, “batzuek loriyak ta beste batzuk miak”) pilaketan oinarritzen du Letek sorta honetan.

Bertsolariak tarteka puntukako ariketa egiten dute. Ariketa horretan bertsoaren kontrola galtzen dute sortzaileek, hasten denak ez baitu bertsoa bukatzen, eta kolaboratzaile duen bertsolariak zein oin erabiliko duen ez baitaki. Hori dela-eta esaldien arteko koherentzia galtzen da maiz, eta pieza xebreak atera daitezke. Hirugarren bertsoa koherentzia falta horren adierazgarri da:

Etxetikan lanera noa
nahiko mantso,
Realak kuarto-uno
galdu zuen atzo,
kalean bi zakur ta
beste hiru atso,
egun on don Pepito
eta don Alfontso.

Gaztelaniazko “Hola don Pepito, hola don José” abestia gogorarazten du azken puntu honek. Leteren bertso-sortako pertsonaiak lanerako bidean kalean ikusten eta entzuten dituen kontuak bertsotan jasoko balitu bezalako efektua lortzen du.

Laugarren bertsoan ere teknika bera erabiltzen du. Kasu honetan (ere) egunkaria irakurtzen ariko balitz bezala egiten du kontakizuna. Badirudi ordurako bulegora iritsita dagoela.

Bosgarren bertsoa da sortako bertsoarik surrealistenak; puntuak loturarik apenas duten elkarren artean. Forma aldetik zortziko txikiak diren bertsook hamarreko txiki bihurtzen ditu bi aldiz Letek.

Gauzak gaizki dabilta,
hau da komeriya,
Afganistan-en gerra
piztu zuten iya,
tokatzen baldin bazait
aurten loteriya
erosi beharko det
Zitroen berriya...
Ondo egon omen zan
Tolosan feria

Testualki ez ezik metrikoki ere ezustea gehituz. Entzuleriak azken puntua errepikatzeko joera du eta haustura planteatzen du hemen. Azken puntuaren errepikapena, bertso osteko txaloak bezala, konbentzio bat da, liturgia horretan diharduenarentzat automatikoa kasik. Ez du informazio interesgarririk gehitzeko erabiltzen, jolas hutsa da. Egunkariko kronika bat edo lankideren baten komentario bat dirudi azken puntuak.

Seigarren eta zazpigarren bertsoak, ordea, zentzurik gehien dutenak dira. Bertso-paper batean espero daitekeenari jarraitzen diote, baina dauden lekuan kokaturik egonik ironikotzat ere hartu daitezke. Berbalapikoren baten Pernandoren egiak zerrendatzen dira:

Ni lana egiña naiz
semiak hazteko
haiek eskola ona
xuxen ikasteko,
ikasi eta gero
lanian hasteko,
ez ditezela izan
bazterrak nahasteko.

Semeen semetatik
baidatoz semiak,
batzuek arrak eta
bestiak emiak,
batzuek loriyak ta
beste batzuk miak:
hala jarriya dauka
Jaunaren legiak.

Zortzigarren bertsoak bi zati ditu. Lehen bi puntuek istorioari aurrera eragiteko funtzioa dute eta azkeneko bi puntuek berriz ere kargarik gabeko bi esaldi dakartzate:

Gaurko eguna ere
bota dugu, bada
gizon okupatua
gauza ederra da
asko gustatzen baizait
oilluaren salda,
Mugairen hasten baita
Belateko malda.

Azken bertsoa, erotik arrazionalerako bidea josten du bueltan. Azken bertso honetan errepika testu berri bihurtzearen jolasa darabil bigarren aldiz. Oraingoan, ordea, informazio garrantzitsua ematen du: Bertso sortaren amaiera. Funtzioa indar gehiagoz bete dezan, behin eta berriz errepikatzen du azken puntu hau.

Ez naiz gizon txarra,
baiña, zer arraio,
Fidel Castro izateko
ez bainintzan jaio;
musian egiten det
makiña bat saio,
andriaren onduan
afaldu det iaio,
orain ohera noa,
bihar arte aio.

5.5.3 ‘Teologia, Ideologia’

Leteren bertso sortarik borobilena da ‘Teologia, Ideologia’. Maila honetako bertso sorta bat idazteko gai den pertsona bati bertsolari izendapena zor zaio. Neurri berean idatziak izanagatik ‘Neguaren zai’ bezalako bertsoetatik oso ezberdina da estiloz. Estilo zuzena du eta kontakizun bat txirikordatzen du. Kontakizuna ez da batere behartua; eta hain zuzen, horixe da kontakizuneko sorta bat idaztearen zailtasuna. Bertso sorta askok gai baten inguruko ikuspegia ematen dute eta halakotan aski da bertsoko ideia nagusi bat kokatzea eta hura esan-indarrez kargatzea; normalean azken puntua izaten da ideiarene kokagune. Kontakizuneko sortetan, ordea, puntu bakoitzak istorioari aurrera eginarazten dio eta askotan punturik indartsuena tartekatuta geratu daiteke, edo hasieran kokatu. Bat-bateko bertsoak pentsatzeko teknikarik erabiliena (eraginkorrena delako) lehenik amaiera pentsatzea izanik,

pentasa liteke aldea sumatu litekeela eraikitzeke bi sistema horiek sortzen dituzten aleetan. Lehen bertsoa eta bigarrena alderatuta adibide bat jarriko da segidan.

Lehen bertsoa sarrera borobila da, genesisia azaltzen du eta ironia mintzatzen da jainkoari buruz. Bertsoa lehen puntutik pentsatua dagoela dirudi eta handik abiatuta beherantz egiten duela. Ez dago amaiera indartsuaren pisu exajeraturik, bigarren bertsoaz, berriz aurkakoa esan daiteke. Hirugarren eta laugarren puntuak dira borobilenak eta *Abestitzak eta Poema Kantatuak*en hirugarren puntua eraldatu egin zuen (“Lehendabiziko askatu zuen / desioen kutxatila”) beraz, segurtasun handiagoz baieztatu daiteke azkeneko puntua dela pentsatu zuen lehena; lehen puntua betelan hutsa da bigarren bertsoan:

Zeru altuan zegoen jaunak
egina zuen mundua,
sei egunetan izerdi patsez
moldatu eta ondua.
Zazpigarrenez deskantsatzia
atera zuen kontua,
izadiaren igeltserua
etzen batere tontua.

Perfekziozko obra haretan
laister sortu zen nahaspila,
Adan maltzurra abiatzen da
sagar errearen bila.
Lehendabiziko askatu zuen
gerrikoaren hebilla,
Eba ikaraz zegoen baina
bekaturako abila.

Hirugarren bertsoa oinen hoskidetasuna azpimarratzekoa da: “kondena”, “onena”, “ogena”, “ordena”. Bertso honetan beltzez markatuko dira mezu nagusiak eta modu arruntean utziko dira ezabatuta informazio galera txikia suposatuko luketenak:

Sagarra kozkaz irentsi orduko
hor entzuten da kondena:
“hartu nahi hukek baratza hontako
fruta gozo ta onena;
hoa kanpora, lotsagabea,
eta paga zak ogena,
eskulanaren beharra zegok,
ematen diat ordena”.

Laugarren bertsoak kontakizunari aurrera egiten laguntzeko funtzioa du. Hautatutako oinak, aditz burutuak, dinamikotasun hori ahalbidetzen du. Bertsoa sortako grisenetakoa da, baina aldi berean giltzarri da, kontakizun biblikotik errealitateko jauzia egiten baitu. Hirugarren puntuak “Haurrak negarrez ikusten ditu, / andrea haserratuta” dio. Hurrengo bertsoan are gehiago puzten du protagonistaren etsipen momentua. Pilaketaren teknika erabiltzen du horretarako:

Adan badoa triste ta mutu
Paradisua galduta,
Bilbo aldera aillegatzen da
gaueko trena hartuta.
Haurrak negarrez ikusten ditu,
andrea haserratuta,
Altos Hornos-en peoi sartzen da
kontratua firmatuta.

Gertatutako deskalabruak
mingosten diozka gozuak,
eta gainera pagatu behar
piso txar baten plazuak.
Komodidade handirik ez du
proletario auzuak,
eta bizkiak erditzen ditu
bere emazte gaixuak.

Seigarren bertsoa itxaropen berri bat pizten da. Langileriari buruzko atalean aztertu dira Letek egin zituen aldaketak eta ez dira hemen errepikatuko. Hurrengo bertsoan ere Letek bere buruari egindako zuzenketa da aipagarriena:

Marx eta Lenin irakur ditzan
gehiegi nekatu gabe,
hiru astean egiten zaigu
fedea berri baten jabe.

Marx eta Lenin irakur ditzan
gehiegi nekatu gabe,
lehen izkutuan ta orain bistan
demokrazian baikaude.

Aldaketa, esan-indarraren aldetik, ez da onerako. Aldaketak normalean ez dira gustuko izaten aurreko bertsoia buruz zekienarentzat. Kasu honetan, ohiturak sortutako disonantziaz gain esan liteke lehen bertsoia fidelagoa zaiola izenburuari eta kanta sortzetiko zuen intentzioari. Bestalde, lehendik bertsoa zekitenek mentalki puntu zaharra ordezkatu egiten duten edo

zaharrari berria eransten dioten aztertzea interesgarria litzateke. Originalak bi federen gutxiespena zekarren eta bertsiio berriak hori limatu egiten du. Galdutako informazio matizatuagoa emateko bertso oso bat erantsi zion Letek:

Orain zerua lurrean dago
bukatu da erbestea
ez du merezi igande goizez
meza entzutera joatea,
fede berrian pozez gainezka
igarotzen du astea
ta espero du hurrengo iraultzan
mundua irabaztea.

Azken bertsoan interesgarria da oinetan -ama amaiera mantentzea. Ohikoena -ana izango litzatekeenean. Batez ere, “lana” bezalako oin pertinenteak kanpoan uzten baititu. Baliteke Letek m eta n familiako kontsonanteak zirela ez jakitea:

Eta horrela bihurtzen dira
teologiak programa,
nolabaitean arindu nahirik
gizonak daraman zama.
Ez baldin badu guztiz galdu nahi
nahiko eskas duen fama
Mosku aldera itzul liteke
Erromako elizama.

5.5.4 Beste kantei buruzko zenbait ohar

Badira ahozkotasuna bistakoa den kantu gehiago: ‘Seaska kanta’, adibidez, “zortziko txikian” idatzita dago eta elipsiak egiteko estiloa bertsoaritzarena da guztiz:

Amaren bularra,
haurraren janari
haurraren negarra
beti hunkigarri.

Txirritak egingo lukeen moduan ebakitzen ditu esaldiak, aditzik gabe egonik ere esaldiak bikain ulertzen baitira. Dударik ez dago bere inspirazio iturri nabarmenetakoa zela.

‘Lore gorrien balada’ izeneko kanta ere herri tradizioarekin lotuta dago. Balada tipiko bat da, non emakumea ezkontz-behartua den. Kasu honetan gizon heldu eta aberats batekin izan beharrean gizarte arazoekin konpromisorik ez duten gizonekin ezkondu daudelako epaitzen dira. Kasu honetan tradizioaren ezagutza nabari da, baina testuinguru sozio-politikora

egokitzeko lana dago. Juglareak ere halaxe eraldatuko zituen bere letrak gizartea aldatu zelako.

Udaberriko lili garbia,
gure lurrean heldua,
gaueko amets bat bezela
egunsentian galdua,
gizon dirudun baten etxean
hain gazterik usteldua.

Neurriz 10, 8, 9, 8, 10,8 da. Seiko handi baten tankera du, baina hirugarren lerroan silaba bat gutxiago du. Mamiari dagokionez, bertso bakoitzaren azken lerroan laburbiltzen du mezu nagusia. Aurreko betelanak Lekuonak aipatzen zuen (1998) errealismo magikora hurbildu daiteke, koplak zaharretan ageri denetara. Lehenik naturako erreferentziak txertatzen dira, itxuraz inora ez daramatenak, baina amaierako mezuaren ondoren esanahiz berritzen direnak.

Loreak zeinek jarri zituen
elizako aldaretan,
nagusiak ekarritako
zilarrezko ontzietan?
Orain larrosik ez dut ikusten
Euskalerriko kaletan.

Aipatutako koplak zaharretan, ordea, zortzi silabako lerrotan laburbildu ohi dira erreferentziak, zehaztasunaren kaltetan, baina hoskidetasunaren mesedetan. Hona Resurreccion Maria

Azkuek bildutako koplak bat:

Hor goian goian errota
garia dakarkio ta
etxe hontako etxeko-andrea
amabirgina debota (Azkue, 1895b)

5.6 Ahozkoaren indarra

Testu bat zein ezaugarrik egiten duten ahozko hausnartzea interesgarria da. Norabide horretatik aurrera egingo du kapitulu honek. Horien bidez justifikatuko da kanten sailkapena ere hein batean.

Urte luzetan zehar ahozko sortutako ondarea idatziz jaso izan da. Eskribauaren zuzenketak jasotzen ditu ahozko bertsio bakoitzak, eta ahoz eman zuenaren bertsioa da idatzita geratu dena. Normalean ahozkotasanaren inguruko ikerlanek hori frogatu nahi izaten zuten. Hemen, aurkako bidea jarraituko da: hasiera samarretik idatziz jasoak daude testuak, ez dago idatzizkoak direnaren dudarik; baina ahozkotasanak zein eragin izan duen aztertu nahi da.

Diziplina ezberdineko komunikazio ekintzak dira bertsoa, poesia eta kanta. Haien arteko mugak lausoak dira, ordea. Bertso bat izan daiteke poesia, eta kanta ere bihur daiteke. Tradizioak sorkuntzan duen eraginaren baitakoa izan daiteke kategorizazioa. Hedapena gertatzen den unean sortzaileak kategorizatu egiten du sinkronikoa bada. Sortzaile horren ibilbideak kategorizatu dezake. Aztertzaile batek birkategorizatu dezake, eta entzule soilak ere bai. Bertsolari batek poema bat sortzen badu, bertsozat hartua izan daiteke.

5.6.1 Kanten aurreko azalpenak


Poetak kantari hasi aurretik ematen zituen azalpenek kanten karga poetikoaren kontrapisu lana egiten zuten maiz. Leteri igorle eta hartzailearen arteko zubi hori eraiki eta mantentzea gustatzen zitzaion: “eszenatokitik publikoarekiko harreman horrek, komunikazio horrek, hor martxan jartzen dituen mekanismo horiek, eta hor sortzen diren gauza hunkigarri horiek eduki dezaketen arrakastak eta jendearen erantzunak asko motibatzen nau” (Lete, 2011, 52). Artistak entzuleriatik gertu sentitu nahi zuen. Gainera, huraxe zen Leteren indargunetako bat: bere komunikazio gaitasuna, oratoria ahalmena. Kontziente zen bere kantarik jasoenak nekez zirela lehen kolpean ulertzekoak eta testuinguruan jartzen saiatzen zen. Horrelakoetan, bistakoa zen bere komunikatzeko beharra. Kantek batzuetan behin eta berriz entzuteko aukera izaten dute, horrelakoetan ulertzeko aukerak biderkatzen dira; baina beste batzuetan

entzunaldi bakanak izaten dituzte eta, musikak entzulea harrapatu ezean, letrek ez dute ulertuak izateko aukerarik.

Leteren lorpenik gorena da bere kanta batzuk ia herrikoiekin nahasteraino hedatu zirela. Kanta hauek, gainera, ez dira kasu askotan batere sinpleak, pentsamendu sakonak dituzte. Euskalduntasunaren sinbolo bihurtu dira kanta hauek. Lord eta Batesen arabera (1995, 70) batasun hau posible egin duena entzulearen eta autorearen lotura izan da, kosmobisio beraren partekatzea: Performancea edonon izan daiteke, baina performatzaileak eta entzuleak bizitzari buruzko ikuspegi komuna dutenean zentzua bermatzen da.

Figura 30

Idoia Beratarbidek hasitako murala



Lordek zion (1995, 120) zenbait elementu daudela tradizioan: Ipuin kontalariak ordena sozialean duen lekua, kanta konposatzeko formulaz osatutako hizkuntza bat erabiltzea, eduki tradizionalak ezagutzea eta istorioen txantiloiak bereganatuak izatea. Letek kultur eta literatur ondarea menderatzen zuen eta birformulatu egiten zuen entzuleen belarriak asetzeko. Emaizta: dagoeneko existitzen zirela ziruditen kanta konposatzea. Eduki tradizionaleko testu kantitate handiak buruz ikasteak, edo irakurri eta barneratzeak, sortzeko orduan abantaila handia suposatzen dutela defendatzen du Gintsburgek (2019) jendartearekin partekatutako herri tradizioko egiturak eta formulak aktibatzen baititu.

Komunitatearen oniritzia duen pertsona batek, hizketa estereotipatuaren bidez, komunitate hori kohesionatzeko boterea beregutzen duela sostengatzen du Romanek. Hori izan zen Ez Dok Amairu kolektiboko kideen kasua. Jendaurrean geratzen diren performanceak, erritualak eta antolaketa, aztertu zituen Gorke Romanek bere tesian (2015, 246) eta merezi du, luze samarra den arren, haren hitzak berreskuratzea. Esaten dena eta esaten den modua bezain garrantzitsua, edo garrantzitsuagoa, da hitzok esaten dituenaren figura ikertzailearen esanetan:

El tercer y último elemento que determina la estructuración, desarrollo y legitimación ritual de la vida social, es la anteriormente mencionada performatividad. La representación ritual y los propios enunciados performativos, muestran y reafirman el orden y estructura de la vida social de una comunidad. Los enunciados performativos tienen la virtud de lograr que se realice lo que enuncian. La pregunta a la que debemos contestar es la siguiente; ¿Dónde radica la eficacia de los enunciados performativos y la del poeta que los articula? Maurice Bloch (1992) señala que la eficacia ritual reside en la forma en que el lenguaje es utilizado. Se refiere en definitiva al estilismo ritual y a la simbología empleada. Pierre Bourdieu (1985) por su parte, sugiere que la eficacia ritual no radica en el lenguaje en sí, sino que lo hace en la delegación social. Las palabras serían eficaces, no por su forma o estilismo, sino por quien las pronuncia. El sujeto que emita los enunciados performativos debe estar autorizado por la comunidad, ya que se trata de una delegación social. Afirmábamos anteriormente que J.L. Austin (1962) diferencia entre enunciados comunicativos y performativos. Austin plantea que ciertas expresiones no se limitan a comunicar, sino que realizan lo que expresan. Se trata de fórmulas que aparecen en campos como el derecho, la religión y otro tipo de ritos, y que van acompañados de una serie de palabras, herramientas, gestos o movimientos corporales que los convierten en performativos. Los poetas deben seguir las normas establecidas para la correcta consecución de los ritos orientados al fortalecimiento interno de la comunidad. El lenguaje utilizado por el poeta es estereotipado y por ello ha de seguir una serie de normas que lo conviertan en performativo. Los bertsolaris sin ir más lejos, deben seguir unas pautas métricas y rítmicas a la hora de cantar sus bertsos. (Roman, 2015, 246)

Hitzen eta idazlearen arteko harremana bi norantzako norabidea da: hitz arruntek har dezakete karga berezia autoretzaren arabera, eta autorerik gabe ere funtzionatu dezakete zenbait hitzek. Letek '33en manifestua' idatzi zuenean HBk bere ordezkapena eskatu zuen hurrengo ekitaldirako. Letek kontzertu hartan kantatuko zituen kantak idatzi zituelako hautatu zuten Lete kontzertu hartarako; baina poetaren zilegitasuna zen zalantzan jarri nahi zena:

Bourdieu también señala que la efectividad de la fórmula ritual depende de quien la diga. En opinión de este autor, el lenguaje no tendría un poder performativo intrínseco, ya que es el locutor quien se lo confiere al haber sido éste elegido por la comunidad para comunicar un determinado mensaje o discurso al interior del grupo. El poder del lenguaje performativo reside en su institucionalización, ya que esa característica es extrínseca al lenguaje en sí. Es la institución delegada la que le confiere ese valor a los discursos performativos, debido a que ésta representaría al deseo de la comunidad. No debemos obviar sin embargo, que su eficacia depende de la posición social del locutor, ya que el poder que ostenta éste, es un poder investido o delegado. Mientras que Bloch (1992) señala que el lenguaje performativo está presente en la esfera de la religión y la política, Bourdieu (1985) recuerda que éste se encuentra inmerso en una crisis de legitimidad en los campos señalados. Del mismo modo que Bourdieu afirma que la iglesia como institución está perdiendo su capacidad legitimadora, al tiempo que la delegación social no surte los efectos deseados en el seno de la comunidad; Michel Maffesoli (2005) sugiere que la política también está perdiendo su poder performativo debido en parte a que los ciudadanos han dejado de sentirse representados por la clase política, porque asocian más a menudo política y corrupción. La política ha comenzado a perder su poder legitimador y como consecuencia está dejando de ser una institución válida para la resolución de los conflictos en el seno de la comunidad. (Roman, 2015, 248)

5.6.2 Formulak

Letek idatzizko piezak sortzen ditu, baina itxuraz gauzak zuzendu eta bikaintasunera eramateko abantaila izan daitekeen elementu hori batzuetan ez du baliatzen. Bat-batean ari denaren estiloa mantentzea hobetsi zuen kanta askotan. Azken batean, Cánovas Páganek eta Mihailo Antovik azaltzen dute eguneroko hizkera ere ahozko formulaziotik oso gertu egon daitekeela:

Formulaic diction in oral poetry is essentially based on the skillful and agile manipulation of traditional phraseology and clichés, in the service of the tale. Therefore, the functioning of oral formulaic style is analogous to that of idiomaticity in everyday language, and thus requires the acquisition of similar communicative skills. The idea of formmeaning patterns with slots that are filled in through lexical selection is central to the process, which, far from mechanical, is highly creative, just like everyday speech is. (2016, 69)

Ahozko ondarearen ezagutzak ahalbidetzen zion Leteri ahozko estiloan idaztea. Formulekiko gustua garatu zuen eta horrek bere kantei bereizgarri propioa eman zien. Foleyk (2002, 40)

idatzizko ahozko poemez hitz egiten du, kontzeptu gisa kontraesankorra dirudien arren. Idatziz emandako ahozko poemak guztiz ahozkoak bailiran gozaten ditu entzuleriak.

Leteren baitan herri ondarearekin lotutako estiloarekiko maitasuna igartzen da, baina oso poesia jaso ere miresten zuen. Zenbait kanta hitzetatik abiatzen zituen Letek, musika gerora erantsi zien berak edo bere bueltako musikariren batek. Izatez bere sorkuntza gehienak liburuetan jasotako poemak dira:

Taula 9

Ahokotasun baxueneko kanten konposatzaileak

Abestia	Urtea	Musikaren egilea
Poeta hoiiek	1968	Xabier Lete
Giza aberea	1969	Xabier Lete
Alzateko jaun	1974	Xabier Lete
Nafarroa, arragoa	1974	Xabier Lete
Ni naiz	1974	Xabier Lete
Gaua	1976	Lurdes Iriondo
Festa bukatzean	1976	Lurdes Iriondo
Chile	1976	Xabier Lete
Haur andaluz bati seaska kanta	1976	Xabier Lete
Haizea dator ifarraldetik	1978	Xabier Lete
Herri zahar hontan	1978	Antton Valverde
Lore bat, zauri bat	1978	Xabier Lete
Xalbadorren heriotzean (I)	1978	Antton Valverde
Xalbadorren heriotzean (II)	1978	Xabier Lete
Amodio, amore	1991	Antton Valverde
Biographia	1991	Karlos Jimenez
Eskeintza, nere aita zenari	1991	Karlos Jimenez
Ez esan, maite	1991	Karlos Jimenez
Habanera	1991	Xabier Lete
Neguaren zai	1991	Antton Valverde / Mikel Laboa
Jardín bat zuretzat	2011	Karlos Jimenez
Malkoak euri balira	2011	Imanol Larzabal

Oharra: Ahozkotasun maila txikia duten kanten zerrenda, argitalpen urtearen arabera ordenatuta (koloreek diskoak bereizten dituzte) eta doinuaren egilea.

Beste sorkuntza batzuk, ordea, badirudi melodiaren gainean konposatutako letrak direla. Hala izanik, harremanetan jarri daitezke Letek berak musikatutako abestiak eta musikari profesionalak atondutakoak.

Letek sortu zien melodia berak idatzitako ahozko estiloko letrei: ‘Maiteaz galdezka’, ‘Seaska kanta’, ‘Ez dut amets handirik’, ‘Gizon arruntaren koplak’, ‘Izarren hautsa’, ‘Langile baten seme’, ‘Otsoak eta txanogorritxu’, ‘Cançó a Catalunya’, eta ‘Teologia, ideologia’ kantetan. Bestalde, aipagarria da dagoeneko existitzen ziren melodia herrikoien gainean idatzi eta kantatu zituen lehenengo bere abestiak: ‘Euskalerra nereia’ (Jose Maria de Garate) eta ‘Lore gorrien balada’ (Santa Eskerako doinu herrikoia, Aita Donostiak jasoa eta Nemesio Etxanizek grabatua).

Andoni Egañak (2004, 23) *Hogeiabina* liburua argitaratu zuen. Bertan bertsolaritzaren teorizazio lan interesgarria egiten du. “Joño”-ko eta “jakina”-ko bertsoak zer diren azaltzen du, besteak beste. Lehenengo saileko bertsoek entzuleria harritzea lortzen dute. Ateraldiak dira, pentsamendu dibergentea. Bigarren saileko bertsoek, ordea, entzuleriarekin bat egiten dute erabat, hark lehendik zekitena ondo borobilduz. Formulazioak Jakina-ko bertsoekin du lotura, herri baten ikuspuntua kontsentsuatuta uzten dute.

Letek kontsentsu hura formulatu zuen, kantatan eta hortik irakur daiteke bere arrakasta. Tarteka beste poeten idatzietan gozaten zuen sentipen haren antzeko batez, nahiz eta maila jasoago batean izan. *Irulegi irratiko* 2009ko elkarrizketa berreskuratuz, antzerako fenomeno bat jasotzen du Urienek bere liburuan:

Poesia benetako idazten dugunean gure izatetik besteen izaterainoko zubi bat egin nahi izaten dugu, eta poesiaren bidez ematen diogu hurkoari behar baldin bada berak bazuen baina adierazten jakin ez zuen ezagutza bat. Elkar kontsolatzen dugu, ze azken finean, nire zaurietan, nire zalantzetan, nire maitasun eta sufrimenduetan, nire sentimenduetan eta gogoetatan eta nik munduari buruz dudak juzgu horretan ziurrenik beste denak ere hor daudela gutxi gora-behera. Nik besteen poematan askotan aurkitu dut barnean neraman zerbait baina esaten ez nekiena ordura arte. (2020, 90-91)

5.6.3 Berridazteaz

Letek bere lanak behin eta berriz grabatu zituen eta zenbait aldaketa egiten zituen bertsioko bakoitzean. Berridazketa hau oso ohikoa da ahozko piezatan. Ahoz transmititutako lanak memoriaren arabekoak dira eta interpretatzen dituenaren berregiteko eta egokitzeko gaitasunaren arabekoak. Horregatik ohikoa da ikertzaileek lan baten bertsioko ezberdinak topatzea. Bertsioko hauek, normalean, ez ditu sortzaileak sortzen, erreproduzitzen dituenak baizik. Letek bere letren autoexijentzia etengabekoan ziharduen eta aldaeraz beterik iritsi da bere obra gure belarrietara. Bere funtsean, argitaratutako obraz gain, eskuizkribuak ere badaude eta Alex Gurrutxagaren tesiak maisutasunez aztertu du alor hau (2020a, 335), bai kantatan eta baita poesian ere.

Letrak zuzentzen jarduten zuen. Juglaren edo ipuin kontalariak egingo lukeen moduan, denbora joan ahala bere pentsamendua edo testuingurua aldatu ahala bere letrak ere aldatu egin zituen. Esaterako, 1969an kaleratutako ‘Maiteaz galdezka’ abestiaren lehen bertsiotik liburuan jasotakora aldaketa bat dago:

Bakardade haundi bat neukan bihotzean,
negar egiten nuen zutaz oroitzean.
Galdera egin nuen etsipen hotzean,
gizonok nora goaz mundutik hiltzean?

Hirugarren lerroan “galdera egin nion Jaunari hotzean” esaldia txertatzen du (2006, 54).

‘Habanera’ izeneko bere abesti famatua ez da lehen botean konposatua. Hiru poema ezberdin daude gutxienez letra horren sorreran. *Urrats desbideratuak* liburuko poema ezberdinetan zatituta topa daiteke eta kanta bihurtzeko birkonposatu egin zuen. Paveseren itzulpenarekin egin zuen antzeko prozesua egin zuen bere poema propioarekin.

Liburuko bigarren poema da ‘Iragan denbora arrotzaren itzulera’ deitutakoa eta kantaren ardatz nagusia:

Iragan denbora arrotzaren itzulera

Berriz itzuliko balitz
iragan denbora arrotza
berdin kontsumi nezake
bilaketaren neketan,
ezerezaren sorbaldan
irudimena isuriz
udaberriko euritan
larrosak pizten ikusiz.

Bideek ez baitakite
ibiltarien urratsik,
bakoitzak tajutzen baitu
ahalmenezko araudiz
ukaziozko legea
obra gabeko ausardiz.

Ezpainek gordetzen dute
ezpain bustien oroitza,
desioz apaintzen dira
etsipenaren ezpalak
zauritutako aragiz.

Badoaz ordu geldiak
errukiaren eskariz,
gauak zelatatzen baitu
kontzientzia bilutsik. (Lete, 1981, 13)

Ikus daitekeenez, poeman ez da sumatzen Kubarekin lotura zuzenik. Habanera abestian, ordea, zentrala da uhartearen protagonismoa. Izenburuak badu zerikusirik, jakina, baina musikaren indarguneez ere.

Habanera kantuan indarririk gehien duen puntua bosgarrena da. Bertsotan, normalean azkeneko puntua izaten da indargunea. Bat-batean doinu honetan jarduten duen bertsolariak ezin du puntu hau deskuidatu eta litekeena da punturik ahulenetakoa izatea estrategia planifikatzailezik ez darabilen bertsolariarentzat, inprobisaziora irekien dagoen gunea baita bertsoaren erdigunea, batez ere puntu motzik ez duten doinuetan. Honakoa da zentralitatea hartzen duen abestitzaren oinarrian dagoen poema, ‘Habanera’ izenburua duena:

Nik ez nuen izan
Cuban gerra egintako aitonik,
ez nuen izan, ez, manigua hertsian
malaria harrapatutakorik
mulata ederrekin oheratutakorik...

ez nuenizan, ez, vainilla usaiez
gozaturiko arropekin jantzitako
osaba komertzianterik, han, Habanan...

eta horregatik
guzti horretatik zertxobait ez izateagatik
ez nuen izan gerora
iñoiz ez nuen azkenean izan
magnolio eta indigaztanez inguraturiko
indiano etxerik,
ez nuen izan pianorik
eta solfeorik ez zidaten irakatsi...

tabaco y caña
canela y ron
lindas Antillas
de mi querer (Lete, 1981, 27)

Berridazketaren dimentsio bat aprobetxamenduarena da, beraz; poema batzuetatik kanta bat sortzea. Beste puntu bat perfekzioaren bilaketarekin lotu behar da. Aurrerago aztertuko dugun ‘Izarren hautsa’ abestia horren adibide da. Lertxundik aipatzen du Lete perfekzioaren bila ibili zela beti (2019, 332) eta perfekzioa, utopia bezala, pauso bat gerturatzeko zatzaizkionerako pauso bat urruntzen da. Horrek sekula amaitzen ez zen berritze lan bat eragin zuen bere obran. Gurrutxagaren tesiaren zati garrantzitsuena aldaketen behaketa horri eskainia dago. Horretarako kritika genetikoa darabil. Xabier Lete eta Lurdes Iriondo Funtsaren katalogazioan jardun zuen zarauztarrak eta bere poemen aldaerak detektatzeko bide eman zion horrek. Lehen aldiz poema bat idatzi zuen eskuizkributik hasi, argitaratu aurreko bertsiotik pasa, argitaratu ondorengo aldaketetatik igaro eta *Abestitzak eta poema hautatuak* liburuan argitaratu arterako tartean izandako aldaketa gehienak (paper gainean geratu zirenak) jasota daude tesian. Gurrutxagak ondorioztatu zuen Leteren sorkuntza unean pentsamendua eta poesia elkarren gertuko zirela eta hori lotuta dagoela formulazio poetiko doituaren bilaketarekin; horrez gain, askotariko testuartekotasun musikal eta testualak daudela aipatzen du; eta poemen abiapuntuan poetaren ama-idea eta harekin lotutako paisaia sinbolikoa ageri direla (2020a, 671).

5.7 Txirritaren baratzetik Leterenera

2011ko Hernaniko urtekariak esaten zuen Txirrita bertsolari handiarengan bazegoela zerbait Lete bereziki erakartzen zuena. “Bere garaiko narratzaile eta kronista bikaina izaki, horrek bultzatu zuen Valverde eta Lekuonarekin batera proiektu hartan buru belarri sartzera; bertsolaritzari halako ekarpena egin zion, Biblia moduko bat bilakatur” (Goikoetxea, 2011, 305). Hurrengo lerrotan, Juan Garziaren metodologia jarraituz, Leteren korpua arakatuko da Txirritaren baratzeko ernamuien bila.

Grafikotasuna, enfasia eta pilaketa

‘Gizon arruntaren koplak’ **zehaztasunean eta grafikotasunean** oinarritzen da arrakasta komunikatiboa lortzeko: “Antonio, Lorentxo edo Joxe Mari”, “kalean bi zakur ta / beste hiru atso”... Nekez topatuko da euskal kantagintzan kanta horretako “aurrian papera ta / atzian papera” baino deskribapen grafikoago eta borobilagorik. ‘Teologia, Ideologia’kantuan eta ‘Otsoak eta txanogorritxu’n ere zehaztasun eta pilaketaren baliabideak modu distiratsuan erabiltzen ditu: “haurrak negarrez ikusten ditu, / andrea haserretuta”, “jan ditu hamasei txerri, / ehun oilo, hogeit ardi”. Zuzeneko elkarrizketak ere erabiltzen ditu Letek, Txirritak bezalaxe: ‘Teologia, Ideologia’n “Hori bakarra behar genian” dio amorru bizitan” dio, eta “egun on don Pepito eta don Alfontso” ‘Gizon arruntaren koplak’ abestian.

‘Agian’ abestiko “Agian berak bazekien / zuk bazenekiela / ordu oroko galderaren / erantzun beti estaliaz” esaldia enfasiaren adibidetzat har daiteke. Baiezkoan ez ezik Leteren kantetan **enfasi negatiboa** topatzea ere ohikoa da. Izatez, ezezkotik komunikatzea da bere ezaugarrietako bat. Hona, esandakoaren adibide, ‘Ni naiz’ abestiaren zati bat:

Ni naiz
burrukaren erdian ilunpetan etsita
amur ematen duen pizti beldurtia.
Ni naiz ezerezetik ihes
munduaren erdian
ezin aurkitutako amets urrutia.
Ni naiz irrifar bakoitzean
gaztetasun hondarrak galtzen dituen,
ni naiz itsasoko haizeak
gogor astintzen dituen lainoen negarra.

‘Langile baten seme’n (“Ez da erreza trebe xehetzen / euskaldun otea”). Metodologian aipatutako ezezko moldearen adibide garbi bat topatu daiteke ‘Altzateko jaun’ abestiko “txarra” izenondoari erreparatuz: “Urrezko daukat eta diruak ez dira engainu txarra / bazter batera apartatzeko lehengo sinesmen zaharra”. Beste batzuetan enfasi negatiboa eta ezezko literala kateatzen ditu bata bestearen segidan: “Ez naiz ni gizon txarra / baina zer arraio / Fidel Castro izateko / ez bainintzen jaio” (‘Gizon arruntaren koplak’). Txirritaren bertsoetan hain ohikoa den ezin + partitiboa + liteke eskemarik ez darabil Letek, baina bai apur bat sinpleagoak diren “iraungo duen egia bat ezin erditurik”, “ezin ordu ihesen zatirik harrapatu” (‘Giza aberea’).

Pilaketa efektuaren adibide gisa hartu daiteke ‘Gizon arruntaren koplak’ sorta, ez ordea, ohiko izen pilaketa gisan, esaldi pilaketa gisa baizik:

Gauzak gaizki dabilta, hau da komeriya,
Afganistan-en gerra piztu zuten iya,
tokatzen baldin bazait aurten loteriya
erosi beharko det Zitroen berriya...
ongi egon omen zan Tolosan periya.

Antzerako efektua sortzen du ‘Habanera’n ere:

Osaba komertzianterik
ez nuen izan Habanan,
pianorik ez zegoen
bizi nintzen etxe hartan,
neskatxen puntilla finak
udako arratsaldetan,
errosario santua
neguko gela hotzean.

Lerro bakoitiak elementu nagusia zerrendatzeko erabiltzea eta lerro bikoitia errimaren araua betetzera bideratzea efektu ez ezik kontakizunerako teknika bezala ere erabili daiteke. Lujanbiok, adibidez, erabili izan du doinu luzeetan. 2001eko Txapelketa Nagusian, adibidez, mendian ondoezik dagoen adineko pertsona baten paperean ikus liteke nola lerro bakoitiak kontakizunari aurrera eragiteko baliatzen dituen eta lerro bikoitietan konplitzen duen errimaren betekizunarekin (garrantzitsuena beltzez markatu da teknika nabarmentzeko).

Hirurogeita hiru urtekin
lanpostutik erretira
egin nuen, ta orain **goizero**
abiatzen naiz mendira ;
maiz pentsatzen det "nere lagunak
animatuko balira!",
baina alferrak izaki eta
bakarrrik joango naiz, tira.
Aldapan gora asnas estua,
ezin ikus urrutira;
inor ez daukat aldamenean,
inor ez nitaz kupira;
erdi etzanda mareatuta
laguntza eskean di-da:
"Etorri bila, etorri bila",
baina beranduegi da.

Hanka meharrak eta adina
nere kontra, nere etsai;
nik nahi nuena aldapa hontan
abitu ta gora jarrai.
Erori egin naiz, baina gaitzerdi,
bihotzak taupaka darrai;
eta gizon bat hor inguruan,
salbazioa leike, ai!
Besoak altxa ta oiuhu egin det
"hemen etzanda nago, bai!";
ez dakit asko iraungo dudan,
nago izerdi hotzez blai;
"etorri zaite ni laguntzera,
hementxe nago zure zai",
baina gizonak ez nau ikusten
edo ez nau ikusi nahi. (Lujanbio, 2001a)

Pilaketa hauek ahozko estilotik urrun dauden sorta batzuetan ere topa daitezke, hala nola, 'Gauaren ordezkoko eguna'n: "Lehen zen iluna, beldur luzea, ezina eta dardara, / lanaren sari debeku latza, kartzela eta ikara". Pilaketa hauek ezezkoan eta baiezkoan erredundatzeko gaitasuna erakusten du Letek ('Zuk badiozu'):

nik ez dut ezer hori da gauza
ez hitzik ez etxerikan
ez pentsamendu, ez aberririk
ia ez dut ametsikan
bizitza baten azken hondarrak
eta zuloak patrikan.

Hiru elementuko pilaketa topa daiteke “Tabako, ron ta kanelaz” hasten den bertsoan (‘Habanera’), “zu zera nere anaia, itxaropen eta beldurra” (‘Haur andaluz baten seaska kanta’) eta baita “Agur oihanak, agur itsaso, atariko lizardia” (‘Neguaren zai’) abesti zatietan ere. Azkeneko esaldikoa bezalako asindetonak polisindetonak baino ohikoagoak dira Leteren kantatan; baina bada “eta” pilaketa bilatzen duen estrofarik:

Nafarroa, arragoa, mahats eta gari
maitasun eta gorroto, gezur eta egia gurea,
Nafarroa, arragoa, lur beroen sabel emankorra
eta goiko mendi hotzen mendetako loa.
(...)
Nafarroa, arragoa, izen bat eta oinarri
eta oinaze, eta bidean zure bila ibiltzea...

Alderaketak

Superlatiboen erabilera bistakoa da Leteren abestietan eta erantsi beharra dago superlatibo horiek askotan errima funtzioa ere betetzen dutela: “lurrik maitatuena” (Nafarroa, arragoa), “fruta gozo ta onena” (‘Teologia, Ideologia’), “estalitako egien oihurik bortitzena” (‘Xalbadorren heriotzean’), “belazean dagoen lorerik ederrena”, “izozten duzulako eguzki beroena” (‘Amodio, amore’), “nere izatearen ordu ilunenak maita ditut orain” (‘Biographia’), “ez ginen besteek uste bezain makurrak / ez guk nahi bezain zuzenak” (‘Ez esan maite’), “mugarik gogorrena”, “etxerik altuenak / lotsaz eror litezke “ (‘Malkoak euri balira’) “laztanik xamurrenak”, etsipen ilunenak” (Jardin bat zuretzat’); “kupirik gabe fornikatzea / horixe da onena” (‘Henry Millerri eskutitza’).

Hitzak hitzez hitz hartzearen posibilitate adierazkorrari erreparatuta, Garziak honako adibidea jartzen du Txirritaren baratzetik: “Irurogei ta amar bat urte / badaduzkat bizkarrian, / kargamenturik txarrena hau da, / ezin utzi baztarrian”; Leteren “inork ez baitu ausart hartu nahi berezko karga astunik, / Gurdi okerra zuzen lezakeen doktrinarikan ez dut nik” puntuekin parekatu daiteke.

Letek maisutasunez eta maiztasunez erabiltzen zuen baliabide bat da **kontrastearena**. Garziak aurre-esandako bi modalitateak ikusi daitezke ‘Henry Millerri eskutitza’ abestian: puntu bati hurrengoarekin erantzunez (“Maite duenak edertasuna / maite duenak lilura / hurbiletik begira dezala / Platonen liburu hura”) eta puntu beraren barruan kontrastea eginez (“zeinen laburra izan den uda / ia neguan sartuta”. Leteren kantagintza kontraste ederrez beteta dago: “Ezin zaitut abestu, amodio, amore / plazeraren altzoan zarelako dolore” eta “Haizea dator ifarraldetik, hego berotik ekaitza” (‘Haizea dator ifarraldetik’), “ardo berriak onduko dira / mahastietan aihen zaharrak” (‘Neguaren zai’)... Baliteke adibiderik ederrena ‘Jardin bat zuretzat’ abestia izatea. Azken batean, bizitza oso baten errepassoa egiten du eta, luzera horretako tartean, kontrasteak existitu behar du, derrigor,:

Egunak eta gauak, uda eta neguak
etsipen ilunenak, zorion orduak
bizitzaren zauriak, helburu galduak
laztanik xamurrenak, bide erratuak
elkarren babesean igarotakuak.

Izendatzen samurra ez den baliabide bat ere erabiltzen du Letek. Txirritaren kasuan “arrauna fuerte dantzatzen dute / bera jetxi ta gora iyo” esaldia bikoitz indartutzat hartzen du Garziak (1997, 56) eta, Letek *bikoitz indargabetu* bat sortzen duela esan liteke. Kantariak “itzal bihurtuko naiz, zu galtzen bazera” egiten du mehatxu azken aurreko puntuan, baina gero “itzalaren itzala” (=argia) izango dela puntualizatzen du, eta “ezereza bera” bihurtuko dela ebatzen du. Kontrastea sortzen duten elementu bat, itzala, hartzen du haren negatiboa sortzeko eta ez negatibo eta ez positibo ez den elementu bakarra, ezereza, gehitzen du ekuaziora.

Kontrastearen erabilera handia egiten duten autoreei deskontrasteak efektu handiagoa egiten die. Hala, Letek “esku hutsik jaio eta / esku hutsikan nabille” erabiltzen duenean lehen puntuak sortzen duen espektatiba okerrak (esku hutsik => eskuak beteta) efektua sortzen du entzulearengan.

Irudiak

Metaforak erabiltzea ez zen hautazkoa zentsura garaietan, sozialki konprometitutako artista izan nahi zuen edonor haiek erabiltzera derrigortua zegoen. Haietako asko klixeak dira gaur egun eta sortu zirenerako ere bai akaso. Aberria eta lorea edo aberria eta etxea erkatzea, adibidez, ez zen berritzailea: “Erreduraren errauts artetik sortzen ari da lorea” (‘Gauaren ordeko eguna’), “etxea hustuz badoa ere noizbait bazuen biztunik” (‘Haizea dator ifarraldetik’); baina eraginkorra zen oso. Leteren maisutasuna metafora horien hedapenean zetzan: etxearen biztunei “ez dut onartzen ordeztu datorren maizter aldrebes hiztunik” eransten dienean; edo zuhaitzetatik adarretara salto egiten dutenean: “Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak, / burruka hortan iraungo duten zuhaitz-ardaska gazteak”. Litekeena da batzuetan oinek behartutako sormen ariketak izatea, baina horrek ez dio ez meriturik ez edertasunik kentzen: “ardo mindua edanaz / historiaren tabernan”.

‘Aberri ilunaren poema’n aberriari emakume gorputza ematen dio. Konparazio batekin hasten du ordezkapena (“puta batek alkola behar duen gisa”) eta, hortik aurrera, harekiko pasiozko harreman toxiko bat marrazten du: “kolpatzen nauzunean arnasa ustelez, / mespretxuzko ordainez zugana hurbilduz”, “mozkorrez betetako kale zikinetan / paretari sorbaldez jartzen nauzuean, / hain itsusia zera une gehienetan / basa eta zakarra zure umeekin”, “ohera naramazu gauero zurekin / maindire odolduek irentsi nazaten”. ‘Otsoak eta txanogorritxu’ abestia ere fabulazio horretan oinarritzen da.

Estilistikoki antzekoak diren esaldiak ez ezik esanahiz ere antzerakoa direnak partekatzen dituzte bi sortzaileek. “Utzi ditzagun bide ilunak / bila ditzagun argiyak” dio sorta batean Txirritak eta Letek “bide ilunak nekez aurkitu” aipatzen ditu ‘Izarren hautsa’ kantuan.

Konparazioei dagokionez, Letek Txirritak baino maizago erabiltzen du baliabide hori. Hark bezala, errimatze baliabide gisa erabiltzen du “bezala” edo bere baliokideren bat. Hona, ‘Seaska kanta’, adibide gisa:

Haunditzen zeranean
ikusiko duzu
ixilik egoteak
zenbat balio dun,
jarrai zure bidetik,
hobe da horrela,
gauza denen gainetik,
haizea bezela.

‘Langile baten seme’ abestian ere errima gisa darabil. Jatorrizko bertsoan *Abestitzak eta Poema Kantatuak*-eko aldaeran baino indartsuagoa da konparazioa:

limosnatik bizi diren
umezurtz batzuen gisan,
periodikuak ez dira gutaz
mintzatzen Parisan.

Izerdi asko ez dut ixurtzen larreko pendizan,
paper batzuek idatzi eta nabil nere gisan
eguneroko ogia irabazteko peskizan
periodikuak ez dira gutaz mintzatzen Parisan

Naturalago erabiltzen du, ordea, “bezala”. Sorta horretan bertan biak konbinatzen ditu: “Langile baten semea naiz ni, aita bezala langile”. Hona Leteren abestietako konparazio gehiago:

- ‘Lore gorrien balada’: Udaberriko lili garbia, / gure lurtean heldua, / gaueko amets bat bezela / egunsentian galdua,
- ‘Ni naiz’: “beste asko bezela neguko eguzkitan / hotzak hiltzen dagoen gizon bakartia”.
- ‘Festa bukatzean’: “Berriz zai egon / atzo bezela / maitasun baten esperoan”.
- ‘Haur andaluz bati seaska kanta’: Lore bat da nere hitza, dardarrez dakarkizut, / zure lo hortatik esnatzean ikurrin gisan jaso dezazun” eta “Zure gurasoek lan egin nahi zuten, / lan egiñaz bizi, ez morroien gisara”.
- ‘Ez esan maite’: “ez ginen besteek uste bezain makurrak / ez guk nahi bezain zuzenak”.
- ‘Lore bat, zauri bat’: “Hire aitaren heriotz hura ordaindu dion zerga astuna, / oihu lehertu bat utzi digunan zauri guztien zeinu bezela” eta !Nahiko hunan, Beatriz, Chile libre batean / Adiskide artean maitasuna dastatu, / nahiko hunan zentzuak, lore goiztarren gisan, / zorrik ordaindu gabe desiotan askatu”.

- ‘Aberri ilunaren poema’: “Behar zaitut, Euskadi, desesperatuki / puta batek alkola behar duen gisa” eta “Behar zaitut, Euskadi, koleraz beterik, /zu zeran bezain makur ni ere naizenez...”.
- ‘Jardin bat zuretzat’: Eskutikan hartuta / amilduak gera / erreka bat bezela / menditikan behera”

Oinak eta oinarriak

Leteren abestietan suma daitezke Txirritaren **formula edo txantilo** batzuk. Antzeko egituren artean haren errima talde klasikoenetako bat (batean, artean, kaltean, apartean) nabarmendu daiteke; hona ‘Langile baten seme’ abestiko bertso bat :

Aita eta amak nahiko ninduten fabrika batean,
bizitzarekin borrokatzeko altzairu artean;
bidexigorretik noa, agian nere kaltean,
baiña ez dut uste nabillenikan horren apartean.

Txirritarena gogorazi dezakeen beste errima sorta bat da ‘Teologia, Ideologia’-koa ere (“gozoak, plazoak, auzoak, gaixoak):

Gertatutako deskalabruak
mingosten diozka gozuak,
eta gainera pagatu behar
piso txar baten plazuak.
Komodidade handirik ez du
proletario auzuak,
eta bizkiak erditzen ditu
bere emazte gaixuak.

Txirritak ez luke “plazoak” erabiliko, baina errima garrantzitsua da, **errima arrazoi** mekanismoa aktibatzen duelako –alegia, hitza ez da errimatzeke soilik erabiltzen, argudiaketarako giltzarri ere bada– eta gauza bertsua esan liteke “auzoak” hitzaz ere. Txirritak “bertsoak, gurasoak eta erosoak” hitzekin osatuko zukeen bertsoa ziurrenik.

Honako bertsoa ere (‘Maiteaz galdezka’) Txirritaren errimatzen eredutik gertukoa da:

Etixeruntz nindoala pentsatutzen nuan
Jainkoa ez da bizi gizonen onduan,
urruti zegok hura han bere zeruan
gu bakarrik utzirik umezurtz munduan

Zenbaitetan ama-errima –esan-ingar handiko oina, bertsoaren sortzeko giltzarri izan den ideia– zehazteak automatikoki ekartzen dio errima bikotea sortzaileari. Adibidez, ‘Gauaren ordeko eguna’ abestiko bertsoetako batean “Gorbea” hitzak “gordea” oina inbokatzen du eta hoskidetasunaren bidezidorretik bertsoa kasik eginda ematen dio autoreari (“ordea” edo “lorea”-ren artean aukeratu beharko zuen Letek); bigarrena hautaturik, “kolorea” edo “morea” hautatzea baino ez zitzaion geratzen:

Erreduraren errauts artetik sortzen ari da lorea,
Nahiz oraindik bere jantziak izan ubel ta morea.
Apalki ari da margoz apaintzen, ez da jadanik gordea,
Harrizko bere zaintzaile ditu Auñamendi ta Gorbea.

Oin sorta horren beste erabilera eragiten du, “gordeak” hitzetik abiatuta ‘Jardin bat zuretzat’ abestian: “loreak, koloreak, hobeak, akordeak, gordeak”.

Oso Leterena den txantilo bat “bihotz” “(iz)hotz”, “oroitz”, “heriotz” hitzek osatzen dutena da. Horretaz jabetzeko, aski de ‘Maiteaz galdezka’ eta ‘Neguaren zai’ sortetako bi bertso hauek elkarren alboan jartzea:

Bakardade haundi bat neukan bihotzean,
negar egiten nuen zutaz oroitzean.
Galdera egin nuen etsipen hotzean,
gizonok nora goaz mundutik hiltzean?

Ez nau beldurtzen egunsentian arnas zuridun izotzak
nun dirudien bizirik gabe natura zabal hilotzak
eguzki eder joan guzien argia bait du bihotzak
eta zentzuen mila ernegai iraganaren oroitzak.

Txirritak Norteko trenbideari jarritako bertsoetan “Madriltik” zetorren edo “Madrila” zihoan Norteko ferrokarrilaren enfasi berarekin erabiltzen du “Parisan” Letek ‘Langile baten seme’ kantan. Esan-ingarraren zama astunena errimatzen duen hitzak berak hartzen du horrelakoetan. Leku izenek badute gaitasun hori “Auñamendi ta Gorbea”k ere badute aski pisu ardura hori hartzeko. Izen propioez ere gauza bera esan daiteke “Don Alfontso”z eta “Joxe Mari”z ‘Gizon arruntaren koplak’ abestian. Elebitasunaren arrastoak ere suma daitezke Leterengan, baina ez ditu errima gisa kokatzen (“hebila” kenduta), puntuaren barruan uzten ditu “Realak kuarto-uno galdu zuen atzo” (‘Gizon arruntaren koplak’).

‘Teologia, ideologia’ sorta da errima arrazoi gisa erabiltzearen adibide. Bigarren bertsoan hirugarren puntu interesgarri bat bada errima arrazoiren adibide izan daitekeena:

Lehendabiziko askatu zuen
gerrikoaren hebilla,
Eba ikaraz zegoen baina
bekaturako abila.

Hurrengo bertsoan ere ageri dira bertso-sortak lantzen duen gaiarekin zuzen-zuzenean lotuta dauden oinak: “kondena, onena, ogena, ordena”; “programa, zama, fama, elizama”, adibidez.

Garziak Txirritaren abilidadetako bat seinalatzen du: berdin deklinatutako hitzez errimatutako esaldiak egitura sintaktiko ezberdinak erabiliz pilatzea. Letek baditu errima berari eusten dion zenbait sorta eta bi estrategia kontrajarri ikus daitezke: anafora bihurtzea eta errepikapena areagotzea, edo horrekin haustea. ‘Neguaren zai’ abestian, adibidez, egitura mantentzearen alde egiten du, lehen puntuan eta azkenekoan soilik kokatuz aditzak eta gainontzeko puntuetan elipsia eginaz:

Ez nau iluntzen baratzatikan
azken loreak biltzeak
muga guzien arrazoi bila
arnas gabe ibiltzeak,
arratsaldeko argi betera
zentzu denak umiltzeak...
atsedenezko loa bait dakar
behin betirako hiltzeak.

‘Ez dut amets handirik’ sortan ere egitura errepikakorren alde egiten du. Bi puntuko egiturak sortzen ditu, zeinetan lehen zatia ezeztapen orokor samar bat den eta bigarrena baieztapen edo ezeztapen zehatzagoa. Efektu ederra sortzen du modu horretan:

Nik ez dut amets haundirik, zeru ederrik eskeintzen,
etsipenaren mugetan zuekin nago bizitzen.
Nik ez dut solas lodirik etorkizunaz egiten,
bat-bateko librakuntzaz ez dut aspaldi sinisten.
Bizitza maite dut, baina ez dut alferrik gastatzen
eguneroko lorea egarriz baitut dastatzen

Joskera eta loturak

Letek hizkera naturalean komunikatzeko gaitasuna zuen. Baliteke hori izatea bere letrak garaiko poeta on askok baino kantagarriago bihurtzen zituena.

Bere bertsoek **elipsirako** joera markatua dute. ‘Seaska kanta’ hartuko da horren ilustragarri. Lehen bertsoaren lehen bi puntuak lotura gramatikalen elipsiaren adibidetzat har daitezke eta bigarren bertsoa **solaskide-ikuspuntu aldaketarena** (bikotekideari zuzentzen zaio lehenik eta haurrari ondoren):

Amaren bularra
haurraren janari,
haurraren negarra
beti hunkigarri,
baratz honen erdian
goseak nago ni
zure bular laztanen
antsiz ta egarriz.

Zure bular politik
zerrien jostailu,
edertasunak kontuz
gorderik behar du,
zaude isilik, haurra
ez egin negarrik,
munduak ez du-eta
malkoen beharrik.

Leteren abestietako lokailurik ohikoenak “baina” eta “eta” dira. “Arren”-ik ez dago aztertutako korpusean; bai, ordea, partizipioa + -agatik moldeko egitura bat ‘Altzateko jaun’ abestian:

Hamasei salbe ta hamalau kredo
erderaz entzunagatik
bazenekien hori ez zela sekulan guretzat egin.

Lotura gramatikalak ezabatzeko joera bazuen Letek ere, nahiz eta ez zuen Txirritak bezain maiz erabili baliabide hori. Bere abestietan “baina” lokailuaren errepasso bat egiten bada ikus liteke oso modu ezberdinetan kokatzen dituela.

Batzuetan, errimatzen ez duen lerroaren azken hitz bezala erabiltzen du (‘Ez dut amets handirik’, ‘Teologia, Ideologia’, ‘Lore bat, zauri bat’), Txirritaren estilorik bereizgarrienean:

garai batian merke zan baño
gaur balio zu ugari (Garzia, 1997, 104)

Bizitza maite dut, baina
ez dut alferrik gastatzen

Eba ikaraz zegoen baina
bekaturako abila.

Errugabea hintzean, baina
pizti zordunak ez ditun urrun

Beste bertso eta poema batzuetan modu tradizionalagoan erabiltzen du lokailu hori:

Euskalerra nerea, ezin zaitut maite,
baina nun biziko naiz zugandik aparte.

Negar egingo duzu ilunabarrean
baina poztuko zera eguna argitzean.

“Hori bakarra behar genian” dio amorru bizitan,
baina aguro agertzen zaio lankide on bat bisitan...

bidexigorretik noa, agian nere kaltean,
baña ez dut uste nabillenikan horren apartean.

zutaz maite, galdera egin dut
baina Jainkoak ez zidan erantzun

‘Gaua’ eta ‘Altzateko jaun’ abestietan, berriz, “baina” esaldiaren hasieran ageri da, aurreko esaldiarekin kontraste zuzenik bilatu gabe:

Baina gauetz amets egiten dut bihar goizean mundua hobea izango dela,

baina guztiok jakin dezagun bidea nundik dihoan

Leteren bertsoetan Txiritarenetan baino kateatuagoak daude bertsoak, bai neurri estuetan (‘Langile baten seme’) eta baita zabaletan (‘Neguaren zai’) ere:

Aita eta amak nahiko ninduten
fabrika batean,
bizitzarekin borrokatzeko
altzairu artean;
bidexigorretik noa,
agian nere kaltean,
baña ez dut uste nabillenikan
horren apartean.

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan
izadiaren joan geldian
gizalditako lerroan
guzia present biurtu arte
nor izanaren erroan.

5.8 Bertsoak jartzeko ohituraz

Gaur egunean bertsolaritzaz mintzo garenean bat-bateko jarduna da burura datorkiguna, baina denbora askoan bertso jarriak izan ziren bertsolaritzaren zati garrantzitsuenetako bat. Lete ondare horren maitale sutsua zen eta haren zabalkunderako lan handia egin zuen. Pieza haien irakurketa pausatua haien logika barnerako parada eman zion eta bere sorkuntzan eragina izan zuen..

5.8.1 ‘Henry Millerri eskutitza’

‘Henry Millerri eskutitza’ izeneko kantak bertso sorta tradizional baten formatua du. Gaia aurkeztu eta hari buruzko posizionamendua agertzen du autoreak. Milles (1891-1980) *Beat* belaunaldiko idazlea izan zen eta sexuari buruzko zenbait kontakizunen egilea da. Letek sorta honetan gizonaren ikuspuntutik aztertzen du sexua eta bere buruaz barre egiten du. Sorta honek sotiltasuna eta zakarkeria uztartzen ditu ulertzen erraza ez den oreka baten bilaketan.

Bigarren puntuetan duen abileziak arreta ematen du. Lehen puntuko arazoa konpontzeko edo esplizitatzeko darabil bigarren puntua.

Maite duenak edertasuna
maite duenak lilura
hurbiletik begira dezala
Platonen liburu hura.

Zahartzaroan sentitzen du batek
berez konturatuta
zeinen laburra izan den uda
ia neguan sartuta

Puntu hau bereziki esanguratsua da bertsogintzaz dakitenentzat. Inprobisatutik gehien duen puntua izaten da normalean. Imanol Lazkanok, *Ahobizarrik gabe* liburuan dionez, puntu honi erreparatu behar zaio bertsolari bat ona den jakiteko (2003, 34). Letek, kontzienteki edo inkontzienteki, bertsogile maisuei ikasitako bertso-egitura mantentzen du bere sormen lan berrietan.

Hala ere, sortaren edukia baino gehiago sorta argitaratu zueneko garaia da interesgarria. Letek bizitza osoan zehar jarraitu zuen bere garaiaren kronika bertsoan erredaktatzen.

5.8.2 Kantaldietako aleak

Bere diskoetan jasotako bertso sortak, ordea, salbuespena dira. Leteren mota honetako oparotasuna, diskoetatik kanpo geratu zen, baina kontzertuetako grabaketan bidez berreskura daiteke. Adibidez, Elisabet I.a Gaztelakoa santa izendatzea eskatu zutenean bertsoak idatzi zituen, eta 1991ko martxoaren 16ko kontzertuan kantatu zituen ‘Misiolari baten moduan’ doinuan. 1997ko *Larogeitamazazpi* diskoan argitaratu zituen Antton Valverdek bertso hauek.

Mirestu beza munduak

Entzun kristauek, espantu gabe oraingo notizi fina
periodikuan irakurri dut ez da neronek egina:
Espainiako Gotzai batzuek ezarri dute dotriña
Santa berrizat izendaturik Gaztelako erregina
gutaz kupitzen ez baldin bada zeruko Ama Birjina

Konta ditzagun hitz gutxirekin Isabel zenaren amak
bide onetik joan ditezen gaurko ta biharko damak
moru batzuek erre zituen judutarrak ia danak
bostehun urte kunplitu dira Ameriketara emanak
bertako asko esklabizatuz, lehenago libre ziranak.

ta ta/ra ta ta ta..

Imperio bat eraiki zuen espatarekin guduan
bere promesa kunplitu gabe garaipenaren orduan
zilegi bada fede santua ezarri haren moduan
erlijiorik ez da biziko bakez elkarren onduan,
ejenplu ona jarriko dute santa horrekin munduan.

Ez naiz sartuko Fernandorekin izan zuen harremanaz
larru kontuak santifikatuz seme-alabak emanaz;
hori entzunda oroitu nintzan segituan nere amaz,
bera bezela etxeoandre jatorrak izan diranaz,
inork ez die hori ordaindu gerora santa izanaz

ta ta/ra ra ta ta...

Esaten dute erregin hauek bazuela piedadea
hereje eta pagano txarrak hiltzeko abilidadea
eraiki zuen katolikoek zilarrezko edadea
eulirik ez da hemen mugitu, hau da trankilidadea,
zezen korridak, putaetxeak, pattarra eta kafea.

Ez da makala, hala Jainkoa, obispu hoiak arreta,
nik uste nuen santutasunak altu zuela pareta,
errege denak jeneralian sutan zeudela erreta,
milagro haundia gertatuko da Erromak hala nahi eta,
inpernutikan igoko dute pertsona bat aldareta

Hau miraria, hau marabilla, etortzen bada eguna
Santa Isabel Kastillakoa otoiztu behar duguna;
haren ondoren bat bakarra da gero faltako zaiguna,
gizon ttiki bat, bigoteduna, noizbaite ezaguna,
berrogei urtez hemen agintzen segidan izan genduna. (Lete, 1993b)

Bertso sorta hau Txirritak idatzi zuela esanda inor gutxi harrituko litzateke, baldin eta historikoki ezinezkoa ez balitz... Lehen bertsoan, Txirritak ohi zuen gisa, gaiaren aurkezpena egiten du. Normalean ez da sortako alerik distiratsuen izaten, funtzionala izan ohi da. Leterena, agian, ohi baino ederragoa litzateke. Txirritan 1931ean Ezkiogako ama birjinaren agerpenari jarritako bertsoen aire bat badu:

Jesusen Ama maitagarriya,
aingeruen erregiña,
zeruan sartu obe genduke
inpernuan erre baña;
gauz ori guri adierazten
bazabiltza alegiña,
bera jetxita, negar egiñaz,
ain dezu jeniyo fiña;
guziyak ongi konbertitutzen
badaukazu zer egiña! (Zabala, 1971, 122)

Bigarren bertsoan darabilen “lehenago...., orain...” egitura ohikoa da Txirritaren bertsoan liburu bereko hainbat bertsoan seinala daitekeenez: “lenago etsai bizi giñanak / orañ aingeru biurtu” (1971, 93), “orañ bajuban asko dabilta / lenago altu izanak” (1971, 151), “lenago iru baldin badira / ai zer nolako laukua! (1971, 158), lenago ona etziñan baño / gaiztotu zera gogotik” (1971, 255), “lenago bi bastoi badaduzkat / neronekin ibiltzeko, / irugarren au andregaiantzat / arkakosuak iltzeko” (1971, 268).

Hirugarren bertsoak darabilen errima segida oso erabilia izan da eta Txirritak berak baditu zenbait adibide. 1983an jarritako bertso sorta batean haur baten aita zela ezeztatzeko idatzitako bederatzigarren bertso hau, esaterako:

Aur gaiso ori or agertu da
urrikaltzeko moduan,
estimazio aundirik gabe
bere amaren onduan;
arentzat ere ez dira izan
gusto guziak munduan,
enpeño batez biartuta ere
ez daki aita nun duan. (Zabala, 1971, 34)

Leteren sortako azken lerroan Francoren aipamena egiten da, bere izenik esan gabe. Txirritak ohikoa zuen amaiera imitatzen du Letek. 1993ko urriaren 26an Oiartzunen eskainitako kontzertuan berak azaldu zuen mekanismoa: “Norbaiten kontra kristonak esaten zituenean bertsoan, gero azkenian sekula ez zuen izenik eta apellidurik esaten. Esaten zun «halako herritan jaiua, ta halako tokitan» eta hala mundu guztiak jakiten zun zein zen” [ikertzailearen traskribapena]. (Lete, 1993a).

Bosgarren bertsoa gramatikalki nola osatzen duen ere interesgarria da: “piedadea, abilidadea, edadea, trankilidadea” oinak erabiltzen ditu eta ondorioz esaldiak era jakinean ordenatu behar ditu. Gaztelaniatik eratorritako izenak (edo, zuzenean, gaztelaniazko hitzak) errima gisa erabiltzea nahiko ohikoa da eta askotan helburu komikoekin egiten dute kantariak: “egia da, egia da, *porque lo he visto yo*”. Azken puntua, berriz, zerrenda batekin borobiltzen du (“zezen korridak, putaetxeak, pattarra eta kafea); Txirritaren “tunel, zubi ta erriyo” bezalako zerrendak gogoratzen dituen estiloan.

Bertso horren egitura bera Txirritaren logikaz osatua dago hasieratik. Behatu “eguna-duguna-zaiguna” errima sistema nola baliatzen duten biek 1931ko San Tomaseko feriari buruzko lehen bertsoarekin konparatuz:

Abenduaren ogei ta bata
Santo Tomasen eguna,
Donostiya'ko zitudadian
jai zelebratzen deguna,
pobre ta aberats jende askori
maiz akordatzen zaiguna;
Azpeitiya'n du beste santu bat
bere antzeko laguna. (Zabala, 1971, 144)

Antton Valverdek baliatu zituen Leteren bertsoak, bai kontzertuetan eta baita diskoetan ere. Leteren beste sorta bat, 'Itsuak ezin ikusi' izenekoa kaleratu zuen 1975ean argitaratu zuen diskoan. Letek, zailtasun tekniko handia duen neurria erabili zuen: zortzikoa, berdinarekin moldekoa, 7 puntuz (8A/ 8A/ 8A/ 10-/8A/8A/ 8A/ 8A). Xalbadorren 'Ikusten duzu goizetan' doinua da molde honetako sorta ezagunena. Valverdek 'Ai hori begi ederra' doinuan musikatu zuen sorta:

Itsuak ezin ikusi
mutuak hizketan ez daki,
eroak adimen gutxi.
Duguna ezin onez eraman
bide onak erakutsi
obe ahal da denak hautsi
gauzarik tente ez utzi
eta berritortik asi?

Gauza txarra da galtzia
zulo batean sartzia
ezin salbatuz bizia.
Beraz oraindik ez da komeni
histori haiek ahaztia
hemengo jende gaztia
egon dedin ikasia
nola dantzatu atzia.

Oraindik gaude hustuta
ur hoietan guztiz nahastuta
dena ez dago ahaztuta.
Gauak oraindik argirik ez du
bazter guztiak beztuta
lengoko lanik ez uka
ondoren onik ez du ta
gauza danak zapuztuta.

Denak ez gera berdinak
ditugu burruka saminak
nahiz ama batek egiñak.
Soñu legunik ez du atera
euskaldunen biboliñak,
gure agineko miñak
dirade guztiz jakiñak,
zergatik halako griñak!

Biderik ezin aurkitu
aurrerantzean egokitu
zoko ilunak argitu.
Aukera danak ez dira onak
diferentziak baditu;
arrazoiari aditu,
ahalgeari nausitu,
bazter zikiñak garbitu. (Azkue, 1895a)

Bertsogintzako ikuspuntutik, maila oneko eta baleko puntuak uztartzen ditu. Hanka luzeak egiten ditu bertsoen bigarren puntu gehienetan: “mutuak hizketan ez daki”, “ur hoietan guztiz nahastuta”, “ditugu burruka saminak”, “aurrerantzean egokitu”. Doinu gehienetan silaba kopuruak bat egiten du melodiaren nota kopuruarekin. Zenbait doinutan, ordea, silaba bati nota bat baino gehiago dagokio. Halako doinuetan sortu ohi dira metrikari buruzko zalantzak. Letek berak eredutzat mentalki zeukan bertsoa “gaizki ikasita” zeukalako hipotesia egin liteke. Adibidez, Paulo Yanzik 1922. urtean Afrikako gerrari jarritako bertsoetako 14. bertso ederra paperean jarri ostean berrirakurtzen bada egin daiteke 9 silabatan kantatzeko akatsa:

Arruit, Zeluan ta Nadorrak,
ango odol-galtze gogorak,
gorriturik daude lurak;
ango kontuak aditu eta
bat artutzen du beldurrak;
ez dira noski gezurrak:
egazkiyak ta txakurrak
txupatzen illan ezurrak. (Zabala, 1968, 80)

Lertxundik musikatutako ‘Partitu ginen’ ere metrika berekoa da:

Partitu ginen herritik
gure paketak harturik,
soldadu legeak emanik.
Gure aita eta amer anitz dolu eginik,
begiak nigarrez bustirik
eta maitea utzirik,
adio triste erranik (Azkue, 1895a)

Errimak eskasak dira asko: “ikusi” eta “daki”; ez dira errima familia berekoak, nahiz eta I bokalaren indarrak eta azentuak hoskide bihurtzen dituen. Bestalde, bertsogintzako araudia hertsiki jarraituz “bizia-gaztia-atzia” hitzak ez dute errimatzen. Batetik, bizia euskalkiari koherentziaz eutsiz /biziya/ ahoskatu beharko litzatekeelako edo, bestela, “bizia” eta “gaztea” esan. “Gaztea” eta “atzea” hitzak ere ez dira errima bikainak, berez, baina txistukariaren presentziak txukundu egiten du hoskidetasuna. Hala ere, esan beharra dago idatzi ziren urtean halako teorizaziorik ez zela egiten eta bertsolari bakoitzak intuitiboki eraikitzen zituela errima hoskideen zerrendak.

Xalbador trebatuago zegoen neurri honetan Txirrita baino, baina bigarrenaren formulazioak suma daitezke: “Ez nuen uste Artzai Txikiyak / ortan punturik artzia, / aizak, aurriak

erakusten dik / nola dantzatu atzia” zion Txirritak (Zabala, 1985, 9) eta Letek “hemengo jende gaztia / egon dedin ikasia / nola dantzatu atzia”.

Oinei dagokienez ere bistakoa da hernaniarraren eragina. ‘Oraingo neskatxen jazkerak’ izeneko sortako bertso honetako oinak eta aipatu berri dugun sortako oinek (“hustuta, nahastuta, ahaztuta, beztuta, ez uka, ez du ta, zapuztuta”) antzekoak dira:

Gona laburra jantzi, illia moztuta
nor azalduko zaien dabilta poztuta,
amaren arrazoiak balio ez du ta
berenak aundiago kopeta beztuta,
gorputza adornatzen arimaz aztuta

Beste sorta bat ere badu, ‘Non dire lehengo kontuak’ izenburua daramana (‘Maitemintzen’ izenburua ere jarri zion beste paper batzutan). Kasu honetan adinean aurrera doan pertsona batek sedukzio lanetan dituen zailtasunak deskribatzen ditu ‘O ez’ abestiaren antzerako gaia darabil, baina denbora aldetik saltorik egin gabe. Zortzi silaba inguruko lerroz osatutako koplak bikotea eta estribiloa erabiltzen du autoreak, lau aldiz:

Gizonak maite duenez bere burua gaztetzea,
bizpairu urtetikan behin gustatzen zait maitemintzea:
neskatxa gazte beroaren begietan dagoen suak
odola erretzen dit baina, alferrik nere keinuak
garai ederrean hasi naiz, nun dira lengo kontuak?

Aurpegirik xamurrenez jartzen banazaie begira,
paiaso bat naizelako guztiak farrez hasten dira:
ustez modu egoki batez xuxen eraman tratuak,
zein zakurrek jan behar duen ederki daki katuak..
hauxen da egoera motza, nun dira lengo kontuak?

Berak agur esatean laister iluntzen zait muturra
dirudit ipurtzuluan ostikoz jo nauten zakurra:
ilargiari begira pasatzen zaizkit orduak,
haizeak eramaten ditu barruko ekaitz harruak,
probetxurik ez du egiten probatu ez den larruak.

Nahiz oraindik sasoi izan eta lore ederrak gusta,
beste batzuen saretara ikusten dut erortzen uzta:
gure illea zuritzen du urbil dagoen neguak,
alferrikako jira-biran nekatzen zaizkit heguak...
goguak irauten du baiña nun dira lengo kontuak. (Gurrutxaga, 2020a, 500)

Aurreko kapituluan maitasunaz egindako gogoetarekin ere badu lotura sorta honek. Letek maitasuna edo sedukzioa modu jostarian bihurtzen du kantagai letra honetan; baina, ohi bezala, beste kantari bati uzten dio hari ahotsa jartzeko rola. Luis Torregok proposatutako abestien sailkapenean “Maitasunaren aroak eta maitatuaren adinari lotuak” atalean kokatu beharko litzateke (1999, 286).

Tonu antzerakotik idatzita dagoena da ondoko koplak segida. Gurrutxagak jasoa da eta 70eko hamarkada amaieran kokatzen du. Leteren aditzak deformatzeko duen joera bistakoa da hemen ere:

Lotsa galduta neurri guztiak
aldrebesturik nabila
eta ari naiz oharkabean
gauza raro baten bila.
Gauza rarua izanik ere
nunbait behar luke egon,
lehengo batean oraindik ere
bere tokian hor zegon.
Zer izan leiken ezin ohartzuz
nabil gora eta beheara
ta bazterreko harakinari
egiten diot galdera.
Harakin horrek ez du esaten
komeni ez den gauzikan,
nahiz nik galdetu ez du mugitzen
bere mutur-hezurrikan.
Urte luzetan eduki baitu
kuidado askoz itxita,
Santokristori noizbait eginaz
Lezo aldera bixita.
Berrogei urte pasatu ditut
eta beste hainbeste nahi
bakar-bakarrik esaten zuen
Patxikuk agintzean bai.
Zerbait galdu zait ez dakit zer den
hau dek atarramentua,
kanpaia juaz hortxe ari da
Karmeliten komentua.

Kartera ote da galdu detana
atzo igandez elizan?
Ez da posible ni aspalditik
ez bainaiz elizan izan.
Andrea ote da galdu detana
beste norbaiten ohean?
Horrelakorik gertatu ezker
bizi liteke pakean.
Ez da andrea ez da kartera
Zer da beraz arraioa
Izan liteke hanka tartean
Nuen zintzilikaioa.
Behin zakur batek hozka egin eta,
akordatze naiz oraintxe,
puska guztiak kendu zizkidan
kupirik gabe bertantxe.
Zakur hori da hainbeste urtez
zaunkaka jardun zaiguna,
hankartarteko gauzik ez duten
kristau guztien laguna.
Kristau guztien laguna eta
darabilkiguna hemen,
bijilantziak oraindik ere
gastatzen du zerbait hemen.
Galdutakuak berriz osatzen
izango det kontu latza,
demokrazia badator eta
San Pedrok lagundu gaitza. (2020a, 501-502)

5.8.3 Poemategitako bertsoak

Letek poema batzuen musikatzeko aukerak argi ikusten zituen. Batzuk poema liburutuan geratuko ziren irakurle zain eta beste batzuei zabalkunde handiagoa emango zien musikatu.

Zeren arabera hautatzen ote zituen ez dago argi, bere ustez onenak izan zitezkeenak hautatuko zituen batetik; argi dagoena da egitura aldetik batzuk kanta bihurtzeko potentzialitate gehiago zutela.

Urrats desbideratuak liburua halakoz beteta ageri da. Forma maisutasunez menderatu ostean edukian erre kreatzen den Lete bat ageri da liburu honetan. Bertsolaritzako molde tradizionaletan emandako poema asko topa daitezke eta hemen emango dira horietako zenbait.

kontuan izan behar da, hasieratik Leteren poemak baliatu izan zituztela beste kantariak ere, beraz, argitaratzearekin letra haiei beste bizitza bat izateko aukera irekitzen zien. Ezagunena beharbada Mikel Laboaren ahotsetik zabaldu zen ‘Ihesa zilegi balitz’ izeneko da. *Urrats desbideratuak*-en (1981) 67. orrialdean dago bildurik musikalki lau kopia handiz osatutako sorta hau. Hala ere, pentsa daiteke bi zortziko handi edo hamaseiko handi bat ere izan daitekeela, errima mantendu egiten baita sorta guztian zehar:

Ihes betea zilegi balitz
nunbait balego bakea
ni ez nintzake etxe ertzeko
loredien maitalea.

Ni ez nintzake oinazearen
menpeko mixerablea
oihu zekenen destinatzaile
etsipenaren semea.

Ni ez nintzake inorenzako
askandaluzko kaltea
lur hotz batetan aldatutako
landare sustrai gabea.

Ihes ederra zilegi balitz
urra ahal baledi katea
ni ez nintzake ontzi gabeko
itsasgizon ahalgea.

Xalbadorren ‘Ama Euskal Herria’ eta Lizardiren ‘Asaba zaharren baratza’-ren eragina duen *Urrats desbideratuak* liburuko ‘Lore ederrak dastatu ditut’ izeneko poema, adibidez, zortziko handiz osatua da eta kantatzeko aproposak lirarteke, baina ez zituen musikatu.

Lore ederrak dastatu ditu
basamortuko bidean
arrano beltz bat nuen gidari
gau eta egun aidean,
esnaturikan goizean goizik
lehen ekiak argitzean
lur urrun baten billa nenbillen
ametsaren ihizean.

Ez nuen uste bide haretan
hain joan luzez irautea,
aragiaren gozo lillurak
berez daka ihautea,
garizumaren etxe beltzean
penaz jo nuen atea
eta barrua aurkitu nuen
itzal ankerrez betea.

Baratza zegoen txit urratua
belar ziztriñez hartua,
ezin espero hain neurri latzez
ordaintzerikan tratua,
kontzientziko ezkil illunek
hartzen zidaten kargua,
etsipenaren leize beltzean
aurkitu nintzen sartua.

Orain badakit zer den eziña
kulparen kargaz hiltzea
irterarikan iñun ez duten
bidetatik ibiltzea,
kontsolamendu bakarra nuke
nere baitara biltzea,
hitzak alferrik direnez gero
berdin zaio isiltzea. (Lete, 1981, 23-24)

Antzerako zerbait esan daiteke liburu bereko ‘Berriro igo nauzu ene mendira’ poemari buruz ere (Lete, 1981, 25). Metrikoki bertsolaritzaren moldea hautatzen du, baina testualki ahozkotasunezko estilotik urruntzen da. ‘Negua zai’ eta ‘Haizea dator ifarraldetik’ kantak dira estilo horren espresio gorena eta izatez poema honek ere haien tankera du.

Maitegoak udazkenean
zuhaitzen osto gorriak,
oritasunez apanduriko
makal zuzenen gerriak,
hegoaizetan lokartutako
iratze okre geldiak.

Maitegoak, azken mugetan,
iraganaren zantzuak,
lore xumeen petako eme
ur izkutuen kantuak,
euri epelen gozotasuna.
gaueko zero altuak.

Maitegoak sua ta jaia
fruitu berrien haziak,
uda beteko musiketarik
ernaldutako antsiak,
Eros ausartak gorputz gaztetan
ixuritako graziak.

Maitegoak behin joan zirenak
sekulan ez itzultzeko,
begiek zabal dirauten arte
argitan blai itzaltzeko,
sufritu duen gizonak ez du
lotsarik behar galtzeko. (Lete, 1981, 25)

Kasu honetan, Imanol izan zen bertsook diskoratu, eta jendartearen belarrietara gerturatu zituen²⁷. Karlos Jimenez izan zen musika jarri ziena.

‘Nafarroako azken erreginak Donapaleun’ izenekoa ere lau zortziko handiz osatutako sorta da.

Egunsentiko zaldi zurien
ihes larriaren otsa
odol gorriak taupadatzen du
dointzeilatxoan bihotza,
maitasun amets erregarrien
deuseztapenaren hotza,
liho artean izkutatzen zen
gorputz biluztuen lotsa. (Lete, 1981, 47)

²⁷ [Hemen entzun daiteke](https://www.youtube.com/watch?v=ky9cwEoowgs) Imanolen kanta: <https://www.youtube.com/watch?v=ky9cwEoowgs>

‘Ekain usaitu batean’ izeneko poemak zortzi silabako berdinen moldea darabil eta ‘Habanera’ren estiloa bistakoa da. Hura bezala, tarteka soilik errimatzen du. Hoskidetasun asonante batzuk badaude zenbait estrofatan eta errima tradizionalak bestetan:

...

Ez nuke begiratu nahi
mugaren azken izpiak
aztarrenik utzi gabe
nola deusezten zaizkidan
zergatik doan guztia
zalantzako lurraldetan
kondairaren ukazioz
hondakin bilakatzera.

Bitartekoak bakarrik
nituen zorion abesti
barne betetasun gai
ta nitasunaren edesti
lilluraz jazten den oro
saporez eta usaiez
desioz ernaldurikan
jabego haundi beharrez.

5.9 Ondorioak

Letek idatzizkoaren abantailak nahi zituen bere kantentzat (zabalkundea, egilearen errekonozimendua...) eta hala bere pentsamoldea Euskal Herriari helarazi, baina poesiatik ezberdina den diziplina batean ziharduenaren kontzientzia ere bazuen. Horregatik, bere liburuetan erabiltzen zuen lengoaia modulatzeko du kantatan.

Lekuonak erdi-ahozkotasunaren kategoria landu zuen. Bertan, autoreak ahozko ondarearen jakitun da eta ezagutzen ditu esamoldeak eta teknikak. Hainbeste esaldi memorizatu dituen ezen nahi gabe ere hain berrinterpretatzen dituen (Lekuona, 1998, 173). Eraitza, ahozko estiloa gogorarazten den hizkera da.

Ez da kasualitatea Euskal Herrian ahozkoa eta idatzizkoa bereizteko lanak izatea. Literatur kanonak ezarri dituzten inguruko hizkuntzatan idatzizkoaren tradizioa antzinakoa da eta korpus handi baten gainean sostengatzen da. Euskal Herrian, ordea, bertsolaritzak bete ditu ahozkoaren eta idatzizkoaren zenbait funtzio eta estilo berezitu bat eraiki du.

Lete iragazki bat izan zen. Iturri zaharretatik ura jaso eta herriari eman zion edaten, berreskurapen lana eginaz. Eta, aldi berean, bere jarioaren ur berria ere ematen zuen. Ur hori euskaltasunaren putzutik etortzen zen. Hargatik zitzaion hain gustuko entzuleari, beti edandako iturriko uraren zapora berekoa zelako bere emaria.

Artzeren kasuan errepikapen edo hoskidetasunean oinarritutako bertso librea nagusien da (Oronoz, 2011, 470) Leteren kasuan, berriz, neurri tradizionalen erabilera markatuagoa da.

Plagioaren estandarra ezberdina da bertsolaritzan. Originaltasuna ez da derrigorrezko baldintza, pertinentzia garrantzitsuagoa da. Beste norbaiten esana gogora ekarri eta neurtuta kantatzea meritutzat hartzen da. Ez dago, idatzian ez bezala, ideia norena den esateko beharrik eta tarterik ere. Bertsolari batek “sutan jartzean probatu ohi da nolakoa den eltzea” kantatzen badu, ez du esaldiaren autorea aipatzen. Informazio partekatuari esker daki entzuleak norena den, eta ez baleki ere ez luke axolako. Hala izanik, zenbait esaldik letra

herrikoiek bezala bidaiatzen dute. Kantautore batek, Benito Lertxundiren *cover* bat egin eta “azken arnasa eman nahi nuke / itsasoari begira” kantatzen badu, ez du zertan jakin letra hori Jon Maiak idatzi zuela; eta ezta, aldi berean, zumaiarrak Lizasoren bertso historiko baten bukaeran oinarriturik idatzi zuela letra.

Joxerra Garziak aipatzen zuen zituen inguru-testu trinkoa eta ezpalduari dagokienez (1999, 273) Leteren kantagintzan gunez baino unez hausnartzea interesgarriagoa litzateke. Ez Dok Amairuren lehen urteetan inguru oso trinkoa topatu zuten eta agian are trinkoagoa amaieran. Garziak aipatzen du 1967ko txapelketako bertsoak aztertu zituenean apenas topatu zuela ezer aipagarriarik testuetan (1999, 275), balioa inguruak ematen ziela dio eta bertsolarien eginbeharra hitz haiek egoki berreskuratu eta kokatzea zela nagusiki.

Ez Dok Amairuko partaideek, zenbait urtetan plazaz plaza ibili ostean, beraien artista funtzioa balioen inbokatzaile izatetik haratago kokatu zuten eta neurri batean ofendituta sentitzen ziren, askoz gehiagorako gai ikusten baitzuten beraien burua. Ondoren, ordea, isilaldi baten ostean bere buruari exijitu zioten kalitatea, maila goreneko ekoizpena, eta testuinguru kohesionatuetan eta ezpalduetan, bietan, eskaini zuten.

5.10 Erreferentziak

- “Aita Donostia” Zulaika, J. G. (d.g) Amodioa zoin den zoroa. *Bertsolaritzaren Datu Basea*.
<https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/1223-amodioa-zoin-den-zoroa-amoria-xorua-dela-bort-aldietan-egondu-zara>
- Amuriza, X. (1997). *Hiztegi errimatu. Hitzaren kirol nazionala*. Bertsozale elkarte.
- Arkotxa, A. (1983). Xabier Lete: un poète basque sous le franquisme, une conception de la finalité du langage poétique. *Iker*, 2. 155-173 or.
- Aulestia, G. (1990). *Bertsolarismo*. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Aulestia, G. (2005). Bertsolaritza: Island or Archipelago? In Armistead, S. G. eta Zulaika, J. (Ed.) *Voicing the Moment: Improvised Oral Poetry and Basque Tradition*. University of Nevada Press, 169-194 or.
- Azkue, R. M. (1895a). Ai hori begi ederra B. *Bertsolaritzaren Datu Basea*.
<https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/1788-ai-hori-begi-ederra-ii-partitu-gi-nen-herritik>
- Azkue, R. M. (1895b). Hor goian goian errota. *Bertsolaritzaren Datu Basea*.
<https://bdb.bertsozale.eus/es/web/doinutegia/view/1854-hor-goian-goian-errota>
- “Bilintx”, Bizkarrondo, I. (1874). Nagusi jauna hauxe da lana. [Bertso-jarriak]
Bertsolaritzaren Datu Basea.
<https://bdb.bertsozale.eus/es/web/doinutegia/view/2160-nagusi-jauna-hauxe-da-lana-ii-joana-bixenta-olabe-ii-hurra-papito-ii>
- Dorronsoro, J. (1981). *Bertsotan 1789-1936*. Editorial Elexpuru.
- Egaña, A. (1993). Benetan ez da mutil makala [Bat-bateko bertsoaldia]. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/jpeg8>
- Egaña, A. (2004). *Hogeitabina*. Hariadna editoriala.
- Elortza, I (2013/12/15). Hementxe gaude ia-ia ez. [Bat-bateko bertsoaldia]. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/132eks>
- Foley, J.M. (2002). *How to read an oral poem*. University of Illinois Press.
- Gandara, A. (2018). Zentsura eta errealitate sinbolikoa: oinarri teoriko eta euskal adibide zenbait. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 2(63), 671-694 or.

- Garzia, Joxerra. (1999). *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea].
- Garzia, Joxerra; Sarasua, J.; eta Egaña, A. (2001). *El arte del bertolarismo: realidad y claves de la improvisación oral vasca*. Bertsolari liburuak.
- Garzia, Joxerra. (2007). History of Improvised Bertolaritza: A Proposal. *Oral Tradition* 22(2), 77-115 or.
- Garzia, Joxerra. (2021). *Bertolaritza. Bertolarismo*. Etxepare Euskal Institutua. https://www.etxepare.eus/media/uploads/cultura/categorias/relacionados/basque_bertolaritza_eus_cas_compressed.pdf
- Garzia, Juan. (1997). *Txirritaren baratzea*. Alberdania.
- Gintsburg, S. (2017). It's got some meaning but I am not sure...: The role of the particle (wa)-ma in the oral and transitional poetry of the Jbala (northern Morocco) from the cognitive perspective. *Pragmatics and cognition*, 24(3). 474-495 or.
- Gintsburg, S. (2019). Lost in dictation. A cognitive approach to oral poetry: Frames, scripts and 'unnecessary' words in the Jebli ayyu. *Language & Communication*, 64. 104-115 or.
- Goikoetxea, J. (2011) Xabier Lete eta Hernani. *Hernani urtekaria*, 18.106-113 or.
- Gurrutxaga, Alex (2020a). *Xabier leteren poetika: aldaeren azterketa eta bilakabidearen irakurketa bat*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Artxibo digitalak ikerketa irakaskuntza (ADDI). https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/47863/TESIS_GURRUTXAGA_MUXIKA_ALEXANDER.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Kortazar, J. (1989). *Laberintoaren oroimena*. La primitiva Casa Baroja.
- Lazkano, I. (2003). *Ahobizarrik gabe*. Bertsozalari liburuak.
- Lekuona, J. M. (1994). Euskal estrofez. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 39(3), 1187-1219 or.
- Lekuona, J. M. (1998). *Ikaskuntzak Euskal Literaturaz (1974-1996)*. Deustuko Unibertsitatea.
- Lertxundi, A. (2019). *Itzuliz usu begiak*. Alberdania.
- Lete, A. (d.g.). Milla bederatzireun ogeitamaseian [Bertso- sorta argitaragabea].
- Lete, X. (1978a). Xabier Leteren elkarriketa [Elkarriketatzaile: Joxe Mari Beloki]. *Herri Irratia*.
- Lete, X. (1981). *Urrats desbideratuak*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.

- Lete, X. (1993a/10/26). Goizuetako misiyua [Kontzertua].
https://www.youtube.com/watch?v=0IBBz_HJQFU&t=105s
- Lete, X. (1993b/10/26). Mirestu beza munduak [Kontzertua].
<https://www.youtube.com/watch?v=iAVupzT4yJw>
- Lete, X. (2006). *Abestitzak eta poema kantatuak*. Elkar.
- Lete, X. (2011). *(Auto)biografia bat* (Editore: Inazio Mujika). Alberdania.
- Lord, A.; eta Bates, A. (1995). *The singer resumes the tale*. Cornell University Press.
- Lujanbio, M. (2001a/11/17). Hirurogeita hiru urtekin [Bat-bateko bertsoaldia].
Bertsolaritzaren Datu Basea. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/fj08c>
- Lujanbio, M. (2001a/12/16). Kaixo Maialen: zer moduz? [Bat-bateko bertsoaldia].
Bertsolaritzaren Datu Basea. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/fkdc4>
- Martin-Etxebeste, J. (2020). El espacio de las mujeres en el bertsolarismo. In Jodrá, S. eta Benito del Valle, A. (Ed.) *Arte, literatura y feminismos*. Iberoamericana Veruert. 191-224 or.
- Martin-Etxebeste, J. (2020). El espacio de las mujeres en el bertsolarismo. In Jodra, S. eta Benito, A. (Ed.) *Arte, literatura y feminismos*. Iberoamericana-Vervuert. 191- 224 or.
- McCartney P.; eta Lennon, J. (1968). Obladi Oblada [Abestia]. *The Beatles*. Northern Songs.
- Mendizabal, A. (d.g.) *Azken hamarkadetako euskal kantarien prosodia musikalaz, ene oharmenaren leihatilatik*. [Master Amaierako lan argitarabea, Mondragon Unibertsitatea].
- Ornoz, B. (2011). *Josanton Artze "Harzabal": inguruaren eragina poesiagintzan (1969-1979)*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Artxibo Digitala Ikerketa Irakaskuntza (ADDI).
<https://addi.ehu.es/handle/10810/10801?locale-attribute=eu>
- Otaegi, L. (2012). Modern Basque Poetry. In Olaziregi, M. J. (2012) *Modern Basque Literature*. Center for Basque Studies. 201 - 244 or.
- Oteiza, J. (1994). *Quousque tandem...!* Pamiela.
- Págan, C. eta Antovi, M., (2016). Formulaic creativity: oral poetics and cognitive grammar. *Language & Communication*, 47. 66-74 or.
- Parry, M. (1930). Studies in the epic technique of oral verse-making. I. Homer and Homeric style. *Harvard Studies in Classical Philology*, 41. 73-147 or.
- Paya, X. (2013). *Ahozko Euskal Literaturaren Antologia*. Etxepare Euskal Institutua.

- Perez-Gaztelu, E. eta Saez de Eguilaz, H. (2020). *Zerbitzuko lanean. Lete kazetari, Lete prosagile*. Mugarri.
- Roman, G. (2015). *El deseo nacional: la gramática del surgimiento de los sujetos nacionales*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Artxibo digitalak ikerketa irakaskuntza (ADDI). <https://addi.ehu.es/handle/10810/16196>
- Torrego, L. (1999). *Canción de Autor y educación popular (1960-1980)*. Ediciones de la Torre.
- Urien, A. (2020). *Poesia zaurien ukendu*. Pamiela.
- “Xalbador” Aire, F. (1976). *Odolaren mintzoa*. Auspoa.
- “Xenpelar” Petriarena, J. F. (d.g.a). Iparragirre abila dela [Bertso jarriak]. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/doinutegia/view/2146-iparragirre-abila-dela-gure-etxeko-neskatua>
- “Xenpelar” Petriarena, J. F. (d.g.b). Ia gureak egin du [Bertso jarriak]. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/doinutegia/view/2142-ia-gureak-egin-du>
- Zabala, A. (1968). *Paulo Yanzi ta bere lagun bertsok*. Auspoa
- Zabala, A. (1985). *Esaera zaarren bilduma berria*. Auspoa. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/auspoa/10985.pdf
- Zabala, A. (1992). *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*. Auspoa.
- Zenbait Autore (2015). *Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa*. Lanku argitalpen zerbitzuak.
- Zenbait Autore (2017). Bertsolaritzako epai irizpideak. *Bertsozale.eus*. <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/informazioa/epai-irizpideak>

6 Azken hitzak

Azken kapitulu honek tesia ixteko funtzioa du. Landutako hainbat gairen erreposoa egin eta ondorio nagusiak laburtuko ditu.

Leteren 40 abestietan maitasuna, heriotza eta nortasuna dira gai nagusi. Natura, berriz, gai bezala baino gehiago, baliabide gisa erabiltzen da. Aipatutako lau gaietako biren edo hiruren konbinazioak erabiltzen ditu Letek maiz. Maitasuna eta aberria gurutzatu egiten dira eta, baita heriotza eta maitasuna ere.

Letek ez zuen “aberria ala hil” esaldia bere egiten; bizitzeko lurgain atsegina baten bilaketan ziharduen. Bizitzari gorazarre egin zion Letek, baina bizitza sakonki ulertzeari ez zion uko egin nahi. Hori dela eta gai serioei heltzeko konplexurik ez zuen izan eta ezta ikuspuntu kritikoa erabiltzeko ere.

Bizitzaren zentzua aurkitzen eta ulertzen tematu zen poeta eta hasierako aroan existentzialismoa besarkatu zuen. Bolada hartan, indibidualki eta kolektiboki zapaltzen zuen etsaia bistakoa zen eta Eliza haren zerbitzura zegoen erakundetzat hartzen zuen. Beranduago ordea, heriotzaren begiak ikusi zituenean, errezatzeak zekarkion soseguaz ohartu zen eta maite zituenekin berriz elkartzeko aukerak erakarri; horregatik, fedea berreraiki zuen eta makulu indartsu bilakatu zitzaion. Jainkoan sinesten ez zuen garaian hura zalantzan jartzen saiatu zen eta Harengan sinesten zuenean ere zalantzazko harremana eraiki zuen harekiko.

Erreposo bat eginaz, Letek heriotzari idatzitako zenbait eresi konposatu zituen. Xalbadorri idatzitako bi lanak –Xalbadorren heriotzean (I), Xalbadorren heriotzean (II)–, Beatriz Allenderi, eta bere aitari idatzitakoa sar daitezke kategoria horretan.

Beste batzuetan, maite zuen pertsona galtzearen beldurrari idatzi zizkion abestitzak. Horietan, maitasuna bistakoa bada ere, nagusiki Jainkoarekin hitz egiteko aitzakia dira bere letrak.

Horien artean sailka daitezke ‘Maiteaz galdezka’ eta ‘Jardin bat zuretzat’. Atal honetan sailka daiteke ‘Seaska kanta’ ere baldin eta abortu baten osteko eresi gisa interpretatzen bada.

Figura 31

Heriotzaren gaiari heltzen dioten abestiak



Leteren letra indartsuenetako batzuek heriotzaren eta bizitzaren arteko zikloaz dihardute eta idazlearen gaztaroko materialismoa airerutzen dute. ‘Sinisten dut’ eta ‘Izarren hautsa’ abestiak dira horren adibide. Neurri apalago batean, bizitakoari buruzko gogoeta bat eta heriotzarako bidea egiten duen bat den heinean, bertan koka daiteke ‘Biographia’ ere. ‘Neguaren zai’ abestia da heriotzaren gaiari zintzurretik ondoen heltzen diona. Bertan, paisaiaren bortizkeria eta gizakiaren ziurgabetasuna azpimarratzen da. Belaunaldien joana eta arbasoak naturarekin batera aipatzen diren heinean Letek aberriaz zuen ideiatik oso gertu kokatu behar da. Hala ere, ‘Haizea dator ifarraldetik’ abestia gehiago lerratzen da kategorizazio horretara. Naturaren presentzia eta existentziari buruzko galderak uztartzen dituen beste abesti bat ‘Ni naiz’ izenekoa da. Letek naturarekiko zuen atxikimendua argi ikusten da bertan, natura borborka deskribatzen du eta gizakiaren kaiolaketa seinalatzen.

‘Gaua’ eta ‘Malkoak euri balira’ abestiek, ordea, munduaren eta gizateriaren alde ilunaren deskribapena egiten dute, kontraste bidez itxaropenari idatzitako abesti bihurtzeko. Ez dirudite, hala ere, aberri zehatz bati lerraturik daudenik. Herbert Marcuseren pentsamenduari jarraika, badirudi desexualizazioak Erosa ahultzen duenean bulkada suntsitzaileak areagotu egiten direla. Gizateriaren instintuak ondorengoak sortzera bideratzen ez bada bizitzaren aurka lerratzen direla iradokitzen du filosofoak *Eros y civilización* liburuan (1983).

Kantari askoren obra maitasun pasionala goratzen duten abesti hiperbolikoz beteta dago. Letek, ordea, bere maitasunaren tamaina pertsona hura desagertzen zenean sentituko zuen hutsunearekin alderatzen zuen. Ez zen, beste asko bezala, berekiko maitasuna galtzearen beldur; maite zuen pertsona desagertzearen beldur baizik (“maite ez banauzu hilko naiz” Vs “hiltzen bazara maitatzen jarraituko zaitut”). Izatekotan, kulpa sentipenari lotuta agertzen da maitasuna. Maite zuen pertsonarekiko konpromisoa eten izanaren zama irudikatzen zuen hainbat abestitan. *Egunsentiaren esku izoztuak* liburuan, adibidez, Stenbergen hirukian irudikatzen den erabateko maitasunerantz edo maitasun sozialerantz lerratzen da.

Maitasuna heriotzarekin harremanetan lantzen zuen abestiak borobilak iruditzen zitzaizkion eta diskoratu egin zituen. Ez zituen, ordea, bere ahotsean grabatuta utzi nahi izan maitasunaren zoramen faseari buruzkoak; Iriondoren ahotsean plazaratu ziren. Rol seduzitzaileari buruz bi modutan heldu zion: batetik, tonu komikoan idatzi zuen (porrot egin duen seduzitzailearen rolean) eta kantaldietarako erreserbatu zituen; eta, bestetik, sedukzioa pertsuasio politikoari uztartuta landu zuen (‘Otsoak eta Txanogorritxu’, ‘Lore gorrien balada’). Azken hauek, diskotarako aproposak iruditu zitzaizkion, nahiz eta ez ziren normalean kontzertuetarako hautatutako aleak izan. Kontzertuetako hautaketa hau autorearena adina entzuleriarena ere izan daiteke. Kanta bakoitza amaitu osteko txaloaldiak markatzen baititu gogokoenak.

Leteren maitasun pasionala, beraz, intimitatean geratu zen. Publiko egiteak lotsa sortzen zion, maite zituenen oinazea ekar zezakeen, edo artista gisa Euskal Herriari eskaini nahi zion mezu mota bestelakoa zela iruditu zitzaion. Oker geundeke, ordea, Leteren abestitzetan maitasun pasionalik ez dela ageri esango bagenu. Aberriarekiko erakusten duena hori bera da: itsuki desio duen objektua, baina bere desiotara makurtzen ez dena.

Maitasun abestien artean, harremanetan izaten diren gora-beherez gogoeta egiten dute ‘Amodio, amore’k, ‘Agian’ek, eta ‘Ez esan, maite’k. Maitasun ukatua dute ardatz, ordea, ‘Festa bukatzean’ek eta ‘Zuk badiozu’k. ‘Ez nazazu utzi (I)’ abestian preso dagoen pertsona baten aldagaia ere sartzen da.

Figura 32

Maitasuna gai hartuta idatzi zituen kanta.



Oharra: Ezkerrean, Eros eta Tanatos (bikotekidea eta lagun eta sendia, bereiz); goialdean leialtasuna; eta, eskuinean maitasun abestiak (behealdean konpromiso sozialarekin lotuta).


Aberriaren eta naturaren erreferentziak nahastuz sortutakoak dira ‘Alzateko jaun’ eta ‘Nafarroa, arragoa’. Antzerako zerbait gertatzen da ‘Alzateko jaun’ abestiarekin ere.

Beste zenbait abestitan aberriarekiko konpromisoa da orbitazio zentro. Hauen barruan bi desbiazio nabarmendu daitezke: bata, aberriarekiko maitasunak (eta gorrotoak) eragindakoa –‘Euskalerra nerea’, ‘Poeta hoiek’, ‘Ez dut amets haundirik’ eta ‘Aberri ilunaren poema’–;

eta, bestea, aberriaren eta naturako elementuen uztarketa –‘Gauaren ordezeko eguna’, Haizea dator ifarraldetik’, ‘Herri zahar hontan’, ‘Neguaren zain’–.

Figura 33

Nazioarteko gaiak, langileriar buruzkoak eta aberriari buruzkoak.



Gehienak euskal kulturatik euskal kulturara jaurtitako mezuak dira, baina ez dira gutxi kanpotik datozen mehatxuei idatzitakoak (espainiar kulturarekiko igurtziaz gogoetetzen dutenak, esaterako): ‘Lore gorrien balada’, ‘Otsoak eta txanogorritxu’, eta ‘Haur andaluz bati seaska kanta’.

Beste kultura batzuekin, nazioarteko beste herriekin, konplizitatea bilatzen duten abestiak ere badaude: ‘Chile’, ‘Cancó a Catalunya’, eta ‘Lore bat, zauri bat’. ‘Habanera’ ere Kubarekiko nolabaiteko miresmen keinu gisa irakur liteke nahiz eta bistan den ez dela aurrekoak bezain esplizitua.

Langile klasearen parte izateak baldintzatzen ditu erabat beste zenbait kanta: ‘Giza aberea’, ‘Langile baten seme’, ‘Teologia, ideologia’, ‘Eskeintza, nere aita zenari’.

Inon sailkatzekotan, azken honetan beharko luke ‘Gizon arruntaren koplak’ek, baina ‘Henry Millerri eskutitza’ bezala aparteko sail batean kokatzea egokiagoa litzateke. Lete, bere ohiko poetikotasuna eta seriotasuna utzita, bestelako libertimendu batzuetara abiatzen da.

Arrakasta komunikatiboari dagokionez, Leterena dagoen adibiderik interesgarrienetako bat izan daiteke. Oholtza gainean, kantatzen ez ezik hizketan ere primeran moldatzen zen. Oholtzatik jaitsitakoan ere sekulako karisma zuela eta oso pertsona umoretsua zela diote ezagutu zutenek. Bere hizkera, herri tradizioz aberastua, ez zen hasieran beste poeta batzuen bezain jaso akaso; baina poesia sozialaren garaietan ederki funtzionatzen zuen.

Garai haietan esan nahi zen oro esatea ez zen libre, ordea; eta igorleak eta hartzaileak partekatzen zuten mezua metaforaz bete behar zuten poetek. Abestien esplizitutasunak arrakasta zekarkeen, baina zentsuratua izateko arriskua handia zen; eta ondorioz, kantariak euren buruaren zentsore izaten ikasi zuten. Iragazkietako zirrikituetatik ihes zihoazen mezuak idazten trebatu ziren Lete, Artze eta Irigaray eta erabateko arrakasta izan zuten. Gazte eta ausart, ordura arte bizitakoarekin apurtu eta mundu berri bat irudikatzen zuen Ez Dok Amairuk. Mundu berri horretan, diktaduraren zapalkuntza salatzen zuen kolektiboak, eta tradizioaren hainbat kate puskatzea ere proposatzen zuen. Kolektiboak, ondorioz, erregimenaren aurkako borrokan ziharduen euskal tradizioaren berreskurapenean; eta, aldi berean, kristautasunaren zenbait estatusun laxatzeko ahaleginean ziharduen eta, horregatik, zenbait euskaldun fededunen erresistentziak eta boikotak ere pairatu zituen. Hizkera metaforikoak balio zuen, beraz, haien mezuak plazaratzeko; baina arazoak sortzen jarraitzen zuen.

Trantsizioaren garaian, ordea, iragazkiak desagertu ziren eta hartzailea mezu esplizituen gose zen. Garai hartako arrakasta komunikatiboa entzuleriak desio zuena ahalik eta gardenen plazaratzean zetzan eta enkriptazioan zaildutako idazlumek ez zuten errazkeri hartara errenditu nahi izan.

Letek, giroarekin ezeroso, oholtzei izkinaegin zien eta irakurketara jo zuen. Beste idazleen ahotsak bereganatu eta bere idazkera ondu zuen eta bere pentsamendua eta sentimenduak hitz bihurtzen jarraitu zuen. Bere iritziak, ordea, mingarri zitzaizkion ordura arte etsai komuna

partekatu zuen euskal gizartearen zati bati. Kargu politikoa bereganatu izanak areagotu egin zuen min hori eta ezkerretik eta independentistotik urrundu zen. 80ko hamarkadan liburuetan eta 90eko hamarkadan diskoetan kaleratutako abestietan bere pentsamenduari leial izan zitzaion. Hala ere, hitzek zentsoreen garaiko estilotik zerbait mantentzen zuten oraindik eta horrek ahalbidetu zuen entzuleek bere abestitzak nahieran interpretatu ahal izatea. Letek asmo komunikatibo bat izanagatik entzuleak esanahi propioa eman ziezaiekeen abestiei eta, ondorioz, kolore politiko askotako pertsonak zipriztindu ahal izan zituen.

Interesgarria izan daiteke politika eta komunikazioaren alorretik kantagintzatik eratorritako leloen azterketa bat egitea. Duela hamarkada batzuetako lelorik arrakastatsuenetako bat Leterena izan zen: “Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak”. Gaur egun “bizitza da handiena” leloak hartu du indar handiagoa. Bertol Brechten poema batetik itzulitako letra hau ere Laboaren ezpainetan egin zen ezagun. Letek badu horren baliokide izan daitekeen pare bat esaldi ‘Ez dut amets handirik’ abestian. Letrak ez ezik kantariak ere sinbolismoa gehitzen die leloei.

Leteren lorpen handienetako bat, kantei herrikoi kutsua ematea bazen, bere kondena txikia autoretza galerarena izan zen. Egungo belaunaldiek badakizkitez Leteren abestiak, baina askok norenak diren jakin gabe ikasi dituzte. Irakurle saiatua zen Lete eta literaturako ideiak bertsogintzako formulaziotara errenditu zituen; baliteke hori izatea bere arrakastaren gakoetako bat.

Ez Dok Amairu kantaldiak eskaintzen zebilen garaietan bertsolariak plazaz plaza zebiltzan. Aurrez zentsoreek baimendu beharrik gabeko letrarik ez zekarten hauek eta askotan horrek ahalbidetu zien kantariak baino esplizituagoak izatea. Haien bertsoen oihartzuna, hala ere, nekez iritsi zitekeen kantarien abesti batenaren mailara. Letek izugarri miresten zituen bertsolariak. Bere garaikoekin harremana izan zuen eta haiek bezala bat-batean jarduteko irrika sentitzen zuen; baina bereziki aurreko belaunaldiak goستن zituen. Gogoratzen zuen, artean haur bat baino ez zela, entzuleak Oiartzungo plazan nolako miresmenez aditzen zituen haien bertsoak eta antzinako bertso jarriekin gozatzen zuen. Eta ez zen bakarra. Txirritaren bertsoak plazaz plaza kantatzen jarduten zenean entzuleriari zenbat gustatzen zitzaizkion frogatzeko tartea izan zuen. Jakintza hark guztiak zipriztindua zuen bere iturria.

Txirritaren eragina nabarmena da Leteregan. Haren oinak zuzenean bereganatzen ditu batzuetan eta baita haren elipsirako, enfasi negatiborako, pilaketa eta errepikapen hirukoitzetarako joera ere. Leteren grafikotasunerako joera natura idiliko eta industrializazio goriz indartu ohi zen. Naturako elementuen arteko kontrastea, baliabide errekurrentea izan zen oiartzuarraren abestietan. Bertsolaritzatik ez ezik balada tradizioetatik ere edan zuen Letek eta bereziki eragin zion sermoi eta errezo kristauetako hizkera diafasikoak.

Edukian ez ezik forman ere eragin handia izan zuen bertsolaritzak. Korpusaren herena errimatua da eta bertsolaritzako metrika (edo haren aldaera bat) darabil. Letek idatzitako zenbait kanta edozein bertsolarik sinatzeko moduko zuzentasun formalez idatzita daude. Alde batetik, gai ei umorez heltzen dioten bertso sortak daude ('Gizon arruntaren koplak', 'Henry Milerri eskutitza', 'Teologia, Ideologia'). Letek bertsolaritzari egindako ekarpen handiena, ordea, formalki berriak izanagatik berehalako txertaketa izan zuen doinuaren sorkuntzan dago ('Habanera', 'Izarren hautsa'), eta baita kalitate goreneko kanta serioagoetarako proposatu zuen estiloa ere ('Neguaren zai', 'Haizea dator iparraldetik').

Inork Leteren kontzertuetako grabaketa asko balitu, interesgarria litzateke kantak aurkezteko esandakoen bilduma osatzea. Kanta trinko asko zuen Letek eta batetik hurrengorako azalpenek kontzertuak arintzen zituzten. Hizlari abila izaki, entzuleriak asko gozaten zuen bere berbaldiekin. Haietan kanta deskodetzeko zenbait gako askatzen zituen, eta zenbaitetan kantaren jatorrizko zentzua eraldatzeko saiakerak ere egin zituen.

Aldaketa hauek kantaldiko azalpenetan egin zituen zenbaitetan eta beste batzuetan kantatan bertan. Letek bere abestitzen ontzea irekita mantendu zuen. 2006an ixteko ahalegina egin zuen hitzak *Abestitzak eta Poema Kantatuak* liburuan kaitolatu; baina gerora ere aldaketekin segi zuen. Behin eta berriz antzaldatu zituen bere abestitzak.

Tesi honen korpusa eta gaiak mugatuak dira. Hurrengo urtetako erronka izango dira tesian begiz jo, baina heldu ez zaien zenbait hari-mutur. Esaterako, interesgarritzat jotzen dira Leteren kantan maiz agertzen diren beste kontzeptu batzuk hala nola, arnasa, eskuak,

zalantza, itxaropena, ametsa, atsedena, ohea, eta sehaska. Bestalde, gai hauek guztiak bere kolektiboko beste kideekin erkatzeak ere emaitza interesgarriak emango dituelakoan gaude.

Leteren olerkiak gai hauetan sailkatzea eta abestitzekin alderatzea ere etorkizunerako erronka bat da.

Kantagintza aztertzen duen tesi honek abestitzak hartu ditu ardatz, eta ez hainbeste musika alorra. Akademikoki esanguratsua den ekarpenen bat egitekotan bidaideren bat beharko genuke.

Bestalde, lehenbailehen heldu behar litzaioke Ez Dok Amairun emakumeek izan zuten papera aztertzeari, berandu baino lehen. Kudeaketan eta sustapenean ezinbestekoak izan ziren haietako asko eta ez dira liburu askotan jasota geratu.

7 Erreferentzia bibliografikoak

Komunikazio pertsonalak eta elkarrizketak

- Amuriza, X. (2021). “Berariaz egindako elkarrizketa”. 2021eko maiatzaren 21ean.
- Arbelaitz, J. A. (2020). “Berariaz egindako elkarrizketa”. 2021eko azaroaren 1ean.
- Jimenez, K. (2020). “Berariaz egindako elkarrizketa”: 2021eko urriaren 21ean.
- Goikoetxea, J. (2021/07/22). “Berariaz egindako elkarrizketa”. 2021ko uztailaren 22a,.
- Iriondo, J. M. (2018). “Berariaz egindako elkarrizketa”. 2018ko martxoaren 20an, 2018ko irailaren 21ean, eta 2021eko uztailaren 10ean.
- Irigaray, J. A. (2018). “Berariaz egindako elkarrizketa”. 2018ko martxoaren 14an, 2018ko uztailaren 13an, eta 2021eko ekainaren 5ean.
- Irigoién, I. (2017). “Berariaz egindako elkarrizketa”. 2019ko irailaren 25ean.
- Lete, A. (2020). “Berariaz egindako elkarrizketak”. 2020ko irailaren 30ean, 2020ko irailaren 30ean.
- Markuleta, G. (2020). “Berariaz egindako elkarrizketa”. 2020ko abuztuaren 11n.
- Mujika I. (2020). “Berariaz egindako elkarrizketa. 2020ko maiatzaren 14an.
- Arbelaitz, J. A. (2021). “Berariaz egindako elkarrizketa”. 2021eko ekainaren 21a.

Leteren diskoak

Lete, X. (1968). *Xabier Lete* [EP]. Herri Gogoa / Edigsa.

Lete, X. (1969). *Xabier Lete* [EP]. Herri Gogoa / Edigsa.

Lete, X. eta Iriondo, L. (1969). *Lourdes Iriondo eta Xabier Lete* [EP]. Artezi.

Lete, X.; (1969). *Xabier Lete* [Kaseteta]. Artezi.

Lete, X.; Valverde, A.; Lekuona, J. (1974). *Bertso zaharrak* [Kaseteta]. Herri Gogoa / Edigsa.

Lete, X. (1976). *Kantatzera noazu...* [Kaseteta]. Artezi.

Lete, X. eta Valverde, A. (1974). *Txirritaren bertsoak* [Kaseteta]. Herri Gogoa / Edigsa.

Lete, X. (1978). *Lore bat, zauri bat* [Kaseteta]. Herri Gogoa.

Lete, X. (1991). *Eskeintza* [Diskoa]. Elkar.

Lete, X. (1992). *Hurbil iragana* [Diskoa]. Elkar.

Lete, X. (2001). *Berrehun urtez bertsoan. Xenpelar, Bilintx, Elizanburu, Etxahun, Otaño, Txirrita, Basarri, Uztapide, Xalbador eta Lazkao Txiki-ren bertsoak* [7 KD]. Elkar.

Lete, X. (2004). *R.M^a Rilkeren 'Orduen Liburua'* [Disko-liburua]. Pamiela.

Lete, X. (2009). *Neguan izan zen* [DVDA]. Pamiela.

Lete, X. (2010b). *Xabier Lete Zuzenean. Erreterria 1999.IX.25. Azken Kontzertua*. [2 KD]. A&M Kultur Promotora.

Lete, X. (2020). *Xabier Lete Ni naiz. Antologia*. Elkar.

Erreferentziak

Adorno, T. W. (1985). *Impromptus. Serie de artículos musicales impresos de nuevo*. Editorial Laia.

Agirre, A. (2011). Xabier Lete gogoan. *Bertsolari aldizkaria*, 81. 35-76 or.

Agirre, J; Lizaso, J.; Lazkano, I. (1985-05-19). Bertsoa buruan ta [Bat-bateko bertsoaldia]. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/kj36o>

Agote, G. (d.g.). Xabier Lete Biografia. *Badok euskal kantagintzaren ataria*. http://artxiboa.badok.eus/artista.php?id_artista=87

“Aita Donostia” Zulaika, J. G. (d.g). Amodioa zoin den zoroa. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/1223-amodioa-zoin-den-zoroa-amoria-xorua-dela-bort-aldietan-egondu-zara>

Albaladejo, T; Chico Rico (1994). La intellectio en la serie de las operaciones retóricas no constituyentes de discurso. In Albaladejo, T; Chico Rico, F.; eta Del Río Sanz (Ed.) *Retórico hoy*. Editorial Verbum. 339-352 or.

Aldekoa, I. (2004). *Historia de la literatura vasca*. Erein.

Aldekoa, I. (2015). *68ko belaunaldia*. Utriusque Vasconiae.

Alonso, A. L. (2000). La influencia de la canción de autor francesa en la creación musical española: Paco Ibáñez traductor-versionador e intérprete de Georges Brassens. In *VII Coloquio de la Asociación de Profesores de Francés de la Universidad Española*. 205-212 or.

Amuriza, X. (1980/01/06). Gai horrek badu mamia [Bat-bateko bertsoaldia]. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/gov6g>

Amuriza, X. (1990). Asteburu aldera [Abestia]. *Anje Duhalde Amurizaren kantari*. IZ.

Amuriza, X. (1997). *Hiztegi errimatua. Hitzaren kirol nazionala*. Bertsozale elkarte.

- Ansa, E. (2019). *Mayo del 68 vasco*. Pamiela.
- Aranguren, J. L. L. (1968). *El marxismo como moral*. Alianza Editorial.
- Aresti, G. (1970). *Harrizko Herri Hau*. Kriselu. [Online](#).
- Aristi, P. (1985). *Euskal kantagintza berria 1961-1985*. Erein.
- Aristi, P. eta Markez, M. (2012). *Plazer bat izan duk, Benito!* Elkar.
- Arkotxa, A. (1983). Xabier Lete: un poète basque sous le franquisme, une conception de la finalité du langage poétique. *Iker*, 2. 155-173 or.
- De Armas, I. (1987) Simone de Beauvoir: amar sin ataduras. *Cuadernos Hispanoamericanos*, 449. 35-56 or.
- Artze, J. (1977). Kanta berria aztertzen. *Jakin*, 4. 45-50 or.
- Astiz, I. (2018/01/14). Leterenak direnak eta ez direnak. *Berria egunkaria*. <https://www.berria.eus/paperekoa/2048/032/001/2018-01-14/leterenak-direnak-eta-ez-direnak.htm>
- Astiz, I. (2019/12/12). Hertzainak: abestien sorbururainoko bidaia. *Berria egunkaria*. <https://www.berria.eus/paperekoa/1990/022/001/2019-12-12/hertzainak-abestien-sorbururainoko-bidaia.htm>
- Attali, J. (1995). *Ruidos: ensayo sobre la economía política de la música*. Siglo XXI.
- Aulestia, G. (1990). *Bertsolarismo*. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Aulestia, G. (2005). Bertsolaritza: Island or Archipelago? In Armistead, S. G.; Zulaika, J. (Ed.) *Voicing the Moment: Improvised Oral Poetry and Basque Tradition*. University of Nevada Press. 169-194 or.
- Aulestia, G. (2010). *Escritores euskéricos contemporáneos*. Euskaltzaindia bilduma. [Online](#).

- Aurtenetxe, A. (2010/01/08). Introducción al movimiento cultural Ez dok amairu. *Euskonews*, 515. <http://www.euskonews.com/0515zbk/gaia51501es.html>
- Ayerbe, M. (2016/10/23). Teatro saltseroa. *Berria egunkaria*. https://www.berria.eus/paperekoa/1987/041/002/2016-10-23/teatro_saltseroa.htm
- Azkue, R. M. (1895a). Ai hori begi ederra B. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/1788-ai-hori-begi-ederra-ii-partitu-gi-nen-herritik>
- Azkue, R. M. (1895b). Hor goian goian errota. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/doinutegia/view/1854-hor-goian-goian-errota>
- Badok (d.g). Xabier Lete. *Badok euskal kantagintzaren ataria*. <https://www.badok.eus/euskal-musika/xabier-lete#diskografia>
- Bardin, L. (1986). *Análisis de contenido*. Ediciones Akal.
- Baroja, P. (2006). *La leyenda de Jaun de Alzate*. Txalaparta.
- Barthes, R. (1993). *Fragmentos de un discurso amoroso*. Siglo Veintiuno de España Editores.
- Bastida, M. (2014) *Memorias. Una biografía de Mikel Laboa*. Elkar.
- Belter (1967). Mari-Lourdes Iriondo “Joan Baez del País Vasco”. *Belter informa boletín informativo*, 18. 3 or. Xabier Lete eta Lurdes Iriondo funtsa [XL 132-6].
- Beobide, I. (1966/03/13). Bestelakoak al gea?. *Zeruko Argia*, 159. 7 or.
- Bigas, M. eta Correig, M. (2008). *Didáctica de la lengua en la educación infantil*. Síntesis.
- “Bilintx”, Bizkarrondo, I. (1874). Nagusi jauna hauxe da lana [Bertso-jarriak] *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/doinutegia/view/2160-nagusi-jauna-hauxe-da-lana-ii-joana-bixenta-olabe-ii-hurra-papito-ii>

- Brel, J. (1968). Le plat pays [Abestia]. *Barclay. Amsterdam / Jef / Les Bonbons / Le Plat Pays*. Barclay.
- Brown, N.; Cohn-Bendit, D.; Fromm, E.; Laing, R.; Marcuse, H. (1973). *Ensayos sobre el Apocalipsis*. Kairós.
- Cabedo, A. (2009). Música, género y paz: anotaciones a partir de los estudios musicológicos feministas. *Tiempo de paz*, 95. 86-92 or.
- Cabo, F. eta Cebreiro, M. (2006). *Manual de teoría de la literatura*. Castalia.
- Carrión, A. (2021) La configuración de la inventio narrativa: una propuesta metodológica para el análisis temático de las ficciones audiovisuales. *Zer*, 26(50). 185-206 or.
- Castillo, R. (1994). La teoría del instante en Bachelard y el espacio onírico. *Revista de Filosofía de la Universidad de Costa Rica*, 32(77). 109-116.
- Ceserani, R. (2008). Il punto sulla critica tematica. *Allegoria*, 58. 25-33 or.
- Chevalier, J. eta Gheerbrant, A. (1996). *Dictionary of symbols*. The penguin.
- Claudín, V. (1981). *Canción de autor en España (apuntes para su historia)*. Júcar.
- Colina, S. eta Iturriaga, U. (2005/12/18). Hau da hau kotxetzarra [Bat-bateko bertsoaldia]. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/ks9hg>
- Costa, P. O.; Pérez, J. M. eta Tropea, F. (1996). *Tribus urbanas*. Paidós Ibérica.
- Delfa, C. V. (2016). Actividades de imagen en el género discursivo de la canción protesta: un análisis desde la teoría de la cortesía. *Analecta Malacitana*, 40(7). 147-163 or.
- Dorronsoro, J. (1981). *Bertsotan 1789-1936*. Editorial Elexpuru.
- Egaña, A. (1993). Benetan ez da mutil makala. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/jpeg8>
- Egaña, A. (2004). *Hogeitabina*. Hariadna editoriala.

- Egia, G. (2011). Xabier Lete, itzultzaile *Senez*, 41. 43-82 or.
https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/20110824/egia?set_language=eu
- Elortza, I (2013/12/15). Hementxe gaude ia-ia ez [Bat-bateko bertsoaldia]. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/132eks>
- “Euskitze” Peritz, X. (2010) *Pedro Mari Otaño Barriola 1857-1910*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. [Online](#). Ekman, P. (1999). Basic emotions. *Handbook of cognition and emotion*, 98. 45-60 or.
- Eskisabel, J. (d.g). Herri gogoia. *Badok euskal kantagintzaren ataria*.
http://artxiboa.badok.eus/diskoetxea.php?id_edukia=18
- Etxeberria, H. (2002). *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan*. Alberdania.
- Etxezarreta, R. (2017/12/8). Elurretako Lete. *El Diario Vasco*.
https://pgrakoak.blogspot.com/2017/12/elurretako-lete.html?spref=tw&fbclid=IwAR0b874utbwGUh0zeLLKWYNRjvPVT_ijxI0IR86-afZmj7QTcXBoiTeZDPg
- Ezeiza, K. (2019/06/03). Barren-barreneko sentimendu zoragarri bat da artistaren lana. *Goiberri aldizkaria*.
<http://goiberri.eus/2019/06/03/barren-barreneko-sentimendu-zoragarri-bat-da-artistaren-lana/>
- Ezkerra, E. (2012). *XX. mendeko euskal literatura*. Etxepare Euskal Institutua.
- Feito, A. (2005). *Benito Lertxundi, el bardo de Orio*. La voz del folk.
- Fiuza, A. F. (2006). *Entre um samba e um fado: a censura e a repressão aos músicos no Brasil e em Portugal nas décadas de 1960 e 1970*. [Doktorego tesia, Universidade Estadual Paulista, Faculdade de Ciências e Letras de Assis].
<https://repositorio.unesp.br/handle/11449/103161>
- Fiuza, A. F. (2012). La censura musical en las décadas de 1960 y 1970 durante la Dictadura Franquista: un examen de la documentación del MIT. In Ibarra, A. (Ed.) *No es país para jóvenes*. Instituto Valentín Foronda. 43-59 or.

- Foley, J.M. (2002). *How to read an oral poem*. University of Illinois Press.
- Foley, J. M. (2007). Basque oral poetry championship. *Oral Tradition*, 22(2). 3-11 or.
- Foucault, M. (2007). *Historia de la sexualidad. 1 La voluntad del saber*. Siglo XXI editores.
- Frenzel, E. (2003). Nuevos métodos en una antigua rama de la investigación: dos décadas de investigación sobre stoffe, motivos y temas. In Naupert, C. (Ed.), *Tematología y comparatismo literario*. Gredos. 27-52 or.
- Galardi, X; Arrieta, M.; Lete, X. (2007). *Heriotza bizi*. Erljio eta Kultura Foroa.
- Gandara, A. (2018). Zentsura eta errealitate sinbolikoa: oinarri teoriko eta euskal adibide zenbait. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 2(63), 671-694 or.
- Gartzia, S. (2016). *Hamaika euskal literato eta Jainkoa*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Gartzia, S. (2020/12/30). Mesedez, ez mutilatu Xabier. *Berria egunkaria*. <https://www.berria.eus/paperekoa/1876/016/001/2020-12-30/mesedez-ez-mutilatu-x-abier.htm>
- Garzia, Joxerra. (1991/02/10). Min bizi bizia. *Euskaldunon Egunkaria*. <https://www.berria.eus/hemeroteka/egunkaria/?u=1991&h=02&e=10&bilatu=alea&orridata=19910210&ikusi=25>
- Garzia Joxerra (1998). Texto, contexto y situación en la poética de los bertsolaris. In Zenbait autore. *Encuentro Iberoamericano De La Decima*. 429-437 or.
- Garzia, Joxerra. (1999). *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea].
- Garzia, Joxerra; Sarasua, J.; Egaña, A. (2001). *El arte del bertsolarismo: realidad y claves de la improvisación oral vasca*. Bertsolari liburuak.

- Garzia, Joxerra (2006). Retórica y comunicación. In Lopetegui, G; Muñoz, M; Redondo, E. (Ed.) *Retórica y comunicación, fuentes antiguas y usos actuales*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 129-139 or.
- Garzia, Joxerra. (2007). History of Improvised Bertsolaritza: A Proposal. *Oral Tradition* 22(2). 77-115 or.
- Garzia, Joxerra (2008). *Jendaurrean Hizlari*. Alberdania.
- Garzia, Joxerra. (2021). *Bertsolaritza. Bertsolarismo*. Etxepare Euskal Institutua. https://www.etxepare.eus/media/uploads/cultura/categorias/relacionados/basque_bertsolaritza_eus_cas_compressed.pdf
- Garzia, Juan. (1997). *Txirritaren baratzea*. Alberdania.
- Gereñu, I. (2018). Teatroaren mututzea XX. mendean. Frankismoaren eta zentsuraren eragina euskal teatroaren bilakaeran. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 63(2). 731-763 or.
- Gereñu, I. (2020). La supresión en el teatro vasco. La censura franquista en la evolución de un teatro de identidad del siglo XX. In Olaziregi, M. J. eta Otaegi, L. (Ed.) *Censura y literatura. Memorias contestadas*. Peter Lang. 63-80 or.
- Giddens, A. (1999) *La transformación de la intimidad*. Cátedra.
- Gintsburg, S. (2017). It's got some meaning but I am not sure...: The role of the particle (wa)-ma in the oral and transitional poetry of the Jbala (northern Morocco) from the cognitive perspective. *Pragmatics and cognition*, 24(3). 474-495 or.
- Gintsburg, S. (2019). Lost in dictation. A cognitive approach to oral poetry: Frames, scripts and 'unnecessary' words in the Jebli ayyu. *Language & Communication*, 64. 104-115 or.
- Goikoetxea, J. (2011) Xabier Lete eta Hernani. *Hernani urtekaria*, 18.106-113 or. [Online](#).
- Goikoetxea, J. (2020). Hesia urraturik [Ikuskizuna]. Azarna.

- Goikoetxea, J. (2021). Hesia urraturik [Dokumentu argitaragabea].
- Gonzalez, I. (2020). *Ni naiz Lete* [Dokumentala]. Baleuko.
- Guerrero, G. (1998). *Teorías de la lírica*. Fondo de Cultura Económica.
- Guillén, C. (2001). *Entre el saber y el conocer. Moradas del estudio literario*. Fundación Jorge Guillén. [Online](#).
- Gurrutxaga, Alex (2006). Bernardo Atxaga. Notas para un diálogo poético, Bernardo Atxaga y Xabier Lete. *Caravansari*, 6. 86-89 or. http://www.caravansari.com/caravansari_numero_6.pdf
- Gurrutxaga, Alex (2020a). *Xabier leteren poetika: aldaeren azterketa eta bilakabidearen irakurketa bat*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Artxibo digitalak ikerketa irakaskuntza (ADDI). https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/47863/TESIS_GURRUTXAGA_MUXIKA_ALEXANDER.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Gurrutxaga, Alex (2020b). *Xabier Lete. Aberriaren poeta kantaria*. Alberdania.
- Gurrutxaga, A. (2021). Ihesa zilegi balitz: Xabier Lete eta trantsizioko poetikak. *Jakin*, 242. 71-88 or.
- Gurrutxaga, Amagoia (2020/12/26). Izar eta ezin. *Berria egunkaria*. <https://www.berria.eus/paperekoa/2009/022/001/2020-12-26/izar-eta-ezin.htm>
- Haranburu-Altuna, L. (1971/03/14) Baga, biga, higa... nigan. *Zeruko Argia*, 419. 6 or.
- Hernandez, M. (2016). *Airearen isila*. Elkar.
- Heinrich, D. (1972). Hegel and Hölderlin. *Idealistic studies*, 2(2). 151-173 or.
- Hölderlin, F. (2001). *Hyperion*. Erein.

Ibargutxi, F. (2016/09/07). Gora Txirrita! Behera Txirrita!. *El Diario Vasco*. <https://www.diariovasco.com/culturas/201609/07/gora-txirrita-behera-txirrita-20160907000929-v.html>

Ibarluzea, M. (2020). Censura, traducción e ideología: líneas de investigación en el ámbito de los estudios vascos. In Olaziregi, M. J. eta Otaegi, L. (Ed.) *Censura y literatura. Memorias contestadas*. Peter Lang. 337-360 or.

Ibarzabal, E. (1977). *Koldo Mitxelena*. Erein.

Ibarzabal, E. (2016). *Días de ilusión y vértigo 1977-1987*. Erein.

Ibarzabal, E. (2020). *Xabier Lete, de un tiempo, un país*. Erein.

Igerabide, J. K. (1998). Dos estilos opuestos para una misma música: Mikel Lasa y Xabier Lete. *Ínsula*, 586. 21-22 or.

Iraola, A. (2004/03/31). Pagoarteren organo kontzertua. *Oarsoaldeko Hitza*. 2-4 or.

Iraola, I. (2013). *Euskal nazionalismoaren diskurtsoa gaur egungo immigrazioaren aurrean*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Artxibo digitalak ikerketa irakaskuntza (ADDI). <https://addi.ehu.es/handle/10810/12457?locale-attribute=eu>

Irazabal, J. (2021). *Plagioaren auzia Xabier Aldairen Bazterrekoak liburuan*. [Gradu amaierako lana, Euskal Herriko Unibertsitatea (argitaragabea)].

Irigaray, J. A. (2001). *XX. mendeko poesia kaierak*. Jose Anjel Irigaray. Susa.

Irigaray, J. A. (2010a). Xabier Lete oroitzen. *Euskera aldizkaria*, 55(3). 1507-1512 or. [Online](#).

Irigaray, J. A. (2010b). Egunsentiaren esku izoztuak eta Xabier Leteren poetika. Zenbait iruzkin. *Egan*, 1-2. 89-107 or.

Irigaray, J. A.; Otaegi, L.; Garzia, J.; Valverde, A. eta Mendiguren, X. (2011). Xabier Lete: sortuz ta sortuz gure aukera. *Hegats*, 47. 11-60 or. [Online](#).

- Irigaray, J.A. (2011). Xabier Lete, lore gorrien arteko poetika. *Hegats*, 47. 11-23 or.
- Iriondo, J. M. (d.g) Ez Dok Amairu. Zenbait iritzi. [Dokumentu argitaragabea].
- Iriondo, J.M. (2006). *Lourdes Iriondo. Bidegileak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Iriondo, L. (2006) *Antologia* [Diskoa]. Elkar.
- Iturbide, A. (2000). *B. Gandiaga, J. A. Artze eta X. Leteren poemagintza. Poesia tradizionalaren bidetik*. Erein.
- “Iturrixar” (1968/08/25). Euskal abeslari berriari buruz. *Zeruko Argia*, 286-287. 7 or.
- Izagirre, K.; Lertxundi, A.; Lete, X.; Saizarbitoria, R. (2003). *Hitz lau*. Euskal Editoreen Elkarte.
- Izagirre, K. (2017). *Elurra ikusi dut*. Elkar.
- Jelin, E. (2012). *Los trabajos de la memoria*. Instituto de Estudios Peruanos.
- Kamio, A. (2016/03/05). Ez Dok Amairu: Jaio, irauli, hil. *Gara*.
<http://www.naiz.eus/es/actualidad/noticia/20160305/ez-dok-amairu-jaio-irauli-hil>
- Kafka, F. (1979). *Metamorfosis*. Alianza editorial.
- Kavafis, C. (d.g.). *Cien poemas*. Biblioteca Virtual.
https://www.paginadepoesia.com.ar/escritos_pdf/cavafis_100.pdf
- Kerouac, J. (1997). *Los vagabundos del Dharma*. Anagrama.
- Knörr, G. (1974). Araba [Abestia]. *Araba kantari*. Artezi.
- Kortadi, E. (1971/04/04). Folk eta ez dok amairu. *Zeruko Argia*, 422. 7. or.
- Kortazar, J. (1989). *Laberintuaren oroimena*. La Primitiva Casa Baroja.

- Kortazar-Billelabeitia, J. (2018). Gipuzkoako 1936ko “izu urdinaren” bi kasu alderatuta: Beasain eta Arrasate. *Vasconia* 42. 101-138 or.
- Kortazar, J. (2000) *Euskal literaturaren historia txikia*. Erein.
- Kortazar, J. (2003). Artzeren poesiaren pentsakizunaz. *Lapurdum*, 8. 285-328 or. [Online](#).
- Kortazar, J. M. (2004). Xabier Lete mintzo. *Hemen. Erljio gogoetarako aldizkaria*, (z.g.). 1-19 or. <https://vdocuments.es/xabier-lete-errukiaren-poeta.html>
- Kortazar, J. M. (2008). Errukiaren argia. Erljio gaia Xabier Leteren Otoitzen liburuan. *Litterae vasconicae: euskeraren iker atalak*, 10. 167-198 or.
- Labaien, A. M. (1964/01/05). Teatroa pozgarri ala gogaikarri? *Zeruko Argia*, 45. 8 or.
- Labandibar, G. (2019/01/01). Oiartzun, memoriaren leku. *Oiartzungo Udala informatzen*, 87. 26-28 or. https://issuu.com/oartzungoudala/docs/udala_informatzen_87_2
- Larrinaga, J. (2016). *Euskal musika kosmikoak: Euskal musika popularra gizartearen isla eta aldatzailea*. Baga Biga.
- Larzabal, I. (1982) Mendian gora [Abestia]. *Iratze okre geldiak*. IZ.
- Larzabal, I. (1987) Maitiak galdegin zautan [Abestia]. *Joan-etorrian*. Elkar.
- Lazkano, I. (2003). *Ahobizarrik gabe*. Bertsolari liburuak.
- Lekuona, J. (1965) Eliz bat pobrea [Abestia]. *Egia N°1*. Eusko Gaztedi.
- Lekuona, J. (1966/03/01). Euskal musika berri. *Zeruko Argia*, 166. 7 or.
- Lekuona, J. M. (1994). Euskal estrofez. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 39(3), 1187-1219 or.
- Lekuona, J. M. (1998). *Ikaskuntzak Euskal Literaturaz (1974-1996)*. Deustuko Unibertsitatea.
- Lekuona, J. M. (1999). *Oiartzungo kantutegia bertako herri memoriatik*. Mugarri.

- Lekuona, J. M. (2000). *XX. mendeko poesia kaierak*. Juan Mari Lekuona. Susa.
- Lertxundi, A. (2019). *Itzuliz usu begiak*. Alberdania.
- Lertxundi, B. (1970). Ez kanta beltza [Abestia]. *Ez kanta beltza / Ekaitza / Sasi intelektualak*. Herri Gogoa.
- Lete, A. (2015). Niretzat 'andereño' hitzak badu esanahi zabala, xamurra, nortasun propioa duen hitza dela uste dut. *Oiartzungo urtekaria*, 45. 10-24 or.
https://issuu.com/oartzungoudala/docs/2015_urtekaria/10
- Lete-Bergaretxe sendia (d.g.). Milla bederatzireun ogeitamaseian [Bertso-sorta argitaragabea].
- Lete, X. (d.g.a). Abestitzak eta oharrak. Lete-Iriondo funtsa [XLM21].
- Lete, X. (d.g.b). Melankoliaren printzesak [Abesti argitaragabea].
- Lete, X. (1969) Ernesto Gebararen heriotzean itxaropenezko negarra. In Fonet, A. (Ed). *Poemas al Che*. Instituto del Libro.
- Lete, X. (1971). *Udazkenean*. Icharopena.
- Lete, X. (1972). Baroja eta Euskal Herria. In Zenbait autore. *Pio Baroja. Bere ehunurteburuan 1872-1972*. Editorial Mensajero. 29-83 or.
- Lete, X.; Lertxundi, A.; Zelaieta, A. (1974). Xabier Lizardi olerkari eta prosista. *Jakin*, 14. 11-43 or.
- Lete, X. (1974b). *Bigarren poema liburua*. Gero.
- Lete, X. (1976) Ernesto Gebara-ren heriotzean itxaropenezko negarra. In Batló, J. (Ed). *Poemas al Che*. Los libros de la frontera.
- Lete, X eta Iriondo, L. (1976). *Xabier Lete eta Lurdes Iriondo* [Diskoa] Edgisa.
http://artxiboa.badok.eus/fitxategia_ikusi.phpid_fitxategia=2024

- Lete, X. (1977). Kanta berria, erresistentzi abestia. *Jakin aldizkaria*, 4. 16-28 or.
- Lete, X. (1978a). Xabier Leteren elkarrizketa [Elkarrizketatzaile: Joxe Mari Beloki]. *Herri Irratia*.
- Lete, X. (1978b). *Lore bat, Zauri bat*. Herri Gogoa.
- Lete, X (1981). *Urrats desbideratuak*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- Lete, X. (1992/10/02). Xabier Lete 'Izarren hautsa' (1992-10-02) (6'51) [Kontzertua].
<https://www.youtube.com/watch?v=FDAwPWnuREc>
- Lete, X. (1993a/10/26). Goizuetako misiyua [Kontzertua].
https://www.youtube.com/watch?v=0lBBz_HJQFU&t=105s
- Lete, X. (1993b/10/26). Mirestu beza munduak [Kontzertua].
<https://www.youtube.com/watch?v=iAVupzT4yJw>
- Lete, X. (2001). Rainer Maria Rilke: Gizakiaren jainkotasun erbesteratua. (Elkarrizketatzaile: Arantxa Iraola eta Imanol Irigoien). *Pagoarte*, z.g. 23-30 or.
- Lete, X. (2004ko apirila). Xabier Leterekin kontu kontari (Elkarrizketatzaile: Joxe Arregi). *Hemen*, 4.
- Lete, X. (2006). *Abestizak eta Poema Kantatuak*. Elkar.
- Lete, X. (2008a). *Egunsentiaren esku izoztuak*. Alberdania.
- Lete, X. (2008b). Juan Mari Lekuona, maisu eta lagun. In Otaegi. L. (Ed.) *Juan Mari Lekuona Hurbiletik*. Oiartzungo Udala / Euskaltzaindia. 17-33 or.
- Lete, X. (2009/02/20). Xabier Leteren elkarrizketa (Elkarrizketatzaile: Maria Agnès Gorostiague). *Irulegi irratia - Euskal Irratiak*.

- Lete, X. (2010a/12/06) Al final te reconcilias con la humanidad a través del respeto (Elkarrizketatzaile: Jabier Muguruza). *Deia*.
[ps://web.archive.org/web/20101210194652/http://www.deia.com/2010/12/06/ocio-y-cultura/cultura/al-final-te-reconcilias-con-la-humanidad-a-traves-del-respeto](https://web.archive.org/web/20101210194652/http://www.deia.com/2010/12/06/ocio-y-cultura/cultura/al-final-te-reconcilias-con-la-humanidad-a-traves-del-respeto)
- Lete, X. (2011). *(Auto)biografia bat* (Editore: Inazio Mujika). Alberdania.
- Lizardi, X. (1932). Zuaitz etzana. *Biotz-begietan*.
<https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/L/LizardiBiotz014.htm>
- Lopategi, J. (1986/03/23). Erropa zahar hoiekin [Bat-bateko bertsoaldia]. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/g4mc0>
- López, E.; eta López, A. (1991). *La imagen del nacionalismo vasco y de la violencia política en el País Vasco en la prensa Americana (Estados Unidos) y La contracultura en España en la segunda mitad de la década de los 70*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- López, J. L. (1968). *El marxismo como moral*. Alianza Editorial.
- López, M. I. (2008). *El tópico literario: teoría y crítica*. Arco Libros.
- López de Landatxe, F. (2020/12/09). *Gezur eta egia gurea* [Ikuskizuna]. Ttanttaka.
- Lord, A.; eta Bates, A. (1995). *The singer resumes the tale*. Cornell University Press.
- Lujanbio, M. (2001a/11/17). Hirurogeita hiru urtekin [Bat-bateko bertsoaldia]. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/fj08c>
- Lujanbio, M. (2001a/12/16). Kaixo Maialen: zer moduz? [Bat-bateko bertsoaldia]. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/fkdc4>
- Lujanbio, M. (2017/11/01). Trago bat eta beste trago bat [Bat-bateko bertsoaldia]. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/14hrec>

- Madariaga, A (2021/03/4). Oi, Labeguerie, kanta berri. *Berria egunkaria*.
<https://www.berria.eus/paperekoa/2028/028/001/2021-03-04/oi-labeguerie-kanta-berri.htm>
- Maffi, M. (2009). *La cultura Underground*. Casa editrice Odoia.
- Manrique, J. (1907). Coplas por la muerte de su padre. *Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes*.
http://www.cervantesvirtual.com/obra-visor/obra-completa--0/html/ff6c9480-82b1-11df-acc7-002185ce6064_5.html
- Manzo, S. (2004). Francis Bacon: la ciencia entre la historia del hombre y la historia de la naturaleza. *Cronos*, 7(2). 277-346 or.
- Marcuse, H. (1983). *Eros y civilización*. Sarpe.
- Marín, C. (2018). Acerca de las vinculaciones del arte a la ecología. In Albelda, J.; Parreño, J. M.; Marrero, J. M. *Humanidades ambientales*. Catarata.
- Marín, M. (2013). *Los gobernadores civiles del franquismo, 1936-1963: Seis personajes en busca de autor*. Editorial Comares.
- Marina, J. A. (2005). *Ética para náufragos*. Anagrama.
- Markuleta, G. (1992/09/09). Erromes nekatuaren salmoak. *El Diario Vasco*.
<https://kritikak.armiarma.eus/?p=7344>
- Markuleta, G. (1992/12/09). Xabier Lete erromesaren otoitz liburua. *El Diario Vasco*.
<https://kritikak.armiarma.eus/?p=7345>
- Markuleta, G. (2014). *Poeta katalan garaikideak*. Elkar.
- Martin, M. (1977/12/14) Kantaldi en Portobello. *Punto y hora*. 65 or.
- Martin-Etxebeste, J. (2004/04/02). Pagoarteren organo kontzerturako prest daude artistak. *Oarsoaldeko Hitza*. 5 or.

- Martin-Etxebeste, J. (2017). La nueva canción vasca, Ez Dok Amairu, o el arte de esquivar la censura. In Moitio, I.; Nuñez, A. T. (Koor.) *Memorias de guerra. Proyectos de paz*. Gernika- Lumoko historia bilduma. 103-114 or.
https://issuu.com/museodelapazdegernika/docs/memorias_en_red/105
- Martin-Etxebeste, J. (2018). Xabier Lete: XL bihotz bat. *Oiartzungo urtekaria*, 48. 66 or.
https://issuu.com/oartzungoudala/docs/oartzun_2018_baja_326812937a8c1f
- Martin-Etxebeste, J. (2020). El día en que Pete Seeger cantó en Donostia. In Kortazar, J. (Ed.) *Bridge*. Iberoamericana-Vervuet. 357-371 or.
- Martin-Etxebeste, J. (2020). El espacio de las mujeres en el bertsolarismo. In Jodrá, S. eta Benito del Valle, A. (Ed.) *Arte, literatura y feminismos*. Iberoamericana-Veruert.191-224 or.
- Mata, C. (2001). Unamuno, del ensayo a la novela filosófica: La agonía del cristianismo y San Manuel Bueno, mártir. *Hispanica Polonorum*, 3. 121-130 or.
- Maureira, F. (2009). Amor y adicción: comparación de las características neurales y conductuales. *Revista Chilena de Neuropsicología*, 4. 84-90 or.
- McCartney P.; eta Lennon, J. (1968). Obladi Oblada [Abestia]. *The Beatles*. Northern Songs.
- Mendizabal, A. (d.g.) *Azken hamarkadetako euskal kantarien prosodia musikalaz, ene oharmenaren leihatilatik*. [Master Amaierako lan argitarabea, Mondragon Unibertsitatea].
- Miguel, I. (2017/04/22). Los viejos tuneros del barrio. *El Diario Vasco*.
<https://www.diariovasco.com/san-sebastian/201704/22/viejostunerosbarrio20170422003842-v.html>
- Moeller, Ch. (1964). *Literatura del Siglo XX y Cristianismo IV. La esperanza en Dios nuestro padre*. Editorial Gredos.
- Motta, G. (1974). Cançó Dels Vells Amants [Abestia]. *Cançons Que Estimo Per a la Gent Que Estimo*. Edigsa.

- Mujika, I. (2012). *Xabier Lete Bergaretxe. Zuekin nago kantatzen 1944-2010 Bidegileak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Muruaga, B. (1991). Xabier Lete, bere baitan ibiltari. *Plazara*, 18. 19-24 or.
- Naupert, C. Tematología y comparatismo literario, ¿un matrimonio de conveniencia? In Naupert, C. (Ed.), *Tematología y comparatismo literario*. Gredos. 9-24.
- Oiarbide, N. (2005/10/02). Ez dakit Ez Dok Amairuren historia osoa inork idatziko duen (Elkarrizketazaile: Miel Anjel Elustondo). *Argia*.
<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2009/nekane-oiarbide-ez-dakit-ez-dok-amairur-en-historia-osea-inork-idatziko-duen>
- Olaziregi, M. J. (2000). Begirada eta oroimena mundua erromantizatzeke. Ramon Saizarbitoriaren nobelagintza. *Egan*, 1-2. 121-147 or.
- Oñatibia, J. (1966/03/20). Folklore ta kanta berriak (II) Kanta berrien ondorenak. *Zeruko Argia*, 160. 12 or.
- Ordoqui, M. (1971/05/30). Ez dok Amairu, un espectáculo intolerable. *El pensamiento Navarro*. <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFFondo/irujo/2955.pdf>
- Ornoz, B. (2011). *Josanton Artze "Harzabal": inguruaren eragina poesiagintzan (1969-1979)*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Artxibo Digitala Ikerketa Irakaskuntza (ADDI).
<https://addi.ehu.es/handle/10810/10801?locale-attribute=eu>
- Osa, E.; eta Aierdi, X. (2009). Immigrazio berria, hizkuntza arazo berririk? *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 54 (3). 1433-1452 or.
- Otaegi, L. (d. g.). Bigarren poema liburua (1974). *Euskal Literaturaren Hiztegia*.
<https://www.ehu.eus/ehg/literatura/?p=180>
- Otaegi, L. (2004). "Izarren hautsa (Xabier Lete, 1974)". *Egan*, 2. 71-88 or. [Online](#).

- Otaegi, L. (2007). Xabier Lete: Materia Estelar. In Sabadell-Nietoo, J. (Koor.) Kortazar, J.; Fraga, L. eta Paz Gago, J. M (Ed.) *Cien años de poesía. 53 poemas en catalán, gallego y vasco: estructuras poéticas, pautas críticas*. Peter Lang. 521-534 or. [Online](#).
- Otaegi, L. (2009) Biziaren ikurrak (1992) In Kortazar, J. (Ed.) *Eguno euskal poesiaren historia*. Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua. 137-146 or.
- Otaegi, L. (2012). Modern Basque Poetry In Olaziregi, M. J. *Basque Literary History*. Center for Basque Studies. 521-535 or. [Online](#).
- Otaegi, L. (2015). Mikel Laboaren Lekeitioak: esanezina oihu bilakatua. In Arroita, I. eta Otaegi, L. (Ed.) *Oroimenaren lekuak eta lekukoak*. EHUko Argitalpen Zerbitzua. 147-170.
- Otaegi, L. (2020). La poesía de Gabriel Aresti ante la censura: códigos de expresión para tiempos de silencio. In Olaziregi, M. J. eta Otaegi, L. (Ed.) *Censura y literatura. Memorias contestadas*. Peter Lang. 241-263 or.
- Otaegi, L. (2007). Xabier Lete: Materia Estelar. In Sabadell-Nietoo, J. (Koor.) Kortazar, J.; Fraga, L. eta Paz Gago, J. M (Ed.) *Cien años de poesía. 53 poemas en catalán, gallego y vasco: estructuras poéticas, pautas críticas*. Peter Lang. 521-534 or. [Online](#).
- Otaegi, L. (2009). Biziaren ikurrak (1992) In Kortazar, J. (Ed.) *Eguno euskal poesiaren historia*. Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua. 137-146 or.
- Otegi, A.; Imaz, O.; Díaz de Ilarraza, A.; Iruskieta, M.; Uria, L. (2017). Analhitza: a tool to extract linguistic information from large corpora in Humanities research. *Procesamiento del Lenguaje Natural*, 58. 77-84 or.

Oteiza, J. (1977/02/03). Entrevista con Oteiza (Elkarrizketatzaile: Xabier Lete). *Garaia*, 23. 26-35 or.

<https://www.pamiela.com/index.php/56-prensa/hemeroteca/448-2009-entrevista-a-oteiza-de-xabier-lete>

Oteiza, J.; Goikoetxea, T.; Idarreta, S.; Lete, X.; Uriarte, E.; Munarriz, J.; Merino, J. L.; Rincón, L.; Agirre, J.; Artze, J. A.; Zabaleta, Y.; Ojembarrena, E.; Ertzilla, M.; Sanchez, M. Garitaonaindia, K.; Irigoien, R.; Lasa, A.; Egillor, J. C.; Zabaleta, P.; Legasse... (1978). 21. Hordago.

Oteiza, J. (1994). *Quousque tandem...!* Pamiela.

Otxoa de Alaiza, J.; Gurrutxaga, Alex (2021). Xabier leteren kantagintza: bertsioak eta bilakabidea aztergai. *Riev aldizkaria*, 67(1). [Artikulu argitaragabea].

Oyarzun, P. (2000) Lo trágico, de Hölderlin a Nietzsche. *Revista de filosofía*, 55-56(1). 137-156 or.

Págan, C.; Antovi, M., (2016). Formulaic creativity: oral poetics and cognitive grammar. *Language & Communication*, 47. 66-74 or.

Palacios, José. (2005). *Verrà la morte e avrà i tuoi occhi / Vendrá la muerte y tendrá tus ojos*. Ediciones Perdidas.

Parra, A. (2016). *Mi nueva canción chilena. Al pueblo lo que es del pueblo*. Editorial Catalonia.

Parry, M. (1930). Studies in the epic technique of oral verse-making. I. Homer and Homeric style. *Harvard Studies in Classical Philology*, 41. 73-147 or.

Paya, X. (2013). *Ahozko Euskal Literaturaren Antologia*. Etxepare Euskal Institutua.

Peñagarikano, A. M. (2003). Jon Maia ezagutzen dut [Bat-bateko bertsoaldia]. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/et730>

- Perelman, Ch; eta Olbrecht, L. (1989). *Tratado de la argumentación. La nueva retórica*. Editorial Gredos.
- Perez, A. (2016/09/13). Elizatik urrun, tabernatik gertu. *Berria egunkaria*. https://www.berria.eus/paperekoa/1860/032/001/2016-09-13/elizatik_urrun_tabernatik_gertu.htm
- Perez-Gaztelu, E. eta Saez de Eguilaz, H. (2020). *Zerbitzuko lanean. Lete kazetari, Lete prosagile*. Mugarri.
- Piulats, O. (1999). Identidad y diferencia en la filosofía de la unificación de Hölderlin. *Identidad humana y fin de milenio. Thémata*, 23. 477-486 or. [Online](#).
- Pujante, D. (2006). Sobre un nuevo marco teórico metodológico apropiado a la actual temalogía comparatista en España. *Hispanic Horizon*, 25. 82-115 or.
- Pujante, D. (2017). *Eros y Tánatos en la cultura occidental. Un estudio de temalogía comparatista*. Calambur.
- “Raimon” Pelegero, R. (1966). Cançó del capvespre [Abestia]. *Cançons de la roda del temps*. Edigsa.
- “Raimon” Pelegero, R. (1967). Pais basc [Abestia]. *Raimon*. Edigsa.
- Ramírez, J. R. (2006). Música y sociedad: la preferencia musical como base de la identidad social. *Sociológica*, 60. 243-270 or.
- Rivas, M. (2011/12/01). Personajes: Xabier Lete. *Antzina*, 12. 60-66 or. http://www.antzinako.org/Revistas/Antzina_12.pdf
- Rodriguez, S. (1980). Fábula de los tres hermanos [Abestia]. *Rabo de nube*. EGREM.
- Rojo, J. (2016/12/30). Amodioaren inguruan. *El Diario Vasco*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=7058>

- Roman, G. (2015). *El deseo nacional: la gramática del surgimiento de los sujetos nacionales*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Artxibo digitalak ikerketa irakaskuntza (ADDI). <https://addi.ehu.es/handle/10810/16196>
- Roszak, Th. (1976). *El nacimiento de una contracultura*. Kairos.
- Ruiz de Azua, V. (1980/08/06) La canción vasca, entre el abandono oficial y la indiferencia del público. *El País*.
https://elpais.com/diario/1980/08/06/cultura/334360808_850215.html
- Salaberria, G. (2010). Otea ekartzera basora. *Ahotsak*.
<https://ahotsak.eus/lezo/pasarteak/lez-037-002/>
- San Martin, J. (1966). Lete ta Sarasola. Beste bi olerkari gazte gaurkotasunez beterik. *Jakin*, 22. 63-74 or. [Online](#).
- San Sebastian, X. (2020). *Loreak eta zauriak* [Ikuskizuna]. Alive Musika.
- Sanchez, M. (1993). Leteren poetika. In Aristondo, I. et al. (Ed.) *Gaurko poesia*. Labayru. 95-127 or.
- Sarasola, B. (2015). *Bainaren belaunaldia*. Labayru.
- Sarasola, I. (1977). Egoerak eraginda literato (Elkarrizketatzaile: Elixabete Garmendia) *Argia*. 19-22 or. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/766/egoerak-eraginda-literato>
- Sarrionandia, J. (2010). *Moroak gara behelaino artean?* Pamiela.
- Seeger, P. (1971). Pete Seegerri elkarrizketa (Elkarrizketatzaile: Jose Mari Iriondo). *Herri Irratia*.
- Setien, J. M. (2010). Xabier Lete: Jose Mari Setien gotzaiaren homilia bere hiletan. *Arratia pastoral barrutia*.
<http://arratiaeliza.blogspot.com/2010/12/xabier-lete-jose-mari-setien-gotzaiaren.html>

- Shea, D. (2001). “Lodo por la patria”. *Estudio cultural de la canción comprometida en Bárbada Dane y Luis Eduardo Aute*. [Doktorego tesia, Universidad de las Palmas de Gran Canaria]. <https://accedacris.ulpgc.es/handle/10553/19721>
- Sinadura gabe (1966/01/30). Euskal kanta berriak aidean. *Zeruko Argia*, 153. 7 or.
- Sinadura gabe (1966/03/09). Música moderna en vascuence. *La Voz de España*, 9067. 10 or.
- Sinadura gabe (2006). *Lourdes Iriondo 1937-2005 Urnietako herriaren oroimenean*. Urnietako Udala. [Online](#).
- Sollors, W. (2003). La tematología hoy. In Naupert, C. (Ed.), *Tematología y comparatismo literario*. Gredos. 53-85 or.
- Stenberg, R. (1986). A triangular theory of love. *Psychological Review*, 93(2). 119-135 or.
- Thompson, E. P (1979). *Tradición, revuelta y consciencia de clase*. Editorial Crítica. [Online](#).
- Tomé, M. (1986) ¿Qué es la mitocrítica. *Estudios Humanísticos. Filología*, 8. 133-143 or.
- Torrealdai, J. M. (1999). Zentsurak basamortu kulturala ekarri zuen (Elkarrizketatzaile: Ainhoa Irazu). *Euskonews&Media*, 37.
<http://www.euskonews.com/0037zbk/frelkar.htm>
- Torrego, L. (1999). *Canción de Autor y educación popular (1960-1980)*. Ediciones de la Torre.
- Tosel, A. (2008). The Development of Marxism: From the End of Marxism-Leninism to a Thousand Marxisms – France-Italy, 1975–2005. In Bidet, J.; eta Kouvelakis, S. (Ed.) *Critical Companion to Contemporary Marxism*. Brill.
- Trousseau, R. (1965). *Une problème de littérature comparée: les études de thése*. Essai de méthodologie. M.J. Minard.
- “Txillardegui”, J. L. Alvarez (1968/09/22). Olerkari gazte bat: Xabier Lete. *Zeruko Argia*, 290. 7 or.

- Urien, A. (2020). *Poesia zurien ukendu. Xabier Leteren arrastoan*. Pamiela.
- Urkiza, A. (2021). *Garen hori*. Elkar.
- Urkizu, P. (2021). Idazki, kantu eta psalmu. Patriurkizu.eus.
<https://patriurkizu.eus/wp-content/uploads/2021/03/Idazki-kantu-eta-psalmu.pdf>
- Urretabizkaia, A. (2002) Abertzaletasuna, nik ulertzen dudana moduan, bukatua dago, nazionalismoak irentsi du. *Hermes*, 4. 42-49 or.
- Urrotz, K. (1968/08/25). Ez Dok Amairu Disko berriak. *Zeruko Argia*, 286-287. 7 or.
- “Uztapide” Olaizola, M. (1962/12/30). Hauxe da lan polita [Bat-bateko bertsoaldia]. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/glgghs>
- Velasco, F. (2007). La Nueva Canción Latinoamericana. Notas sobre su origen y definición. Presente y pasado. *Revista de Historia*, 12(23). 139-153 or.
- Vernik, E. (2018). Sobre las identidades sociales: clase, etnia y nación. Del encuentro de Max Weber con W. E. B. Du Bois. In Zenbait autore. *Actualidad de la nación. Materia y memoria de la vida popular*. Ediciones UNGS. 19-35 or.
- White, Linda. (2005). Formulas in the Mind: A Preliminary Examination to Determine if Oral Formulaic Theory May Be Applied to the Basque Case. In Armistead, S. G. eta Zulaika, J. (Ed.) *Voicing the Moment: Improvised Oral Poetry and Basque Tradition*. University of Nevada Press. 1247-1263 or.
- “Xalbador” Aire, F. (1976). *Odolaren mintzoa*. Auspoa.
- “Xenpelar” Petriarena, J. F. (d.g.a). Iparragirre abila dela [Bertso jarriak]. *Bertsolaritzaren Datu Basea*.
<https://bdb.bertsozale.eus/es/web/doinutegia/view/2146-iparragirre-abila-dela-gure-etxeko-neskatua>
- “Xenpelar” Petriarena, J. F. (d.g.b). Ia gureak egin du [Bertso jarriak]. *Bertsolaritzaren Datu Basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/doinutegia/view/2142-ia-gureak-egin-du>

- Zabala, A. (1968). *Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak*. Auspoa
- Zabala, A. (1985). *Esaera zaarren bilduma berria*. Auspoa.
https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/auspoa/10985.pdf
- Zabala, A. (1992). *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*. Auspoa.
- Zabala, J. (2019/12/12) Hertzainak: abestien sorbururainoko bidaia (Elkarrizketatzaile: Iñigo Astiz). *Berria egunkaria*.
- Zabala, J. L. (2004/03/31). Musika, hitza, otoitza. *Berria egunkaria*. 3. or.
- Zabala, J. L. (2020). *Xabier Lete Ni naiz. Antologia*. Elkar.
- Zarraua, E. (1991). Xabier Lete: Mirando atrás. *Zurgai*, 31. 40-41 or
- Zelaieta, A. (1986). Gabriel Aresti eta Xabier Lete, poeta sozialak?. *Jakin*, 40. 129-136 or.
- Zelaieta, A. (2000) *Gabriel Aresti (biografia)*. Susa.
<http://www.susa-literatura.eus/liburuak/best1058>
- Zenbait autore (1980/05/27). Manifiesto de intelectuales y artistas vascos contra la violencia. *La Gaceta del Norte*. 24-25 or.
- Zenbait autore (2009). *Isiltzen ez den isiltasuna*. Mugarri bilduma.
- Zenbait autore (2015). Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Lanku argitalpen zerbitzuak.
- Zenbait autore (2017). Bertsolaritzako epai irizpideak. *Bertsozale.eus*.
<https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/informazioa/epai-irizpideak>
- Zenbait autore (2020). *Urrats urratuak*. Balea Zuria.
- Zubia, F. (2010) Ez nau izutzen, esan zenigun [Bertso-jarriak]. *Arratia pastoral barrutia*.
<http://arratiaeliza.blogspot.com/2010/12/xabier-lete-jose-mari-setien-gotzaiaren.html>

Figurak eta taulak

Figurak

- 1) Figura: Xabier Leteren familiaren genealogia
- 2) Figura: Leteren lehen etxea
- 3) Figura: Leteren bigarren etxea
- 4) Figura: Elizalde auzoko ohiko guneak
- 5) Figura: Lete, 1960an, Tarragonan
- 6) Figura: Lete Tarragonako unibertsitateako otxotean kantari
- 7) Figura: Lete, gitarra lagun, 1967an
- 8) Figura: Leteren lagunak
- 9) Figura: Julian Lekuona, Iriondo, Leteren osaba eta Lete bera
- 10) Figura: Lete soldaduskan
- 11) Figura: Lete, Nafarroan
- 12) Figura: Xabier Leteren zenbait disko
- 13)
- 14) Figura: Joxean Goikoetxea eta Xabier Lete
- 15) Figura: Lete, Lartaun antzerki taldeko antzezpen batean
- 16) Figura: korpusean gehien aipatzen diren izenak
- 17) Figura: korpusean gehien aipatzen diren izenondoak
- 18) Figura: Lourdes eta Xabier gaztetan eta urte batzuk beranduago
- 19) Figura: Iraola, Imanol Irigoien eta Lete
- 20) Figura: Atxaga eta Lete
- 21) Figura: Lete, Aiako Harria atzean duela
- 22) Figura: Lete Urnietako etxeko lorategian (1999)
- 23) Figura: Lete bere lorategian (1998)
- 24) Figura: Lete-Bergaretxe familia
- 25) Figura: Xabier Lete
- 26) Figura: Benito Lertxundi eta Xabier Lete
- 27) Figura: Doinu hautaketarekin zerikusia duten faktoreak
- 28) Figura: Ahozkotasunaren eragina diskoz disko
- 29) Figura: Ahozkotasunaren eragina diskoz disko
- 30) Figura: Idoia Beratarbidek hasitako murala
- 31) Figura: Maitasuna gai hartuta idatzi zituen kantak.
- 32) Figura: Nazioarteko gaiak, langileriarri buruzkoak eta aberriari buruzkoak
- 33) Figura: Nazioarteko gaiak, langileriarri buruzkoak eta aberriari buruzkoak.

Taulak

- 1) Taula: Lete ardatz duten ikerlanen laburpena
- 2) Taula: Maitasun abestien azpisailkapena
- 3) Taula: Heriotza soilik edo Eros eta Tanatos
- 4) Taula: Nortasunari buruz diharduten kanten sailkapen tematikoa
- 5) Taula: Bertso doinuen izendapena
- 6) Taula: Bertso doinuen adibideak
- 7) Taula: Hautatutako 40 kantik, errimaren kalitatearen arabera sailkatuak.
- 8) Taula: Bertsolaritzako metrikak eta Leteren kantik
- 9) Taula: Ahozkotasun baxueneko kanten konposatzaileak